

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Juntadura eta elipsia euskaraz

Egilea: IÑAKI AMUNDARAIN ARANA

Urtea: 1998

Zuzendaria: PATXI GOENAGA MENDIZABAL

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-306-2

Hitzaurrea

Tesia 1991 eta 1997 artean egin zen, eta euskararen gramatikari buruzko ikerketen tradizioan kokatu behar da. Nagusiki deskribapen-lana da: koordinazioari eta elipsiari dagozkion kontuak euskaraz nola gertatzen diren azaldu nahi du, eta horretarako tradizioko testuen azterketa ere egiten da. Baina deskribapen-lan hori egiteko, hizkuntzalaritza orokorren eta bereziki gramatika sortzailearen ikuspegitik egindako proposamenak hartu dira erreferentzia modura: teoria sintaktikoaren proposamenak eta arazoak euskaraz nola gertatzen diren aztertu, eta puntu horien gainean zer argi eman dezakeen begiratu.

Nagusiki deskribapen-lana izanik, agertzen diren puntuetako asko baliagarri dira gaur egun ere; alor teorikoari buruzko aipamenetan egokitzapenak egin beharko lirateke.

Une honetan bigarren hezkuntzako irakaskuntzan ari naiz, baina Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeko kide ere banaiz, eta alde horretatik, euskal gramatikaren mundua jarraitzen dut.

Iñaki Amundarain Arana
2010

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
ESKERRONAK	5
HITZAURREA	7
1. JUNTADURAKO BALDINTZAK	9
1.0. Sarrera	9
1.1. Baldintza-mota desberdinak	11
1.2. Sintaktikoak ez diren baldintzak	12
1.2.0. Sarrera	12
1.2.1. Lakoff-en Gai Amankomuna	14
1.2.1.1. Gai Amankomunaren formulazioaz	16
1.2.1.1.1. Tato (1977).....	16
1.2.1.1.2. Serra (1984)	19
1.2.1.2. Gai Amankomunaren kontzeptuaz	19
1.2.2. Lang (1984): Juntaduraren semantika	21
1.2.3. Juntadurako baldintzak: semantika eta pragmatika	24
1.2.3.1. Perpaus-atalak	24
1.2.3.2. Perpausak	26
1.3. Baldintza sintaktikoak	28
1.3.0. Sarrera	28
1.3.1. GPSG: Osoki espezifikatu gabeko kategoriak	30
1.3.2. Gramatika lexiko-funtzionala	33
1.3.3. Franchini (1986).....	34
1.3.4. Printzipioen eta Parametroen modelua	36
1.3.5. Katgoria heterofuntzionalen juntadura	39
1.3.5.0. Sarrera	39
1.3.5.1. Zenbaterainoko berdintasuna?	39
1.3.5.2. Heterofuntzionalak juntaturik	43
1.3.5.2.0. Sarrera	43
1.3.5.2.1. Baldintzak: Grosu-ren analisisa	45
1.3.5.2.2. Katgoria heterofuntzionalen juntadura euskaraz	50
1.3.5.2.3. Ondorioak	52
2. PERPAUS-JUNTADURETAKO ELIPSIK	55
2.0. Sarrera	55
2.1. Hustuketa.....	56

2.1.0. Sarrera	56
2.1.1. Hustuketa euskaraz: zenbait lan	60
2.1.1.1. Gastañaga (1977)	60
2.1.1.2. Salaberri (1985).....	61
2.1.1.3. Eguzkitza (1986).....	62
2.1.1.4. Artiagoitia (1995).....	63
2.2. Aurreranzko hustuketa	65
2.2.0. Sarrera	65
2.2.1. Hustuketaren analisiak	65
2.2.1.1. Gramatika sortzailearen lehen urteak	65
2.2.1.2. GPSG	68
2.2.1.3. Osagaien juntadura	70
2.2.1.4. Ezabaketa eta ordena lineala: van Oirsouw (1987).....	73
2.2.1.5. Analisi interpretatiboak: Brucart (1987)	74
2.2.1.6. Hiru dimentsiotako analisiak	74
2.2.1.7. Gramatika kategorialak	79
2.2.1.8. Dependentsien gramatikak: Hudson (1989).....	81
2.2.1.9. Hustuketa eta egitura kontzeptuala: Nishioka (1992)	83
2.2.2. Berdintasunaren nozioa	83
2.2.3. Ezaugarri sintaktikoak.....	89
2.2.3.0. Sarrera	89
2.2.3.1. Zer perpaus motatan?	91
2.2.3.2. Perpaus-gramatikakoa ala diskurtso-mailakoa?	95
2.2.3.3. Paralelismoa	99
2.2.3.3.0. Sarrera	99
2.2.3.3.1. Elementu gehigarriak	101
2.2.3.3.2. Katgoria desberdinekoak.....	103
2.2.3.3.3. Ondorioak	105
2.2.3.4. Aditzondoak	106
2.2.3.5. Ezeztapena	108
2.2.3.5.0. Sarrera	108
2.2.3.5.1. Ezeztapenaren egitura pragmatikoa	110
2.2.3.5.2. Laburpena	115
2.2.3.6. Hondakinak	115
2.2.3.6.1. Zein eta zenbat?	116
2.2.3.6.2. Nolako hondakinak?	120
2.2.3.7. Anbiguotasuna	127
2.2.3.7.0. Sarrera	127
2.2.3.7.1. Sintaxiaren eskakizunak.....	131
2.2.3.7.2. Bestelako faktoreak	133
2.2.3.7.3. Laburpena	137
2.2.3.8. Aditz sintagmaren ezabaketa?.....	137
2.2.3.8.0. Sarrera	137
2.2.3.8.1. Hondakin bakarra.....	142
2.2.3.8.2. Hondakin bat baino gehiago	146
2.2.3.8.3. Galdegaien aurkaritza	149
2.2.3.9. Laburpena.....	155
2.2.4. Ondorioak	156
2.3. Atzeranzko hustuketa	160
2.3.0. Sarrera	160
2.3.1. Atzeranzko hustuketa eta ezohiko juntadura.....	161
2.3.1.1. Intonazioa	161
2.3.1.2. komunztadura.....	162
2.3.1.3. Ordena.....	165
2.3.2. Ezohiko juntadura	168
2.4. Aditz laguntzailearen ezabaketa	173
2.4.0. Sarrera	173
2.4.1. Deskribapena.....	174
2.4.1.1. Perpaus nagusiak	174
2.4.1.2. Menpeko perpausak	178
2.4.2. Ezaugarri sintaktikoak.....	181

2.3.2.0. Sarrera	181
2.4.2.1. Salaberri (1985).....	182
2.4.2.2. InFlS-k juntaturik.....	185
2.4.2.3. Elipsiaren hautazkotasun eza	188
2.4.2.4. Laguntzailearen elipsia eta mugimendua	191
2.4.3. ALE eta hustuketa	198
2.5. Beste zenbait elipsi.....	200
3. SINTAGMA-JUNTADURETAKO ELIPSIAK	208
3.0. Sarrera	208
3.1. Determinatzaileak eta kasu-markak	210
3.1.0. Sarrera	210
3.1.1. Zenbait azterketa	211
3.1.1.1. de Rijk (1972;1979)	211
3.1.1.2. Goenaga (1980;1991).....	212
3.1.1.3. Salaberri (1985).....	212
3.1.1.4. Ortiz de Urbina (1989).....	215
3.1.1.5. EITB-ren Albistegietarako Eskuliburua (1992)	216
3.1.1.6. Egunkariaren Estilo Liburua (1992).....	216
3.1.1.7. Ondorioak	217
3.1.2. Kasu-marken elipsia.....	217
3.1.2.1. Izen bereziak	218
3.1.2.2. Pertsona izenordainak	218
3.1.2.3. Mugatzailezat artikulua dutenak	221
3.1.2.4. Erakusledunak	226
3.1.2.5. Mugagabekoak	227
3.1.2.6. Posposizioak.....	229
3.1.2.7. Nominalizatutako perpausak	231
3.1.2.8. Ondorioak	232
3.1.2.9. Laburpena.....	238
3.1.3. Determinatzailearen elipsia	239
3.1.3.0. Sarrera	239
3.1.3.1. Mugatzailezat artikulua dutenak	239
3.1.3.2. Mugatzailea erakuslea denean.....	253
3.1.3.3. Mugagabekoak	254
3.1.3.4. Nominalizatutako perpausak	256
3.1.3.5. Ondorioak	258
3.2. Izenaren elipsia.....	263
3.2.0. Sarrera	263
3.2.1. Izenaren elipsia juntaduran	265
3.2.2. Nolako isilunea?.....	268
3.2.2.1. I+izond isilean: hautazko elementuak	269
3.2.2.2. Izlg eta izond isilean: isilunearen osagaitasunaz	273
3.2.2.3. Ondorioak	279
3.2.3. Elipsirako baldintzak.....	279
3.3. Juntadura izen sintagmaren analisisetan	289
3.3.1. Sarrera	289
3.3.2. Bi hurbilketa: Trask (1983) eta Goenaga (1991)	289
3.3.3. Juntadura eta izenlagunak	292
3.3.3.1. Izenlagun besarkatzailea	292
3.3.3.2. Izenlagun isila	295
3.3.3.3. Ondorioak	298
3.3.4. Determinatzaileak eta juntadura.....	298
3.4. Ondorioak.....	303
4. HITZ ERATUEN JUNTADURA ETA ELIPSIA.....	306
4.0. Sarrera	306
4.1. Hitz-eraketa gramatika sortzailean	308
4.1.1. Transformazioak	308
4.1.2. Osagai morfologikoa.....	309

4.1.3. Hitz eraketa syntaxian, FF-n eta FL-n.....	310
4.2. Hitz elkartuak.....	313
4.2.0. Sarrera.....	313
4.2.1. Izen elkartuak.....	315
4.2.1.1. Izen alkartu kopulatioak.....	315
4.2.1.2. Menpekotasunezko izen elkartuak.....	316
4.2.1.2.1. Elkarketa eta hots-aldaketak.....	318
4.2.1.2.2. Lexikalizatutako hitz elkartuak.....	320
4.2.1.2.3. Osagaien arteko erlazioa.....	321
4.2.1.2.4. Emankortasuna eta finkapen lexikoa.....	322
4.2.2. Bestelako hitz elkartuak.....	329
4.2.2.1. Aditzondo elkartuak.....	329
4.2.2.2. Izenondo elkartuak.....	329
4.2.2.3. Aditz elkartuak.....	330
4.2.3. Ondorioak.....	332
4.3. Eratorpena.....	333
4.3.0. Sarrera.....	333
4.3.1. Elipsidunak zein?.....	334
4.3.2. Ondorioak.....	342
4.4. Hitz eraketako elipsiak.....	343
4.4.0. Sarrera.....	343
4.4.1. Kategoria isila: Bosque (1987).....	344
4.4.2. Hitz fonologikoak eta egitura prosodikoa.....	345
4.4.3. Juntadura eta muga morfologikoak.....	348
4.4.4. Euskara, hitz fonologikoak, eta muga morfologikoak.....	349
4.5. Ondorioak.....	353
5. JUNTADURA.....	357
5.0. Sarrera.....	357
5.1. Juntadura eta X-barra teoria.....	351
5.2. Juntagaien asimetrikotasuna.....	362
5.3. Juntagaien askatasuna eta batasuna.....	366
5.4. Juntadura eta osagaitasuna.....	370
5.5. Laburpena.....	379
6. ONDORIOAK.....	382
ERANSKINAK.....	386
BIBLIOGRAFIA.....	409

ESKERRONAK

Horrelako lan luze baten ibilian pertsona askok izaten dute egilearengan eragin mesedegarria, eta urruntasun pixka bat hartu eta atzera begira jartzean batek zalantzak ditu haiek gabe lan hau aurrera eraman ahal izango zen ere. Ezin, bada, nire eskerrona adierazi gabe geratu.

Lehenik, Gasteizko eta Deustuko hizkuntzalaritza mintegietan syntaxiari buruzko gaiak lantzeko bildu izan direnei, hango ekitaldietan hizkuntzalaritzaren ikuspegi osoagoa izaten lagundu didatelako, eta hori bezain garrantzitsua, tesigileok sentitu ohi dugun bakardadea arintzen lagundu didatelako: Xabier Artiagoitia, Andolin Eguzkitza, Beatriz Fernandez, Jon Franco, Rikardo Gomez, Mari Jose Kerejeta, Joseba Lakarra, Alazne Landa, Juan Karlos Odriozola, Javier Ormazabal, Jon Ortiz de Urbina, Koldo Sainz, Miriam Uribe-Etxebarria, Vidal Valmala eta Igone Zabalari.

Eskerrak, baita ere, Rudolf de Rijk-i, Beñat Oihartzabali, Alain Rouveret-i eta Arantzazu Elordietari gai honen inguruko zenbait auzi korapilotsutan egin zizkidaten iradokizunengatik. Adibide bihurriekin zigortu ditudanen artean, nire inkestari erantzun zioten Pello Agirre, Mariola Agirrezabal, Arantxa Etxabe, Aitor Gurrutxaga, Edurne Otegi, Nekane Umerez eta Joxe Mari Urrestarazuri eman nahi nizkieke eskerrak, eta bereziki Arantxa Amundaraini, nire 'hil ala biziko' itaunekin joan natzaion orotan esku artean zuena utzi eta nire zerbitzura jarri delako. Eskerrak, halaber, Doriri, administrazio-paperei dagokienez nirekin izan duen pazientziagatik eta eskaini izan didan laguntzagatik.

Aipamen berezia merezi du Jesus Mari Makazagak, berak beste mila eginkizun zituelarik, corpora erabiltzeko unean eta adibideak lortzeko garaian nire lana berea izan balitz bezalaxe hartu duelako, eta horretan orduak eta orduak pasa dituelako, trukean inolako onurarik gabe.

Bestalde, zorioneko izan naiz tesi-zuzendari modura Patxi Goenaga izatean, berak ardura handiak zituenean niretzat gordetako txoko bat beti izan dudalako, nire

lana gidatzen eta hobetzen bihotz eta buru saiatu delako, eta bereziki tesiari adina arreta edo gehiago tesigileari eskaini diolako.

Azkenik, ezin ahaztu etxeakoak, lanerako eta bizitzarako ahal den ingurunerik atseginena ematen saiatu direnak: oroz gain, nire gurasoak, Joxe Mari Amundarain eta Mari Karmen Arana, eskertu nahi nituzke, beraiek ikasketetarako aukerarik izan ez zutelarik, niri betidanik eman izan didaten laguntza neurrigabekoagatik.

Lan hau egiteko Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileak Gaitzeko Doktore-Aurreko Beka baten laguntza izan nuen.

HITZAURREA

Chomsky-k 1957an osagaitasuna erabakitzeko frogen artean juntadura erabili zuenetik juntaduraren inguruko lan ugari egin da, eta hizkuntzalaritzako korrante desberdinek beren proposamenen egokitasuna erakusteko argudio modura sarritan erabili izan dute. Euskarari buruzko lanetan ere maiz agertzen da egitura baten edo bestearen alde egiteko argudio bezala. Baina orotara juntadurari zer tratamendu eman behar zaion oraindik eztabaida handiak daude. Bestalde, oso hizkuntza gutxitako datuekin egiten da lan. Egoera hori kontuan izanik, tesi-lan honen helburua deskriptiboa izango da nagusiki: juntadura eta juntaduretako elipsiak euskaraz noiz eta nola gertatzen diren azaldu nahi dugu. Deskribapen-lan horretarako gure literatura-tradizioko corpus zabal baten azterketatik abiatu gara¹. Horren alboan, ahozkotasunera gehiago hurbiltzen den materiala eta gaur egungo zenbait testu ere erabili ditugu. Deskribapen-lan hori literaturan izan diren eztabaida-puntu nagusien arabera antolatu dugu, eta beste hizkuntzetarako egin diren aldarrikapenen aurrean euskarak nola jokatzeko duen azalduko dugu. Euskarari buruzko lanetan barreiaturik juntaduraz agertzen diren aipamenak marko orokor horren barnean txertatzen saiatuko gara. Erreferentzia-modelu nagusia Gramatika Sortzailea izango da, baina beste zenbait korronteren proposamenak ere kontuan hartuko ditugu.

Lana bost atal nagusitan banatu dugu. Lehenean bi atal edozein juntatu ahal izateko baldintza sintaktiko eta semantiko-pragmatikoez ihardungo dugu. Hurrengo hiruretan euskaraz ETA juntagailuaz elkartutako egituretako elipsien deskribapena egingo dugu: 2. atalean perpaus-juntadurena (hustuketa, AS-ren ezabaketa deitua, aditz laguntzailearen ezabaketa), 3. atalean sintagma-juntadurena (kasu-marken eta determinatzailearen elipsia, izenaren elipsia), eta 4.ean askoz gutxiago aztertu den arlo batena, hitz eratuak juntatzean aurki ditzakegun elipsiena. Beti ere literaturan beste hizkuntzetarako egin diren proposamenekin konparatuz. 5. atalean, juntadura-egiturei

¹ Tesi honetan zehar tradizioko lanak erabiliz ematen ditugun adibide askotan grafia ez dator bat jatorrizko iturriarekin, grafia gaurkotuagoa dute. Horretan, eta liburuaren eta autoreen izenburuak emateko unean ere bai, Euskaltzaindiak (1994) bezala jokatu dugu. Bestela Orotariko Euskal Hiztegira jo dugu.

errepresentazio sintaktikoa emateko unean sortzen diren arazoen berri emango dugu, eta aurreko ataletan solte samar utzi ditugun zenbait hari-mutur eztabaida horren barnean kokatzen ahaleginduko gara.

1. JUNTADURAKO BALDINTZAK

1.0. SARRERA

Juntadura aztertzen, ukitzen edo aipatzen duten lan gehienak juntaduraren definizioen bat emanez hasten dira. Har dezagun, esate baterako, Euskaltzaindiak (1990, 14) ematen duena:

«Juntagailua daukagunean, maila edo izaera bereko perpausak edo perpaus atalak elkartzen dira.»

Era honetako definizioak ugari aurkituko ditugu bateko eta besteko gramatiketan. Gutxitan jotzen da, ordea, lehen hurbilketa horretatik aurrera. Izan ere, juntadurari buruzko ia lan guztien aztergaia zera izan ohi da: juntagailuak eta juntadura markak zein diren identifikatzea (menderakuntzakoetatik garbi bereizten saiatuz), eta juntagailu horien bidez lotzen diren atalek elkarren artean zer-nolako erlazioa duten zehaztea (kopulatiboa, emendiozkoa...). Niri atal honetan interesatzen zaidana berriz beste era bateko informazioa da: *eta* juntagailuaz loturik dauden atalek zer baldintza bete behar dituzten juntaturik agertu ahal izateko. Arrazoia zera da: juntadura-egituren artean, badirudi juntadura arruntek eta elipsia duten juntadura-egiturek askotan baldintza berberak bete behar izaten dituztela, juntatu behar diren atalei antzerako eskakizunak betearazten zaizkiela. Ikus, adibide modura, ondorengo hauek:

- (1)
 - a. Mikelek okela eta arraina erosi ditu
 - b. Mikelek okela erosi du, eta Joxek arraina

- (2)
 - a. *Mikelek legatza eta Bilbon erosi du
 - b. *Mikelek legatza erosi du, eta Joxek Bilbon

- (3) a. ??Mikelek legatza eta arraina erosi ditu
b. ??Mikelek legatza erosi du, eta Joxek arraina

Ikusten da, bada, elipsirik ez duten juntaturak -(a) adibideetakoak- eta elipsia dutenak - (b) adibideetakoak- batera samar etortzen direla onargarritasunaren aldetik, guztiek baldintza bertsuak bete behar izaten dituztela. Horrela, elipsidun juntadurei heldu aurretik, juntadura orok bete beharreko baldintzak izango ditugu hizpide, gerora nahasgarri gerta ez daitezen.

1.1.- BALDINTZA-MOTA DESBERDINAK

Arestian esan bezala, gramatiketan juntagarritasun-baldintzen arloa ez da asko ukitu. Gai honen ingurura hurbildu diren hizkuntzalari gehienek salatu dute juntadurari eta juntagarritasun-baldintzei buruzko ikerketen umezurtzasuna²; oso lan monografiko gutxi dago, eta dauden horiek ez dirudi nahi adinako adostasun mailarik lortu dutenik. Ezta oinarrizkoeneko puntuetan ere: juntadura eta menderakuntza bereizten dituen muga zein den erabakitzeke orduan eztabaida da nagusi³, eta juntagarritasun baldintzekin berriz are nahasiagoa da egoera.

Ikertzaile gehienek ahalegina juntaturik agertzen diren adibideak onartuko dituen, baina txarrak kanpoan utziko dituen baldintza-sail bat proposatzea izan da. Hurbiltzeko era horrek, baina, mesede gutxi egin dio gaiaren argitasunari: batzuek juntagaien kategoria edo funtzioa aipatzen dute; beste askok esanahi-kidetasunera edo antzekoetara jotzen dute; badira, azkenik, unean uneko egoera edo munduaren ezagutzari garrantzia ematen dietenak ere. Oro har, baldintza horiek guztiak sarritxotan nahasian aurkeztu dira, bakoitza zer motatakoa den zehaztu gabe, baldintza sintaktikoen eta ezagutzaren beste arlo batzuei dagozkien artean inolako bereizketarik egin gabe. Orotara, juntagarritasuna esplikatzeke nahikoa izango zen baldintza aurkitu nahi izan dute; baina beti gertatu izan da, bazirela proposatutako baldintza horiei jarraitu ez arren juntaturik ager zitezkeen egitura motak; edo bestela, proposatutako baldintza guztiak bete arren oker zeuden juntadura egiturak agertzen zirela.

Gu ez gara bide horretatik abiatuko. Gaiaren nondik norakoaz hobeto jabetu ahal izateke proposamen nagusienei gainbegirada bat emango diegu. Geuk ez dugu inolako proposamen zehatzik plazaratuko. Izan ere, uste dugu ahalegin horretan abiatuz gero gramatikaren lan-eremutik gehitxo aldentuko ginatkeela: gramatikak ezin du esplikatuko hiztunak bi hitz edo perpausa juntatzen dituenean, hiztun horri zergatik iruditu zaizkion juntatzeko moduko.

Orain arteko lanen erreposoa egiterakoan ahal deneraino sintaxiari dagozkion baldintzak besteetatik bereizten saiatuko gara. Lehenengo sintaxiaren aldetik guztiz

² Horri buruzko aipamenen bilduma baterako, ikus E. Franchini (1986, 3-8). Ahulezia horren azpian egon daitezkeen zenbait arrazoi ere ematen ditu.

³ Ez dago adostasunik ez erabili behar diren irizpideei dagokienez, ez irizpide horiek erabiliz lortutako ondorioei buruz. Arazorik handienetakoa "juntadura asimetriko" deitutakoek sortzen dute. Iritzi desberdinei buruz estrukturalismoaren ikuspegitik egindako bilketa kritiko baterako, ikus Cuenca-ren lana (1988, 36-60).

berdinak diren elementuak juntatu ahal izateko baldintzei buruz esandakoak bilduko ditugu, eta proposamen desberdinen balorazio bat egingo dugu. Ondoren, bi juntagai elkartu ahal izateko berdintasun sintaktikoaren inguruan sortzen diren zenbait auzi plazaratuko ditugu.

1.2. SINTAKTIKOAK EZ DIREN BALDINTZAK

1.2.0. Sarrera

Pentsa dezagun une batez bi juntaik, perpaus nahiz perpaus atal, koordinatu ahal izateko sintaxiaren aldetik beharrezko diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Horrek ez du esan nahi nahitaez eta besterik gabe bi elementu horiek junta daitezkeenik. Van Dijk-ek (1977, 84) zioen, esate baterako, perpaus aske modura zuzenak diren bi perpaus iritzira hartu eta juntagailu bidez elkartzen baditugu, oso nekez sortuko dugula perpaus onargarri bat. Hori frogatzen duten adibideak ekartzea oso erraza da:

- (4) a. Gaur euria ari du.
 b. Axular nafarra zen.
 c. ???Gaur euria ari du eta Axular nafarra zen.

Nahikoa ez izate horri buruzko aipamenak edonon aurkituko ditugu literaturan zehar. Schachter-ek (1973), adibidez, esaten du juntatutako elementuak baldin badauzkagu, elkarren artean erlazio semantikoren bat behar dutela; eta baita:

«If two conjoined constituents are coördinately conjoined, there must be some pragmatic motivation for the conjunction -some situation to which the conjunction is appropriate. When such a situation is difficult or impossible to imagine, the conjunction seems odd» (Schachter, 1977, 91).

Schachter-ek, beraz, lehenengo lanean semantika aipatzen du eta bigarrean pragmatika. Horiek biak dira gai honi buruzko lanetan gehien aipatu direnak: Lakoff (1971) eta Baldi (1971), Tato (1976) eta Serra Alegre-ren (1984) lanetan pragmatikari buruzkoak aztertzen dira bereziki; Wierzbicka (1980) eta Lang-enetan (1984) semantikari buruzkoak, nahiz pragmatikaren garrantziari buruzko aipamenak -eta zenbaitetan proposamenak- ere badiren.

Proposamen horiek guztiek era batera edo bestera esaten dutena da juntatutako bi atalek amankomunean zerbait behar dutela. Amankomunean ezer aurkitzen ez diegulako ez genituzke (4c) bezalakoak onartuko. Amankomuntasun hori gehiago zehazteko orduan, ordea, arazoak sortzen dira.

Gu atal honetan eztabaidaren nondik norakoak agertzen saiatuko gara. Horretarako Lakoff-en (1971) artikulua hartuko dugu oinarritzat. Artikulu horretan esanak aztertuz eta egin zaizkion kritikak aipatuz murgilduko gara gai honetan. Gerora, osoagoak iruditzen zaizkigun zenbait lan aipatuko ditugu (bereziki, Lang 1984), eta azkenean geure ikuspegia ematen ere saiatuko gara. Proposamen zehatzak egiteari baino areago, auzi honetan garrantzia duten baldintzak bakoitza bere lekuan kokatzeari emango diogu garrantzia.

1.2.1. Lakoff-en Gai Amankomuna

Robin Lakoff-ek 1971-n bere artikulua plazaratu zuenetik gai honetara hurbildu diren guztiek hartu behar izan dute erreferentziatzat haren lana. Esaten du, laburtuz, bi perpaus juntatu ahal izateko *Gai Amankomuna* (Common Topic) deituko duen bat behar dutela perpaus horiek. Gai Amankomun hori da, Lakoff-en ustez, juntadurako baldintzen giltza. Edo giltza nagusia, beharrezko eta ezinbestezko baldintza dela aldarrikatu arren ez baitu nahikoa den baldintza modura aurkezten⁴. Era honetara definitzen du Gai Amankomuna (Lakoff, 1971, 122):

«If we match each constituent in one member of conjunct with its corresponding constituent in the other members of a conjoined sentence, in theory any pair may reduce to identity or complete synonymy, and therefore, in theory, all pairs might. Now clearly this theoretical possibility does not occur (...) in any natural language. (...) at least one set of paired constituents must be reducible to partial or complete identity (...) for a conjunction to be appropriate. That is essentially what is meant by *common topic*, and further implied by this name the notion that if only one pair is identical this cannot be a random pair, but, in some sense, the identity must involve that pair of constituents in the two conjuncts that are *what the sentence is particularly about*.»

Bi perpaus juntatu ahal izateko nahitaezko iruditzen zaion Gai Amankomun hori era askotakoa izan daiteke. Batzuetan agerian agertzen da, baina beste batzuetan ez, eta orduan presuposizio eta dedukzioetara jo beharko dugu Gai Amankomuna lortzeko.

Agerian dutenen arteko lehen multzo handia *Konjuntzio Laburketaren*⁵ (Conjunction Reduction) ondorio izan litezkeen adibideekin egiten du: horrelakoetan bi perpausetan berdinak diren elementuek osatuko dute Gai Amankomuna. Beste batzuetan erreferentziaren berdintasunaren bidez lortuko da Gai Amankomuna.

⁴ Autorearen ustez zerbait gehiago ere behar da, ziurrenik denbora edo aditzaren aspektua. (Lakoff, 1971, 118)

⁵ Euskarako deitura Salaberriren lanetik (1984) hartu dut. Konjuntzio Laburketaren erregelak esaten du (i) adibidea egiatan bi perpaus osoren juntadura dela, eta gero ezabaketa dagoela:

- (i) Peru eta Miren Donostian bizi dira
- (ii) Peru Donostian bizi da eta Miren Donostian bizi da

Adibidez, (6)-ko perpausean *John* eta *his* erreferentziakidetzat hartzeak emango du Gai Amankomuna. (Lakoff 1971, 118).

(5) a. John eats apples and his brother drives a Ford

Ageriko Gai Amankomunari buruz esandakoek ez zuten, ordea, perpausak juntatu ahal izateko baldintzak ezagutzeko ahaleginean aurrerapide nabarmenik ekarri: Konjuntzio Laburketaren alorrekoak ez dira nahitaez perpaus-juntaduratzat hartu beharrekoak, eta erreferentziakidetasunarenak ere ez du gauza handiegirik argitzen, izan ere, (5a)-ko adibide horretan *his brother*-en ordeaz beste edozein subjektu jarri izan bagenu, adibidez, *my brother*, edo *Mary*, juntadura lehen bezain onargarria izango zatekeen. Zalantzarik gabe, Gai Amankomuna zuzenki ageriko elementuen bidez adierazten ez duten adibideei buruzko gogoetak alor honek baino eragin handiagoa izan zuen ondorengo lanetan.

Gai Amankomuna ageriko elementuetan adierazten ez denerako, Lakoff-ek esaten digu hiztunek lehenik presuposizioak egin behar dituztela, eta ondoren presuposizio horietan eta perpauseko elementuetan oinarrituz dedukzioak egin behar direla:

«The hearer must supply, from his experience or knowledge of the world, or from prior discourse he has participated in, additional facts that link something in one conjunct to something in the second. That is, he must make presuppositions about the overt elements in the sentence, and the presuppositions he makes, though they have no overt form in the superficial structure of the sentence, very definitely affect the acceptability of sentences. Further, the speaker or hearer often must do still more, in order to understand what appear to be relatively normal instances of conjunction: given the two conjuncts, and any of several presuppositions, one may not yet have enough information to figure out why the two sentences have been, or may be, conjoined: one must then, in addition, perform deductions based on these presuppositions and their relationship with the overt elements of the sentence." (Lakoff 1971, 119)

Presuposizio eta dedukzio horiek zehazki nola jokatzen duten ez digu agertzen, baina zenbait adibide ematen ditu. Ondorengo perpaus honetan, esate baterako, bi presuposizio eta presuposizio horietan oinarritutako bi dedukzio egin behar omen ditugu:

(5) b. John eats apples and I know many people who never see a doctor

Lehenengo biak presuposizioak dira, eta hurrengo biak dedukzioak:

- «a. There is a proverb, "an apple a day keeps the doctor away."
- b. This proverb means that if you eat apples you will not need to visit doctors, because you will be healthy.

- c. By this reasoning, if you believe the proverb, people who never see doctors are (or may be) people who eat apples.
 d. John eats apples = people eat apples.»

Ikusten da, bada, perpaus horren Gai Amankomuna aurkitu ahal izateko lehenik ingeles-hiztunen kulturako esaera bat ezagutu behar dela. Zenbat eta ezkutuagokoak izan presuposizio eta dedukzioak, eta zenbat eta kopuru handiagoa behar izan, orduan eta zailago egingo omen zaio hiztunari Gai Amankomuna aurkitzea, eta ondorioz, juntadura onartu ahal izatea⁶.

Honetan, beraz, Lakoff-en proposamena. Berak ere aitortzen du ibilaldi luze bateko lehen pausoak baino gutxi gehiago direla. Gai Amankomunaren kontzeptuak nahikoa arrakasta izan du, eta ondorengo ikertzaileak era batera edo bestera hortik abiatu dira. Gai Amankomuna zer eratan lor daitekeen zehazki esateko unean ordea zailtasunak izan zituen Lakoff-ek, eta berak esandakoak adibide desberdinei aplikatzerakoan nonahi sortu dira arazoak. Presuposizioei eta dedukzioei dagokien guztia behar adinako zehaztasunez ez agertzea eta termino horiek era ezohiko samarrean erabili izana ere leporatu izan zaio.

Hurrengo bi ataletan, Lakoff-en lanaren inguruan sortu ziren beste zenbait azterketa aipatuko ditugu. Lehenengo Gai Amankomunaren formulazioa hobetzeko bi ahalegin hartuko ditugu, hark esandakoak nondik eta nola hobetu daitezkeen ikusteko. Ondoren, Gai Amankomunaren kontzeptua bera zalantzan jartzen dutenek egindako kritika bat ekarriko dugu.

1.2.1.1. Gai Amankomunaren formulazioaz

1.2.1.1.1. Tato (1976)

Gai Amankomunaren ideia intuitiboa baliozkotzat hartu arren, formulazioaren alorrean autore gehienek zer hobetu asko aurkitu ziten. Tato-k (1976), esate baterako, Lakoff-en formulazioaren ia alderdi guztietan ikusten ditu akatsak. Adibidez, ageriko elementuen berdintasuna izanik Lakoff-en arabera Gai Amankomuna aurkitzeko arazorik behar ez lukeen adibide hau ez da zuzena:

⁶ Halere, Lakoff ohartzen zen Gai Amankomunaz kanpoko beste baldintza batzuk ere bazirela. Mugak guztiz argi ikusten ez bazituen ere, Gai Amankomunarekiko inolako arazorik ez zuten perpaus-juntadurak tautologietara edo kontraesanetara hurbiltzean onartezin bihurtzen zirela ohartu zen. Eta hori baino garrantzitsuagoa, konturatu zen bazirela aditzen denborari, aspektuari edo [+/- estatibo] izateari lotutako zenbait baldintza, bere Gai Amankomunak esplikatu ezin zituenak.

(6) En el parque, Juan estudia y la poda de árboles se regularizará

Gauza bera gertatzen da Gai Amankomuna ageriko elementuen erreferentziakidetasunaren bidez lortu behar luketen beste zenbaitetan ere:

(7) Guillermo prefirió cerrar los ojos ante lo inevitable y su primo reside desde hace tiempo en la provincia de Jaén

Horrez gain, Lakoff-ek (5a) bezalakoetan Gai Amankomuna lortzeko erabiltzen dituen presuposizio eta dedukzioak hobeto zehaztu eta murriztu beharra dagoela iruditzen zaio Tato-ri (1976, 263-266). Eta hala ere zenbait juntadura esplikatzen ezinik geratzen da Gai Amankomuna Lakoff-ek definitu zuen eran hartzen badugu. Begira, adibidez, ondorengo honi:

(8) Juan lee el periódico y María teje un jersey

Perpaus hori zuzena da, baina Lakoff-ek emandako argibideen arabera ez da ikusten zer Gai Amankomun izango lukeen. Izan ere, ageriko elementuen berdintasuna edo erreferentziakidetasuna dutenen eta (5a) bezalakoaren artean eremu oso zabala gelditu zaio Lakoff-i, eta perpaus-juntaduren kasurik gehienak ziurrenera tarte horretakoak izango dira. Horrelakoen berri emateko bide bat sakonagoko maila batean predikatu abstraktuagoak daudela onartzea izan litekeela dio Tato-k. Adibidez, *lee* eta *teje*-ren orde *hacer* bezalako bat proposa omen daiteke predikatu abstraktu modura. Horrela, Gai Amankomuna ondorengo honen antzeko zerbait izango litzateke: *A-k eta B-k zerbait egin*.

Dena den, Tato ohartzen da predikatu abstraktuen bidezko Gai Amankomun horrek ere ez dituela gauza guztiak behar bezala esplikatzen. Adibidez, aurrekoaren pare-pareko behar lukeen hau ez da zuzena:

(9) *Juan escribe poesías y María teje un jersey (=Jon olerkaria dela adierazi nahian)

Horrelakoen berri eman ahal izateko Gai Amankomunaren osagarri modura beste baldintza bat gehitu beharra dagoela esaten du Tato-k (1976, 266): *denbora-berdintasuna* (cotemporalidad)⁷.

Kontzeptu horri buruz ari dela Tato-k esaten du aditz bera, zenbait faktoreren arabera (subjektua, objektua, adierazten dena eta ingurune linguistikoa, etab.), denbora-tarte desberdinari buruzkoa izan daitekeela. Adibidez,

(10) Adolfo escribe a su hermano.

bezalako batean, *escribe* hori denbora-tarte desberdinari buruzkoa izan daiteke, eta ondorengo bi hauek adieraz ditzake: 1) orain ari dela idazten, ekintza denbora mugatu batean egingo balitz bezala hartuz; 2) idazten diola, edo idatzi ohi diola, ekintza denbora-muga jakinik gabe egingo balitz bezala emanez. Bada, Tato-k proposatzen duen denbora-berdintasunaren baldintzaren arabera, denbora-tarte desberdineko aditzak dituzten perpausak juntatzerik ez dago. (9)-ko bi perpausak juntatzeko debekua ere horrela esplikatuko litzateke.

Baina gauzak ez dira hor amaitzen. Tato konturatzen da denbora-berdintasunaren baldintza hori, Lakoff-en Gai Amankomunari gertatzen zitzaion bezala, askotan beharrezko den baldintza badela, baina nahikoa ez dela. Adibidez:

(11) *El matemático resuelve ecuaciones y mi tío cree que va a morir joven.

Denbora-berdintasunaren baldintza bete arren, ez zaio iruditzen Tato-ri aurreko perpaus-juntadura hori zuzena denik. Zer dela eta okerra, bada, (11) adibidea? Tartean semantikaren alorreko debekuren bat dagoela iruditzen zaio: alegia, bi predikatu horiek elkarrekin koordinaturik joaterik ez dutela. Debeku horren oinarria zertan datekeen ere aztertzen du⁸, eta antzerako debeku gehiago ere badirela gaineratzen du. Baina bere artikuluan ez du aurrerago jotzen, eta auzia bere horretan geratzen da.

Lakoff-en eta Tato-ren lanei begiratzen badiegu, konturatzen gara biek arazo bera dutela: kasu askotarako beharrezko diren baldintzak ematen dituzte, baina ezinbesteko eta nahikoa diren baldintzak ematerik ez dute lortzen. Sarreran ere hitz egin dugu horri buruz: ematen diren baldintzek, alde batetik, ez dute adibide guztien

⁷ Cuenca-k (1988, 115) *cotemporalidad* hitza aukeratu izana ez du ondo ikusten: Tato-k ematen dituen adibideetan, denbora-berdintasuna ez baina aspektu-berdintasuna omen dugu.

⁸ Horrela, garrantzia duten beste 2 ezaugarri hauek aztertuko ditu: [+/- estativo] eta [+/- concreto] deitzen dituenak. Bi perpaus juntatuko badira, orain arte aipatu ditugun baldintza guztiak betetzeaz gain, predikatuek alor hauetako berdintasuna ere behar dute (Tato 1976, 271).

zuzentasun-eza esplikatzeko, eta bestalde, beti sortzen dira baldintza guztiak bete arren okerrak diren adibideak. Bi perpaus juntatu ahal izateko beharrezko den gutxieneko erlazioaren ideia intuitibo hori zehazki formulatzeko orduan arazoak sortzen dira.

1.2.1.1.2. Serra (1984)

Gai honi beroni heltzen dion beste lan bat Serra-rena (1984) da. Sintagmen juntaturak eta perpausen juntaturak baldintza desberdinak bete behar dituztela uste du Serra-k. Perpausak juntatu ahal izateko baldintzei dagokien bezainbatean, bai Lakoff-en proposamena bai Tato-rena okertzat hartzen ditu. Hasteko, erabiltzen dituzten adibideei jartzen dizkie aitzakiak. Lakoff-ek ontzat emandako zenbait adibideri zeharo desegoki irizten die komunikagarritasunaren aldetik. Tato-k txartzat ematen dituen beste zenbait berriz zuzenak iruditzen zaizkio testu zabalago batean txertaturik daudenean. Goraxeagoko (6), esate baterako, ondorengo testuaren barnean egokia izan liteke:

«El ayuntamiento cerró el parque con el pretexto de que iba a podar los árboles. Los ciudadanos protestaron y las autoridades cedieron. Hoy, en el parque, Juan estudia y la poda de árboles se regularizará.»

Alde horretatik egiten dute gainera herren, bere iduriz, bere aurreko proposamenek: guztiek ingurutestu gabeko perpausak darabiltzate, eta baldintzak ere isolatutako perpausetan frogatu dira. Bere ustez, ordea, perpausen juntadura kopulatiboaren baldintzak zehaztea testu-gramatikari dagokio, eta ez perpaus-gramatikari (Serra, 1984, 305):

«Se trata, pues, para la coordinación de oraciones, de compatibilidad semántica a nivel textual estrictamente lingüístico, noción que no implica necesariamente ni la existencia de un tema común, ni la co-temporalidad.»

Ezinezkoa zen, beraz, aurrekoen bidetik baldintza egokiak aurkitzea. Kritika horrekin, Serra-k bi alderdiri erasotzen die batera: lehenengo, formulazioen egokitasunari; bigarren, kontzeptuaren edo gaiari hurbiltzeko bidearen egokitasunari. Azken honi buruz hitz egingo dugu, hain zuzen ere, hurrengo ataltxoan.

1.2.1.2. Gai Amankomunaren kontzeptuaz

Orain arte aipatu diren baldintzei begiratu, konturatzen gara pixkanaka pixkanaka perpaus-gramatikaren eremutik aldentuz joan garela: gauzak argitzeko

presuposizioetara, dedukzioetara eta ingurutestura joan behar izan dugu sarritan. Eta bide horretatik jarraituz, azken batean bi perpaus koordinatu ahal izateko egoera posibleak asmatzen amaituko genuke, sintaxiari inondik ere ez dagokion alor batean. Ikusten da, beraz, bi perpausak juntatu ahal izateko beharrezko amankomuntasuna perpaus-gramatikaren barnean definitzea ezinezkoa dela. Eta ezinezkoa den neurrian, autore batek baino gehiagok, batzuek esplizitoki adieraziz, gehienek inplizitoki onartuz, uko egin diote era honetako baldintzak aztertzeari. Beste era batera esateko, autore askok aldarrikatu dute Gai Amankomuna edo antzeko kontzeptuak zehaztea ez dela gramatikalariaren eginkizuna, eta gainera, hizkuntzalaritzaren barnean aztertu behar denaren muga ikutzen duela.

Horrela pentsatzen dutenen erakusgarri van Oirsouw-ren lana (1983) ekarriko dugu. Hizkuntzalari honek, aurreko parrafoan eman ditugun arrazoiengatik, ez ditu Lakoff-en helburuak ontzat hartzen:

«What Lakoff calls 'finding a common topic' for a particular coordination is in fact nothing less than providing a description of the circumstances under which that coordination was used (...). The question we should be asking ourselves about coordinated sentences should not be: 'What could possibly have introduced this particular speaker or writer to use a coordination here'». (van Oirsouw, 1983, 136)

Beraz, van Oirsouw-ren ustez abiapuntutik beretik dira okerrak aurreko ahalegin horiek. Berak dio, aurreko autore horiek, juntaturako baldintzak aztertzean, pragmatikaren eremuan sartu direla osoki, bi perpaus juntatzeko baldintzak, egoerak eta arrazoiak bilatzen hasi direla. Eta ez zaio iruditzen hizkuntzalarariaren zeregina hori izan beharko lukeenik.

Zer da bada, hortaz, juntaturako baldintzei buruz lan egiten duenak aztertu behar lukeena? Honako hau proposatzen du van Oirsouw-k (1983, 137):

«The linguist's interest should be in the contribution that the syntactic device of coordination makes to the interpretation of the sentences that have been coordinated. In other words we should be looking at which characteristics are particular to the syntactic device of coordination rather than at what could possibly make a given coordination acceptable or unacceptable, interpretable or uninterpretable».

Beste hitz batzuetan esateko, hizkuntzalarariak aztertu beharko luke ea sintaxiak zer garrantzi duen juntatu diren perpausen interpretazioan, edo, ea zer eransten dien juntaturak, ea zertan eragiten duen, perpaus horien interpretazioan. Hurrengo atalean, beste abiapuntu batetik helburu horretara dexente hurbildu den lan bati buruz ariko gara.

1.2.2. Lang (1984⁹): juntaduraren semantika

Guretik oso desberdina den abiapuntu batetik irtenez, juntaduraren semantika aztertzeko ahaleginean, juntadura egiten dugunean zer gertatzen den eta juntadurako baldintzak zer diren hobeto ulertzeko argibide asko ematen ditu. Lang-en iritziz, juntadura prozesu sintaktiko modura ez ezik semantikoki ere karakteriza daiteke (Lang 1984:37):

«Coordination is a principle by which conceptual relations are established between propositions (or individuals, sets, or predicates¹⁰) within messages by integrative operations on sentence meanings».

Horrela, esaten du juntagailuek beren baitan zenbait prozesu eragiteko informazioa dutela. Adibidez, paralelizazioa, bai azentu-egituraren aldetik bai interpretazioaren aldetik. Baina gurerako hori baino garrantzitsuagoa dena, esaten du integrazio-prozesu horren ondorioz, juntagaien interpretazio semantikoan zenbait aldaketa gertatzen direla. Berak darabiltzan adibideak emanez garbiago ikusiko da hau guztia. Pentsa dezagun, esate baterako, ondorengo perpaus hau daukagula:

(12) Nik liburu bat behar dut.

Perpaus horretan *liburu*-ren esanahia, *liburu* hitzaren sarrera lexikoan zehazten dena izango da gutxi gora behera¹¹. Baina pentsa dezagun orain *liburu* hitz hori bera juntadura-egitura batean agertzen zaigula:

- (13) a. Liburu bat edo aldizkari bat behar dut.
 b. Liburu bat edo diska bat behar dut.
 c. Liburu bat edo bideo kaxa bat behar dut.

⁹ Alemanierazko lehen edizioa 1977koa da. Hemen ingelesera 1984an egindako itzulpena erabili dugu, itzulpen baino zerbait gehiago badena, autoreak aldaketa dexente egin baitzizkion.

¹⁰ Beste aurreko askoren aurka, Lang-ek ez du onartzen Konjuntzio Laburketa prozesua.

¹¹ Lang-ek dio esapide batean erabiliz gero, txertatzen den testuinguruak zenbait zehaztapen egingo dituela esanahian. Baina lan honetan horrelakoen azterketa alde batera uzten du.

(13)-ko adibide hauetan guztietan *liburu* juntadura-egitura bateko juntagai modura agertzen da, testuinguru linguistiko oso berezi batean. Horrelakoetan *liburu* hitzaren esanahia zertxobait desberdina da: juntagai biek osatzen duten kontzeptu zabalago baten adibide konkretu modura ulertu behar da *liburu*. Honela azaltzen du Lang-ek (1984, 29):

«... the semantic interpretation of *book* will be richer than the one specified in the lexicon in that conjuncts exemplify a certain common integrator. Being exemplifications they represent more than themselves because they stand for typical elements of the set defined by their respective common integrator.»

Adibidez, (13)-ko adibide horietara itzuliz, (13a) esaten dugunean, *liburu* hitzaren bidez "irakurtzeko zerbait" esan nahi izan dezakegu; era berean, (13b)-n beharbada "2.000 pezetaz beherako opari bat", edo auskalo zer; eta (13c)-n "liburu baten lodiera duen objektu solidoa", edo horrelako zerbait. Guztietan *liburu*-ren esanahia aberastu edo aldatu egin da. Juntaduraren semantikan juntagaien esanahiaren integrazioa gertatzen da, juntadurak *Integratzaile Amankomun* (Common integrator) bat eragiten du, eta juntagai bakoitza *Integratzaile Amankomun* horren adibide konkretu bat da, Lang-en iritziz.

Juntaduraren semantikari dagokionez, beraz, ikusten dugu juntadura-egitura hauek elkarrentzako oso testuinguru zehatza egiten dutela¹², eta testuinguru horren barruan oso operazio bereziak gertatzen direla:

«The meanings of the conjuncts in a coordinate structure are mutually determined, weighed up against each other, or integrated with each other» (Lang 1984, 30).

Integrazio-operazio horren ondorioz lortuko litzateke bi juntagaiak biltzen dituen Integratzaile Amankomuna. Era honetan, juntadurak semantikaren aldetik zer eragiten duen, bere-bereak dituen ezaugarriak zein diren aztertzen du Lang-ek, eta neurri handi batean behintzat, van Oirsouw-k plazaratutako zenbait galderari erantzuteko bide bat aurkezten du.

Bere lanean prozesu hau guztia xeheki esplikatzen du. Integratzaile Amankomuna zehazteko bide horretan garrantzirik handiena duena juntagaien esanahi lexikoa da, «... shared language-bound conceptual specifications as represented in the lexical meaning will be primary candidates to constitute the common integrator (cf.

¹² "The conjuncts of a coordinate structure *form a highly specific type of context for each other*." (Lang 1984:30)

book - newspapers - magazines vs. "something to read")». Pragmatika ere ez du guztiz albora utziko:

"The deduction of the common integrator also involves various other factors obtainable only from either the situational context or the interactional setting of the given utterance or from extralinguistic systems of knowledge, belief-systems etc." (Lang 1984:27).

Bere lanean, halere, ez du arlo hau gehiegi aztertuko.

Juntadura-egitura guztiek, bada, Integratzaile Amankomun bat behar dute. Integratzaile Amankomun hori lortzerik ez badago juntadurarik ezin egin izango da. Bide honetatik, juntagarritasunaren baldintza semantikoak zehazteko oinarrietara hurbilduko gara. Lang-en ustez, zenbat eta gertuagoko erlazio kontzeptuala izan juntagaien esanahiek (Lang, 1984, 28):

- Orduan eta gertuagoko izango dute beren Integratzaile Amankomuna.
- Orduan eta naturalago gertatuko da Integratzaile Amankomun horren dedukzioa hierarkia kontzeptualaren adar eta adabegietan barrena.
- Orduan eta munduaren edo egoeraren berri gutxiago beharko da dedukzioa aurrera eramateko.

Beraz, esan dezakegu Lang-ek, lan honetan, juntadura-prozesuak semantikaren aldetik zer ondorio dituen eta Integratzaile Amankomun hori lortzeko garrantzia duten elementuak zein diren aztertzen duela, eta horien arabera juntadura-egiturak errazago noiz eta zer baldintzaren arabera egiten diren jakiteko argibideak ematen dituela. Juntagarritasuna Integratzaile Amankomuna lortzeko posibilitatearen baitan jartzen du, hein batean behintzat. Bere liburuaren zatirik handiena Integratzaile Amankomun hori lortzeko baldintza eta debeku semantikoak aztertzen pasako du¹³. Ez digu esaten zer

¹³Lehenengo semantikaren aldetik juntagaien artean zein erlazio mota egon daitekeen aipatzen du. Honakook ematen ditu (Lang 1984):

- Synonymy (semantic non-distinctness)
- Entailment (semantic inclusion in various forms)
- Negative entailment (including contrariness, subcontrariness, contradictoriness)
- Compatibility (mutual semantic independence)

eta esaten du: «and possibly others (though the list given will suffice for our purpose)». Horiek aztertu ondoren, logikaren metodologia erabiliz, koordinatuetako juntagaien arteko erlazio semantiko posibleei egibaldio desberdinak ezarriko dizkie, eta juntagailu desberdinek eskatutakoekin konbinatuz, koordinazioaren baldintza logiko-semantikoak lortuko ditu. Hurrengo urratsa zera du: horiei interpretazio linguistiko bat ematea. *Eta* juntagailuaz lotutakoez, esate baterako, ikusten da zenbait erlazio ez direla posible. Adibidez, bi juntagaiek gauza bera esan nahi dutenean, bata bestearen esanahiaren barnean biltzen denean, ea.:

- (i) (a) ??Arraina eta arraina jan ditut nik.
- (b) ??Arraina eta legatza jan ditut nik.

koordina daitekeen, baina bai juntadurak zein ezaugarri dituen bere-bereak eta juntadura ondo egoteko zer baldintza bete behar diren, edo gutxienik zer motatako baldintzak bete behar diren: bi juntagaiek Integratzaile Amankomun beraren adibide izan behar dute. Integratzaile amankomun hori lortzeko garrantzia zerk duen ere aztertzen du, bereziki semantikari dagozkion auziak.

1.2.3. Juntadurako baldintzak: semantika eta pragmatika

Aurreko bi ataletan bi juntagai -perpaus nahiz perpaus-atal- juntatu ahal izateko baldintzei buruz egin diren proposamenik garrantzitsuenak agertu ditugu. Atal honetan proposamen horiei zenbait zehaztapen egingo dizkiegu, eta gure ikuspegiaren nondik norakoak agertzen saiatuko gara. Gauzak argiago gertatuko direlakoan, perpausen juntadura eta perpaus-atalena desberdindu egingo ditugu. Orotara, pragmatikaren garrantzia nabarmenduko dugu: bi juntagai elkartu ahal izateko beharrezko den berdintasun edo erlazio hori eskakizun pragmatikoa dela iruditzen zaigu. Horrela, van Oirsouw-ren gogoetatik oso hurbil ikusten dugu geure burua.

1.2.3.1. Perpaus-atalak

Perpaus-atalak juntatu ahal izateko aukeretatik gutxi batzuek ihardungo dugu hemen: izen sintagmen, edo beharbada funtsean izenen juntaduraz soil soilik. Gaiaren osoko azterketa batek lan honen mugak gaindituko lituzke. Ziurrenera, gainera, hemen ateratako ondorioek besteetarako ere balio dute. Alor honi buruzko lanik sakonena, goraxeago ikusi dugun bezala, Lang-ena da. Lang-ek Integratzaile Amankomunaren bitartez esplikatu nahi zuen izen sintagmen juntaduran gertatzen dena. Berak semantikaren bidez definitu zuen kontzeptu hori, eta pragmatika, ahal duen neurrian behintzat, alde batera uzten du, baina nire ustez Integratzaile Amankomuna, Lang-ek ematen dion zentzuan, ezer izatekotan kontzeptu pragmatikoa da.

Har dezagun, esate baterako, kontzeptu hori argitzeko erabili dugun (13)-ko adibide bat:

Edo, perpausen arlora pasaz, juntatzen diren bi perpausen esanahiak elkarren aurkakoak direnean:

- (ii) Ni mendira joan naiz eta ni ez naiz joan mendira.

Horrelakoren bat gertatzen bada mezuak interpretatzea oso zail gertatzen da, eta hiztunak bigarren esanahi ezkuturen bat aurkitu nahi izaten die juntagaiei. Gu ez gara gai horretan sartuko. Euskaltzaindiak ere (1994) egiten ditu zenbait aipamen.

- (13) b. Liburu bat edo diska bat behar dut.

(13b)-ko Integratzaile Amankomuna, lehen aipatu dugun "2.000 pezetaz beherako opari bat" hura bezain erraz izan daiteke "igande arratsalde euritsu bat atseginez pasatzeko zerbait", "hizkuntza irakasteko klase batean betiko errutinatik ateratzeko zerbait", edo antzerako beste mila gauza. Eta berdin (13)-ko beste adibideekin. Izan ere, Integratzaile Amankomun hori lortzeko unean, semantika ez baina pragmatika da erabakiorra.

Are gehiago, esango nuke Lang-ek erabiltzen dituen adibideetan, eta Integratzaile Amankomunaren definizio horretan, erabili duen juntagailuak garrantzi handia duela: *edo* erabiltzen du, eta hori erabiliz nahitaez sortzen da Integratzaile Amankomunaren antzerako zerbait. Baina *edo*-ren ordez *eta* erabiliko bagenu, ez dakit gauzak ilunxeagoak ez ote lirartekeen izango:

- (13') a. Liburu bat eta aldizkari bat behar ditut.
 b. Liburu bat eta diska bat behar ditut.
 c. Liburu bat eta bideo kaxa bat behar ditut.

Izan ere, *eta* erabiltzeko baldintzak askeagoak dira, eta, Lang-ek eman duen definizioari jarraitu behar bazaio behintzat, Integratzaile Amankomun hori errazago lortzen da *edo* erabiltzen denean, *edo* juntagailuak halako berdintasun-nozio bat eragiten baitu lotzen dituen juntagaien artean. Adibidez, nekezago aurkituko dugu (14b)-esateko egoera egokirik:

- (14) a. Liburu bat eta boligrafo bat behar ditut.
 b. Liburu bat edo boligrafo bat behar dut.

(14a)-k, ordea, askoz arazo gutxiago du. Baina teorian, Integratzaile Amankomuna aurkitzeko egoera berean egon behar lukete. Semantika soilak arazoak baditu *edo*-z juntatutako elementuen Integratzaile Amankomuna erabakitzeko, askoz zailago gertatuko zaio *eta* bidez lot daitezkeen elementuek bete beharreko Integratzaile Amankomuna zein den zehaztea. Lang-ek Integratzaile Amankomuna definitzeko *edo* juntagailua duten adibideak erabili izanak, beraz, badu eragina lortzen dituen ondorioetan.

Azkenik, bada nire ustez Lang-en lanari jar dakioken beste aitzakia bat. Bere aldarrikapenaren muina da juntadura-egitura bateko partaide den elementu bat semantikoki aberastu egiten dela juntaduran agertzeagatik, Integratzaile

Amankomunaren gauzatze konkretu bihurtzen baitira. Onartzen du juntaduraz kanpo ere elementu horren berorren esanahiak zenbait aldaketatxo izan litzakeela egoera pragmatikoaren arabera, baina bere ustez biak ezin dira maila berean jarri, gauza desberdinak dira. Nik, ordea, ez dut desberdintasun handirik ikusten bien artean, alegia, (12)-ko testuinguruaren eta (13)-ko Integratzaile Amankomunaren artean.

Izan ere, egia da *liburu* hitza (13)-ko adibide guztietan era desberdinera ulertu dugula, baina juntadura ez da desberdintasun hori eragin dezakeen gauza bakarra; komunikazio-ekintza zein testuingurutuan garatzen den, liburu hitzak esanahi-desberdintasun bera erakus dezake: adibidez, liburutegi batean esaten badut (13a) interpretazioa izango du seguruenik; opariak saltzen diren leku batean esaten badut, ez da (13b)-kotik hain urrun ibiliko; eta hanka bat laburragoa duelako dantzan dabilen mahaia gelditu ezinean banabil, entzuleak (13c)-ren oso antzeko zerbait uler lezake. Beraz, Lang-ek aipatzen dituen moduko esanahi-aberasteak juntaduraz kanpo ere gertatzen dira, eta testuinguruaren arabera erabakitzen dira.

Ez zait iruditzen, gainera, batetik bestera funtsezko desberdintasunik dagoenik. Ene iduriz, juntadura-egiturak beste testuinguru-mota bat besterik ez dira: berezi samarra beharbada, paralelotasun handikoa, juntagaien artean lotura berezia eskatzen duena, baina aparteko beste ezer gabea. Horrela, Lang-ek semantikotzat aurkeztu nahi izan digun Integratzaile Amankomunaren kontzeptua azken batean pragmatikoa izango genuke ezer izatekotan: pragmatikaren eskakizunak betetzen dituen neurrian bakarrik du garrantzia, pragmatikaren menean dago horretan semantika.

Horrek ez du esan nahi, jakina, Lang-ek eta bestek juntadura-eragozle modura aurkeztu dizkiguten erlazio semantikoek (sinonimia, etab.) inolako zeresanik ez dutenik: zeresana badute, baina ondorio pragmatiko jakin batzuk dituzten heinean bakarrik. Eta beti ere, oso laguntza gutxi eman ahal izango digu, adibidez, *nahi* edo *eman* bezalako aditz baten, eta beste askoren, objektuan *eta* juntagailuaren bidez elkar dezakegunaren mugak jakiteko.

1.2.3.2. Perpausak

Perpausen alorrera pasaz, ideia hori berbera are garbiago somatzen da: bi perpaus juntatu ahal izateko bete beharreko baldintzak pragmatikoak dira soilik. Ikusi dugu gai honetaz arduratu diren hizkuntzalariek abiatu bezain laster alor horretara jo behar izan dutela. Eta auzia semantikaren alorrean bideratu nahi zuen Lang-ek perpausen juntadura ia ukitu ere ez du egiten, adibide-mota oso mugatua darabil: ezin

zuen besterik egin, ez baitzuen bestetarako tresneriarik. Izan ere, bi perpaus elkarrekin juntatu ahal izateko beharrezko den -une bakoitzean hitzun bakoitzak beharrezko somatzen duen- gutxieneko erlazioa ezin da inolaz ere semantikaren edo sintaxiaren laguntzaz arautu.

Horrek ez du esan nahi, berriro ere, orain arte aipatu ditugun guztiak inolako baliorik gabeak direnik. Bi perpausak erlazioa dutenean, erlazio hori askotan -gehienetan- elementu gramatikaletan islatuko da, edo nahiago badugu, elementu gramatikalen bidez adieraziko da: erreferentzirikidetasuna, elementu lexikoen esanahirikidetasuna, eta oro har, Lakoff-ek, Tato-k eta beste zenbaitek proposatu dituzten guztiak eta gehiago izango dira jokoan. Adibidez, guk hasieran ematen genuen (4c) adibidean baldintza guztiak daude Gai amankomunik edo Integratzaile Amankomunik ez lortzeko: elkarrekin inolako zerikusirik ez daukaten izenak ageri zaizkigu, denbora desberdinean kokatzen dira bi perpausak, eta gainera era desberdineko predikatua dute.

(4c) Atzo euria egin zuen eta Axular nafarra zen.

Hizkuntz elementu horiek dituzten perpausak juntatzea, hizkuntz elementu horiek pragmatikoki lotzen zailak diren nozioak edo mezuak adierazten dituzten heinean, oso zail izango da. Beraz, orain arte azaldu ditugun baldintza horiek guztiak badute beren funtsa: bi perpausen arteko erlazioa eskuarki gramatikaren barneko elementuen bidez gauzatzen da, eta horiei buruzko baldintzak aztertzea, hein batean bederen, Integratzaile Amankomun edo dena delako hori zer den hobeto ulertzeko baliagarri suertatuko da. Baina garbi izan behar dugu baldintza horiek guztiak pragmatikaren baitan daudela, eta pragmatikaren menpean bakarrik dutela zentzua.

Honetan utziko dugu, bada, sintaktikoak ez diren baldintzen auzia. Hasiera-hasieran esan dugun bezala, era honetako debekuak eta eskakizunak agertuko dira bai elipsirik ez duten juntaduretan, bai elipsoidun juntaduretan. Hemendik aurrera horrelako auziak ez ditugu aipatuko. Hori zen, izan ere, atal honen helburu nagusia: elipsoidun juntadurak aztertzen hasten garenerako nahas gintzaketen zenbait alderdi argixeago uztea, gero horiek azaltzen ibili beharrik izan ez dadin. Orain, jarraian, juntaduregiturretan garrantzia duten beste zenbait baldintzari begira jarriko ditugu gure begiak: baldintza sintaktikoei begira.

1.3. BALDINTZA SINTAKTIKOAK

1.3.0. Sarrera

Aurreko atalean ikusi dugu, bi juntagaik sintaxiaren betebeharrak guztiak bete arren, juntatuta agertu ahal izateko beste zenbait baldintza ere hartu behar izaten direla kontuan. Baldintza horiek nagusiki pragmatikari zegozkion. Gaiari irristakorra eta formulatzeko zaila iritzi diogu, eta konturatu gara gramatikaren esparrutik dextente aldendu beharko genukeela horrelakoen berri emateko. Aurrerantzean gutxi ukituko dugu alor hau.

Gramatikatik gertuago dagoen auzia lehenago aztertu gabe utzi dugun huraxe da: juntatu ahal izateko beharrezko diren baldintza sintaktikoena. Baldintza hauek aurrekoek baino gehiago erakarri dute hizkuntzalarien artean. Ez da, hala ere, guztiz konpondutako auzia. Horren erakusgarri dira gai honi buruzko etengabeko eztabaidak. Abiadakoan egin dugu horren aipamena. Hizkuntzalaritza-teoria guztietakoek aldarrikatu dute beraiek besteek baino egokiago ematen dutela juntadurarako baldintzen berri.

Juntagarritasun baldintza sintaktiko hauek aztertzean erabaki nahi duguna da atariko definizio hartako "maila edo izaera bereko" izate hori zer den. Ikus dezagun, adibidez, ahalegin horretako klasiko bat, Chomsky-rena (1957, 36), Goenagak (1980, 237) euskaraz emana:

« P_1 eta P_2 perpaus gramatikalak badira, eta P_1 eta P_2 -ren arteko desberdintasun bakarra hau bada, hots: X agertzen dela P_1 -n, P_2 -n Y agertzen den lekuan (hau da, $P_1 = \dots X \dots$ eta $P_2 = \dots Y \dots$) eta X eta Y mota bereko atalak badira P_1 -n eta P_2 -n, orduan, P_3 , P_2 -n X -en ordean $X+eta+Y$ jarriaz lortzen den perpausa da (esan nahi baita, $P_3 = \dots X + eta + Y \dots$).»¹⁴

Definizio horretan ere ez da auzia gehiegi zehazten, "era bereko osagaiak" behar direla besterik ez da esaten, baina horren atzean kategoria-berdintasuna zegoen, eta hori erabili zuten hortik aurrera gramatika sortzailearen barruan egindako hainbat eta hainbat lanek. Horrela, bi juntagaiak kategoria bereko baziren juntadura-egitura hori zuzena izango zen; kategoria desberdineko baziren berriz okerra:

¹⁴ Erregela honi Konjuntzio Laburketa (KL) deitu izan zaio. Lehenago ere hitz egin dugu horri buruz.

- (15) a. Zakurra eta katua menditik etorri dira.
b. *Menditik eta katua etorri dira/da.

Helburu hizkuntza batean sor zitezkeen perpaus gramatikal guztien berri emango zuen erregela sail esplizito bat lortzea zuen gramatika-teoria batean urrats handia izan zen era honetako erregela bat formulatzea. Baina xehetasun asko geratzen dira konpontzeke. Adibidez, Goenaga-k berak galdetzen du ea kategoria-berdintasuna azken muturreraino eraman beharrekoa ote den. Ondorengo adibide hau ematen du:

- (16) Andoni etxe handi batean eta bakarrik bizi da.

«... ez dakit zenbateraino den gramatikala», esaten du (16)-ko perpaus horri buruz. Osak (1990, 252), berriz, ez dio inolako aitzakiarik ikusten, eta gaineratzen du, adibide horretan «kategoria berdineko atalak elkartzen ditugula, bi adberbioen azpiko nozioa desberdina den arren».

Osak kategoria-berdintasunaz eta azpiko nozioaz esaten duen horrek patxada gehixeagoz begiratzea merezi du, baina kontu hori geroagoko utziko dugu. Kategoria-berdintasunaren mugak ikusteko, ikus dagoeneko klasikoa bihurtu den zerrenda bat (Sag eta beste, 1985, 117):

- (17) Pat is either stupid or a liar. (AP or NP)
(18) Pat is healthy and of sound mind. (AP and PP)
(19) Pat is either asleep or at the office. (AP or PP)
(20) That was a rude remark and in very bad taste. (NP and PP)
(21) Pat is a Republican and proud of it. (NP and AP)

Euskaraz ere ez da zaila honen antzeko adibideak asmatzea:

- (22) Joxe irakaslea eta bihotz onekoa da.
(23) Gabonetan eta ospakizunen bat bada besterik ez naiz hurbiltzen gurasoen etxera.

Euskarazko adibidean, lehenean IS bat eta AdjS bat juntatu ditugu, eta bigarrean PospS bat eta perpaus bat, kategoria-berdintasunaren baldintzari iskin eginez.

Konjuntzio Laburketaren proposamen klasikoan, gainera, arazoak alderantziz ere gertatzen ziren: zenbait kasutan kategoria bereko juntagaiak ezin daitezke elkaturik joan. Adibidez, biek funtzio sintaktiko desberdina betetzen dutenean, edo

interesgarriagoa dena, biek funtzio pragmatiko desberdina dutenean. Adibidez, ondorengo perpausei Chomsky-ren KL erregela aplika dakieke:

- (24) a. Mikelek liburu hau erosi du.
 b. Mikelek aterki hori erosi du.
 c. Mikelek liburu hau eta aterki hori erosi ditu.

Baina horrelakorik ezin daiteke egin Chomsky-ren definizioan aipatutako X eta Y haiek funtzio pragmatikoaren aldetik desberdinak badira:

- (25) a. Mikelek liburu hauxe erosi du.
 b. Aterki hori Mikelek erosi du.
 c. *Liburu hauxe eta aterki hori Mikelek erosi ditu.

Horrelakoen berri Osak (1990, 253) eta Contreras-ek (1978, 23 eta hurr.) xehetasun handiagoz ematen dute¹⁵.

Beraz, mota bereko atal izate hori zehazki zer den argitzea hasiera batean eman lezakeen baino korapilatsuagoa da, eta badirudi gauza asko izan behar direla kontuan. Dena den, korapilo hori askatzeko ahaleginik ez da falta izan. Irtenbide posible zenbait aipatuko ditut orain nik. Guztietan ere sintaxiaren lehengaiak era desberdinetara definitzen dira, juntatzen direnak mota bereko atal izan daitezen.

1.3.1. GPSG: Osoki espezifikatu gabeko kategoriak

GPSG modeluaren barnean lan egiten dutenek ohiko kategoria sintaktikoetatik abiatutako analisiari alternatiba modura *underspecified categories* deituko dituztenak oinarri dituen analisi bat eskaintzen dute (bereziki, Gazdar eta b. 1985; eta Sag eta b. 1985): «Syntactic categories are not taken to be unanalyzable objects represented by monadic node labels, but rather are viewed as sets of feature-value pairs» (Sag eta b. 1985, 120). Hori da beren analisiaren bizkar-hezurra. Begira diezaiegun ondoko perpaus hauei:

- (26) a. She was well known to the police and a devout catholic.

¹⁵ Galdegaiarentzat eta mintzagaiarentzat perpausean kokagune sintaktiko bereziak proposatuz gero arazo hori erraz gainditzen da.

- b. *The well known to the police and a devout catholic man was my father.

Desberdintasun horren berri gramatikaren barnean eman beharra dago, baina Chomsky-tarren bidetik ezin omen da horrelakorik lortu, kasu batean zein bestean elementu berberak juntatzen baitira. Nola lortu hori? Juntadura-egiturei tratamendu desberdina emanez: ohiko aldarrikapena zen juntadura egituretan kategoria bereko osagaiak lotzen zirela, eta bien artean osatzen zuten 'amak' ere kategoria bera zuela. GPSG-koek berriz diote:

«If a phrase structure rule introduced a category α , then any conjunct of α is a superset of α ». (Sag eta beste 1985, 119)

Beraz, aurreko 'amari buruzko' aipamen hari jarraituz: «each conjunct contains a superset of the featural information of the mother». Lortzen direnak, ondorioz, ez dira kategorien bariabileak, baizik «a minimally specified category, compatible with any category in the grammar in respect of feature structure».

Har dezagun, esate baterako, (21)-eko adibidea:

- (21) Pat is a Republican and proud of it. (NP and AP)


Perpau honetan *be* aditza daukagu, eta (21) adibidea esplikatuz nahi badugu, esan beharko dugu *be* aditza honelako arau batekin sartzen dela:

- (27) VP: H° , $X''[+PRD]$ ¹⁶

Arau horretan esaten dena da *be* aditzak bi barrako kategoria bat hartzen duela konplementu modura¹⁷, baina ez da adierazten zein kategoria den, eta horregatik agertzen da X letra. Egitura hori zuzena izango bada, hala ere, bi barrako kategoria horrek [+PRD] ezaugarria izan behar du. Gauzak argiago ikus daitezten, (21) adibideari ematen dioten errepresentazioa ekarriko dugu (Sag eta b. 1985, 142):

¹⁶ H° horrek BURUA esan nahi du. Kasu honetan aditza bera izango litzateke H° .

¹⁷ Terminologiaren aldetik ez dira guztiz berdinak P&P modeluko *burua*, *konplementua*, ea. eta GPSG-ko BURU espezifikazioak, *konplementua*, etab. Bestalde, (27)-n eman dugun arau hau *Immediate Dominance*-ri dagokio, eta ez du ordenaz ezer esaten. Xehetasun gehiagotan ez gara sartuko.



Ikusten dugu, hemen axola ez zaizkigun xehetasunak alde batera utziz, (27)-ko arau horretako X'', lehenengo juntagaian N'' dela, izen sintagma, eta bigarreanean A'', adjektibo sintagma. Hala ere, biek badute [+PRD] BURU-espezifikazioa¹⁸, eta beraz, (27)-k eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituzte.

Orain, (26) adibidera itzuliz, askoz errazago uler daiteke zergatik gertatzen den desberdintasun hori (26a) eta (26b,c)-ren artean. (26a)-n *izan* aditza daukagu, eta han bezalaxe, (27) erregela hartu behar dugu kontuan; alegia, (26a)-n osoki espezifikatu gabeko kategoria bat onartzen da. Aldiz, juntagai horiek berak subjektu lekuan edo IS bateko adjektibo modura agertzen badira, ezin dira onartu, subjektu posiziorako eta IS barruko adjektiboentzako ezin baita era horretako kategoriarik proposatu.

Hau da, xehetasun asko kenduta, GPSG korrontekoek horrelakoen berri emateko proposatu zuten bidea. Eta *izan* aditzaren konplementuekin bezalaxe gertatzen da beste zenbaitekin ere. Ikus dezagun jarraian, osoki espezifikatu gabeko kategoria horien artean, zer motatakoak proposatzen dituzten (Sag e.b. 1985).

Lehenengo adibidea *become* (=bihurtu) aditzarekin ematen dute. Beren ustez, aditz hori ondorengo erregela honen bidez sartzen da:

(28) V: H^o, X'' {[+PRD],[+N]} (141 or.)

¹⁸ Ikus Gazdar e.b. 1985, eta Sag e.b. 1985. Baita, korrante honi buruzko sarrera argi baterako, Sells-en lana ere (1989).

eta beraz, bere konplementuko juntagaiak bi barrako edozein kategoria izan daitezke -X"-, eta {[+PRD],[+N]} BURU-espezifikazioa izan behar dute. Horrela, erraz eman daiteke ondorengo bi adibide hauen berri:

- (29) Pat became a republican and quite conservative.
 (30) *Tracy has become a republican and of the opinion that we must place nuclear weapons in Europe.

Orain arteko biek, (27)-k eta (28)-k, X"[+PRD] subkategorizatzen zuten, baina beste zenbait aditzek beste era batzuetako espezifikatu gabeko kategoriak eskatzen dituzte. Adibidez, (31) bezalakoak esplikatzen proposatzen da badirela MANNER bezalako BURU-ezaugarriak, eta moduzko adberbioak sartzen dituen sintaxiko erregelak X"[MANNER] sartzen duela:

- (31) We walked slowly and with great care. (ADV" eta P")

Beraz, osoki espezifikatu gabeko kategoria bat daukagu berriro ere, goiko adibide horretan bi eratako alabak onartzen dituena: ADV"[MANNER] eta P"[MANNER]. Eta gauza bera egingo dute X"[+TEMP] ezaugarriarekin ere.

GPSG-koek, bada, osoki espezifikatu gabeko kategoriak jartzen dituzte koordinazioaren oinarrian, eta horien bidez konpondu nahi dituzte ohiko kategoriekin sortzen ziren arazoak. Egiten dutena zera da: kategorien definizioa aldatu, eta koordinazioaren mekanismoa birdefinitu¹⁹.

1.3.2. Gramatika Lexiko-Funtzionala

Bresnan-en gidaritzapean garatutako Gramatika Lexiko-Funtzionalak (GLF) arazo horiek berak konpontzeko *funtzio* kontzeptura jo du²⁰. Dena den, *funtzio* hitza literaturan zehar nozio oso desberdinak izendatzeko erabili izan da, eta hizkuntzalaritza-korronte bakoitzak bere erara definitu du. Ezin ditugu, bada, guztiak nahasi.

¹⁹ Osoki espezifikatu gabeko kategoria gehiagoz ere hitz egiten du. Nabarmendu behar da BURU-ezaugarri horien artean numeroari dagozkionak, denborari dagozkionak, eta beste zenbait ere badaudela (Sag e.b. 1985, 123), eta teoria honetan guztiak maila berean daudela. Ondorioz, ama eta alaben arteko erlazioak xehetasun handiz ematen dira, eta predikzio interesgarriak ere egiten dira. Dena den, hasierako urratsak besterik ez dira. Zenbait alorren kritika Warner-ek (1988) eta Lee-k (1990) egiten dute.

²⁰ Koordinazioari dagokionez ikuspegi honen aldeko apustua egiten duen beste hizkuntzalari bat Peterson (1981) da.

Teoria honek bi errepresentazio-maila desberdin proposatzen ditu: osagai-egitura eta funtzio-egitura. P&P-k eta GPSG-k ez bezala funtzioei hizkuntzako lehengai izaera aitortzen die teoria honek. Aditzek, beren subkategorizazioan, funtzioak subkategorizatzen dituzte. Aipatu ditugun bi egitura horietako elementuek, hots, osagai-egiturakoek eta funtzio-egiturakoek, ez dute zertan nahitaez bat etorri: gerta daiteke osagai-egiturako elementu batek, adibidez IS-k, funtzio-egituran funtzio bat baino gehiago bete ahal izatea, eta alderantziz, funtzio-egiturako elementu bakar bat osagai-egituran elementu bat baino gehiagoren bidez gauzatu ahal izatea. Bi osagai juntatu ahal izateko osagai-egiturako berdintasuna ez baina funtzio-egiturako berdintasuna behar da. Har ditzagun zenbait adibide Sells-en lanetik (1989, 180):

- (32) We consider him honest and a likely candidate for the next election.
 (33) Maria was asleep and causing a stoppage in the traffic.

Ikusten dugu (30)-eko adibideetan kategoria desberdinak daudela juntaturik (AdjS eta IS; Adjs eta AS). Baina aurreko adibide hauei dagokienez juntagai guztiek COMPX funtzioa dute, edozein kategoriarekin joan daitekeen funtzio bat, eta ondorioz, ez dago inolako arazorik goikoak bezain kategoria desberdinetako juntagaiak elkartzeko. Beraz, juntadura beste zenbait teoriak onartu ere egiten ez duen egitura baten baitan definitzen da, funtzio-egituran hain zuzen²¹.

1.3.3. Franchini 1986

Franchini-k ere, aurrekoek bezalaxe, *funtzio* hitza erabiltzen du²², eta funtzio-berdintasunean jartzen du juntaturako baldintzak eta debekuak ulertzeko giltza (Franchini 1986, 87):

«Dos o más unidades o sintagmas categoriales son equifuncionales cuando muestran idéntico comportamiento sintáctico con respecto al núcleo ordenador del sintagma inmediatamente superior en que están insertados y cuando el núcleo de dicho sintagma pertenece a la misma clase morfológica (N, V, Adj. o Adv.)»

²¹ FOKOA eta TOPIKOA ere funtzioak izango lirateke, zenbait hizkuntzatan subkategorizatzen direnak, eta beste zenbaitetan subkategorizatzen ez direnak. Ez gara oraingoz behintzat aurrerago joango, eta ez dugu aztertuko GLF-k zein funtzio proposatzen dituen, ezta horretarako zein arrazoi ematen dituen ere.


²² Honela definitzen du funtzioa (Franchini 1986, 84): «La función sintáctica es la relación abstraída que una unidad categorial o sintagma categorial desempeña con respecto al núcleo ordenador del sintagma categorial inmediatamente superior en que se encuentra insertado. Se manifiesta concretamente en un comportamiento sintáctico individualizador de la unidad o sintagma categorial frente a dicho núcleo».

Hizkuntzalaritzaz duen ikuspegia guretik nahikoa urrun dago²³, eta auzi horiek argitzeari baino arreta handiagoa jarriko diegu berak aurkezten dituen zenbait arazori.

Franchini konturatzen da funtzio-berdintasunak, berak definitu duen eran definituta, ezin dituela kasu guztiak esplikatuz, badirela zenbait adibide, bere definizioaren arabera funtzio berdinekoak direnak, baina hala ere juntatu ezin daitezkeenak. Adibidez, adberbio-kutsuko zenbait esapide:

(35) a. *Juan come a las doce y en la cantina.

(35a)-ko adibidean adberbio-kutsuko bi esapideei bere modeluan funtzio bera legokieke, MOD₂, baina hala ere ezin dira juntatu. Hierarkian maila desberdinean egoteari egotzen dio errua: funtzio berekoak izan arren, errepresentazio sintaktikoan hierarkia-maila desberdinean daude. Honako egitura ematen digu (Franchini 1986, 117):



Beraz, berdintasun funtzionalaz kanpo hierarkiaren aldetiko berdintasuna ere behar da. Autorearen ustez bi juntagai horiek semantikaren aldetik desberdinak dira, *en la cantina* sintagma, *come a las 12* osoari dagokio, ez *come-ri* bakarrik, eta desberdintasun hori errepresentazio sintaktikoan adierazi behar da. Hortik hierarkian maila desberdinetan kokatzea. Gauza bera gertatzen da izenondoen artean ere:

(35) b. *Un accidente terrible y aéreo

²³ Hori garbi ikusten da, adibidez, gaztelera posible diren 24 funtzioen zerrenda ematen duenean (Franchini, 1986,88-90).

(35b)-ko lehenengo izenondoa esplikatzailea da, bigarrena espezifikatzailea, eta izenondo esplikatzaileek eta espezifikatzaileek izenarengan eragin semantiko desberdina dute. Biek funtzio sintaktiko berdina izan arren funtzio semantiko desberdinak dituzte²⁴, eta hori syntaxian islatzen da (Franchini 1976, 136): «El nivel jerárquico de las extensiones del sustantivo y de los dos adjetivos con miras a las operaciones lógicas a que se someten coincide en sintaxis con el nivel oracional de estas unidades».

Beraz, hierarkian maila berean dauden osagaiak bakarrik junta ditzakegu, kontuan izanik hierarkia-maila hori osagaien funtzioaren eta ezaugarri semantikoen arabera erabakitzen dela²⁵.

1.3.4. Printzipioen eta Parametroen modelua

Chomsky-ren lanari zintzoen jarraitu diotenen artean, 1981ean *LGB* argitaratu ondorenetik juntaturari buruzko azterketek pisua galdu dute, beste zenbait arloren mesedetan. Halere, badirudi, inplizitoki bada ere, bi osagai juntatu ahal izateko perpausaren egitura sintaktikoan hierarkia-maila bera behar delako ideia nagusitu dela.

Egitura sintaktikoko berdintasun horren inguruan, dena den, zenbait gogoeta egin beharrean gaude. Printzipioen eta Parametroen modeluan, egokitasun esplikatiboaz edo hizkuntz unibertsalez lan asko egin da, baina ahalegin horretan beste zenbait alderdi gutxiago landuta geratu dira: hizkuntza bakoitzeko egituren deskripzioa nahikoa umezurtz geratu da askotan. Eta juntaturako baldintzen eremuan orain arte aurkeztu ditugun arazo hauetako zenbaiti erantzuna emateko hizkuntza bakoitzari buruzko analisi oso zehatzak behar ditugu. Has gaitezen, esate baterako, adverbio-kutsukoekin auziarekin. Franchini-k txartzat ematen zuen ondorengo adibide hau aipatu dugu:

(35a) *Juan come a las doce y en la cantina.

(35a) adibidea euskaratzen badugu, kategoria bereko bi juntagai izango ditugu:

²⁴ Oinarriztat Rojo (1975, 1976) hartuz, semantikaren aldetik duten desberdintasuna, eta horrek jokaera sintaktikoan duen eragina aztertzen ditu (Franchini, 1986, 119-148).


²⁵ Ez dakit ez GPSG-k ez GLF-k horren berri nola emango lukeen, era honetako informazioari buruz ez baitute ezer proposatzen: ez dago gauzak xeheki aztertuko dituen monografiarik, eta horrek balorazioak asko zailtzen ditu. Bestalde, Franchini-k darabilen modeluan ez dakigu funtzio pragmatikoak nola moldatzen dituzten, gaztelerazko funtzioen zerrenda ematen duenean (Franchini 1986, 88-90) horrelakorik ez baitu aipatzen.

(35a') Jonek hamabietan eta tabernan jaten du.

Biak PospS dira, eta biek deklinabide-marka bera daramate. Kategoría berekoak dira. Baina gramatikaltasun-iritzien arabera pentsa liteke (35a) eta (35a') parekotzat hartu beharko genituzkeela. Badirudi, beraz, kategoría-berdintasuna, zentzu klasikoan ulertuta, ezin izango dela inola ere erabakiorra izan.


Bigarren aukera, lehen aipatu dugun bezala, sintaxi-egituran maila bereko edo maila desberdineko diren begiratzea da. Proposamen oso desberdinak egin dira adberbio-kutsuko kokalekuaz. Pollock-en (1989) lanaren ondoren, perpausaren egitura askoz konplexuagoa egin da, batik-bat bere goiko aldean, eta zenbaitek proposatu dute nozio desberdinak (denbora, modua, lekua...) adierazten dituzten adberbio-kutsuko sintagmak zintzilikatzeko orain sortu berri ditugun adabegi horiek erabil ditzakegula. Baina guztiz alderantzizko proposamenak ere badira. Larson-ek (1988, 1990), zehar-osagarria eta osagarri zuzena, biak zituzten perpausen egiturari buruz ari zela, AS adabegi bat baino gehiago zituen egitura proposatu zuen (*VP shell*).

S-egitura



'John sent a letter to Mary'

Adberbio-kutsuko sintagmentzat ere mota bereko analisisa proposatzen du: adberbio-kutsuko sintagma adina AS izango genituzke S-egituran, eta ondorioz, sintagma horietako bakoitza AS desberdin batean joango litzateke. Hona *write a letter to Mary in the morning* bezalako AS batentzat zer S-egitura proposatzen duen (Larson 1988, 346):



'write a letter to Mary in the morning'

Nabarmendu behar da aditzondo hauek, egitura honen arabera, objektuak baino beheragoko AS-etan joango liratekeela.

Bi proposamen, bada, elkarrengandik guztiz desberdinak direnak, eta auzi honi buruzko adostasunik ezaren (analisi-ezaren?) erakusgarri suertatzen direnak. Desberdintasuna, gainera, teoria honen barnean muin-muinekoa da. P&P modeluan lan egiten dutenek -eta beste batzuek ere bai-, egitura sintaktikoa, hein handi batean behintzat, elementu lexikoen -eta bereziki predikatuen- esanahiaren arabera moldatzen dute. Bada, kasu honetan ikusten dugu proposamen batentzat adberbioak aditzetik urruneneko elementuak direla, aditzarekin zerikusi gutxien dutenak; bestearentzat ordea, aditzetik gertueneko elementuak adberbio horiek berak dira.

Aurreko modeluentzat aipatu ditugun beste bi alorrak, izenondoena eta funtzio pragmatikoena, moldatzeko bideak badaude. Adjektiboei dagokionez, semantikako desberdintasunak islatuz X-barra teoriak IS-rako eskaintzen digun egituran maila desberdinetatik zintzilikatzea izango litzateke irtenbidea. Kontuan izan behar da, gainera, erlatibozko perpausekin ere proposatu direla horrelakoak, baina sintagmen juntaduretako elipsiei eskainitako atalean zenbait arazo agertuko ditugu. Egitura pragmatikoari dagokionez, esan dugu galdegai den atala ezin dela galdegai ez denarekin juntatu. Baina euskaraz hori, neurri batean bederen, ez da oztopo, galdegaiarentzat eta mintzagai hanpatuentzat egitura sintaktikoan kokagune bereziak proposatu baitira. Beraz, galdegai eta galdegai ez den beste zerbait juntatzen hasten bagara, sintaxi-

egituran maila desberdinean, leku desberdinean dauden atalak juntatu nahi izango ditugu, eta hori debekaturik dago²⁶.

1.3.5. Kategoria heterofuntzionalen juntadura

1.3.5.0. Sarrera

Orain arteko adibideetan bi juntagaiak mota berekoak ziren. Korronte desberdinek era desberdineran definitzen zuten mota bereko izate hori, baina era intuitibo batean guztiak batera biltzeko modua badagoela uste dut: juntatzen diren bi elementuek era bereko erlazioa izan behar dute nolabaiteko ardatz batekiko. Baina, alde batetik, horren mugak zehaztea ez da erraza, eta bestetik, badirudi baldintza hori zenbaitetan estuegia gertatzen dela. Hurrengo bi ataletan era honetako adibideek sortzen dizkiguten arazoak aurkeztuko ditugu.

1.3.5.1. Zenbaterainoko berdintasuna?

Hel diezaigun berriro ere (16) adibideari:

(16) Andoni etxe handi batean eta bakarrik bizi da.

Osak zioen, adibide horri buruz: «... kategoria berdineko atalak elkartzen ditugu, bi adberbioen azpiko nozioa desberdina den arren». Goenagak berriz, syntaxian maila bera zutela, baina kategoria desberdineko zirela.

Guztia, jakina, *kategoria* hitzari eman nahi diogun esanahiaren baitan dago. Baina deiturak deitura, gauzak nahikoa argi daude adibide horretan: bi juntagaiak formaren aldetik desberdinak dira, eta ondorioz, gramatika sortzailearen tradizioan, kategoria desberdineko; baina bietatik bat ere ez da aditzaren argumentu, biak ere, adberbioak orokorrean izan ohi diren eran, aditzarekiko lotura lasaiagoa duten elementuak dira, eta alde horretatik bat datoz biak; baina, Osak dioen bezala, biek "azpiko nozio" desberdina dute: bata lekua adierazten du, besteak modua.

Beraz, kategoriaren aldetik desberdinak dira biak, baina horri ez baina azpiko nozio desberdina izateari egotzi beharko genioke horrelako adibideak batzuek

²⁶ Besterik gertatzen da, ordea, galdegaitasuna adierazteko azentua edo horrelako baliabideren bat erabiltzen dugunean. Dena den, arazo honi ez diogu jaramon handirik egingo: Konjuntzio Laburketa erregela onartzearen ondorioz bilakatzen dira horrelakoak arazo.

zalantzazkotzat ematea. Edo baita, beharbada, sintaxi-egituran maila desberdineko izateari ere, baldin eta nozio-desberdintasun hori sintaxi-egituran islatzen dela proposatzen badugu²⁷. Baina auzia da batak ontzat ematen duela eta besteak txartzat. Garbi dago horri buruz gogoeta egin beharra dagoela.

Aditzondo-kutsukoei dagokienez erabaki behar da zer noziok duten juntatu ahal izateko adinako kideasuna. Franchini-k, gogora dezagun, ez zuen zilegi ikusten denbora eta lekua juntatzea:

(35) (a) * Juan come a las doce y en la cantina

Guk euskarazkoez ez dugu ezer esan, baina badirudi Euskaltzaindiak (1994,28) ez duela oztopo berezirik ikusten:

«Horrelakoak are normalagoak dira, adizlagunak esanahiaz kideko direnean; adibidez denbora, lekua adierazten dutenean:

- (67) Oraintxe eta hemen egin behar duzu hori
(68) Beti eta han bertan ospatuko da festa»

Beste zenbaitetan, ordea, gauzak ez ditu hain argi (Euskaltzaindia 1994, 30):

«Lekua eta denbora oso gertuko ardatzak izateaz gain askotan kasu-marka beraren bidez -inesiboko -n kasu-markaz- adierazten dira eta. Beste zenbait adibidetan, ostera, zalantzak sortzen dira *eta*-k elkartzen dituenak adizlagunak diren, ala perpausak:

- (78) Zurekin eta etxean egongo naiz
(79) Eskuz eta ordubetean irabazi dio

Hor bi perpaus ditugula dirudi, baina agian ondoko (80)ko bi adizlagunek (edo (66)-(68)koak) bezalaxe adizlagun kategoriako osagaia osatzen dute:

- (80) Bost umerekin eta oinez etorri zen Bilbotik

Gainera azken honetan galdera berari *-nola* galderari, alegia- erantzuten zaio nolazpait; (78) eta (79)an aldiz bi galderari.»

Funtsean ni ere bat nator hor egiten den banaketarekin, baina zenbait gauza gehitu nahi nituzke. Lehenik, horrelakoen bidez juntatzen ditugun bi atalak perpausaren funtzio pragmatikoaren aldetik parekatzeko ahalegin bat somatzen dela. Adibidez, berez (16)-ren esanahi berbera izango luke juntagailurik gabeko (16') perpausak, baina funtzio pragmatikoaren aldetiko berdintasuna (16)-n nabariagoa da, (16')-n intonazioaren bidez berdintzeko ahaleginen bat egiten ez badugu behintzat:

²⁷ Garrantzia izan dezakeen beste puntu bat ere bada: *bakarrik* atala oso errematikotasun handiko elementua da, *etxe handi batean* baino askoz handiagokoa behintzat, eta horrek bi juntagai elkartzerakoan izan dezake eragina, baita perpaus neutro samarretan ere.

(16') Andoni etxe handi batean bakarrik bizi da

Bestalde, badirudi bigarren juntagaien lehenengoan esandakoa nolabait zehaztu edo egiten dela.

Bigarrenik, Euskaltzaindiaren (80) perpausak *nola* galderari erantzuten diola esaten dugunean, nire ustez gramatikaz kanpoko kontzeptuez ari gara, eta oso zail egingo zaigu *nola* galderaren erantzun modura zer motatako juntagaiak elkar ditzakegun aurretiaz esaten²⁸. Adibidez, ondorengo honetan (79)-n bezalako juntagaiak ditugu, eta ene ustez (80)-k bezain erraz erantzun diezaioke *nola* galderari:

(36) Belokik esku bakarraz eta hoge minutuan irabazi du txapela

Beraz, juntatzen ditugun adizlagunek adierazten dituzten nozioek baino areago munduaren ezagutzak erakutsiko digu zerk erantzun diezaiokeen era honetako galdera bati. Horrela, ez dakit zenbateraino dagoen arrazoirik batzuei eta besteei jatorri eta errepresentazio sintaktiko desberdina -osagai-juntadura eta perpaus-juntadura-proposatzeko.

Hirugarren, eta berriro ere egitura sintaktikoari helduz, Euskaltzaindiak aldarrikatzen du ondorengo bezalako adibide bat onargarri denean egiatan bi perpaus juntatzen ditugula:

- (37) a. Aitak eta amari erosi dio
b. Aitak erosi dio eta amari erosi dio (gainera)

Horrekin esan nahi bada juntadura hauek besteetatik desberdinak direla, nolabait bereziak direla, ados nago, baina tratamendu sintaktikoari dagokionez aldarrikapen hori hitzez hitz hartzeak ez dakit zenbaterainoko laguntza ematen digun gauzak esplikatzeko unean. Adibidez, lehenaren iturri diren bi perpaus horiek jatorrian zehazki zein diren zehazterik ez dut uste dagoenik: gerta zitekeen benetako jatorria (38)-koa hau izatea ere.

(38) Aitak erosi du eta amari erosi dio

²⁸ Lehentxeago esan dugu horrelako adibideetan juntatzen diren atalak funtzio pragmatikoaren aldetik berdintzeko joera somatzen dela. Moduzko aditzondoak erramatikotasun handiko elementuak dira. Baliteke galdera bakarrari erantzutea, eta galdera hori *nola* izatea, juntatutako bi atal horiek informazio-gune nabarmenena balira bezala aurkezteko nahiak eragindakoa izatea. Ildo berean interpreta liteke lekua eta denbora adierazten dutenak ere batera bildu ahal izatea, errematikotasun ahuleko elementu hauek ondoren emango den informazioaren kokapena emateko erabili ohi baitira.

Azkenik, iruditzen zait era honetako juntadurak sarritan baliabide estilistiko modura erabiltzen direla. Adibidez, adberbio-kutsuko atal asko pilatzen direnean, edo oso sintagma luzeak direnean, nahikoa ohikoa da tartean *eta* juntagailua eramatea, bereziki mintzagai hanpatuetan eta galdegaietan:

(39) Datorren ostiralean eta gaueko hamarretan kontzertu erraldoi bat izango da Madalensoro pilotalekuan

(40) Arratseko bederatzietan eta jendearen txalo artean jokalaria Ama Birjina Zuriaren enparantzara bildu ziren

(41) Askotan eta arrazoi desberdinengatik aipagai izan da bertso famatua

Intonazioaren aldetik ere ohiko juntaduretatik desberdinak izan ohi dira. Baliabide hori zenbateraino onartzen duen hiztun bakoitzak, harrera hobe edo txarragoa egingo die (16) bezalako juntadura bereziei: hori izan liteke Osa eta Goenagaren onargarritasun-iritzi desberdinen arazoia. Horrelatsuko adibideak erruz aurkitzen dira testuetan:

«Begira Yaungoikoaren yakituria danari, zein Pilatosek Herodes-egana biraldurik, Yudeguak barriro ta aserre salatuten dabeen.» (Añibarro, *Esku-liburua*, 218-219)

«Eguerdia zan; goseak bizi estutzen zuen; eta aurtxo ere goseak beartuta berriro eta txit saminki negarrari eman zitzaion.» (Arrue, *Santa Genobeba*, 43)

Hauetan guztietan, beraz, era batera edo bestera autoreek lehen aipatutako baliabide estilistiko horretara jotzen dute, esapideei enfasia emanez²⁹. Eta enfasiarekin eta erabilera berezi horretan, tartean aditzak subkategorizatutako elementuak dituzten adibideak ere aurkitzen dira:

«Lenbizikoa da humilki hau ta askotan jangoikoari eskatzea, eskriturako jakinsuak egiten zuen bezala, ta egiten zuen ark hau, zeren zekien gis onetan baizik garbiro ezin bizi zitekela.» (Mendiburu, *Igande eta...*, 132)

²⁹ Antzeko baliabide estilistikoa erabiltzen dela dirudi ondorengo hau bezalakoetan ere:

«Apaiz jauna: Izurrain-aldera egin diteke ta erraz kale lerdan ederra.» (Azkue, *Ardi Galdua*, 32)

Franchini-k (1986, 395) bigarren juntagaia balitz bezala agertzen denari *información adicional focalizada* deitzen dio «Juan CANTA y MUY BIEN» bezalako adibideetan.

«Ezta erraz bide haren eta handik iragaitez, hartu duen usantzaren, abiaduraren eta lasterraren sal arazitzea.» (Axular, *Gero*, 86-87)

«erantzuera gaizto bat edo ukabilkada bat edonori ta errez dakie emoten, (...); edozeñegaz da edozergaitik aserratuko dira beingoan, baña, ordu estu ta larrietan, biotz guztiagaz ta edozeiñi laguntasuna emoten be badakie» (T. Agirre, *Kresala*, 23)

Hortaz, laburpen modura, esan beharko dugu aditzondo-kutsukoak juntatu ahal izateko benetan garrantzia duena juntagaien esanahi edo azpiko nozioa dela. Zenbaitetan, ordea, azpiko nozio desberdineko elementuak juntatu nahi izaten ditugu. Askotan bi atalak funtzio pragmatikoaren aldetik berdintzeko asmoz hartzen da bide hori. Beste zenbait autorek badirudi baliabide estilistiko bezala erabiltzen dutela, nolabaiteko balio enfatiko batekin. Euskaltzaindiak (1994) horrelakoetan egiatan bi perpaus juntatzen ditugula esaten du. Jatorri sintaktiko hori emateak ezabaketa dagoelako hipotesia eskatuko luke. Juntadura hauen izaera berezia markatzeko bide bat izan liteke. Baina analisi sintaktiko bezala ez dakit zenbateraino laguntzen duen. (37-38)-n ikusi dugu arazo bat: batzuetan jatorrian zer perpaus dauden zehaztea zaila da³⁰. Gainera, nozio desberdinak juntatzen direlarik, perpaus juntadura diren ala azpiko galdera berari erantzuten dioten jakiten ez da erraza, azken kontzeptu hori egiatan ez baita gramatikaren barnekoa (Euskaltzaindiaren (79) adibidea eta gure (36) adibidea).

Hurrengo atalean ere era desberdineko atalak juntarazteko bidez ihardungo dugu: aldarrikatu izan da zenbait baldintza betez gero kategoria guztiz desberdinak juntatzeko arazorik ez dagoela, eta juntadura horiek ez dutela inolako intonazio eta irakurketa berezirik eragiten. Lehenik, ingeleserako zer baldintza aipatu izan diren erakutsiko dugu; ondoren, auzi horiek euskaraz nola gertatzen diren agertzen saiatuko gara.

1.3.5.2. Heterofuntzionalak juntaturik

1.3.5.2.0. Sarrera

³⁰ Horrelako adibideak bi perpaus oso juntatu eta ondoreneko ezabaketaren bidez eratortzearen arazoak agertu ditugu. Dena den, bigarren juntagaian *ere* edo *gainera* bezalako elementuak azaldu ohi dira sarritan, interpretazio berezia ere ildo horretatik joan ohi da, eta datu hori hobeto dator perpaus-juntaduraren hipotesiarekin.

Aspalditxotik aldarrikatu izan da zenbait baldintza betez gero ez dagoela arazorik era desberdineko elementuak juntatzeko. Honela agertzen digu Lang-ek (1984, 48):

«... differing adverbial categories (e.g., Time vs. Local vs. Manner) which are syntactically non-homogeneous in a simple sentence, become homogeneous, hence conjoinable, exemplifications of constituents once they are incorporated into the scope of interrogation or of indefinite assertion».

Hona bere adibideetako bi:

- (42) a. I bought the chair sometime and somehow
b. Where and how did you buy the chair?

Galde hitzekin lotura handia duen beste testuinguru bat ere aipatzen digu Lang-ek: «within the scope of a correction operation» deitzen duena. Begira (43)-ko adibideen artean dagoen desberdintasunari:

- (43)
a. ??I bought the chair yesterday and in Jericho.
b. I didn't buy the chair *today* (and) *in Cowley* but *yesterday* and *in Jericho*.
c. I bought the chair *yesterday* and *in Jericho*, not *today* (and) *in Cowley*.

(43a)-k aurreko atalean euskararako ikusi ditugunen aitzakia guztiak izango lituzke; (43b) eta (43c) berriz zuzenak iruditzen zaizkio, eta juntadura-egituren ohiko balioa besterik ez die aurkitzen: ez lukete, beraz, guk (1.3.5.1.)-en somatu dugun irakurketa berezirik izango.

Horrelako egiturak sakonkien aztertu dituen Grosu (1987, 1985³¹) izan da. Eta Grosu-k esaten du horrelako prozesuen bidez, mota desberdinako adberbioak ezezik, subkategorizatutako elementuak eta subkategorizatu gabeak ere junta daitezkeela zenbaitetan:

- (44) John sings the MOST inappropriate songs and at the MOST inappropriate hours.

(44)-ko adibidean juntatzen direnak ez dira ez kategoria berekoak, ez funtzio berekoak, ez egitura-maila berekoak. Galdera berari ere ez diote erantzuten. Bi atal juntatu ahal izateko orain arte eman ditugun baldintza guztiei ihes egiten diete. Baina ihes egite hori

³¹ 1985ekoa 1987koa baino berriagoa delako ematen ditugu ordena horretan.

ere zenbait arauri jarraituz egiten da. Hurrengo atalean Grosu-k juntadura-mota hau zilegi egiten duten baldintzei buruz esaten duena agertuko dugu, eta euskaraz gauzak nola gertatzen diren aztertuko dugu: euskaraz lehen aipatu dugun intonazio eta balio berezirik gabe horrelakoak aurkitzea oso zaila dela ikusiko dugu.

1.3.5.2.1. Baldintzak: Grosu-ren analisia.

Egitura hauen onargarritasunerako bi baldintza aipatzen ditu Grosu-k: juntagaien aukerakotasuna, eta mezu amankomuna duten fokalizatutako operatzaileak izatea.

1.3.5.2.1.1. Juntagaien aukerakotasuna

Grosu-k agertzen digunez era honetako adibide guztiak ez dira zuzenak: (44)-ko adibidearen oso antzekoak, itxura guztien arabera berdinak izan behar luketenak, askotan ez dira zuzenak gertatzen. Grosu-k ondorengo adibide hau ematen du:

(45) *John puts only strange objects and only in strange places.

Zerk eragiten ote du desberdintasun hori? Grosuren (1987) ustez, era honetako egituretan agertu ahal izateko juntagaiak bere perpausean aukerako izan behar dute, eta bere perpausean aukerako ez badira, ezin izango dira horrelakoetan agertu. Azken adibide honetan, esaterako *strange objects* eta *in strange places* aditzaren nahitaezko argumentuak dira, eta adibidea okerra da.

Geroagoko den 1985eko lanean aukerakotasunaren nozioa gehiago zehazten du, eta esaten du horrelako egiturek bete behar dituzten baldintzak eta *Sluicing* erregelak bete beharrekoak berdinak direla. Sluicing-egiturak ondorengo hauek dira:

- (46) a. Joxe hizketan ari da, baina ez dakit norekin.
b. Miren Donostiara joan da, baina ez digu esan zergatik.

(46a)-n, *ez dakit norekin ari den hizketan* ulertzen dugu, eta (46b)-n *ez digu esan zergatik joan den Donostiara*. Beraz, egitura hauetan zehargalderako elementu bakarra dugu agerian, galde hitza. Perpaus osoko predikatua elipsoidunekoa baino argumentu bat gutxiagorekin azaldu ohi da sarritan (galde hitzari dagokiona). Grosu-ren aldarrikapena da, antezedentean argumentu baten faltan ager daitezkeen predikatuak direla,

juntaduraren arloan, subkategorizatutako atal bat eta subkategorizatu gabe bat elkartuta onartzen dituztenak. Sluicing egiturentzat Levin-en (1982) analisiari jarraitzen dio Grosu-k (1985). Levin-en ustez, egitura hauetako bi predikatu desberdinak, perpaus osokoa eta elipsoidun perpausekoa, prozesu lexiko jakin batzuen bidez erlazionatzen dira³²:

- Existential Quantification: Jenny ate apples /Jenny ate.
- Passive Existential Quantification: Janet was kissed by Jimmy /Janet was kissed.
- Preposition-Incorporating rules: Era askotakoak, adibidez:
Seymour sliced the salami /Seymour sliced the salami with a knife

Sluicing-egituretan, beraz, ez da beharrezko bi predikatuak guztiz berdinak izatea, egokiak izateko nahikoa da bateragarriak izatea. Eta Grosu-ren aldarrikapena da bateragarritasun-baldintzak berdinak direla sluicing-en eta hemen aztertzen ari garen juntadura heterofuntzional hauetan.

Euskarari dagokionez, goiko kasu horien artean sarrien gertatzen dena, emankorrena, lehena da. Levin-ek objektua ezabatzen duen erregela lexiko horri *Lexical Rule of "Existential Quantification"* deitzen dio. Esaten du: «*John ate* entails *John ate something*» (Levin 1982, 613). Horrelako aditzek, Gramatika Lexiko Funtzionaleko terminologia erabiliz, bigarren argumentuari funtzio tematikoa ezartzen diote, baina funtzio gramatikalik ez. Egitura hauetan ulertzen dugun objektua beti indefinitua izaten da, eta horregatik ematen dio erregela horri ematen dion izena. Horrelakoetan, gainera, *ate* aditz horrek beste forma semantiko bat omen dauka, eta iragangaiztat hartzen du³³.

³² Honela mintzo zaigu (Levin 1982, 617): «It is a general property of sluicing that the predicates in the context and interpretation need not be identical, but may instead be related by a lexical rule». Beste zenbait prozesu lexikoren bidez erlazionatutako predikatuek berriz debekatuta dute sluicing-egituretan azaltzea: Levin-ek "Causativization, Activo-passivization, Passivization eta Dative" deitzen dituenak. (Levin 1982, 623-629).

³³ Honela mintzo da Levin: «...even when *eat* is grammatically intransitive, there is a second thematic argument that does not show up on the surface». Erregela honi dagokionez Bresnan-en (1982) zordun aurkezten du bere burua. Bresnan-ek aldarrikatzen du erregela lexiko hauek guztiak Lexikoaren Txertaketaren (Lexical insertion) aurretik gertatzen direla bere modeluan. Aztertzen ari garen erregelaz (*Intransitivization Rule* deitzen dio) honela hitz egiten du (Bresnan 1982, 166): «The assignment of the null function *f* to an argument, (...), indicates that the argument is semantically bound and that no grammatical function is assigned to it. As a result, *Fred reads easily* is semantically complete and nonelliptical and can be used to initiate a discourse, in contrast to the cases of complement ellipsis discussed in section 3.1. above». Eta Levin-ek proposatzen duen bezala, Bresnan-ek ere dio aditz berri bat sortzen dela erregela lexiko hauen ondorio. Hori frogatzeko kuantifikatzaileen eta eratorpeneko zenbait atzizkiren jokaera erabiltzen ditu. (Bresnan 1982, 169 eta hurr.).

Euskaraz, ordea, gauzak ilunxeago agertzen zaizkigu. Izan ere, euskarak badu ingelesak edo gaztelerak ez duten aukera bat: objektuak isilean uzteko aukera. Ondorioz, aditzetan [+/- aukerako] izate hori ez da hain erraz ikusten, hain erraz nabarmentzen. Ingelesezt iragangaiztearen ondorioak axalean nabaritzen ditugu, baina euskaraz ez dugu horrelakorik, objektua isilean uzteko askatasun osoa baitago. Euskaraz aditz bakoitzari une bakoitzean ematen diogun interpretaziora jo behar izango dugu bereizketak egiteko. Eta zenbaitetan ez da erraza gertatzen bi irakurketen, edo bi aditzen arteko bereizketa egitea. Ezta prozesu hauek zein aditzekin egin daitezkeen eta zeinekin ez erabakitzea ere. Ondorioz, iragangaiztu daitezkeen aditzek zer ezaugarri dituzten aztertu beharko dugu.

Literaturan ez da honetaz ezer handirik aurkitzen, eta guztiak ere zalantza artean mugitzen dira. Ahaleginik garrantzitsuena Lyons-ena (1968, 339-340 eta 360) da. Atalari *object deletion* izenburua ematen dio, eta objektu indefinitua isilik uzteko aukera hori *object of result* izatearekin -aditzaren ekintzaren ondorio da objektua (*margotu, idatzi...*)- lotzen saiatzen da. Baina berak ere aitortzen du gauzak ez direla beti ondo ateratzen. Adibidez, *make* aditza *object of result* duen horietako izango litzateke, baina hala ere ez du objektu indefinituaren ezabaketa onartzen. Bestalde, irakurketa iragangaitza onartzen duten beste zenbait aditz (*jan, edan...*) ezin dira ezaugarri horren arabera bildu. Guztiak batera zeren arabera bil litezkeen zehaztea ez da erraza. Badirudi aditza eta bere objektuaren artean nolabaiteko erlazio berezi bat somatzen dela: aditzaren ekintza jasaten duen objektua aditz horren beraren barnean dagoela edo ematen du, bien artean lotura estua dagoela. Beste zenbait aditzekin berriz, jar dezagun, *egin, erabili, ekarri, eraman, jarri...* eta beste makina batekin, objektua era askotakoa izan daiteke, askoz aditz 'irekiagoak' dira, eta orduan nahitaez objektu horrek agerian azaldu behar du, ez dira aukerako. Dena den, hori esplizitoki formulatzeko biderik oraindik ez dut ikusten.

Bestalde, nago auzi honetan guztian semantikaz kanpoko faktoreek ere eskuarki aitortu zaiena baino zirikusi handiagoa ote duten. Alegia, perpausean agertzen diren beste elementuek, subjektuak, aditzaren aspektuak, etab., erraztu edo zaildu dezaketela objektuaren aukerakotasun hori, interpretazio iragangaitz hori. Begira diezaiegun, adibidez, (47) eta (48)-ko perpausei:

- (47) a. Edozein lekutan idazten du Mirenek.
- b. Edozein lekutan margotzen du Mirenek.

- (48) a. Noam Chomsky-k ez du edozein aldizkaritan idazten.
- b. Picasso-k ez zuen edozein pertsonarentzat margotzen.

(47)-ko adibideetan (48)-koetan baino askoz informazio gehiago daukagu, badakigu, adibidez, Chomsky-k idatzi serio asko dituela, edo Picasso maila handiko pintorea dela, nahi zuen erara lan egiteko askatasun handia izan zezakeena; horrelakoetan, nire ustez, errazago da aditzei objektu gabeko interpretazioa ematea, eta ondorioz, funtzio desberdineko elementuek juntatzea. Ildo horretan, iruditzen zait (49) perpausa gehienentzat bitxia izango dela, aurretiko informazio gehiago gabe behintzat:

(49) Gaur goiza hiltzen pasa dut.

Baina, (49) hori Joxe harakinak esaten badu, eta Joxe harakina dela baldin badakigu, edo gutxienez hala uste badugu, askoz jende gutxiago harrituko da (49) entzutean.

Azken adibide hauek, bada, iruditzen zait semantikatik urrundu egiten gaituztela; aditz bera era desberdinerara hartzen da egoeraren, testuinguruaren edo hiztunen arabera: zail gertatuko da, beraz, Grosu-k heterofuntzionalak juntatzeko eskakizun modura jartzen zuen irakurketa iragangaitza zer aditz iragankorrek har dezaketen auresan lezaketen baldintzak semantika hutsaren alorrean definitzen.

1.3.5.2.1.2. Fokalizatutako operatzaileak eta mezu amankomuna

Grosu-k dioskunez, gerta daiteke *eta* bidez lotutako bi juntagaiak aukerazkoak izatea, eta hala ere perpausa okerra izatea. Izan ere, bere iritziz kategoria heterefuntzionalak juntatu ahal izateko juntagai bakoitzak fokalizatutako operatzaile bat behar du. Gainera, operatzaile horiek elkarrekin *mezu amankomun* (common message) bat egin behar dute, eta mota berekoak izan behar dute³⁴. Erakusgarri modura Grosu-k ingeleserako ematen dituen adibideak azalduko ditugu:

(50)

- a. John sings the MOST inappropriate songs and at the MOST inappropriate hours.
- b. John has written FIFTEEN articles and to TWO HUNDRED subscribers already!³⁵

³⁴ "It thus seems likely that, (...), the parallel focused operators must also fall within some single type, the appropriate typology of operators remaining to be determined by further research" (Grosu 1985, 235)

³⁵ Lehenengo bi adibide hauek Grosu 1985-etik hartuak dira, eta gaineratikoak Grosu 1987-tik. Bietan azentu-indarra era desberdinean adierazten du: lehenean letra larrien bidez, bigarrenean azentu markaren bidez. Nik nahiago izan dut adibideak bere horretan errespetatu. Ez dut uste, dena den, arlo honetan behintzat artikulu batetik bestera inolako desberdintasunik dagoenik.

- c. John will drink *á*n­anything and with *á*n­body.
- d. John can eat the w­orst food (in the world) and in the w­orst company (imaginable).
- e. John eats *t*oo much and *t*oo often for his own good.
- f. John has stolen *en*ough valuable objects and from *en*ough unsuspecting victims already (he must be stopped at all costs!).
- g. John eats un­usually expensive food and in un­usually expensive restaurants.
- h. John steals *t*otally useless objects and from *t*otally defenseless victims.

Beste zenbaitetan, itxura batean goiko hauen pare-parekoak juntatu arren, perpausa ez da zuzena izaten:

(51)

- a. *John sings the MOST inappropriate songs and ONLY in his own home.
- b. *John has written *tw*o pages and to *o*ne girl today.
- c. *John has stolen a *f*ew watches and from a *f*ew difficult customers so far³⁶.

Adibide hauek nolabaiteko mezu amankomun interesgarririk erdiesten ez dutelako daude gaizki, Grosu-ren ustez. Berak ez du, ordea, mota bereko izatea, mezu amankomuna izatea eta interesgarria izatea zer den zehazten. Niri, gainera, oso zaila iruditzen zait horrelako zerbait egin ahal izatea: auzi hori ez da inolaz ere gramatikaren barnean aztertu ohi direnetakoa.

1.3.5.2.1.3. *Laburpena*

Beraz, eta laburbilduz, ondorengo hau da Grosu-ren aldarrikapena: juntaduran zenbaitetan kategoria heterofuntzionalak elkar ditzakegu, inolako irakurketa berezirik gabe gainera, baina horretarako behar da, lehenik, agertzen den aditza aukerako argumentua izan dezaketenen sailekoa izatea, eta gero, juntagai bakoitzak fokalizatutako operatzaile bat izatea, operatzaile horiek mota berekoak izatea, eta gainera mezu interestarri bat egitea. Heterofuntzionalak juntatzeko aukera hori eta beharrezko diren baldintzak unibertsalak direla esaten du³⁷. Konturatu behar dugu,

³⁶ Baina horren ia pareko den ondorengo hau onargarriago omen da: «John has stolen *f*ew gold watches and from *f*ew difficult customers so far (so I am not going to hire him as a pickpocket)».

³⁷ Juntadura-mota honetarako ezezik elipsoidun juntaduretarako ere (hasierako (2b-c) eta (3b-c)) aukera eta baldintzak ditugu Grosu-ren ustez. Baldintza horiek bete ezean heterofuntzionalak juntatzerik ez omen dago. Adibide hauek ematen ditu ingeleserako:

- (i) *John stole a watch in the morning and from Bill in the evening.
- (ii) **John eats tomatoes in the morning and with Mary in the garden.

bestalde, heterofuntzionalak juntatzeko Grosu-renaren moduko baldintzak bagenitu, Euskaltzaindiak (1994) egiten zuen modura adibideen jatorrian perpaus-juntadura ezartze hutsarekin gutxi aurreratuko genukeela, izan ere, beste baldintzarik jartzen ez bada, edozein adibide sor litezke perpaus-juntadura oinarriztat hartuz, eta Grosu-k esaten digu baldintza jakin batzuk dituztenak bakarrik direla zuzenak. Jarraian era honetako egiturak euskaraz nola gertatzen diren ikusten saiatuko gara.

1.3.5.2.2. Kategoria Heterofuntzionalen juntadura euskaraz

Grosurenak bezalako adibideak euskarara egokitzen hasten garenean zailtasunak sortzen dira, juntadura ohiko intonazioarekin eta inolako balio berezirik gabe eman nahi badugu behintzat:

(52)

- a. ?Jonek gutako inork uste baino janari garestiagoa eta izugarri jatetxe garestietan jaten du.
- b. ?Dirua ematen badiozu, Jonek edozer gauza eta edonorekin edango du.
- c. ?Munduko janaririk txarrena eta munduko lagunarterik txarrenean ere jango luke Jonek.

Era honetako adibideei onargarritasuna urritzen dien faktore bat komunztadura da. Aditzaren irakurketa iragangaitzak objektuarekin singularreko komunztadura eragiten du; baina ageriko objektua pluralekoa bada, pluraleko marka eskatuko du. Horrelako kasuetan bi aukerek ere ez dirudite oso zuzenak:

(53)

- a. ??Jonek inolako baliorik gabeko gauzak eta inolako segurtasun-neurririk hartu gabe lapurtzen du.
- b. ??Jonek inolako baliorik gabeko gauzak eta inolako segurtasun-neurririk hartu gabe lapurtzen ditu.

(53a)-n objektuak berez pluraleko komunztadura eskatzen du, eta ez dakit zenbateraino egin dakioken iskin betebeharrak horri *lapurtu* aditzaren irakurketa iragangaitz baten bidez; (53b)-n, berriz, aditza pluralean dago, eta Grosu-ren adibideetako irakurketa

(iii) ***John steals watches with efficiency and from orphans at night.

debekaturik geratzen da, nahiz lehenago aipatu dugun balio enfatikoarekin ziurrenera onar litekeen³⁸.

Zalantzak sor ditzakeen beste elementu bat datiboa da. Grosu-k datibodun adibide bat ematen du:

- (54) John has written FIFTEEN articles and to TWO HUNDRED subscribers already!

Grosu-k zioen, gogora dezagun berriro, horrelako egituretan juntaturik agertzen diren elementuek aditzaren aukerako elementu behar zutela izan. Aditzen irakurketa iragangaitzaren bidez objektu zuzenak aukerako elementu izatea lortzen genuen. Zehar objektuak zer eratako argumentuak diren ez dago, ordea, guztizko adostasunik. Proposatu izan da aditz batzuekin (*eman...*) nahitaezkoak direla. Baina aditz horiek beroriek inolako datiborik gabe ere ager daitezke. Horrelako kasuetan lehenagoko irakurketa iragangaitz haren pareko zerbait proposatu beharko litzatekeen ala ez autoreek ez dute argitzen. Beste zenbait aditzekin (*ikusi...*), aldiz, badirudi zehar objektua aukerakoa dela. Horren arabera pentsa liteke azken mota honetako aditzekin maizago izango ditugula datibodun juntadura heterofuntzionalak. Baina komunztadura berriro ere oztopo-sortzaile izango dugu euskaraz. Datiboa daraman sintagmarik agertzen bada arruntena aditzak datibo horrekiko komunztadura agertzea izango da, bereziki pluraleko adiera badu:

(55)

- a. ? Jonek edonori eta inolako segurtasun-neurririk hartu gabe lapurtzen du
b. *Jonek bederatziehun dendariri eta inolako segurtasun-neurririk hartu gabe lapurtu du

Aditzean datiboarekiko komunztaduraren marka agertzen denean, ene iduriz behin eta berriz aipatzen ari garen aditzaren irakurketa iragangaitza zailago gertatzen da:

(56)

³⁸ Osagaien ordena aldatuko bagenu, singularreko komunztadura ez litzateke zilegi izango, eta juntaduren ohiko irakurketa zeharo oztopaturik geratuko litzateke:

- (i) ??Jonek inolako segurtasun-neurririk hartu gabe eta inolako baliorik gabeko gauzak lapurtzen ditu.
(ii) *Jonek inolako segurtasun-neurririk hartu gabe eta inolako baliorik gabeko gauzak lapurtzen du.

(i) adibideari begiratu, galde diezaiokegu geure buruari ea era honetako juntaduretan osagaien ordena zeharo librea den.

*Jonek bederatziehun dendariri eta inolako segurtasun-neurrik hartu gabe lapurtu die

Ez dut uste adibide hau balio enfatiko berezirik gabe onar daitekeenik.

Beraz, Grosu-k bere lanean zioen paralelismo funtzionala hautsi eta era honetako paralelismoa lortzeko mekanismoak ziurrenera hizkuntza guztietan zeudela, fenomeno unibertsalak zirela. Ikusi dugu euskaraz horrelako adibideak irakurketa eta intonazio berezirik gabe sortzea oso zaila dela, eta irakurketa hori zailtzen duten zenbait faktore ere agertu ditugu; enfasi bereziarekin, ordea, Grosu-ren baldintzak betetzen ez dituzten adibideak ere badira literaturan.

1.3.5.2.3. Ondorioak

Bi elementu juntatu ahal izateko sintaxiaren aldetik zer baldintza diren aztertzen saiatu gara, eta hizkuntzalaritzako korrante nagusien ikuspegia agertu dugu. Ohartu gara arazoak guztizko berdintasun sintaktikotik urruntzen garenean hasten direla: batzuetan nozio edo galdera berari erantzuten bazaio sintaxiaren aldetik berdinak ez diren elementuek junta ditzakegu, baina zail ikusten da nozio edo galdera hori gramatikaren barnean definitzen. Grosu-k, ordea, adibide zailagoak aurkezten ditu: aldarrikatzen du zenbait baldintza betez gero kategoria heterofuntzionalak ere junta daitezkeela, eta juntadura horientzat ez du aipatzen inolako irakurketa edo tratamendu berezirik. Baldintzak, gogora dezagun, hauek ziren: 1) juntagaiak fokalizatutako operatzaile bana behar zuten; 2) juntagaiak beren predikatuan aukerako ziren, 3) operatzaile horiek mota jakin batekoak izan behar zuten; 4) 'mezu interesgarri' bat eman behar zen bi juntagaien artean. Lehena baldintza formala izango litzateke³⁹, eta azken biak baldintza pragmatikoak. Era honetan, Grosu-ren ustez, gure begiak berdintasun pragmatikora zuzenaraziz, desberdintasun funtzionalari ez diogu jaramonik egiten, eta egitura horiek onargarri iruditzen zaizkigu.

Hori ez da, ordea, auzi hau planteatzeko era bakarra: Grosu-ren aldarrikapenak betetzen diren hizkuntzetan alderantzizko planteamendua ere egin zitekeen⁴⁰. Alegia,

³⁹ Horrelakoetan operatzaileak agertzea, eta fokalizaturik egotea, biak ere nahitaezko baldintzak dira Grosu-rentzat. Ondorengo arrazoi hauek aipatzen ditu (Grosu 1985, 235): «focus serves to center attention on formal and pragmatic similarities; as for operators, their ability to take clausal scope might serve to draw attention to precisely those constituents that have common messages».

⁴⁰ Baldintza unibertsaltzat hartu arren, hizkuntzatik hizkuntzara zenbait desberdintasun izan omen litezke. Browne-ren (1972) datuak erabiliz, esaten du zenbait hizkuntzatan bi juntagaietatik bat hautazkoa ez dena ere izan litekeela. Dena den, badirudi adibide hauetako askoren oinarrian dagoen aditz

pentasa dezagun bi atal junta daitezkeen edo ez daitezkeen osoki pragmatikak erabakitzen duela: pragmatikoki elkarrekin joan badaitezke juntadura zuzena izango litzateke; aldiz, pragmatikaren aldetik juntaturik emateko inolako arrazoirik aurkitzen ez badugu, orduan juntadura-egitura hori ez genuke zuzena izango. Ikuspegi honen arabera, beraz, orain arte aipatu ditugun baldintza sintaktikoak, hots, juntagaiak gehienez kategoria berekoak izan beharra eta sintaxi-egituran maila berean egon beharra, bateragarritasun pragmatikoa lortu ahal izateko bete beharreko baldintza besterik ez lirateke izango; pragmatikaren betebeharrekin eragindako baldintza, haien ondorio, eta ez beren kasako baldintza aske. Onartuz, hori bai, pragmatikaren eskakizun hori lortzeko gauzarik garrantzitsuenetakoa, beste guztiak baino garrantzitsuagoa, berdintasun sintaktikoa dela.

Era honetako aldarrikapenik defendatzen duen lanik ez dut aurkitu literaturan. Baina zenbaitetan badirudi Lang-ek horrelatsuko zerbait darabilela buruan. Integratzaile Amankomunaz ari dela hau dio (Lang 1984, 29):

«...if the conjuncts are clearly nonhomogeneous in some relevant respect, e. g. syntactically and/or semantically (...) then there is no common integrator to be deduced at all»

Eta garrantzitsuago dena, mota desberdineko aditzondoan juntadura zilegi egiten duten baldintzak eman ondoren honako hau gaineratzen du (Lang 1984, 48):

«What makes them conjoinable is that they are equally submitted to a certain operation (questioning, indefinitivization, and so on) which, in a sense, functions as a common integrator in such cases.»

Gogoan izan behar dugu, dena den, Lang-ek Integratzaile Amankomuna semantikaren alorreko kontzeptutzat daukela, ez kontzeptu pragmatikotzat⁴¹. Gainera, nahiz literaturan eskuarki proposatu izan denaren aurkako zerbait aldarrikatzen ari, bere lanean ez du bide hori gehiago garatzen.

Nolanahi ere, nik ez dut azken ikuspegi honen -pragmatikaren nagusitasunaren alde egin lezakeen argudio erabakiorrik ikusten. Egia da Grosu-ren ikuspegian berak aztertutako adibideentzat aipatzen zen hura, alegia, «begiak berdintasun pragmatikora zuzenaraziz desberdintasun funtzionalari jaramonik ez egiteko aukera» dugulakoa, eta horretarako gutxienez baldintzak berdintasun sintaktiko soila -bere formulazio

iragankorren irakurketa iragangaitza zilegi ez duten hizkuntzak ere badirela (Lyons 1968, Levin 1982, Bresnan 1982).

⁴¹ Honela hitz egingo digu aurreraxeago (Lang 1984, 48): «This set of examples too shows that the homogeneousness of conjuncts cannot be specified on the syntactic level without regard to semantic factors concerning scope determination.»

desberdinetan- oinarritzat hartuz neurtzen eta arautzen zaila dela, sistema horri arrotza zaion zerbait dela eta bere lekua zein izan litekeen ez dela ikusten⁴². Baina beste bideari oraindik arazo handiagoak ikusten dizkiot. Pragmatikaren arabera berdintasun hori zehaztea zein zaila den ikusi dugu; kategoria-berdintasunak, baldintza sintaktiko desberdinek, etab., sistema horretan zehazki zer leku duten esan beharko genuke, eta berdintasun pragmatiko hori lortzen bakoitzak zer garrantzi duen eta zer eratan laguntzen duen esplizitoki agertu; orain arte aipatutako baldintza guztien garrantzia eta zergatia pragmatikaren arabera birdefinitu beharko genuke. Horretarako lanabesik ez dugu, baina izanda ere ez dut uste emaitza onegirik lortuko genukeenik: Grosu-ren ikuspegiaren bano sistemari arrotz zaizkion elementu gehiago izango genituzkeelakoan nago. Gainera, euskarari begiratu behintzat, inolako irakurketa berezirik gabeko kategoria heterofuntzionalen esparrua zein murrizta den kontuan izanik, ez dut uste juntagarritasuna soil soilik baldintza pragmatikoen arabera definitzeak abantaila handirik ekarriko ligukeenik.

⁴² Antzerako arazoak hizkuntzalaritzaren alor gehiagotan ere gertatzen dira. Esate baterako, *outbound anaphora* deitutako fenomenoari buruz, autore askok aldarrikatu dute era horretako egiturak okerrak direla, baina zenbait baldintza pragmatiko betetzen direnean onargarri gerta litezkeela. Aurkako iritzia Ward, G. & R. Sproat & G. McKoon-ena (1991, 450) izango litzateke:

«We shall assume that a genuinely ungrammatical construction is ungrammatical in all (nonmetalinguistic) contexts, and cannot be 'amnestied' by pragmatic or discourse factors. Given such an assumption, it would be inconsistent for a construction to be ruled out by syntactic considerations and, at the same time, be acceptable under certain discourse conditions. Rather, we would maintain that such a construction is syntactically well-formed, but restricted to certain discourse contexts for pragmatic reasons.»

Hauen arabera, beraz, pragmatikak ezin izango luke gramatikaltasun sintaktikoan inolako eskuhartzerik izan.

2. PERPAUS JUNTADURETAKO ELIPSIAK

2.0. SARRERA

Aurreko atalean ikusi dugu bi osagai edo perpaus juntatu ahal izateko zenbait baldintza bete behar izaten direla. Orain beste auzi bat aztertzen hasiko gara: egitura horietan gertatzen diren elipsiak. Bi osagai edo perpaus juntatzen ditugunean, bi horietan berdinak diren elementuak baditugu, sarritan berdinak diren elementu horiek isilean uzten dira. Isilean zer eta nola uzten den zehazten ahaleginduko gara hemendik aurrerako lan guztian. Atal honetan perpaus-juntaduretan gertatzen diren eta zuzenduko ditugu gure begiak, sintagma-mailan edo hitzaren mailan garta litezkeen elipsiak aurreragoko utziz. Perpaus-juntadurak zehazki zein diren, edo juntadura-egitura desberdinetan zer mailatako osagaiak koordinatzen diren ez dago batere argi; hemen literaturan zehar eskuarki perpaus-juntaduratzat hartu izan diren zenbait egitura izango ditugu hizpide:

Nik arraina erosi dut, eta Pellok haragia

Nik arraina erosi dut, eta Pellok ere (bai)

Nik etxea garbitu dut eta Mirenek afaria prestatu

Lehena bezalakoei *hustuketa-egitura* deituko diegu, bigarrenak ingelesez dituen ordainei berriz *aditz sintagmaren ezabaketa* deitu izan zaie. Bi egitura-motak batera aztertu izan dira literatura linguistikoan. Hirugarrena bezalakoei *Aditz Laguntzailearen Ezabaketa* deitu zien Salaberrik (1985). Hizkuntzalariek azken honi ez diote aurrekoei adinako arretarik eskaini, baina guk perpaus-juntaduretako elipsien artean aztertuko dugu. Zenbait hizkuntzalarik guztiak batera bildu nahian (Brucart, 1987) 'aditzaren elipsia duten egitura' ere deitu izan die, gehienetan aditzak -eta bere inguruko zenbait elementu- egon ohi baitira isilean.

Gure lanean hustuketa-egiturei emango diegu lekurik nabarmenena: beren ezaugarriak aztertuz eramango dugu atala. Ondoren beste bi egitura-mota horiek aztertuko ditugu, eta hustuketa-egiturekin izan dezaketen erlazioaz hitz egingo dugu.

2.1. HUSTUKETA

2.1.0. Sarrera

Egitura-mota honen adibide modura ondorengo hauek ematen ditu Ross-ek (1970, 250):

(1)

I ate fish, Bill ate rice, and Harry ate roast beef

Tom has a pistol, and Dick has a sword

I want to try to begin to write a novel, and Mary wants to try to begin to write a play

(1')

I ate fish, Bill ___ rice, and Harry ___ roast beef⁴³

Tom has a pistol, and Dick ___ a sword

I want to try to begin to write a novel, and Mary

_____ to try to begin to write a play

_____ to begin to write a play

_____ to write a play

_____ a play

Ross-en ustez era honetako egiturak ezabaketa-erregela baten ondorioz sortzen dira. Ezabaketa-erregela horri *Gapping* (=hustuketa) izena eman zitzaien. Bere zeregina ondorengo hau litzateke (Ross 1970, 250):

«This rule operates to delete indefinitely many occurrences of a repeated main verb in a conjoined structure» .

Hustuketa izena ingelesaren hitzordena kontuan hartuta ulertu behar da: ingeleseko perpausek SAO ordena dutenez, aditza ezabatzean hutsune bat geratzen da:

SAO eta S__O

⁴³ Hutsuneak adierazteko marratxoak nireak dira.

Ezabaketa-erregelak badirela onartzen ez dutenek ere deitura hori erabiltzen dute, eta tradizio horri jarraituko gatzaizkio hemen.

Egitura-mota hau aurkezteko Ross-en 1970eko artikulua erabili badugu ere, delako artikulua horren helburua ez zen, ezta hurrik eman ere, egitura mota honen azterketa sakon bat egitea. Artikulu hau garrantzitsu egin zuena bertan Ross-ek aurkezten duen hipotesia da: Ross-en ustez erlazio estua dago hustuketa erregelaren eta hitzordenaren artean, eta ondorioz, hizkuntza jakin batean hustuketa zein norabidetan -hutsunea juntagailuaz ezkerreko perpausean ala juntagailuaz eskuineko perpausean gertatzen den baldin badakigu, hortik jakin ahal izango dugu hizkuntza horren ordena kanonikoa zein den. Bere hipotesia, zehazki, ondorengo hau da:

«The order in which GAPPING operates depends on the order of elements at the time that the rule applies; if the identical elements are on left branches, GAPPING operates forward; if they are on right branches, it operates backward.» (Ross 1970, 251)

Horrela, SAO ordena duen hizkuntza batek, SAO+SAO====>SAO+S__O egingo du. Goiko ingeleseko adibide bat berriro emanez:

- (2) a. Tom has a pistol, and Dick has a sword
b. Tom has a pistol, and Dick ___ a sword

SOA ordena duten hizkuntzetan berriz, hustuketa erregelak alderantzizko norabidea izango luke, alegia, SOA+SOA---SO__+SOA. Horrelakoen erakusgarri modura japonierako adibide bat ematen digu (Ross 1970, 251):

- (3)
a. watakusi wa sakana o tabe, Biru wa gohan o tabeta
I (prt) fish (prt) eat , Bill (prt) rice (prt) ate
(I ate fish, and Bill ate rice)
b. watakusi wa sakana o , Biru wa gohan o tabeta
I (prt) fish (prt) , Bill (prt) rice (prt) ate
(I ate fish, and Bill ate rice)

Ross-en ustez irizpide errax hau nahikoa da hizkuntza baten oinarrizko ordena zein den erabakitzeke. Lehena bezalakoei *aurreranzko hustuketa* (forward gapping) deitzen zaie, eta bigarrena bezalakoei *atzeranzko hustuketa* (backward gapping).

Baina itxura batean erabiltzeko erraxa den argudio hau korapilatu egiten da ingelesak bezain ordena finkoa ez duten hizkuntzetan aplikatzen saiatzen garenean.

Korapilarazten duena Ross-en definizioako «at the time the rule applies» hori da. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza batean, azalean hainbeste ordena desberdin onartzen direlarik, non eta nola aplikatu behar da erregela hau? Zenbait kasu azertu ondoren, Ross-ek dio edonon aplika daitekeela, eta hizkuntza batetik bestera desberdintasunak daudela aplikazio-mailari dagokionez.

Ross-en irizpide honi jarraituz hizkuntza desberdinen hitzordenari buruz egindako aldarrikapenetako asko, ordea, ez ziren zuzenak gertatu. Adibidez, Pulte-k (1973, 100-101) erakusten du kitxuaz eta txerokien hizkuntzaz, SOA ordenako hizkuntzak izan arren, atzeranzko hustuketa duen egiturarik ez dagoela. Antzeko datuak aurkitzen ditu Rosenbaum-ek ere (1977) hizkuntza gehiago aztertuz egindako analisi batean, eta hizkuntza guztietako hustuketa-egituren berri emango duen formulaziorik aurkitu ahal izatea oso zalantzazkotzat joko du⁴⁴. Geroxeago ikusiko den bezala, euskarari dagokionez ere bada zer esanik (Gastañaga 1977).

Eztabaidarako bidea eman duen beste puntu bat atzeranzko hustuketarena da: zenbait hizkuntzatan ez dago batere argi atzeranzko hustuketa erregelaren ondorio genituzkeen perpaus horiek aurreranzko husteketadunen guztiz pareko ote diren, biak egitura-mota bera ote diren. Honi buruzko zalantzak abia-abiatik beretik izan dira:

«It might be objected that it is wrong to collapse the two rules which effect what I have called forward gapping and backward gapping, (...)».

dio Ross-ek berak (1970, 253). Zalantza horretarako arrazoia (Ross 1970, 254-255):

«... some speakers feel that the largest constituent break in sentences in which Gapping has proceeded backward, (...), should be directly before the verb, (...). (...). Speakers of different languages disagree about the constituency of sentences which result from backward Gapping, (...)» .

Hots, egiten diren intonazio-etenei begira, zalantza dago osagai-muga nagusia juntagailuarekin bat datorren, ala aditzaren aurretik gertatzen den:

[SO__] eta [SOA]
[[SO eta SO] A]

⁴⁴ Ross-enaren ondorengo analisiak oro har bi multzotan bana daitezke, nahiz multzo bakoitzaren barnean ere desberdintasunak badiren: batzuek diote ezabaketaren norabidea egiturak erabakitzen duela (Tai 1971; Jackendoff 1971; Koutsoudas 1971) eta besteek egiturak ez duela horrelako eraginik (Hankamer 1971; Maling 1972; Harries 1973). Horien guztien proposamenek ere ezin dute Rosenbaum-en dauen berri era bateratu batean eman. Geroztik era honetako ahaleginik ez da egin.

Hala ere, biak erregela bera direla iruditzen zaio Ross-i. Biak batera emate horren aldeko argudioetako bat errusierako adibideko komunztadurak ematen dio:

(4) ja vodu pil, i Anna vodku pila
I water drank, and Anna vodka drank

(5) ja vodu , i Anna vodku pila
I water , and Anna vodka drank

Alegia, atzeranzko hustuketa dagoenean (5), aditzak (*pila*) bigarren perpauseko subjektuarekin bakarrik egiten du komunztadura (*Anna*), eta lehenengo perpausekoaz (*ja*) ez da arduratzen. Eta hortik, «I believe this similarity to outweigh the dissimilarity of the operations involved, and I will therefore continue to speak of two varieties of gapping, (...). This may be a wrong decision on my part, (...).» (Ross 1970, 255)

Baina alderantzizko iritziak ere badira. Maling-ek (1972), adibidez, menpeko zenbait perpausetan biek desberdin jokatzen dutela adierazten du: biek baldintza desberdinak bete behar izaten dituzte, eta egitura bata ez da bestearen ispilu. Ildo berbereko adibideak ematen ditu Hankamer-ek ere (1979, 103-104): aurreranzko hustuketetan turkieraz (6 adibidea) bi aditzondo desberdin ezin omen dira agertu, eta berdinak direnean bietatik bat nahitaez bigarrena isilean utzi behar da; atzeranzko hustuketan ordea gerta liteke aditzondo desberdinak izatea (7 adibidea), eta aditzondo berdinak direnean berriro ere bigarren perpausekoa geratuko da isilean, baita aditza lehen perpausetik desagertu bada ere (8 adibidea):

(6) Mehmet çabuk yumurtayí pisirdi, Ahmet *çabuk/*yavaşça patlicanı ø
Mehmet quickly the egg cooked, Ahmet quickly/slowly the eggplant ø

(7) Mehmet çabuk yumurtayí ø, Ahmet çabuk/yavaşça patlicanı, pisirdi
Mehmet quickly the egg ø, Ahmet quickly/slowly the eggplant cooked

(8) Mehmet çabuk yumurtayí ø, Ahmet ø patlicanı, pisardi
Mehmet quickly the egg ø, Ahmet ø the eggplant cooked

Nolanahi ere hasiera batean behintzat egitura beraren aldaeratzat hartuko ditugu. Ondorengo atalean euskarazko hustuketa-egiturei buruz arduratu diren lanak azalduko ditugu. Lan horietan orain aipatutako eztabaidagaiei buruzko zenbait iritzi jaulkiko dira, eta beranduago ukitu beharko ditugun zenbait gai ere agertuko zaizkigu.

2.1.1. Hustuketa euskaraz: zenbait lan

Euskarari buruzko azterketetan fenomeno honek ez du oihartzun benetan zabalik izan: hizkuntzalaritzaren barruan fenomeno hauek "modan" zeudenean euskarari buruzko azterketa sintaktiko gutxi zegoen, eta azterketa sintaktikoak ugaltu direnean, hizkuntzalariek beste auzi batzuei zuzendu dizkiete nagusiki begiak. Badira, halere, zenbait lantxo. Gastañagak (1977) hustuketa-egiturak aztertu zituen; Salaberrik (1985), gure lan honek bezala, juntaduretako ezabaketak izan zituen aztergai. Horiez gain, beste zenbait lanetan ere agertzen dira hustuketari buruzko aipamenak. Guk hemen Eguzkitzarena (1986) eta Artiagoitiarena (1995) ekarriko ditugu, eztabaidagaiak finkatzeko orduan lagun diezaguketelakoan⁴⁵.

2.1.1.1. Gastañaga (1977)

Ross-en proposamena euskararen datuekin ondo ezkontzen ote den aztertu nahi du Gastañagak. Eta konturatzen da, euskara sakonean SOA ordena duen hizkuntza dela proposatzen den arren, hustuketa bi norabideetan gerta daitekeela (Gastañaga 1977, 170):

- (9) a. Lindak ardaua edaten dau ta Anderrek esnea _____
 b. Lindak ardaua _____ ta Anderrek esnea edaten dabez

Alegia, Ross-ek esanak ez direla ondo ateratzen. Euskarak japonieraren hitzordena bera badu, era honetako egituretan ere berdin jokatu beharko luke. Baina horrela (9a) adibidea esplikatzetik ez gendake izango. Datu horiek kontuan izanik, ondorengo bi irtenbide hauek aipatzen ditu:

- Euskararen ordena ez da SOA.
- Ross-en aldarrikapenak ez dira guztiz zuzenak.

Beste hizkuntzetan era honetako arazoei aurre egin behar izan dieten beste hizkuntzalari askok bezala bigarren aukera aukeratzen du. Euskaraz galdegaiaren kokalekuak eragin

⁴⁵ Zuzenean egitura sintaktikoaz hitz egiten ez duten bi azterketa sakon badira ordea: Altunarena (1986) eta Euskaltzaindiarena (1994).

litzakeen ordena desberdinei erreparatuz ailegaten da ondorio horretara. Ondorengo adibide hau erabiltzen du:

(10) Ta zuk emango diozu zukua ta nik babarrunak

Adibide horretan fokalizatutako elementuak *zuk* eta *nik* omen dira. Hortaz, hustuketa-erregela galdegaia bere lekuan ezartzen duen operazioa baino beranduago gertatzen dela proposatuz, operazioak alderantziz gertatzen direla proposatuz baino askoz hobeto esplikatzen da aurreranzko hustuketa duen adibide hori: aditza objektuaren aurretik izango genuke, eta ez legoke arazorik aditza bigarren perpausetik ezabatzeko⁴⁶. Ondorioz, proposatzen du fokalizazioak⁴⁷ eragindako ordena aldaketen ondoren aplikatu behar dela hustuketa erregela, eta egitura hauek euskararen sakoneko ordenari buruz ez dutela inolako argibiderik ematen. Edo gutxienez, Maling-ek (1972) zioen bezala, berak bakarrik ez duela gauza handirik erabakitzen.

Bestalde, euskarazko hustuketari buruzko artikulu horretan arreta merezi duen beste puntu bat ere ukitzen du: aditz sintetikoek atzeranzko hustuketetan duten jokaerarena. Ondorengo bi adibide hauek ematen ditu:

(11) a. *Ni emen ____ eta Ander or gagoz
b. Ni tabernara __ eta Ander dendara goaz

Auzian gehiegirik ez duela sakondu esaten digun arren, ba omen dirudi hiztunek zenbait aditz sintetikorekin nekezago onartzen dituztela hustuketa-egiturak⁴⁸.

2.1.1.2. Salaberri 1985

Gai hau sakon samar ukitzen hurrena Salaberri izan zen. Gaira hurbiltzeko era, ordea, Gastañagarenetik zertxobait aldendu egiten da: gramatika sortzaileko modelu beraren barruan lan egin arren Ross-en proposamenari buruzko balorazioetan ez da sartzen, bere ahalegina deskriptiboa da nagusiki. Helburu-desberdintasun hori alde

⁴⁶ Halere, horrek ez luke esplikatuko (9a) adibidea.

⁴⁷ Berak *topikalizazio* deitzen dio, baina adibideei begiratzuz bistakoa da fokalizaioari buruz ari dela.

⁴⁸ Ondorengo esplikazioa aipatzen da: «It has been suggested that the difference in acceptability may due to the inference that in X the two actors share a departure point and may therefore begin together as 'we', whereas in IX the two actors share nothing and cannot be said to act as 'we'». Adibideei buruzko gramatikaltasun-iritzien auzia alde batera utzita, desberdintasuna eragiten duena horrelako zerbait bada, nik ez dut ikusten zer axola izan beharko lukeen aditza trinkoa ala perifrastikoa izan.

batera utziz gero, gaineratikoan bi lanek ez dute, hustuketari dagokionean, desberdintasun nabaririk. Halere, badira aipatu beharreko zenbait puntu.

Lehenik, atzeranzko hustuketaren ondorioztat jotzen zuen adibide hartan Gastañagak zioen azken aditzak bi perpausetako argumentuekin batera egiten zuela komunztadura (ikus (9b) adibidea): *dabez* forma ematen zuen, bai subjektuari dagokion marka bai objektuari dagokiona pluralean dituela. Salaberriren adibideetan, ostera, subjektuarena bakarrik dago pluralean, objektuarena singularrean agertzen dela:

- (9) a. Pellok arraina eta Mikaelak haragia jaten zuten. (11. or.)
b. Nik sagarra eta adiskideak udarea jan dugu. (13. or.)

Salaberrik horri buruz esaten du (1985, 12):

«... guk Nafarroan egindako inkestetan, euskaldun nafarrei ateratzen zaien lehenbiziko gauza, objektu singularra duen aditza da (+O), objektu plurala duena ere (O+O), ontzat ematen duten arren.»

Bi lanen artean bada, hortaz, desberdintasunik.

Aipatu beharreko bigarren puntua ere atzeranzko hustuketaren ingurukoa da. Gorago esan dugu horrelako adibideei eman beharreko egituraz eztabaidak izan direla (Ross vs. Maling). Salaberrik ere aipatzen du auzi hori, eta Hankamer-i (1979) jarraituz atzeranzko hustuketak *Eskuineko Adabagiaren Altxakuntza* (Right Node Raising) erregelarekin izan dezakeen loturaz hitz egiten digu. Baina ideia hori ez du garatzen, eta Gastañagak bezala bere azterketan euskaraz atzeranzko hustuketa eta aurreranzkoa erregela bakar baten bi aldaera direla esanez jarraitzen du.

2.1.1.3. Eguzkitza (1986)

Eguzkitza zeharbidez besterik ez zaigu mintzo hustuketaz, baina bere lanean zenbait puntu interesgarri agertzen dira. Euskal perpausaren egitura aztertzen ari dela, hustuketa erabiltzen du egitura horretan osagaiak zein diren erabakitzeko. Horvarth-ek (1981) hungarierarako Aditz Sintagmaren Ezabaketarekin egin zuen bezala, esaten du hustuketa-egituretan isilean utz dezakegunak osagai izan behar duela. Eta euskarazko adibideei begira, aldarrikatzen du osagai hori [focus + A + INFL] biltzen dituen dela. Adibide hauek ematen ditu:

- (13) a. Marik mahaian ipini ditu plater bi eta Jonek ustekabean beste bi
 b. *Marik mahaian ipini ditu plater bi eta Jonek ustekabean

Lehenengo adibidean azpimarratutako zatia geratu da isilean bigarren perpausean, eta hori berreskuratzeko ez dago arazorik. Bigarren adibidean, aldiz, mahaian ipini ditu eta beste bi utzi nahi izan ditu isilean bigarren perpausean, baina beste bi berreskuratzea ezinezko omen da, hortik agramatikaltasunaren izartxo. Beste adibide hauek ere ematen dizkigu:

- (14) a. Gizonak mutilari liburua bidali dio eta andreak neskari
 b. *Gizonak mutilari liburua bidali dio eta andreak
 c. *Gizonak mutilari liburua bidali dio eta andreak liburua

Berrero ere azpimarratutako zatiak [focus + A + INFL] osagaia adierazten du, eta hori bakarrik hustu omen liteke bigarren perpausean. Honela adierazten digu (Eguzkitza 1986, 158-159):

«In Basque as in Hungarian, one can only reconstruct an element within VP, but not any outside it, such as parentheticals or the abovementioned sentential adverbials. In Basque, in addition, even NPs that are subcategorized by the main verb, if they are not in focus position, cannot be recovered. In other words, the gapping tests in the grammar of Basque seems to give support to the unordered hypothesis, in that only the verbal phrase formed by the string [focus + A + INFL] at s-structure can be recovered.»

Hustuketari buruz duen ikuspegia ere agertzen da, nahiz esplizitoki adierazi ez: badirudi hustuketa-egiturak ezabaketaren ondorio direla, eta ezabaketa hori A-egiturako osagaiari egiten zaiela, zehazki [focus + A + INFL] osagaiari.

2.1.1.4. Artiagoitia (1995)

Euskaraz aditzaren hustuketa aditz hori INFL-era mugitua izatearen (edo INFL-ekin asoziatua izatearen) baitan dagoela diosku Artiagoitiak. Horrela, nahiz INFL nahiz aditza bere aldetik isilean utziz gero egitura okerrak lortzen omen ditugu (Artiagoitia 1995, 406-407):

- (15) a. Ainhoak ardoa ekar lezake eta Asierrek patxarana
 b. ?? Ainhoak ardoa ekar lezake eta Asierrek patxarana eros⁴⁹
 c. *Ainhoak ardoa ekar lezake eta Asierrek patxarana lezake

⁴⁹ Zehazki, ondorengo hau dio (Artiagoitia 1995, 407): «is marginal, although the judgements may vary».

Aldarrikapen horretatik abiatuz, euskal perpauseko zenbait elementuren azterketa egiten du. Esaten digu, lehenik, aditz laguntzailezat hartu izan diren *izan* eta *ukan* egiatan aditz nagusi direla, beste edozein aditz sintetiko bezala utz baitaitezke isilean:

- (16) a. Ainhoa Bilbora doa eta Asier Iruñeara
b. Ainhoa mendira joango da eta Asier hondartzan geratuko

Aldiz, **edin/*ezan* erroa duten aditzekin ez da horrelakorik gertatzen:

- (17) a. ?(?) Ainhoa mendira joan daiteke eta Asier hondartzan gera
b. ?? Ainhoak ardoa ekar lezake eta Asierrek patxarana eros

Ondorio honetara iristen da (Artiagoitia 1995, 474):

«The facts confirm that *izan/ukan* behave like main verbs, but **edin/*ezan* do not. If, contrary to the evidence, *izan* and *ukan* were regarded as mere spellouts of INFL, the rule of gapping would have to state that INFL alone may gap depending on which elements occupy it. This would require an additional stipulation.»

Horrez gain aditzaren osagarri zuzenaren funtzioa betetzen duten perpaus nominalizatuei buruz ere hitz egiten digu. Aditz-izenak isilean geratzeko arazorik ez duenez, tartean INFL-en gisako elementuren bat badela ondorioztatu behar omen da:

- (18) A: Zer erabaki duzue?
B: Ainhoak ardoa ekartzea eta Asierrek patxarana \emptyset

2.2. AURRERANZKO HUSTUKETA

2.2.0. Sarrera

Hustuketari egindako sarreran dagoeneko aurreranzko hustuketaren zenbait ezaugarri ikusi ditugu. Atal honetan ezaugarri horiek xehetasun handiagoz ezagutzen saiatuko gara. Hustuketa-egituren artean azterketarik gehien aurreranzkoaz egin da eta horri buruz ihardungo dugu nagusiki. Lehenik egitura hauen berri emateko proposatu diren analisi nagusienak agertuko ditugu: aldi eta korrante desberdinetan egin diren trataerak aurkeztuko ditugu. Ondoren era honetako elipsietan garrantzi handia duen baina oraindik guztiz finkatu gabe dagoen nozio batez esandakoak bilduko ditugu: elipsirako beharrezko den berdintasunaren zer-nolakoari buruzkoak. Jarraian hustuketa-egiturentzat aipatu izan diren ezaugarriak azalduko ditugu, eta euskarako datuekin alderatuko ditugu. Azken ahalegin honek lanaren zati handi bat hartuko du. Ohartuko gara gainera literaturan orokorrean egitura hauei buruz egin den karakterizazioa zurrunegia gertatzen dela; horrek analisisietako asko eta asko dauden daudenean desegokiak izatea eragiten du, eta desegokitasun horien berri ematen saiatuko gara. Azkenean ondorioak aurkeztuko ditugu.

2.2.1. Hustuketaren analisiak

Gai honi buruzko literatura nahikoa ugaria da, baina askotan haria jarraitzea ez da erraz gertatzen, juntadura-egituren berri emateko erregela ugari proposatu direlako, eta autore bakoitzak erregela horiek egitura desberdinei aplikatzen zaizkiela esaten dutelako. Hemen eztabaidaren nondik norakoak agertzen saiatuko gara.

2.2.1.1. Gramatika sortzailearen lehen urteak

Lehen esan dugun bezala *hustuketa* izeneko erregela estrainekez Ross-ek aipatu zuen, eta aditzak ezabatzen zituen erregela modura aurkeztu zuen. Erregela hori deribazioko edozein mailatan ezar zitekeen, eta adabegien norabidearen arabera juntagailuaz alde batera edo bestera ezabatzen zuen.

Ondorengo lanik gehienek ere ezabaketa jartzen dute ere era honetako egituren jatorrian. Horrela, Jackendoff-ek (1971) esaten du hustuketak aditza eta aditzaz gain beste zenbait elementu ere (bereziki objektua) utz ditzakeela isilean. Ohartzen da

gainera hustuketaren oso antzeko beste hainbat egitura badirela, batzuk perpaus-juntaduretan, besteak izen sintagmetan. Guztiak bitan banatzen ditu: *X' gapping*, burua, buruaz ezkerreko guztia eta eskuineko elementuetatik bat ez beste guztiak ezabatzen dituen erregela; *X' deletion*, burua eta buruaz eskuineko guztia ezabatzen duena. Biek gainera ezaugarri desberdinak izango lituzkete. Hemen ez gara horretaz mintzatuko.

Hankamer-ek (1979⁵⁰) aldagaien ezabaketa modura aurkezten digu hustuketa. Juntaduretako ezabaketa guztiak batera argitu nahi ditu, eta hustuketak gramatikako beste arauen artean zer toki duen aztertzen saiatzen da. Ondorengo hurrenkera hau proposatzen du:

Fokalizazioa
 Hustuketa
 Eskuineko Adabegiaren Altxakuntza
 Topikalizazioa

Ezabaketa-erregelak fokalizazioaren eta topikalizazioaren artean ezartzeko arrazoia ondorengo hau da: hustuketa egin ahal izateko egiturazko berdintasun osoa behar dela proposatzen du, eta ohartzen da hustutako perpausetan juntagailuaren alde batean galdegai denak beste perpausetan ere galdegai izan behar duela, baina topikalizatutako elementuekin ez dela horrelakorik gertatzen. Era honetan, hustuketarentzat erregela desberdinen artean leku zehatz bat proposatzean Ross-en hasierako aldarrikapenetatik urundu egiten da.

Dena den bere lanetik gerora interesik handiena sortu duten alorrak hustuketaren ondorioak mugatzeko egin zituen bi saiakera izan dira: MCC-ren (Major Constituent Constraint) bidez hustukeren hondakin zer izan zitezkeen esplikatuz nahi izan zuen, eta NAC-ren (No Ambiguity Constraint) bidez zenbait egitura anbiguoren irakurketamurriztapenak agertu nahiko dizkigu (bereziki, Hankamer 1973-n). Azken baldintza hau deribazioen gaineko debeku modura aurkezten du: bi deribazio posible direnean zenbait baldintza 'oker' dituen debekaturik geratzen da. Aurrerago izango dugu horren berri.

Hustuketa aldagaien ezabaketatzat proposatuta anbiguo izan behar luketen, baina egiatan ez diren adibideen jokaera esplikatuzko ahalegin gehiago ere egin ziren. Stillings-ek (1975) eta Langendoen-ek (1975) ez dute uste deribazioen gaineko debeku

⁵⁰ Bere tesia 1971koa da, baina zenbait aldaketarekin 1979an argitaratu zen, eta hura erabili dugu hemen.

bat egokia denik, eta ezabaketa erregeletan beretan sartuko dituzte ezaba daitekeenari buruzko nolabaiteko murriztapenak.

Kuno-k ere (1976) hustuketa-egituretan ezabaketa sintaktikoa dagoela onartzen du, baina Hankamer-ek NAC-ren eta Langendoen-ek eta Stillings-ek arau sintaktikoen bidez esplikatzen nahi zituzten auzien berri emateko pertzepziora, diskurtsora eta semantikara jotzea proposatzen du.

Sag-ek (1980⁵¹, 278) bariabileak ezabatzen dituen erregela modura hartzen du hustuketa. Ondorengo erregela hau ematen du:

$$W_3 - [{}_S X^2 - W_1 - [X^2]^* - W_2] - \{and/or\} - [{}_S X^2 - W_1 - [X^2]^* - W_2] W_4$$

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
1	2	3	4	5	6	7	∅	9	∅	11

X^2 zeinuarekin islapen nagusiak adierazi nahi ditu; $[X^2]^*$ ren bidez nahi adina X^2 izan litezkeela; W_3 eta W_4 ren bidez hustuketa ezartzen zaion perpausaren aurretik nahiz atzetik egon litezkeen beste elementu batzuk. Esate baterako:

Bill said that Betsy played shortstop, and Alan ∅ 1st base = W_3

That Alan played 1st base and Betsy ∅ shortstop, is not surprising = W_4

Erregela orokor horrek gero azaleko egiturako debeku ugari izango ditu, eta anbiguotasunen berri emateko Kuno-ren bidea hobesten du. Horrez gain ezabatu behar diren W_1 eta W_2 -k beharrezko duten berdintasunari buruz azterketa luzea eta garrantzitsua egingo du: esaten du, ordura artekoetatik bereiziz, era honetako egituretan beharrezko den berdintasuna FL-koa dela. Aurrerago sakonduko dugu auzi honetan.

Teoria orokorraren baitan transformazio-erregelak alde batera utzi eta printzipio orokorragoen aldeko joerarekin batera Neijt-en lana (1979) dator. Aurreko askok hustuketaren berri emateko ezabaketa-erregela bereziren bat proposatu zuten. Neijt-ek proposatzen du egokiena arau zabal orokor bat ematea dela, *ezaba* (Chomsky-ren *affect α* -ren parekoa, baina mugimenduari buruzkoa ez baizik ezabaketetako), eta gramatikaren beste printzipio batzuek eragotziko dituzte emaitza okerrak. Horrela, hustuketa eta NZ hitzen mugimenduaren artean somatzen zen parekotasuna kontuan izanik, biak bilduko zituen printzipio bat proposatu zuen, *strict subadjacency*, eta horren bidez ekidingo dira ezabaketako arau zabalaren emaitza okerretatik asko.


⁵¹ Bere tesia 1976koa da, baina 1980an argitaratu zen, eta azken hau erabili dut nik.

2.2.1.2. GPSG

Korronte hau abian jarri duten lanek (Gazdar 1981, Schacter & Mordechai 1983, Gazdar eta beste 1985, Sag eta beste 1985) garrantzi handia eman diote juntadurari: dagoeneko aipatu ditugu juntadurarako baldintzen alorreko proposamenak. Dena den, hustuketaren eremua oso gutxi garatu dute. Izan ere badute korronte honetakoek orain arteko lanetatik bereizten dituen puntu bat: transformaziorik ez dute onartzen, eta ondorioz, ezabaketarik ere ez. Eta horiek gabe oso zail gertatzen da hustuketa bezalako fenomenoen berri ematen: kategorien definizioak berrikustea ia nahitaezko gertatzen da.

Beren teorian alde batetik erregelen bidez sortzen diren oinarrizko kategoriak daude, eta bestetik metaerregelen bidez sortzen diren kategoriorriak. Kategoriorri horiek oinarrizko kategorietatik ezaugarriren batean desberdinak izaten dira. Ezaugarri horietako bat SLASH deitutako ezaugarria da: adierazi nahi du kategoriorri horrek bere barneko elementuren bat falta duela, gehienez kanporatuta dagoelako⁵². Beste modeluetako lanak juntadurarako kategoriorri-berdintasunaren baldintza betearazteko transformazioez, ezabaketez edo kategoriorri isilez baliatzen baziren, GPSG-koak kategoriorri-mota berri honez baliatuko dira: era honetako kategoriorriak inolako oztoporik gabe junta litezke elkarrekin. Ikus dezagun Van Oirsouw-k ematen duen ondorengo adibidea (1987, 75):

(19) Harry caught, and Mary killed the rabid dog



Perpau hau gramatika sortzaileko literaturan *Eskuin Adabegiaren Altxakuntza* deitu izan denaren adibide bat da. VP/NP-ren bidez aditz sintagma izateko izen sintagma bat

⁵² Gazdar-ek (1981) osagai bakarrarentzat formulatzen du, baina Schacter & Mordechai-k (1983) osagai desberdinen segidetara zabaltzen dute.

behar duen kategoria adierazi nahi da; S/NP-ren bidez perpaus izateko izen sintagma bat falta duen kategoria; ohartzen gara 'zulodun' kategoria eratorri horiek juntatzen direla; gero, S/NP-ri *the rabid dog* izen sintagma elkartzean perpaus bat osatzen da⁵³.


Baina hala ere hustuketaren berri emateko bide argirik ez dute. Sag eta bestek (1985) esaten dute gainera hustuketadun egiturak sintaxiak sortu behar dituela, baina interpretazioa diskurtso mailan aurkitu behar dela, hustuketa ez dela berez perpaus-gramatikako fenomeno. Hiztun desberdinen arteko elkarrizketetan gertatzen diren hustuketa-egituretan oinarritzen dira hori defendatzeko:

- (20) A: I shall miss you
B: And I \emptyset you

Adibide honetan, hiztun desberdinen artean gertatzeaz gain, elementu deiktikoen trukaketa dago, eta datu horrek perpaus-gramatikatik at jartzen du hustuketa beren ustez.

Dena den, gauzek nondik nora joan beharko luketen nolabaiteko lehen hurbilketa bat eskaintzen dute (Sag eta beste 1985, 163):

- (21) Terry likes Stacy and Tracy Lee



Osatzeko honako hau aipatzen digute (Sag eta beste 1985, 160):

⁵³ Korrante honetako autore batzuek aztarnak markatzen dituzte errepresentazioan eta beste batzuek ez dute ezer jartzen.

«...Gapped structures (...) obey a substitutional generalisation. If the result of substituting the remnant for the corresponding element in the preceding conjunct is well-formed, then the Gapping structure is well-formed as well.»

Interpretazioaz ere hari berean hitz egiten dute (Sag eta beste 1985, 162):

«The interpretation of an elliptical construction is obtained by uniformly substituting its immediate constituents into some immediately preceding structure, and computing the interpretation results.»

Azken bi aldarrikapen hauek kritika ugari eragin dute: aski ezaguna da eta lehenago ere aipatu dugu, alde batetik, perpaus osoetako zenbait irakurketa eragotzita geratzen direla hustuketa-egituretan, eta bestetik, perpaus oso bati nahi den elementuak kentzea baino zerbait gehiago dela hustuketa, hustuketa-egiturek badituztela beren baldintzak eta debekuak. GPSG-koek hor planteatu dutena azken batean ezabaketaren oso antzekoa izango litzateke, baina hustuketa-egiturek bete behar dituzten baldintza sintaktiko-semanticoei ez zaie jaramonik egiten. Somatzen da hustuketaren alorra beren sistemara ondo egokitu gabe dutela.

2.2.1.3. Osagaien juntadura

Beste zenbait hizkuntzalari (Hudson 1976, Sobin 1982) hustuketa-egiturak perpaus-juntaduratzat hartzearen aurkako dira: beren ustez (22a) egitura oinarrian (22b) bezalako batetik sortzen da: hots, hustuketa-egiturak osagai-juntaduretatik eratortzen dituzte, eta ez perpaus-juntaduretatik.

- (22) a. Max prefers fish and Mary oysters
b. Max and Mary prefer fish and oysters

Orotara hiru argudio plazaratzen dituzte. Lehenik esaten dute ingelesez morfologiaren, denboraren eta aspektuaren aldetik hustuketako aditzak aurrekoaren berdina behar duela izan⁵⁴; baina beste aditz-ezabaketetan ez da horrelakorik gertatzen:

- (23) a. Mary smoked a cigarette and Max, a pipe (hustuketa)
b. I kiss Mary, and I will Sarah (pseudogapping)
c. I kissed Mary, and John will too (aditz sintagmaren ezabaketa)

⁵⁴ Komunztadura beranduko fenomenotzat dauka Sobin-ek, eta era horretan ez da arazo.

Horrek erakutsiko luke hustuketa osagai-juntadura dela, eta beste biak perpaus-juntaturak. Bigarren, ohartzen dira osagai-juntaduretan bezala hustuketan ere parte hartzen duten elementuek gutxieneko desberdintasun edo kontraste bat behar dutela⁵⁵:

- (24) a. Marta likes THIS painting and THAT painting
b. Marta likes THIS painting and John, THAT painting
- (25) a. *Marta likes THE painting and A painting
b. *Marta likes THE painting and John, A painting

Hustuketa perpaus-juntaduratzat hartu beharrekoa balitz perpaus osoak ere okerrak direla esan beharko litzateke; beren ustez, askoz egokiagoa da debeku hori osagai-juntadurarekin lotzea. Eta ildo berean jarraituz, hirugarren, eta azkenik, ingelesez geundiiboak eta infinitiboak ezin dira elkarrekin juntatu, eta debeku bera agertzen da hustuketan:

- (26) a. *Running and to overeate may be unhealthy
b. *Max prefers running and Sheila, to eat
c. *Max prefers to run and Sheila, eating

Ikuspegi honen defendatzaileen ustez perpaus-juntadura eta ezabaketa proposatzen dituen analisiak ezin du datu hauen berri eman.

Dena den, hustuketak oinarrian osagai juntaturak direla onartu arren aipatu ditugun bi autore horiek tratamendu desberdinak proposatzen dituzte. Hudson-ek, bere garaian erabiltzen ziren transformazioetatik zertxobait urrunduz, *conjunct postposing* deitutako erregela proposatzen du:

«CONJUNCT POSTPOSING: Postpose, as right sister of the clause, any number of non-initial conjuncts, matched pairwise if they come from more than one position; and preserve their original order.»


Beraz, lehenik oinarriko osagaien juntadura daukagu, eta ondoren juntatutako osagai horiek mugiaraziko dituen arau bat. Arau horri ondoren hizkuntza bakoitzean zenbait debeku ezarri beharko zaizkio. Era honetako egiturak lortzen dira⁵⁶:

⁵⁵ Letra larriz idatziak «contrastively stressed» daude (Sobin 1982, 732).

⁵⁶ Arau horren ondorioak ez ditu zehaztasun handiz aztertzen, baina ematen duen egitura (Hudson 1976, 537) tankera honetakoa da. Ondorengo ohar hauek egiten dizkigu (Hudson 1976, 547):

«...I should explain, first, that it seems most reasonable to treat the postposed conjuncts as sisters of the clause, since this is what I shall do with CR (I have no better argument than that); second, that I don't know whether or how to make the two or more postposed conjuncts into a single constituent, labeled


(27) Max prefers fish and Mary oysters



Mugitutako zati hori, gainera, *afterthought* modura hartzen omen da.

Sobin-ek berriz (1982), McCawley-ren (1982) lanean oinarrituz, osagai ez-jarraikorrak badirela onartzen du. Horrela, bi eratako mugimendu-transformazioak gerta daitezke: osagai-egituran erasanez erlazioa aldatzen duten transformazioak, eta egitura aldatu gabe ordena aldatzen duten transformazioak. Hustuketa-egiturak azken transformazio-mota honen ondorio dira, eta osagai ez-jarraikorrak sortzen dira (Sobin 1982, 729):

(28)



Juntaduraz eskuinetara agertzen zaizkigun bi elementu horiek ez dute elkarren artean inolako osagairik egiten, juntagailuaz eskuineko *Max* eta *fish*-ekin lotuak daude, osagai ez-jarraikor modura.

(presumably) 'S'; and third, that I don't know how to get the embedded coordination in front of the postposed conjuncts.»

Era honetako proposamenek, hustuketa-egiturentzat oinarrian perpaus-juntadura ez baino osagai-juntadura proposatzen dutenek, ez dute arrakasta handirik izan. Ez dira gainera oso proposamen landuak: hustuketarako baldintzen eta debekuen arloa ez dute jorratzen. Alde erabili duten argudio bat zera da, perpaus-juntadura eta ezabaketa proposatuz baino hobeto arrazoitzen dela hondakinen eta kideen arteko parekotasun sintaktikoaren berri. Dena dela, kontuan izan behar dugu era honetako analisi batek juntagailuaz bi aldeetara agertzen zaizkigun elementuen guztizko paralelotasuna dakarrela berekin.

2.2.1.4. Ezabaketa eta ordena lineala: van Oirsouw (1987)

Gramatika sortzailearen barnean juntadurari buruz egin den azterketarik zabalena van Oirsouw-rena (1987) izango da ziurrenik. Ezabaketaren hipotesia hautatzen du, eta ondorioz juntadura-egitura gehienak bi perpaus elkartu ondoren ezabaketa erregela bat aplikatzearen emaitza direla aldarrikatzen du; salbuespena predikatu simetrikoak dira, oinarritik juntaturik datozenak. Ildo honetan, juntaduretako ezabaketa guztiak funtsean batera tratatu behar direla aldarrikatzen du eta horren berri emateko *Coordinate Deletion* erregela proposatzen du, diskurtso jakin batean kokatutako azaleko berdintasun morfologikoaren arabera ezabatzen duena. Honetan gramatika sortzailearen barnean aurretik egindako analisi gehienetatik urrundu egiten da: aurreko analisi gehienek Hustuketa, Konjuntzio-Laburketa, Eskuineko Adabegiaren Altxakuntza... bezalako erregela desberdinak proposatzen zituzten juntadura-egitura desberdinen berri emateko, eta van Oirsouw-k guztiak erregela beraren azpian biltzen ditu.

Ezabaketa-erregela horren norabidea ordena linealaren arabera erabakitzen da (Ross-ek adarreztatzearen arabera egiten zuen), eta hiru ezabaketa-leku desberdin proposatzen ditu: ezker muturrekoa, eskuin muturrekoa eta erdikoa edo aditzena. Ezkerreko eta erdiko ezabaketa-guneak ditugunean ezabaketa aurreranzkoa izaten da, eta eskuinekoekin atzeranzkoa. Teorian ezabaketa-leku eta norabide desberdinak elkarrekin konbinatuz aukera ugari ditugu baina hizkuntza bakoitzak bere erara moldatzen ditu eta praktikan aukeretatiko zenbait ez dira gauzatzen: orokorrean, gainera, badirudi aukerak oso parametro gutxiren arabera egiten direla. Ezabaketaguneak egitura sintaktikoko hierarkiaren bidez ez baina ordena linealaren bidez definitzen direnez, hasiera batean behintzat ez dago inolako kategoria jakinik ezabatzearen aurkako debekurik, baldin eta kategoria hori ezabaketa-leku egokietan agertzen bada. Ezabaketaren ondoren ez da aztarnarik geratzen, interpretazio

semantikoa ezabaketako prozesu bera alderantziz eginez lortzen da eta birreraiketa defendatzeko arrazoirik ez du ikusten.

Ingelesari dagokionez hustuketa erdiko ezabaketa-lekuen alorrean sartzen du. Ez du gai honi buruz azterketa berezirik egiten baina adierazten digu hustuketa aldagaiak ezabatzen dituen erregelatzat hartu izan bada ere, ez dituela benetan aldagaiak ezabatzen, osagai nagusiekin jokatzen baitu, eta ez edozein eratako elementuekin.

2.2.1.5. Analisi interpretatiboak: Brucart (1987)

Chomsky-ren LGB-ren ondoren (1981) gramatika berez aske diren moduloen eskakizunen gurutzaketatzat hartzen hasten da eta kategoria isilen erabilera eta beraiei buruzko azterketak nabarmen ugartzen dira. Testuinguru horretan kokatu behar da Brucart-en lana: juntadurari buruzkoa baino gehiago da isilean geratzen diren elementuei buruzkoa. Dena den gaztelarazko hustuketaren analisi oso zehatza egiten du⁵⁷.


Brucart-en ustez hustutako perpausean AS-ren ardatz modura oinarritik beretik kategoria isil bat dago: PRO anafora. PRO hori bera gobernatu gabe dago eta ez du kasurik hartzen, baina AS-ren barnean ardatz horrez gain beste elementuren bat ere beti izaten denez (hustuketako hondakina) AS osoa INFL-ek goberna dezake. Aditzaz gain AS-ren barneko beste osagaien bat ere isilean geratzen den kasuetarako berriro ere kategoria isil bakarra dagoela proposatzen du, orain X' mailakoa, hutsune osoa biltzen duena. Hutsunea jarraikorra ez denean berriz tartean geratzen den hondakina AS-ri adjuntatzen zaiola aldarrikatzen du, horrela kategoria isil bakarra utziz. Adjuntzio hori gertatzen ez den kasuetan gramatikaltasuna askoz apalagoa da. Errol tematikoen ezarketari dagokionez, perpaus osoko aditzak antezedente lana egiten du hustutakoari osagai-egitura emanez, baina errol bakoitzaren ezarketa PRO-k egiten du. Aditzaz gain beste elementuren batzuk ere isilean geratzen direnean zegokien paper tematikoa beren orde zegoen kategorian (PRO) geratzen da.

2.2.1.6. Hiru dimentsiotako analisiak

⁵⁷ Williams-ek (1977) eta Wasow-k (1979) ere analisi interpretatiboak proposatu zituzten. Norabide bertsuko lan berriago bat Chao-rena (1988) da.

Chomsky-ren (1982) iradokizun bati jarraituz zenbait hizkuntzalarik (Goodall 1987; Muadz 1991; Moltmann 1992) juntaturaren tratamendu berri bat proposatzen dute: hiru dimentsiotako analisiak. Horretarako sintaxi-teoriak tradizionalki erabilitako *Perpaus Markatzaileen* (Phrase Marker) nozioa berrikusten dute. Begira diezaiozun ondorengo zuhaitzari:


(29)



Egitura honetan baditugu amaierako elementuen multzo (*terminal string*) bat (abc), eta ez-amaierako hiru elementu (*nonterminals*) (A,B,C). Ez-amaierako elementuek osatutako bikote bakoitzean (A-B, B-C, A-C) elementuetako batek bestea menderatzen du edo bata bestearen aurretik doa. Hori izan da PM zuzenak izateko baldintza.


Goodall-ek, ordea, proposatzen du hizkuntzan badirela elkar menderatzen ez duten eta bata bestearen aurretik ez doazen ez-amaierako elementuez osatutako bikoteak. Juntaturakoak izango lirateke horrelakoak. Horretarako, PM-en bilketa egin behar da, hau da, zuzenak diren bi PM-ren bidez PM berri bakar bat egiten dugu. Formalizazio zehatza alde batera utziz, hona zuhaitzen bidez nola irudikatzen duen:

(30) Louise and Geroge went skiing



Dena den beste era honetara irudikatzen dira eskuarki hiru dimentsiotako analisiak erabiltzen dituztenen artean:

(30)



Era honetan bi juntagaiak ez dute elkar menderatzen eta bi juntagaiak ez beste elementu guztiak linealki ordenaturik dauzkagu. Baina azaleko egitura egokiak lortu ahal izateko PM-en bilketaz gain forma fonetikoan aplikatzen den linearizazio-printzipio bat ere behar da. Linearizazio-printzipio horrek PM-etako ordena bere hartan uzten du, eta elkarrekiko ordenatu gabe dauden elementuak Forma Fonetikoan ordenaturik agertu behar dutela esaten du. Azken kasu hauetan, gainera, juntagailu bat ezarriko da ordenatu behar diren elementu horien artean.


Goodall-en analisisiko beste alderdi garrantzitsu bat zera da: juntatutako planu bakoitza juntaturako juntagai semantikoa dela. Era honetara juntagai bakoitzaren askatasunaren berri bestela baino hobeto ematen da; adibidez, *respectively* irakurketarako egokiagoa da:

(32) John and Alice saw Bill and Tom (respectively)

Perpaus hau ondorengo bi perpausetako PM-en bilketatik sortuko genuke:


(33) John saw Bill
Alice saw Tom

Hau da,

(34) 

Horrez gain hiru dimentsiotako PM-ak neurri batean ohiko bi dimentsiotakoez osatuak daudenez sintaxiaren printzipioak (uztardura, kasu teoria, theta teoria) PM-en bilketa egin aurretik begiratu behar dira. Beraz, juntadura-egituren gramatikaltasuna PM-en bilketa egin aurretik perpaus bakoitza zuzena izatearen baitan dago. Literaturan zehar sarri aipatu izan da juntadurako sintaxia nolabait bigarren mailako edo eratorritako sintaxia dela, eta formulazio honek intuizio horren berri oso ondo ematen du.

Orain arte esan dugunarekin ordea ez da hustuketa-egituren berri ematen: (34) egituratik (32) linearizazioa lortzen genuen. Hustuketa-egituren berri emateko Goodall-ek proposatzen du badela *Lotura Erregelak* (linking rule) berezi bat alde batetik *John* eta *Bill* eta bestetik *Alice* eta *Tom* lotzen dituen, eta ondorioz *Alice...Tom* bere osoan *John...Bill*-en eskuinetara linearizatzen dela:




Lotura-erregela horrek zenbait baldintza bete behar ditu. Lehenik, Goodall-ek proposatzen du *Lotura* osagaien artean bakarrik egin daitekeela:

- (36) *Mary quickly ate the apples and John suddenly the oranges

Bestetik, esaten du hurbiltasun-baldintza bat bete behar dela; *Loturak* ezin du desberdina den subjekturik gurutzatu:

- (37) a. John promised Bill to shave himself and Mary to wash herself
 b. *John promised Bill to shave himself and Mary to wash himself

Muadz-en (1991) eta Moltmann-en (1992) proposamenak ere funtsean ildo beretik abiatzen dira, baina PM-en definizioan zenbait desberdintasun badituzte. Muadz-en analisisian hiru dimentsioetako PM-ak oinarrian sortuak dira; horretarako ohiko sintagma-egitura arauen aldaketa bat proposatzen du. Juntagailua ere adierazten da PM horietan. Goodall-en perpausak honelako errepresentazioa izango luke:




Ikusten da espantsio bat baino gehiagotarako aukera dagoela. Aukera horietako bakoitzari *planu* (plane) deitzen dio. Adibide honek, zehazki, lau planu izango ditu:

- (39) John saw Bill
 John saw Tom
 Alice saw Bill
 Alice saw Tom

Planu horietako bakoitza hiru dimentsiotako PM-en bi dimentsiotako azpi-PM bat da, eta interpretazio semantikoa eta printzipio sintaktikoak horietan begiratzen dira. Horretan, beraz, Goodall-en antz handia du.

Goodall-en analisiarekin gertatzen zen bezala hustuketarako zenbait aldaketa proposatu beharrean dago. Datu garrantzitsu bat zera da: juntagailuak hustuketan egitura osoa hartuko duela bere hedadurapean (*scope*):

(40)



Ondorioz planu gutxiago izango ditugu:

(41) John saw Bill
Alice saw Tom

Aldarrikatzen du, gainera, era honetako analisiekin besteekin baino zuzenago ematen dela hustuketako hondakinak aurreko perpauseko elementuekiko behar duten berdintasunaren berri.

Muadz bezalaxe Moltmann ere hiru dimentsiotako PM-ak oinarrian sortzearen alde dago, baina horretarako Muadz-ek ohiko sintagma-egitura erregelak erabiltzen ditu, eta Moltmann-ek, McCawley-ri (1982) jarraiki, *Node Admissibility Condition* kontuan izanik osatzen ditu PM-ak. Bestalde, juntagailuei eman beharreko tratamenduan ere Muadz-en analitik urrundu egiten da: Muadz-ek PM-en barnean izaera berezia aitortzen zien juntagailuei; Moltmann-ek, juntagaien artean gertatzen diren asimetriren berri emateko, sintaktikoki juntagaietako baten adjuntutzat hartuko ditu (nahiz semantikoki adjuntuetatik desberdinak diren).

Horrez gain ongi-eraketarako baldintza semantikoak eta sintaktikoak begiratu behar diren lekuari dagokionean ere urruntzen da Moltmann aurrekoen analisisetatik. Goodall-ek eta Muadz-ek azken batean juntatutako perpaus bakoitzean ezartzen zituzten baldintza sintaktikoak eta semantikoak; Moltmann-ek uste du bi baldintza-mota horiek ezin direla planu berean tratatu, eta aurrekoenetatik desberdintzen diren bi planu proposatuko ditu: planu formala (f-planua) eta esanahiaren planua (m-planua). Planu formalean printzipio sintaktikoak begiratuko lirateke (Juntadura-Egituretako Baldintza, uztardurako zenbait, Kasu teoria); m-planuek interpretazio semantikorako oinarri sintaktiko modura lan egiten dute, eta hedadura kontuak bertan zehazten dira.

Hiru dimentsiotako analisiak egiten dituzten guztien antzera azaleko juntadura-mota desberdinak linearizazio desberdinen ondorioztat hartzen ditu. Linearizazio

desberdinen berri emateko bi alderdi izan behar dira kontuan: juntagailuaren kokagunea eta ezarri den m -planua. Hustuketa-egiturak sortzeko linearizazioari dagokionez Muadz-en norabide bera hautatzen du Moltmann-ek ere.

Hiru dimentsiotako analisi guztiei batera begiratzean zenbait alderdi on somatzen dira. Batetik, juntadura guztiek funtsean batasuna dutela adierazten dute, eta desberdintasunak nagusiki linearizazio desberdinek eta juntagailuen esparruak eragiten dituela aldarrikatzen dute. Interpretazio semantikoko zenbait auziren berri ere era bateratu batean ematen dute. Kontuan izan behar dugu, bestalde, hustuketa egiturei dagokienez bi perpausen artean guztizko paralelotasunaren (elementu berberak bi perpausetan) hipotesiarekin egiten dutela lan.

2.2.1.7. Gramatika kategorialak

Gramatika kategorialek zenbait logiko eta matematikoren lanetan dute abiaburua. Beren helburua semantika eta sintaxiaren arteko isomorfismoa lortzea da, beti ere logika intentsionala erabiliz eta Fregue-ren printzipioa mantenduz. Ideia orokor horretatik abiatuz formalismo eta sistema desberdin asko garatu dira, eta guztiak ere teoria lexikalistak dira, hau da, ohiko Perpaus Egitura Arauak edo transformazioak alde batera uzten dira, eta horren orde sarrera lexikoetan zehazten da elementu bakoitzaren kategoria eta elementuak elkarren artean konbinatzeko informazioa.

Horrela, gramatika kategorialetan bi eratako kategoriak ditugu: oinarrizko kategoriak eta kategoria eratorriak. Oinarrizko bi kategoria izaten dira, perpausa eta izena (batzuek IS ere gehitzen dute), eta nahi adina kategoria eratorri izan litezke. Elementu bakoitzak zer erataro jokatu duen adierazten duen formula sarrera lexikotik beretik dago zehaztua. Pentsa dezagun, adibidez, *Jon dator* bezalako batean. *Jon* izenaren formulaz ez dago beste inolako elementurik aurkitzera behartzen duen informaziorik, beraz, argumentu bat izango da. *Dator* aditz iragangaitzarenean berriz perpaus bat osatzeko izen bat aurkitu behar duela zehaztuko da. Horrela, *Jon dator* bezalako batean aditz iragangaitza funtzio baten adierazlea (funtorea) izango da, *Jon* izenari (argumentua) eskuinetara *dator* elementu lexikoa erantsiz perpaus bat sortzen duena. Lexikoko elementu guztiek zer jokaera izango duten adierazten duen formula (=tipoa) zehazturik dute, eta era honetako operazioen bidez berez nahi adina kategoria sor litezke gramatika kategorialetan⁵⁸.

⁵⁸ Horrela Steedman-ek (1993, 222) *ibili* bezalako aditz iragangaitz bat bere ezkerretara duen IS batetik perpaus baterako funtziotzat definitzen du; *ikusi* bezalako bat berriz, bere eskuinetara duen IS batetik aditz iragangaitz baterako funtziotzat.

Elementu lexikoez eta operazio horiek eragiten dituzten tipoez gain zenbait erregela ere izaten dira gramatika kategorialetan: gutxienera, operazio horiek elementuak zer norabidetan kateatzen dituzten adierazten dutenak. Nabarmendu behar dugu, bestalde, era honetako operazioekin jokatuz gramatika kategorialetako askok 'osagai malguak' onartzen dituztela. Horrela, gerta liteke zenbaitetan aditz iragankor bat objektuarekin ez baino subjektuarekin biltzea osagai modura. Solías-i (1994) jarraiki 'osagai behartuak' deituko diegu horrelakoei.

Beraz, laburtuz, gramatika kategorial batek gutxienerako hiru elementuok izan beharko ditu: kategoría multzo bat, kategorietan aplikatuz kategoría berriak sortzen dituzten operatzaile-multzo bat, eta kategoriak konbinatzeko erregela multzo bat.

Juntadurari dagokionez berriz, gramatika kategorialetan ohiko Perpaus Egitura Arauak edo transformazioak ez direla onartzen kontuan izanik, juntagailuak bere sarrera lexikoa izan beharko du, eta berau hartzen da juntadura-egituraren ardaztatzat (ez X-barra zentzuan). Horrek esan nahi du bere formula izan behar duela. Gramatika kategorialetako korrante eta proposamen desberdinen eginbehar nagusietako bat juntagailuari hizkuntza desberdinetan juntadurak duen jokaeraren berri eman ahal izateko moduko formula edo tipoa zehaztea izan da. Orotara korrante honetakoek juntadurari leku handia eman diote beren lanetan, bereziki elementuren bat 'kanporatuta' duten juntagaien azterketari (Steedman 1985, 1990, 1993; Oehrle 1987, 1990)

Proposamen desberdin horien artean ezagunenak ziurrenik Steedman-en lanak (1985, 1990) dira. Gramatika kategorialetan ohikoa denetik aldenduz, juntagailuari bere jokaeraren berri emango duen formula edo tipo bat ematearen orde zintagma-egitura arau bat ematen du:

$$(42) \quad X^+ \text{ CONJ } X \implies X$$

X edozein kategoría izan liteke, oinarritzkoa edo funtorea. X^+ -ek 'bat edo gehiago' adierazi nahi du. Formula horren bidez ohiko sintagmaak juntatzeko ez dago inolako arazorik, eta ezta *one* eta *two* edo *cooked* eta *ate* bezalako funtoreak juntatzeko ere, baldin kategoría berekoak badira. Baina horrez gain osagaitasun-malguaren printzipioa erabiliz *Harry cooked* edo *Mary ate* bezalakoak ere junta litzake. Era intuitibo batean, horrelako kasuetan perpaus izateko izen sintagma bat behar duten bi kategoría juntatzen dira, berriro ere era bereko kategoría sortuz, eta juntadura-egitura hori eskuineko izen sintagma(objektua)rekin konbinatzean perpausa osatzen da:

- (43) [Harry cooked]_{S/NP} and [Mary ate]_{S/NP} [the beans that I bought from Alice]_{NP}


Hustuketa-egiturak ere Steedman-ek (1990) osagai-juntadura modura analizatzen ditu. Horretarako hustutako elementua beste elementuak uztartzen dituen operatzailetzat hartzen du. Beste elementu horiek zenbait arairen ondoren osagai behartu bihurtzen dira, eta elkarrekin koordina daitezke.

- (44) Mikelek haragia jan du eta Pellok arraina
Jan du ([[Mikelek, haragia), (Pellok, arraina)])


Analisi hori aurrera eraman ahal izateko, ordea, zenbait puntu garrantzitsu zehaztu beharra dago. Batetik, juntadurari eman beharreko tratamendua dago. Steedman-ek horretarako berriro ere berridazketa-erregela bat proposatzen du, bi atal dituen. Bigarren, eskuineko perpausean agerian dugunari zer tipo ezarri erabaki behar da, baina gramatika kategorialeko ohiko lanabesek ez dute horrelakorik egiteko ahalmenik. Horregatik Steedman-ek elementu horiek bildu eta beraiekin tipo bakarra lortzeko arau-mota berezi bat proposatzen du, arau gurutzatuak edo ezarmonikoak, oso boteretsuak eta ad hoc sortuak izateko arriskua dutenak (Solías, 1994). Horrez gain, hustutako perpausean sortu berri dugun tipo horren pareko bat isolatu behar dugu perpaus osoan, eta horrek askotan elkarren ondoan ez dauden elementuak bildu beharra ekartzen du. Proposamen desberdinak izan dira alor horretan. Azkenik, aurreko auziari oso loturik agertzen dena, hustu diren elementuen tipoa zehaztu behar da.

2.2.1.8. Dependenzien gramatikak: Hudson (1989)

Hudson-ek dependenzien gramatikaren tradizioan oinarrituta Word Grammar modelua garatu du (1984, 1990) eta hustuketari buruzko zenbait proposamen ere aurkeztu ditu (1988, 1989). Dependenzien gramatiketan orokorrean hitzen arteko loturei begiratzen zaie: harreman horien arabera zehazten dira egiturak. Horrela, erlazio oro bi hitzen artekoa da, bietatik bat nolabaiteko burua delarik eta bestea buru horrek hautatzen duena eta harekiko menpekotasunean dagoena. Erlazio hori gezidun marren bidez adierazten da, eta egiturari eta ordena linealari buruzko informazioa ematen da:

- (45) 

Perpausaren ardaztat aditza hartzen da. Orokorrean hitz bakoitza beste batekiko bakarrik da menpeko, baina Hudson puntu honetan besteetatik aldendu egiten da eta zenbait harreman bereziren berri eman ahal izateko ondorengoa bezalakoak onartzen ditu:



Era honetan *go* aditzaren subjektua ere nahitaez *John* dela adierazi nahi du.

Hustuketa-egiturei dagokienez analisi posible baten hastapenak besterik ez ditu ematen, eta berez askeak dauden gramatikaren hiru alorren elkarreraginaren bidez esplikatu nahi ditu: dependentzia-egitura, juntaduraren berezitasunak eta ordezkapenaren mekanismoak. Lehenaren ezaugarriak nagusienak aipatu ditugu. Juntadura-egiturei buruz dio (1988) beste egitura guztietatik aldendu egiten direla: juntaduretan ez dago inolako bururik (dependentzia-gramatikaren zentzuan) eta elkartzen direnek ez dute zentzu klasikoko osagai izan beharrik, HITZ segidak izaten dira, kontuan izanik hitz bakoitzak zuzena izan behar duela. Azkenik, hustuketari ondorengo hauek eta beste zenbait egiturarekiko parekotasuna somatzen zaio:

Zuzenketak: John did it -no, (I mean), Bill.
Galderen erantzuna: Who did it?
 Bill.

Adibide hauek interpretatu ahal izateko Bill aurreko perpaus oso horietan ordezkatu behar da. Gauza bera gertatzen omen da hustuketan:

(47) Ni mendira joan naiz, eta Jon hondartzara

Jon eta *hondartzara* hitzak *ordezkatzaila* (replacer) izango dira, eta *Ni* eta *mendira* *ordezkatuak* (replacee). Ordezkaketaren teoria hau dependentzia-egiturarekin eta juntaduraren analisiaren uztartuz saiatzen du hustuketaren azterketa. Adibiderik errazenak besterik ez ditu ukitzen eta hustuketan aztertu ohi diren zenbait punturi buruzko argibiderik ez zaigu ematen. Nabarmendu behar da, gainera, teoria honek hitzak eta hitzen arteko erlazioak hartzen dituela oinarritzat.

2.2.1.9. Hustuketa eta egitura kontzeptuala: Nishioka (1992)

Hustuketaren alderdi sintaktikoak alde batera utzi eta esanahiaren alorra aztertzen du Nishioka-k. Horretarako Jackendoff-en *Semantic Structures* (1990) lanean oinarritzen da. Hustuketa gabeko perpausen egitura kontzeptuala eta egitura sintaktikoa Jackendoff-ek proposatutako legeen bidez lotzen dira. Hustutako perpausaren egitura kontzeptuala lortzeko berriz hondakinetatik abiatu eta perpaus osoaren egitura kontzeptualean dagozkien elementuen lekuan ordezkatu beharko ditugu. Adibidez, *John ate an apple* perpausak ondorengo egitura kontzeptuala izango luke:

(48)

a. John ate the apple

b. [CAUSE([JOHN]^α, [GO([APPLE], [TO([IN([MOUTH OF([α])])])])])])]

Hustuketadun perpausaren egitura kontzeptuala lortzeko egin beharreko bakarra hondakinak beren kideen lekuan ordezkatzea izango litzakete. Beraz, ondorengo adibide honetako hustutako perpausaren egitura kontzeptuala *Tom* eta *hamburgers* goiko *apple* eta *mouth*-en lekuan ezarriz lortuko litzateke:

(49) John ate an apple and Tom ø the hamburgers

Nishioka-k aldarrikatzen du gainera autore gehienek debeku sintaktiko modura aurkeztu dituzten jokaera asko eta asko egiatan egitura kontzeptual egokia lortzeko bete beharreko baldintzen ondorio besterik ez direla: paralelismo eskakizuna, Hankamer-ek *Major Constituent Constraint* debekuaren bidez azaldu nahi zuena edo bi hondakinen baldintza izango genituzke horietako zenbait.

2.2.2. Berdintasunaren nozioa

Aipatu dugu era intuitibo batean juntadura-egituretan berdinak diren atalak isilean gera daitezkeela. Baina berdintasunaren nozio hori hobeki zehaztu beharra dago, auzia hasiera batean dirudiena baino korapilatsuagoa baita. Esate baterako erraz ohartzen gara berdintasun hori ezin dela forma fonetikokoa izan. Ondorengo adibide honetan, adibidez, isilean uzten den aditz laguntzailea ez da fonetikoki berdina, baina hala ere hustuketarako ez dago arazorik:

(50) Mikel mendira joan da, eta ni hondartzara

Beste zenbaitetan fonetikoki berdinak diren perpaus-zatiak ezin izango dira isilean utzi. Hona Lees-ek (1960) damaigun adibidea:

(51) *Drowning cats, which is against the law, are hard to rescue

Orotara somatzen zen azpian nolabait esanahi bereko izatea zegoela, eta hori zehazteko proposamen desberdinak egin ziren, nagusiki aditz sintagmaren ezabaketa izeneko fenomeno oinarritzat hartuz, baina era honetako elipsi guztietarako (hustuketa, stripping, sluicing) berdintasun bera behar dela onartuz. Proposamenetako bat zen ezabaketarako egitura bera eta deribazio bera behar dutela adibideek; beste zenbaitek sakoneko egiturako berdintasuna proposatu zuten ('esanahia' erabakitzen zuen maila). Garrantzirik handiena, ordea, Sag-en (1980) proposamenak izan zuen. Bere ustez aditz sintagma bat ezabatu ahal izateko berdintasunak forma logikokoa izan behar du. Begira diezaiozun ondorengo adibideari:

(52)

- a. The chickens are ready to eat and the children are ready to eat
- b. The chickens are ready to eat and the children are ready to \emptyset

Perpaus osoko juntagai bakoitzak bi irakurketa desberdin izan ditzake:

- | | |
|-----------------------------|---------------------------|
| a) Oilaskoek zerbait jan | b) Hurrek zerbait jan |
| a') Norbaitek oilaskoak jan | b') Norbaitek haurrak jan |

Teorian, beraz, aukerak gurutzatuz horrelako perpaus batek lau irakurketa izan behar lituzke (ab, ab', a'b, a'b'). Baina elipsidun adibideak irakurketa bakarra du (ab). Horren berri eman ahal izateko Sag-ek aldarrikatzen du era bakarra FL-ko berdintasuna proposatzea dela. Horretarako FL-rako notazio notazio bezala *lambda-calculi* erabiliko du, eta berdintasuna *aldaera alfabetiko* nozioaren arabera definituko du. Ager dezagun auzia mantsoxeago.

Ordurarte *Mikelek Jon ikusi du* bezalako perpaus baten forma logikotzat ondorengo hau hartzen zen:

(53) IKUSI (MIKEL, JON)

Berak proposatzen du forma logikoak subjektu-predikatu erlazioa agerian adierazi behar duela, eta horretarako lehen aipatu dugun λ -calculi erabiliko du. Horrela, aditz

sintagma bakoitzari forma logikoan λ -predikatu bat dagokio. Aurreko perpaus bera honela adieraziko da:

(54) Mikel, λx (ikusi (x, Jon))

edo errazago

(55) Mikel, λx (x ikusi Jon)

Horrez gain, *aldaera alfabetiko* nozioa argitu behar da. Bi espresio logiko elkarren aldaera alfabetiko izateko, A espresioeko aldagaiak A-n uztartuta dauden era berean egon behar dute uztartuta B espresioeko aldagai guztiek B espresioan. Horrez gain A espresioan aldagaiak uztartzen dituen kuantifikatzaile bat badago, B espresioan ere mota bereko kuantifikatzaile batek posizio berean dauden aldagaiak uztartu beharko ditu; eta gainera, A espresioeko aldagairen bat A-z kanpoko kuantifikatzailearen batek uztartzen badu, aldagai horri B-n dagokion aldagaia ere kuantifikatzaile berak uztartu beharko du. Baldintza horiek betetzen badira ezabaketa egiteko berreskuragarritasun-arazorik ez dago. Horren bidez esplikatzeko da aurreko adibidea ere. Hemen (ab) eta (a'b') irakurketen arteko kontrastearen berri emango da:

(56) The chickens, λx (x ready (x, λy (y eat))) &
the children λw (w ready (w, λz (z eat)))

(57) The chickens, λx (x ready (Δ , λy (y eat x))) &
the children λw (w ready (Δ , λz (z eat w)))

Lehenengo aukeran bai λx eta λw bai λy eta λz aldaera alfabetiko dira, beraz, ez dago ezabaketarako arazorik; bigarrenean, aldiz, λx eta λw aldaera alfabetiko dira, baina λy eta λz ez dira, espresio horietako x eta w beren espresioaz kanpotik uztartuta daudelako, eta x uztartzen duen kuantifikatzailea ($=\lambda x$) eta w uztartzen duena ($=\lambda w$) mota berekoak bai baina bera ez direlako. Beraz, nolabait esateko, perpaus horretan forma logikoko predikatu handian berdintasuna gordetzen da, baina predikatu txikian ez; ondorioz forma logikoko berdintasunik ez da erdiesten eta ezin da ezabaketarik egin⁵⁹.

⁵⁹ Williams-ek (1977) ere berdintasun-mota bera zuen gogoan, baina ezabaketaren ordez sakoneko egiturako kategoria hutsak proposatu zituen. Ordudanik beharrezko den berdintasun logikoari buruzko lan ugari egin da. Azkenetariko batzuk, Fiengo & May 1994, Valmala 1995 eta Hestvik 1995.

Lanabes horien bidez zaila zen, ordea, hustuketan konparatu ahal izateko moduko espresioak lortzea: aditz sintagmaren ezabaketaren kasuan errazagoa gertatzen zen, baina hustuketan ezabatutako entitate sintaktikoak entitate logikoekin nola parekatu ez zen garbi ikusten. Horren aurrean Sag-ek hustuketari buruzko gogoeta egiten du. Hustuketa-egituretako hondakinak normalki azentu kontrastiboa izaten dute; baita lehenengo perpauseko beren kideek ere. Galderen erantzunetan ere azentu kontrastibo bera izaten da. Bere ustez kontraste horrek presuposizio logikoa dakar berekin, eta forma logikoan horren berri eman beharra dago. Honela adierazten digu (Sag, 1980, 289):

«Contrastive accent alters the logical form of a given sentence in such a way as to induce a correspondence between arbitrary sequences of syntactic entities and single entities of logical formulae.»

Hona hemen adibide bat:

- (58) Harry ate the **bá**gel
 [the bagel] c ^x [Harry, λy (y ate x)]

Hustuketa-egituretako hondakinetan ere indar kontrastibo bera somatzen du, eta ondorioz analisi hori bera hustuketa-egituretara hedatzen du:

- (59) **Jím** likes **Júdy** and **Péter** likes **Bétsy**
 {Jim, Judy} c ^x^y[x, λz (z like y)] & {Peter, Betsy} c ^r^s [r, λw (w like s)]

Horrela, hustuketan ezabaturik geratzen denak bere pareko entitate logikoa du, eta hustuketak beharrezko duen berdintasuna forma logikoan definitzen du. Begira, esaterako, Neijt-ek (1980, 104)) agertzen digun bikotea:

- (60)
 a. Jóln kissed Súsan in the kitchen and Péter (kissed) Máry (in the kitchen)
 b. *Jóln kissed Susan in the kíchen and (John kissed) Máry in the díning room

- (61) a. {John _a , Susan _u } c â û (a, λx (x kiss u in the kitchen)) &
 {Peter _i , Mary _o } c î ô (i, λy (y kiss o in the kitchen))

- (62) b. *{John _a , kitchen _u } c â û (a, λx (x kiss Susan in u)) &
 {Peter _i , dining room _o } c î ô (i, λy (y kiss i in o))

Lehenengo adibidean azpimarratutako espresioak aldaera alfabetikoak dira, baina bigarren adibidekoak ez. Mekanismo hau erabiliz eta berdintasuna forma logikoan begiratzuz Sag-ek aldarrikatzen du beste mailetako berdintasunaren bidez esplikatzeko ez diren adibideak esplikatzeko direla.

Hustuketarako egiten duen egokitzapenari buruzko balorazioak alde batera utziz, Aditz Sintagmaren Ezabaketari berari (58-61 adibideak) dagokionean ere izan ditu kritikak Sag-en proposamenak. Zenbait autorek diote forma logikoko berdintasunera bildu ezin diren adibide zuzenak badirela. Schachter-ek (1977), esaterako, inolako antezedente linguistikorik gabeko elipsien adibideak ematen ditu. Horrela, ilea tindatzeko iragarki batek honela zioen:

(62) Does she or doesn't she? Only her hairdresser knows for sure

Aditz sintagma horiek interpretatu ahal izateko hizkuntzak ez digu informaziorik ematen, interpretazioa beste bide batzuetatik egiten da. Era honetakoak iragarkietako hizkuntzan eta deklaratiiboak ez diren perpausetan bakarrik gertatzen dira, baina Schachter-en ustez aditz sintagma isil guztiek dute berez antezedente linguistikorik gabe interpretazioa biltzeko aukera: praktikan oso egoera jakinetan bakarrik gertatzen bada oro har hiztunak erreferentzia aurkitzeko aukera gehiegirekin topo egiten duelako gertatzen da⁶⁰.

Forma Logikoa zeharo arbuia gabe Sag-en analisiari arazoak sortzen dizkion beste zenbait adibide Nash-Webber-ek (1978a, 1978b) plazaratzen ditu:

(63)

- a. I can walk and I can chew gum. Ford can \emptyset too, but not at the same time
(\emptyset = walk and chew gum)
- b. China is country that Nixon wants to visit, and he will \emptyset too, if he gets an invitation soon
(\emptyset = visit China)

Sag-ek proposatutako berdintasunarekin ezin da horren berri eman, aditz sintagma isil horiei dagokien antezedente linguistiko zehatzik ez baitago. Horrelakoen aurrean Nash-Webber-ek proposatzen du zenbait inferentziak eta inplikaziok forma logikoan λ -predikatuak sor ditzaketela, eta horien bidez lortzen dela berdintasuna.

⁶⁰ Adibide horiei buruz Schachter-en aurkako ikuspegia du Hankamer-ek (1978).

Hardt (1991, 1992) ordea urrunago joaten da. Bere ustez antezedentearen eta aditz sintagma isilaren kontestuak oso antzekoak direnean LF-ko berdintasuna nahikoa da, baina kontestuak oso desberdinak direnean aldaera alfabetikoen baldintzari jaramonik egin gabe ere lortzen dira aditz sintagma isildun adibide zuzenak. Aldaera alfabetikoen baldintzak zioen izenordainak uztartutako aldagai zirenean bakarrik alda zitekeela izenordainen erreferentzia aditz sintagma antezedentetik isilera. Hardt-ek dio, aldiz, izenordain horiek askeak direnean batetik bestera aldatzeko arazorik ez dagoela (1991, 125):

- (64) a. I told John_j that I didn't expect him_j to fail his_j exam.
 b. I told Bill_j that I did. [expect him_j to fail his_j exam]

Horren aurrean, eta Nash-Webber-ek eta Schachter-ek ematen dituzten adibideak ere kontuan izanik, aldarrikatzen du berdintasuna interpretazio semantikoko sistema dinamiko batean formulatu behar dela, esanahiak kontestuen gaineko erlazioak direlarik. Horrela, aditz sintagma baten esanahia kontestu jakin bati dagokion propietatea izango da, eta bai aditz sintagma antezedentea bai eliptikoa beren diskurtso-kontestuetan independienteki interpretatuko dira. Aditz sintagmen esanahiak diskurtso-modelu batean gordeko dira, aditz sintagma isilen antezedente modura erabili ahal izateko.

Ikusten dugu, beraz, literaturan nagusiki FL-ko berdintasuna erabili bada ere oraindik badirela eztabaidarako puntuak, askotan egungo teoria linguistikoen mugetara eramaten gaituztenak. Euskarazko hustuketan, dena den, azken lan hauetakoak bezalako adibiderik ez da aurkitzen, isiluneak baldintza sintaktiko desberdinetan gertatzen baitira⁶¹: hustuketa-egiturak interpretatzeko nahitaez hizkuntzako elementuetara jo behar da, eta Hardt-ek biltzen dituenak bezalako salbuespenei ez zaie biderik ematen.

Azkenik, zuzenki hustuketaz arduratzen den lan batean Furbee-k (1974) bai syntaxiko berdintasunak bai forma logikokoak bai azkenean aipatu ditugun hauek esplika ezin dezaketen kasu baten berri ematen zuen. Tajolabal-Maya hizkuntzak jatea adierazteko lau aditz transitibo desberdin ditu, jaten den janariaren ezaugarrien arabera erabiltzen direnak: *K'us* okelarekin nagusiki, *lo?* fruitu, barazki, arraultza, eta janari bigunekin, *we?* arto eta garauak dituztenekin, *ti?* latako janari bigunekin (babarrunak, etab.). Beraz, objektuaren ezaugarriek erabakitzen dute zer aditz erabili behar den kasu bakoitzean. Hustuketa egin nahi dugunean, ordea, guztiak berdinak balira bezala

⁶¹ Ingeleseko aditz sintagma isil horiek *egin* aditzaren bidez edo beste zenbait esapideren bidez (*hala egin, hala izan...*) eman ohi dira euskaraz.

hartzen dira, eta elkarrekiko berdintasunaz ezaba daitezke. Lehena adibide osoa da, bigarrena elipsoiduna; aditzak azpimarratutakoak dira eta juntagailua *sok* :

(65)

- a. s-k'us-u b'ak'et Hwan sok s-ti?-a cenek' Cep sok s-lo?-o tek'ul Manwel sok s-we? wah Sebastiyān
he-ate meat John with/and he-ate beans Joe with/and de-ate fruit Manuel with/and he-ate tortillas Seb.
("Jonek okela jan zuen, Joek babarrunak jan zituen, Mauelek fruta jan zuen eta Sebastianek tortillak jan zituen")
- b. s-k'us-u b'ak'et Hwan , cenek' Cep , tek'ul Manwel sok wah Sebastiyān
he-ate meat John , beans Joe , fruit Manuel with/and tortillas Seb.
("Jonek okela jan zuen, Joek babarrunak, Mauelek fruta eta Sebastianek tortillak")

Adibide honetan *K'us* aditzarekiko berdintasunagatik beste guztiak isilean geratu zaizkigu. Juntatu ditugun perpausen ordena aldatu eta agerian beste aditzen bat utzita ere ez dago inolako eragozpenik, edozein eratarata egin daiteke hustuketa. Beraz, hemen berdintasun lexikoari ez zaio jaramonik egiten: aditz horiek guztiak sarrera lexiko desberdinak dira, baina hustuketarako berdinak balira bezala jokutzen dute⁶²; goian orain arte aipatutako berdintasun-mota desberdinek ezin dute horrelako adibide baten berri eman. Dena den, literaturan ez da agertu horren antzeko beste daturik, eta euskaraz ere ez dut horrelakorik aurkitu.

2.2.3. Ezaugarri sintaktikoak

2.2.3.0. Sarrera

Aurreko ataletan hustuketa-egiturentzat proposatu diren analisiak ikusi ditugu. Oraingoan hustuketa-egiturak euskaraz nolakoak diren agertzen saiatuko gara. Deskribapen-lana izango da, bada, nagusi. Horretarako beste hizkuntzetarako proposatu diren ezaugarrietatik abiatuko gara. Analisi guztiek egitura sintaktiko soilaren arabera definitu dute hustuketa. Horrela, literaturako adibideetan eskuineko perpausoko elementu guztiak ezkerrekoan ulertutzat eman ohi dira. Alegia, ondorengo perpausuan ulertu behar zen Josuk disko bat eman ziola [Joni atzo mendian Pellorentzat]:

(66) Mikelek Joni atzo mendian Pellorentzat liburu bat eman zion, eta Josuk disko bat

⁶² Hemengo berdintasunaren berri emateko berak proposatzen du berdintasun hori begiratu behar den lekuan aditz desberdin guztien azpian CONSUME aditz iragankor abstraktua dagoela.

egin gabe. Hustuketa eta beste zenbait fenomenoren arteko muga meharraz ere mintzatuko gara.

2.2.3.1. Zer perpaus motatan?

Orain arte ikusi ditugun adibideak perpaus juntatuetan agertu zaizkigu. Autore gehienek diote (Jackendoff 1971, 22; Hankamer 1979, 18; Sag 1980, 190; Neijt 1981, 72), gainera, horrelakoetan bakarrik ager daitezkeela hustuketa-egiturak. Ondorengo adibide hauek ematen ditu Hankamer-ek (1979, 18):

- (69) *Alfonse stole the emeralds because Mugsy the pearls⁶³
 if
 although
 while
 unless
 whenever

Ingelesari buruzko azterketak bat etorri dira puntu honetan. Beste zenbait autorek, ordea, hustuketa-egiturak nagusiki juntatutako perpausetan gertatzen direla onartu arren, ingelesa ez diren hizkuntzetan juntatutako perpausetan kanpo ere ager daitezkeela aipatzen dute. Brucart-i (1987, 73), esaterako, ondorengo hauek txartzat ematea gehiegitxo iruditzen zaio, nahiz marginaltzat hartzen dituen:

- (70) a. ?? Si yo merecía un aplauso, Pedro una ovación
 b. ?? Yo encuentro problemas donde Pedro facilidades⁶⁴

Rooryck-ek (1985, 191) esaten du frantses klasikoan juntaduratik at ere aurkitzen direla hustuketa-egiturak:

- (71)
 a. Il est vray qu'ayant disposé de mon affection *avant que mon père de moy ...*

⁶³ Konparatibo kutsukoak eta *bezala* dutenak bereziak dira eta ez dugu haiei buruz hitz egingo.

⁶⁴ Horiez gain beste bi adibide ere ematen ditu, dexentez hobetzat dauzkanak:

- i. Luis cuida a su madre mucho mejor que Antonia a la suya
 ii. ? Juan trata a su gato con el cuidado que María al suyo

Baina hauek ere konparaziozkoekin lotura handia dute, eta konparaziozkoek beste menpekoek ez bezalako jokaera dute alor honetan. Dena den, Brucart-ek berak ere dio horrelakoen onarpena ematen zaien egituraren baitan legokeela.

b. Il s'acquit une considération très marquée de la part du Roi et de ses ministres, qui tous le regrettèrent, *et son diocèse infiniment*.

Euskarari dagokionez, Hankamer-en adibideak egokitzean gehienez inolako zentzurik ez duten perpausak izango ditugu, menperakuntza-marka aditzari itsatsirik agertu ohi baita:

(72) **Jonek mendiko bizikleta erosi du, Pellok kaminokoa (erosi duelako)
(erosi duenean)

.....

Menperakuntza morfologikoki beste era batera agertzen denean adibide hobexegoak lortzen ditugu, baina hala ere okerrak:

(73) a. *Jonek mendiko bizikleta erosi du, nahiz Pellok kaminokoa
b. *Jonek mendiko bizikleta erosi du, zeren Jonek kaminokoa

(72) eta (73)-ko adibideetan menpeko perpausuan egin dugu hustuketa, perpaus nagusia osorik utziz. Gauzak alderantziz egiten ere saia gaitezke, ordenak pixka bat aldatuz:

(74) a. ??Pellok kaminoko bizikleta erosi duelako, Jonek mendikoa.
b. ??Pellok kaminoko bizikleta erosi duenean, Jonek mendikoa.
c. ??Nahiz Pellok mendiko bizikleta erosi duen, Jonek mendikoa.

Aurrekoak baino zertxobait hobeak badira ere ez zait iruditzen onartzeko modukoak direnik, galderaren baten erantzun modura edo ez bada behintzat. Beste zenbaitetan adibide txarrak lortzen dira:

(75) *Joxek Baionan ikusi duen autoa, nik Tuteran

Zalantza handiagoa baldintzazkoek eragin lezakete. Hona hemen J.M. Etxebarriarenetik (1994, 150, 233) bildutako bi⁶⁵:

⁶⁵ Ordena hau duten perpausari buruz mintzatzen zaigun bakarretakoa Haiman da, eta ingeleserako behinik behin txartzat ematen ditu (Haiman, 1985, 43):

If Max likes coffee, Hortense (likes/* \emptyset) tea

Egia da baldintzazkoei ez diela hustuketarako bidea guztiz ixten (1985, 44): «Less frequently, we will find that structures like *If S1, S2* have some of the syntactic properties of coordinate structures (in particular, they exhibit gapping-like behavior), and have the force of coordinate structures». Baina berak hurrengo orrietan (1985, 44-54) hustuketatzat ematen dituenak gureekin parekatzerik ez dago.

«Yoan i sen kurtzerikurtze ta *batak au bauken bestak ori*, esauen gustukorik aurkituten.»
 «Gero onik i tabernatako kontuek, edan-edan in orduen, *batak andie botaten badau besteak a andiagooa*, seinek (g)eaoka.»

Zalantza dut, ordea, horrelakoek ohiko baldintzazkoen zentzu bera ote duten: batetik, baldintza/ondorio erlazio arruntetatik urrunduz berreketaren alorrera hurbiltzen garela ematen du; bestetik, baldintzazkoen artean sail oso mugatu batek -baldintza errealetako azpisail batek- bakarrik du era honetako egiturei bide emateko aukera. Ondorengo hauek, adibidez, baldintzazkoak dira, baina hustuketa ezinezkoa da:

- (76) a. *Ni mendira joan izan banintz zu hondartzara
 b. *Ni mendira joango banintz zu hondartzara

Ikusten dugu, bada, aurreranzko hustuketa duten egiturak euskaraz ere juntaduran agertzen direla, menperakuntzaren eremuan ez dela horrelakorik aurkitzen. Horrek ez du esan nahi, ordea, bi perpaus menperatu juntatzen ditugunean hustuketadun egiturarik agertzen ez denik:

- (77) Joxek esan dit bere arreba Parisa joan dela, eta bere anaia Londresera

Hori bai, horretarako bi menpekoek behar dute elkarrekin koordinatuak; ondorengo hauen antzekorik ezin da onartu⁶⁶:

- (78)
 a. *Nire arreba Parisa joan da, eta Joxek esan dit bere anaia Londresera.
 b. *Nire arreba Parisa joan da, eta Joxek esan dit, Miren ere hara joaten denean, Peru Lyonera.

Orain arte esan dugunaren arabera, bada, juntaduraren eremura mugatu beharko genuke hustuketa. Baina juntatutako perpausen artean ere, erabiltzen den juntagailuaren arabera, proposatu izan da desberdintasunak sortzen direla: hiztun guztiek onartzen dituzte *eta*-z lotuta doazenak, baina ez omen da horrela gertatzen beste juntagailuekin. Adibidez, Sag-ek (1980, 191) dio ingelesez hiztun gehienek ez dutela *but*-ez lotutakorik onartzen:

- (79) (%) *Joan likes Richard, but Betsy ___ Peter.

⁶⁶ Gazteleraz Brucart-ek (1987) horrelakoak txartzat ematen ditu, baina Franchini-k (1986, 349) ontzat:

- (i) Juan ha ido a Mallorca y me han dicho que Pedro ø a Ibiza.

Jackendoff-ek (1971, 22), ostera, *but*-dunak hiztun askok onartzen dituztela esaten du:

(80) ?Bill ate the peaches, but Harry the grapes

Badirudi, beraz, guztizko adostasunik ez dagoela.

Nire ustez juntagailuen jokaera desberdina *eta* eta *baina*-ren balio desberdinak eragiten du: *baina* erabiltzeko, hiztunak uste izan behar du -hiztunaren usteek dute garrantzia, ez perpausen edukiak- bigarren perpausak baduela lehenarekiko nolabaiteko aurkaritza-erlazioa, edo beharbada, lehena esan ondoren solaskideak uste izan dezakeenarekiko aurkaritza⁶⁷. Aurkaritza benetan pragmatikoa da. Baldintza horiek betetzen direnean, nik ez dut ikusten inolako arazorik euskaraz *baina* juntagailua dutenetan hustuketadun egiturak agertzeko:

(81)

- a. Hegaluzea arraina da, baina izurdea ugaztuna _____
- b. Nik mendira joan nahi nuen oporretan, baina Mirenek hondartzara _____, eta pentsatuko duzu azkenean nora joan garen.

Sag-en adibideei jende askok ezezkoa eman izana aurkaritza pragmatiko hori aurkitzeko zailtasunaren ondorio izan liteke: erreferentzia ezagutzen ez diegun izen bereziak emanez oso zail gertatzen da beharrezko den aurkaritza pragmatiko hori lortzea, behar adinako informaziorik ez baitugu. Baina bere adibidean agertzen diren lau lagun horiek nor diren eta nolakoak diren bageneki⁶⁸, eta egoera ezagutuko bagenu eta egoera horrek tartean *baina* juntagailua jartzeko arrazoiak emango balizkigu, ez litzateke inolako arazorik izango. Adibidez:

(82) Aurtenetxek Heynkes nahi zuen entrenatzaitetarako, baina Arratek Irureta.

⁶⁷ Adibidez, pentsa dezagun ondorengo perpaus hau daukagula:

Miren Parisa joan da, baina Joxek harategia bere orduan ireki du.

Baina-ren ondoren doan perpaus horrek ez du, esanahiaren aldetik, lehenengo perpausarekiko inolako aurkaritzarik. Hor gertatzen dena da, hiztun horrek uste duela Miren Parisa joanez gero Joxek ez duela harategia bere garaian irekiko (lehenengo perpausaren esaten denak sortzen dion ustea), baina Joxek harategia bere orduan irekitzen du, eta *baina*-ren bidez bere usteekiko aurkaritza hori azaltzen du.

⁶⁸ Jackendoff-enean beti ere errazxeago da aurkaritza pragmatikoa hori lortzea, ezagutzen ditugun bi frutaren izenak agertzen baitira.

Auzia, beraz, ez da hustuketa-egiturak juntagailu batekin gerta daitezkeela eta beste batekin ez, baizik eta juntagailu bat erabiltzeko beharrezko diren baldintza pragmatikoak errazago lortzen direla bestea erabiltzekoak baino⁶⁹.

2.2.3.2. Perpaus-gramatikakoa ala diskurtso-mailakoa?

Orain artean azaldu zaizkigun adibideetan perpausaren mugen barnean jokatu dugu, hutsuneek esanahia hartzeko beraiei juntatutako edo beraien menpeko perpaus batera jo behar zuten. Baina guztietan perpausaren esparruan jokatzen genuen, perpaus-gramatikaren barnean. Orain, batek galde lezake, hustuketa-egitura hauek beren interpretazioa hartzeko perpausaren mugetan errenditzen ote diren, ala, beste erlazio anaforiko askorekin gertatzen den bezala, zenbaitetan goragoko maila batera ere jo ote dezaketen beren interpretazioaren bila, diskurtso mailara alegia. Gai hau ukitu dutenen artean iritzi kontrajarriak aurkitu ditugu.

Eztabaida sortu duten adibideak ondorengo honen antzekoak dira:

- (83) A.- Miren mendira joan da.
B.- Eta Iñaki hondartzara _____.

Adibide honetan bi hiztun desberdinek hartzen dute parte, A hiztunak eta B hiztunak, eta B hiztunak esaten duena interpretatu ahal izateko A hiztunak esaten duenera jo beharra daukagu. Hankamer eta Sag-ek elkarrekin argitaratutako artikuluan (1976) ziotenez, hiztun-aldaketarekin era honetakoak gertatu ahal izateak erakusten du hustuketa perpaus-gramatikaren eremutik kanpo ere gerta daitezkeela. Oso antzerako adibidea ematen du Piera-k ere (1979, 29):

- (84) A.- Julia se ha comprado un reloj
B.- Ya lo sé, y su amiga _____ unas gafas nuevas

Dena den, Sag-ek berak, oso gutxi geroago (Sag, 1979), kontu gehiagoz hitz egin beharra aipatzen du:

«It is not at all clear, however, what to make of examples like this. The discourse in (3.1.7.) seems to some people to be a peculiar case of two people collaborating on what is actually a single sentence, in which case Gapping should perhaps be restricted to single

⁶⁹ Ez da ikusten gainera *baina* dutenen aurkako debekua nola arrazoitu litekeen. Sag-ek ere ez du argibiderik ematen.

sentences. Alternatively, one might argue that Gapping is a rule of discourse grammar, but that since Gapped clauses must begin with conjunctions, it is only in peculiar situations like (3.1.7.) that Gapping can apply intersententially.»

Honen antzeko egiturak izan dira eztabaidaren ardatza. Baina iritzi bataren nahiz bestearen aldeko argudio erabakiorrak aurkitzea ez da erraza gertatzen. Neijt-ek dio (1979, 38): "To my knowledge, there is no any rule of sentence grammar which spreads across speakers". Horrela, hustuketarako proposatzen duen erregelari erregela hustutzen den perpausa bakarrik aipatuko du, eta esango du antezedente-katearekiko erlazioa ezin dela perpaus-gramatikari behar bezala aztertu (Neijt 1979, 40):

«... the relation between the antecedent string and the deleted string (...). It will be claimed that this relation cannot be properly considered in sentence grammar».

Antzera pentsatzen dute Sag eta bestek ere (1985), alegia, hustuketa ez dagokiola perpaus-gramatikari, hustuketa diskurtsoko prozesu anaforikoa dela. Zehazkiago esateko, gramatikaren arauak hondakinak sortzen dituzte, eta diskurtsoko prozesu anaforikoak interpretatu egiten dituzte. Ikuspegi honen alde ondorengoa bezalako adibideak ematen dituzte:

- (85) A.- I shall miss you.
B.- And me/I _____you.

Izenordain aldaketa horren berri perpaus gramatikaren barnetik ezin omen da eman.

Beste batzuek, ordea, guztiz alderantzizko ikuspegia dute. Brucart-ek (1987, 74) dio, adibidez, hiztun batek hasitako perpausari beste hiztun batek jarraipena emateko sekula ez dagoela oztoporik:

- (86) A.- Pedro llegará a las ocho.
B.- Para visitar a su madre en el hospital, supongo.

Hudson-ek ere (1989, 69) antzerako adibidea ematen du erreflexiboekin:

- (87) A.- I looked in the mirror and saw ...
B.- Yourself.

Beren ustez, goiko adibide horietan hiztun-aldaketa dagoen arren inori ez litzaioke bururatuko xedezko menpekoak edo erreflexibizazioa diskurtso-gramatikaren barneko fenomeno direla esaterik. Alegia, esan nahi dena da bi hiztunek parte hartzeak ez duela

nahitaez esan nahi fenomeno hori perpaus-gramatikatik kanpo dagoela, izan ere, goiko adibide horiek erakusten duten bezala, hiztun desberdinen arteko kolaborazioaren bidez era askotako prozesuak gertatzen dira.

Norabide horretako gogoeta aurkezten digu McCawley-k ere (1988, 754-759), komunikazio-ekintzetako partaideen zereginari buruzko azterketa xeheago batera joz. Goffman-en bideari jarraiki, proposatzen du eskuarki erabili ohi dugun igoerle (speaker) kontzeptuaren azpian errealitate desberdinak gordetzen direla:

«...the term of 'speaker' conflates the roles of **author**, the person who composes the combination of words that is uttered, of **animator**, the person who utters the word, and of **principal**, the person who (at least purportedly) does things such as make promises and give orders through the uttering of the words.»

Bereizkuntza horietaz baliatuz hustuketari buruzko aldarrikapen interesgarri bat egiten du. Esaten du, lehenik, bi hiztunen artean osatutako hustuketadun egituretan bigarren hiztunak esaten duenaren egibalioa lehen hiztunak esaten duenaren baitan dagoela, ez ingurunearen baitan bakarrik. Adibidez, ondorengo honetan Pellok ez ezik Mirenek ere gezurra esan du, nahiz bere berbaldi-zatia egia den:

- (88) Pello.- Bilbo Araban dago.
Miren.- Eta Donostia Gipuzkoan.

Honek erakusten du perpaus bakartzat hartu behar direla: hiztun bakoitza bere perpaus-zatiaren *animator* -eta ziurrenera *author*- den bitartean, biak dira lehenengo zatiaren *principal*.

McCawley-ren ustez *principal*-kidetasun hori nahitaezkoa da bi hiztunen artean osatutako perpausetan hustuketa egin ahal izateko. Adibidez, ondorengo sarkasmozko erantzun honetan ez omen da zilegi hustuketa egitea:

- (89) A: Reagan plans to join Amnesty International.
B: *And James Watt ø the Sierra Club.

Izan ere, bigarren hiztuna ez da lehenengo perpausoko *principal*, era horretako erantzunaren bidez A hiztunak esandakoa ez duela sinesten adierazten baitu⁷⁰. Dena

⁷⁰ Euskaraz ez dakit gauzak hain garbi ote dauden:

A: Michael Jackson Saran jaioa omen da.
B: Eta ni New York-en jaioa ø .

den, horrelako kasu berezietan ez dela, badirudi bi hiztunen artean eraikitako adibideak perpaus bakartzat hartu beharrekoak direla.

Baina horrelakoen perpaustasunaren auzia alde batera utzirik, badira hustuketaren perpaus-mailako izaera zalantzan jartzen duten beste adibide batzuk. Begira, esaterako, ondoren datorkigun honi:

(90)

"Nire bi langile-lagunak kanpoan izan dira abuztuan. *Mikel Nepal-era joan da*, baina ez du espero zuenik aurkitu. Ez da harritzekoa, udan Nepal aldea turistaz betea egoten da eta. *Joxe berriz Indiara*, eta askoz errazago izan zaio bertako kulturaren murgiltzea."

Letra etzana duen bigarren perpausa letra etzana duen lehenera joz interpretatzen dugu. Baina bi perpaus horiek ez daude koordinaturik. Tartean guztiz askea den perpaus bat daukagu, azpimarratutako perpausa. Eta hiztun gehienek horrelakoak ontzat ematen dituzte. Badirudi, hortaz, perpaus gramatikatik at joan behar dugula esanahia lortzeko. *Berriz* aurkaritzako lokailuak zeregin horretan laguntzen du. Euskarari buruzko lanetan ere aurkitu dugu era horretako bat (Altuna 1986, 72):

«Etxeparek aitzitik *baietare* dio zazpi bertsoan: (...).

Bai soilik ere erabiltzen du, kopulatibo gisa noski, baina hori geroko beste kapitulu bati dagokio eta han aztertuko dugu, lehen *ez* bezala. *Ere* gabe *bai eta*, Leizarragak bezala, inoiz ez.

5. Axularrek ere ez behin ere: *ez ere* duela eta *ez ere* gabe. (...) . Darabilten beste autoreen artean aipamen berezia (...)

Bi bider ulertu behar dugu *erabili* aditza, eta ez dirudi zuzeneko juntadurarik dagoenik.

Dena den, horrelako adibideek berriro ere nahikoa baldintza zorrotzak jarraitu behar dituzte. Bi perpausen arteko distantzia handiak hustuketa zaildu egiten du. Baina hori baino garrantzitsuagoa, bi perpausen artean erlazio berezi bat behar dela dirudi: emendioaren eta banakaritzaren ideiek garrantzi handia dute, eta pragmatikaren aldetik hustuketadun juntaduren antzekoak dira, bi mintzagai desberdini buruz pareko iruzkinak egiten dira, galdegaia desberdina delarik⁷¹. Azken puntu honetan dirudi

⁷¹ Horrez gain pasartearen hasieran doan perpausaren modukoek ere laguntzen dute: ondoren datorrenean hor esandakoa zehaztasun handiagoz adierazten da, ondoren esango dena ejemplifikazio moduko bat da. Ondorengoan, adibidez, hasierako perpaus horretatik hartuko dute aditza hurrengoek:

«Au, saien kontue, biri daukotziet entzunde. *Bata Pedro Sasolakoari*. Ak e, sera esatauen: Or Anboto ondoan, Bernagoitin edo, ba saiek arrapau da gero sestoatan pekorotza(k)p(b)atu, saiori erpatatik eskegi, sue emon eta garretan yoaten sireala saiok Anbototi Gorbeyerantza Anbotoko Señorearen itxuran.

gainera dagoela horrelakoen onargarritasunaren muina: hustuketa izateko pragmatikaren aldetik guztiz paraleloak diren bi perpaus behar ditugu. Bi perpaus horiek gehienez sintaktikoki juntaturik egongo dira, baina testu-mailako beste lotura batzuk direnean ere gerta liteke hustuketa. Beraz, hiztun desberdinen artean eraikitako adibideak perpaus bakarra diren ala ez eztabaida alde batera utzirik ere, ikusten dugu hustuketa egiturek perpausaren mugetatik kanpora ere begira dezaketela esanahia hartzeko. Literaturan ez da era honetako adibiderik erabili.

2.2.3.3. Paralelismoa

2.2.3.3.0. Sarrera

Literaturan zehar behin eta berriz aipatu izan da hustuketa-egituretan parte hartzen duten perpausok paraleloak izan behar dutela. Honako hau dio Sag-ek (1980, 192):

«Gapping remnants must also, in some poorly understood sense, be parallel to corresponding elements in the left conjunct.»

Hizkuntzalari guztien lanetan aurkitzen ditugu eskakizun horren aztarnak. Gehienek esplizitoki adierazten dute. Hankamer-ek (1979, 23), esate baterako, ondorengo perpausok ematen dizkigu:

- (91) a. Marvin stole with caution and Harry stole diamonds.
b. *Marvin stole with caution and Harry ___ diamonds

Juntatzen ditugun bi perpausak ez dira egituraren aldetik parekoak. Hustuketarik gabeko adibidean, halere, ez dago inolako oztoporik: askoz parekotasun gutxiagoko perpausak ere junta litezke. Hustuketadun adibidea berriz txartzat ematen du Hankamer-ek: *diamonds* eta *with caution* kategoria desberdinetakoak dira eta paralelotasun-eskakizunari ez zaio jaramonik egin. Bere ustez baldintza hori oso zorrotza da, eta funtzio bera betetzen duten osagaietara ere hedatzen da zenbaitetan:

- (92) a. Marvin likes wine, and Harry likes to listen to music
b.. *Marvin likes wine, and Harry to listen to music

Literaturan erabili diren adibideak paralelotasun-eskakizun hori beste era batera ere agertzen dute: eskuineko perpausean agerian dauden elementu guztiek beren *kidea*⁷² dute ezkerreko perpausean, eta ezkerreko perpauseko elementuen artetik eskuinekoan ageriko kiderik ez dutenak nahitaez ulertu behar dira eskuinekoan, agerian baleude bezala interpretatu. Horrela, bi perpausek guztiz pareko egitura izan beharko dute, bestela ez da hustuketa egiterik. Ondorengo honen antzeko zerbait, kontuan izanik hesi artekoak isilean geratzen direla hustutako perpausean:

(93) R S T aditza U X Y Z eta R' [S T aditza U X Y] Z'

Hudson-ek (1976, 545) ezin garbiago adierazten du ideia hori:

«Everything in the FIRST conjunct must be represented in the second conjunct, either by an overt constituent which contrasts with the one in the first conjunct, or by a constituent which has undergone deletion under identity with an element in the first conjunct.»

Honela mintzo zaigu Hankamer ere (1979, 25):

«(...) neither conjunct may contain a constituent that is not present in the other. (...) In general, Gapping must end up contrasting the two constituents remaining in the right conjunct with the corresponding constituents in the left conjunct. The definition of the notion of "corresponding constituent" depends on structural parallelism.»

Gainera, azken hau egiturazko paralelismo horrek nolakoa izan behar duen zehazten ere saiatzen da:

"The conjoined sentences must be structurally identical simplexes, where structurally identical simplexes are structurally identical down to highest NP's and S's; the internal structure of NP and embedded S nodes is immaterial".⁷³

⁷² Juntaturako beste perpausean, bere pare-pareko den elementuari deituko diogu *kide*. Adibidez, ondorengo perpaus honetan:

Newton Britainia Handian jaio zen, eta Einstein Alemanian.

Alemanian eta *Britainia Handian* kide izango lirakeke, eta *Einstein* eta *Newton* ere bai.

⁷³ Sag-ek tesian (193) agertzen duen bezala, "S's" dioen horretan "embedded S's" esan nahi du. Bestalde, Hankamer-ek (1979, 26-29) berak dio zenbaitetan izen sintagmen barne-egiturak ere garrantzia izan dezakeela. Adibidez, ondorengo adibide hau anbigua da:

i. Harry likes flying airplanes

Hustuketarik gabeko juntaturako perpausek anbiguo izaten jarraitzen dute:

ii. Harry likes flying airplanes, and Marvin likes stealing jewels

iii. Harry likes flying airplanes, and Marvin likes crawling insects

Baina hustuketa-egituretan, ondorengo perpausean agertzen den izen sintagma motaren arabera bi irakurketetako bat galdu egiten da:

Hustuketaz hitz egiten duten lan guztiek egin dute bere ideia hau.

Atal honetan ikuspegi orokor horren aurka mintzatuko gara. Onartzen dugu hustuketa definitzen duen zerbait bada, zerbait hori perpausen arteko paralelotasuna dela. Baina paralelotasun hori pragmatikoa da, ez sintaktikoa: egitura pragmatikoaren aldetik behar adinako paralelotasuna gordez gero ez da nahitaezkoa bi perpausen arteko guztizko berdintasun sintaktikoa. Horrela, lehenik ikusiko dugu posible dela perpausetako batean bestean agertzen ez diren elementuak aurkitzea. Horretara laguntzen duten baldintzak agertzen saiatuko gara. Ondoren kategoria desberdineko hondakinak aurkitzeko aukerez hitz egingo dugu, eta Hankamer-enaren erako formulazioei ihes egiten dieten adibideak sor litezkeela defendatuko dugu. Literaturan ez da era honetako daturik erabili, eta 2.2.1. atalean aurkeztutako analisisietako askok ezin dute horrelakoen berri eman. Lanean aurrera egin ahala egiturazko paralelotasun zorrotz horren aurka doazen adibide gehiago ere agertuko zaizkigu.

2.2.3.3.1. Elementu gehigarriak

Zenbaitetan bigarren mailako informazioa ematen duten elementuen aldetik desberdintasunak izaten dira hustuketa-egituretako perpausen artean. Horrela, gerta daiteke, lehenengo, eskuineko perpauseko elementu batek ezkerrekoan kiderik ez izatea. Beste perpausean kiderik ez duten elementuei *elementu gehigarriak* deituko diegu. Orain artekoetan horrelakorik ez zaigu agertu, baina nire ustez ez dago oztopo handirik, adberbio kutsua dutenekin behinik behin:

(94)

- a. Joxe bihar mendira joango da, eta Pello *seguruenik* hondartzara.
- b. Joxe bihar mendira joango da, eta Pello itsasora *denborarik badauka*.
- c. Joxe mendira joango da, eta Pello *bihar* itsasora.
- d. Nik ensalada-gaiak erosi ditut, eta Pellok *gaur goizean* oilaskoa.

iv. Harry likes flying airplanes, and Marvin stealing jewels
v. Harry likes flying airplanes, and Marvin crawling insects

Honen arrazoia zer izan litekeen ez du garbi ikusten, baina beharrezko berdintasunaren formulazioa lehengoan uzten du.

Hiztun batzuek hauetako batzuen onargarritasun-mailari buruz zalantzak agertzen dituzte, baina txartzat ez ditu inork ematen. Euskal literatur tradizioan ere ez da zaila horrelakoak aurkitzea. Begira ondorengo adibideetan letra etzanekeo zatiei⁷⁴:

Ateratzen dira Andres eta Malen, ta baita ere *aien atzetik* Joxe-Mari eta Anttoni (B. Mokoroa, *Damuba garaiz*, 8)

Artu zituben, eta abadeak jarri ziyon eskutan gurutze santuba, esanik iltzen zegoanari, eskatzeko Jainkuari biotz biotzetik geiena komeni zitzaiona, emango ziyola, eta baita ere sendatu *ala komeni bazan* (M. Soroa, *Baratzan*, 37)

Gorputza ez-bear bat omen; edo eragozpen bat, baina bai eta arimara daraman bide bat ere, *goizerriko mistikoek erakutsi zioten araura* (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 90)

Badu euskarak hitz sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen *aldameneko hizkuntzen ondoan* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 110)

Garbi dagoena da juntatutako bi perpausen arteko egitura sintaktikoaren aldetiko berdintasuna hautsi egiten dela adibide hauetan. Elementu gehigarri horrek ezkerreko perpausetan esaten denarekiko nolabaiteko berritasunen bat adierazi behar du. Guk eman ditugun adibideen artean eztabaidarik gutxienekoak (94a) eta (94b) izango dira ziurrenik. Hori izan daiteke adibide horietan ezkerreko aditzak ekintza horien gertagarritasunaz dagoeneko zerbait esan digulako, alegia, ziurtasunez adierazten zaigulako Joxe mendira joango dela, eta era horretara errazagoa da *seguruenik* adberbioak eta baldintzazko gehigarriak dakarten berritasuna edo kontrastea onartzea, informazio berria eta komunikaziorako egokia ematen digutelako.

Aldiz, elementu gehigarriak informazio berri interesgarririk ez badakar adibidea ez da hain erraz onartuko. Hori gertatzen da, ene iduriz, denborazko adberbioa duten (94c) eta (94d) perpausetan. Izan ere, dagoeneko ezkerreko perpausetan adierazten zaigu bata etorkizuneko eta bestea burutua direla, eta alde horretatik badirudi *bihar* eta *gaur goizean* aditzondoan bidez ematen den informazioa erredundantea dela.

Dena dela, ez dut uste bi aditzondo mota horien jokaera desberdina egitura sintaktikoko desberdintasunen bidez esplikatu daitekeenik: pragmatika da onargarritasun maila desberdin horiek esplikatzeko giltza. Adibidez, inolako testuingururik gabe eman ditugun (94c) eta (94d) adibide horiek zenbait egoeratan egokiak izan litezke: (94c)-ren

⁷⁴ Adibide hauek orain arte ikusi ditugun hustuketa-egituretatik aldendu egiten dira, baina geroago ikusiko dugun bezala biek ezaugarri berberak dituzte, eta gehigarrien auzi honetan batean esandakoak besterako ere balio du.

kasuan, bi lagun asteartean hurrengo aste-bukaerari buruz hizketan ari direlarik norbaitek aisiarako aukera lehenago izango duela adierazi nahi delako; (94d)-ren kasuan, entzuleak hiztuna momentu horretxetan ikusi duelako erosketetatik itzultzen. Beraz, zilegi da bi perpausen arteko berdintasun sintaktiko hori elementu gehigarrien bidez haustea, baldin elementu gehigarri horiek informazio berri interesgarriak badakarte. Begira ondorengo adibide hauei ere:

(95)

- a. Nik ensalada-gaiak erosi ditut, eta Pellok *afaltzeko* oilaskoa.
- b. Nik ensalada-gaiak erosi ditut, eta Pellok *Eroskin* oilaskoa.
- c. Nik hiru aldizkari erosi ditut, eta Pellok *bere amarentzat* liburu bat.
- d. Nik hiru aldizkari erosi ditut, eta Pellok *bere semeari* liburu bat.

Azken honetan aditzaren argumentuetako bat da elementu gehigarria, baina ez zaio aparteko arazorik ikusten. Eta eskuineko perpausoko gehiegarriei buruz esandakoak oro har ezkerreko perpausukoetarako ere balio du:

Mirenek uztailean lan egiten duenez atzo atera zuen abuzturako abio-txartela, eta dagoeneko esan liteke erabakita daukagula oportretan Euskal Herritik ateratzea. *Zorte apur bat badut* ni uztailean Irlandara joango naiz, eta Miren Guatemalara.

Testuinguruak gauzak garbi uzten dituenean ez dut uste nahitaezkoa denik Miren Guatemalara uztailean eta zorte apur bat badu joango dela ulertzea.

2.2.3.3.2. Katgoria desberdinekoak

Elementu gehiegarrri deitu ditugun horiena baino arazo larriagoa, eta aldi berean interesgarriagoa, goian eman ditugun (91)-ren erako adibideek dakarkigute. Eman ditzagun berriro:

- (91) a. Marvin stole with caution and Harry stole diamonds.
- b. *Marvin stole with caution and Harry ___ diamonds

Euskaraz:

- (96) a. *Nik ensalada-gaiak erosi ditut, eta Joxek afaltzeko
- b. *Nik ensalada-gaiak erosi ditut, eta Joxek gaur goizean.

Lehen esan dugun bezala horrelakoen ez-gramatikaltasuna esplikatzeko egitura-desberdintasunera jo izan da: *with caution* eta *diamonds, ensalada-gaiak* eta *afaltzeko edo gaur goizean* ez dira sintaxiaren aldetik parekoak, eta juntatzen diren bi perpausen arteko egiturazko paralelismoa hautsi egiten da.

Hankamer-ek debeku honen azpian lehenengo atalean aipatu ditugun sintagma-juntaduretako baldintzekiko lotura ikusten du. Geuk ere aipatu dugu horrelako zerbait: esan dugu oro har ezinezko zela kategoria desberdineko juntagaiak elkartzea. Baina nire iritziz, elkarren kide behar luketen atal horiek erlazio pragmatiko nabarmena badute, hustuketa-egituretako adibideak sintagma-juntaduretakoak baino errazago onartzen dira. Begira, esate baterako, ondorengo adibide honi:

(97)

Asteburuetan Joxek *izugarri leku garestietan* jaten du, eta Mirenek *janari harrigarriki finak*: biek ala biek ere ez dute txantxetako gastua egiten.

Nik ez diot adibide honi aitzakia handiegirik ikusten. Letra etzanean dauden bi osagai horiek pragmatikoki erlazioa daitezke -garesti jan-, eta Grosu-k kategoria heterofuntzionalen juntadurarako aipatzen zituen baldintzak betetzen dituzte. Egin dezagun aproba orain nolabaiteko erlazio pragmatikoa izan dezaketen bi elementu arruntekin:

(98)

Larunbat honetan Joxek *langosta* jango du, eta Mirenek *Arzakenean*: biek ala biek ere ez dute txantxetako gastua egingo.

(99)

Datorren larunbatean Joxek *baratzuri-zopa* jango du, eta Mirenek *Arzakenean*: normala gero hil-amaieran Miren beti iritsi ezinik izatea.

Lehenean garestitasunaren bidez lotu nahi ditugu *langosta* eta *Arzakenean* osagaiak; bigarreanean merke pasatzea eta diru asko gastatzea jarri nahi ditugu aurrez aurre. Kategoria desberdineko osagaiak dira, eta ondorioz egitura desberdineko perpausak dauzkagu, baina munduaren ezagutzaren bidez erlazioa daitezke eta niri ez zait iruditzen adibide desegokiak direnik. Adibide gehiago ere eman litezke:

(100) Osasunak *Sevillaren aurka* jokatu du igandean, eta Errealak *Nou Camp-en*

Adibide honetan mota desberdineko aditzondoak ditugu aurrez aurre, semantikoki nozio desberdinak adierazten dituztenak, baina pragmatikoki erlazioa daitezke, eta ez

dirudi emaitza hain txarra denik. Beraz, puntu honetan hustuketa-egiturak sintagma-juntaduretatik aldendu egingo lirateke: eten nabarmen hori egiteak, bi perpauk izateak, askatasuna emango luke perpauk bakoitzak egitura sintaktiko desberdina izateko⁷⁵. Gogoan izan behar dugu Euskaltzaindiak (1994) kategoría desberdineko elementuak juntatuta zituzten adibide haiei buruz esaten zuena -guk kritika egin diogu: horrelakoetan benetan bi perpauk genituela juntaturik.

2.2.3.3.3. Ondorioak

Era honetan, bai elementu gehigarrien jokaerarekin bai kategoría desberdinekoekin ikusten dugu literaturan zehar nahitaezkoztat jo den perpauk arteko egitura sintaktikoko paralelotasuna -berdintasuna- ez dela hustuketa-egituren benetako eskakizunetako bat: egia da hustuketa-egiturak paraleloak direla, baina paralelotasun hori oinarrian pragmatikoa da, mintzagai-egiturakoa. Paralelotasun pragmatiko horrek gehienetan sintaxi-egiturako paralelotasuna ekartzen du, sintaxiaren bidez adierazten baita, baina beharrezko den paralelotasun pragmatiko horri erasaten ez dion heinean zilegi da bi perpauk artean guztizko berdintasun sintaktikorik ez izatea⁷⁶. Aurrerantzean ere ikusiko ditugu berdintasun sintaktikoaren eskakizun zorrotz hori zalantzan jartzen duten zenbait adibide, eta guzti horrek izango du garrantzia hustuketa-egiturei buruzko hurbilketa sintaktiko desberdinak baloratzeko orduan, 2.2.1. atalean agertu ditugun analisisetatik askok guztizko berdintasun sintaktikoa aldarrikatzen baitute.

⁷⁵ Paralelismo-eskakizun hori baldintza sintaktikotzat hartzearen aurka agertzen den lan bakarra Rooryck-ena (1985) da. Bere ustez eskakizun hau hustuketa-egituren betebeharrak pragmatikoen ondorio da: hustuketa-egituretan bigarren perpauk elementuak falta dira, eta esanahia osatu ahal izateko lehenengo perpauketik bigarrenean transmisio bat dago, bigarren perpauk interpretatu ahal izateko betebeharrak pragmatikoak eragina. Honela azaltzen digu (1985, 211):

«We are in the presence of a maximal transmission of syntactic features until a new feature that belongs to one of the different classes of features in clause A appears and blocks the transmission of that particular feature. This is not a syntactic rule, but rather a pragmatic rule operating with syntactic elements.»

Begira ondorengo honi ere:

«... if congruence is to be maintained, the syntactic elements of B have to represent the same grammatical structure as those of A.»

Dena den, eskakizun pragmatiko hori berdintasun sintaktikoa ez den bitartekoen bidez betetzeko aukerez ez du ezer aipatzen.

⁷⁶ Autore gehienek baldintza sintaktiko modura aurkeztu dute, eta bakan batzuek baldintza semantiko modura. Nishioka (1992) dugu azken hauetako bat: sintaxiari ere nolabaiteko eragina aitortzen dion arren, egitura kontzeptualeko berdintasuna izango litzateke bere ustez giltza. Ez da ikusten ordea goiko hauek bezalako adibideek nola lor dezaketen paralelismoa egitura kontzeptualaren mailan.

2.2.3.4. Aditzondoak

Aurreko atalean juntatzen diren bi perpausen arteko paralelotasunaz ihardun dugu eta hustuketari buruzko lanetan eskuarki erabili izan denetik kanporako egitura ugari aurkitu ditugu. Atal honetan aditzondoei buruz ihardungo dugu. Hustuketa-egiturei buruzko monografietan beti izaten da adberbioei buruzko atal bat. Orokorrean esaten da ingelesez aditzaren aurretik doazen adberbioak hustuketa-egituretako bi aldeetako perpausetan desberdinak direnean adibide okerrak sortzen direla. Baina debeku hori isolaturik eta inongo esplikaziorik gabe geratzen da, ez zaio arrazoi sintaktikorik ikusten⁷⁷. Ondorengo adibide hauek ematen dizkigu Sag-ek (1980, 196)⁷⁸:

(101)

- a. *Betsy quickly dropped the frying pan, and Peter suddenly \emptyset the soup bowl
- b. *Betsy sometimes sleeps with Duke, and frequently \emptyset with his teddy bear

Ingeleserako ematen den debeku hori euskarara nola egokitu beharko genukeen jakitea ez da erraza. Ez dirudi, dena den, kokagune sintaktiko jakin bati buruzko debeku bezala interpretatu beharko genukeenik. Adibidez, ondorengo perpaus hauetan aditzondoak kokapen desberdinak ditu, baina hala ere ez dago atzera botatzeko modukorik:

- (102) a. Joxek futboleak ondo jokatzen du, eta pilotan gaizki.
 b. Jon seguruenik K2-ra igoko da, eta Pello agian Everestera.
 c. Joxek ondo futboleak jokatzen du, eta gaizki pilotan.

Adibide batzuk besteak baino naturalago gertatzea aditzondoan izaerak eta hustuketa-egituren ezaugarriak eragiten dute: *ondo/gaizki* iruzkintasan hierarkian *seguruenik/agian* baino gorago daude, eta galdegai izateko joera handiagokoak direnez (102a) adibidea besteak baino errazago onartzen da; aditzondo horiek beroriek galdegai ez direnean ere adibidea ez da okerra, baina testuinguru pragmatikoa aurkitzea askoz zailagoa da. Gauza bertsua gertatzen da ondorengo bikotearekin ere:

- (103) a. ?Joxe askotan mendira joaten da, eta gutxitan hondartzara

⁷⁷ Hankamer-ek (1979, 272) ondorengo hau aipatzen du:

«Wether this same explanation can be extended to the like-ADV restriction, I do not know. It is probably significant that the like-ADV restriction seems to apply only to preverbal adverbs, i.e., adverbs which occur in surface order between AUX and V. Perhaps this gives them some special structural status, e.g., perhaps they are cliticized in some way to the verb, so that verbs with unlike preverbal adverbs, even if the verbs are identical, are non-identical for the purposes of the Deletion rule.»

⁷⁸ Era honetako adibideak: Jackendoff 1971:23; Hankamer 1979:103; Van Oirsouw 1983:310. Ikuspegi zertxobait desberdin baterako, Rooryck 1985:193-194. Van Oirsouw-k beranduxeago (1987, 35) zehaztapen modura dio «at least for American English» direla txarrak.

- b. Joxe mendira askotan joaten da, eta hondartzara gutxitan

Lehena bezalako adibideak erabiltzeko testuinguru egokia oso nekez aurkituko dugu.

Bestalde, ingeleserako Sag-ek emandako adibideek kokaguneaz kanpo beste zenbait alorretako hutsegiteak ere badituztela iruditzen zait. Begira diezaiegun ondorengo adibide hauei:

- (104) a. Joxe laster etorriko da, eta Pello hemendik lau ordutara
b. *Joxe laster etorriko da, eta Pello bat-batean

Bietan ere *laster* aditzondoa erabili da, baina zuzentasun-maila desberdina dute. Izan ere *laster* eta *bat-batean* ez dira mota bereko aditzondoak, ezaugarri semantiko desberdinak dituzte, eta horregatik dira desegokiak (104b) bezalakoak. Adberbioak era berekoak izatearena zorrotz bete beharreko baldintza da, eta Sag-en (101a) adibideak alde horretatik ere egin lezake huts.

Sag-en (101b) adibidearen zuzentasun ezean garrantzi handia izan lezakeen beste auzi batez ere mintzatzen zaigu Rooryck (1985, 193-194). Begira berak ematen dituen bi bikote hauei:

- (105) a. *John sometimes beats his wife, and Peter frequently his dog.
b. John frequently beats his wife, and Peter sometimes his dog.

- (106) a. ?John will perhaps obtain that job and Peter surely that permission.
b. John will surely obtain that job and Peter perhaps that permission.

Rooryck-ek dio (105b-106b) adibideak hobeto daudela, adibide zuzen horietako lehenengo adberbioak bigarrena inplikatu egiten duelako. (105a-106a) adibideetan, okerretan, ez litzateke inplikaziorik gertatuko, eta hustuketa-egitura desegokia izango genuke. Eta antzerako zerbait izango genuke Sag-en (101b) adibidean ere. Batzuetan gramatikaltasun iritziak ematea ez da erraz gartatzen, eta berdin gertatzen da debekuak zehaztasunez formulatzeko ahaleginarekin, baina azken batean debekuen azpian semantikari eta pragmatikari dagozkien auziak ezkutatzen direlako gertatuko litzateke hori guztia.

Ikusten dugu, beraz, euskarazko hustuketa-egituretan aditzondoek duten jokaerari erreparatzen diogunean literaturan zehar adberbioentzako proposatu zen debeku hark, inolako esplikaziorik gabe isolaturik agertzen zenak, ez digula askorik

laguntzen, eta jokaeraren berri emateko egokiago dela aditzondoan ezaugarri semantikoetara jotzea -nahiz aditzondoan arteko desberdintasun semantiko horiek sintaxi-egituran ere nolabaiteko isla izan dezaketen-.

2.2.3.5. Ezeztapena

2.2.3.5.0. Sarrera

Ezezko perpausetan hustuketa egin nahian hasten garenean gauzak asko korapilatzen dira. Honi buruzko lehen aipamena Ross-ek berak (1970, 250) egiten du. Esaten du, (107a) perpausa dugularik, horren pareko izan beharko lukeen elipsoiduna, (107b) perpausa, ez dela zuzena:

(107)

- a. I didn't eat fish, Bill didn't eat rice, and Harry didn't eat roast beef
- b. *I didn't eat fish, Bill rice, and Harry roast beef

Euskaraz ere gauza bera gertatzen da:

(108) a. Jonek ez du arraina jan, eta Pellok ez du haragia jan

b. *Jonek ez du arraina jan, eta Pellok _____ haragia ____

Ezezkotasun-maila handia duten adberbioek ere antzera jokatzen dute:

(109) *? Jonek nekez jaten du arraina, eta Pellok haragia

Hustuketaz ihardun duten ia autore guztiek ematen dute debeku honen berri (Jackendoff 1971; Neijt 1979; Sag 1980; eta Stillings 1975-ek zenbait zalantzarekin). Jokaera honen zergatia ez da argi ikusten:

«This is a curious property of Gapping which remains misterious» (Sag 1980, 195)

Zenbaitek dio, ordea, debeku hori ez dela hain erabatekoa. Siegel-ek (1984), esaterako, ondorengo hauek ontzat ematen ditu⁷⁹:

⁷⁹ Siegel-en iritziz, adibide horiek, zuzenak izateaz gain, bi irakurketa desberdin ere izan ditzakete, bata hedadura estuari dagokiona eta bestea hedadura zabalari dagokiona:

- (110) a. Ward can't eat caviar and Sue, beans
 b. Oh, no! Chris isn't in the dean and the baby, in the boiler room!
 c. Linda hasn't read her paper or Richelle, hers

Beraz, ingelesdunen artean ere badira gramatikaltasun-irritzi desberdinak. Gainera, *and* juntagailuarekin zuzenak ez diren adibideak *or*-ekin edo *nor*-ekin guztiz onargarriak dira (Hudson 1982, Authier 1990):

- (111) a. *John didn't see Mary and Bill Sue
 b. John didn't see Mary or Bill Sue⁸⁰
 c. John didn't see Mary nor Bill Sue

Eztabaida sortu duten beste egitura batzuk ondorengo hauek dira, itxura batean (107)-ren antzekoak izan arren onargarriak baitira:

- (112) a. John didn't give flowers to Mary and sweets to Ann.
 b. Jean ne donne pas de fleurs à Marie et des bonbons à Anne.

Jokaera desberdin hori arrazoitzeko zera dio Rooryck-ek (1985, 100):

«It seems, however, that in these examples the scope of negation is easily carried into the second conjunct, because there is no subject to block it»

Niri ordea irtenbide hori ez zait egokia iruditzen. Kontuan izan behar dugu, alde batetik, (112)-koak bezalako perpausak hustuketadunen artean sartu behar diren ala egitura-mota desberdina diren eztabaidagai dela oraindik ere. Ene iritzia da auzi horretan guztian intonazio-etenek eta komuntadurak garrantzi handia dutela, eta (112) bezalakoak hustuketa-egituretatik desberdinak direla. Aurrerago hitz egingo dugu horri buruz. Eta horrez gain, subjektuaren blokeatzeko ahalmenez esaten duenak ere eragiten ditu zalantzak: ez da agertzen subjektu horrek zer arrazoi sintaktikogatik izan lezakeen

Ward can't eat caviar and Sue, beans

It is not possible (or desirable) for Ward to eat caviar and for Sue (simultaneously) to eat (merely) beans

Bere ustez hustuketa-egiturak azaleko elementuak ezabatuz lortzen direla aldarrikatzen duen hipotesiak ezin du bigarren irakurketaren berri eman, eta ezeztapendun perpausak hustuketa-egituren ikuspegi interpretatiboaren aldeko frogatzat erabiltzen ditu.

⁸⁰ Van Oirsouw-ren (1987) ustez *or* horrek irakurketa disjunktiboa ez baina konjunktiboa du. Azken batean de Morgan-en logikako legea islatzen da:

ez P eta ez Q = ez (P edo Q)

elementua. Testuingururik gabe ez behinik behin. Osak (1990, 198-213) zailtasun horien berri ematen du: badirudi perpausean leku batean baino gehiagotan ager daitekeela elementu hori, eta lekuaz gainera errematikotasun hierarkiak ere baduela garrantzia. Eta horrekin batera, jakina, intonazioaren edo azentu-gailurraren bidez markatzeak. Gainera, zati-ezeztapendunen artean ere badira desberdintasunak presuposizioaren aldetik. Oihartzabalek (1985) egoki azaltzen du: batzuei buruz dio asertzio positiboa dutela, alegia, ezezkoa alde zurretik emana delarik, ezezko hori dagokion osagaia izango dela galdegai bakarria; besteek, berriz, asertzio negatiboa izango lukete, ezezkoa ez lukete alde zurretik emana izango, eta zati-ezezkoetan galdegai izan daitekeen osagaien bat izan arren, ziurrenik ezetza bera ere galdegai izango litzateke⁸¹. Ondorengo adibide hauetan, esaterako, lehena asertzio positibokoa izango genuke, eta bigarrena asertzio negatibokoa⁸²:

(116) Pellori **arraina** ez zaio gustatzen

(117) Pellori ez zaio *arraina* gustatzen

Desberdintasun hori zenbait ezaugarritan islatzen da. Adibidez, asertzio negatibokoari bakarrik uka dakioke galdegaia *baizik*-en bidez:

(119) *Pellori **arraina** ez zaio gustatzen, haragia baizik⁸³

(120) Pellori ez zaio *arraina* gustatzen, haragia baizik

Bestalde, ondorengo galderari asertzio positibodunak bakarrik erantzun diezaioke:

(121) Pellori zer ez zaio gustatzen?

⁸¹ Asertzio negatiboa duten hauetan, ezetza proposizio osoari dagokion kasuetan, ezezkotasuna bera izango genuke galdegai bakar (Osa 1990, 205).

⁸² Lehenago esan dugun bezala kokagunea bakarrik ez da nahikoa ezeztapenez gainerako elementuen artean galdegaitasuna (beste) zein elementuk izango duen erabakitzeke. Gure auzirako argiago gerta dadin asertzio positibokoei eta negatibokoei ordena desberdinak emango dizkiet, nahiz beste ordena batzuek ere izan ditzaketen. Asertzio negatibokoetako (beste) galdegai hori letra etzanez markatuko dut. Asertzio positibokoetako letra lodiz, intonazioaren aldetik gehiago markatzen delakoan.

Intonazioari eta azentuari buruzkoak, dena den, oraindik finkatu gabe daude. Hualde&Elordietak& Elordietak (1993) diote asertzio negatiboko zati-ezeztapenetan azentua fokalizatutako elementuak ez baino laguntzaileak daramala. Galdegai horri gainera balio desberdina ematen diote: galdegai arruntak ez bezala, horrelakoetan foku kontrajarriak omen ditugu.

⁸³ Adibide isolatuetan eta intonazio zehatzik gabe ziurtasun handiegirik izaterik ez badago ere, badirudi Osak (1990, 200) horrelako bat ontzat ematen duela:

Aitak untzia ez du leihotik aurtiki, untzikoa baizik.

Nik neure zalantzak baditut. Baita han ematen den beste batez ere:

Aitak ez du untzia leihotik aurtiki, amak baizik.

FL-n begiratu beharreko baldintza izango litzateke polaritate-operatzaileen berdintasunaren hau: aldarrikatzen du, Kayne-ri (1981) eta Rizzi-ri (1982) jarraiki, operatzaile hori FL-n ezkerretara mugitzen dela perpaus osoa besarkatu ahal izateko⁸⁵. Euskaraz ordea dagoeneko ikusi ditugu horren aurkako datuak, eta gure ustez Brucart-ena bezalako adibideen berri ere eman liteke orain arte erabili dugun hurbilketarekin. Pentsa dezagun lehenengo perpausa baiezkua dela eta bigarren perpausaren ezeztapena agertzen dela, eta aditzaren ezezkotasuna dugula galdegai. Horrek eskatuko luke, adibidea zuzena izan dadin, lehenengoan galdegaia aditzaren baiezkotasuna izatea. Eta euskarazko perpausari begiratzen badiegu ikusiko dugu horrelakoak ezin direla inolaz ere txartzat eman:

- (132) a. Maite du Joxek Miren, baina Pellok Josune ez
 b. Joxek Miren **maite du**, baina Pellok Josune ez⁸⁶

⁸⁵ Brucart-en ustez honek guztiak erakutsiko luke hustuketa perpaus-gramatikaren barnean aztertu beharreko fenomenoak dela: polaritate-operatzaileen berdintasun hori, berak dioenez, ez da diskurtso-mailakoak diren "aditz-ezabaketetan" gertatzen, eta hustuketa diskurtso-mailako fenomenoak balitz, espero izatekoa zatekeen operatzaileei buruzko baldintza hori perpaus-gramatikaz kanpo gertatzen diren elipsi fenomenoetan ere agertzea. Baina, dio Brucart-ek (1987,71), horrelakorik ez da gertatzen, ondorengo adibide hauek erakutsiko luketen bezala:

- i. Pedro bebió cerveza, pero yo no.
- ii. Pedro bebió cerveza y yo también
- iii. Pedro no bebió cerveza y yo tampoco

Brucart-ek hauek ingelesez *Verb Phrase Deletion* (=Aditz Sintagmaren Ezabaketa) deitu izan zaion fenomenoak duten egituratzat hartzen ditu, eta delako fenomeno hori diskurtso mailakotzat hartzen du.

Baina esplikazio honek ongi lotu gabeko zenbait puntu uzten ditu. Batetik, operatzaileen berdintasunari buruzko baldintza hori nahikoa isolaturik eta justifikazio handirik gabe agertzen da. Bestalde, geroago ikusiko ditugun arrazoiegatik, Brucart-ek hustuketatik bereiziz Aditz Sintagmaren Ezabaketa fenomenoaren ondorioztat hartzen dituen gaztelarazko adibideen euskal ordainak hustuketaren oso parekoak dira, eta biak batera aztertzearen aldeko naiz ni.

⁸⁶ Gaztelaraz ere, nire ustez, gauza bertsua lor daiteke ezkerreko perpausaren *sí* polaritate-adierazlea erabiliz:

- i. María sí ama a Juan, pero Marisa a Pedro no.

Eta agian baita beste zenbait itzulirekin ere:

- ii. María ama de verdad a Juan, pero Marisa a Pedro no.

Brucart-ek ere aipatzen ditu hauen antzekoak (Brucart 1987, 76):

- iii. ??Luis no estaba haciendo crucigramas, pero/y Pedro jeroglíficos, sí.
- iv. Marisa ama a Pedro, pero/y Maribel a Juan, no.

baina esaten du guztiz marginalak direla, eta sintaxian polaritate elementua eskuineratu denean bakarrik onar daitezkeela, horrela Forma Logikoan ezer bortxatzen ez delako. Baina eskuineratze operazio horren izaera eta ondorioak ez ditu argitzen.

Aldiz, ezkerreko perpausean galdegaia beste zerbait balitz ez genuke adibide zuzena izango:

(133) *Miren Joxek maite du, baina Pellok Josune ez⁸⁷

Ohartzen gara, beraz, Brucart-ek azaltzen duen debeku hori hausteko bideak badirela, eta berriro ere hustuketadunen egitura pragmatikoa kontuan izanik adibide zuzenak eta okerrak zein diren nahikoa ongi aurrirakusten dela.

2.2.3.5.2. Laburpena

Beraz, orain artekoa bilduz, lehenik literaturan ezeztapenari buruz proposatu diren zenbait debeku azaldu ditugu. Debeku horiek isolaturik agertzen ziren, eta zergatiak ilun zeuden. Guk, orain arteko bideari jarraiki, hustuketa-egituretan juntatzen diren bi perpausen mintzagai-egiturari begiratzea proposatu dugu. Lehen ezeztapendun guztien aurkako debeku orokortzat ematen zena hustuketa-egituren baldintza pragmatikoen arabera birdefinitu dugu. Ezeztapendunen artean mintzagai-egituraren aldetik molde desberdinekoak badirela kontuan izanik, ikusi dugu hustuketa-egituren eskakizun pragmatikoak egoki betetzen direnean ezeztapendun hustuketa zilegi izan litekeela. Literaturan ez da era honetako daturik erabili, eta jatorrian desegokitasun pragmatikoak zirenak debeku sintaktiko balira bezala interpretatu dira.

2.2.3.6. Hondakinak

Hustuketari buruzko lanetan hondakinen azterketek leku handia izan dute, eta beren inguruan zenbait baldintza eta debeku proposatu dira. Lehenik hondakinen kopuruari eta funtzio sintaktikoari buruz ihardungo dugu, eta literaturako aldarrikapenen aurkako datuak emango ditugu. Ondoren, hondakin izateko baldintza orokorrean ariko gara, edozein elementu ezin baitaiteke hondakin izan. Literaturan zehar zenbait debeku sintaktiko berezi proposatu dira egitura okerrak eragozteko. Guk inolako debeku bereziren beharrik ez dagoela aldarrikatuko dugu: hustuketa-egituretan hondakinak mintzagai eta galdegai izan ohi dira eta elementu horiek euskaraz

⁸⁷ Era honetako adibideez geroago ere jardungo dugu.

sintaktikoki era jakin batera (fokalizazioa...) adierazten dira, beraz, hondakinen baldintzak eta elementu horienak berberak izango dira. Horrela, hustuketari buruz dugun ikuspegi orokorretik abiatuz ematen dugu hondakinek bete beharreko baldintzen berri.

2.2.3.6.1. Zein eta zenbat?

Orain arte eman ditugun adibiderik gehienek itxura hau zuten:

(134) Joxek arraina jan du, eta Pellok haragia

Alegia, bigarren perpausean bi elementu agertzen ziren hondakin modura. Ingelesari dagokionez hori da autore askorentzat ia aukera bakarra. Ikus, esaterako, Jackendoff-ek (1971, 26) dioena:

"In the most acceptable examples of Gapping, then, there is only one unlike constituent in the second verb phrase, and all the rest must delete."

Jackendoff-en artikulu klasiko horri jarraitu diote gerora beste autore askok (Hankamer 1971, Stillings 1975, Larson 1988, Jackendoff 1990, Nishioka 1992). Lan horretan hiru aldarrikapen egiten dira:

- 1) Hondakinetako bat subjektua da.
- 2) Adibiderik onenetan subjektuaz kanpo beste hondakin bat bakarrik egoten da.
- 3) Batzuetan beste hirugarren hondakin bat ere ager daiteke. Hirugarren hondakin horrek aditzak subkategorizatu gabeko preposizio sintagma izan behar du, Jackendoff-en ustez.

Aldarrikapen hauei jarraiki, lehenengo adibidea bigarrena baino txarragoa izango litzateke, *on the table* aditzak subkategorizatua baita, *in the bedroom* hautazkoa den bitartean:

(135)

- a. ?*Willy put the flowers in a vase, and Charlie the book on the table
- b. ??Ivan writes plays in the bedroom and Schwarz radical pamphlets in the bathroom

Debeku horiek guztiak zerk eragiten dituen ez da aipatzen ordea⁸⁸. Gu aldarrikapen horien aurka mintzatuko gara: euskaraz Jackendoff-enak ez bezalako datuak aurkitzea oso erraza da, eta ez da ikusten hustuketaren zer ezaugarri eragin lezakeen horrelako jokaera. Beraz, orain arte hustuketa-egiturentzat eman ditugun ezaugarriak betez gero inolako debeku bereziren beharrik ez dagoela defendatuko dugu.

Subjektuaren nahitaezkotasunari buruzko baldintzak itxura batean bederen baldintza sintaktikoa izan behar luke, nahiz arrazoirik ez den eman. Euskarari dagokionez, ordea, konturatzen gara subjektua isilean uzteko ez dagoela inolako arazorik, eta ondorioz Jackendoff-en lehen aldarrikapena ez dela zuzena:

- (136) a. Mikelek arraina Joxerenean erosi du, eta haragia Pellorenean
 b. Aurten Saharara joango naiz, eta datorren urtean Patagoniara
 c. Oñatin bizkaieraz hitz egiten da, baina Legazpin gipuzkeraz

Horrelako adibideak guztiz arruntak dira. Ingelesari buruz ere izan dira Jackendoff-en aurkako ahotsak: Sag-ek (1980), esate baterako, aldarrikatzen du ingelesez subjektuak ez duela nahitaez agerian izan beharrik, eta ondorengo adibide hau ematen du:

- (137) At our house, we play poker, and at Betsy's house, bridge.

Neijt-ek (1979, 91-92) eta ondorengo beste autore askok ere onartzen dute zenbaitetan zilegi dela hondakinen artean subjekturik ez izatea. Auzi hau guztia zuzentzen duten printzipioez ez da, ordea, ezer aipatzen.

Ene iduriz honen guztiaren oinarrian hustuketa-egituren ezaugarri pragmatikoak daude. Hustuketako bi hondakinetako bat hori subjektua ez baino mintzagaia dela esaten badugu euskarazko adibideak askoz egokiago esplikatzen dira. Gainera, ingelesez gertatzen denaren berri ere eman ahal izango dugu: erabili diren adibide gehienak inolako testuingururik gabe emanak dira, eta horrelakoetan joera oso bortitza da mintzagaitzat subjektua hartzeko; dena den, badira beste zenbait elementu ere,

⁸⁸ Hankamer (1979, 273) saiutzen da arrazoitzen:

«Gapped structures are essentially contrastive, that is, the constituents that remain after Gapping are each contrastively opposed to their corresponding constituents in the left conjunct. This means that the conjoined structures qualifying as input to the Gapping rule must have contrastive Focus on the unlike constituents, i.e., the constituents that are to remain after Gapping. It also means that there is a processing job that has to be done by the interpreter of these gapped sentences: he has to associate each remaining constituent with the parallel constituent in the first clause, with which it is in contrast. If two constituents remain in the VP, this means three matchings, since the subjects have to get matched too. If this explanation is accepted, and if 'unreduced acceptability' is to be taken as different from ungrammaticality, perhaps sentences like (...) are to be considered grammatical but unacceptable.»

ordena aldaketan bidez, mintzagaitzat erraz har ditzakegunak: horrelako zerbait dugu (137) adibidean.

Jackendoff-en bigarren eta hirugarren aldarrikapenak beharbada interesgarriagoak dira eztabaidarako. Hondakinen kopurua aipatzen duen debekuari ezin zaio bere horretan inolako izaera sintaktikorik eman. Euskarari begiratu, gainera, konturatzen gara ez dagoela inolako oztoporik bi hondakin baino gehiago uzteko:

- (138) a. Mikelek arraina Joxerenean erosi du, eta Mirenek haragia Pellorenean
 b. Nik Mireni atzo Donostian liburu bat erosi nion, eta zuk Joni herenegun Maulen diska bat

Atalaren hasieran agertu dugun bezala, hondakinetatik azkena (*Pellorenean, diska bat*) galdegaia izango litzateke, eta aurrekoak mintzagai izango lirateke. Horrela, egoeraren berri emateko bide bat izango litzateke kopuruari buruzko Jackendoff-en debekua pertzepzioari dagokiola aldarrikatzea: euskara morfologikoki hizkuntza aberatsa denez, askoz errazago izango litzateke lehenengo perpauseko kideekiko erlazioa ikustea eta hustutako perpausa egoki interpretatzea. Irtenbide honen aldeko datuak badira. Neijt-ek (1979, 89-91) esate baterako erakusten du nederlanderaz ez dagoela debekurik nahi adina hondakin izateko:

- (139) a. *Alan gave Sandy a book, and Peter ___ Betsy a magazine
 b. Alan gaf Sandy een boek en Peter ___ Betsy een tijdschrift

Muga bakarra giza-memoria omen da; honela adierazten digu geroxeagoko lan batean hondakinen kopuruari buruz ari delarik (Neijt 1981, 70):

«The number is quite limited though, but this is presumably due to the fixed capacity of human working memory»

Ildo horretan berean interpreta daitekeen beste datu bat ere bada: Rooryck-en ustez (1985, 197-198) ingelesaren beraren barnean ere morfologikoki garbi markaturik egoteak bestela onargarriak ez diren adibideak asko hobetzen ditu⁸⁹:

- (140) a. *?John gave Mary flowers and Peter Ann sweets.
 b. John gave Mary flowers and Peter sweets to Ann

⁸⁹ Baina gerta daiteke markaketa-gardentasunaren aldetik antzerako diren hizkuntzen artean desberdintasunak izatea ere. Ikus, esaterako, Rooryck-en (1985) adibide hauek:

- i. ?John writes poetry in the garden and Mary pamphlets in the bathroom.
 ii. Louis m'a mené au théâtre et Paul Georgette au cirque.

c. John gave flowers to Mary and Peter sweets to Ann

Ikusten dugu, beraz, morfologiak zerikusia izan dezakeela hizkuntza batean ager daitezkeen hondakinen kopurua erabakitzekeo garaian⁹⁰.

Azkenik hondakin subkategorizatuen eta subkategorizatu gabeen arteko desberdintasunaren auzia daukagu. Sag-ek ere (1980, 276-279) ontzat ematen du bereizketa hori, eta interpretatzeko unean sintaxiarekiko lotura egiten saiatzen da: esaten du gerta daitekeela hirugarren hondakin modura ager daitezkeen horiek AS-tik kanpoko elementuak izatea. Honek guztiak, jakina, perpausaren egituraren eta hustuketaren formulazioan ondorioak izango lituzke, lan horietan aztertzen ez diren arren⁹¹.

Euskarak ordea berriro ere debeku horiei ihes egiten die: euskaraz ez dago inolako arazorik hirugarren hondakina aditzak subkategorizatu bada ere. Begira adibide hauei:

(141)

- a. Mikelek bere amari ordulari bat eman dio, eta Joxek emazteari eraztun bat
- b. Mikelek liburua aulki gainean utzi du, eta Josunek zartagina telebista ondoan

Eta alor honetan hizkuntzen arteko desberdintasun parametrikokoak proposatzen hastea ez dirudi hain erraza izango genukeenik. Hortaz, ingeleseko datuak, eta bereziki datu horien azpian egon litezkeen arrazoiak guztiz argiak ez direnez, eta euskaraz horrelako debekurik ez dugunez, aurrerantzean lan honetan ez ditut kontuan izango.

Beraz, laburtuz, euskaraz subjektua ez dago hondakin izatera behartuta, eta hondakin-kopuruaren aldetik ez dago inolako mugarik jartzerik: hau guztia egoki esplikatzen da hustuketa-egituren ezaugarri pragmatikoetara joz.

⁹⁰Jayaseelan-ek (1990, 74) berriz syntaxira jotzen du, eta bi hondakin baino gehiago izateko aukera *scrambling* egiteko ahalmenarekin lotzen du. Bere artikulua proposamena da hustuketa egituretan lehenengo zenbait elementu perpausetik atera egiten direla, ezkerretara eta eskuinetara adjuntatuz, eta beste guztia, aurreko perpausetik berdina dena, ezabatu egiten dela. Ildo horretan, berak aldarrikatzen du ingelesez bi hondakin baino gehiago ez direla izaten, eta adjuntzioaren baldintzetan aurkitzen du esplikazioa: bere ustez *scrambling* egiten ez duten hizkuntzetan (ingelese) alde banatara elementu bat baino gehiago ezin adjunta daiteke; aldiz, *scrambling* egin dezaketan hizkuntzetan elementu gehiago adjunta daitezke, eta ondorioz, hondakin gehiago izan daitezke (Jayaseelan 1990, 76).

⁹¹ Nishioka-k (1992) ere ontzat ematen ditu datu horiek, eta egitura kontzeptualaren baldintzak eta pertzepzioarako erraztasunaren eskakizunak uztartuz esplikatzen nahi ditu.

2.2.3.6.2. Nolako hondakinak?

Ikusi dugu euskaraz hondakinen kopuruari mugarik jartzerik ez dagoela, eta ez dela nahitaez agerian izan beharreko hondakin berezirik. Hala ere badira zenbait debeku. Atzera jo eta orain arteko adibideei begirada bat ematen badiegu ikusiko dugu, era intuitibo batean, hondakin guztiak 'sintagma osoak' direla, islapen nagusiak, nolabait esateko:

- (142) a. Joxek arraina jan du, eta Pellok haragia.
 b. Joxe hondartzara joan da, eta Miren mendira.
 c. Joxerekin Donostian egin nuen topo, eta Mirenekin Lizarran.

Islapen nagusiak baino txikiagoko islapenak ezin onar daitezke hondakin modura. Hona ingeleseko literaturan erabili diren zenbait adibide:

- (143)
 a. *John ate green apples and Peter (ate green) pears.
 b. *John saw the queen of England and Peter (saw the queen) of Holland.
 c. *John writes with a pencil, and Akira (writes with) a brush.

Horrelako adibideak kontuan izanik hizkuntzalariak saiatu ziren hondakin posibleak zein izan zitezkeen zehazten eta hondakin izateko zein baldintza bete behar ziren aztertzen. Proposamen asko egin dira (Fiengo-ren *Head Condition*, Hankamer-en *Major Constituent Condition*, Sag-en *Immediate Domination Principle*, Neijt-ek Hankamerren MCC-ri egiten dizkion aldaketak ...), eta ia guztiek egitura sintaktikoa dute oinarri, hau da, hustuketa-egituretan hondakin zein izan daitezkeen baldintza sintaktiko berezi horien bidez agertu nahi izan da. Proposamen horiek gramatika sortzailearen egungo modelutik urrun samar geratzen dira eta ez naiz xeheki eztabaidatzen saiatuko. Erakusgarri modura, eta ziurrenera eraginik handiena izan duelako, Hankamer-en *Major Constituent Constraint* (MCC) aurkeztuko dut. Hankamer-ek zioen hustuketa-egituretako hondakinek Major Constituent behar zutela izan. Honela definitzen ditu (Hankamer 1973, 18):

Major Constituents

A "major constituent" of a given sentence S_0 is a constituent either immediately dominated by S_0 or immediately dominated by VP, which is immediately dominated by S_0 .

Garai hartan erabiltzen zen perpausaren egitura kontuan izanik, Hankamer-ek esan nahi du hondakin izan daitezkeela, batetik, subjektua eta aditz sintagma, eta bestetik, aditza, objektua eta AS-tik zuzenean zintzilik dauden posposizio sintagmak eta adberbioak. Era horretan aise esplikatuko litzateke zergatik dauden gaizki (143)-ko adibideak: Hankamer-ek *major constituent* izateko ematen duen definizioaren barnean ez lirateke sartuko. Era berean, ondorengo euskarazko adibide hauen ez-gramatikaltasuna ere esplikatuko luke:

- (144) a. *Ardanza Europari buruz mintzatu zen, eta Atxagara literaturari
 b. *Nik mendiko bizikleta erosi dut, eta nire anaia Pellok kaminoko

Beraz, Hankamer-ek, eta berak bezala beste askok, baldintza sintaktiko berezi bat proposatu dute hondakin zein izan daitekeen zehazteko.

Ez da hori, ordea, erabili den ikuspegi bakarra. Rooryck-en ustez (1985) hustuketa-egiturak pragmatikaren printzipioen bidez gidatzen dira: perpaus bat elementu batzuk gabe ematen dugu, eta hura interpretatu beharrak agerian ez diren zenbait elementu ulertzea eramaten gaitu. Normalki bi perpausetan sintaktikoki parekoak diren elementuak izaten dira. Markaketa morfologikoaren aldetik ezagutzeko errazak izateak prozesu hori aise gauzatzeko laguntza handia ematen du⁹². Baina zenbaitetan gerta daiteke, eta honetan agertzen ditu Hankamer-en MCC-ren aurkako datuak, 'osorik' ez dauden elementuak hondakin modura agertzea, baldin beste zerbaitegatik berreskura badaitezke. Ondorengo adibide hauek ematen ditu (Rooryck 1985, 204-219):

- (145)
 a. John discussed the question of which flowers they saw and Bill of which animals.
 b. Knew that fear was invented by someone that never had the fear; pride, who never had the pride.
 c. (...) a filter preventing sucesive infinitives in Italian is blocked by an intervening Wh-trace but not an intervening NP-trace.
 d. ?Jean décide que vingt filles viendront et Marie [décide] que trente garçons [viendront].

⁹² Honela mintzatzen zaigu Rooryck (1985):

«Grammatical functions not only have to be parallel, they also have to be marked in such a way that the hearer can "recognize" them in his natural analysis (parsing) of the utterance»

e. Jean décide qu'il fera comme Paul et Louise [décide qu'elle fera] comme Marie.

f. Jean décide qu'il ne mangera que de la viande et Louise que des légumes.

g. Jean est parti aux Etats-Unis pour étudier la linguistique générative, et Pierre la littérature comparée.

Beraz, bere artikuluaeren ikuspegi orokorrari jarraiki, hondakin zer izan daitekeen ez luke sintaxiak erabakiko: baldintza edo printzipio sintaktikoak ez baina baldintza pragmatikoak⁹³ izango dira, Rooryck-en ustez, hondakinen itxura, hondakin zein izan daitezkeen erabakiko dutenak⁹⁴.

Euskaraz, ordea, nik ez dut era honetako adibiderik aurkitu. Beste hizkuntzetarako esan dena kontuan izanik, aditzaren jokaera izango genuke aipagarria: literaturan eman diren adibide guztietan bigarren perpauseko aditza isilik izaten zen, eta hustuketa definitzeko erabili izan den ezaugarrietako bat da hau, zenbaitek era honetako adibideak 'aditzen elipsia duten egitura' bezala aurkezteraino⁹⁵. Euskaraz, ordea, aditza fokalizaturik edo topikalizaturik agertzen denean zilegi dira era honetako adibideak⁹⁶:

⁹³ Pragmatika oso adiera zabalean hartzen du autore honek.

⁹⁴ Nishioka-k (1992) oso adibide errazak bakarrik ukitzen ditu, eta bere ustez egoera honen oinarrian bi arrazoi daude: batzuetan egitura kontzeptual egokia lortzeko biderik ematen ez duten adibideak direlako gertatzen dira perpaus okerrak, eta besteetan pertzepzioaren eskakizunek debekatzen dituzte zenbait adibide. Azken alor horretan pragmatikari eta hizkuntzen morfologiari garrantzi handia ematen dio.

⁹⁵ Bai sintaxiari garrantzia ematen diotenek bai pragmatikari ematen diotenek defendatu eta arrazoitu dute aditza nahitaez isilik gorde behar hori. Lehenen artean Sag-ek (1980) egin zuen ahaleginik osoena. Isilean geratzen diren zatiak berreskuratu ahal izateko beharrezko den berdintasunaren nozioaren ondorioztat hartu zuen berak. Gorago esan bezala berdintasun horrek FL-koa behar du izan, eta lambda-notation eta set-abstraction erabiliz, elkarren aldaera alfabetiko diren espresioak hartzen dira berdintzat. Aditzekin set-abstraction egiterik ez dagoenez, ezin dira hondakin modura agertu. Bigarrenen artean Rooryck-ek (1985, 210) hitz egiten digu honetaz:

«Since (...) we find a clause with a "gap", we are forced to find a means of interpretation. A first observation could be that we will never assume a second clause of a gapped sentence in which a verb different from the one in the first clause would construe the syntactic elements».

Eta arrazoa ematen ere saiatzen da; bere ustez, hustuketa-egiturak zera dira:

«a sentence where only one verb is the constructive node of two clauses with rigorously identical structures».

Horrek Aditza isilean uzterik ez izatea eragiten omen du:

«This would explain why the verb always has to be a part of what traditional transformational analyses call the gap.»

⁹⁶ Literaturan zehar ez dut horrelako adibide asko aurkitu. Antzerakoenak Hankamer-ek (1979) ematen ditu. Japonieraz:

watakusi wa sakana o ryoori-sita, Biru wa tabeta.
I fish cooked Bill ate

- (146) Ikusi Joxek ikusi du, baina ezagutu Mirenek.
- (147) Azken hauteskundearen ondoren, gobernua indartu egin da, eta oposizioa ahuldu.
- (148) A: Zer egin duzue azterketan?
B: Joxek aprobatu egin du, eta nik suspenditu.

Datu hau egoki dator orain arte hustuketaz erakutsi dugun ikuspegiarekin: hustuketan bi mintzagairi buruz pareko iruzkina egiten da, beti ere galdegaiak kontrajarriak direlarik; ondorioz, hondakinak mintzagaia eta galdegaia izango dira, eta ikusten dugu topikalizaturik edo fokalizaturik ager daitezkeen elementuak izan daitezkeela euskaraz hondakin (esaterako, 144-ko adibideak okerrak genituen).

Fokalizaturik edo NZ-hitzen modura ager daitezkeen elementuen eta hustuketa-egituretan hondakin izan daitezkeen arteko parekotasuna urrunago doa gainera. Izan ere, proposatu izan da NZ hitz batek bere mugimenduan zeharka dezakeen egitura zatia eta hustuketako bi hondakinen artean isilean gera daitezkeen egitura zatia parekoak direla. Adibidez:

- (149) a. Zer erosi du Joxek?
b. Nik katua erosi dut, eta zuk zakurra
- (150) a. Non gustatzen zaio Joni erosketak egitea?
b. Joni erosketak Mamut-en egitea gustatzen zaio, eta Mireni Eroskin

baina...

- (151) a. *Nork irakurri dut t idatzitako liburua?
b. *Nik Kunderak idatzitako liburua irakurri dut, eta Mirenek Atxagak
- (152) a. *Zer aldegin zuen Mirenek t ikusi ondoren?

"I cooked fish, Bill ate (it)".

Gauza bera gertatzen da turkieraz ere, baina ordena gehiagorekin : SV eta SVO, SOV eta SV, SVO eta SV. Hankamer-ek hauei guztiei *object gapping* izena ematen die. Dena den, ez dakit bi hauek zenbateraino diren euskarazkoen kide: badirudi aditzak flexio marka guztiekin agertzen direla, eta gainera Hankamer-ek berak esaten digu beharbada objektuaren beste ezabaketa batzuekin lot daitezkeela (1979, 125). Gainera, ez dakit galdegai-interpretazioaren aldetik ere berdinak diren.

- b. *Mirenek aurkezpena ikusi ondoren aldegin zuen, eta Joxek ekitaldi nagusiak

Neijt-ek, ingeleseko eta nederlanderako datuen aurrean, bi fenomenoak azpikotasunaren definizio bateratu batean bildu nahi izan zituen (*strict subjacency*, Neijt, 1979, 129-190). Auzia da, ordea, parekotasun obserbazional horren arrazoia, zergatia, ez dela azaltzen: NZ hitzena mugimenduari, edo nahiago bada, kategoria isilei buruzko baldintza bat da; hustuketa-egiturena, bere formulazioan, hondakinen arteko distantziari buruzkoa da, eta ez da ikusten bien artean zer lotura egon daitekeen eta zergatik agertzen den debeku bertsua bi egitura-motetan.

Guk orain arte erabili dugun ikuspegiarekin bat etorriko litzatekeen irtenbide bat hustuketan ere nolabaiteko mugimendua badela proposatzea izango litzateke: fokalizatutako elementuen eta NZ hitzen pareko portaera aspalditik azpimarratu izan da euskal gramatikararien artean, eta Ortiz de Urbinak bientzat egituran leku eta mugimendu bera proposatu zuen. Beraz, hustuketari dagokionez honelako zerbait izango genuke: hondakinak mintzagai eta galdegai modura interpretatu behar dira; euskaraz galdegaiak sintaktikoki fokalizazioaren bidez adierazi ohi dira; hortaz, pentsatzekoa da hustuketa-egituretan ere NZ-hitzetan bezalako mugimendua egon dela, eta ondorioz, baldintza sintaktiko beren azpian dagoela.

Ikuspegi horren aldeko datu gehiago ere badira. Ortiz de Urbinak (1989) erakutsi zuen -bere analisi sintaktikoa eta birreraiketaz esaten duena albo batera utziko ditugu hemen- (151a) edo (152a) bezalako egiturak zilegi egiteko mekanismo bat *pied piping* izaten dela:

(153)

- a. Nork idatzitako liburua irakurri dut?
- b. Zer ikusi ondoren aldegin zuen Mirenek?

Honetan ere NZ hitzen eta hustuketaren arteko parekotasuna mantendu egiten dela dirudi:

(154)

- a. Mirenek aurkezpena ikusi ondoren aldegin zuen, eta Joxek ekitaldi nagusiak ikusi ondoren

b. Nik Kunderak idatzitako liburua irakurri dut, eta Mirenek Atxagak idatzitakoa

O. de Urbinak (1989, 256) zioen azken adibide hau bezalakoetan adjuntuekin ez dela emaitza gramatikalik lortzen, baina badirudi hustuketan horrelakoak zilegi direla:

(155) Nik Atxagak aurten argitaratutako artikulua dut gogoko, eta Mirenek iaz argitaratutakoa

Dena den, ez zait iruditzen O. de Urbinak adjuntuei egozten dien eragozpen hori guztiz zuzena denik:

- (156) a. Non egindako argazkiak gustatzen zaizkizu?
 b. Noiz egindako argazkiak gustatzen zaizkizu?
 c. Norekin ateratako argazkiak dituzu gustukoen?

Ez dirudi, beraz, azken datu honek ere NZ hitzen eta hustuketako hondakinen arteko parekotasuna hautsiko lukeenik. Hori horrela balitz hustuketa egituretako hondakinek ere fokalizatutako elementu guztiek bezalako mugimendua izango lukete, eta lehen hain umezurtz geratzen zen "bi hondakinen arteko egiturazko distantzia" hura fokalizatutako elementuek bete behar duten baldintza modura interpretatu ahal izango genuke.

Hustuketan mugimendua dagoelako hipotesiarekin ondo datozen beste adibideak ondorengo bezalakoak dira:

(157) Nik gehienetan galdu egiten dut, eta zuk irabazi

Hustuketa mugimendua gertatu aurretiko gauza balitz, ez da ulertzen nola agertu ahal izango litzatekeen *irabazi* hondakina agertzen den modura; kategoria isilen bidez edo oinarritiko beste zernahiren bidez nekez esplika liteke horrelakorik. Beraz, hustuketan mugimenduaren ondorengo ezabaketa izango genuke: hondakinetako bat edo batzuk mintzagai izango genituzke, eta mintzagaiei orotara ematen zaien tratamendu bera eman beharko litzaike, ziurrenera perpauseko beste elementu guztiak baino goragotik zintzilikatuta; galdegai modura ulertzen dugun hondakinak fokalizatutako elementuek eta NZ-hitzen bezalako mugimendua izango luke; gaineratiko elementuak, lehenengo perpauseko elementuekiko berdintasunez ezabatu egingo lirateke⁹⁷. Era honetan,

⁹⁷ Hustuketari buruzko lanetan axaetik besterik ez da hitz egiten auzi honi buruz. Saiakerarik landuena Steedman-ek (1990, 248-259) gramatika kategorialen barnean egiten duena da. Lehen aipatu dugun proposamenaren barnean adierazten du:

hustuketa egituren ezaugarri pragmatikoak eta debeku sintaktikoak uztartu ahal izango genituzke, eta literaturan proposatu diren debeku berezietara jo ordez hustuketaren ezaugarri orokorren arabera esplikatu ahal izango genituzke datuak.

Beraz, berriro ere hustuketaren ezaugarri pragmatikoetatik abiatutako esplikazio bat eman ahal izan dugu. Bidea hori dela erakusten duten adibide gehiago ere badira. Adibidez, bigarren perpausean hondakin ugari ditugunean edo galdegaia elementu bat baino gehiagoz osatua denean:

(158)

Joko olinpikoetarako txartela lortu dugu Mirenek eta nik: *nik(mintz)* atzo Bartzelonan(gald) lortu nuen marka, eta *Mirenek(mintz)* gaur Parisen(gald)

Nahiz praktikan era honetako galdegai konplexuak asko izaten ez diren euskaraz aukera hori bada (Osa 1990), eta aurrerago ikusiko ditugu adibide gehiago. Horrelakoei hustuketatik kanpora ere eman beharreko tratamendu sintaktikoa zein den ez dago garbi⁹⁸.

«The second fixed category that is required for category decomposition to reveal the hidden category in a leftmost conjunct S is provided by the Hallidean given information for that S. This information takes the form of a grammatical category.»

Emandako informazioa zein motatakoa izan daitekeen jakiteko galderekiko lotura aipatzen du, galderen eta hustuketaren arteko parekotasuna nabarmenduz. Emandako informazio hori kategoria gramatikalen bidez adierazi behar da eta horretarako ezkerreko perpausetik (ez testuinguru soiletik) abiatu behar dela aldarrikatzen du, baina operazioa zehazki nola gauzatzen den eta kategoria hori nola adierazi behar den ez du erabakitzen, nahiz ziurrenera forma logikoan edo interpretazioaren mailan adierazi beharko dela uste duen (Steedman 1990, 250): «I conjecture that this given category must actually be represented at the level of interpretation or logical form».

⁹⁸ Hankamer-en MCC eta antzerakoak esplikatzeko beste bide bat Jayaseelan-ena (1991, 76-77) da. Lehentxeago esan dugu autore honek proposatzen duela hustuketa-egituretan (eta beste zenbaitetan) hondakin modura agertzen diren elementuak beren lekutik mugitu eta perpausaren ezkerretara nahiz eskuinetara adjuntaturik daudela. Eskuinetarako mugimendua ingeleseko *Heavy-NP Shift* bezalakoa izango litzateke. Neijt-i (1979) aurka eginez, aldarrikatzen du azpikotasunak ez baizik *Kategoria Isilen Printzipioak* arautzen duela zein ager daitezkeen hustuketa-egituretan hondakin modura. Dena den, ezkerreko adjuntziarako motibazioekin arazoak ditu, eta *Heavy NP Shift* eta hustuketa-egituren artean horrelako lotura egiteko arazoiek ere ez dirudite oso sendoak.

2.2.3.7. Anbiguotasuna

2.2.3.7.0. Sarrera

Orain arte aztertu ditugun hustuketadun perpausek interpretazio bat eta bakarra zuten: paralelismo-hausturak gora behera, hondakinek ezkerreko perpausean kide zein zituzten argi zegoen, eta hustutako zatiari zein interpretazio eman behar zitzaion ere nahikoa argia zen. Ez zaigu, bada, anbiguotasun arazorik sortu. Baina anbiguotasunerako bidea eman dezaketen adibideak badira: eskuineko perpauseko zati bat isilean uztean, batzuetan interpretazio bat baino gehiago eman dakioke perpaus horri. (159) adibideak esaterako teorian (160a) eta (160b) interpretazioak izan ditzake:

(159)

Bill expects Harry to find the way to the party, and Sue to find the way home.

(160)

a. Bill expects Harry to find the way to the party, and (Bill expects)Sue to find the way home.

b. *Bill expects Harry to find the way to the party, and Sue (expects Harry) to find the way home.

Hankamer-ek (1973) adierazten duenez bi aukeretatik bakarra da zilegi: ingeles-hiztunek (159) perpausa esatean (160a) ulertzen omen dute, eta inolaz ere ezin omen da (160b) ulertu. Literaturan era honetako auziek garrantzi handia izan dute. Hustuketaren erregelak, ordurarte formulatu zen bezala, ezin zuen horren berri eman, eta bigarren interpretazio horren ezintasuna esplikatuz ahal izateko Hankamer-ek (1973, 29), deribazioen gaineko debeku modura, *No Ambiguity Constraint* (NAC) printzipioa proposatu zuen:

No Ambiguity Constraint

«Any application of Gapping which would yield an output structure identical to a structure derivable by Gapping from another source, but with the "gap" at the left extremity, is disallowed.»

Debeku horren bidez (160b) interpretazioa eman ezin izana esplika dezake. Baina horrez kanpoko beste zenbait egoera ere bai. (159) adibideak teorian izan zitezkeen bi irakurketak esanahiaren aldetik zuzenak ziren. Batzuetan gertatzen da, ordea, adibide batek bi deribazio posible izan ditzakeela, baina bi horietatik hutsunea ezker-muturrean

duena beste zerbaitegatik okerra dela. Egoera hori dugu (161) adibidean. Hankamer-ek (1973, 30) dioskunez, horrelakoetan ere ez da onartzen hutsunea ezker-muturrean ez duen interpretazioa :

(161))

- a. *Jack wants Mike to wash himself, and Sue to shave himself.
- b. *_____and (Jack asked) Sue to shave himself.
- c. _____and Sue *(asked Mike) to shave himself.

NAC deribazioei buruzko debekua denez egoki ematen digu adibide honen berri: (161c)-ko bihurkaria zuzena da, baina hutsunea ezker-muturrean uzten duen beste deribazio bat ere badenez (161b), nahiz azken hau okerra izan, (161c) ez da onartzen hustuketa-egituretan.

Beraz, Hankamer-en ustez deribazioei aplikatzen zaien debeku horrek mugatzen du bariabileak ezabatzen dituen erregelaren boterea, eta gainera erregela hori da garrantzia duen faktore bakarra: hutsunea ezkerrean duenaren interpretazioan arazo sintaktikoak edo semantikoak egoteak ez du beste interpretazioa ahalbidetzen.

Baina Hankamerren printzipio horrek zenbaitetan hutsegín egiten du; ondorengo hauek guztiak NAC-ren aurkako adibide modura erabili izan dira⁹⁹:

(162)

- a. My brother visited Japan in 1960, and my sister (visited Japan) in 1961.
- b. Of the people polled, 80% believe the President to be guilty, and 20% (believe the President to be) innocent.
- c. John gave Mary a nickel, and Susan (gave) Harvey (a nickel).
- d. John writes poetry in the garden, and Max (writes poetry) in the bathroom.
- e. Paul Schachter has informed me that the basic order in Tagalog and related languages is VOS; Ives Goddard (has informed me) that the unmarked order in Algonkian is OVS; and Guy Carden (has informed me) that the basic order in Aleut is OSV.
- f. John stopped frequenting The Pussycat Laounge to please his wife, and Bill (stopped frequenting The Pussycat Laounge) to save money.
- g. John entered Harvard to study Linguistics, and Bill (entered Harvard) to study Psychology.

⁹⁹ Salbuespenen iturriak: Ross (1970), Channon (1975), Kuno (1976) eta Thráinsson (1975).

h. Tom reads the newspaper on the way to work, and Sandra after she gets there¹⁰⁰.

Adibide hauek guztiak NAC-ren aurkakoak dira: alde batetik, NAC-k debekatu nahi duen erako anbiguotasuna agertzen dute; bestetik, interpretaziorik arruntena, hiztunek sarrien aukeratzen dutena, NAC-k debekatzen duena da.

Ez da hori gainera NAC-ri aurkitu zaion aitzakia bakarra. Hasteko, hizkuntzalari asko eta asko ez datoz bat Hankamer-ek eman dituen gramatikaltasun iritziekin. Gero, ohartu ziren morfologikoki ingelesa baino aberatsagoko hizkuntzek ez ziotela NAC-ri jarraitzen, eta badirudi egokitzerik ere ez dagoela¹⁰¹. NAC gramatikaren debeku unibertsal bezala proposatu zenez, eragozpen handia sortzen du datu horrek. Eta azkenik NAC-ren hobetu nahian proposatutako beste debeku sintaktikoei ere (Langendoen 1975, Stillings 1975¹⁰²) egotzi izan zaien arazo bat daukagu: ez da garbi ikusten printzipio hauen guztien oinarrian zer arrazoi sintaktiko dagoen¹⁰³. Horrela, modelu-aldaketarekin formulazio hauek guztiak bazterturik geratu ziren.

Orain artekoan, bada, hustuketa-egituretan anbiguo izan daitezkeen adibideei buruzko interpretazioen berri eman ahal izateko syntaxian oinarritu diren proposamenak aipatu ditugu. Ez da hori ordea gai honetara hurbiltzeko erabili den ikuspegi bakarra. Arau horiek zituzten salbuespenei begiratuz, zenbait hizkuntzalari konturatu ziren syntaxiaz kanpoko faktoreek, adibidez, pragmatikoeak, semantikoeak edo pertzepziozkoak

¹⁰⁰ Zenbat eta luzeagoa, pisuagoa, izan bigarren perpauseko bigarren hondakina eta bere kidea, orduan eta onargarriagoak gertatzen omen dira horrelakoak (Channon 1975).

¹⁰¹ Era honetako kritikak: Sag (1980, 215), Thrainssón (1975); Rooryck (1985); Van Oirsouw (1987).

¹⁰² Langendoen-en proposamena ez da deribazioen gainekoa, eta alde horretatik Hankamer-enetik dexente aldentzen da. Garai hartako formulazio desberdinen kritika baterako, ikus Neijt-en (1979) lana: guztiak ere estuegi gertatzen ziren, eta nahikoa erraz aurkitzen ziren debeku horiei ihes egiten zieten adibideak.

¹⁰³ Auzi hori egokitzen saiatu zenetako bat Brucart (1987) zen. Berak ondorengo paradigma honen berri eman nahi du:

- i. Luis dice vivir en Barcelona y Antonio (dice vivir) en Valencia
- ii. *Luis dice que vive en Barcelona y Antonio (dice que vive) en Valencia
- iii. *Luis dice que él vive en Barcelona y Antonio (dice que él vive) en Valencia
- iv. *Luis dice que María vive en Barcelona y Antonio (dice que María vive) en Valencia

Ezker-muturreko hutsunarekin guztiak dira zuzenak; hemen agertzen den erara berriz lehena bakarrik. Bere ustez desberdintasuna konplementatzailean dago: infinitibodun adibideetan reanalisi bidez hutsunea osagai bakartzat har daiteke, baina *que* konplementatzailea dutenetan horrelakorik ezin da egin. Hori frogatzeko klitiko mugimendua eta aditz erazleen jokaera erabiltzen ditu. Osagai bakartzat hartzeko aukera dagoenez, adibidea zuzena izango da, eta gainera berak hustuketa-egiturez egiten duen analisi sintaktikoarekin bat dator: berak proposatzen du hustuketa-egituretan oinarritiko kategoria isil bat dagoela, eta kategoria isil hori PRO dela.

bazutela hor zeresana, eta egitura hauen interpretazioen berri emateko horietara jotzea egokiago izan zitekeela proposatu zuten. Begira zer esaten duen Kuno-k (1976, 306):

«I will show that Gapping is a much more complex process than is implied by Hankamer's NAC and Langendoen's NLPNPC, and that it is conditioned by the interaction of syntax with at least three kinds of nonsyntactic factors: (a) perceptual, (b) discourse-based, and (c) semantic.»

Bere artikuluan sintaxiaz kanpoko alderdi horiek ahalik zehazkien formulatzen ahaleginduko da; aitortzen du, halere, adibide guztiak bilduko dituen printzipio bakar batera ailegatzea zail dagoela. Bestalde, Kuno-k ez du gehiegi zehazten faktore sintaktikoek eta ez-sintaktikoek zer-nolako harremana duten eta bakoitzak zer leku eta zer garrantzi duen: ez da oso garbi geratzen debeku sintaktiko batek sintaxiaz kanpoko zenbait salbuespen dituela ulertu behar dugun, ala sintaxiaz kanpoko auziek gidatzen duten guztiz aukera desberdinen arteko hautaketa. Gainera, proposatu diren printzipio edo alderdi ez-sintaktiko desberdinek elkarrekin zer lotura duten ere zehaztu gabe dago. Beste zenbait autore Kuno-ren lana hobetzen saiatuko dira (Thráinsson 1975, Jake 1977).

Nolanahi ere ikusten dugu anbiguo izan daitezkeen hustuketa-egituren interpretazioa zerk erabakitzen duen zehazteko garaian bi hurbilketa nagusi direla, errazteko hurbilketa sintaktikoa eta hurbilketa pragmatikoa deituko ditugunak. Auzi hau ukitu duten hizkuntzalariak ikuspegi bata edo bestea harturik abiatu dira beren azterketetan¹⁰⁴. Ondorengo lerroetan anbiguotasunari buruzko auzi hauek euskaraz nola gertatzen diren aztertuko dugu. Euskarazko datuei begira aurreko horietatik ikuspegi desberdina lortuko dugu: ez zaigu iruditzen hustuketa-egituretan anbiguo izan daitezkeenak murrizteko inolako printzipio sintaktiko bereziren beharrik dagoenik, egitura asko eta asko aurreko atalean aipatu ditugun hustuketaren printzipio orokorrekin baztertzen baitituzte; sintaxiaren debekurik ez dagoenean prozesatze-erraztasunak eta

¹⁰⁴ Hudson-i (1976) ez zaio Hankamer-i bezalako arazorik sortzen era honetako egiturekin. Hankamer-ek juntaduretako elipsi guztiak erregela beraren bidez eman nahi ditu. Hudson-ek ordea (158-159) bezalakoak hustuketaren ondorio ez baizik Konjuntzio Laburketa erregelaren ondorio direla esaten du. Anbiguotasunik agertu ezin izana bi erregela horiek desberdinak direla frogatzeko argudio modura erabiltzen du.

Banfield-ek (1981) beste era bateko analisisia aurkezten du. Bere ustez hustuketa-egiturak ezabaketaren ondorio dira, eta ezabatu den kokagunean intonazio-eten bat egiten da. Hustuketan aldagaiak ezabatzen direnez aztarna sintaktikorik ezin da utzi. Intonazio-eten hori, beraz, nolabaiteko 'aztarna fonologikoa' izango genuke, eta ezabaketaren kokagune zehatza adieraziko liguke. Hankamer-en adibideetan bi hondakinen artean ez da inolako etenik egiten, beraz, irakurketa bakarra izango lukete, ezabatutakoa bi hondakin horien aurrean kokatzen duena. Era horretara NAC-rekin esplikatzeko diren adibide guztiak esplikatuko liriateke. Ohartzen da, gainera, etena bi hondakinen artean eginez Hankamer-ek eragotzitzat hartzen dituen interpretazioak ere lortzen direla. Hortaz, aztarna fonologikoaren bidez anbiguotasunen auzia NAC-rekin baino hobeto esplikatuko litzateke.

beste zenbait faktorek ezkerreko hutsunedun irakurketak hobesten dituzte, baina alderantzizko irakurketak ere posible dira.

2.2.3.7.1. Sintaxiaren eskakizunak

Euskaraz inguruko beste hizkuntza askotan baino gutxiago dira anbiguo izan litezkeen adibideak: euskara markaketa morfologikoaren aldetik hizkuntza aberatsa da, eta ingurukoetan anbiguo gertatzen diren adibide asko euskaraz ez dira anbiguo; adibidez, Kuno-k, Tháinsson-ek, Channon-ek, etab.-ek eman dituzten NAC-ren salbuespen haietako askotan euskaraz ez dago inolako arazorik. Esan liteke euskaraz perpaus bakunetan ez dela anbiguotasunerako bidea ematen duen kasurik agertzen. Menpeko perpausen bat badutenetan, ordea, ez da hain zaila era honetakoak aurkitzea. Begira esate baterako ondorengo honi:

(163)

Pellok esan du Mikelek autoa erosi duela, eta Mirenek motoa erosi duela.

(164)

a. Pellok esan du Mikelek autoa erosi duela, eta (Pellok esan du) Mirenek motoa erosi duela.

b. Pellok esan du Mikelek autoa erosi duela, eta Mirenek (esan du Mikelek) motoa erosi duela.

(163)-ko perpausak teorian (164)-ko bi deribazioak izan ditzake; eta izan ere baditu, biak baitira gure ustez zuzenak. Honek adierazten du euskaraz ez dagoela NAC-ren antzeko debekurik proposatzerik. Begira goikoaren antzeko beste adibide honi:

(165)

Gobernuak esan du ekonomiak behera egin duela, eta oposizioak gora egin duela

(164b)-n ematen denaren pareko irakurketarako ez dago inolako oztoporik. Baina batzuetan euskaraz ere teorian anbiguo izan zitezkeen perpausetatik zenbaitetan irakurketetatik bat eragotzita geratzen da. Horrelakoetan, ordea, arrazoia ez da inolako printzipio berezietan bilatu behar, aski da lehen (2.2.3.6.2.) puntuan hondakinen arteko

distantziaz esan duguna gogoratzea. Horrela, berriro ere mugimendurako muga diren egiturekin (166) irakurketa anbiguoak ezinezkoak izango dira, eta bestelakoekin (167-168) onartu egingo dira:

(166)

- a. Mikel damutu zen Pello mendian ikustean, eta Josu hondartzan
- b. Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta (Mikel damutu zen) Josu **hondartzan** (ikustean)
- c. *Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta Josu (damutu zen Mikel) **hondartzan** (ikustean)

(167)

- a. Mikelek nahi du Joxek berokia Nekaneri ematea, eta Jonek Inesi
- b. Mikelek nahi du Joxek berokia Nekaneri ematea, eta (Mikelek nahi du) Jonek (berokia) Inesi (ematea)
- c. Mikelek nahi du Joxek berokia Nekaneri ematea, eta Jonek (nahi du Joxek berokia) Inesi (ematea)

(168)

- a. Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta oposizioak behera
- b. Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta (gobernuak esan du) oposizioak behera (egin duela)
- c. Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta oposizioak (esan du ekonomiak) behera (egin duela)

Aurkakotasun berbera aurkituko dugu ondorengo adibideetan ere:

(169)

- a. *Mikelek Joxe Erromatik etorri ondoren aldegin zuen, eta Jonek Berlindik
- b. *Mikelek Joxe Erromatik etortzean aldegin zuen, eta Jonek Berlindik

(170)

Mikelek esan dit Joxe mendira joan dela, eta Jonek hondartzara

Sintagmek duten kasu-markaketagatik aukera bakarra bi hondakinak perpaus desberdinekotzat hartzen dituen da: (169)-koetan ez da zilegi horrelakorik, baina (170)-ekoan bai.

Irakurketetatik bat eragotzita duten adibide hauek anbiguo bihurtzeko era bakarra debeku sintaktiko horri ihes egiteko bideak aurkitzea da, adibidez, lehen (2.2.3.6.2.) aipatu ditugun pied-piping moduko egiturekin:

(171)

- a. Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta Josu **hondartzan** ikustean
- b. Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta (Mikel damutu zen) Josu **hondartzan** ikustean
- c. Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta Josu (damutu zen Pello) **hondartzan** ikustean

Ikusten dugu, bada, teorian anbiguo izan zitezkeen horietan aukeraren bat bazterten denean eragozpenaren arrazoiak esplikatzeko ez dagoela inolako printzipio berezietara joan beharrik: nahikoa da dagoeneko hondakinen funtzio pragmatikoez eta sintaktikoki gauzatzeko eraz esan denera jotzea¹⁰⁵.

2.2.3.7.2. Bestelako faktoreak

Betebehar sintaktiko orokor horrekin arazorik ez duten perpaus anbiguoekin ostera aukera dugu era batera edo bestera interpretatzeko. Dena den, badira interpretazio bata edo bestea hobesten duten zenbait printzipio. Ondorengo lerroetan printzipio horiei buruz hitz egingo dugu. Ohartuko gara printzipio horiek Hankamer-ek aipatu zuenaren antzeko emaitzak eragiten dituztela. Baina gogoan izan behar dugu

¹⁰⁵ Teorian anbiguo izan zitezkeelarik irakurketa bat eragotzita duten adibideez beste hurbilketa batzuk ere izan dira. Solías-ek (375-383) dio (i) eta (ii) bezalakoek interpretazio bakarra izatea zenbait aditzen ezaugarri berezien baitan dagoela: aditz horiek perpausak subkategorizatzen dituzte, eta lehenik beren osagarriarekin ez baina subjektuarekin asoziatzen omen dira, osagai behartuak sortuz.

- (i) Luis dice que María vive en Barcelona y Antonio en Valencia
- (ii) Jack wants Mike to wash himself and Arnie to shave himself

Gramatika sortzailearen barnean ez dago bide horretarako aukerarik, baina iruditzen zait guk egin dugun hurbilketak fenomenoaren berri hobeki ematen duela; adibidez, bide honetatik *pied piping* duten adibideen berri ematerik ez dago.

Goodall-ek (1987, 85-89) mugimenduarekiko eta azpikotasunarekiko erlazioa ukatu egiten du, eta Koster-en (1978) *Locality Principle* erabiliz argitu nahi ditu gauzak, baina auzian ez du gehiagi sakontzen, eta bere proposamenaren zenbait arazo ere agertzen ditu.

Steedman-ek (1990) ez du zuzenki honi buruz hitz egiten, baina lehen esandakoaren arabera pentsa liteke gurearen antzeko bideren bat hartuko lukeela.

joerak besterik ez direla: munduaren ezagutzak besterik aginduz gero, ez dago arazorik beste interpretazioak lortzeko.

2.2.3.7.2.1. Pertzepzio/prozesatze erraztasuna

Gorago esan dugun bezala, literaturan zehar erabili diren adibideak inolako testuingururik gabe eman dira. Hiztuna horrelakoetan interpretatzeko laguntzarik gabe geratzen da, eta pertzepzio erraztasunean oinarriturik neke gutxieneko aukera hautatzen du: agerian geratzen diren hondakinei kideak aurkitzeko unean azkena entzundako edo irakurritako biak emateko joera dago. Hori gertatzen zen, esate baterako, ondorengo adibide honetan:

(172) Pellok esan du Mikelek autoa erosi duela, eta Joxek bizikleta erosi duela

Joera bortitza zegoen Joxe esaleztat ez baina erosletzat hartzeko. Gauza bertsua gertatzen zen ingeleseko adibideetan ere.

2.2.3.7.2.2. Perpaus bakarra

Oinarri desberdinen gainean eraikia izan arren emaitza bertsuak eragiten dituen beste printzipio bat Kuno-k (1976) aurkezten du: dio hustuketak hondakin modura IS bat eta AS bat (edo zati bat) uzten ditunean, perpaus bakar modura ulertzeko joera dagoela¹⁰⁶; beste hitz batzuetan esateko, hustuketa-egitura bateko hondakinak ikusten ditugunean, haiek erabiliz perpaus bat egiteko joera dugula.

Seguru asko printzipio horren lehen zatia, hondakinei dagokiena, ez da erarik egokienean formulaturik egongo, baina ideia orokorra interesgarria iruditzen zait: horrelako egitura bat aurkitzen dugunean, eta testuinguruak edo pragmatikak inolako laguntzarik ematen ez digunean, interpretazio-erraztasunaren aginduz edo, agertzen zaizkigun hondakinak perpaus bakarreko elementu modura ulertzeraz jotzen dugu. Printzipio hori euskarako adibideetara aplikatzen badugu aukera bakarra geratzen zaigu praktikan: hondakinak menpeko perpausko elementutzat hartzen saiatuko gara lehenik.

¹⁰⁶ Badu Kuno-k beste printzipio bat honek esplikatzen ez dituen zenbait kasuren berri emateko formulatua, eta hemengoa ere barnean biltzen duena, berak "Simplex Sentential Relationship" deitzen duena. Euskaraz era horretako adibideak aukitzea nahikoa zaila da, eta ez dut hemen sakonduko.

Beraz, behin gehiago, hutsunea ezker-muturrean balego bezala ulertzeko joera izango dugu¹⁰⁷.

2.2.3.7.2.3. *Informazio zaharra eta berria*

Irakurketa hori hobesten duen beste alderdi bat ere aipatzen du Kuno-k. Literaturan erabilitako adibide gehienetan pertsona-izenak agertzen zaizkigu, eta pertsona-izenak informazio zahar modura hartzeko joera dago. Gainera, Halliday-ri jarraiki, aipatzen du informazio berriena azkenean emateko joera dagoela ingelesez. Hortaz, lehenengo perpausean subjektu nagusi modura agertzen den pertsona-izena bigarren perpausean isilekotzat hartzeko joera izango da, berriro ere ezker-muturreko hutsunedun irakurketa hobetsiz.

Baina inolako kontesturik gabe eta erreferentzia ezagunik eman ezin diegun pertsona-izenekin egindako adibide horietan somatzen diren joerak gora-behera, ez da zaila bestelako irakurketak lortzea. Adibidez, gogoan izanik hustuketa-egituretako hondakinek nolabaiteko kontrajarren-kutsua badutela, kontrajarren hori lehenengo perpausean askotan intonazioaren bidez markatzen da. Komunikazio-testuingurua ezagutzean, edo galdera esplizito edo implizito bati erantzun nahi dioten adibideetan ez da arazorik bestelako interpretazioak lortzeko:

¹⁰⁷Kuno-ren honen emaitza berak lortzen dituen beste proposamen bat egin zuen Brucart-ek (1987, 124-128). Gaztelerako adibideak erabiliz Brucart-ek esaten du juntadura-egituretan osagairik 'txikienen' juntadurak hobesten direla; zehazkiago esateko, egituran baxuen dagoen kategoriaren proiektiorik handienak juntatzen direla. Horrela, lehenagoko adibide hori ez litzateke perpaus nagusien hustuketa izango, menpeko bi perpausa koordinatzen dituen kasua baizik:

- i. Pellok esan du [Mikelek autoa erosi duela] eta [Joxek bizikleta (erosi duela)]

Brucart-ek printzipio sintaktiko modura aurkezten du, baina ez du justifikazio sintaktikorik ematen, ez du agertzen gramatikaren zer eskakizunen ondorio den. Juntadura-egituren errepresentazioaz zalantza ugari dauden arren, nik eten-motaren arabera bereiziko ditut biak, eta (i) bezalakoak hustuketarekin batera bilduko ditut: juntagailuaren ondoan egiten den etenaldiaren arabera egingo dut banaketa, horrela, etenaldi luzea dutenak hustuketa egituratzat hartuko ditut, eta etenaldi laburra dutenak edo sintagma-juntaduren intonazioarekin esan ohi ditugunak juntadura soiltzat. Horren aldeko datuak ere badirela uste dut: eten nabarmenik ez dagoenean koordinatutako bi menpekoak perpausaren alde batetik bestera beste edozein osagai bezala mugitzeko aukera daukagu, baina hustuketa-egituretan egin ohi den pausa-moduarenkin ezin da horrelakorik egin; eten hori egiten ez bada ez dago anbiguotasunik; eta azkenik, menpeko perpausen juntadura soila eragozten duen ordena bat dugunean ere anbiguotasunak lehengoan dirau:

- ii. Pellok Mikelek motoa erosi duela esan du, eta Joxek bizikleta

Gainera, Brucart-en proposamenak ez du anbiguotasunerako biderik uzten, eta ikusi dugu euskaraz badela horrelakorik.

Gald. -Zer esan dute Pellok eta Jonek?//Pellok zer erosi duela esan dute (Jonek eta Joxek)?

Er. -Joxek esan du Pellok motoa erosi duela, eta Jonek autoa erosi duela.

Beraz, munduaren ezagutzak edo bestelako egoera pragmatiko batek Kuno-k aipatzen duen joeraren aurkako adibideak erraz eragin ditzake¹⁰⁸.

2.2.3.7.2.4. Ondorioak

Beraz, aurreko ideia horiek apurtxo bat zehaztuz, entzuleak, horrelako perpaus bat entzutean, hiztunak testuinguru horretaz dakienaz, eman nahi duen informazioaz, iritzi edo uste batzuk eraikitzen ditu, eta horrekin eta munduko ezagutzak ematen dion informazioarekin, interpretazio bat edo bestea ematen dio perpausari. Testuinguruaz eta hiztunaren iritzien eta nahien berri emateko intonazioak eta perpaus barneko elementuen ordenak garrantzi handia izango dute. Parekotasun semantikoak ere izango du garrantzia, baina kontestu pragmatiko baten barnean bakarrik. Era horretan, lehen aipatu ditugun pertzepzioaren eta interpretazio-erraztasunaren alderdi horiek baino garrantzi handiagoa izango du gertagarritasun pragmatikoak: eguneroko jardunean oso gutxi izaten dira gainera literaturan zehar agertu zaizkigun horiek bezalako adibide isolatuak.

¹⁰⁸ Zenbait autorek semantikaren garrantzia azpimarratu nahi izan dute. Kuno-ren (1976) eta bereziki Thráinsson-en (1975) ustez perpausaren parte hartzen duten izen sintagmen esanahia erabakiorra da irakurketa bata ala bestea erabakitze orduan. Adibidez, ondorengo bezalakoetan hiztunek *Ana* perpaus nagusiko subjektu modura interpretatzeko joera omen dute:

- (i) Amaiak esan du Pellok arrosak Edurneri oparitu dizkiola, eta Anak Mireni oparitu dizkiola.

Thráinsson-en ustez horrelako adibideetan paralelotasun semantikoaren arabera interpretatzeko joera dute hiztunek. Alegia, "neska batek esan du mutil batek neska bati arrosak oparitu dizkiola" eskemaren arabera interpretatzekoa. Beste hitz batzuetan esateko, goiko (i)-n eman ditugun 'edukirik' gabeko izen ezezagun horietan (horrelakoak erabili dira gehien literatura linguistikoan) nolabaiteko erlazioak edo multzoak egiteko aukera ematen zaigunean, hutsunea ezker-muturrean gabe ere interpreta dezakegula.

Nik ez dakit Thráinsson-ek erabiltzen duen adibidea zenbateraino den egokia, baina argi dago benetan garrantzia duena ez dela semantika, baizik munduaren ezagutza. Ikus dezagun adibidez ondorengo perpaus hau:

- (ii) Mikel Zabalak esan du Migel Indurain-ek lauan lortu dituela garaipenik handienak, eta Josu Agirrek aldapa handietan lortu dituela.

Guztiok ulertuko dugu aldapa handietan garaipenak lortu dituela Migel Indurain dela. Interpretazio hori eman ahal izateko, ordea, ez gara semantikan oinarritu: *Mikel Zabala*, *Migel Indurain* eta *Josu Agirre*, hirurak gizonezko izenak dira, eta alde horretatik ez ditu ezerk bereizten (gogoratu Thráinsson-enak). Bereizkuntza egiten duena, eta bidenabar, interpretazio hau eragiten duena, munduaren ezagutza da. Eduki semantikoak badu garrantzia, zalantzarik gabe, baina edukin semantiko hori gerora munduaren ezagutzaren galbahetik pasa behar da, hondakin horiek egoera konkretu batean eta hiztun konkretu batzuentzat duten esanahia hartu behar da kontuan, eta entzuleak elementu horiekin guztiekin berari egokiena iruditzen zaion interpretazioa emango du.

2.2.3.7.3. Laburpena

Beraz, eta laburtuz, ikusi dugu teorian anbiguo izan zitezkeen adibideetatik zenbait eragotziko dituen printzipio sintaktiko berezirik ez dela behar: baztertu beharrekoak hustuketa-egiturek orokorrean bete behar dituzten baldintzak ez betetzeagatik baztertzeko dira. Gaineratikoak anbiguo izango dira, eta interpretatzeko unean egoera pragmatikoaren eta munduaren ezagutzaren arabera jokatu dugu. Inolako aurre-informaziorik gabe agertuko zaizkigun errealitateko kasu gutxietan, pertzepzio edo prozesatze-erraztasunera joko dugu.

2.2.3.8. Aditz Sintagmaren Ezabaketa?

2.2.3.8.0. Sarrera

Juntaduretako elipsiak aztertu dituzten autoreek hustuketaren alboan beste erregela desberdin batez ere hitz egin dute: *Aditz Sintagmaren Ezabaketa* (ASE) deitutako erregelaz. Ingelesean era honetako egituretan perpauseko subjektua agerian izaten da, eta ezabatutako aditz sintagma osoaren ordean aditz laguntzailea besterik ez da agertzen. Itxura honetako adibideak dira:

- (73) a. Peter said that he would read that book, and he has.
b. John doesn't speak Basque, but Peter does.

Brucart-ek gaztelaraz horien parekotzat ondorengo hauek hartzen ditu:

- (174)
a. Los periodistas ganan mucho dinero, y los presentadores de TV también.
b. Luis no estudió demasiado, y yo tampoco.

Honela aurkezten dizkigu (Brucart 1987, 132):

«El tipo de oraciones que vamos a estudiar a continuación presenta la particularidad de realizar todos los elementos de predicado (incluido el núcleo verbal) por medio de categorías vacías. La única marca de la existencia del SV viene dada por la aparición de formas adverbiales relacionadas con la polaridad de la oración anterior.»

Erraz ohartzen gara, jakina, formaren aldetik ingelesekoetatik desberdinak direla. Horregatik esaten du Brucart-ek hasieran «cercano al fenómeno conocido en inglés con el nombre de Elisión de SV» direla; lanean zehar, ordea, biak fenomeno berbera balira bezala tratatzen ditu¹⁰⁹.

Egitura sintaktikoari dagokionez, berriz, bi aukera nagusi erabili dituzte hizkuntzalariek: batzuen ustez oinarrian perpaus osoak sortzen dira, eta deribazioaren azken urratsetan berdinak diren zatien ezabaketa-operazio bat gertatzen da (Sag 1980, Neijt 1979, Zagona 1988, Valmala 1995); beste batzuentzat berriz oinarritik bertatik nolabaiteko kategoria isilak ditugu, eta kategoria isil horiei interpretazioa arau jakin batzuei jarraituz ematen diegu (Williams 1978, Wasow 1979, Napoli 1986¹¹⁰)

Ingelesekoen eta gaztelerazkoen parekoak euskaraz ondorengo hauek izango genituzke:

- (175) a. Ni mendira joan naiz, eta Joxe ere (bai)
b. Ni ez naiz mendira joan, eta Joxe ere ez

Baina ez zait iruditzen ingelesekoen guztiz parekoak direnik. Izan ere, adibideei begira hasi bezain laster ohartzen gara deiturari men egin ezinik geratzen garela: askotan ezin dugu esan aditz sintagma zeharo desagertu denik¹¹¹.

¹⁰⁹ Zagona-k (1988), ordea, ez ditu kontuan hartzen.

¹¹⁰ Análisi desberdinei buruzko ikuspegi orokor baterako, ikus Valmala (1995).

¹¹¹ Lakak ere (1990, 31-35) badarabiltza era honetako adibideak, baina guztiak agerian subjektua bakarrik dutenetakoak dira. Bere lanean adibide hauetan ezabaketa dagoela, eta ezabatu dena osagai dela defendatzen du; horrela, euskarako eta ingeleseko adibideei begiratu proposatzen du ezeztapenaren islapena euskaraz inflexioarena baino gorago dagoela, eta ingelesez beherago dagoela:

- (i) a. Mary bought a book and Peter didn't
b. Marik liburua erosi du eta Peruk ez

Subjektua ezeztapenaren aurretik agertzeak ere berak euskarazko perpausentzat proposatzen duen egiturarekin ez du arazorik sortzen, ageriko argumentuak perpusaren eskuinetara edo ezkerretara mugitzen direla defendatzen baitu:

- (ii) a. [_{IP} pro_i pro_j pro_k eman dio] Irunek_i Iboni_j etxea_k
b. [_{IP} pro_i pro_j pro_k eman dio] Iboni_j etxea_k Irunek_i

(176)

- a. Joxek Parisen lagun onak ditu, eta Erroman ere bai
- b. Datorren urtean Bernardo Atxaga ohorezko asteasuar izendatuko dute, eta Julen Lopetegi ere bai
- c. Jonek ez du haragirik jaten, eta arraultzarik ere ez
- d. Ostegunetan sei t'erdietan amaitzen dut lana, eta ostiraletan ere bai
- e. Gastatu, asko gastatzen du Joxek, baina irabazi ere bai¹¹²
- f. Irabazi, asko irabazten du Joxek, baina lan egin ere bai¹¹³

Euskaltzaindiak ere (1994, 74) dio edozein «atal beregain» ager daitekeela *ere* lokailuaren aurretik¹¹⁴. Zenbaitek esan lezake horrelakoak perpaus-juntadura ez baizik AS-en juntadura direla, eta AS horretan elementu bat ez beste guztiak isilean agertzen direla. Lan honetan, ordea, lehenago ere esan dugun bezala, eten-modu hau dutenak

c. etxea_k Iboni_j [IP Irunek_i pro_j pro_k eman dio]

d. [IP pro_i Iboni_j pro_k eman dio] etxea_k Irunek_i

Beraz, elipsoidun perpausetan hondakin modura osagarri zuzena edo zehar-osagarria agertzen direnean analisi berberarekin jarraitzeko aukera izango genuke. Eta horrez gain agerian ezeztapenaren aurretik agertzen diren elementuak galdegai ezin izana ere egoki azalduko luke. Era honetan datuen berri ematen da eta ingelesaren eta euskararen arteko desberdintasunak arrazoitzen dira.

Proposamen honek guztiz argitu gabe uzten dituen puntuak ere badira ordea. Batetik, hondakinak aditzaren argumentu ez direnean edo aditz-partizipioa bera hondakinen artean agertzen denean zer analisi egin beharko litzatekeen ez da zehazten. Bestalde, era honetako perpausetan ezeztapenaren ordez *bai* aditzondoa daukagunean zail ikusten da ezabaketaren bidea hartzea, ezabatu aurreko perpausuan *bai* ez baita agertzen:

- (iii) a. Ni mendira joan naiz eta Pello ere mendira joan da
- b. Ni mendira joan naiz eta Pello ere bai

Azkenik, era honetako egiturak ingelesez juntaduratik kanpora ere gerta litezke, eta euskararekiko desberdintasunaren zergatia zein den ez dakigu.

¹¹² Ez dut uste edozein aditzekin horrelakorik egin daitekeenik. Adibidez,

- i. ??Utzi, edozer gauza uzten du Jonek, baina eskatu ere bai

Grosu-ren lanean (1985) heterofuntzionalen ezabaketarako behar ziren baldintzekin parekotasun handia du honek.

¹¹³Aspektuaren marka agerian dutenak ere badira. Hona Altunak (1986, 75) dakartzan Axularren adibideak:

- i. «...fintzen direla, eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere galtzen» (Axular, *Gero*, 23 zkia.)
- ii. Halatan galdegiten du, eta ihardesten ere bai, San Gregoriok. Axular, *Gero*, 341 zkia.)

¹¹⁴ Iruditzen zait gauza bertsua gertatzen dela gazteleraz ere:

- (i) a. Yo comí alubias, y tú también.
- b. Anteayer comimos alubias, y ayer también.
- c. Este mes no hemos pagado la electricidad, y tampoco el teléfono.
- d. Yo no he estado en Madrid, y tampoco en Barcelona.

perpaus-juntaduratzat hartzea erabaki dugu. Era horretan hartuz, gainera, askoz errazago esplikatzen dira ondorengo bezalako ordenak:

- (177) a. Haragirik ez du jaten Joxek, eta arraultzarik ere ez.
b. Mendi-aldera sarri joan zen Joxe iaz, eta hondartzara ere bai.

Adibide hauetan -eta lehenago eman ditugun beste batzuetan- subjektua ez da perpausaren lehenengo tokian agertzen, eta ez zait iruditzen aditz sintagmen juntaduratzat hartzeak abantaila handiegirik ekarriko ligukeenik. Ez dirudi, beraz, era honetako egiturak aditz sintagmaren ezabaketatzat hartzeak zentzu handirik duenik.

Bestalde, literaturan zehar proposatu izan da hustuketak eta ASE-k ezaugarri desberdinak dituztela, sintaktikoki ez direla fenomeno berdinak: hustuketa-egiturak, gehienek behintzat, perpaus-gramatikako fenomenotzat hartu dituzte; AS-ren ezabaketa dutenak berriz diskurtso-mailan ere gertatu omen daitezke. Brucart-ek desberdinak direlako ikuspuntua defendatzeko argudioen bilketa moduko bat egiten du¹¹⁵, baina euskararen kasuan bederen nik desberdintasuna baino gehiago berdintasuna ikusten dut: dagoeneko erakutsi dugu hustuketak ere bere baldintza orokorrak betez gero perpaus-mailatik gora jo dezakeela; biak ere hiztun desberdinen artean eraikitako adibideetan gerta litezke (A: *Peru mendira joan da*; B: *Joxe ere bai*); hustuketan bezalaxe, zenbait baldintzazkotan ager liteke (*Joxe mendira joaten bada, ni ere bai*); bai hustuketan bai beste hizkuntzetan ASE deitu izan denaren ordainetan, euskaraz ez dago kategoria edo funtzio sintaktiko jakin bateko hondakinak eragotziko dituen baldintza berezirik.

Desberdintasunik handiena ziurrenera ingelesez gertatzen da: ingelesez era honetako egituek badituzte hustuketak eragotziak dituen zenbait erabilera-esparru. Gerta daiteke, adibidez, menpeko perpausoko aditz sintagma isilean egotea eta interpretatu ahal izateko nagusikora jo behar izatea; edo baita, (178a) adibidean bezala, hutsunea menpeko perpausaren menpekoan egotea. Ikus, adibide modura, Sag-en tesitik (1980) jaso ditudan hauek:

- (178)
a. Although Sandy said she didn't \emptyset , Betsy actually did go to the store. (14. or)

¹¹⁵ Gerora, analisi sintaktikoa egiteko orduan hustuketari ematen dion bera ematen die, eta hutsunea PRO dela esaten du. Gainera bata diskurtsiboa eta bestea perpaus mailakoa izatearen arrazoia ere agertzen du: berak ematen dituen adibideetan hustuketa-egituretan bigarren hondakina beti osagarri zuzena da eta ASE-n beti AS osoa ezabatzen da. Hustuketako osagarri zuzen horrek aurreko perpausetik hartu behar du paper tematikoa. Horregatik, fenomeno orazionala da. ASE-n berriz ez dago horrelakorik. Han *sí*, *no*, *tambien*, *tampoco* agertzen dira, eta hauek ez dute paper tematikorik behar. Hortaz, diskurtsoan egin daiteke. Euskaratik begiratuta honetan guztian zer desegokitasun dauden nabaria da. Analisi hau ezin da aplikatu euskarara.

- b. Gwendolyn hit a single after Sandy did \emptyset . (12. or.)
- c. I spoke with everyone who Tom did \emptyset . (71. or.)
- d. I did the very things which Tom warned me not to \emptyset . (71. or.)
- e. Because Betsy didn't \emptyset , Sandy went to the grocery (in her place). (14. or.)

Euskaraz, ordea, horien guztien parekoak okerrak dira: ez dirudi, bada, jokabide sintaktikoaren aldetik hustuketa-egituretatik bereizteko arrazoirik dagoenik¹¹⁶.

Hustuketa-egiturekin dituzten parekotasun eta desberdintasunez hobeto jabetuko gara beren egitura pragmatikoari begiratzen badiogu. Esan dugu hustuketa-egituretan bi mintzagairi buruz pareko iruzkina egiten dela, beti ere galdegaiak kontrajarriak direlarik. Orain aztertzen ari garen adibiderik gehienetan berriz -ez beti, geroago ikusiko dugun bezala- elkarren pareko diren bi mintzagairi buruz iruzkin bera egiten da:

- (179) a. Joxe mendira joan da, eta Pello $ere_{(mintz)}$ bai $_{(iruzk)}$
 b. Parisen Joxek lagun onak ditu, eta Erroman $ere_{(mintz)}$ bai $_{(iruzk)}$.
 c. Kigalin ez dago euskaldun askorik, eta Mogadiscion $ere_{(mintz)}$ ez $_{(iruzk)}$.

Alegia, hauetan guztietan eskuineko perpauseko hondakina mintzagaitzat hartzen dugu, eta mintzagai horri buruzko iruzkina ezkerreko perpausean eman den bera da, horregatik agertzen da *bai* adberbioa baiezkoetan eta *ez* ezezkoetan. Beraz, pragmatikaren aldetik badute hustuketarekiko desberdintasunik; baina hondakinetakoa bat mintzagaia izateari dagokionez hustuketarekin bat datoz.

Hondakina subjektu modura ez baina mintzagai modura definitzean, gainera, askoz hobeto ulertzen da zergatik ezin ditugun euskarazko adibideak *Aditz Sintagmaren Ezabaketa* deiturapean bildu: mintzagaia subjektua denerako egokia izan zitekeen izen hori, baina mintzagaia perpauseko beste elementuren bat denean, edo fenomeno orotara adierazteko, ez du zentzurik deitura hori erabiltzeak.

Bestalde, egitura hauetan agertzen den hondakina gehienetan subjektua izateak ere ez gaitu harritu behar: ordena neutroko perpaus bat ematean, mintzagaitasun-hierarkian goreneko lekuan subjektua dago (agentea denean batik bat), eta era honetako adibideak ematen direnean naturalki gehienak mintzagai modura subjektua dutenak irteten dira.

¹¹⁶ Van Oirsouw-k (1987) juntaduretako elipsiari buruzko lanean azken hauek bezalako adibideak nahita baztertzen ditu.

«Lokailuaren ezkerrekoaldean geratzen dena mintzagaitzat hartzen dugu, hitz egingo dugunaren erreferentzia-ingurune bezala definitua orain mintzagaia, nahiz eta hor ematen den informazioa ere berria den.»

Hori edo horren oso antzeko zerbait aipatu dugu guk ere, atal honen sarreran, egitura-mota honen zeregin nagusitzat. Guk erabili ditugun adibide guztietan -edo ia guztietan-, hondakinari lehenengo perpausean zegokion kidea ere mintzagai zen gainera. Hau da, ziurrenik, kasurik arruntena, baina badirudi kide modura lehenengo perpausean pragmatikoki beste edozein betebeharrak duten elementuak ere izan litezkeela. Baita galdegaia bera ere, Osaren (1990) aburuz:

- (181) a. Sarak badaki zer gertatzen den, eta Teresak ere bai.
 b. **Sarak** daki zer gertatzen den, eta Teresak ere bai.

Adibide horietarik lehenean *Sara* mintzagai da, eta bigarrenean galdegai. *Teresa*, ordea, bietan mintzagai:

«Bai lehen proposizioko osagaia topiko denean eta bai foku denean, bietan topiko funtzioa bete behar du osagai kontrajarriak eta erreferentzi-hedatzaileak» (Osa 1990, 263-264).

Ere lokailua ondoan jartzeak, beraz, *Teresa* automatikoki topiko bihurtzen du, nahiz eta bere kidea aurreko perpausean galdegai izan.

Iritzi berekoa da Euskaltzaindia ere (1990). Ondorengo adibide hau ematen du:

- (182) A- Nor joango da mendira?
 B- Antton. Eta Amaia ere (bai).

Adibide horretan *Antton* galdegai omen da, baina *Amaia* mintzagai. Beren hitzetan (Euskaltzaindia 1990, 37):

«Eta hori gertatzen da galdera baten erantzunari beste zerbait gaineratzen diogunean ere, (...): "Antton" galdegaia da, horretan ez da dudarik, baina ondokoak "Amaia ere" eransten duenean, "Amaia" ez da galdegaia, mintzagaia baizik, perpaus horretan galdegaia perpausaren baiezkotasuna delarik.»

Ondorengo argudio hau ematen da, adizki sintetikoak erabiliz:

- (183) A- Nor doa mendira?

B- Antton (doa/*badoa)

C- Eta Amaia ere (badoa/*doa)

Horrek erakutsiko luke lehenengo perpausean mintzagai izan, iruzkineko elementu izan ala galdegai izan, bigarrenean *ere*-ren aurretik doana mintzagai dela.

Ni *neu* ere funtsean bat nator aurreko bi horiek esan dutenarekin, baina ohar pare bat egin nahi nuke. Lehena galdegaiaren kontrastibotasunari lotua da. Ezaguna da galdegaia, elementu berrietan berriena eta besteen gaineratik nabarmendu nahi duguna, batzuetan galdegai kontrajarria izaten dela, eta beste batzuetan ez. Bada, gure adibideetako galdegaia kontrajarria balitz, iruditzen zait Osak emandakoaren antzeko adibideak ez direla zilegi:

(184) ??Joxe neuk ikusi dut, eta Amaiak ere bai.

Izenordain indartua erabiltzeak fokuari kontrastibotasuna badakar, adibide honetan esaten da *neu* izan naizela Jon ikusi duena, eta *neu* hori beste ikusle posible guztien multzotik hautatzen da eta beste guztiekiko¹¹⁸ kontrajartzen da. Horrela, goiko adibide hori ez da egokia gertatzen pragmatikaren aldetik: lehenengo bat hautatu dugu eta hura besteei aurkaritzan aurkeztu dugu, eta gero beste batek ere baldintza bera betetzen duela esan dugu, kontraesan bat sortuz. Kontrajartzea lortzeko beste bide bat erlatiboaren bidez markatutako galdegaiak dira, eta horrelakoetan argiago ikusten da kontraesan horren nondik norakoa:

(185) ??Neu izan naiz Joxe ikusi duena, eta Amaia ere bai.

Ildo horretan, iruditzen zait Euskaltzaindiaren (1990) auzia aurkezteko erak nire ikuspegi horri indar eman diezaiokeela. Izan ere, goiko pasarte horretan esandakoa kontuz irakurriz, badirudi, ohartuki ala oharkabean, kontraesan-arriskua uxatzeko zenbait neurri hartu dituztela¹¹⁹:

«Eta hori gertatzen da galdera baten erantzunari **beste zerbait gaineratzen** diogunean ere, (...): "Antton" galdegaia da, horretan ez da dudarik, baina **ondokoak** "Amaia ere" **eransten** duenean, "Amaia" ez da galdegaia, mintzagaia baizik, perpaus horretan galdegaia perpausaren baiezkitasuna delarik.»

¹¹⁸ Beste zenbait kontestutan gerta daiteke *neu* horrek aurkaritzat beste pertsona jakin bat edukitzea, edo pertsona bat baino gehiago edukitzea.

¹¹⁹ Letra lodiz dauden zaitak nik markatu ditut.

Alegia, badirudi Euskaltzaindiaren (1990) adibidean hiztun bat baino gehiago daudela suposatu behar dela, eta batek ematen ez duen daturen bat beste norbaitek osatzen duela, gaineratzen duela. Edo bestela, hiztun berak erantzuna eman ondoren, erantzunaren egokitasun-ezaz oharturik, erantzuna osatze aldera edo, lehen esandakoari zerbait gaineratzen diola, zehaztapen edo zuzenketa bat egiten diola. Horren alde egongo lirateke, baita ere, etena adierazteko koma ez baino puntua erabiltzea, eta *eta* juntagailua ez agertzea.

Guk (184)-n eman dugun adibidean berriz, suposatzen da pertsona bakarrak esaten dituela biak, eta pragmatikoki nahikoa arraroa gertatzen da lehenengo elementu bat beste guztiei kontrajarri ondoren, pertsona berak perpaus berean elementu horren ezaugarriak betetzen dituen beste bat ere badela esatea.

Beraz, orain artekoaren arabera, esan dezakegu *ere*-ren aurretik doan hondakina bigarren perpausoko mintzagaitzat hartu behar dugula eta kide modura lehenengo perpausoko edozein elementu izan dezakeela, galdegai kontrajarria izan ezik.

Ildo honetan, ohartzen gara hustuketa-egiturekiko erlazioa oso estua dela. Han aztertu ditugun egituretako zenbait era honetakoak ziren:

- (186) a. Joxe mendira joan da, eta Pello (berriz) ez.
 b. Anchorage-n ez dago euskaldun askorik, baina Boise-n bai.

Ikusten dugunez, hondakin bat eta *bai/ez* adberbioak azaltzen zaizkigu. Lokailuren bat ere ager liteke. Hondakina mintzagai modura hartzen da. Itxura orokorrari dagokionez, beraz, berdin berdinak dira, eta gure ustez egitura sintaktikoa ere berdina izango da: mintzagaia perpausaren gorenko adabegian egongo da, eta Ortiz de Urbinari jarraitzen badiogu galdegaia mugimenduaren ondoren KONP-en espezifikatzaile lekuan; gaineratikoa suposa dezakegu aurreko perpausarekiko berdintasunagatik ezabaturik ageri dela.

$$[_? \text{ mintz } [_{\text{komp}''} \text{ gald } [_{\text{komp}'} \emptyset]]]$$

Desberdintasuna zera da: hustuketan aztertu ditugunetan bigarren perpausuan agertzen den adberbioa (*bai/ez*) lehenengo perpausokoaren aurkakoa dela. Horrela, lehenengo perpausoko mintzagaiari buruz egin dugun iruzkina bigarren mintzagaiari buruz ez dela zuzena adierazten dugu. Horregatik erabiltzen da, hain zuzen ere, aurkako polaritatea: perpaus batean baietz esandakoari ezezkoa emateko, edo alderantziz, mintzagai bati

buruz ukatutakoa hurrengoaz baiesteko¹²⁰. Lokailu desberdinak hautatzea ere horren ondorio da. Baina berriro ere, aurreko atalean esan dugunari jarraiki, perpaus hauetako galdegaia aditzaren baiezkotasuna edo ezezkotasuna izango da, eta aurrekoek zituzten baldintza eta ezaugarri berberak izango dituzte.

2.2.3.8.2. Hondakin bat baino gehiago

Aurreko adibide guztietan baiezkotasuna edo ezezkotasuna adierazten duen elementuaz gain hondakin bakarra aurkitzen genuen. Euskarak badu ordea bi hondakin edo gehiago uzteko aukera:

(187) Joxek ni ikusi nau, eta nik ere bai Joxe

Literaturan zehar era honetako adibideek ez dute arreta handirik erakarri. *Ere*-ren erabilera aztertzean, Goenagak (1985, 241) zera zioen:

«ERE elementuarekin perpausak elkartu ahal izateko, elementu bakarra izan behar du desberdina.»

Egia da gehinetan hala izan ohi dela, baina (187) bezalakoak aurkitzea ere ez da hain zaila:

(188) a. Joxek ni ez nau agurtu, eta nik ere ez Joxe.
b. Joxek niri ez dit barkatu, eta nik ere ez Joxeri.

Izan ere, egitura hauek onartzeko unean berriro ere mintzagai-egituraren egokitasunak baitu zeresana, desberdinak diren elementuen kopuruak baino gehiago.

Bestalde, argi dago hondakin bakarrekoen multzo berean sartu beharrekoak direla, egitura-mota berbera direla, eta behin gehiago ikusten dugu horrelakoak AS-ren

¹²⁰ Alor honetan iruditzen zait Euskaltzaindiak (1994, 189) beste era batera interpreta litekeen baieztapen bat egiten duela. Honela dio:

«Ondoko adibide hauetan, esate baterako, perpausak ez baina hauen iruzkinak dira juntatzen direnak, juntagai biek mintzagai nagusi bakarra dutelarik:

(23)
a. Azeri zaarrari ulia jua, baña antza ez. (J.A. Moguel, *Peru Abarka*, 122)
b. Gaurko egunean kaletarrak ondo bizi dira, baina nekazariak gaizki »

Auzia ez da guztiz argi geratzen, baina badirudi kasu honetan *antza* eta *nekazariak* mintzagaitzat ez hartzearen aldeko direla, iruzkinaren barnean biltzen dituztela. Horrela egitea, ene ustez, beren lanean erabili den bidetik aldentzea da, eta ez zait iruditzen gainera zuzena denik: esate baterako, elementu horiei *berriz* lokailua erants dakieke, eta lokailu horren aurretik doana mintzagaitzat hartu ohi da.

ezabaketatzat hartzeak ez duela zentzurik: lokailuaz eta baieztapenaz edo ezeztapenaz gain beste bi hondakin badaude, bi horietako bat nahitaez aditz sintagmaren barneko elementua izango da. Eta are gehiago, aurreko atalekoekin gertatzen zen bezalaxe, zilegi da bi hondakinak aditz sintagmaren barnekoak izatea, baldin pragmatikaren eskaerak zuzen betetzen badituzte:

(189) Nik Josuneri loreak oparitu dizkiot, eta Mireni liburua ere bai

Aditz sintagmen juntaduratzat ez hartzeko arrazoiak lehenago eman ditugu.

Ezaugarri pragmatikoei dagokienez ere hondakin bakarrekoen parekoak dira - mintzagai desberdinei buruz pareko iruzkina-, baina zenbaitetan gauzak korapilatu egiten dira. Bi hondakin baino gehiagoko adibideetan *ere* lokailua leku batean baino gehiagotan ager daiteke. Agertzen den lekuaren arabera, erabiltzen dugun intonazioaren arabera, eta egiten ditugun etenen arabera, perpaus horien mintzagai-egitura zeharo aldatzen da. Orduan, batzuetan desberdintasunak sintaktikoki agertzeko arazoak izango ditugu. Begira diezaiozun, esate baterako, ondorengo honi (letra lodiak enfasia adierazten du):

(190) Joxek arraina **jan du**, eta Mirenek ere bai haragia.

(144)-rekin ulertzen duguna da Mirenek haragia jan duela, beraz, lehenengo perpausarekiko berdintasuna jatean dago, jan izanean, eta ez jan duenean. *Mirenek* eta *haragia* mintzagai modura ulertu beharko genituzke, eta aditzaren baiezkotasuna izango genuke galdegaia. Lehentxeago eman dugun egitura sintaktikoari jarraituz, Mirenek mintzagaia perpausaren gainetik zintzilik egongo litzateke, *bai* aditzondoa KONP-en espezifikatzaile lekuan, eta *haragia* ziurrenera perpausari eskuinetara adjuntaturik (Laka 1990).

Baina bi hondakinen artean gabe, *ere* lokailua bien ondoren ere ager daiteke:

(191) Joxek arraina jan du, eta Mirenek haragia ere bai.

(191)-k bi interpretazio izan ditzake: ohikoena da Mirenek arraina eta haragia biak jan dituela ulertzea; beste interpretazioa, Altunak (1986, 80-84) adierazten duen bezala, [Joxek arraina] jatea jazo den bezala, [Mirenek haragia] jatea ere gertatu dela. Alegia, (190)-eko interpretazio bera. (191)-k dituen bi interpretazio horien artean desberdintzeko intonazioa erabiltzen dugu. Lehenengoan, *ere* lokailua *haragia*-ri loturik doa; bigarrenera, *Mirenek haragia* osoari:

- (192) a. Joxek arraina jan du, eta Mirenek [haragia ere] bai
 b. Joxek arraina jan du, eta [Mirenek haragia ere] bai

Hori dela eta, (148a)-n *Mirenek* perpausean atzera botatzen badugu ere, interpretazio bera eman ahal izango diogu:

- (193) Joxek arraina jan du, eta haragia ere bai Mirenek.

Baina beste interpretazioa lortzeko inolako aukerarik ez dugu izango.

Esan dugu, baita ere, bigarren interpretazioa (Mirenek haragia jatea ere gertatu da) lehena baino markatuxeagoa dela, ez dela lehena bezain arrunta. Hori baldintza pragmatikoen ondorio besterik ez da: (192b) esan ahal izateko egoera pragmatikoa ez baita bestearena bezain komuna. Dena den, hain zaila ere ez. Horrelako interpretazioa erraz onartzen dutenak (187) eta (188) bezalako adibideak dira, nolabaiteko reziprokotasuna agertzen dutenak:

- (194) Nik Joxe maite dut, eta Joxek ni ere bai

Horrelakoetan intonazioaren bidez *Nik Joxe* eta *Joxek ni* bildu egiten ditugu. Eta, (190)-en gertatzen zen bezalaxe, lehenengo perpausean aditzaren baiezkotasuna bakarrik izan daiteke galdegai:

- (195) a. *Joxek **arraina** jan du, eta Mirenek haragia ere bai
 b. *Arraina **Joxek** jan du, eta Mirenek haragia ere bai
 c. Joxek arraina **jan du**, eta Mirenek haragia ere bai

(191) adibideak (*Joxek arraina jan du, eta Mirenek haragia ere bai*) bi irakurketa desberdin horiek dituelarik, bai pragmatikaren aldetik bai sintaxiaren aldetik bien artean zer desberdintasun dagoen agertzeko baliabide argirik ez dugu. Pragmatikari dagokionez badirudi bietan ere bai *Mirenek* bai *haragia* mintzagaitzat hartu beharko genituzkeela. (192b) interpretazioan bi mintzagaiak maila berean egongo lirarteke. Beraz, kontuan izanik *bai* adberbioak galdegaiei dagokien lekuan egon beharko lukeela eta mintzagaiak egituran gorago irudikatu ohi direla:

- (196) [_? Mirenek haragia ere [_{komp}" bai [_{komp}' ø]]]

Nabarmendu behar dugu, dena den, perpausaren gorenetik zintzilikatutako mintzagai hori ez dela inolaz ere osagai bakar bat, osagai-segida bat baizik. Altunak ere ematen digu era honetako mintzagai konplexua izango lukeen adibide bat (Altuna 1986, 81):

(197)

Yon gaur mendira amarekin joan da, eta Mikel atzo elizara aitarekin ere_(mintz)
bai

Euskaraz topikalizatutako nahiz fokalizatutako elementuak osagai bakarra direnerako egitura sintaktikoan zer kokagune eta operazioen bidez berri eman litekeen azaltzeko proposamenak badira, baina galdegai edo mintzagai horiek konplexuagoak direnean sintaktikoki nola tratatu arazo izaten jarraitzen du oraindik.

Beste interpretazioari helduz, alegia, (192a)-koari (Mirenek arraina eta haragia jan ditu), bi mintzagaien artean desberdintasuna gertatzen da: ere lokailua haragia-ri bakarrik doa loturik, eta ondorioz, elementu hori bakarrik jarriko da aurreko perpausari begira. Horren berri emateko bide bat mintzagaiko elementuen artean nolabaiteko hierarkizazioaren bat dagoela proposatzea izan liteke¹²¹, nahiz bestelako irtenbideak ere egon litezkeen.

2.2.3.8.3. Galdegaien aurkaritza

Amaitzeko, bada egitura-mota bat itxuraz aurreko hauen oso antzekoa, baina sintaxiaren aldetik ezaugarri desberdinak dituena:

(198)

a. Joxe joan da mendira, eta ez Pello.

b. «Ene haurreri aita bat nahi diotet eman, eta ez biga.»(P. Larzabal, ed. P. Xarriton, 1991, *Piarres Larzabalen Idazlanak*, 242)

Hauek (199) bezalakoekin dute antzik handiena:

¹²¹ Ziurrenera adibide gehiagotan ere proposatu beharko da horrelako zerbait:

(i) Atzo, Jonek, zinetatik etorri ondoren, liburu bat oso osorik irakurri zuen

Bide bat mintzagai horiek elkarri adjuntaturik daudela aldarrikatzea izan liteke.

(199) Joxe mendira joan da, eta Pello ez Itxurari begiratuta *ez* adberbioa lekuz aldatu besterik ez dugu egin. Baina horrek ondorio garrantzitsuak ditu. Badirudi adibide horietako hondakina galdegai modura hartu behar dugula nahitaez eta lehenengo perpausean galdegai denari kontrajartzen zaiola. Bestelako adibideak eragotzita daude:

- (200) a. ***Mendira** joan da Joxe, eta ez Pello
b. * **Joan da** mendira Joxe, eta ez Pello

(b) adibideari begiratu zahartzen gara *ez* ezin dela orain galdegai izan, lehenengo perpauseko aditzaren baietzaren galdegaitasunari ezin diola gogor egin, eta inolako iruzkinen ordezeko ere ez dela. Bestalde, (199)-n hondakinaren mintzagaitasuna -eta aldi berean aurkaritza- marka zitzakeen *berriz* bezalako lokailuak debekaturik daude era honetako egituretan:

- (201) ***Joxe** joan da mendira, eta ez Pello berriz

Orain arteko adibide guztietan lehenengo perpausa baiezkoa genuen eta galdegai kontrajarria *ez*-en ondoren agertu zaigu. Beste aukera bat da ezezeko perpaus batean galdegai den elementuaren aurkaritzan bigarren galdegai bat ematea. Horrelakoetan *baizik* erabili ohi da:

- (202) Joxe ez da *mendira* joan, hondartzara baizik

2.2.3.8.3.1. Perpausak ala osagaiak?

Alor sintaktikoari dagokionez, elkarren artean kontrastatzen diren elementu bakarrak galdegaiak¹²² direla kontuan izanik zenbait autorek (Bosque 1984, Brucart 1987, Laka

¹²² Euskaltzaindiak (1994, 200) dio bata bestearekiko kontrasteen ipini ahal izateko galdegai horiek funtzionalki homologoak izan behar dutela, alegia, "galdera berari" erantzun behar diotela:

- i. ?Ez naiz *zurekin* joango, *astelehenean* baizik

Aitortzen dute, dena den, pragmatikak garrantzi handia duela, eta ondorengo bezalako galdera baten erantzun modura onargarri izan litekeela:

- ii. Zer, nirekin joango zara gero ala trenez *astelehenean*?

1990¹²³) proposatu dute adibide hauek ez direla benetako perpaus elkarketa eta ez dagoela isildutako perpausik edo ezabaketarik. Ikuspegi horren alde egon daitezkeen zenbait datu ere aurkezten dituzte.

Hasteko, ikusten dugu galdegai-aurkaritzadun adibideetako hondakina, (203b)-koa ez bezala, lehenengo perpausean tarteka daitekeela:

- (203) a. Joxe, eta ez Pello, joan da mendira.
b. *Joxe, eta Pello ez, joan da mendira.

Horrez gain, ezin da aurreko perpausarekiko eten oso nabaririk egin:

- (204) a. Joxe mendira joan da. Eta Pello ere bai.
b. ?*Joxe joan da mendira. Eta ez Pello.

Ildo berean, hiztun desberdinen artean ere bestea baino nekezago gertatzen delakoan nago:

- (205) A- Joxe mendira joan da.
B- Eta Pello ere bai.

- (206) A- Joxe joan da mendira.
B- ?? Eta ez Pello.

Brucart-ek ere (1987, 147-151) ematen ditu hari bereko arrazoiak:

Horren arrazoa zera izango litzateke beren ustez: isilpean utzitako osagaiek kontrastagarri egiten dituztela galdegaiak; alegia, *zurekin (gero)-autobusean (astelehenean)*.

Niri pragmatikari egiten zaion aipamena egokia iruditzen zait, baina ez dut uste horrelako bat onargarri izateko nahitaz aurreko galderarik eskatzen duenik: nahikoa da hiztunek, egoeraz duten ezagutzagatik, pertsona horrekin joateak astelehena ez den garairen batean joatea dakarrela jakitea. Horrela, ez luke zentzurik izango «isilpean utzitako osagaiez» hitz egiteak: auzia pragmatikoa izango litzateke, ez sintaktikoa. Horixe bera aipatu dugu hustuketa-egituretako paralelismoari buruz jardun dugunean ere.

¹²³ Brucart-ek (1987, 146) *complemento explicativo o parentético* deitzen dio. Lakak (1990, 34) ondorengo adibide hau ematen du:

- (i) MARIK erosi du liburua, ez PERUK

Eta honela deskribatzen du egitura: «... both subjects are focalized. Constituent negation in Basque precedes the constituent it has scope over». Arrazoen berri ez du ematen. Berak horrelakoetan perpausen juntadurarik ikusten ez badu ere, hondakinak eta ezeztapenak alderantzizko ordena zuten adibideetarako eman duen esplikazioa ongi egokituko litzateke hauetarako ere, ezeztapendun perpausetan elementuren bat fokalizatu nahi denean ezeztapenaren ondoren joan ohi baita. Badu ordea arazo bat: perpausa dagoela onartzen bada, osagai ez-jarraikorra ezabatu beharko genuke zenbaitetan, aditz laguntzailea tartean geratuko bailitzateke.

(207)

- a. María lleva a sus hijos al colegio y Pedro no, pero los llevará pronto
- b. *MARIA lleva a sus hijos al colegio, y no Pedro, pero los llevará pronto

Alegia, lehenean y *Pedro no* perpausa da, eta ondoren aurkaritzako perpaus bat gehi dakioko. Bigarreanean berriz, y *no Pedro* ez da perpausa, eta horregatik ez du zentzurik aurkaritzako hori gehitzeak. Gauza bera gertatzen da bigarren perpausari buruzkoak diren kausalak eta antzerakoak gehitzean ere:

(208)

- a. María vivía en Barcelona, pero Pedro no, porque prefería estar alejado del ruido y la contaminación.
- b. *MARIA vivía en Barcelona, pero no Pedro, porque prefería estar alejado del ruido y la contaminación.

Alderantziz, erlatibozko perpausa bigarrenaren moldekoei bakarrik gehi dakieke:

(209)

- a. *María lleva a sus hijos al colegio, y Pedro no, que dice que los llevará pronto
- b. MARIA lleva a sus hijos al colegio, y no Pedro, que dice que los llevará pronto

Beraz, oro har, ikusten dugu lehenengo moldekoek perpaus baten modura jokatzeko duela, eta bigarrenekoek (galdegaien aurkaritzak) berriz osagai baten modura.

Bi egitura-mota horien desberdintasunaren aldeko beste argudio bat ere proposatu izan da. Lan honetan aztertzen ari garen erako egiturak ezabaketa bidez sortuak direla defendatzen zen garaian, hizkuntzalari askok zioten galdegaien aurkaritzak duten hauetan ezin egon zitekeela ez ezabaketarik ez elipsirik, hain zuzen ere baliokide izango zen perpaus osorik ez zegoelako. Horrela, (210)-en elipsidunak eta elipsirik gabeak gauza bera esaten digute, elkarren baliokide dira; (211)-n berriz desberdintasuna somatzen zuten bi adibideen artean:

- (210) a. El sábado tengo fiesta, y el domingo no tengo fiesta
- b. El sábado tengo fiesta, y el domingo no.

- (211) a. El sábado tengo fiesta, y el domingo no tengo fiesta
- b. El sábado tengo fiesta, y no el domingo.

Horregatik, beste hizkuntzetan auzi hauetaz arduratu zirenek proposatu zuten (210) bezalakoetan elipsia bazegoela, baina gu orain aztertzen ari garen kontrastedun hauetan ez zela horrelakorik.

Euskaltzaindiarenean ere (1994, 198-199) bada une batez honen antzeko zerbait iradokiaraz diezagukeen aipamen bat. Aztergai duten adibidea ondorengo hau da:

(212) Ez da *alaba* jaiki, *ama* baizik

Honela mintzo zaizkigu:

«Mintzagaia bakarra da -jaikitze-kontua, hain zuzen- eta hari buruz eginiko galdegaia, berriz, konplexua. Horregatik esan liteke azken perpaus honetako juntagaiak -bata ezezka eta bestea baiezka- ez direla bata besteari gehiturikoak, elkarren osagarriak baizik, korrelatiboak banakaritzan bezala. Izan ere, *bai...bai* edo *ez...ez* banakaritzaren ondoan, *ez...baizik* gisakoa daukagu.»

Ondorengo hau ere gaineratzen dute:

«Molde horretako kontrastea aditzera ematen dituzten [sic] perpausak bi osagai dituzte, bata baiezka eta bestea ezezka formulatuak.»

Badirudi, beraz, ulertu behar dela perpaus bakarra dugula, eta juntagailuaz eskuinetara dagoen galdegaia era batera edo bestera perpaus bakar horretako parte dela¹²⁴. Irtenbide hau hobetsiz, ordea, egitura sintaktiko zehatza ematea ez da hain erraza gertatzen: perpausa ez baina osagaia badugu, ezin da hitz egin kategoria hutsez edo ezabaketez; gogoan izan behar dugu gainera perpaus leku batean baino gehiagotan tartekaturik ager litekeela. Ondorengo hauek guztiak eta beste batzuk ere posible dira:

- (213) a. Mikelek atzo Pellori erosi zion autoa, ez niri
 b. Ez niri, Mikelek atzo autoa Pellori erosi zion
 c. Ez niri, Pellori erosi zion atzo autoa Mikelek
 d. Mikelek ez niri, Pellori erosi zion atzo autoa
 e. Mikelek atzo ez niri, Pellori erosi zion autoa
 f. Mikelek atzo autoa ez niri, Pellori erosi zion

Osagai ez-jarraikorren bidea alde batera uzten badugu, irtenbide bakarra deribazioan berandu samar gertatuko litzatekeen adjuntzio-mugimendu bat izango litzateke.

¹²⁴ «*Joxe etorri da, eta ez Pello*» bezalakoetan, esan dugu ezeztapena ez dela oraingoan galdegai eta ez duela inolako iruzkinen ordezkotzarik egiten. Euskaltzaindiak *ez...baizik*-i buruz esaten duenari jarraituz, agian pentsa liteke hori ere nolabaiteko banakaritza-formularen bateko parte dela.

Nolanahi ere, parentetikoekin edo *oso* bezalako elementuekin sortzen zaigun arazo bertsua izango genuke.

Perpaus bakarra dugulako ikuspegiak ere baditu ordea zenbait arazo. Lanak aurrera egin ahala badirudi Euskaltzaindia bera ere (1994) perpaus-juntadura eta ezabaketaren aldeko ikuspuntu batera lerratzen dela¹²⁵. Horretarako komenigarri da juntagailuaz eskuinetara hondakin bat -horrela deituko diegu lan guztian- baino gehiago uzteko aukerez hitz egitea.

Ohikoena kontrastatutako galdegaia sintagma bakarrekoa izatea bada ere, zenbaitetan galdegai konplexuagoak aurkitzen ditugu¹²⁶. Ikus, esaterako, lehenago Osarenetik (1990, 210) ekarri dugun hura:

(214) Aitak ez du *untzia leihotik* aurdiki, *untzikoa atetik* baizik.

Zera esaten zuen:

«... badaiteke, dena den, osagarri [sic] biak galdegai izatea ere, nahiz eta egiaz gehienetan hala gertatuko ez den»

Bosque-k ere (1984, 192) badu era honetako gaztelerazko adibide bat, eta ez dio inolako oztoporik somatzen:

(215) María invitó a Pedro a cenar, y no a Ana a comer

Ezta hondakin gehiagokoetarako ere:

(216)

María envió una carta a su jefe el martes, y no una postal a su novio el lunes

¹²⁵ Altuna (1986) ez da zuzenki maila honetako auziez arduratzen, baina badirudi berak ere bi bi perpaus dituela buruan. Ondorengoa bezalako adibidek darabiltza:

...euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak

Eta zera esaten du (Altuna 1986, 18):

«Garbi dago, bestalde, adizkiaren elipsi bidez sortzen direla horrelakoak.»

Elipsiari buruzko aipamena alde batera utziz, aurreragoko adibideetan juntagailuaz eskuinetara adizkia ere ager litekeela ikusiko dugu.

¹²⁶ Goenagak (1984, 245) zioen, lehenago *ere* zutenekin bezala, *baizik* erabili ahal izateko bi perpaus elementu bakarra behar zutela desberdina.

Egoera pragmatikoak hala eskatuz gero, ez da horrelakoak erabiltzeko arazorik ikusten. Euskaltzaindiak (1994, 201-202) Aditza bera agerian duen adibide bat ere ematen digu:

(217) Haren hautsak ez zituzten itsasora bota, mendian zabaldu baizik

Geuk asmatutakoa:

(218)

Etxera astorik gabe agertu zen, baina Joxek ez zuen astoa ferian saldu, gehiegi edan eta herrian ahaztuta utzi baizik.

Euskaltzaindiaren adibidean badirudi *itsasora bota* eta *mendian zabaldu* direla elkarri kontrajartzen zaizkion galdegaiak; gurean *ferian saldu* eta *gehiegi edan eta herrian ahaztuta utzi* izango lirateke; horrelakoetan, galdegai konplexuak ditugularik Aditza ere barne dutenetan, zailago egiten da perpaus bakarra dugula eta ezabaketarik edo kategoria hutsik ez dagoela mantentzea. Dena den, funtsean (213)-koen ezaugarri berberak dituzte adibide hauek ere: bi galdegai kontrajartzen dira. Arazoa, behin gehiago, galdegai horiek osagai bakarrekoak ez baizik konplexuagoak direnean sintaxiaren aldetik zer tratamendu izan behar duten.

2.2.3.9. Laburpena

Atal luze honetan zehar euskarazko hustuketa-egituren deskribapena egiten jardun dugu. Abiaburutzat beste hizkuntzetarako egin diren lanak hartu ditugu, eta haietarako proposatu diren debeku eta baldintzak aztertzen saiatu gara. Ohartu gara debeku haietako asko euskararako behinik behin ez direla egokiak. Orokorrean hustuketaren ikuspegi zurrunegia erabili dela ikusi dugu. Arrazoa zein den ere agertu dugu: hustuketa karakterizatzekeo sintaxi-egiturari bakarrik begiratu zaio, hustuketa-egituren ezaugarri pragmatikoei jaramonik egin gabe. Horrela, berez ordena neutroko perpausak izan ohi duten egitura pragmatikoari dagozkion zenbait ezaugarri eta debeku, egitura sintaktikoari dagozkionak bezala interpretatu dira (eta isolaturik eta nahikoa 'ad hoc' gertatzen ziren), eta euskararentzako bederen desegokiak gertatzen dira.

Lehenik, ikusi dugu hustuketa perpausaren joko-esparrutik at ere gerta daitekeela (2.2.3.2.), zenbait baldintza betez gero berbaldiko beste perpaus aske batekiko berdintasunak zilegi egin dezakeela hustuketa. Gero (2.2.3.3.), konturatu gara hustuketa-egiturak paralelotasun handiko egiturak direla, baina literaturako lanik gehienek erabili duten ideiaren aurka, erakutsi dugu paralelotasun hori oinarrian egitura

pragmatikokoa dela, eta hustuketan parte hartzen duten bi perpausen artean ez dagoela gutzizko parekotasun sintaktikoaren beharrik: eskuineko perpausean ezkerrekoan ageri ez den osagairen bat izatea sarri gertatzen da; eskuineko perpausean ezkerreko elementuren batek kiderik ez badu, ez da nahitaezko beti eskuineko perpausean ulertzea; eta are garrantzitsuagoa, gerta liteke bi perpausetan aurrez aurre jartzen ditugun elementuak kategoria sintaktiko desberdinekoak izatea, nahiz egiatan horrelako gutxi izaten den. Bestalde, ingeleseko aditzondoei buruz proposatu izan den debekuaren aztarnarik ez dugu aurkitu euskaraz (2.2.3.4.). Literaturako beste aldarrikapen garrantzitsu bat ezeztapendun perpausen ingurukoa da (2.2.3.5.): proposatu izan da ezezko perpausetan debekaturik dagoela hustuketa. Guk erakutsi dugu euskaraz debeku hori ez dela zuzena, eta ez dagoela era honetako debeku berezirik: kasurik arruntenetan hala gertatzen bada ezezko perpausen juntaduretan askotan hustuketarako baldintza orokorrak betetzen ez direlako da, baina baldintza horiek betetzen direnean beste edozein perpausetan bezala aurkitzen dira hustuketadunak ezezko perpausetan ere. Auzi orokorrak hondakinei eta anbiguotasunari buruzkoak dira. Literaturan egindako aldarrikapenen aurka, ikusi dugu euskaraz ez dagoela hondakinen kopuruari edo kokapen sintaktikoari buruzko debeku berezirik. Hondakin zein izan litezkeen jakiteko fokalizazioari begiratu diogu (2.2.3.6.). Eta hari horretan, euskaraz ez dugu somatu anbiguo izan zitezkeen adibideei buruzko debeku berezien beharrik (2.2.3.7.): irakurketaren bat eragotzita badago, hustuketaren baldintza orokorrak betetzen ez dituelako da; gainerakoek anbiguo izateko aukera dute, eta eragina zer faktorek izan lezaketen aztertu dugu. Azkenik ingelesez *Aditz Sintagmaren Ezabaketa* deitu izan denaren euskal ordainak dauzkagu (2.2.3.8.): ikusi dugu deitura hori ez dagoela mantentzerik, eta egokiena hustuketarekin batera biltzea dela, ezaugarri guztietan bat etortzen baitira. Maila orokorrak batean, ohartu gara hustutako perpausetan hondakinetatik bat mintzagaitzat hartu ohi dela eta bestea galdegaitzat; hustuketa-egituren alderdi pragmatikoari begiratu eta alderdi pragmatiko hori euskaraz sintaktikoki nola gauzatzen den kontuan izanik iruditzen zaigu literaturan egin diren proposamenekin baino hobeki esplikatzen direla hustuketa-egituren ezaugarriak.

2.2.4. Ondorioak

2.1.1. eta 2.2.1. ataletan hustuketaren fenomenoak tratatzeko hurbilketa desberdinen berri eman dugu. Guk hustuketaz dugun ikuspegia ere lanean zehar azalduz joan gara, baina aurreko lanen baloraziorik ez dugu egin. Hustuketa-egituren ezaugarriak aztertzeke unean esan duguna kontuan izanik, ohartzen gara literaturan

egindako analisisietako askok desegokitasunak dituztela. Euskarari buruzko lanetan (2.1.1.) ezabaketaren hipotesia erabili da. Garaiko korronteei jarraituz Gastañagak (1977) eta Salaberrik (1985) ezabaketa-erregelak proposatzen dituzte, baina darabiltzaten adibideak oso sinpleak dira. Eguzkitzak (1986) esaten zuen hustuketan A-egiturako osagaiak ezabatzen zirela, zehazki, berak euskal perpausari ematen dion egituran [focus + A + INFL]-ek osatuko luketen osagaia. Aldarrikapen horrek alderdi batean baino gehiagotan ditu hutsak: batetik, galdegaia isilean ez baino agerian izaten da, eta galdegaia bigarren perpausuan agerian izatea da gainera hustuketa definitzen duen ezaugarrietako bat; bestetik, aditza bera ere gera liteke zenbaitetan agerian; azkenik, elementu gehiago ere izan litezke isilean. Artiagoitiak ere (1995) zeharbidez bakarrik hitz egiten du hustuketaz, eta erabiltzen dituen adibideetan aditz nagusia eta/edo laguntzailea bakarrik dauzkagu isilean; bere aldarrikapenez aurrerago (2.4.3.) hitz egingo dugu.

Literaturan zehar egin diren analisisietako askotan arazoak sortzen dituen perpausen arteko nahitaezko paralelotasun-ezari buruz esandakoa dugu. Alegia, esan dugu hustuketa-egiturak paraleloak izaten direla, baina paralelotasun hori pragmatikoa da funtsean, ez sintaktikoa, eta ondorioz, gerta litekeela sintaxiaren aldetik bi perpausak egitura guztiz paraleloa ez izatea. Sintaktikoki paralelo gertatzen ez diren adibideen berri ematerik ez lukete izango hurbilketetako askok eta askok: hustuketan perpausak ez baino osagaiak juntatzen direla dioen analisiari (Sobin 1982) ezinezko gertatzen zaio horren berri ematea, hustutako perpausuan agertzen den elementu bakoitza perpaus osoko beste elementu batekin juntaturik irudikatzen baitu; GPSG-koek eta dependentzien gramatikaren ildoan Hudson-ek egindako proposamenean (1989) hondakinak aurreko perpausuan ordezkatzeari hitz egiten ziguten, beraz, ez da ikusten paralelotasun-ezari nola egin diezaioketen aurre; gramatika kategorialek ohiko kategorien definizioa zabalduz eman nahi dute hustuketaren berri, baina nire ustez arazoak izango lituzkete kategoria desberdineko hondakinak dituztenekin eta eskuineko perpausuan ulertu gabe uzten ditugun ezkerreko elementuekin; hiru dimentsiotako analisiak guztizko paralelismoaren gainean daude eraikiak. Proposamen hauetako askotan adibiderik oinarritzeko besterik ez diete heldu.

Gure proposamena egiterakoan hustuketaren egitura pragmatikotik abiatu gara:

(68)

<u>Mikelen amak</u>	<u>sei liburu</u>	oparitu zizkidan,	eta <u>nire aitonak</u>	<u>mendiko botak</u>	ø	ø
mintzagaia	galdegaia		mintzagaia'	galdegaia'		
	iruzkina			iruzkina		

Euskaraz era horretako informazio pragmatikoa sintaktikoki era berezi batera adierazi ohi da, eta horregatik sintaxi-egituran kokagune bereziak proposatu izan dira (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Artiagoitia 1995). Mintzagaiaren kasuan zehazki zer tratamendu eman ez dago argi, baina fokalizatutako elementuei dagokienez guztiak bat datoz mugimendua egon dela onartzean. Hustuketan ere horrelako zerbait gertatu dela sinesteko datuak badira: hondakinetako bat ezkerreko perpauseko galdegaiari kontrajarri behar zaio, berau ere galdegai delarik; fokalizazioan eta NZ-hitzen mugimendua egiturazko distantzia jakin baten arabera bakarrik egin litezke, eta gauza bera gertatzen da hustuketan ere (2.2.3.6./2.2.3.7.); galdegai modura interpretatu beharreko hondakina aditza denean fokalizatuta dagoenean bezalako forma izan ohi du.

Analisi honen abantaila egitura pragmatikoa eta egitura sintaktikoa uztartzeko ahalmena da. Euskarazko datuen berri hustuketaren alderdi pragmatikoa kontuan hartzen ez duten hurbilketek baino hobeto ematen du, eta gainera jokaera desberdinak arrazoitzeko gai da. Adibidez, erraz ulertzen dira perpausaren mugak hausten dituzten kasuak: hustuketarako baldintza orokorrak betetzen dituztenez, behar adinako hurbiltasuna izanik ez dago arazorik hustuketa egin ahal izateko. Eta berdin gertatzen da beste alorretan ere (hondakinen kopurua eta ezaugarriak, ezezko perpausak, anbiguotasunak...). Bestalde, nire ustez hurbilketa honek hustuketarekin erlazio estua duen beste alor batekiko lotura egiteko bidea ematen digu: galderen *erantzun laburrena*.

Zer erosi du Joxek?

Baloia.

Hizkuntzalari ugarik aipatu dute era batera edo bestera hustuketaren eta erantzun laburren arteko erlazioa. Erantzun laburrei dagokienez, perpaustzat hartu dituzten gehienek, galderekiko duten loturagatik, perpausaren NZ-hitzei ematen zaien kokaleku berean ezarri izan dituzte, batzuek posizio horretan zuzenean sortuz (gainontzekoa oinarritik datorkigun kategoria isil baten bidez emanez; Brucart 1987), besteek mugimendua edo enfasia eta ondoreneko ezabaketa proposatuz. Baina hustuketaren alderdi pragmatikoei behar bezalako arretarik eskaini ez zaienez biak erlazionatzeko biderik ez zegoen. Guk hustuketarentzat egin dugun analisiak biak era bateratu batean tratatzeko aukera ematen digu.

Ni mendira joan naiz, eta [₇ Pello [_{k_{onp}}" hondartzara [_{k_{onp}}' ø]]]

Nora joan zara? [_{k_{onp}}" hondartzara [_{k_{onp}}' ø]]

Hobeki argitu beharreko zenbait puntu ere geratzen dira hustuketaren analisi honetan. Lehen, esan dugu, hustuketarako beharrezko den berdintasunarena: autore gehienak FL-ko berdintasunetik abiatu dira, baina aurkako datuak ere azaldu ditugu (2.2.2.); gainera, hustuketarako proposatu dugun ezabaketak deribazioan berandukoa izan beharko luke, FF-rako bidean egina, eta ondorioz FF-ko operazio batek FL-ren berri izan beharko luke, baina gramatika sortzailearen azken modeluen arabera FF-k eta FL-k ez dute elkarren arteko lotura zuzenik; azkenik, hustuketarako beharrezko den nozioak unibertsala izan beharko luke, baina zenbait hizkuntzatako datuak (Furbee, 1974) integratzea oso zaila da.

Bestalde, zenbaitetan zehazki zer egitura eman behar den jakiteko baliabiderik gabe aurkitzen gara. Hustuketaren ezaugarri pragmatikoak aipatu ditugu. Euskaraz alderdi pragmatiko horiek syntaxian ere izan ohi dute isla (fokalizazioa, topikalizazioa), eta topikalizatutako edo fokalizatutako elementu hori osagai bakarra denean egitura sintaktikoan eman behar zaion tratamenduari buruzko proposamenak egin dira. Mintzagai edo galdegai horiek konplexuagoak direnean, ordea, ez dakigu sintaxi-egituran nola tratatu behar ditugun (agian adjuntzioa), nahiz hau berez hustuketaren alorra gainditzen duen auzia den.

2.3. ATZERANZKO HUSTUKETA

2.3.0. Sarrera

Hustuketa-egiturak aurkeztu ditugunean esan dugu hizkuntza desberdinetan norabide desberdinetan aplikatzen dela fenomeno hau, edo beste era batera esanda, batzuetan juntagailuaren ezkerreko perpausa agertzen dela elementu guztiak gabe eta besteetan eskuinekoa izaten dela faltan dagoena. Salaberrik (1985) eta Gastañagak (1977) aldarrikatu zuten euskaraz norabide bietan gerta zitezkeela horrelakoak, eta ondorengo hauek bezalako perpausak erabili zituzten:

- (219) a. Lindak ardaia edaten dau eta Anderrek esnea
 b. Lindak ardaia eta Anderrek esnea edaten dabez

Lehena aurreranzko hustuketa izango genuke, eta bigarrena atzeranzko hustuketa.

Dena dela, gogoan izan behar dugu atzeranzko hustuketa deitu dugun hori aurreranzkoaren kide den ala ez eztabaidak izan direla (ikus 2.1.0. puntua). Izan ere, askok etenik nagusiena aditzaren aurrean somatzen dute, eta ez juntagailuaren ondoan. Ross-ek datu hori onartzen du, baina hori baino pisu handiagokoa iruditzen zaio komunztadurak horren aurka eskaintzen duen argudioa: errusierako adibideetan aditzak subjektuetatik bigarrenarekin bakarrik egiten duela komunztadura. Adibidea berriro emanez:

- (220) a. ja vodu pil, i Anna vodku pila
 I water drank, and Anna vodka drank
- b. ja vodu , i Anna vodku pila
 I water , and Anna vodka drank

Alegia, *pila* aditzak komunztadura auzietarako lehenengo perpausoko *ja*-ri ez diola inolako jaramonik egiten, eta ondorioz, atzeranzko hustuketadun egiturak direla horrelakoak¹²⁷.

¹²⁷ Ross-ek egiatan intonazio-desberdintasuna ez du ukatzen (errusierarako, japonierarako ordea ez du ezer aipatzen) eta horrelako adibideek hustuketak ez bezalako egitura izan lezaketela ere onartzen du. Esaten duen bakarra da transformazio operazioen hasieran aurreranzko hustuketaren ispilu den atzeranzko hustuketa gertatu dela; gero, ematen duen azaleko egiturara ailegatzeko oso transformazio boteretsuetara jotzen du.

Atal honetan Gastañagaren (219b) bezalako adibideak aurreranzko hustuketaren molde berekoak diren ala ez aztertuko dugu. Lehenik, Ross-ek bezala, intonazioari eta komunztadurari begiratuko diogu, eta ondoren hitzordenaren auzian erakusten duten jokaerari. Irizpide horiei jarraituz, defendatuko dugu euskaraz atzeranzko hustuketa badela, baina Gastañagak erabilitako adibidea bezalakoak beste egitura-mota bat direla. Egitura-mota berri horren zenbait ezaugarri ikusiko ditugu, baina esku artean darabilgun auzia juntagaiak osagai soil izatetik zenbat aldendu litezkeen ikustea denez, sintagma-juntaduretako eta hitz eratuen juntaduretako elipsien datuenak ikusi arte ez gara sakonagoko azterketetan hasiko.

2.3.1. Atzeranzko hustuketa eta ezohiko juntadura

2.3.1.1. Intonazioa

Aurreranzko hustuketaren ondorio diren adibideetan etena bi perpausen artean izaten da:

(221) Mikelek haragia jan du // eta Pellok arraina

Idatzian ere sarri koma leku horretan jarri ohi dugu. Aldiz, atzeranzko hustuketa deitu dituztenetan intonazio-molderik ohizkoena (222a) adibidekoa da, eta ez (222b) adibidekoa:

(222) a. Mikelek haragia / eta Pellok arraina // jan dute
b. *Mikelek haragia // eta Pellok arraina jan dute

Alegia, intonazio-eten nagusia ez dago juntagailuaren ondoan, aditzaren aurretik baizik. Egitura hauetan, gainera, etena aditzaren aurretik egiteaz kanpo, iruditzen zait *eta*-k lotzen dituen bi "kateek" juntadurako osagaiek izan ohi duten intonazio-mota hurbilago dutela perpaus-juntadurak izan ohi duena baino.

Hauen alboan bada, ordea, intonazio-etena juntagailuaren ondoan eginik hustutako perpausa ezkerrekoa izateko aukera ere¹²⁸:

¹²⁸ Van Oirsouw (1987, 92) intonazioa osagaitasuna erabakitzeke argudio modura erabiltzearen aurka agertzen da.

- (223) a. Mikelek haragia // eta Pellok arraina jan du
 b. *Mikelek haragia / eta Pellok arraina // jan du

Baina aditzarekiko komunztadura desberdina izaten da.

2.3.1.2. Komunztadura

Atzeranzko hustuketa aurreranzkoarekin batera biltzeko arrazoirik nagusia komunztadurarena zen Ross-entzat¹²⁹. Gastañagak emandako adibideetan, ordea, gauzak oso bestela gertatzen dira:

- (219b) Lindak ardaa eta Anderrek esnea edaten dabez.

Gastañagak adierazten du aditzak pluralean egiten duela komunztadura bai subjektuarekin bai objektuarekin. Horrek esan nahiko luke euskaraz -errusieraz ez bezala- komunztadurarako bi 'perpausak' hartu behar direla kontuan, edo, beste era batera esateko, aditz hori nolabait bi perpausei dagokiela. Beraz, Ross-ek errusierarako proposatzen zuenaren aurkako ondoriora eramango gintuzke datu honek.

Linda Gastañagak uste du, hala ere, aurreranzko eta atzeranzko hustuketaren ondorio genituzkeen perpausak egitura-mota beretzat har daitezkeela. Komunztaduraren berri emateko ondoko hau esaten du (Gastañaga 1977, 172):

«By looking at the underlying process, we can account for the surface change and postulate one underlying form for the AUX.

VII. Lindak ardaa ta Anderrek esnea edaten dabez

S	+O	+S	+O	+V
+III	+III	+III	+III	+III
				+S+S
				+S+S

The information contained in the V is the basic syntactic description for the AUX form *dabez..* (...) we can postulate that the information from all +S and +O constituents (and any other relevant information) is copied to the nearest AUX surface form during the second lexical pass.»¹³⁰

¹²⁹ Hankamer-en ustez (1979, 112) datu horrek ez du ezer frogatzen.

¹³⁰ Ohar modura komunztadura-kontu hauen berri emateko beste bide bat ere aipatzen du: «Professor Dwyer suggested an alternative description of this process such that in left gapped sentences, the remaining (rightmost) verb expands its domain to include all elements to the left of it no within the domain of another verb.»

Ikusi dugu, ordea, Salaberrik egitura hauen komunztaduraz Gastañagak ez bezalako iritzia duela. Ondorengo hauek esaten ditu:

- Subjektuarekiko komunztadura pluralean egiten da.
- Objektuekikoa normalean singularrean, nahiz bere inkestetan pluralekoa ere onartu duten¹³¹.

Bi autoreak bat datoz, beraz, aditzak komunztadurarako bi perpausak hartzen dituela kontuan onartzeko orduan, baina objektuarekiko komunztaduraz iritzi desberdinak dituzte.

Azken auzi honetan, dena den, oso adi ibili beharra daukagu; parte hartzen duten izenen ezaugarriek zerikusi handia baitute numero-komunztadura erabakitzekeo unean. Adibidez, objektuak zenbakarriak badira askoz errazago egingo da komunztadura pluralean, delako objektuak zenbakarriak ez badira baino:

- (224) a. Amerikarrek zoriona eta errusiarrek pakea eskatzen dute
 b. *?Amerikarrek zoriona eta errusiarrek pakea eskatzen dituzte
- (225) a. ??Pellok nire txakurra eta Mirenek katu siames bat erosi dute
 b. Pellok nire txakurra eta Mirenek katu siames bat erosi dituzte

Era honetan, badirudi Gastañagaren adibidean zuzenagoa izango litzatekeela komunztadura singularrekoa izatea. Bada, bestalde, komunztadura pluralean egitea errazten duen tasun bat: [+pertsona] tasuna dutenek pluraleko komunztadura eskatzen dute:

- (226) Nik Miren eta Mikelek bere arreba eraman genituen (*genuen) partidura.

Horrelakoetan behintzat ez zait zuzena iruditzen objektuarekin komunztadura singularrean egitea. Zer pertsona eta zer numero agertu lege unibertsalen arabera erabakitzen da (Corbett, 1983), eta gure kasurako ohiko osagai-juntaduretan agertzen denaren pare-pareko da. Dena dela, ez zait iruditzen euskal hiztunak horrelako egiturak oso gogoko dituenik. Begira, esaterako, ondorengo hauei:

- (227)
 a. ?Nik zuri ordulari bat eta Pellok Nereari eraztun bat oparitu genizkizuen.

¹³¹ Datiboarekin ere egoera bera dela esango nuke nik.

b. ?Zuk niri ordulari bat eta Pellok Nereari eraztun bat oparitu zenizkiguten.

Ziurrenik gramatikaren aldetik ez dute inolako aitzakiarik izango, baina euskal hiztuna ez da horrelakoen zale, eta mezua beste egitura sintaktikoren baten bidez antolatzen saiatzen gara. Adibidez, horiek berak osagai-juntadura arruntekin eman izan bagenu, askoz errazago onartuko genituzkeen:

(228)

- a. Nik eta Pellok zuri eta Nereari ordulari bat eta eraztun bat oparitu genizkizuen.
- b. Zuk eta Pellok niri eta Nereari ordulari bat eta eraztun bat oparitu zenizkiguten.

Gainera, zenbaitetan konpondu ezineko arazoak sortzen dira:

(229)

- a. Nik zu eta zuk ni eraman ...
- b. Pellok ni eta nik Joxe ikusi ...¹³²

Horrelakoren bat denean komuntadura bigarrenarekin bakarrik egin ohi dugu:

(230)

- a. Nik zu eta zuk ni eraman izan nauzu lanera
- b. Pellok ni eta nik Joxe ikusi dut zinemaren aurrean
- c. Nik zuri ordulari bat eta Pellok Nereari eraztun bat oparitu zion
- d. Zuk niri ordulari bat eta Pellok Nereari eraztun bat oparitu zion

Baina berriro ere intonazio-etenik nagusia junta-gailuaren ondoan egiten da¹³³.

¹³² Eta ez pertsona-arazoengatik bakarrik, denbora-arazoengatik ere bai:

(i) Kevin Kostner-en filme berria nik atzo eta Joxek bihar (?)

¹³³ Itaun interesgari bat zera izango litzateke: era honetakoak aurrekoen guztiz baliokideak diren ala ez. Alegia, perpausak adierazten dutena ekintza bakartzat hartu edo ekintza askeak balira bezala hartu egitura-mota desberdina hautatzen ote den. Begira ondorengo adibide hauei:

(i) a. Nik Joxe eta zuk Pello eramango ditugu azokara.
b. Nik joxe, eta zuk Pello eramango duzu azokara.

Desberdintasunik balego lehenean zu eta ni multzotzat artuko lirateke, edo nolabaiteko lotura somatuko litzateke eramaleen edo eramandakoen artean, eta azken batean guztia ekintza bakartzat hartuko genuke; bigarrenean aldiz elkarrekin loturarik ez duten ekintza asketzat hartu beharko genituzke.

Beraz, orain artekoa laburtuz zera esan dezakegu: intonazioari eta juntadurari dagokionez bi egitura molde bereizten direla, bata intonazio-etena juntagailuaren ondoan duena eta aditzarekiko komunztadurarako lehenengo perpausa kontuan izaten ez duena, eta bestea intonazio-etena juntagailuaren bi alboetan paraleloki ematen ditugun elementuen ondoren duena eta komunztadurarako elementu guztiak kontuan hartzen dituen. Lehenak aurreranzko hustuketa-egituren molde berekoak dira; bigarrenek ezaugarri desberdinak dituzte. Hitzordenaren alorrean ere somatuko dugu desberdintasun hori.

2.3.1.3. Ordena

Intonazio-eten nagusia juntagailuaren ondoan egin gabe pluraleko komunztadura eragiten duten adibideek hitzordenaren aldetik nola jokutzen duten ikusiko dugu orain. Horretarako Salaberriren aldarrikapen batzuk kritikatuko ditugu.

Lehenago esan dugun bezala, hustuketa-egituretan aditzaz gain beste zenbait elementu ere izan daitezke isilean:

(231) Nik ardoa edan dut tabernan, eta zuk ura (edan duzu tabernan)

Salaberririk dio gauza bera gertatzen dela atzeranzko hustuketarekin, aditzaz gain beste elementu batzuk ere gera daitezkeela isilean. Berak adibide hauek (Salaberri 1985, 32-33) ematen ditu (parentesi artean adierazten du adibide bakoitzean isilik geratzen dena):

(232)

- a. Aitak gustora ardoa edan du eta amak esnea.
- b. Aitak gustora ardoa eta amak esnea edan dute.¹³⁴ (aditza eta aditzondoa)

(233)

- a. Lehengusuak etxera haragia darama eta lehengusinak ogia.
- b. Lehengusuak etxera haragia eta lehengusinak ogia daramate. (aditza eta adizlaguna)

¹³⁴ Eta ohar hau eranstean du: «Hemen badirudi topikalizazioarekin egiten dugula topo. Hau hobe aztertu beharko litzateke. Dena den, topikoa aurreratua dagoen hauetan, (b)-ko perpausak [=gure lehenengoa] normalago direla ematen du, (c)-koak [=gure bigarregoa] baino». Esaten du, baita ere, aditzarekin batera ezabatzen den elementua ez dela sekula galdegaia.

(234)

- a. Aitak esnea azkar edan du eta amak poliki.
- b. Aitak esnea azkar eta amak poliki edan dute. (aditza eta osagarri zuzena)

Eta ondorioztatzen du (Salaberri, 34):

«...aurreranzko GPA [=hustuketa] egin edo aurreranzkoa [atzeranzkoa] egin, aditza ez den beste elementu hori (aditzondoa, aditzlaguna edo objektua), bigarren ataletik galtzen da, ez lehenetik, edo bestela esan, topiko modura uzten dugu.¹³⁵»

Guri hemen atzeranzko hustuketaz esaten duena interesatzen zaigu. Komuntadurarako bi subjektuak kontuan hartzen dituen adibideak darabiltza. Baina gure ustez adibide okerrak dira¹³⁶. Izan ere, hitzordenaren aldetik era horretako egiturek bete beharreko zenbait baldintza ez dituzte betetzen: nire iritziz pluraleko komuntadura eragiten duten adibideetan, juntagailuaren alboetan paraleloki biltzen diren segida edo 'juntagai' horiek elkarren jarraian joan behar dute, beraiek eta juntagailuaren artean ez dago ezer tartekatzerik:

- (235) a. *Aitak ardoa gustora eta amak esnea edan dute.
 - b. *Lehengusuak haragia etxera eta lehengusinak ogia daramate.
 - c. *Aitak azkar esnea eta amak poliki edan dute.
- (236) a. *Aitak ardoa eta gustora amak esnea edan dute.
 - b. *Lehengusuak haragia eta etxera lehengusinak ogia daramate.
 - c. *Aitak azkar eta esnea amak poliki edan dute.

Ez da zilegi, era berean, 'juntagai' horietako bakoitza etetea, tartean beste elementuren bat sartuz -hori da, hain zuzen, Salaberriren adibideetan egiten dena-:

- (237) a. *Aitak gustora ardoa eta amak esnea edan dute.
 - b. *Lehengusuak etxera haragia eta lehengusinak ogia daramate.
 - c. *Aitak esnea azkar eta amak poliki edan dute.
- (238) a. *Aitak ardoa eta amak gustora esnea edan dute.
 - b. *Lehengusuak haragia eta lehengusinak etxera ogia daramate.

¹³⁵ Geroago ohartuko garenez, topikotasunari buruzko aipamen hori ez da egokia.

¹³⁶ Dena dela, zuzenak balira ere berak darabilen modeluan ondorio garrantzitsuak izan beharko lituzke. Hankamer (1979, 103-109; 194) era horretako adibideetan oinarritzen da atzeranzko hustuketa aurreranzkoaren pareko ez dela aldarrikatzeko, nahiz erabiltzen dituen dituen adibideak intonazioaren eta komuntaduraren aldetik nolakoak diren agertzen ez duen. Salaberrik ez du norabide horretan jotzen.

- c. *Aitak azkar eta amak esnea poliki edan dute.

Nire aburuz, goiko horietan esan nahi dena esateko beste perpaus mota bat erabiltzen du euskal hiztunak:

- (239) a. Gustora, aitak ardoa eta amak esnea edan dute.
 b. Etxera, lehengusuak haragia eta lehengusinak ogia daramate.
 c. Esnea, aitak azkar eta amak poliki edan dute.

Edo bestela,

- (240) a. Aitak ardoa eta amak esnea edan dute gustora.
 b. Lehengusuak haragia eta lehengusinak ogia daramate etxera.
 c. Aitak azkar eta amak poliki edan dute esnea.

Edo baita, mintzagai-egitura zertxobait aldatuz:

- (241) a. Aitak ardoa eta amak esnea gustora edan dute (dituzte).
 b. Lehengusuak haragia eta lehengusinak ogia etxera daramate.
 c. Aitak azkar eta amak poliki esnea edan dute.

Badirudi, bada, *eta*-ren alde bietara paralelo diren horiek unitate modura edo jokatzen dutela: tartean ezer sartzerik ez dago, eta perpausean batera edo bestera mugitzen direnean ere ohiko osagaien modura mugitzen dira. Hau are argiago ikusiko dugu galderekin:

- (242) a. Noiz edan dute aitak ardoa eta amak esnea?
 b. Nora eraman dute lehengusuak haragia eta lehengusinak ogia?
 c. Zer edan dute aitak azkar eta amak poliki?

Hustuketa-egiturekin ez dago horrelakorik egiterik, juntagaiak perpausak izaten baitira. Beraz, ikusten dugu Gastañagak ematen zuena bezalako egiturek mugimenduari dagokionez perpaus bakarra balira bezala jokatzen dutela, eta horretan hustuketatik aldendu egiten direla. Ondorioz, intonazioari, komunztadurari eta mugimenduari buruzko datuak kontuan izanik, Gastañaga eta Salaberriren aurka jo behar dugu, eta beraiek atzeranzko hustuketatzat ematen zutena benetan hustuketatik fenomeno

desberdina dela aldarrikatuko dugu. Horrela, atzeranzko hustuketatzat ondorengo haue bezalakoak hartuko ditugu:

(243) Mikelek arraina // eta Joxek haragia jan du

Ondorengo hau bezalakoei, aldiz, *ezohiko juntadura*¹³⁷ deituko diegu, juntagaiak osagai ez direlako:

(244) Mikelek arraina eta Joxek haragia // jan dute

Jarraian egitura horien zenbait ezaugarri ikusiko ditugu, baina egiturari buruzko eztabaida geroagorako utziko dugu, hurrengo ataletan ere bai baitira molde honetako adibideak.

2.3.2. Ezohiko juntadura.

Juntadura mota honi ezohikoa deitu diogu, bertan koordinatzen diren juntagaiak osagai bakar batean biltzea oso zail egiten baita: badirudi osagai desberdinez osatutako juntagaiak ditugula. Orain artean aztertutako adibideetan subjektua eta objektuak agertu zaizkigu, eta esan dugu euskal hiztunak ez dituela oso gogoko era horretako perpausak. Izan ere, esku artean ibili ditugunak mota honetako artean konplexuenetakoak ziren: argumentuek aditzarekin komunztadura egin beharrak ematen zien konplexutasun hori. Badira, ordea, alde horretatik hainbesteko arazorik ez duten adibideak, euskaraz aurrekoak baino askoz maizago agertzen direnak. Ikus ondorengo hauek:

(245)

- a. Ni astelehenetan Donostian eta asteazkenetan Baionan izaten naiz
- b. Hontzak gaez esnai eta egunez lo egoten dira
- c. Pello bihar mendira eta etzi hondartzara joango da
- d. Pello zurekin triste baina nirekin oso pozik egoten da
- e. Atzo Joxerentzat zapatak eta zuretzat liburuak erosi nituen

¹³⁷ Ingeleseaz era honetako egiturei izen desberdinak eman izan zaizkie: *string coordination*, *non-constituent coordination* eta *non-canonical coordination*.

Perpaus hauetan juntagailuaren bi alboetara biltzen diren elementuak aditz sintagmakoak dira eta komunztaduraren aldetik ez dute inolako aldaketarik eragiten. Dena den, era bateko eta besteko, literaturan erraz aurkitzen dira honelakoak:

(246)

- a. «Itxura guztien arabera, sor Rosa María moja atipiko bat zen, (...), aita alemaniarra eta ama ispanyarra zituena.» (J.M. Irigoien, 1993, *Consummatum Est*, 10)
- b. «...gauaren ilunarekin ez zinateke ohartuko mutila zuen artean eta dirua beren eskuetan egon arte.» (Yon Etxaide, 1984, *Begia Begi Truk*, Erein, 49)
- c. «Beharrik hori mirikuntzan eta ni aireplan gidatzen berdintsu.» (P. Xarriton, 1991, *Piarres Larzabalen Idazlanak*, 118)
- d. «Aingeruak ta Isabel Deunak itz ber-beraz alabatzen dute Maria, naiz aingeruak zeruan eta naiz gizonak lurrian onetsizat daukatelako.» (D. Intza, *Kristau Ikasbidea*, 156)

Aditza bera ere ager liteke era honetako adibideetan:

(247)

«Eta une hartan kaletik ibiliko ziren milaka autoen zaratarik ere ez zen sentitzen, soilik urrume nagia bat, batzuetan loditu eta besteetan mehetu egiten zena.» (B. Atxaga, 1993, *Gizona Bere Bakardadean*, Pamiela, 311)

Zenbaitekin beste analisiren bat posible den arren perpausaren zentzu orokorragatik eta bereziki horrelakoak esatean erabiltzen den intonazioagatik guztiak sail honetan sartuko ditugu. Esan dugu gainera komunztadurari, intonazioari eta hitzordenari dagokionez perpaus bakarra balego bezala jokatzeko dutela. Subjektua egitura horien barnean ez denean ziurrenera errazago ikusten da hori:

- (248)
- a. Nik botak neguan eta zapatilak udan erabiltzen ditut
 - b. Nik neguan botak eta udan zapatilak erabiltzen ditut
 - c. *Eroek* erabiltzen dituzte neguan zapatilak eta udan botak

Lehenengo perpausaren *noiz* galderari erantzuten diotenak izango dira galdegai, bigarrenaren *zer* galderari erantzuten diotenak, eta hirugarrenaren *nork* galderari dagokion osagaia. Guztietan ere ezinezkoa iruditzen zait segida horiek perpaus osoen

juntaduraren bidez lortzea. Badute gainera era honetako egiturek perpaus-juntaduren aukerarekin esplikatzen oso zail den beste ezaugarri bat: ordenaren aldetik parekotasunik ez dagoenean adibidea txarragoa izaten dela. Begira ondorengo bikote honi:

- (249) a. Ni neguan zapatilekin eta udan botekin ibiltzen naiz
 b. ??Ni neguan zapatilekin eta botekin udan ibiltzen naiz

Literaturan zehar egitura-mota honek ez du arreta handirik erakarri. Oso antzeko adibideak erabili dira, baina hizkuntzen arteko desberdintasunegatik ondorio desberdinetara iristea oso erraza da. Begira ingelesekoei eta gaztelarakoei:

- (250)
 a. John persuaded Sandy to stand up, and ø Peter to sit down. (Sag 1980, 202)
 b. Betsy gave the bagels to Tommy, but ø the creamcheese to Mike. (Sag 1980, 205)

- (251)
 a. He visto a Juan en el parque y a Pedro en el bar.
 b. He regalado un florero a Pedro y una escoba a Manuel.

Bi hizkuntza hauek SAO ordena dute, eta ondorioz perpausen edo aditz sintagmen juntadura eta ondoreneko ezabaketa -edo aurretiko kategoria isila- proposatzeko ez dago arazorik, bereziki juntagailuaren aurretik eten nabarmena egiten bada.

Literaturan denetako analisiak aurkitzen ditugu. Jackendoff-ek (1971) zioen horrelakoak ez zirela hustuketaren ondorio, Konjuntzio Laburketaren ondorio baizik. Iritzi berekoak dira Hankamer (1979) eta Sag (1980): hauen ustez aditz sintagmen juntadura dago horrelako adibideetan, eta gero Konjuntzio Laburketa gertatu da. Sag-ek (1980, 203-210) argudio sail bat ere ematen du. Baina Neijt (1979;1981) horrelakoetan hustuketa gertatu delakoan dago; ez ordea perpaus-hustuketa, aditz sintagma mailako hustuketa baizik. Sag-en argudioei erantzuten ere saiatzen da (Neijt 1979, 57-62). Horiei aurka eginez, Hudson-ek (1982) dio egitura hauek osagai-juntaduren ezaugarri guztiak dituztela. Rooryck-ek (1985, 213) Hudson-en argudioak ez ditu ontzat ematen, eta hustuketaren ondoriotzat hartzen ditu. Napoli eta Nespor (1986) ez dira analisi zehatzik ematen ausartzen. Brucart-ek (1987) dio, berriro ere, gaztelaraz egitura horietan aditz sintagmen juntadura dagoela, eta ondoren Konjuntzio Laburketa gertatzen dela. Azkenik, Jackendoff-ek (1990), bere aurreko iritzia aldatuz,

hustuketaren ondorio izan daitezkeela aitortzen du¹³⁸. Eta gramatikara beste zenbait ikuspegitatik hurbildu direnek ere aztertu dituzte horrelakoak. GPSG-ren tradizioan, gogora dezagun, proposatu da aditzik gabeko aditz sintagmak posible direla gramatikan. Horrela, juntaturari eskaintzen dioten tratamenduekin bat, proposatzen dute ingeleseko egitura horietan aditz sintagmen juntadura dagoela; hau da, gure adibideetako *nequan botak* aditz sintagma bat dela. Gramatika kategorialen barnean lan egiten dutenek bide bera urratu dute. Hudson-ek dependentzien gramatikaren barnean egindako lanetan (1986; 1988; 1989) funtsean 1982 ko ikuspegia mantentzen du; alegia, ezohiko juntagai hauek osagai direla esaten du.

Euskarari buruzko proposamen bat Rebuschik (1989, 94) egin zuen. Berak garbi ikusten du juntagailuaren albo bietara biltzen diren elementu horiek ezin direla osagai izan, subjektuak eta objektuak ezin dutela beren artean inolako osagairik egin. Horrela, islapen handiagoen juntaturak erabiltzen ditu, elementu bat islapen horietatik kanporatzen da atzean aztarna bat utziz. Ondorengo adibide hau darabil:

- (252) a. Nik babak eta Peiok ogia jan ditugu
 b. $[_{yp} [_{xp} [_{xp} \text{nik babak e}] \text{ eta } [\text{Peiok ogia e}]] [_{V+I} \text{jan ditugu}]]$

XP hori *nondistinct* diren VP eta IP ordeaz egongo litzateke, YP berriz CP izango litzateke, eta e berriz [V+I]-ren aztarna, agerian dagoen $[_{V+I} \text{jan ditugu}]$ -k egituran zeharreko (across-the-board) mekanismoz uztartua.

Ortiz de Urbinari (1989b, 346) ordea analisi hori ez zaio egokia iruditzen. Alde batetik osagaitasun probei buruzko zalantzak erakusten ditu, ingelesak bezain ordena finkoa ez duten hizkuntzetan hain baliagarri gertatzen ez direlako. Bestetik, Rebuschi-k hartu duen bideak gaztelarazko ondorengo hau bezalakoan berri ematerik ez duela esaten du:

- (253) Hemos comido yo alubias y Pedro asado

Eta hala ere «koordinaketa beraren adibideak» iruditzen zaizkio.

Nire ikuspegia ere Ortiz de Urbinaren aldera lerratzen da. Batetik, zail ikusten dut era honetako analisisiekin egitura hauetan agertzen diren hitzordena desberdin

¹³⁸ Egoera laburtzeko Larson-en (1990, 624-625) hitzak aukeratu ditut: «Sentences like (...) have occasioned lively debate in the literature, with a variety of analyses being proposed -including Gapping- and with authors regularly changing their minds on the subject. Hence, it is safe to take the issue as unsettled».

guztien berri ematen. Gainera, zenbait adibide ezin dira bi perpausen juntadura bezala azaldu:

(254)

- a. Pellok botak eta Joxek zapatilak denda berean erosi zituzten
- b. Goizean pilotalekuan eta eguerdian jatetxean pertsona berak genituen segika

Horrez gain, Rebuschi-rena bezalako hurbilketa bat hautatuko bagenu, zenbait adibidetan elementuak kanporatzean osagaiak bitan banatu beharko genituzke:

(255)

- a. Ateratako ondorioak goizean legebiltzarraren eta arratsaldean komunikabideen aurrean aurkeztu behar izan genituen
- b. Ni Joxeren eta Josune Pelloren *zain* egon ginen ordubetez plazaren erdian

Oso ohikoak ez diren arren Euskaltzaindiaren liburukietan ere (1994, 177) jaulkitzen da horrelako adibiderik:

(256)

«Bi juntagailuen kideztaren lekuko, txandaturik ere ager daitezke bata juntagai baten eta bestea bigarren juntagaiaren aurrean»

Aurreranzko hustuketarekin horrelako adibideek arazo larriak dituzte, bereziki mendebaldeko tradizioan:

(257)

- a. *?Ateratako ondorioak goizean legebiltzarraren aurrean aurkeztu behar izan genituen, eta arratsaldean komunikabideen
- b. *?Ni Joxeren zain egon nintzen ordubetez plazaren erdian, eta Pello Mirenen

Bestalde, ezabaketa proposatzen hasiz gero (245)-ekoetan zenbait elementu lehenengo perpausetik eta beste zenbait bigarrenetik ezabatzen direla proposatu -eta formulatu- beharko genuke. Garbi dago, beraz, egitura hauek ez direla hustuketakoen pareko. Hauen analisiari sintagma-juntadurei eta hitz eratuaren juntadurei eskainitako atalen ondoren helduko diogu, hemen darabilgun auzia juntagaien osagaitasunarena baita.

2.4. ADITZ LAGUNTZAILEAREN ELIPSIA

2.4.0. Sarrera

Euskaraz bi perpaus juntatzen ditugunean elipsirako aukera duen beste elementu bat aditz laguntzailea da. Salaberri ohartu zen horretaz, eta *Aditz Laguntzailearen Ezabaketa* (ALE) izeneko erregela proposatu zuen, «juntadura-egituretan aditz laguntzailea ezabatzen duena». Ondorengo adibideon bidez agertzen zuen (Salaberri, 1985, 73):

- (258) a. Aitak arraina erosi du eta jan du
 b. Aitak arraina erosi du eta jan
 c. Aitak arraina erosi eta jan du

(258b) eta (258c) adibideetan aditz laguntzailea isilean geratu da, batean juntagailuaren ezkerretara, bestean juntagailuaren eskuinetara. Adibide hauetan aditz nagusia ez beste elementu guztiak berdinak dira, edo beste era batera esan nahi bada, aditzak bakarrik dira desberdinak; ez da hori ordea aukera bakarra: perpaus 'beteagoetan', juntagailuaren bi aldeetara elementu desberdin gehiago dituztenetan ere gertatzen dira era honetako elipsiak. Begira ondorengo hauei

«Bizkitartean Herodesek jakinik, profeten arabera, Betleemen sorthu beharra zela, *erakutsi zioten* errege magoei hiri hartako bidea eta ongi *gomendatu*, aurkhitu zuketenean haur dibino hura, ethor zakizkola, berrien ematera, harrek ere adora ahal zezan.» (B. Joannateguy, *Sainduen bizitzea*, 14-15)

«Eta orduantxe, artean biak hizketan ari zirela, bideoko pantaila *piztu* eta bidaiako bigarren pelikula *hasi zen*.» (B. Atxaga, *Zeruak*, 43)

Hasteko egoeraren deskribapen bat egiten saiatuko gara. Ondoren ezaugarri sintaktikoei helduko diegu. Lehenik (258)-ko adibideen tankerakoez ihardungo dugu, eta Salaberriren analisia aztertuko dugu eta zenbait arazoren berri emango dugu. Ondoren perpaus osoak juntatzen diren kasuez hitz egingo dugu, eta egitura sintaktikoa emateko unean kontuan izan beharreko zenbait ezaugarri azalduko ditugu: bi perpausok subjektu eta laguntzaile-mota desberdina izan dezaketenez I° bakarraren azpian oinarrian juntatutzat hartzeak arazoak ditu; baina bestalde, laguntzaile bakarrekoez zenbaitetan irakurketa simetrikokoak debekaturik dituzte, eta kategoria isilaren edo ezabaketaren

bidez irakurketa desberdin horien berri emateko zailtasunak daude; gainera, mugimenduaren eta kasu-markaketaren aldetik ere jokaera berezia erakusten dute, nahiz literaturan adostasunik ez dagoen fenomeno horiek sintaxiaren barnean kokatu behar diren ala ez. Azkenik, hustuketa eta ALE-ren arteko erlazioez hitz egingo dugu.

2.4.1. Deskribapena

2.4.1.1. Perpaus nagusiak

Euskaltzaindiak (1994) egindako deskribapenean punturik garrantzitsuenak emanak daude. Eskuineko laguntzailea falta duten adibideak euskararen eremu guztian agertzen dira, bai testu idatzietan bai euskara mintzatuan:

(259)

«B'olango egunen baten gixon bateri Patakon lapur famatuek urten otzon biderdire or Gastañabaltzeko kurban d'altoa bota:» (J.M. Etxebarria, 1994, 118)

Ezkerreko laguntzailerik gabeak mendebaldeko testuetan agertzen dira nagusiki, baina ekialdekoetan ere ez dira ezezagunak:

(260)

a. «Hauxok, zer xantza! Hori, tenore oneko dirua izanen dugu hau. Gure Katzo saldu eta, ederki eros dezakegu bertze uztarriko behi bat.» (*Piarres Larzabalen idazlanak*, 23)

b. «Zer darasa gizon txar horrek? Papatik hartu eta kanpora botatzen diat.» (*Piarres Larzabalen idazlanak*, 135)

c. «Norbaitek gizon hori gordetzen badu, edo ikusi-eta non den ez badu salatzen garrazki gaztigatua izanen da, gizon hori kriminelizat ekarria baita.» (*Piarres Larzabalen idazlanak*, 252)

Aditzaren aspektu-markari dagokionean ere badago zer esanik: ekialdeko idazleek aspektu-marka bietan errepikatzeke joera dute.

(261)

a. «Aro eder horrek *phizten zeraukoten* bihotza eta *zalhutzen* mihia.» (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 146)

b. «Zeren munduko iduriz erremediorik eztuten egitekoei ere hark *edirenen deraue eta emanen buru.*» (Axular, *Gero*, 129)

Mendebaldekoetan berriz zalantza gehiago aurkituko dugu:

(262)

a. «Nola jangoikoaren gauzeetarako nagia, ta atzeratua izan danak *artuko du* bizitza berri bat, ta *palagatu* jangoikoaren justizia, ezpadia sarri sermoiak enzutera, meza nagusi edo bere bizizakora, bespera, errosario ta beste gauza onetara, ta sarriago ezpadia kofesioko sakramentura?» (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 148)

b. «Euskaldun herriak berriki egin edo kanpotik eratorritakotik *hartuko du*, eta molde berri horiek euskal folklore *bilakatuko.*» (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 43)¹³⁹

c. «Bi urteren epe barruan egin behar den bide hau Udanatik behera *etorriko da* eta herri barrutik pasatu ondoren, San Prudentzioko bidegurutzeraino *iritsi.*» (I. Irizar, 1985, *Makalenaren Herri Antzerkia*, 72, Elkar.)

d. «Banaka batzuek eskua jaso dute, han eta hemen, baina ez dira dagoen jendearen laurdenera ailegatuko. Astiro astiro, Eskribauak *kontatzen ditu* eta bere paperetan *jaso.*» (I. Irizar, 1985, *Makalenaren Herri Antzerkia*, 88, Elkar.)

Aspektuarekiko joera desberdin horiek berdin errepikatzen dira aditzak juntatzeko beste bidea erabiltzen denean ere, alegia, laguntzailea juntagailuaren ezkerrean falta denean. Ekialdeko autoreetan aspektuaren marka ez da galtzen; Axular izan liteke adibiderik argienetakoa:

(263)

«Errepuesta haur, hunein hotza, motza eta gogorra enzun dezatenean, nork pensatuko du, zer eginen eta erranen duten?» (Axular, *Gero*, 606-607)

Mendebaldean lehenengo juntagaian partizipio burutua sarriago izan ohi da:

(264)

«Zeure alegin guztiaz galdu eikezu ain sarri yausi eragiten deusun izkune txar yarraitu ori, zeinek bear bada betiko gogortu eta ondatuko zaituzan.» (Añibarro, *Esku-liburua*, 146)

¹³⁹ Euskaltzaindiarenetik (1994) hartua.

Aditz soilak juntatzen direnean esan liteke berau dugula aukera nagusia. Baina ohartu behar dugu esanahiaren aldetik burutuaren baliorik ez duela: zitazio-forma edo izendatzeko-forma¹⁴⁰ izango genuke horietan burutua, eta bere aspektu-balioa galdurik izango luke. Horrela, ezinezko gertatzen da (265a) perpausa lehenengo juntagaiko aspektua burututzat hartuz onartzea (265b):

- (265) a. Liburuak idatzi ditut eta irakurriko ditut
b. *Liburuak idatzi eta irakurriko ditut

Horrelako irakurketa bat lortzeko nahitaezko dugu laguntzailea errepikatzea:

- (266) Liburuak idatzi ditut eta irakurriko ditut¹⁴¹

Datu hau interpretatzea zail egiten da. Artiagoitia ere (1995, 476) bat dator era honetako egiturak ez onartzeko unean, eta gainera jokaera esplikatuko lukeen arrazoi sintaktikoa ere aipatzen du: bere ustez *ø/i/tu* duten formak izenen kategoriakoak dira eta *-ko* eta *-ten* dutenak posposiziodun sintagmak, beraz, kategoria desberdineko osagaiak juntatu nahi ditugulako izango genituzke ondorengo hauek okerrak:

- (267) a. Ainhoak ez du egunkaria erosi, ez egunkaria irakurri
b. *Ainhoak ez du ez egunkaria erosi, ez egunkaria irakurriko
c. *Ainhoak ez du ez egunkaria erosi, ez egunkaria irakurtzen

¹⁴⁰ Rebuschi-k (1989, 93) «*unmarked or dictionary form*» deitzen dio. Hualdek (1992) eta Artiagoitiak (1995) «*citation form*» deitzen diote.

¹⁴¹ Beste zenbaitetan bi aspektu desberdin juntatu nahi izaten ditugu. Aspektu markak elementu beregain ez direnez nahitaez aditzaren euskarria behar dute. Galdera da horrelakoetan ere aditz laguntzailea errepikatzea nahitaezko ote den. Nik laguntzailerik gabeko adibide batzuk aurkitu ditut:

«Horra behin eta berriz entzun eta entzuten duguna, eta entzutearen entzutez sinistu egin duguna.» (J. Respaldiza, 1994, *Argia* 1509, 44)

«Arlo sozio ekonomikoan, desarroilismoak sortu arazoekin hasi baziren ere, sektore eta problematika ezberdin asko ikertu eta ikertzen dira gaur egun;» (A. Irazu 1993, *Argia*, 1.421 zkia., 25)

Bi laguntzaileak errepikaturik dituztenak ohikoagoak iruditzen zaizkit ordea niri. Horrelakoak eraikitzeke beste bidea, tradizioan gehien agertzen dena, bigarren laguntzailea ez agertzea. Hona Hiriart Urruti eta Laphitzen adibide bana:

«Eskuaraz mintzatu nahi direnek erraiten dute eta erranen jaun jujea, jaun mera, jaun axuanta.» (Hiriart Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 177)

«Bere jendek hainbertze egin diote eta egiten, ez dadin ibiltzen den bezala ibil, eskale baten hatu guziakin, mundu guziaren irriegingarri (...).» (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 126)

Esaten du gainera semantikak ez duela horretan guztian inolako eraginik:

«The ungrammaticality (...) cannot be attributed to some kind of semantic incompatibility, for there is no principled reason to exclude coordination of constituents specified differently for tense and aspect»

Horrez gain, Egituran Zeharreko Mugimendua ere eragotzita omen dago era desberdineko aditz-formak juntatzen direnean (Artiagoitia 1995, 477):

(268)

- a. Nor_i da_j [t_i Durangora trenez helduko t_j] eta [t_i handik mendian gora abiatuko t_j]?
- b. *Nor_i da_j [t_i Durangora trenez heldu t_j] eta [t_i handik mendian gora abiatuko t_j]?

Bere ikuspegi orokorra baliteke zuzena izatea, baina juntaduraren inguruko argudio hauek ez zaizkit behar bezain sendoak iruditzen. Batetik, (267)-n ematen diren datuak ez dut uste behar bezain argiak direnik. Era honetako adibideak testuinguru aberatsago batean txertatuz gero ez dut uste hainbestearainoko alderik somatzen denik:

(269)

A: Josuk esan dit gaur goizean zu ikusi zaituela kioskotik irten eta Egunkaria irakurtzen!

B: Gezurra da hori! Nik ez dut egunkaria irakurri eta ez egunkaria erosiko!

Ez zait iruditzen adibide hau (267a)-koa baino txarragoa denik. Bestalde, (268b)-ko adibidea ere ez zait niri (268a)-koa baino askoz txarragoa iruditzen, baina tartean geroago aipatuko ditugun beste zenbait faktoreren eragina egon liteke. Azkenik, lanaren hondarrean Artiagoitiak (1995, 498) esaten du *-ten* eta *-ko* motako partizipioak ere ezin direla elkarrekin juntatu, ezaugarri desberdinak dituztelako:

«The different participles cannot be coordinated because they are dominated by different categorial nodes, AP and PP. And even though the non-perfect and future participles are both dominated by a PP (a necessary but not sufficient condition for coordination), they crucially differ in their aspectual feature; the impossibility of coordinating them can be attributed to this feature mismatch» [azpiko marra Iñaki Amundarain]

Egia da juntadurarako kategoria-berdintasunaz gain beste alor batzuek ere izan behar direla kontuan, baina honen aurretik ekarri dugun aipamenarekin batera hartuta argudioari indarra kentzen zaio: *ø/i/tu* beste partizipioekin juntatu ezin denean errua kategoria-desberdintasunari eman zaio, eta semantikak zerikusirik ez duela esan da; *-ten* eta *-ko* elkarrekin juntatu ezin direnean, berriz, kategoriari ez baino aspektu-ezaugarrien desberdintasunera jo da; era honetan irizpidea zein den ez da argi geratzen.

2.4.1.2. Menpeko perpausak

Menpeko perpausen alorrean, ordea, egoera nahasiagoa azaltzen zaigu. Juntagailuaren eskuineko laguntzailea isilik uzteko aukerari dagokionez, denborazko menperatuetan, adibidez, ez dirudi oztopo handiegirik dagoenik:

(270)

Euskal Herritik irten nintzenean eta kanpoan egun pare bat pasa, hemengo gora-behera guztiak arrotz egin zitzaizkidan.

Bateko eta besteko testuetan bildu ditugu era honetako zenbait:

(271)

a. «Gero ba bakixu, lenao familiepe andiek ixiten sirean da eskontan sireanean da umeak auki, ba, etzekadak iten sirean da nok o bete aien gustien tripasorriek.» (J.M. Etxebarria, 1994, 138)

b. «Onek (g)ure amak e baten Larramendiko basoan ida batzean gaosela ida aspelari aspiti goatu otzenean da muskerra esku artean kuxau, onepota yoan grillistue, gorputzean be pipiladurea urtenda egoan.» (J.M. Etxebarria, 1994, 101)

c. «Maider ezagutu zun ezkeoz ordea ta biotz-biotzean arenganako aitamiña sortu, bere barrunbean eztenik zorrotzena zulaka asi zitzaion.» (Y. Etxaide, *Joanak joan*, 267)

Berebat gertatzen da baldintzazkoekin:

(272)

Atzoko zozketan loteria tokatu bazait eta diru asko irabazi, etorkizunari nola heldu pentsatzen hasi beharrean izango naiz.

Hiriart Urrutiren adibidea:

(273)

«Nor ere baitzen, gorri ala xuri, katoliko ala protestant, bardin litzakedan orduan; eta edo nor izan, elgarrekin jautsi bagine eta gelditu behar izan bidean, bihotz onez pagatuko nion pinta-erdia, ba eta osoa ere kurtsa horien ondotik dabiltzan zenbeiti baino gogotikago!» (J. Hiriart Urruti, *Zezenak errepublikan*, 78)

Ondorengo konpletibo honetan ordea zalantza gehiago sortzen zait niri:

(274) ?Joxek esan dit elurra egin duela eta mila metroraino zuritu

Dena den, era honetako adibide bat aurkitu dugu:

(275)

«Erraten zuen ere Piarres Adamek, behin aditurik Nafarroako herri batean, ene ustez Alduden, bazela errotazain bat sudurrez fama handia zuena, guan zela, behar den moldean aphaindurik eta bere makhila ederra eskuan harturik, haia-haia eta mendiz-mendi nafartar famatu horren herrira, eta, han, gudua ikhusi zutenen arabera, Lapurdi Nafarroari nagusitu zela; herri artako hauzo-apezak eta konseiluko hiru gizonen *erran zutela* goraki eta paperean *ezarri*: nafartarrak franko luxea zuela sudurra, bainan mehea;» (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 8-9)

Honetan guztian badirudi menpeko perpausa mintzagaia izan ala galdegaia izan desberdintasuna dagoela. Adibidez, (270)-eko denborazkoa mintzagaia zen, baina (276)-koa, galdegai irakurketarekin, txarragoa da:

(276)

[Etxetik irten nintzenean eta autobusa hartu] ohartu nintzen nire hutsegiteaz

Zehargalderetan, bestalde, konpletiboetan baino emaitza txarragoak lortzen dira:

(277)

- a. *?Galdetu didate euria noiz hasi zuen eta erreka bere bidetik noiz atera
- b. *?Jakín nahi nuke euria noiz hasi zuen eta erreka bere bidetik noiz atera¹⁴²

Eta txarrenak, zalantzarik gabe, erlatibozkoetan:

(278)

¹⁴² Beste zenbaitetan onargarriago gertatzen da:

- (i) Ez dakit partidua nork galdu duen eta nork irabazi

Eta kontuan izan behar dugu zehargalderetan bestela ere izaten direla laguntzailerik gabeak:

- (ii) Ez dakit nora joan

Baina gu aztertzen ari garenetatik egitura-mota desberdinak dira: (ii) bezalakoek subjektua kontrolaturik izaten dute:

- (iii) *Ez dakit nork irabazi

eta (i) bezalakoak berriz ziurrenera hustuketa-egituren artean sartu beharrekoak izango dira.

- a. *Atzo erosi nuen liburua eta Mireni oparitu, neroni nago irakurtzeko irrikitan
- b. *Atzo erosi nuen eta Mireni oparitu liburua, neroni nago irakurtzeko irrikitan

Dena den, erlatiboa izenaren eskuinetara baldin badoa gauzak dexente hobetzen dira:

(279)

Liburu gorria, atzo erosi nuena eta Mireni oparitu, neroni irakurtzeko irrikitan nago

Hona testuetan bildutako zenbait:

(280)

a. «Ez datza hortan bakharrik gure makhurra; bertze gaitz bat badugu are gehiago hedatzen dena eta eskuarari kalte egiten.» (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 22)

b. «Banitatezko airea sartzen da solas hetan, zeñak lizuntzen baitu laster gure arima eta debekatzen jainkoa gana librokari altxatetik.» (Chourio, *Jesu-Christoren imitacionea*, 24)

Perpaus jokatu gabekin ari garenean ordea, Euskaltzaindiak (1994,72) dioen bezala, ez da zilegi bigarren juntagaiko ondarkia isilean isilean uztea; juntagailuaren ezkerrekoa utzi behar da nahitaez:

(281) a. Esan zidan goiz jaiki, eta berehala lanera joateko

b. *Esan zidan goiz jaikitzeke, eta berehala lanera joan¹⁴³

Elipsia juntagailuaren ezkerrean dagoenean menpeko perpaus-mota guztiekin ere ez da arazorik sortzen:

(282)

a. Euskal Herritik irten eta kanpoan egun pare bat pasa nituenean hemengo gorabehera guztiak arrotz egin zitzaizkidan

b. Atzoko zozketan loteria tokatu eta diru asko irabazi badut etorkizunari nola heldu pentsatzen hasi beharrean izango naiz

¹⁴³ Zalantzaszko adibide bat:

«Noiztanik ote da ez haizu *bi mintzai ukaitzea eta biak maite*, izanik ere lehenari, hurbilenari, bereago hari estekatuxago(?)» (J. Hiriart Urruti, *Zenbait aurpegi*, 205)

Nominalizazioetan forma osoek eta elipsidunek eragin ditzaketan irakurketa desberdinez aurrerago ihardungo dugu.

- c. Joxek esan dit elurra egin eta mila metrora ziritu duela
- d. Ez dakit klasea zer ordutan hasi eta zer ordutan amaitu den
- e. Atzo erosi eta Mireni oparitu nion liburua irakurtzeko irrikitan nago

Jarraian aditz laguntzaile bakarria duten adibideen ezaugarriez hitz egingo dugu.

2.4.2. Ezaugarri sintaktikoak

2.4.2.0. Sarrera

Salaberriren lanean ALE deiturapean biltzen ziren bi Aditz eta laguntzaile bakarria zuten adibide guztiak. Guk egituraren aldetik zenbait bereizkuntza egin nahi genituzke. Batzuetan, bi A zuzenean juntatzen dira, eta horrelakoetan irtenbiderik egokiena zuzeneko juntaturarena da:

(283)

Europarrek erraz [_A[_Agaraitu] eta [_Adeuseztu]] zuten azteken inperioa XVI. mendean


Beste bideek oinarriko juntaturarenak baino arazo gehiago sortzen dute. Baina adibide askotan bide hori ezinezkoa da. Salaberri saiatu zen horrelako kasuen berri ematen. 2.4.2.1.-en Salaberriren analisisa aurkeztuko dugu, eta zenbait arazo nabarmendu ondoren galdegaien banaketarako (*Joxek erosi du autoa, eta ez Pellok*) erabili dugunaren tankerako hurbilketa bat proposatuko dugu. Bestalde, beste zenbaitetan perpausak edo perpausen oso antzeko unitateak juntatzen dira. Hurrengo hiru azpiatalek horien azterketa izango dute helburu. Lehenik, laguntzaile bakarraren besarkadurapean oinarrian sortutako INFL baino txikiagoko unitateen zuzeneko juntaturaren arazoak ikusiko ditugu. 2.4.2.3.-n erakutsiko dugu ALE-dun perpausak erabili edo ez erabili ez dela guztiz hautazkoa, eta ondorioz, ezabaketaren nahiz kategoria isilaren hipotesiari arazoak sortzen zaizkiola. Azkenik, 2.4.2.4.-n ezkerreko perpausako laguntzailea falta

duten juntadurek *Juntadura-Egituretako Debekuari* (Coordinate Structure Constraint) isikin egiteko duten aukeraz eta horrek egitura sintaktikoan izan litzakeen ondorioez hitz egingo dugu.

2.4.2.1. Salaberri (1985)

Era honetako egituretan punturik garrantzitsuenetakoa zer juntatzen den erabakitzea izaten da. Hasieran esan bezala Salaberrik aztertzen dituen adibideetan aditzak bakarrik dira desberdinak, beste guztia perpaus bakar bat balitz bezala agertzen da. Bere adibideetan garai hartan proposatzen ziren egituren baitan ahalik osagai txikienen juntadura erabiltzen du Salaberrik, errepikaturik dagoena ezabaketa bidez desagerraraziz:


(284) Guk honratzen ditugu eta inbokatzen sanduak



Baina berak esaten digunez zenbaitetan bide horretatik ezin da aurrera egin; (285)-en berri emateko proposatzen du bi perpaus juntatzen direla¹⁴⁴, eta eskuinekoan desberdinak diren elementu guztiak (bat ez besteak) ezabaketa-erregela batez eraisten direla (Salaberri 1985, 82):

(285) Guk honratzen ditugu sanduak eta inbokatzen

¹⁴⁴ Adibide honekin berez ez zuen nahitaezko bi perpaus juntaraztea, bi AS juntatzea nahikoa zuen.



Beraz, erregelari Aditz Laguntzailearen Ezabaketa deitzen dio, baina erregela horren bidez aditz laguntzaileaz gain beste elementu zenbait ere ezabatzen ditu. Bere ustez, bestalde, berak *koordinazio berezi* deitzen dituen ondoko egitura hauek ere era berean aztertu behar dira (61-70):

(286)

a. «Abraham, Isac, Jacob *jatorri onetacoac* ciran, *eta chit vertutetsuac.*» (Agirre Asteasukoa, *Eracusaldiac II*)

b. «*Sabel-zorria* egin iaku *eta edan gurea.*» (Mogel, *Peru Abarca*, 62)

c. «*Izpiritutsuak* dira bizitzen dakitenak, *eta kortesak.*» (Etxeberri Sarakoa, *Idazlan Hautatuak*, 62)

d. «Egun *bakarrik eskualdunaz* gira mintzo, *eta apezaz.*» (Hiriart-Urruty, *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, 161)

e. «Batziek errexki uzten dute, kasik gogotik, *uzterrak* dira *eta ahulak.*» (Jean Etxepare, *Buruxkak*, 93)

f. «Ohoín hau *gaiztoa* da, *eta agüdia.*» (Tartas, *Oña hilceco bidia*, 123)

Berak aztertzen dituen autoreetan maiztasunaren aldetik egitura bata eta bestea (284 eta 285-ekoak eta 286-koak) elkarri esku emanik bezala agertzen zaizkigu: aditzena ugaritzen denean ugaritzen da bestea, eta alderantziz; ondorioz biei analisi bera ematea proposatzen du, oinarrian bi perpaus oso juntatu eta gero desberdina ez den guztia ezabatu.

Salaberriren analisiak egungo proposamenetara nola egoki litezkeen aztertzen ez naiz ahaleginduko, baina hurbilketa honen arazoak azaldu nahi nituzke, izan ere, kontuan izan behar dugu bai unitate txikiaren juntadura eta jarraian ezabaketa eskatzen duen bidea hautatuz bai perpaus-juntadura hautatuz gero ondorengo hauek esplikatzeara oso zail izango genukeela:

(287)

a. «*Garbi nago ni eta libre* guizón justogónen odoletik» (Lizarraga, *Doctrina Christioarén Catechima*, 164)

b. *Honratzen* ditugu guk sanduak eta *inbokatzen* goi-goikoaren babesaren lor diezaguten

Lizarragaren adibidean bi perpaus daudela onartuko bagenu, zenbait elementu lehenengo perpausean ezabatu beharko genituzke, baina literaturan ez da era horretako erregelarik proposatu; perpausa baino txikiagoko atalen juntadura dagoela proposatzu gero, berriz, ezin da asmatu zein den juntatu beharko litzatekeen kategoria txikien hori. Horrez gain, *eta libre* bezalako elementuak leku batean baino gehiagotan ager daitezke:

(288) a. *Garbi nago ni eta libre* gizon justo honen odoletik

b. *Garbi nago ni gizon justo honen odoletik eta libre*

Esanahiaren aldetik, ordea, ez da desberdintasunik somatzen. Bete beharreko baldintza zera da: gibeleratutako elementu horrek galdegai izan behar duela. Eta bada kontuan izan beharreko beste datu bat ere: perpaus-juntaduretan laguntzailea isilik eskuinean bestetan uzten ez duten autore asko eta askok oso nekez erabiltzen dituzte *honratzen ditugu eta inbokatzen* bezalakoak aditz-juntaduretan, eta aldiz ugari *honratzen eta inbokatzen ditugu* bezalakoak; eta ildo berean, euskara mintzatuan perpausekin hain ohikoa den eskuineko laguntzailearen elipsia ezohikoagoa eta markatua da aditz soilak juntatzen direnean.

Hau guztia kontuan izanik Salaberrik darabiltzan adibideen berri emateko bide bat zera izango genuke, perpaus horietan juntatutako galdegaietako bat bere lekutik gibeleratuta dagoela proposatzea; alegia, aukera estilistiko modura, idazleak juntatutako elementuak elkarren alboan pilatu ordez juntagai horietako bat edo gehiago geroagoko uzten duela, nolabaiteko enfasia emanez. Sintaktikoki zer tratamendu eman beharko litzaiokeen erabakitzea ez da erraza, bereziki gibeleratzen den elementu hori perpausean leku batean baino gehiagotan ager daitekeelako. Esaldian leku desberdinetan tartekatzeak aukera bertsua erakusten zutenak galdegai bati kontrajarritako elementuak ziren (2.2.3.8.3.). Hortaz, badirudi egokiena bi elementu horiek oinarrian juntaturik sortu eta beranduko erregela estilistikoren baten bidez elementuetako bat gibeleratzen dela proposatzea izango litzatekeela, nahiz ohartzaren juntaturak irla sintaktiko izan ohi direla. Egia da era honetan perpaus osoak juntatu ondoren aditz laguntzailea isilean uzten duten adibideetatik urrundu egiten garela, baina iruditzen zait zatiketa hau gabe jokaera horien guztien berri ematea

gehiago kostako litzaigukeela. Ondorengo ataletan elementu desberdin gehiagoko adibideen ezaugarriak ikusiz joango gara.

2.4.2.2. InflS-k juntaturik

Elementu gehiagoko perpausekin lan egiten dugunean gogoan izan behar dugu isilean geratzen den aditz laguntzaileak ez duela zertan agerikoaren berdina izan:

- (289) a. *Goenkale* ikusi eta hamarretarako ohera joan naiz
 b. Joxek jai hartu zuen eta mendira abiatu

Era honetako adibideak, bereziki aditz laguntzailea lehenengo perpausean falta dutenak, euskararen ergatibotasunari buruzko eztabaidaren harian sarri erabili izan dira, euskara sintaktikoki hizkuntza ergatiboa edo akusatiboa den behatzeko. Esaterako, Ortiz de Urbinak (1989, 22-23) dioskunez, horrelako adibideak eratu ahal izateko baldintza bakarra bi perpausek subjektu bera izatea da: «In fact, the only restriction is that both conjuncts share the subject argument, not the absolutive or ergative». Horregatik, ondorengo hau:

- (290) Semea eskolan utzi eta klasera joan zen

«cannot be interpreted as having the absolutive semea 'the son' of the first conjunct as the absolutive subject of the second conjunct». Gauza bera gertatzen omen da laguntzailearen elipsirik gabeko juntaduretan ere:

- (291) Semea eskolan utzi zuen eta klasera joan zen

Egia da gauzak gehienez hala direla, baina ez dut uste Ortiz de Urbinaren aldarrikapenak guztiz zuzenak direnik. Laguntzailearen elipsirik gabekoei dagokien bezainbatean, begira diezaiozun ondorengo pasartetxo honi:

- (292)
 Mikeli oso gutxi gustatzen zitzaion eskola. Hala ere, apirileko goiz hartan aitak arkatz berria oparitu zion eta gustura joan zen klasera.

Ez dago inolako arazorik klasera Mikel joan zela ulertzeko; alegia, bigarren perpauseko subjektu lehenengoko zehar-objektua da, ez lehenengoko subjektua. Nahastea auzia bide okerretik bideratzeak eragiten du. Lehenago ere aipatu dugu juntadura-egituretan

pragmatika zein erabakiorra den: mintzagai bakarrari buruz egindako bi iruzkin juntatu ohi ditugu gehienez. Ezaguna da, bestalde, isolatuta emandako perpausetan mintzagaitzat subjektua hartu ohi dugula. Bada, juntadura-egitura batean bigarren perpausoko subjektua isilean geratu bada, topiko modura ulertzeko joera izango dugu, eta lehenengoko sujetoaren (mintzagaiaren) berdintzat hartuko dugu:

(293) Aitak semea eskolan utzi zuen eta klasera joan zen

Horrez gain, euskara pro-drop hizkuntza denez, beste askotan bezala isilean utzitako argumentuak mintzaigaitzat hartzeko joera izango dugu. Hortaz, Ortiz de Urbinaren adibidean bezala, lehenengo perpausoko subjektua ere isilean utzi bada, isilean geratu diren bi subjektuak berdintzat hartzeko joera azkartu egingo da:

(294) Semea eskolan utzi zuen eta klasera joan zen

Lehenengo perpausuan subjektua agerian eta objektua isilean badaude, mintzagaitzat objektua hartuko dugu, eta objektu horren erreferentzia berekotzat ulertuko dugu bigarren perpausoko subjektu isila:

(295) Aitak eskolan utzi zuen eta klasera joan zen

Era honetako adibideek, beraz, ez digute gehiegi lagunduko hizkuntza bat sintaktikoki ergatiboa ala akusatiboa den erabakitzeko¹⁴⁵. Egituraren aldetik, berriz, bigarren

¹⁴⁵ Euskararen akusatibotasun sintaktikoaren alde egiteko Sarasolak (1977) agerian inolako argumenturik ez duten adibideak erabiltzen ditu, eta horrela hemen aipatu ditugun faktore pragmatikoetatik zenbaiten eraginari ihes egiten die:

i. Eraman du eta etorri da

Baina hala ere juntaduretan mintzagai bakarrari buruz bi iruzkin desberdin egiteko joera berdin mantentzen da. Dena den, juntaduraren argudioak izan litzakeen arazoak present ditu (Sarasola, 1977, 81): «Aunque la solución a la cuestión de la coordinación, no ya para el vasco, sino para cualquier idioma, no se halla todavía totalmente establecida, (...)».

Hualdek ere (1988, 317-318) Bossong-i (1984) kritika egiteko unean era honetako faktoreen eragina aipatzen du, baina berez ustez ez dute juntaduretako elipsia euskararen akusatibotasun sintaktikoaren aldeko froga bezala baliogabetzen, (ii) bezalako adibideek kontesturik gabe interpretazio bakarra dutelako:

ii. Gizonak jo du eta etorri da hona

Nire ustez interpretazio bakar hori elipsidun juntaduren ezaugarri pragmatikoek eragiten dute, eta euskararen akusatibotasun edo ergatibotasun sintaktikoaz gutxi esaten digu. Gainera, interpretazio hori sintaxiak behartua balitz, bestelako interpretazioa dutenekiko zer desberdintasun sintaktiko duten ere zehaztu beharko litzateke.

perpauseko subjektu isila pro besterik ez genuke izango¹⁴⁶. Eta ildo berean, Ortiz de Urbinak lehenengo perpauseko laguntzailea isilean dutenentzako proposatu zuen debekua ere, hots, bi perpausek subjektu bera behar dutelakoa, ez da egokia. Begira ondorengo hauei:

(296) a. Ni menditik etorri eta Joxek etxetik aldegin zuen

¹⁴⁶ Ingelesean dirudenez horrelako juntaduretan bigarren subjektuak eta lehenak bera izan behar dute. 80etako hamarkadan, juntadura-egiturak oinarritikoak zirelako ikuspegia nagusitu zen. Baina ezaguna da ingelesez, eta beste zenbait hizkuntzatan, subjektu bera duten perpaus aktiboak eta pasiboak elkarrekin junta daitezkeela:

(i) The robber ran out of the bank and was arrested by the police

Pasiboetako subjektua aditz sintagmaren objektu lekutik igoa dela onartzen bada, arazo larri bat irteten zaigu bidera: (i) aditz sintagmen (edo I'-en) juntaduratzat hartzen badugu, Ross-en Juntadura Egituretako Debekua (JED) bortxatzen dugu; perpaus-juntaduratzat hartzen badugu, bigarren perpauseko subjektuaren lekuan zer kategoria isil dagoen zehazten arazo handiak izango genituzke, eta gainera horrelakoak perpaus-juntaduratzat ez ditugula hartu behar sinestera eramaten gaituzten frogak badira (eztabaidarako, ikus Van Valin (1986) eta Godard (1989)).

Ataka gaizto horretatik irteteko bidea subjektuak oinarrian AS-ren barnean sortuak direla dioen proposamenak eskaini zuen (Burton & Grimsaw 1992, McNally 1992): perpaus iragankorretako subjektuak ere, pasiboetakoak edo aditz inakusatiboak dituztenetakoak bezala, oinarrian AS-ren barnean sortzen badira, guztiak igoera-mugimendu bera egin behar dute azaleko subjektu lekura, JED-ren bortxaketarik ez da gertatzen, eta (i) bezalakoak oinarriko juntaduraren bidez esplika daitezke. Datu hau aditz sintagmaren barneko subjektuen aldeko argudiotzat aurkeztu zen.

Kathol-ek (1992), alemanierako hauen antzeko zenbait adibide aztertzen ari dela, analisi-mota batak nahiz bestean dituen arazoak egoki agertzen dizkigu. Bi perpaus mota aztertzen ditu:

(ii) in den Wald ist der Jäger gegangen und hat einen Hasen gefangen
 into the forest is the hunter gone and has a hare caught
 'The hunter went into the forest and caught a hare'

(iii) der Jäger ging in den Wald und fing einen hasen
 the hunter went into the forest and caught a hare

(iii) adibidean subjektua hasieran doa, eta badirudi bi aditz-sintagma juntatzen direla; (ii)-n horrelako ezer esatea askoz zailago da, subjektua aditz laguntzailea eta nagusiaren artean agertzen delako; hala ere, biak egitura-mota bera direla erakusten duten froga ugari eskaintzen ditu. Eta lehentxeago esan bezala, bai kategoria isilaren hipotesia, bai oinarriko juntadurarena, bai nolabaiteko mugimenduren baten hipotesia desegokitzen jotzen ditu adibide hauetarako. Bere proposamena gramatika kategorialen ildotik bideratzen du. Hemen ez gara xehetasunetan sartuko, baina nabarmendu beharrekoa da artikularen amaieran esaten diguna: «There might actually be less syntactic structure mediating between sound and meaning than is commonly assumed in virtually all current frameworks». Era batera edo bestera formulatu, badirudi juntaduraz arduratzen diren gehiena horrelatsuko ondorioetara ailegatzen direla.

Euskaraz, lehen esan bezala, gauzak desberdin gertatzen dira, testuinguruaren arabera juntagailuaren eskuineko subjektuak edozein erreferentzia har dezake, eta egokiena pro proposatzea dela iruditzen zait. Gainera, aurreko ingelesekoa bezalako edozein proposamenek kasuarekin arazoak izango lituzke: (290) bezalako adibide batean lehenengo juntagaiko aditz laguntzaileari ergatiboa dagokio, eta bigarrenari absolutiboa, eta subjektu bakarra daukagu.

Desberdintasun hori dela eta, horrelako egiturak ez dira egokiak izango ergatibotasun edo akusatibotasun sintaktikoari buruzko frogak aurkitzeko, eta euskaraz AS-rik baden ala ez den erabakitzeke ere ez (ikus: Rebuschi 1989:91-95; eta Ortiz de Urbina 1989 (b):346).

b. Josunek aurreko astean haurra izan eta ezin izan dut gaur arte ikusi

Subjektuak desberdinak dira, baina hala ere zilegi da lehenengo perpauseko laguntzailearen elipsia (ikus halaber Rebuschi 1989, 93). Horrek hurbilketa sintaktikorako ondorio nabarmena du: subjektua egitura sintaktikoan laguntzailea baino gorago jartzen duten proposamen guztietan ezinezko izango da era honetako adibideak kategoria isilik (edo ezabaketarik) gabeko oinarriko juntadura soilaz esplikatzeari: beraz, subjektuak zilegiztatzen diren unean badirudi INFL-en beharra dugula¹⁴⁷, eta laguntzailea ezkerrean bakarrik zutenetan bezalaxe perpaus osoen juntadura proposatu beharrean gaudela.

2.4.2.3. Elipsiaren hautazkotasun eza

Aurreko atalean esan dugunaren arabera, (296) bezalako adibideetan bi perpaus oso juntatzen ditugu, eta laguntzailearentzat kategoria isila edo ezabaketa proposatu behar da. Hurbilketa horri hain erraz egokitzen ez zaizkion datuak ere badira ordea. Begira ondorengo bikoteei:

- (297) a. Ni Madrila joan naiz eta Mirenek oinetako berriak erosi ditu
b. Mirenek oinetako berriak erosi ditu eta ni Madrila joan naiz

- (298) a. Ni Madrila joan eta Mirenek oinetako berriak erosi ditu
b. Mirenek oinetako berriak erosi eta ni Madrila joan naiz

Lehenengo bikotekoak baliokidetzat har daitezke; bigarrenekoek ordea ez dute gauza bera aditzera ematen: bi perpausek adierazten dutenaz gain, pentsatu behar da bien artean badela erlazioren bat, kausazko, denborazko edo beste nolabaiteko loturaren bat, eta badirudi ekintza bakarra adierazten dutela¹⁴⁸. Are gehiago, ezkerreko perpausa laguntzailerik gabe doanean irakurketa guztiz simetrikoa duten adibideak oso zalantzazkoak suertatzen dira:

- (299)

¹⁴⁷ Isilean bigarren laguntzailea geratzen denean oraindik zailago da horrelako zerbait proposatzea. Gainera, testuetan zehar hemen geuk eman ditugun adibideetan baina hitzordena askoz korapilatsuagoak nonahi aurkitzen dira. Bestalde, subjektu desberdinak izateko aukera badenez, bakarra agertzen denean berriro ere pro dela proposatu beharko da. Kasuari buruzko zenbait auzi ere agertu beharko dira.

¹⁴⁸ Guztizko simetrikotasunik gabeko hauek ez dira, gainera, hain urriak: Lazaraton-ek (1992) ingeleserako egindako azterketako emaitzen arabera, testu idatzietan bi eratakoak paretsuan dabilta, eta ahozkoan paralelo ez direnak sei aldiz gehiago agertzen dira.

- a. Javi Los Angeles-en egon da eta Itziarrek Rochester-en eman ditu klaseak
- b. Mikel-ek New York-en ikasi du eta Pellok Austin-en sei urtez egin du lan

(300)

- a. ??Javi Los Angeles-en egon da eta Itziarrek Rochester-en eman ditu klaseak
- b. ??Mikel-ek New York-en ikasi du eta Pellok Austin-en egin du lan sei urtez

Laguntzailerik gabea eskuineko perpausa denean, ordea, nire ustez arazo gutxiago izaten da irakurketa simetrikoa onartzeko:

(301)

- a. Pello Indiatik etorri da eta Joxe oporretara abiatu da
- b. Pello Indiatik etorri da eta Joxe oporretara abiatu

(302)

- a. Mikelek New York-en ikasi du eta Pellok Austin-en lan egin du sei urtez
- b. ?Mikelek New York-en ikasi du eta Pellok Austin-en lan egin sei urtez

Hortaz, ezkerreko perpausoko laguntzailea isilean duten adibideak eta adibide osoak ez dirudi baliokideak direnik: perpaus osoetan ere uler liteke lehena eta bigarrenaren arteko erlazio edo lotura hori, baina irakurketa simetrikoak ere zilegi dira. Bestalde, elipsia guztiz hautazkoa ez izateaz gain, ezkerreko perpausa laguntzailerik gabe agertzen duten adibide batzuetan badirudi ezer ez dela falta, edo gutxienez oso zail egiten da zer falta den zehaztea¹⁴⁹:

(303)

- a. «Bera berez edo bere lagunez ezin joan zen aldian igortzen zuen S. Francisco Xavierrek edozein aur edo mutil bataiatu; ta igortzen zituen aurren eskuz egiten zituen, egitekoz beterik ez egotera, *berak joan ta egiñen zituen milagro andiak*; (...)» (Mendiburu, *Bederatziurrena*)
- b. «Alkarrerri begirada illun-zorrotz bat jaurti, bekoki-buruak aurrerantz ausarditsu luzatu, abrunkadea artu eta or yoiakuzak barriro be gure Kardantxillo ta Antoñ alkarren ganera, *troka bateko aldatz-bera*

¹⁴⁹ Elipsia eskuineko perpausuan dagoenean ziurrenera errazago gertatzen da zer laguntzaile behar den jakitea.

*banatatik bota eta troka-zuloan alkar jota zatituten dozakan arri aundi biren antzera.» (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*)*

c. «Patxi, edan ta pagatu bihar ez deguben ezkerro, txopiñ banaz nik konbidatzen zaituztet.» (R. Azkarate (1895), *Ijitoen Kontratuba eta abar*, 30, Etor, Auspoa liburutegia, 1988)

d. «Kontu oiei utzi ta orain nua Brixkok esan dituben itzi erantzutera.» (R. Azkarate (1895), *Ijitoen Kontratuba eta abar*, 33, Etor, Auspoa liburutegia, 1988)

e. «Astoaren jabeak alako far-irudi batekin erantzun ziyon:

- Nik txantxetan esan eta benetan ilko ote zera zu?»¹⁵⁰ (R. Azkarate (1895), *Ijitoen Kontratuba eta abar*, 132, Etor, Auspoa liburutegia, 1988)

Horrelakoetan badirudi nolabaiteko egitura berezien aurrean gaudela, eta ezin dela falta den ezeri buruz hitz egin¹⁵¹.

Beraz, aurreko atalean ergatibotasunaren eztabaidatik abiatuta InFLS baino txikiagoko atalen juntadurak sortzen dituen arazoak aipatu ditugu, eta agertu dugu laguntzailerik gabeko perpausean subjektua zilegiztatuko duen INFL moduko elementuren bat behar dela. Oraingoan datuek itxura batean bederen aurkako ondorioetara eraman gaituzte, izan ere, elipsiak eragiten dituen irakurketa-murriztapenekin eta azkeneko hauek bezalako adibideekin ezabaketaren nahiz kategoria isilaren hipotesiei arazoak sortuko litzaizkieke. Elipsia eskuinetan dutenekin ez litzateke horrelako arazorik izango, nahiz honek eskuinetako eta ezkerreko laguntzailearen arteko parekotasuna hautsi egingo lukeen. Gogoan izan behar dugu, baina, aspektu-markei dagokienean ere desberdin jokutzen dutela.

Dena den, gutxienera InFLS-ak juntatzen direla mantenduz ere hautazkotasun- ezaren eta irakurketa asimetricoen berri emateko bideak ziurrenera izan litezke: proposa liteke ALE ezkerretara duten adibideetan somatzen den lotura gainerantsi horrek sintaxi-egiturarekin eta FL-ko interpretazioarekin ez baina FF-ko emaitzek

¹⁵⁰ Kasu honetan lehenengo perpauseko aditzaren aspektua ez da etorkizuneko.

¹⁵¹ Gauza bera gertatzen da ondorengo hau bezalakoekin ere:

(i)

Ordulariari so egin, agudo jantzi, ura gogotik edan eta ganora handirik gabe ile motza orraztu nuenean konturatu nintzen igandea zela, eta ez nuela inolako presarik.

Horrelakoak sarritan aurkitzen dira, eta badirudi kontakizunari azkartasuna emateko edo erabiltzen ditugula, ekintza-andanak aurkezteko. Honi buruz geroxeago jardungo dugu.

eragiten dituzten irakurketa desberdinekin duela erlazioa; alegia, deribazioa FF eta FL-n banatzen den unerarte berdina izango litzateke ALE-dunentzat nahiz ALE gabeentzat, eta ondorioz, biek FL berdina izango lukete; FF-ko emaitza aldiz desberdina da, eta emaitza desberdin horrek eragingo luke hiztunek elipsidunetan nahitaez nolabaiteko lotura desberdina somatu behar izatea, baina lotura hori ez litzateke FL-k eman ohi den informazioaren modukoa izango.

Jarraian ezkerreko laguntzailerik gabeko adibideak perpaus osoak juntatzen dituztenetatik bereizten dituen beste alor bat ikusiko dugu, berriro ere 2.4.2.2.ko ikuspegiaren aurkakoa izan litekeena.

2.4.2.4. Laguntzailearen elipsia eta mugimendua

Euskaraz ezkerreko laguntzailea isilean duten perpaus-juntadurek irakurketa asimetrikoaz gain beste zenbait berezitasun ere badituzte, beren barneko elementuen mugitu ahal izateko aukerei lotuak. Ross-ek erakutsi zuen (1967) juntadura-egituretatik oro har elementurik ateratzerik ez dagoela (*Juntadura-Egituretako Debekua*), eta ezer ateratzekotan *Egituran Zeharreko Mugimenduz* (Across-the-Board Movement) atera behar dela. Erlatibozkoetarako mugimendua proposatzen zelarik:

(304)

- a. *Joxek atzo Mikel ikusi zuen eta Jonek gaur **t_j** agurtu duen gaztea_j kolonbiarra da
- b. *Joxek atzo **t_j** ikusi zuen eta Jonek gaur Mikel agurtu duen gaztea_j kolonbiarra da
- c. Joxek atzo **t_j** ikusi zuen eta Jonek gaur **t_j** agurtu duen gaztea_j kolonbiarra da

(305)

- a. *Mirenek atzo Mikelekin hitz egin zuen eta **t_j** gaur Jon etxera eraman duen gaztea_j kolonbiarra da
- b. *Atzo **t_j** Mikelekin hitz egin zuen eta gaur Mirenek Jon etxera eraman duen gaztea_j kolonbiarra da
- c. Atzo **t_j** Mikelekin hitz egin zuen eta gaur **t_j** Jon etxera eraman duen gaztea_j kolonbiarra da

(306)

- a. *Non_j esan duzu Zumalakarregi Ormaiztegin_j jaio zela eta gaur egun **t_j** karlistadei buruzko museoa dagoela?

- b. *Nonj esan duzu Zumalakarregi **tj** jaio zela eta gaur egun karlistadei buruzko museoa Ormaizteginj dagoela?
- c. Nonj esan duzu Zumalakarregi **tj** jaio zela eta gaur egun karlistadei buruzko museoa **tj** dagoela?

Alabaina, aditz laguntzailearen elipsia dagoenean zilegi da bigarren perpauseko elementuei bakarrik dagozkien erlazioak izatea, JED bortxatuz:

(307) Mikel menditik lokaztuta etorri eta algaraka hasi den gaztea Kolonbiarra da

Jokaera hori juntadurari ez baino menperakuntzari dagokio:

(308) Mikel menditik etorri denean algaraka hasi den gaztea Kolonbiarra da

Horren alboan, ohartzen gara laguntzailerik gabekoetan, menpekoetan bezalaxe, ezinezko dela Egituran Zeharreko Mugimendua erabiliz ezer ateratzea:

(309)

- a. White jaunak urrea Kalifornian aurkitu eta Amerikaren laurdenak bere bizia han birreraiki zuen
- b. *Nonj esan duzu White jaunak urrea **tj** aurkitu eta Amerikaren laurdenak bere bizia **tj** birreraiki zuela?
- c. *Nonj esan duzu White jaunak urrea **tj** aurkitu zuenean Amerikaren laurdenak bere bizia **tj** birreraiki zuela?

(310)

- a. Monakoko printzesek etxea Elantxoben erosi eta aldizkari gehienek beren argazkilariak han kokatu zituzten
- b. *Nonj esan duzu Monakoko printzesek **tj** etxea erosi eta aldizkari gehienek beren argazkilariak **tj** kokatu zituztela?
- c. *Nonj esan duzu Monakoko printzesek **tj** etxea erosi zutenean aldizkari gehienek beren argazkilariak **tj** kokatu zituztela?

(b) adibideetan ene iduriz laguntzailea -eta konplementatzaile-marka- nahitaezko da: beraz, jokaera hau ez da asimétriko guztiena¹⁵², laguntzailerik ez dutenena baizik. Bestalde, bi perpausak subjektu bera dutenean, eta subjektu hori hasieran doanean, subjektu horrek bigarren perpausuan dagokion kasu marka hartzea da nire ustez ohikoena egungo hiztunentzat¹⁵³:

¹⁵² Era honetako juntadurez aspalditik izan dira aipamenak literaturan. Erabilitako adibideek normalean ez dute elipsirik. Autore gehienak egitura sintaktikoan bi perpausak maila berean jartzearen alde azaldu dira; orduan, perpausen artean somatzen den erlazio bereziaren berri eman beharra dago. Grice-k (1975) erlazio horren oinarrian bere *Elkarrizketako Printzipioak* daudela aldarrikatzen du, baina Schmerling-ek hurbilketa horren mugak erakusten ditu. Berrikiago, *Egokitasunaren Teoriaren* (Relevance) barnean egindako lanean Carlston-ek ere (1993) berretze soilaz haratagoko kutsu horren berri emango duen pragmatikako edo diskurtsoko printzipiorik ez dela esaten du. Cuenca-k (1988) aldiz estrukturalismoaren ikuspegitik proposatzen du subordinazioaz eta koordinazioaz gain interordinazio deitzen den perpauserlazio bat ere badela, eta hori dagokiela juntadura asimétrikoetara (Cuenca, M.J., 1988,44): «Es la unión de dues cláusulas que mantienen relación d'interdependencia. (...) producir estructuras no recursivas o bipolares. (...) En general, cuando se altera el orden de los elementos, se obtiene una secuencia inaceptable o un significado diferente». Beste zenbait autorek, juntaduraren eta menpekotasunaren arteko izaera horren berri emateko, juntadura eta menpekotasuna hizkuntzaren maila desberdinetan desberdin gerta daitezkeelako ideari ateak zabaldu zizkieten. McCawley (1988, 281), adibidez, honela mintzo zaigu euskarazko laguntzailerik gabekoen antzeko egiturez ari dela:

«... Japanese, Tamil, and many other languages, in which there are coordinate Ss and V's in which one conjunct (the last conjunct in those two languages) takes the inflection that the whole coordinate structure is to bear, with the other conjuncts taking a participial form. I propose distinguishing two separate dimensions of coordinateness, namely, syntactic and morphological coordinateness, and allowing for the possibility of structures in which one constituent is syntactically coordinate with but morphologically subordinate to another».

Dena den, menpekotasun morfologikoaren kontzeptu horrek argitu gabeko puntuak uzten ditu: irakurketa asimétrikoa desberdintasun formalik gabe lor liteke; menpekotasun morfologikoak zer ondorio dituen eta ondorio horien zergatia zein den ez du agertzen; ALE eskuinetara dugunean ere agian menpekotasun morfologikoak hitz egin liteke, baina irakurketa simétrikoak onartzen dira.

Hurbilketa zeharo desberdina egiten duen autore bat Haiman (1985) da. Bere lanean diagrama linguistikoen ikonikotasuna aztertu eta nabarmendu nahi du, eta ikuspegi horren arabera juntadura simétria kontzeptualaren ikono izango genduke: zenbat eta asimétrikotasun handiagoa hizkuntza-zeinuen aldetik, simétria kontzeptuala ere ahuldu egingo litzateke. Horrela, ondorengo hauen artean, lehen aukera guztiz simétrikoa izango genduke eta bigarrenek bi juntagaien artean nolabaiteko asimétrikotasunen bat agertzeko joera izango lukete ((x) eta (y) diakritiko morfologiko arbitrarioak dira):

- 1) P1(x) eta P2(x)
- 2) P1(y) eta P2(x) // P1 eta P2(x)

Simétrikotasun formalak hausteko era desberdinak aipatzen ditu: zenbait hizkuntza algonkianretan P1-ek menpeko perpaus guztiek hartu ohi duten marka berezi bat eramaten du; Papua-ko zenbait hizkuntzatan P1-eko aditzarentzat eta P2-koarentzat marka desberdinak izaten dira. Horren guztiaren ondorioa (Haiman 1985, 76):

«... it is not surprising that compound sentences of this sort, much more strongly than compound coordinate sentences in English, strongly connote asymmetrical relations between S1 and S2. As well as expressing simple coordination, they typically express temporal succession, cause and consequence, (...)»

Dena den, joerez bakarrik hitz egiten du, eta eskuineko laguntzailearen elipsia dutenek irakurketa simétrikorako duten aukera ere arrazoitu beharko litzateke.

¹⁵³ Nahiz askoz gutxiago, idazkietan alderantzizkoak ere agertzen dira:

«Goiz hartan, Don Jose Mariak gaizki lo egin eta gorputzari behar besteko atsedetik eman ez dionaren aurpegiz esnatu zen.» (K. Amonarriz, *Jakin* 1995, 89 zkia, 126)

- (311) a. Mikelek menditik etorri eta dutxa eder bat hartu zuen
b. Mikel dutxa eder bat hartu eta kalera irten zen

Laguntzailea agerian dagoenean, berriz, alderantziz gertatu ohi da:

- (312) a. Mikel menditik etorri zen eta dutxa eder bat hartu zuen
b. Mikelek dutxa eder bat hartu zuen eta kalera irten zen

Bestalde, bi juntagaiek subjektu desberdin bana dutenean lehenengo eta bigarren perpausetako subjektuek desberdin jokutzen dute topikalizazioarekiko:

- (313) a. Mikelek, Joxe Indiatik etorri eta oporrak hartu zituen
b. *Joxe, Indiatik etorri eta Mikelek oporrak hartu zituen

Mintzagaia, beraz, laguntzailearen perpausari dagokio. Gauza bera gertatzen da galdehitzeekin ere; era honetako juntaduretan zilegi dira bigarren perpausako elementuei buruzko galderak:

- (314)
Nork_j esan duzu [Joxe Indiatik etorri eta t_j oporrak hartu zituela]?
(=Joxe Indiatik etorri eta nork hartu zituen oporrak?)

Jokaera horrek menpeko perpausenarekin egiten du bat, ez juntatutakoenarekin:

- (315) Nork_j esan duzu [[Joxe indiatik etorri zenean] t_j oporrak hartu zituela]?

Aldiz, lehenengo perpausako elementuren bati buruz galdetu nahi bada, bai aditz laguntzailearen elipsia dutenekin bai denborazko perpausekin emaitza askoz txarragoak lortzen dira:

- (316)

«Autoestopistak motxila presaz hartu, lepoan jarri eta neskaren alboan -goitiberaren leku librean- esertzen da.» (E. Martin & X. Zorroza, 1985, *Andre Zuria*, 16, Bizkaiko Aurrezki Kutxa).

Horrelakoak ziurrenera intonazio desberdinarekin irakurri behar dira. Baina ageriko subjektu horren ondoren pausa bat egiten bada, egitura guztiko mintzagai dela markatuz, azken aukera hau eragotzirik geratzen da:

- *Mikel, menditik etorri eta dutxa eder bat hartu zuen
*Mikelek, dutxa eder bat hartu eta kalera irten zen

- a. ??Nor_j esan duzu [t_j Indiatik etorri eta Joxek oporrak hartu zituela]?
- b. ??Nor_j esan duzu [[t_j Indiatik etorri zenean] Joxek oporrak hartu zituela]?

(317)

- a. ??Nondik_j esan duzu [Jon t_j etorri eta Mikel algaraka hasi zela]?
- b. ??Nondik_j esan duzu [[Jon t_j etorri zenean] Mikel algaraka hasi zela]?

Datu hau, berriro ere, JED-ri jaramonik ez egiteko aukerarekin lotu behar da.

Azkenik, ikusten da galdetzailea bi perpausetatik edozeini buruzkoa izateko aukera uzten denean, bigarren perpausari buruzkoa dela ulertzen dugula:

(318)

- a. Mikel txikia menditik lokaztuta etorri eta amak haserre begiratu zion
- b. Nola_j esan duzu [Mikel txikia menditik etorri eta begiratu ziola amak t_j]?
- c. *Nola_j esan duzu [Mikel txikia menditik t_j etorri eta amak begiratu ziola]?¹⁵⁴

Beraz, laburbilduz, konturatzen gara era honetako mugimenduei dagokienez laguntzailerik gabeko perpausak eta laguntzaileak desberdin jokatzeko dutela. Bi aditz laguntzaileak agerian dituzten juntaduretatik elementu bakarra atera nahi denean berriz, nahiz irakurketa asimetrikorako aukera egon, ez da bi perpausen artean inolako desberdintasunik somatzen. Ezabaketaren edo kategoria isilaren hipotesiekin zail gertatuko litzaiguke horrelakoen berri ematea; badirudi izaera sintaktiko berezia aitortu beharra dagoela.

¹⁵⁴ Laguntzailea juntatutako bigarren perpausaren falta denean, ez da zilegi ez bateko ez besteko elementuez galdetzea, nahiz juntadura-egiturak asimetrikotasun nabarmena izan:

- (i) a. Mikel menditik lokaztuta etorri zen eta Jon eroen modura algaraka hasi
 b. *Nola esan duzu Mikel menditik etorri zela eta Jon eroen modura algaraka hasi?
 c. *Nola esan duzu Mikel menditik lokaztuta etorri zela eta Jon algaraka hasi?

Galdetzaile hori bera bi perpausari buruzkoa denean, emaitza dexentez hobe lortzen delakoan nago:

- (ii) a. Jon menditik lokaztuta etorri zen eta eroen modura algaraka hasi
 b. Nor esan duzu t menditik lokaztuta etorri zela eta t eroen modura algaraka hasi?

Ohartzen naiz (i)-en subjektu desberdinak eman ditudala, eta (ii)-n subjektu bera dela, baina era honetako galdera natural samarrak egiteko era errazena hori da, eta ez dut uste desberdintasun horrek hemen aztertzen ari garen auzian inolako eraginik duenik: dagoeneko aipatu dugu bigarren perpausako subjektu isila pro dela, eta horrez gain, (i)-eko adibideak subjektu bakarrarekin emanda ere gramatikaltasun-irritziak berdinak dira.

Aukera bat izango litzateke era honetako egiturak menperakuntzaren alorrean kokatzea. Mugimenduarekiko erakusten duten jokaeragatik Goldsmith-ek (1985) itxura batean juntatuak diruditen zenbait perpausetan menperakuntza dagoela aldarrikatzen du:

(320)

How many courses can we expect our graduate students to teach t and (still) finish a dissertation on time?

Bere proposamena da semantikaren ondorioz perpaus horiek syntaxian berregituraketa jasan dutela: «...under certain semantic conditions *and* can act as a syntactic subordinator, governing its bare complement VP»¹⁵⁵. Euskarazkoetan ere menperakuntza balego eta inflexioarentzako kategoria isilik edo ezabaketarik proposatu behar ez balitz, subjektudun perpausak direla kontuan izanik sintaktikoki Aditza + ondoren, bitartean... bezalakoan (*Mikelek ikusi ondoren*) antzeko analisia emateko aukera izango genuke, nahiz semantikoki adiera-askatasun handiagoa izango genukeen. Baina horrelako analisi baterako ere badira zailtasunak. Zenbaitetan *eta* juntagailua enklitiko bihur badaiteke ere (*Hori esanda, etxetik irten zen // Berandu zen-eta, etxera itzuli zen*), ez dirudi hemen erabili ditugun adibideetan horrela gertatzen denik. Intonazioaren aldetik ere *aditza + ondoren/bitartean...* egiturak baino askoz askeago dago aurretik doakion aditzetik:

- (320) a. *Hiria ikusi // ondoren hotelera itzuli ginen
b. Hiria ikusi // eta hotelera itzuli ginen

Nire ustez ezkerreko laguntzailea falta duten juntadurek perpaus osodun adibideetatik ez dute desberdintasun aipagarriarik alor honetan. Bestalde, perpausaren barnean mugikortasun-aukera handiagoa dute aditza + ondoren/bitartean... bezalakoek:

- (321) a. Mikel baso ilunean arerioak ikusi ondoren ezkutatu zen
b. Mikel baso ilunean ezkutatu zen arerioak ikusi ondoren

¹⁵⁵ Bere analisisian *and* subordinatzailea da, eta subordinatzaile guztiek bezala bere islapen nagusia du, nahiz subordinatzailea zer kategoriatakoa den zehazten ez duen:

[_{XP} [X VP] (non X=*and*)

Gu aztertzen ari garen egiturekiko desberdintasunak nabarmenak dira. Batetik, badirudi bi subjektuek nahitaez berdinak izan behar dutela. Bestalde, menperatua bigarren perpausa da, eta aditz-denbora desberdinak interpretatzeko aukeren aldetik ere alde handia dago.

ALE egiturekin ezin da horrelakorik egin, *ikusita* bezalako formak erabili ezean, baina hauek egitura-mota desberdintzat hartzen ditugu, nahiz jatorri berekoak izan¹⁵⁶.

Menperakuntza dagoela zalantzan jartzeko azken arrazoia JED-ren inguruko zenbait arazok eman lezakete. Ross-ek berak (1967-1986, 103-107) JED baldintza proposatu zuen une berean aipatu zituen baldintza hori bortxatzen zuten adibideak:

(322) I went to the store and bought some whisky

Horrelakoak lehenengo perpausean estatiboak ez diren aditzak daudenean bakarrik agertzen omen dira, eta ez omen dute onartzen bigarren perpausa ezezkoa izaterik. Berak xedezko perpausekin zuketzen erlazioari egotzi zion jokaera hori:

(323) I went to the store to buy some whisky

Baina euskarazko adibideek Ross-ek ingeleserako emandako ezaugarriak ez bezalakoak dituzte, eta xedezkoekiko era horretako loturarik ez da inon somatzen. Gainera, Ross-en arabera aditz nagusia lehena izango litzateke, ez bigarrena, eta inolako elipsirik ez da agertzen.

Beste hurbilketa bat Culicover eta Jackendoff-en (1997) eskutik ematen zaigu. Beren lanean gramatikaren bi maila desberdinez hitz egiten digute: batetik, sintaxia, A-egitura eta FL bezalakoekin; bestetik *egitura semantiko kontzeptuala* (S/CS=semantic/conceptual structure) deitzen dutena, «the level of the form of mental representation in terms of which contextualized interpretations of sentences are couched». Lehen besterik gabe sintaktikotzat hartzen ziren fenomenoak bi maila horien artean banatuko dituzte: esate baterako, uztardura egitura kontzeptualean erabakitzen dela aldarrikatzen dute, ez sintaxian. Eta beren aburuz berdin gertatzen da JED-rekin ere. Hortaz, gerta liteke adibide bat sintaktikoki koordinatua izatea, eta hala ere JED ez betetzea, egitura kontzeptualean menperakuntza badago¹⁵⁷.

¹⁵⁶ Alde horretatik, ALE egiturak juntadura arrunten eta forma enklitikoaren erdibideko egiturak izan litezke. Guk eman ditugun adibideetan aditza beti perpausaren amaieran agertu da, baina horrelakoak ez diren bakan batzuk ere aurkitzen dira.

¹⁵⁷ Hori gertatzen da beren ustez ingeleseko baldintza-kutsuko zenbait adibiderekkin:

You drink another can of beer and I'm leaving

Ez ordea bi perpausen arteko lotura denborazkoa edo kausazkoa denean. Dena den, beren perpausetan ez dago elipsirik.

Dena den, hizkuntzalari gehienek JED baldintza eta berau ekiditeko Egituran Zeharreko Mugimendua sintaxiaren barnean kokatzen jarraitzen dute, eta lanik gehienak gramatikako beste eskakizunetatik ahalik egokien eratortzeari lotu zaizkio. Kondo-k (1991), esaterako, Katgoria Isilaren Printzipioa eta kuantifikatzaileen uztardurako baldintzaren arabera definitu nahi du, eta gehiagok ere antzerako norabideak izan dituzte (Pesetsky 1982; Anderson 1983; Woolford 1987; Goodall 1987). Auzi honek, beraz, euskal hizkuntzalaritzaren alorra gaintitu egiten du¹⁵⁸. Nolanahi ere, argi dago ezkerreko ALE duten adibideak eta bi laguntzaileak agerian dituztenak ez direla guztiz baliokideak, eta ezkerreko eta eskuineko ALE ere ez direla guztiz parekoak.

2.4.3. ALE eta hustuketa

Hustuketa eta ALE batzuetan elkarren oso antzekoak gerta daitezkeen arren (adibidez, aditza fokalizaturik duten zenbait hustuketatan) guk sail desberdinetan aurkeztu ditugu. Horrela, lehena hustuketaren ondorio izango litzateke, eta bigarrena ALE-ren ondorio:

(324)

- a. Nik musean gehienetan galdu egiten dut, eta zuk irabazi.
- b. Nik gaur goizean autoa erosi dut eta Anek gero harekin Madrilerako bidaiaria egin.

Artiagoitiak ordea bigarrena bezalakoei ere hustuketa deitzen die. Izan ere, Artiagoitiak (1995, 474) proposatzen du oro har (Ortiz de Urbina 1989, Eguzkitza 1986, Laka 1990) laguntzailezat hartu izan diren *izan/ukan* aditzak egiatan aditz nagusi direla, eta beste zenbaiten artean froga modura juntadura bera erabili du. Esaten du hustuketa egin ahal izateko aditz+INFL osoa behar dela isilean; horrela, *izan/ukan* aditza dutenekin ez legoke eragozpenik isilean uzteko, baina bai **ezan/*edin* dutenekin, azken hauek bere ustez INFL bakarrik baitira. Hona bere adibideak:

(325)

- a. Ainhoa mendira joango da eta Asier hondartzan geratuko [C [I/V ø]] ([ø]= da)

¹⁵⁸ Rouveret-en ustez (1995) JED ez bortxatzeko aukera EVENT bakarra duten perpaus koordinatuei dagokie. Ezaugarri horrek egitura sintaktikoarekin inolako loturarik izan dezakeen ez du argi ikusten.

b. $?(?)$ Ainhoa mendira joan daiteke eta Asier hondartzan [_V gera] [_C [_I \emptyset]] ($[\emptyset]=$ daiteke)¹⁵⁹

Niri ordea ez zait iruditzen froga hau oso sendoa denik. Batetik, berak zalantzazkotzat hartzen duen adibidearen modukoak aurkitzen dira tradizioan¹⁶⁰, eta niri bederen ez zaizkit desegokiak iruditzen:

(326)

a. «Ordu deno begiak idek ditzagun eta gisa hortarat berma.» (J. Hiriart U., *Jauna dut argi* I, 45)

b. «Gero guziak ikus arau hel-araz zitzan edo bederen ezagut-araz Pariseko jakintunei.» (J. Hiriart U., *Zenbait aurpegi*, 96)

Bestetik, aditz laguntzailea *izan/ukan* dutenekin zenbaitetan elipsia ez da askoz hobe:

(327)

a. $??$ Javi Los Angeles-en egon da eta Itziarrek Rochester-en eman klaseak

b. $??$ Pelloc gaur autoa erosi du eta Jonek amonaren tefono-dei bat izan

c. $??$ Ni Gasteizera joan naiz eta Ane ohean lo geratu

Datu hauek ez datoz bat Artiagoitiaren ikuspegiarekin, eta gure ustez juntadurak ez digu eskuarki aditz laguntzaitzat hartu izan direnak banatzeko argudiorik ematen. (325)-etik (327)-rako adibideen baldintzak, berriz, gertuago daude aditz laguntzailearen elipsikoetatik hustuketarako aipatu ditugunetatik baino. Azken batean biak juntaduran errepikapena ekiditeko baliabideak direlarik sail bata non hasten den eta bestea non amaitzen den ez dago nahi bezain argi, baina jokamolde nagusiak bereiz daitezke: zenbait ezaugarri garbiki hustuketarenak dira, adibidez, paralelismoa eta egitura pragmatiko jakin hura, bi perpausen arteko kontrastea, fokalizazioarekiko harremana, ea.; paralelotasuna eta kontrastea jaisten den heinean hustuketaren moldetik aldendu egiten gara, eta ez dugu hustuketako egitura pragmatikoa izaten. Hori da (324)-ko adibideetan ikusten duguna.

¹⁵⁹ Honen pareko adibide batean adierazten digu ordea gramatikaltasun-irizietan desberdintasunak izan litezkeela (Artiagoitia 1995, 67)

¹⁶⁰ Euskaltzaindiaren lanetatik ekarri ditut (1987, 72; 1994, 69).

2.5. BESTE ZENBAIT ELIPSI

Orain arteko elipsiei (hustuketa eta ALE) perpaus bateko ageriko elementuekiko nolabaiteko berdintasunak ematen zien bidea. Aditza beste zenbait egoeratan ere gera liteke ordea isilean (Euskaltzaindia 1987). Esnalek (1987-1989) elipsi guztiak batera bildu zituen, eta ahozko euskararen bereizgarri modura aurkeztu. Atal honetan Euskaltzaindiak eta Esnalek aipatzen dituzten elipsi horiek xehetasun handiagoz deskribatzen saiatuko gara, eta juntatutako perpaus batekiko berdintasuna behar dutenekin dituzketen erlazioak aztertuko ditugu. Lehenik laguntzailerik ez duten adibideei helduko diogu. Esnalek agertzen digunez laguntzailerik gabekoak ugariak dira bereziki *behar izan*-ekin:

(328)

a. «Lenago, iketzegosten asko ite san. Aste gustireko ta yoaten ginean pagaduietara edo burbusduietara.

Baye gaubetan be an egon *bear*, da makiña ba(t)p(b)ildur pasauu orrikas yentilokas.»(J.M. Etxebarria, 1994, 200)

b. «Yoan be gero, askotan infernuko lekuraño yoaten gaintzesan burkada bat idagaiti te pasau *bear* olangoak. Kontuak ataraxus, Elexurreako basora yoaten gintzesanean, bakean ibilite be goxaldean urten arantza d'igurdartean bija bat ineskero posik.» (J.M. Etxebarria, 1994, 144)

c. «Bost egun ederki pasa nituan nik emen, baña gero joan egin *bear*.» (Uztapide, 1975, 267)

Baita horren senitarteko izan litezkeen *nahi/gura izan*, *ezin izan*, *uste izan*, *balio izan*... eta tankerakoekin ere:

(329)

a. «Baten be, akordetan nas, gerra denporan, Santa Kurtzeko abadeak igon *gures* Uriondora bonban bildurres da Uriondoko gustieri Santa Kurtzera etorteko ordenea emon otzieren.» (J.M. Etxebarria, 1994, 210)

b. «Jaian lengo lagunetara joaten nintzan. Ordu beteko bidea bazan, bañan nik ara joan gabe *ezin* etsi, ta joan egiten nintzan.» (Uztapide, 1975, 82)

c. «Kontuak egiten asi giñan, da arek piska bat gerorako utzi nai zuan dirua; ta guk segituan kobratu *nai*, ta disputa gogorak ibilli giñuzen ortan. Baña dirua aren eskuetan zegoan, da *ezin* kendu.» (Uztapide, 1975, 138)

Baina beste edozein laguntzailerekin doazen aditzek ere ez dute eragozpen berezirik. Hona Esnalek bildutakoetatik (Esnal 1987, *Habe* 115 zkia) zenbait:

(330)

- a. «Deitu omen zuten berengana, baño apaiza ageri ez ta, Ernialdera joan omen zitzaizkion.» (Orixe, *Santa Kruz apaiza*, 31)
- b. «Meza ematen ari zala, Segorbeko eiztariena zeritzaion batalloia azaldu.» (Orixe, *Santa Kruz apaiza*, 32)
- c. «Probintzietan zeuden soldaduak; gobernua utzita karlistengana etorriko zala agindu, baño uts egin.» (Orixe, *Santa Kruz apaiza*, 28)

Izan ere, nire ustez zer aditzen ondoren agertzen diren baino datu garrantzitsuagoa da zer ingurunetan edo baldintzatan agertzen diren. Adibidez, ahozkoaren transkripzioa izan arren ondorengo honetan ez dut uste elipsia zilegi denik:

(331)

«Sarri auki ot o kebrantatxur bet artu te San Justoko landea udelanduteko tentasiñoa.
Entzuteataos ba or o ermitondoko landan idi narru bete urregorri daoela estai(t) nosik ona.
Esan dotzudena letxe, ondo tenol andi ta denodu gustiegas ekingo nauskio bearleku orreri baye notxakin non da seinbeteko sakonarien daoen. Da ganera ori landori ermiteana da ta elitike ondo ongo arakatuten ibiltea, Undurrako ausunakoak eta beste Seberiostrape elauskie ondo eretxiko orreri kontu orreri, ori goiti beti aberatzapardin ixingo gara, je-je-je, ta ganera Josafaten landan igoal e kontuek argitu beako naunkes, es, es, daosela bertanbera urregorriok!» (J.M. Etxebarria, 1994, 231)

Beraz, isilean uzteko baldintzak zein diren begiratu beharko dugu, eta juntaturakoekin inolako erlaziorik duten argitzen saiatu, Esnalek ematen dituen adibiderik gehienak juntaturakoak baitira. Horrela, ohartzen gara harridura kutsukoetan nahikoa erraz azaltzen direla era honetakoak:

(332)

«(Zorrondo edaten ari Santsunen ostatuan. Pelo heldu)¹⁶¹
ZORRONDO . - (*Santsun-i*) To, Pelo heldu zaiku... Pelo eiherazaina, bere astoarekin.
SANTZUN . - Bai usaia du. Hemen, zazpigarren estazionea du.
ZORRONDO . - (*Irriz*) Eta zenbat estazionetako bidea du?
SANTZUN . - Noiz nola! Maiz haatik elizako estazionen nonbrea pasatzen du.

¹⁶¹ Antzerkietarako ohar edo didaskalietan ugari dira horrelakoak.

ZORRONDO . - Eta dudarik gabe, estazione bakoitzean debozione luzeak egiten!... A, berriz ere aberastuko direla ostelerak! » (P. Xarriton, *Piarres Larzabalen idazlanak*, 126)

«PELO . - Haugi hona, on bahaiz, hi, kukuso kumea! Ene astoa gaizki erabili, ta gero ene gain ezarri nahi haren makurrak!» (P. Xarriton, *Piarres Larzabalen idazlanak*, 135)

Gauza bera gertatzen da norbere buruari egindako galderetan, informazio-eske egiten ez diren galderetan, norbere ustea galderaren bidez agertu nahi denean, eta, oro har, galdera erretorikoen kutsua duten guztietan:

(333)

a. «Jan genduan bapo bisigutik eta asi giñan bertsotan. *Gu zeñek ixildu?»* (Uztapide, 1975, 258)

b. «Girgillue ixilik, ukusi ukustauen bestea baye *nor yoan oin yana eske iñorrieri inek inde?»* (J.M. Etxebarria, 1994, 132)

c. «Urte-mordoa da Aia'ko baserritar bateri entzun niola pasadizo polita. Andrea gaixorik, erreumaren bidez mugitu eziñik; eta Ernio'ra joan nahi. *Baiña nola iritxi ara?* orrekin buruausteak.» (M. Lasarte, DV, Zabalik, 1987.eko otsailaren 18a, II)¹⁶²

Argibide modura, zehaztasunak emateko, ekintza nagusi baten azpi-ekintzak zein diren adierazteko, edo lan bat nola egiten den esplikatzeko edo denbora-unitate jakin batean zer egin den agertzeko ere sarri erabiltzen dira horrelakoak:

(334)

a. «D'oin yatok onena, orrikas anega garioakas, urterako ogie iten yaustiek. Artu sorroka eta errotara eroan. An io eta eralgi. Urun eralgibikoagas ogien in da baten eralgiegas tremesa. D'ogiek es bat, askos geao. Aspiran sabaldu gari urune, bota gatzure ta lebadurea, igurdi ondo, satien in d'itxi ondo yagiten, yagi bi badire obeto. Gero orregas in ogi nausiek asterako, edo pamitxak, edo paskoatan morrokotak, edo momentorako talo yagiek... Au gusti au labean. Otakas berotu labea da templea arturduen barrure ogiok.» (J.M. Etxebarria, 1994, 128)

b. «Nik ere emezortzi urte nituan, da nagusia ere etzan atzera begira egongo zan oietakoa. Ta, goizean saio ori eginda, etxera etorri, lenbizi gosaldtu, ta gero ganadu-jatekoak egin. Ori bat, jakiñako lana izaten zan.» (Uztapide, 1975, 80)

¹⁶² Esnal-enetik (1987-1989) hartua.

Eta honen oso hurbileko erabilera, askotan aurretik esan den zerbaiten argibide modura, zehazteko, ondorioak azaltzeko edo hizlariaren beraren iritzia agertzeko erabiltzen dira laguntzailerik gabekoak:

(335)

a. «Larunbatean Zelatunen kamustutako segak, jai-goizean ederki ebakitzen omen zuan. Ortik pentsatu belarretik belarrera zer alde dagoan. Beko belarra erreza izaten da goikoaren aldean. *Ark belar makala ederki ebakitzen, eta ari ugazabak asmatu*, "Ebakiko al dek ango belarra ik?" esan zionean.» (Uztapide, 1975, 79)

Guk sekula gibelurdiñik ederrenik ere ez genduan zuzter da guzi biltzen. *Danak, zuzterrak kendu ta otarra kertendun batean jarri, ta txarra utzi bertan*. Alare naikoa izaten zan an. (Uztapide, 1975, 25)

Horrelako adibide gehienek gainera nolabaiteko kontakizun-kutsua izan ohi dute. Adibidez, orainari buruzko elkarrizketa batean, edo etorkizuneko asmoak agertu nahi ditugunean, ahozkorako modukoak izan arren, oso nekez aurkituko dugu era honetako egiturarik:

(336)

a. «- Egik lo pixka bat. Esnatzen haizenean, zaldi putinkari bat *aurkituko duk* ate nagusiko txingolan lotuta. Azkarra duk oso. Ondo gobernatuta zegok. Urruti *eramango hau* neke handirik gabe.» (A. Lertxundi, *Otto Pette*, 278)

b. «-Hori ez duk ezer. Laster zorabioak zerura *eramango zaituzte; ikusiko duzue*. Hor gainean dizkiagu gelak. Horko eskailera horietatik igota bakarrik *irits daiteke* logela guztietara -(...)-, eta ikusia duzue gela guztiakitsuak direla; leihorik gabeak. Sarrerako ate tzarra maratilaz *itxiko diat*.» (A. Lertxundi, *Otto Pette*, 281)

Ildo horretan, aspektua gehienetan burutua izaten dugu, eta oso nekez puntukaria. Bestalde, indikatibotik gutxitan aldentzen gara: ahalmenera eta subjuntiboa dagokion perpausa ez da laguntzailerik gabe kaleratzen. Eta laguntzaile hori menpekotasun-markaren baten euskarri bada ere ez da isilean uzten ahal. Beraz, fenomeno honek baditu ahozkotatasuna baino baldintza eta ezaugarri garrantzitsuagoak.

Ezaugarri hauek kontuan izanik argi dago fenomeno bezala juntadurako elipsietatik bereizi beharrean gaudela, baterako eta besterako eskatzen diren baldintzak desberdinak baitira. Juntadurako elipsietan perpausaren barnean mugitzen ginen nagusiki, nahiz laguntzailea isilean uzteko sintaxi-berdintasunaz haratagoko zenbait baldintzaren beharra ere aipatu dugun. Atal honetakoekin berriz perpausaren esparrutik irten beharra dugu: testuaren zeregina eta aurretik eman den diskurtsoarekiko erlazioa

oso garrantzizkoak dira; badirudi gainera berbaldiak era autonomo batean jokatzen duela, hartzailea eta mezuaren besterekikotasuna kontuan izan gabe, eta denborarik ez balu bezala jokatuz, lehenago ezarritako denbora baten barnean garelako dakigularik gehiago aipatzeko premiarik somatuko ez balitz bezala¹⁶³.

Ohartzen gara, beraz, elementu bera -aditz laguntzailea- isilean uzteko bidea era desberdinetako baldintzak betez etor dakigukeela: batzuetan baldintza sintaktiko bat bete beharko da; besteetan sintaxiarekin zerikusirik gabeko baldintzetatik etorriko zaigu laguntzailea isilean uzteko baimena; testuetan bietako adibideak askotan nahasirik agertu ohi diren arren bi multzoak bereizi egin behar dira.

Sintaxi hutsaren bidez esplika ezin litekeen beste multzo bat aditz osoa isilean dutenek eskaintzen digute. Sarrien *izan*, *ukan*, *egon* eta *joan* bezalakoekin gertatzen da hori:

(337)

a. «Da, ba, olangoxe gausak, besterik ser dakipa nik orrinik... *Personajeak segun esataudein, andiek, da begi bet*. Da nik estait entzunde badauket emeti be (kokotera eskua eroanaz) beste bat aukitaula ostaikoa be ikusteko...» (J.M. Etxebarria, 1994, 207)

b. «Joan berri artan, egurra berdea zegoan artean errez ebaki ere egiten zan. Baña gero, egurra igartutzen asten zanean, naikoa lan izaten zan. *Mendiaren puntan trabes bakarreko asko*, ta etziran bereala osatzen berrogei ere egunean.» (Uztapide, 1975, 92)

c. «Udagoiena be eldu sen seguru *te girgillue triste, yatekorik es da kantetako umoreripes*.

Iñorrie oster, bere iñorrimendien ondoan arrautzak in d'esarten da batuko asieri begie yan da kanpora atetan bustirik egosanak gero sikitu orduen barrero barruen gordetako.

Girgillue ixilik, ukusi ukustauen bestea baye nor yoan oin yana eske iñorrieri inek inde?» (J.M. Etxebarria, 1994, 132)

¹⁶³ Zwicky & Pullum-ek (1983) gureekin nolabaiteko antza izan dezaketen kasuak aztertzen dituzte. Beste zenbaiten artean, laguntzailerik gabeko ondorengo hauek darabiltzate:

- (i) a. Where (have) you been this week?
- b. (Are) you happy with this idea?
- c. (Do) you want to leave now?
- d. (Did) you ever vacation in Italy?

Guretan bezalaxe, ahozko testuetan gertatzen dira, eta aditz laguntzailea geratzen da isilean. Autoreek diotenez, ezabaketa sintaktikoak ez baino morfofonemikoak dira hauek, alegia, ingurune edo baldintza fonologiko jakin batzuetako elementu morfologikoen ezabaketak. Euskarazkoetan, ordea, garbi dago ingurune fonologikoak zeresan gutxi duela.

- d. «*Domeketan Undurrara*, pooosik, Udarran olgetan ba klase askotara olgetan gaiñun, Sasolakoape etorten sirean da...» (J.M. Etxebarria, 1994, 167)
- e. «Ta euria asi ezkeru, *denak urreneko txabolara*.» (Uztapide, 1975, 106)
- f. «Goiz aldera goardia tokatu zitzaidan neri, eta tiro-otsa noiznai bazan an. *Baña kapote bearrik ez goardia egiteko. Udaran bezelako egualdia; batere otzik ez an.*» (Uztapide, 1975, 272)

Badirudi beren osagarriak agerian izatean esanahia berreskura dezakegula, eta hortik datorrela isilean uzteko baimena. Baina berriro ere ez zait sintaxiaren barnean tratatu beharreko fenomenoak iruditzen. Izan ere, zenbaitetan ez da batere argi ikusten falta den aditz hori zein den, edo ezer falta den:

(338)

- a. «Pastore bi egosan Supilaur inguruen bakoitza bere errebañuegas t'auxe pasau yakien.

Negue san, da mendien pastore biek. *D'akorduripes! Da onetan edurre goitipera*, botaalean. Da batapesteari badiñotzo: (...))» (J.M. Etxebarria, 1994, 218)

- b. «Gero urtekeran ba aitibitxi-amabitxiok auren gosoak eta botaten audiesan elesportalean da *an danak arrapatakan bata bestean buruetxo inik.*» (J.M. Etxebarria, 1994, 154)

- c. «Auskaldunepe basirean banaka bat, emekoak sein gipuskoarrak. Bat errikoa be auki gaindun da or ospitalean bixi sen gaubetan *d'egunes etzerik etze.*» (J.M. Etxebarria, 1994, 134)

- d. «Trena artu ta Placencia de Empalmes'era etorri giñan, eta andik Salamanca'ra beste merkantzia baten. Esnatu gera *eta bagoi idikia, tapatu gabea, ta an mantaren gañean izotza aundia eginda.*» (Uztapide, 1975, 276)

Horrelakoetan perpausez ari garen ere ez dago garbi¹⁶⁴. Gainera, askotan informazioa berreskuratzeko perpausaren barneko elementuekin ez dugu nahikoa izango eta kanpora

¹⁶⁴ Perpaus-gramatikaren mugen barnean aztertu beharrekotik zenbait eta gehiago urrundu, orduan eta sarriago aurkituko ditugu era honetako adibideak:

«Da, seguru, an yausten i sirian otzook plasta plasta! In bear! se espabere isin gendun gaousonik in. *Batetik otzoak, bestetik asagariak, deskuidau eskero askunarrape bai. Setan esanipes basabei edo saldi eta biorrak. Mandoape bai, yakine, oin i mansasainipe estao ta. Basurdaparris, etze-etzeraño. Ortxe daukus untxe be errastuek, soas ia!» (J.M. Etxebarria, 1994, 240)*

jo beharko dugu informazio bila, eta adierazi nahi zaigun mezua geureganatu arren ez dugu jakingo zehazki zer elementu linguistiko falta den. Begira adibidez aurrekoen idurira neuk asmatutako adibide honi:

(339)

Merkatu-eguna zen asteazkena eta herrira jaitsi ginen. *Nik gaztak eta udaberriko zizak. Andreak loreak.* Lagun zaharrekin hitzaspertu batzuk egin, eta alabarenera joan ginen bazkaltzera.

Pasarte horretan agertzen denagatik bakarrik ezin dugu jakin gaztarekin, udaberriko zizekin eta loreekin zer gertatu den. Eta egoeraren ezagutzagatik gai horiek geure etxetik irtenak direla baldin badakigu ere, ez gara ziur egongo hor zer elementu linguistiko falta den: *eraman nituen, saldu nituen, jarri nituen salgai...* edo beste edozer izan liteke. Lehen *joan* aditza falta dela esan dugunetan ere gertatzen da hori: *joan* adinaxe falta izan zitekeen mugimendua adierazten duen beste edozein aditz (*abiatu, zuzendu...*). Beraz, era honetako elipsiei ez diegu momentuz jaramonik egingo¹⁶⁵.

«Kafea asko be esan oten baye, iños artagarau erre-erreak iyo ta be indu kafea baye *gustu txarra!*» (J.M. Etxebarria, 1994, 165)

«Da subi ori ya aukien akabetan edo ya bastante abansaute, da ya basterrok iten edo pasamosak edo ba serok atzen atzetena da ba *goxaldea, laurek edo estaipa se ordu* te, neskatori be estutu sen (...)» (J.M. Etxebarria, 1994, 180)

Askotan muga non jarri erabakitzea ez da batere erraza.

¹⁶⁵ Culicover-ek (1972) hemengoekin nolabaiteko antza izan dezaketen ingeleseko zenbait egitura aztertu zituen:

One more can of beer, and I'm leaving

Bere ustez ez da zilegi juntagailuaz ezkerrera inolako perpausik proposatzen hastea, balizko perpaus horren esanahia zehazterik ez dagoelako, eta pragmatikaren bidez bakarrik osa daitekeelako. Guk ere euskarazkoetarako horrelako zerbait aipatu dugu. Dena den, bada desberdintasunik: euskarazkoek perpausen itxura handiagoa dute, elementu gehiago agertzen dira, eta ondorioz, horrelako adibideetan uler ditzakegun aditzen aukera askoz murriztagoa da.

3. SINTAGMA-JUNTADURETAKO ELIPSIAK

3.0. SARRERA

Perpausak juntatzen direnean bezalaxe, sintagmak juntatzen direnean ere badira agerian azaltzen ez diren elementuak. Funtsean bi aukera ditugu: kasu-markaren elipsia eta determinatzailearen elipsia, edo nahiago bada, kasu-marka bakarrarekin bi DetS juntatzea eta determinatzaile bakarrarekin bi IS elkartzea. Oraingoz deskribapenaz bakarrik arduratuko gara, eta horretarako arrazoirik agertu artean ez dugu ezabaketaren, kategoria hutsaren edo oinarriko juntaduraren hipotesien artean hautatuko. *Elipsi* terminoa erabiltzen dugunean ere adiera neutroa emango diogu. Beraz, ondorengo egitura hauek zilegi diren ala ez aztertuko dugu¹⁶⁶:

a) Kasu-markaren elipsia (edo KasuS bakarraren azpian juntatutako bi DetS)¹⁶⁷:

$$\left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \emptyset \right]_{\text{KS}} \text{ eta } \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}} // \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{ eta } \left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}}$$

b) Determinatzailearen eta kasu-markaren elipsia (edo DetS bakarraren azpian juntatutako bi IS):

$$\left[\left[\left[\text{IS} \right] \emptyset \right]_{\text{DetS}} \emptyset \right]_{\text{KS}} \text{ eta } \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}} // \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{ eta } \left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}}$$

¹⁶⁶ Deklinabideko atzizki edo erlazio hizki izenez ezagutu diren horiek guztiak Kasu deituraren azpian bilduko ditut, Euskaltzaindiari (1994, 33) jarraituz, eta inolako ondorio sintaktikorik gabe.

Bestalde, azken urte hauetako lanik gehienek bezala, determinatzaile sintagma badelako hipotesiarekin egingo dut lan. Kasu sintagma hierarkian DetS horren gainera egongo litzateke. Ez dut inolako proposamen zehatzik egingo, guk hemen darabilgun gairako ez da eta axola handikoa.

¹⁶⁷ Marra etzanen bidez bereizten ditut bi aukerak. Determinatzailea eta kasu-marka biak falta direnean tarteko bideak ere izan litezke, baina ez diogu jaramonik egingo.

Aukera orokor horien barnean determinatzaile eta kasu bakoitzaren jokaera begiratu beharko da. Deskribapen-lana izango da, beraz, atal honen helburu nagusia. Eta horren ondoren, (3.2) atalean, determinatzaile sintagmen barnean izena isilean geratzeko aukera aztertuko dugu:

- (1) [Mikelen katua] eta [Jonen-ø-a] elkarrekin ibiltzen dira.

Era horretako egituretan isilean zer eta zer baldintzatan gera daitekeen argitzen saiatuko gara.

Deskribapen-lan horren ondoren IS-ren egiturari buruzko zenbait gogoeta plazaratuko ditut. Sintaxi-lanetan osagai sintaktikoak zein diren erabaki behar izan denean juntaturak garrantzi handiko lekua izan du. Euskaraz izen sintagmak zer egitura duen aztertu duten lanetan ere sarritan erabili izan da (bereziki, Trask 1983 eta Goenaga 1991). Lan horietan egiten diren zenbait aldarrikapenen balioa zalantzan jarriko da, eta oro har, zentzu klasikoan osagaiak zein diren erabakitzeko juntadura erabiltzeak dakartzan arazoak nabarmenaraziko ditugu.

3.1. DETERMINATZAILEAK ETA KASU MARKAK

3.1.0. Sarrera

Juntaduretako determinatzaileen eta kasu-marken elipsia gutxi aztertutako gaia da, bai euskarari dagokionez, bai beste hizkuntzetan. Lehenik euskaraz orain arte gai honi buruz esan dena biltzen saiatuko gara¹⁶⁸. Gero gure azterketaren ondorioak plazaratuko ditugu. Azterketa horretarako baliabide informatikoen laguntzaz corpus zabala aztertu dugu, garai eta euskalki guztietako lanak sartzen saiatuz. Behaketa horretatik atera ditugun ondorioak eta Euskaltzaindiak (1994) atera dituenak oso antzekoak dira. Adibide okerren eta zuzenen arteko banaketa eragiten duten arrazoiak aurkitzen ere saiatuko gara.

Nolanahi ere, ohartarazi beharrean gaude erabili dugun corpuseko informazioa neurri batean bakarrik dela erabakiorra hiztunaren hizkuntza-kompetentzia deskribatzeko. Izan ere, bi aukera ditugunean, autore batek, edo gehientsuenek, A aldaera erabili izanak ez digu esaten B aldaera txartzat eman behar denik: esaten digu, bakar bakarrik, A hautatu duela bere idazkietarako; hautu horren arrazoiez ez digu ezer esaten. Eta arrazoi desberdinak egon litezke azpian: gerta liteke baztertu duen forma okerra iruditzea, edo okerragoa iruditzea; baina gerta liteke, baita ere, arazo gehiagokoa izan litekeela pentsatzea, eta biderik seguruenak aukeratzea; edo gerta liteke bietatik bat dotoreagoa iruditzea, edo bietatik bat gustukoagoa izatea, edo besterik gabe hautua oharkabean egina izatea. Eta guk testuetan egin dugun behaketan arrazoi horiei buruzko informaziorik ezin dugu lortu. Beraz, datu horiek, egia da, lagungarri ditugu, eta forma batzuk edo idazkera-estilo bat edo bestea hobesteko erabil ditzakegu, baina oso kontuz erabili behar ditugu auzitan dagoena zuzentasun gramatikala denean.

¹⁶⁸Euskaltzaindiaren lana (1994) bilketa horretatik kanpo utziko dugu, eta geure datuak eman ahala aipatuko dugu.

3.1.1. Zenbait azterketa

3.1.1.1. de Rijk (1972;1979)

Bere 1972ko lan goiztiarretik hasita ditu hizkuntzalari honek gai honi buruzko aipamenak. Ondoko adibide hauek ematen ditu:

- (2)
- a. apaizaren liburu eta ijitoaren liburutik. (de Rijk 1972, 126)
 - b. *apaizarenga eta ijitoarengatik. (de Rijk 1972, 126)
 - c. *apaizaren eta ijitoarengatik. (de Rijk 1972, 127)

Aurreraxeago joanez, 1979ko artikuluan ere baditu zenbait aipamen. Esaten du ondorengo hau zeharo arrunta dela (de Rijk 1979, 90):

- (3) Hori bere liburua eta paperekin agertzen da

baina beste hau guztiz okerra dugula:

- (4) *Hori bere liburua eta paperetan agertzen da

Ohar hau gaineratzen du:

«Hualde Mayo apaizak erronkarieraz egindako San Mateoren itzulpenean hauxe irakurtzen dugu: ...eta bere elia edo itzarequin egochtantzion espiritu gasstuac..., «Hitz bat» ele bat dugu Erronkarin, elia-k, beraz, a mugahizkia dauka.»

Jokaera desberdin horren zergatiaz ere hitz egiten digu: bere ustez, lokatibo singularrean agertu ohi den *-a-* hori (*mendian*) ez da artikulua, eskuarki artikulutzat hartu izan bada ere. De Rijk-ek aldarrikatzen du hor azpian *-ga-* ezkututzen dela, berez toki-izenak ez diren hitzak toki-izen bihurtzeko erabiltzen zena, aukerakoa zena eta singularrean bakarrik agertzen dena. Toki-izenak egiteko *-ga-* morfema hori, edo horren arrastoak, sartaldeko euskalkietan lokatiboan bakarrik agertzen badira ere, sartaldekoetan beste zenbait kasutan ere aurkitzen ditugula esaten du.

3.1.1.2. Goenaga (1980;1991)

Goenagak bere gramatikan arazoaz ohartarazteko aipamentxo bat egiten du, *atzizkiaren elisioa* izenburupean. Elipsiren bat dutenei buruz, ondorengo taula eta iritziak ematen ditu (Goenaga 1980, 242-243):

«sg + sg:	?gizona eta andreaki ?gizon eta andreaki	
pl + pl:	*gizonak eta andreei gizon eta andreei	(neretzat ez-gramatikala da) (nahiko onargarria gertatzen zait)»

Taula honetan singularreko bi adibideei galde ikurra jartzen badie ere, badirudi bata bestea baino dexentez txarragoa iruditzen zaiola, taula baino lerro batzuk lehentxeago bietatik bati izartxoia ematen baitio:

(5) *Peruk andregai eta lagunari agur egin die.

Dena den, auzia oraindik aztergai dagoela aitortzen du, eta aipatzen du atzizkitik atzizkira ere izan litezkeela desberdintasunak.

Izen sintagmaren egituraz hamaika urte geroago argitaratutako artikuluan ere ikuspegi berarekin jarraitzen du (Goenaga 1991, 855):

- « a. birigarroari eta zozoari
b. ?birigarroa eta zozoari
c. ???birigarro eta zozoari

Pluralean, berriz, gauzak bestela direla ematen du:

- a. birigarroei eta zozoei
b. ???birigarroak eta zozoei
c. birigarro eta zozoei

Hortaz, bada hemen bestelako debekuren bat ere, agian morfologiarekin zerikusi gehiago izango duena, sintaxiarekin baino.»

3.1.1.3. Salaberri (1985)

Euskal hizkuntzalaritzaren arloan gai honi buruz egindako lanik garrantzitsuena Salaberrirena (1985) izan da oraintsu arte. Bere lana burutu ahal izateko euskal

literaturako zenbait klasiko aztertu zituen: Tartasen *Ontsa Hiltzeko Bidea*, J. Etxepareren *Buruxkak* eta J. Etxepare *Mirikuaren Idazlanak*, J. Hiriart-Urrutyren *Mintzaira, Aurpegia: Gizon!*, Etxeberri Sarakoaren *Idazlan Hautatuak*, Lizarragaren *Doctrina Christioarén Catechima*, Agirre Asteasukoaren *Eracusaldia 2* eta J.A. Mogelen *Peru Abarca*. Horrez gain Nafarroako zenbait herritan inkestak burutu zituen (Luzaide, Mezkitz, Amaiur, Beruete, Beramendi, Arbizu, Leitza eta Goizueta), gaztelerazko adibideen euskarazko ordainak eskatuz. Azterketa horretatik atera zituen ondorio nagusienak azalduko ditugu jarraian.

Salaberriren esanetan, koordinatzen diren bi izenak singularrekoak direnean, zerbait ezabatzekotan, artikua eta deklinabide marka biak ezabatu ohi dira:

(6) Mikel lehengusu eta lehengusinarekin etorri da

Determinatzailea gordez kasu marka isilean duen adibide bakarra aurkitu du:

(7)
«... eta badijoa, bacallaua, sardiña eta olioaren bila.» (Agirre Asteasukoa, *Erakusaldiak I*, 106)

Deklinabide atzizkien elipsiari buruzko atal honetan ez du zuzenki esaten berari zuzena ala okerra iruditzen zaion¹⁶⁹ baina lan osoaren ondorioak emateko unean «onargarrria dirudiela» esaten du (Salaberri, 120).

Lehenengo izena singularra denean, eta bigarrena plurala, autoreetan aurkitu duen eredia honako hau izan da:

(8) lehengusu eta lehengusinekin

Hala ere, dio, bere ustez (9) ondo dagoela:

(9) lehengusua eta lehengusinekin

Lehenengoa plurala eta bigarrenkoa singularra duten adibideetan, bestalde, ez du elipsidunik aurkitu. Auzia, dena den, ondoko bi egitura hauek ondo dauden jakitea izango omen litzateke:

¹⁶⁹ Zeharbidez igarri dezakegu hain txarra ere ez zaiola iruditzen: ikus *lehengusua eta lehengusinekin* adibideaz esaten duena, eta ondorengo oharra.

- (10) a. Lehengusuak eta lehengusinarekin
b. lehengusu eta lehengusinarekin

Biak pluralekoak direnean, ostera, esaten du (11) ondo dagoela:

- (11) lehengusu eta lehengusinekin

Eta (12)-ko moldea ez dela agertzen:

- (12) *lehengusuak eta lehengusinekin

Azken hau ez agertzean morfologiak izango omen du zerikusia¹⁷⁰. Dena den, berak egindako inkestetan bigarren bide hau ontzat eman dionik ere izan omen da.

Azkenik leku-denborazkoez hitz egiten digu. Leku-denborazkoei bestelako kasuei ez bezalako ezaugarriak somatzen dizkie. Elkartzen diren bi izenak singularrekoak direnean egitura gaiztoak lortzen omen dira:

- (13) *etxea eta eskolan

Honetan de Rijk-ekin bat dator. Bietatik lehena artikulurik gabe doanean, aldiz, zenbait kasutan ondo dagoela esaten du:

- (14) etxe eta kaleko argiak ikusten dira

baina beste batzuetan ez:

- (15) a. *etxe eta eskolatik
b. *etxe eta eskolara
c. *etxe eta eskolan

Beraz, leku-denborazkoek, oro har, biak singularrean doazenean, biek atzizkiari eutsi egin beharko liokete. Salaberriren ustez gerta daiteke, hala ere, hiru edo atal gehiagoko juntaduretan atzizkia galtzeko askatasun handiagoa izatea:

- (16) Nere aita kale, taberna eta mendira joaten da.

¹⁷⁰ Baina bere betiko jokaera zuzunaz, gaineratzen du: «Badirudi ezin dugula honelako erdibiketarik egin, arrazoia zein den garbiegi ez badago ere» (Salaberri 1985, 117). Bestalde, esaten du: «arazoa hain larria ez den arren, singularrean ere aurkitzen dugu».

Bestalde, juntatzen diren bi atalak pluralekoak direnean, leku-denborazko hauetan ere gainerako kasu guztietan bezalatsu gertatzen dira gauzak: lehenengo elementua artikulatu eta kasu markarik gabe agertzea arrunta da;

(17) etxe eta eskoletan

baina determinatzailearekin agertzea ez:

(18) *etxeak eta tabernetan

Dena den¹⁷¹, amaitzeko esaten du gauzak ez daudela batere argi, eta arruntena kasu guztietan ere bi juntagaiak oso osorik agertzea dela.

3.1.1.4. Ortiz de Urbina (1989)

Euskal hizkuntzalaritzarako lan garrantzitsu honetan, beste gauza askoren artean, juntaduretako elipsiei buruzko aipamen bat ere badator. Hualderen iradokizun bati esker, Ortiz de Urbina (1989, 133-134) konturatzen da euskaraz atzizki guztiak gera daitezkeela isilean juntadura-egituretan:

- (19) a. Peru eta Mikel-ek
 b. Peru eta Mikel
 c. Peru eta Mikel-i
 d. Peru eta Mikel-ekin
 e. Peru eta Mikel-entzat

Datu hau azterketa luze baten harian ematen da: Ortiz de Urbina euskarako deklinabide atzizkiak sintaktikoki nola sailkatu behar diren aztertzen ari da. Bi multzo nagusi bereizten ditu: egiturazko kasuak eta berezko kasuak. Vergnaud-ek (1974) zioen azken mota honetakoen azpian bakarrik junta zitezkeela bi IS. Ideia hori erabiliz Jaeggli-k (1981) erakutsi nahi izan zuen gazteleraz zehar objektuak Preposizio Sintagma direla eta osagarri zuzenak egiturazko kasua duten IS:

¹⁷¹ Leku-denborazko kasuetan bata singularra eta bestea plurala direneko kasuez ez du hitz egiten.

- (20 a. Les compraron una casa a María y el director.¹⁷²
 b. ??Les vieron a María y el director.

Euskaraz, ordea, ez dago horrelako desberdintasunik, eta honela mintzatzen zaigu Ortiz de Urbina:

«This test does not establish any difference between term and oblique cases in Basque, and it suggests that all should be treated as postpositional phrases. However, it seems to me that a stylistic rule of PF eliminating one of the case markers is as plausible an explanation as a conjunction of noun phrases with a single preposition, at least in languages like Basque where such rule could apply to all case-marked nominals.»¹⁷³

Beraz, egitura hauen analisiari dagokionez Vergnaud-ek oinarriko juntadura aipatzen du, eta Ortiz de Urbinak ezabaketaren aukera ere badagoela.

3.1.1.5. EITB-ren Albistegietarako Eskuliburua (1992)

Lan honetan elipsia agertu ahal izateko beharrezko diren baldintzez hitz egiten zaigu. Esaten du juntaiaiek kasu berean joan behar dutela, eta numeroaren aldetik ere berdinak behar dutela izan: hau da, guztiak pluralekoak, guztiak singularrekoak edo guztiak mugagabeen doazenak. Eskaintzen dituen adibideak inesiboan doaz, eta determinatzailea eta kasu-marka biak geratzen dira isilean.

3.1.1.6. Egunkaria-ren Estilo Liburua (1992)

Honela mintzo zaizkigu: «Deklinabide atzizki bera eraman behar duten izen koordinatu batzuk ditugunean, kontuz, guztiei jarri atzizki marka, edo azkenari soilik, beste guztiak Nor mugagabeen utzita». Ondorengo taula hau ematen dute (1992, 32):

Abortatzailea eta bere biktimaren artean. (Gaizki)

¹⁷² Frantsesez, aldiz, horren baliokidea, okerra da:

(i). *Ils ont acheté une maison à Marie et le directeur.

Geroko zenbait lanetan (Bartra, 1985) Jaeggli-ren gaztelerazko adibideen gramatikaltasuna zalantzan jarriko da.

¹⁷³ Guri hemen gai hori ez badagokigu ere, bi kasu-motak bereizteko zenbait argudio ematen ditu.

Abortatzailearen eta bere biktimaren artean.	(Ondo)
Askatasuna eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Gaizki)
Askatasun eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Ondo)
Askatasunaren eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Ondo)

Beraz, badirudi lan honetan orain artekoek erakutsi duten norabidetik aldendu egin garela: de Rijk-ek, eta Salaberrik I+a+ø eta I+a+K erako segidak ontzat ematen zituzten, eta Goenagak galde ikurra besterik ez zien jartzen, geroko azterketen zain. Hemen, aldiz, txartzat ematen dira.

3.1.1.7. Ondorioak

Aurreko lan horiei begiratu ondoren, konturatzen gara iritzi desberdinak ditugula euskal gramatikalarien artean eta gauza dexente daudela argitzeko. Lanetan zehar egin dugun ibilaldi horretan dagoeneko deskripzioaren aldetik aztertu beharreko gai gehientsuenak agertu zaizkigu: singularreko juntaduretako elipsien zilegitasuna, kasu-marka desberdinek izan lezaketen jokaera desberdina, zerbait isilean utzi ahal izateko beharrezko diren baldintzak (numero-berdintasuna?), etab.

Auzi horiei ziurtasun apur batez heldu ahal izateko, arestian esan bezala, euskal literatur tradizioaren azterketa zabal bat egin da. Horrez gain, ahozkotasuna ere nolabait kontuan izan nahirik, *Obras Completas de JM Barandiaran*-en agertzen diren ipuin guztiak eta J.M. Etxebarriak bildutako *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* liburua (1995) aztertu dira, eta egungo idazleen lanei eta prentsari gertutik jarraitu zaie. Baina, lehenago ere aipatu dugu, behaketa horrek ez digu osoko ziurtasunik ematen: autore batek forma bat gutxi erabiltzeak edo ez erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez delako autore horrek okertzat daukanik.

Beraz, gaia bi sail nagusitan banatuko dut: kasu-markaren elipsia, eta determinatzailearen elipsia. Bai sail batean bai bestean lehenengo fenomenoaren deskribapena egingo dut, eta ondoren egoera horren azpian daudekeen indarrak zein diren argitzen saiatuko naiz.

3.1.2. Kasu-markaren elipsia

Dagoeneko ikusi ditugu kasu-marka bakarraren azpian bi DetS bildu nahi ditugunean sortzen diren arazo nagusiak. Bi alderditan jarriko dugu bereziki arreta:

- Kasu-marka desberdinen jokaera.
- Kasu-marka bakar horren azpian biltzen diren elementuen zernolakoa.

Atala bigarren puntuaren arabera banatuko dugu.

3.1.2.1. Izen bereziak

Ezkerreko juntagaian izen berezi bat dugunean ez dago arazorik delako izen berezi hori inolako kasu-markarik gabe emateko. Funtsean bi aukera izan ditzakegu: bi juntagaiak izen bereziak izatea, edo bigarren juntagaia beste mota batekoa izatea. Eta bietan ere sarri idoroko ditugu elipsoidun egiturak:

(21)

- a. Indurain eta Olanori omenaldia egin zieten Tuteran.
- b. Bai, Jone eta bere kideak lehenbailehen atera beharra zeukaten hoteletik. (B. Atxaga, *Gizona bere bakardadean*, 34)

Ez dirudi, gainera, oztopoa jartzen duen inolako kasu-markarik dagoenik, ezta de Rijk-ek eta Salaberrik singularreko artikulua gordetzen dutenetarako besteak baino egoskorxeagotzat dauzkaten leku-denborazkoak ere:

(22) New York eta Londrestik irtendako musikariak entzuten dira egun.

Esango nuke, gainera, izen berezidun juntadurak direla *ondarkirik*¹⁷⁴ gabe errazen agertzen direnak.

3.1.2.2. Pertsona izenordainak

¹⁷⁴ Hau ere Euskaltzaindiari (1994, 33) mailegatu diot. Honela aurkezten du *ondarkia*: «artikulua, numero-marka eta kasu-marka adierazten dituen».

Juntadura bateko ezkerreko atalean pertsona izenordain bat dugunean, ene iritziz ez da zilegi kasu marka isilean gordetzea. Iritzi horretakoa da Euskaltzaindia ere (1994, 34)¹⁷⁵:

«*Zu eta eni gertatu zaigu.
*Hau eta horiek egingo dute.»

Dena den, nik aztertu dudan corpusean bakarren batzuk agertu zaizkit¹⁷⁶:

(23)

a. - *Ni ta Jesusek ta Euskalerrriak* irurok bat bear degu. (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 62)

b. - Eta lotsatzen ez aiz *hi eta* hire lagun oraitzar *horiek*, lan txarra deitzea lanik gaitzen eta latzenari? (Larramendi, *Corografía*, 299)

c. - Ondasunez gainka, ta senide-tarte garai-garaikoa *zu ta zure ondorengoentzat* (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 35)

d. - Nola sortuko, ordea, *gu ta aien artean* aserre minkaitza? (Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 123)¹⁷⁷

Izen berezietan bezalaxe beste aukera da bigarren juntagaia pertsona izenordaina ez izatea. Horrelakoetan ere, ene iduriz, adibide okerrak lortzen dira:

- (24) a. *Zu eta taldeko arduradunak etengabeko liskarrak dituzue
b. *Ni eta nire lagunak ez dugu telebistarik erosi nahi

Izen bereziek eta pertsona-izenordainek, bada, jokaera desberdina agertzen dute. Desberdintasun horren jatorria aurkitzeko aukeretako bat syntaxira begiratzea dugu. Bi elementu-mota hauek zer kategoria sintaktikotakoak diren betidanik izan da eztabaidagai. Determinatzailerik gabe agertzen direla kontuan izanik Euskaltzaindia (1985, 75) biak multzo berean sartzearen aldeko da:

¹⁷⁵ Salbuespen modura bigarren juntagaian konparazioa dakarten *antzeko, bezalako...* aipatzen ditu (Euskaltzaindia 1994, 35).

¹⁷⁶ Hain corpus zabalerako salbuespen gutxi dira eta ez ditugu kontuan izango. Lan guztian zehar gertatuko zaigu gauza bera: erabilera-joera orokorra eta hiztun gehienek gramatikaltasun-iritziak bat etorri arren beti aurkituko dugu aurkako iritzi edo adibideren bat.

¹⁷⁷ Era honetakoak gehiago ere agertzen dira, baina geroago ikusiko dugun bezala egitura berezi samarrak dira eta momentuz alde batera utziko ditugu. Lehenengo juntagaian genitiboa duten adibideak ere badira:

- (i). Baiña misterio hori *hire eta ene* artean egon bedi bethi (Goyetche, *Fableak*, 149)

«... guk izenordainak izentzat joko ditugu, nahiz eta izen berezitzat, ez bait dute mugatzailerik onartzen eta horrenbestez berek bakarrik osa bait dezakete izen sintagma.

Honako adibide hauetan "ni", "gu" eta "edonor" **Andoni** bezain izen direla esan daiteke:

- (34) (a) **Ni** atzo etorri nintzen
 (b) **Gu** bihar joango gara
 (c) **Edonork** esan diezazuke
 (d) **Andonik** ez daki ezer »

Alde horretatik, beraz, ez genuke bereizkuntzarako arrazoirik izango. Baina gogoan izan behar da izen bereziak zenbaitetan erakuslearekin eta beste zenbait osagarriekin ager daitezkeela:

- (25) a. Joxe hura etorri da (ez hemengo hau)
 b. Nik ezagutzen dudak Joxek begi urdinak ditu.¹⁷⁸
 c. Retegi zaharrak bost txapela irabazi zituen.

Izenordainekin horrelakoak debekaturik daude, eta aukera bat izango litzateke biak kategoria sintaktiko desberdinekotzat ematea: pertsona izenordainak DetS-tzat eta izen bereziak IS-tzat. Literaturan ere izan dira gainera horrelako proposamenak. Dena den ez zait iruditzen hemen darabilgun auziak horrelakorik proposatzeko biderik ematen digunik: bi kategorien jokabide desberdina eragingo luketen arrazoi sintaktikoak aurkitzea oso zail ikusten dut; gainera predikzioa izango litzateke DetS-ek eta IS-ek beti horrela jokatu behar dutela, eta geroago ikusiko dugun bezala hori ez da betetzen.

Izenordainen eta izen berezien jokaera desberdinaren berri emateko beste bide bat morfologiara jotzea izan liteke. Adibidez, proposa liteke pertsona-izenordainei dagozkien deklinatutako formek, erabiliaren erabiliaz, beren konposizionaltasuna galdurik dutela hiztun gehientzat, lexikalizazio-maila handia dutela eta ezin direla zatitu. Izen bereziek, ostera, ez lukete horrelakorik izango, eta juntadura-egituretan lehenengo juntaiaian kasu-markarik gabe agertzeko ez lukete inolako arazorik izango. Hurbilketa hau ere berez oso zaila da frogatzen, baina geroago azalduko ditugun beste zenbait alorretan somatzen den jokabidearekin bat dator.

¹⁷⁸ Osagarriak hartzen dituztenean izen bereziak artikularekin joan daitezke. Orduan osagarri horiek espezifikatzaileak izan ohi dira. Begira, esaterako, erlatibozkoetan gertatzen den desberdintasuna:

- (i). Nik ezagutzen dudak Joxeak begi urdinak ditu

Osagarriak ezean euskaraz izen bereziei ez zaie artikulurik eransten, nahiz tradizioan pertsona-izenekin adibideren batzuk badiren (Jesusa...).

3.1.2.3. Mugatzailatzat artikulua dutenak

Singularrekoekin emango diogu hasiera. Hizkuntzalarien lanei begiratzuz konturatzen gara batetik besterako desberdintasunak badirela: de Rijk-ek zenbait kasu-markarekin onartzen ditu; Goenagak galde-ikurra jartzen die; Salaberrik adibide bakarra aurkitu du baina onargarriak iruditzen zaizkio; *Egunkariaren Eskuliburua*-k txartzat ematen ditu.

Hainbeste iritzi kontra jarri sortu dituzten adibide horietarik oso gutxi agertzen zaizkigu literatur tradizioan. Hona nire corpusean aurkitu ditudan guztien zerrenda:

- *Gaitza eta onaren* arbola izanik, ez dezu jan bear zuk frutu onetatik; onetatikan jaten dezun egunean, illa gelditzen zera momentu berean. (Iturriaga, *Ipuiak*, 216)

- Bein, *ona ta txarraren* ejenpluak ipintzen asi zanian, esan eban: txoriburu askok diñue, liburu onak eta txarrak, danak irakorri biar dirala. (J.S. Martin, *Zirikadak*, 44)

- *Ona ta txarraren* filosofia Plentxian. (J.San Martin, *Zirikadak*, 43)

- Zaldunak, berba onek entzunaz, amesetan balitz bezela, belaunbata lurrian jarririk, esan zetsan: "Señoria: Jaungoikuagan bada borondate-on ori merezitzia *dukia eta bedorren gandik*, ni izango naiz munduko ume zorionsuena; nik eskatzen doran besterik ez dalako, zuen zerbitzalle letz, bizixa ipintzen doranetik senar-emazte bixon alde. (T. Etxebarria, *Ibilarixanak*, 477)

- Eta ala irauñ eben, *bai bata eta bai bestiak*, gitxienez ordulaun baten;... (T. Etxebarria, *Ibilarixanak*, 462)

- *Bata ta bestearen* goitik, itzalgarriztat, lizar-abarrak ugari, pago batetik bestera, lotu zituzten. (Azkue, *Ardi galdua*, 61)

- Ez naiz hemen hasiko *egilea eta egilearen seme-alaben arteko* harremanen korapilo luze bihurria askatzen. (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 300)

- Goizetik gaueraño bizitza osoan berari biotza eskeñiaz, *betiko zoriona ta pakearen billa* zoaz. (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 105)

- Jinkoari berari, *haren gehiangoa eta hontarzun ezinago handien* ezagutzeko. (Belapeyre, *Katechima laburra*, 77)

- Gaztetxo, gaztetxo, etzaitz *sua ta gasolinarekin* geiegi jostatu. (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 69)

- Ta bedeinkaturik, au esan zien: azi ta ugaritu zaitetzte; ta *beste mundua ta onen* jabe egin. (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 13)

Egungo idazkietan ere badira horrelakoak, bereziki mendebaldekoetan (adibide gehiago 11. eranskinean):

Lehenengo biei, hau da, *kokapena eta edukinari* eskaintzen zaie beti ere arretarik handiena. (J. Butron & J. de Pedro, 1987, *Euskal Hizkuntza eta Literatura-BBB 3*, Erein, 116)

Eta orain joan hadi *mandoa eta gurdiaren bila* eta ekar itzak hona (J.M. Irigoien, *Consummatum est*, 116)

(...) eta Dauphineko neska tarteka *IDko atsoa eta Beaulieuko andrearengana* joaten zen, nola zeuden ikustera. (J. Cortazar, *Hegoaldeko autopista*, (itzultzaile G. Markuleta), in I. Aldekoa (ed) *Ipuin Gogoangarriak*, 165)

Komunikabideetara joz zerrenda hori nahi adina luza daiteke. Baina nabarmendu behar da leku-denborazko kasuetan ez dudala adibide bakarrik ere aurkitu. Izan ere, badirudi horrelakoetan ezinezkoa dela singularreko mugatzailea dutenak kasu-marka beraren azpian juntatzea:

- (26) a. *Museoa eta antzokian egon naiz.
 b. *Museoa eta antzokira joan naiz.
 c. *Museoa eta antzokitik etorri naiz.
 d. *Museoa eta antzokiko sarrerak hartu ditut.
 e. *Museoa eta antzokiraino joango naiz.

Horrelakoen ezgramatikaltasunean leku-denborazkoen morfologiak garrantzi handia du¹⁷⁹; (26a) adibideari buruz, inesiboari buruz, de Rijk-enak aipatu ditugu; (26b-e) adibideak okerrak izatearen arrazoia ere bide bertatik esplikatuko litzateke: kasu horiek guztiak singularrean deklinatzean izenak ez du *-a-* artikulurik hartzen, beraz, lehenengo juntagaian ere soberan izango genuke.

¹⁷⁹ Baina euskal morfologiaren alor horri buruz oraindik ez dago adostasunik (Jacobsen 1977, Rotaetxe 1978, de Rijk 1979, Goenaga 1980).

Euskaltzaindiak ere (1994, 42-43) hitz egiten digu mugatzailedun sintagmen juntaduraz. Niri neuri onartezintasun larririk eragiten ez badidate ere, Euskaltzaindiak egitura gaiztotzat hartzen ditu, eta ez du tradizioko horrelako adibiderik eskaintzen::

«... ondarkiak osorik errepikatzen ziren, edo batere ez. Eta hala behar du ia beti, oro har ez baitaitezke ondarkiak dituen elementu desberdinak (mugatzailea eta kasu-marka) bereiz juntaduran. Horretaz, euskaraz ezkerreko juntaia ez da izaten kasurik gabeko izen sintagma mugatua, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

- (166) a.*Nagusia eta langileei mintzatu zitzairen.
b.*Itsasoa eta mendietan ibili zen.
c.*Nagusia eta langileez mintzatu dira.

(166)ko adibidean lehen juntagaiak ondarki osoarekin agertu behar du, edo batere ondarkirik gabe. Artikulua soilik hartzen badu, baina ez kasu markarik, egitura desgramatikala sortzen da».

Pluraleko mugatzailea dutenei dagokien bezainbatean, bai Goenagak bai Salaberrik txartzat ematen dituzte, eta neuri ere ez zaizkit zuzenak iruditzen:

(27)

- a. *Europarrak eta amerikarrei beldurra ematen die isiltasunak.
b. *Izurdeak eta baleen komunikazio-sistemak aztertzen dituzte hizkuntzalariek.¹⁸⁰

Iritzi berekoa da Euskaltzaindia, eta singularreko mugatzailea dutenei balekoa emateko prest dagoen bakarrenetakoan ere (*-en artean/ko* dagoenean) pluralekoak okerrak iruditzen zaizkio (Euskaltzaindia 1994, 46):

«Azken urteetan baina, asko hedatzen ari zaizkigu (193)ko adibideen antzekoak:

- (193) a. Gobernua eta Konfederakuntzaren arteko elkarrizketak.
b. *Gurasoak eta ikastolen arteko bilerak.
c. *Nobelak eta pelikulen arteko borrokan nobelak omen dira galtzaile.
d. Zinea eta bideoaren arteko konpententzia latza.

Adibide hauei dagokienez, literaturan oso urriak direla ohartarazi behar da batetik. Urri horien artean dugu honako Mitxelenaren hau:

- (194) Barrenean bi gizonen borroka latza somatzen degu: ... bihotz euskalduna eta buru erdaldunaren arteko borroka amaigabea. (K. Mitxelena, Idazlan hautatuak, 35)

¹⁸⁰ Ez literatur tradizioari zegokion corpusean ez egungo idatzietan ez dut horrelako adibiderik aurkitu. Barandiaranek jasotako ipuinetan ordea bada bat, bakarra, era honetakoak:

«Ta ala, amezketarrak eunez plaza'n eitten zuena gauez irik eta gurdikiñ artuta Ergoene'a eamaten zula.» (*Obras Completas II*, 185)

Ez dago garbi pl+pl interpretatu behar den, ala pl+sg ulertu behar den.


Nolanahi ere, erabiltzekotan (193a) eta (193d) dira onargarri gertatzen diren bakarrak, hots, lehen juntagailuaren ondarkia singularrekoa dutenak; inola ere ez (193b) eta (193c), horietan lehen juntagaiak pluraleko ondarkia baitu.»

Balekoa baino onespren handiagoa ere aitor dakieke, ostera, «osagai modura sintagma absolutua onartzen duten posposizio modukoei», bai singularrean bai pluralean. Hona Euskaltzaindiak ematen dituen adibideak (1994, 44):


- (174) a. zu eta ni baitan
b. agintariak eta menekoak baitan
c. Maddi eta Piarresgana
d. Aita eta Jainkoagatik
- (175) zazpigarrena, biziak, ta illak gatik jangoikoari otoitz egitea
(Añibarro/Astete, *Cristau Dotriña*, 42)
- (176) eta bihurtzen naizela ene Iainko emea eta urrikaltsua gana (S. Pouvreau, *Philotea*, 75)
- (177) Gure teknikuori or asi zan, *kollaria ta tenedorakin*, batian ikutu ta bestian ikutu, ta olakoren baten ipiñi eben martxan erlujuori (J.San Martin, *Zirikadak*, 65)

Euskaltzaindiaren lanei begira (1985, 438-445; 1994, 42-46) posposizio moduko deituraren azpian zehazki zer elementu sartu behar genituzkeen ez da guztiz argi geratzen. Nolanahi ere adibide okerrak eta zuzenagoak bereizteko irizpidea aurkitzea da garrantzitsuena. Ildo horretan, ohartzen gara banaketa honek erlatibiza daitezkeen eta ez daitezkeen kasuenarekin¹⁸¹ antz handia duela, eta tentagarri gertatzen da harekiko lotura egitea. Loturarik badela frogatuko balitz posposizio moduko jokoera desberdin honen iturrian sintaxia jartzeko aukera izango genuke, baldin lehenengo de Rijk-ek (1972) eta hura gaurkotuz Artiagoitiak (1992) horrelakoentzat proposatutako egitura zuzena bada behintzat:

de Rijk 1972



Artiagoitia 1992



¹⁸¹ De Rijk-en (1972) eta Artiagoitiaren (1992) proposamenei jarraiki.

Hau da, esan beharko genuke hierarkian gainean bi posposizio -ez Euskaltzaindiaren zentzuan- dituenean bakarrik ager daitezkeela mugatzaile dun sintagmak juntaturik¹⁸².

Baina ez dut uste bide honek egoera argitzen askorik laguntzen digunik. Bi eratako argudioak luza daitezke: argudio teorikoak, eta argudio enpirikoak. Lehenei dagokienez, ez da garbi ikusten zer erlazio izan lezakeen goian aipatu dugun baldintza sintaktiko horrek hemen aztertzen ari garen fenomenoarekin: Artiagoitiak (1992) erlatibozkoentzat azpikotasunaren teoria erabili zuen, baina juntadurako elipsietara hedatzeak ez luke zentzu handirik izango. Lotura hori arrazoitzen ez den bitartean, aurrerako txikia egingo genuke proposamen horrekin.

Datuei dagokienez ere badira zenbait arazo. Soziatiboaren kasuan, adibidez, de Rijk¹⁸³ eta Artiagoitiak genitiboa+kin daukagula esaten dute. Euskaltzaindiak, aldiz, ez du horrelakorik aipatzen: EGLU-I-en bitan aipatzen du destinatiboaren azpian genitiboa+tzat dagoela (437, 444), baina soziatiboaz isilik geratzen dira; EGLU-IV-n, *norentzat* «genitiboarekin erabil daitezkeen posposizio moduko morfema bat» daukatenean taldean sartzen dute (43), eta soziatiboa «sintagma absolutua onartzen duten posposizioen» taldean (44). Zuzena lehen proposamena balitz, lehentxeago Euskaltzaindiarenetik ekarri dugun (177) adibideak ez dakit frogatu nahi duenaren aurkakoa ez ote lukeen iradokiko¹⁸⁴.

Hipotesi horretarako bigarren arazo enpirikoa *noraino* eta *norantz*-ek sortuko lukete. De Rijk-ek hauei ere bi posposiziodun egitura eman zien: onartzen zuen sinkronikoki zatiak askoz lotuagoak zeudela, baina egitura bera eman zien, eta erlatibozko esaldietan ezin dira isilean utzi. Juntaduretako elipsietan, ordea, bi posposiziodunen sailekoek ez bezala jokutzen dute, eta ezin dute lehen juntagaian artikulua delarik agertu:

- (28) a. *Urak postetxea eta elizaraino ailegatu ziren
b. *Pilotalekua eta elizarantz abitu nintzen

Ez dirudi, bada, banaketa sintaktiko honetatik abiatuz emaitza deigarriegirik lortzen dugunik.

¹⁸² *-gatik* bezalakoentzat biek ala biek proposatzen dute, azalean genitiborik ez dagoenean ere, egituran badela genitiboari dagokion islapen bat.

¹⁸³ Zehazkiago esateko, *(re)kin*, genitiborik gabe ere ager daitezkeela adieraziz.

¹⁸⁴ Nolanahi ere, ez da erraza proposamen bataren edo bestearen aldeko argudio erabakiorrak aurkitzea.

3.1.2.4. Erakusledunak

Juntatzen diren izen sintagmek determinatzaile modura erakuslea baldin badute, ene iduriz ezinezkoa da lehenengo juntagaian kasu-marka isilean uztea:

- (29) a. *Gizon hau eta emakume hark egin dute lapurreta
b. *Gizon hori eta emakume horri egin diete lapurreta

Singularrekoen eta pluralekoen artean ez dago onargarritasunaren aldetik inolako alderik:

- (30) *Gizon haiek eta emakume hauei egin diete lapurreta

Artikuluarekin ari ginelarik esaten genuen leku-denborazkoekin nekezago sortzen zirela era honetako egiturak, eta alderantziz, posposizio modukoekin aise errazago agertzen zirela. Tartean erakusleak ditugularik ez zait iruditzen horrelako desberdintasunik dagoenik:

- (31) a. *Gizon hau eta emakume honek.
b. *Etxe hau eta kale honetan.
c. *Etxe hau eta kale honegatik.

Agian azken adibidea besteak baino zuzenxeagoa izango da, baina guztiak ere okerrak iruditzen zaizkit niri, eta iritzi berekoa da Euskaltzaindia ere (1994, 35, 45).

Datu hauek lehen eman dugun ikuspegia berresten dute: oso zaila da sintaxitik abiatuz adibide zuzenen eta okerren banaketa esplicitzea. Izan ere, auzia sintaktikoa balitz, bai artikulua bai erakusleak determinatzaile mugatuak direnez biek berdin jokatu beharko lukete¹⁸⁵.

Nolanahi ere, aitortu beharrean gaude aztertu dugun corpusean, lehenengo juntagaiko kasu-marka isilean dutenen artean, erakusledun zenbait aurkitu ditugula:

- (32)

¹⁸⁵ Zenbait hizkuntzatarako biantzat egitura sintaktikoan kokaleku desberdinak proposatu dira. Nik ez dut azterbide hori jorratuko.

- a. -Eta giza-biotzak billatzen duen on osoko *ori eta* beste on erdizko *oiek* ba ote dute zer-ikusirik elkarrekin? (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 127)
- b. -Esan *oiek eta* onelako beste *askorekin* atzeratzen zituzten... (Lardizabal, *Testamentu berriko eta zarreko kondaira*, 509)
- c. -Ez *ori eta* mundu *guziagatik* ere; (Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 94)

Baina adibide hauek gora behera orain arte eman dugun ikuspegiari eutsiko diogu.

3.1.2.5. Mugagabekoak

Orain arte sintagma mugatuak aztertu ditugu. Baina beste aukera mugagabeko determinatzailea izatea da. Eta mugagabeko sintagmek, izen bereziekin gertatzen zen bezalaxe, ez dute arazorik, oro har, kasua isilean dutela agertzeko. Begira, esaterako, corpusetik bildu ditugun *bat* zenbatzailea duten hauei:

(33)

- a. Orrezaz ganera, zaldun ori, Olarratz jauna bere abizenez, eiztari fiña zanez, eskopeta eder *bat eta* batez bere, makilla zoragarri *baten* jabe zan. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 22)
- b. *Bat eta* bestearen arteko zerbait dateke ustea? (Zaitegi, *Platoneneko atarian*, 47)
- c. Jainko *bat eta* bakarrarekin, ala jainko ta jainkosa askorekin, baiña erlijio bat alere. (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 23)¹⁸⁶
- d. Egosi denean, emaiten tuzu lentillak eta utz zaitzu erakitzerat; nahas zazu arroltze gorringo *bat eta* minagre xorta *batekin*. (*Euscaldun cocinera*, 26)
- e. Eta alaxen joaten nintzan bala tartean nere karretilla artan letxu-mordo *bat eta* beste patata puxka *batekin*. (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 53)
- f. *Bat eta bertzean* zer-nahi gaztain bazen gure haur denboran; orai bat ez da nihun gehiago ageri. (J. Elisalde, *Azkaine*, 33)
- g. Talarrian uezaba biak egiten ei eben biarra, ankiakin erainda ibiltzen zan tornu zar *bat eta* firi fara *batian*. (J. San Martin, *Zirikadak*, 106)

¹⁸⁶ Villasantek esapide-mota hau gehiagotan ere erabiltzen du obra berean:

(i). Jainko bat eta bakarrean, ala anitz jainkoetan siñesten al zuten?

h. Loturik gelditua da apeza bezala; *bat eta besteek* tiraka ustu dute gela; (Orixe, *Euskaldunak*, 52)

i. Ekinaldi latzak egin zituzten, eta noizbait, jende asko, *bat eta bestekoa* galduta, urian sartu ziran. (Lardizabal, *Testamentu berriko ta zarreko kondaira*, 545)

j. Elizaren alde *bat eta bestean* pasio-irudiak, beren aldaretan... (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 142)

Deigarria da, dena den, guztiek ere *bat eta beste* edo *bat eta bat* eskemei jarraitzen dietela, nolabaiteko egitura eginak balira bezala; ez dut, esaterako, ondorengo hauek bezalako adibiderik aurkitu:

(34)

- a. Pistola bat eta bere anaiari eskatutako autoarekin joan zen lapurretara
- b. Gorbata bat eta hilotzak zeraman eratzunak eman zion Holmes-i hiltzailearen berri

Ez dirudi, dena den, oztopo handirik dagoenik. Berdin ondorengo beste hauetan ere:

(35)

- a. Zenbait gizon eta zenbait emakumerentzat lana da bizitzaren ardatza.
- b. Bi gizon eta bost emakumek jaso dute aurten Nobel saria.
- c. Bi liburu eta artikulu askorekin joan naiz oporretara.¹⁸⁷

Konturatzen gara, gainera, 'posposizio moduko' edo deitu ditugun horietakoak ez direnak agertzeko ez dagoela aparteko eragozpenik. Honek, orain arte erabili dugun ondorio berera garamatza: oso zaila da sintaxitik abiatuz argazki honen berri ematea. Eta are gehiago beste mugagabekoak baino dexentez txarragoa den adibide honi erreparatzen badiogu:

(35) Lehen munduko batzuk eta hirugarren munduko askoren arazo da H.I.E.S.a

Euskaltzaindiak ere (1994, 114) ez ditu onartzen horrelakoak:

¹⁸⁷ Horrelakoak errazena zenbakiekin gertatzen dira. Bestalde, bi determinatzaileak mota desberdinekoak direnean nekezago agertzen dira:

- (i). Bi gizon eta zenbait emakumek ikusi zuten miraria
- (ii). Zenbait gizon eta emakume askorentzat futbola zeharo aspergarria da

Dena den, arazo hori ez da juntaduretako elipsiena.

«Azken urteetan ugalduz joan diren

*batzuk eta besteen artean

bezalakoak, lehen juntagaiaren ondarkia pluralean dutenak, ez dira onargarriak.»

Ez dut ikusten desberdintasun horeik sintaxiak bakarrik nola esplika litzakeen.

3.1.2.6. Posposizioak

Lehenago ere aipatu ditugu posposizioak eta posposizio modukoak. Orain, ordea, egitura mota desberdin baterako dakartzagu. Posposizio horien osagarri den izen sintagmak gehienean nolabaiteko kasu-markaren bat eraman behar izaten du; lehenengo juntagaian kasu-marka hori agerian baina posposizioa isilik izateko aukeraz mintzatuko gara orain.

Zenbait posposizioekin ez dago inolako arazorik horrelako egiturak sortzeko:

- (36) a. Ekologiari eta garapenari buruzko hitzaldiak
 b. Euskal Herrian eta Europan zehar
 c. Bere lanari eta kanpoko dirulaguntzei esker

Oro har, euskarazko posposizioek badute horrela jokatzeko aukera, eta are gehiago, esango nuke horrela agertu ohi direla gehienetan: posposizio hauek fonetikoki askeak direlako gertatzen da hori (Euskaltzaindia 1985, 440-445).

Baina beste batzuek, Euskaltzaindiagandik mailegatuz lehen "posposizio moduko" izenaz bataiatu ditugunek, ez dute horrenbesteko askatasunik. Euskaltzaindiak (1985), beste zenbaiten artean, arrazoi horrexegatik uzten zituen benetako posposizioen multzotik kanpora. Bada, ba ote dago mugaxeagoko elementu horiek genitiboko markatik zatitu eta lehen juntagaian isilean uzterik? De Rijk-ek (1972, 127), gogora dezagun, ezetz zioen:

- (37) *Apaizaren eta ijitoarengatik

Neuri ere adibide hauek oso ezohikoak iruditzen zaizkit, baina corpusean zenbait agertu zaizkit:

(38)

a. - Bada eskritura sainduan, iainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miseriakozko hek, iustuentzat eta gaztiguak gaixtoentzat, *zure eta zu bezalakoentzat*. (Axular, *Gero*, 95)

b. - Eta haur da konsolamendu handia, etsaiak *dituenaren eta bidegabeak errezibitzen dituenarentzat*: iakitea eta konsideratzea hek guztiak haren probetxutan direla. (P. Axular, *Gero*, 204)

c. - Eta khurutzeфика bat soinetik khentzen duela, erraiten dio: *zure eta zure amaren ganik ez dut egundaino artha onik baizik ukhan*. (Laphitz, *Bi Saindu Euskaldunen Bizitza*, 77)

d. - Beraz erosi gogo duzu *batzuen eta bertzeen ganik*, idi, arthalde, mahatsi eta hulako bertze ontasunak: bada, yakin zazu Naamanen lepra behin betikotz zure, eta zure umeen baitan izanen dela (B. Larregi, *Testament Zaharreko eta Berriko Historia*, 373)

e. - Auxen diot bada, arrazoi *onen eta beste askorengatik* zor zaizkiola gure Don Kijote lerdenari etengabeko laudorio oraigarriak (P. Berrondo, *Don Kixote Mantxako*, 107)

f. -..... ez litazke on *ez zure ez enetako*. (J Etxepare, *Buruxkak*, 164)

Egungo idazkietan ere bat bederen aurkitu dut:

(39)

Gure izarra zergatik ez genuke behin ukhan behar Europako banderan? 12 baizik ez ditu honek, 50 aldiz USAkoak. Badago arte zabala *gure eta beste batzuentzat* (J.L. Davant, *Egunkaria*, 1992-III-24, 2. or.)

Euskaltzaindiak ere (1994, 43) aurkitu ditu horrelakoak, eta ez die inolako aitzakiarik ikusten:

«Holakoetan ondarkia genitiboaren mailan moztuz izenlagunak junta daitezke.

- (168) a. Piarresen eta Maddalenengatik
b. Auzapezaren eta alkatearengana joan nintzen
c. Auzapezaren eta zinegotzientzat ere hori esan dezakete»

Beraz, badirudi berriro ere hiztunen arteko desberdintasunen aurrean aurkitzen garela¹⁸⁸.

¹⁸⁸ Zenbait lankideren artean egindako inkestetan ondorengo bi adibide hauei buruzko galdera egiten nuen:

- (i). Nire arrebaren eta bere mutilarentzat erosi ditut liburu hauek

3.2.1.7. Nominalizatutako perpausak

Nominalizatutako perpausei ere izenei bezalaxe eransten zaizkie determinatzailea eta kasua:

(40)

- a. Gehiegi *lan egite-a-k* eta neurritz kanpo *edate-a-k* ez dakarte gauza onik¹⁸⁹
- b. Hegazkinez *bidaiatze-a-ri* eta igogailuetan *sartze-a-ri* izugarritzko beldurra diet
- c. Gehiegi *jate-a-ren* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-ren* ondorioak ez dira gozoak izaten
- d. Gehiegi *lan egite-a-n* eta neurritz kanpo *edate-a-n* geure buruari kalte egiten diogu
- e. Gehiegi *jate-a-rekin* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-rekin* ez diogu gure osasunari mesederik egiten

(ii). Eskolako mutikoen eta neskatoentzat jarri dute telebistako programa hori

Bietan ere, zortzitik zazpi txartzat eman zizkidaten, eta batek zalantza apur bat zuen. Beste hurrengo honetan berriz:

(iii). Nire lagunen eta gurasoengatik izan ez balitz, Gorbea aldera irten zen jendearen erdia galduko zatekeen.

Zortzitik lauk ontzat ematen zuten, batek zalantza zuen, bati txar samarra iruditzen zitzaion, eta bik txarra irizten zioten. Izen arrunten orde zuzenordainak erabiliz, emaitza eskasagoak irteten ziren:

(iv). Nire eta gu guztiontzat gertatuko da onuragarri tabernetan erretzea debekatzea (8 txar)

(v). Zure eta zure lagunengatik laster hilko lirakeke afrikar gehienak (7 txar, 1 zalantza)

¹⁸⁹ Aditzarekiko komunztadura pluralean egin dut, nahiz ohartzen naizen ziurrenera singularrekoa arruntagoa dela. Auzi honi buruz zera dio Euskaltzaindiak (1994, 50-51):

«Juntatzen direnak *perpausak* baldin badira, orduan ez da juntadura hori pluraltzat hartzen eta, horrenbestez, aditzak ez du plural komunztadurarik eskatuko»;

eta baita,

«Horrelakoak, seguru asko perpaus izateagatik abstraktutzat hartzen direlako ez dira komunztaduraren aldetik pluraltzat hartzen»

Hein batean arrazoi dute, gehienez horrelakoek singularreko komunztadura eragiten baitute aditzean, baina pluralekoa ere zenbaitetan zilegi dela iruditzen zait. Adibidez, gure adibide honetan *gehiegi lan egitea* eta *neurritz kanpo edatea* elkarrekin inolako loturarik gabeko ekintzatzat hartuz ene iritziz adibidea zuzena da. Hori garbiago ikusten da datiborako eman dugun adibidean: bi ekintzek ez dute elkarrekin inolako harremanik, guztiz desberdinak eta askeak dira, eta horrelakoetan pluraleko komunztadura singularrekoa bezain egokia, edo egokiagoa da (Ikus halaber Artiagoitia 1995, 60).

f. Lanera berandu *iriste-a-gatik* eta zuzendaria *iraintze-a-gatik* bota dute Pello lanetik

Beraz, hauetan ere ezkerreko juntagaia kasu-markarik gabe uzteko aukera teorikoa bada. Ohartzen gara, ordea, horrelako egiturak okerrak direla:

(41)

- a. *Gehiegi *lan egite-a-ø* eta neurriz kanpo *edate-a-k* ez dakarte gauza onik
- b. *Hegazkinez *bidaiatze-a-ø* eta igogailuetan *sartze-a-ri* izugarrizko beldurra diet
- c. *Gehiegi *jate-a-ø* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-ren* ondorioak ez dira gozoak izaten
- d. *Gehiegi *lan egite-a-ø* eta neurriz kanpo *edate-a-n* geure buruari kalte besterik ez diogu egiten
- e. *Gehiegi *jate-a-ø* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-rekin* ez diogu gure osasunari mesederik egiten
- f. *Lanera berandu *iriste-a-ø* eta zuzendaria *iraintze-a-gatik* bota dute Pello lanetik

Corpusaren azterketan ere ez dut horrelakorik aurkitu. Gainera, (41e) eta (41f)-k erakusten duten bezala, posposizio-modukoekin ere ez da inolako hobekuntzarik lortzen. Beraz, adibide hauek orain arteko joeratik aldendu egiten dira¹⁹⁰.

3.1.2.8. Ondorioak

Atalaren hasieran zera galdetu dugu, ea euskaraz lehenengo juntagaiari dagokion kasu-marka, eta kasu-marka bakarrik, isilean duten adibideak zuzenak diren - ematen zaien egitura sintaktikoa edo esplikazio sintaktikoa ematen zaiela-. Ikusi dugu egoera konplexua dela. Zenbaitetan debekaturik daude, beste batzuetan zalantzarako bideak zabaltzen dira, eta azkenik inolako arazorik gabeak ere badira: adibidez, mugagabeko determinatzailea dutenak eta izen bereziak. Egoera horri orokorrean begiratuta, ez zait iruditzen lehenengo juntagaiko kasu-marka isilean uztea eragozten duen debeku sintaktikorik proposa dezakegunik: batetik, onargarrien diren adibideen edo zalantzarako bidea eman izan dutenen kasua argitu beharko litzateke; bigarren, kontuan izanik hizkuntzetan orokorrean junta litezkeen elementu gramatikalen aukera oso zabala dela, agertu beharko litzateke zer ezaugarri sintaktikok eta zergatik eragiten

¹⁹⁰ *Joatearren, joatekotan, joateko...* eta antzerakoetan ere ezin da elipsirik egin, ezin dira bitan zatitu.

duen debekua mota honetakoetan; hirugarren, beste hizkuntzetan horrelakoak badirelarik, beste hizkuntza horiekiko desberdintasunen berri ere eman beharko genuke. Beraz, zehazki eman behar zaien tratamendu sintaktikoaren auzia alde batera utziz, proposatuko dugu (42)-ko egitura berez zuzena dela:

(42)

$$\left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \emptyset \right]_{\text{KS}} \text{ eta } \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}} // \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{ eta } \left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}}$$

Abiaturtzat aldarrikapen hori hartu ondoren, zuzenak diren eta okerrak diren adibideen banaketa esplikatuz behar da. Sintaxitik abiatuz esplikatuzko bururatu zaigun bide bakarrari -bi posposizio buruena- arazo ugari sortzen zitzaizkion: irizpide horren arabera berdinak behar luketen zenbait egiturak desberdin jokatzen dute; eta are larriagoa, ez da ikusten baldintza sintaktiko horrek zer lotura izan lezakeen hemen aztertzen ari garen fenomenoarekin. Beste aukera bat mugagabekoak eta izen bereziak ezaugarri sintaktikoren baten arabera bildu eta beste guztietatik bereiztea izango litzateke, baina ez da ikusten ezaugarri hori zein izan litekeen, eta oraindik gutxiago zergatik eragin lezakeen jokaera desberdina. Beraz, zuzenen eta okerren banaketa esplikatuzko sintaxitik kanpora begiratuko dugu.

Nik hemen proposatuko dut banaketa hori esplikatuz ahal izateko morfonologiara dagoela jo beharra. Ideia nagusia honako hau da: *Jon eta Mireni* bezalako adibide batean, *Jon* juntagaiari datiboaren marka zuzen zuzenean erants diezaiokegu, ez dago inolako aldaketa morfonologikorik egin beharrik. Aldiz, *lagunak eta senideei* bezalako bat badugu, *lagunak* horri datiboaren marka eranstea, *lagunei* lortu ahal izateko aldaketa morfonologikoak egin behar izango genituzke, eta horrelakoetan ez da zilegi lehenengo juntagaiko kasu-marka isilean uztea, edo nahiago bada, juntagaiak kasu-marka bakarraren azpian biltzea. Beraz, bi hitzetan esateko, eransletasun garbia dagoenean zilegi da lehenengo juntagaiko kasu-marka isilean uztea, eta eransletasuna lausotzen zaigun unetik onargarritasuna jaitsi egiten da.

Ardatzat ideia hori harturik irizpide sintaktikoekin baino hobeto esplikatzen da, nire ustez, adibide zuzenen eta okerren banaketa. Nolabait ere, ondorengo honen antzeko baldintzaren bat proposatu beharko genuke:

Juntaduretako kasu-markaren elipsirako baldintza morfonologikoa

"Z juntadura-egitura bateko lehenengo juntaia bada, eta kasu markarik ez badu, adibide hori gaiztoagoa izango da zenbat eta pisu handiagoko aldaketa morfonologikoak egin behar izan elementu horren deklinatutako forma lortzeko."

Era honetako aldarrikapen batek zenbait aurrikuspen egiten ditu. Adibidez, izen bereziek eta mugagabeko izen sintagmek ez dute inolako aldaketarik behar deklinatutako forma lortzeko, eta ondorioz, ez da harritzekoa zuzenak izatea. Orotara singularrekoak pluralekoak baino zuzenagoak izatea ere aurrikusten du: pluralekoetan eransletasuna ilunagoa da, aldaketa morfonologiko handiagoak egin behar dira. Singularrekoen artean leku-denborazkoak beste guztiak baino txarragoak izatea ere baldintza horren ondorio izango genuke. Eta leku-denborazkoekin jarraituz, baldintza morfonologiko horrek esplikatuko luke mugagabeen zuzenak izatea, eta baita bizidunen eta bizigabeen arteko onargarritasun-maila desberdina ere. Azkenik, erakusledunak garbi hartuko lituzke txartzat. Beraz, onen eta txarren arteko banaketa nahikoa ongi esplikatuz geratuko litzateke.

Aldarrikapen horrek, bestalde, onargarritasun-maila desberdinak aipatzen ditu. Egia esan, aipatu baino askoz gehiago ez, aldaketa morfonologiko bakoitzaren "pisua" zehazten ez den artean, edo horretarako erabiliko den irizpidea zein den esaten ez den artean. Mailaketa horren oinarrian honelako zerbait egon liteke:

a) Deklinatutako forma lortzeko elementu hori ezertan aldatu beharrik ez badago, ez da pisuzko operazio fonologikorik egin behar, eta adibidea onargarria izango da.

b) Deklinatutako forma lortzeko elementu horretan erroa ez den zerbait egin behar bazaio aldaketa, edo ezabatu behar bada (*beleak eta zozoen*), aldaketa fonologiko horrek pisu handiagoa izango du, eta adibidea gaizki egongo da.

c) Deklinatutako forma lortzeko elementu horretan erroa aldatu behar bada (*erakusleak*), pisu handiko aldaketa fonologikoa izango da, eta egitura okerrak lortuko ditugu.

d) Deklinatu gabeko forman deklinatutakoan agertzen ez den morfemaren bat badago (*etxea eta mendira*), egitura guztiz gaiztoak lortuko ditugu.

Era honetan, irizpide honekin, banaketaren berri nahikoa egoki emateaz gain¹⁹¹, sintaxitik abiatuz baino, aztertzen ari garen fenomenoarekiko lotura handiagoko esplikazio bat lortzen dugu¹⁹².

Aldaketa morfonologikoen baldintzak guztiz esplikatu gabe uzten dituen puntuen berri eman ahal izateko beste bi 'joera' proposatuko ditugu¹⁹³: *Ondarkia ez*

¹⁹¹ Gaztelerazkoen banaketaren berri ere irizpide horren bidez nahikoa egoki ematen da:

- (i). A/para/de/con Juan y Pedro
- (ii). a/para/de/con la directora y la secretaria
- (iii). a/para/de/con los directores y los secretarios
- (iv). a/para/de/con estos directores y esos secretarios
- (v). a/para/de/con éstos y éstos
- (vi). Para mí y *ti/*tu

¹⁹² Beste hizkuntzetan ere badira era honetako egiturak (Franchini 1986, 285):

- (i). La construcción de la carretera y el puente de Soria
- (ii). El hierro cruel del odio y la desesperación

Baina zebaitetan arazoak daude, lehen eman ditugun Jaeggli-ren adibideetan (iii. eta iv.) ikusi ahal izan dugun bezala:

- (iii). Les compraron una casa a María y el director.
- (iv). ??Les vieron a María y el director.

Adibide hauei buruzko iritzietan, gainera, hiztun guztiak ez datoz bat. Bartra-k (1985), esaterako, Jaeggli-k ontzat emandako zehar osagarridun adibidea ere txartzat jotzen du.

Nolanahi ere, bikote horren berri emateko proposatu denaz, hots, egiturazko kasuen azpian ez bezala berezko kasuen azpian bi izen sintagma junta daitezkeelakoaz, zalantza handiak ditut nik; adibide horietatik horrelako zerbait ondorioztatzea arriskutsua ikusten dut. Nire ustez Jaeggli-ren adibide horien berri gure ikuspegitik abiatuta ere eman liteke: (iii) eta (iv)-n maskulinoari dagokion artikulua erabili da, eta hori da, hain zuzen ere, aldaketa morfonologikoak behar dituen; femeninoa erabiliz ordea ez da hainbesteko arazorik sortzen:

- (v). Les compraron una casa a María y la directora.
- (vi). Mis amigos vieron a María y la directora.

Ezta pertsona-izenak erabiltzean ere:

- (vii). Les compraron una casa a María y Juan.
- (viii). Mis amigos vieron a María y Juan.

Nire ustez, biak ere (iii) eta (iv) baino dexentez hobeak dira. Bestalde, frantseseko zehar objektudun adibidea okerra izatea ere arrazoi berari egotzi dakioko (a le---aux).

Alde horretatik, beraz, Vergnaud-ek erakutsi nahi zuena erakusteko askoz egokiago zen Ortiz de Urbinak (1989) bezala izen bereziak erabiltzea. Baina orduan bi kasu moten arteko ustezko muga hori erori egiten da, eta hiztunen arteko desberdintasunak agertzen dira, irizpide morfonologikoekin hobeki esplikatzeko direnak. Beraz, ez dirudi egiturazko kasuak eta berezko kasuak zein diren zehazteko juntaduretako elipsiak erabiltzea egokiegia denik.

¹⁹³ Baldintza morfonologiko horren arabera, *-a* itsatsia duten hitzek pluraleko formetan arazoak behar lituzkete:

Banatzeko Joera eta *Atzizki Arinak Errepikatzeko Joera*. Lehenari dagokionez, gogoan izan behar dugu, orain arte esan dugunaren arabera singularreko *belea eta zozoaren moko* bezalakoak inolako arazorik gabeak behar genituzkeela, eta ikusi dugu, alde batetik, tradizioan erabilera urria dutela, eta bestetik, hiztun askok eta askok -tartean Euskaltzaindia (1994)- txartzat ematen dituztela. *Ondarkia ez Banatzeko Joera* deituko duguna izango genuke horren azpian. Berebat *apaizaren eta medikuarengandik* bezalako egiturekin ere. Joera horrek zenbait hiztunengan ez luke hainbesterainoko indarrik izango, eta hortik etorriko lirateke zalantzak¹⁹⁴. Eta orotara, artikulua gordez kasu-marka isilean uztea nahiz *apaizaren eta medikuarengana* bezalakoak onartzea, ziurrenera, testu idatzietan usuago gertatuko da. Ez genuke, beraz, junta daitezkeen osagaiei buruzko edo elipsiari buruzko baldintza sintaktiko bat izango, ezpada hiztunak hizkuntza eransle bateko deklinabidean kateatzen diren elementuen artean somatzen duen loturari buruzko baldintza.

Bigarren joerak, Atzizki Arinak Errepikatzeko Joerak, eragingo luke elipsia 'posposizio modukoekin', alegia, fonetikoki pisuagoak diren elementuekin, bestelako kasu-markekin baino errazago gertatu ahal izatea: azken hauekin ia beti atzizkia errepikatu egingo da¹⁹⁵.

Adibideen onargarritasuna gidatzen duten printzipio eta joeren auzia alde batera utziz, egitura-mota honek syntaxian izan beharko lukeen tratamenduaz zenbait gogoeta egin beharrean gaude. Lehenik, interpretazioaren aldetik forma osoen eta elipsidunen artean inolako desberdintasunik badagoen begiratu behar da. Aukera bat izango litzateke kasu-marka agertzen ez denean juntatzen diren izen sintagmen artean lotura estuagoa dagoela esatea, bien artean unitate bat osatuko balute bezala. Hori horrela

-
- (i). Gure garaiko neska eta mutilei ez zitzaien horrelakorik bururatzen
 - (ii). Makila eta akuiluei apaingarriak jartzen iaioa zen

Ez dakit zenbateraino den hori egia.

¹⁹⁴ Hemen ari den honentzat, Euskaltzaindiarentzat ez bezala, arruntagoa da *azeria eta basurdearen ehiza* esatea, *apaizaren eta medikuarentzat* esatea baino. Nik egindako inkestetan ere joera hori agertu zait.

¹⁹⁵ Artikulua eta kasu-marka askeagoak diren hizkuntzetan, arazo gutxiago dira horrelakoak ontzat emateko:

- (i). A variant of this problem is deciding whether a verb is intended to a general or a specific action. ("Determining Verb Phrase Referents in Dialogs", Ann E. Robinson, 1981, *American Journal of Computational Linguistics*, 7, 1)
- (ii). En el ejemplo y el arbol de (50) ninguno de los nudos que llevan el rasgo [+R] ...(Peter Sells, *Teorías Sintácticas Actuales*, 106, Teide, Itzulpena, Ramon Cerdá, 1989)


Posposizio modukoekin beste kasuekin baino errazago agertzea ere ziurrenera bide horretatik esplikatu da. Kasu marka bakarraren azpian bi DetS biltzeko debeku sintaktiko orokorra proposatuko bagenu, kasu hauek guztiak arrazoitu beharko genituzke.

balitz, (43)-ko perpausetan, Miren eta Jon elkarrekin bizi diren bi lagun balira, eta biak zerbaitetarako multzo modura hartu behar bagenu, lehenengo adibidea erabiliko genuke; ostera, Mirenek eta Jonek elkarrekin inolako lotura berezirik ez badute, edo ez dutela iruditzen bazaigu, edo ez balute bezala agertu nahi baditugu, eta bakoitza banaka hartuta hitz egin nahi badugu, bigarrena erabiliko genuke:


- (43) a. Miren eta Jonekin hitz egingo dut gaur.
b. Mirenekin eta Jonekin hitz egingo dut gaur.

Bi irakurketa desberdin horiek egitura sintaktikoan islatu beharrekoak diren ala ez, ez dago garbi: literaturan zehar luzaz eztabaidatu da horrelakoen errepresentazio sintaktikoaz, bereziki *konjuntzio laburketa* deitutako erregelaren inguruan. Desberdintasuna egituran islatu nahi izanez gero, aukerarik sinpleenetakoa honako hau genuke:

- (44a) Miren eta Jonekin



- (44b) Mirenekin eta Jonekin



Baina ez dakit hori zenbateraino gertatzen den horrela. Baliteke horretarako joera izatea, baina ez dut uste nahitaezkoa denik. Nik neronek behintzat alderantziz

erabiltzeko ere ez nuke oztoporik izango, eta ez naiz kasu-marka errepikaturik dutenen eta ez dutenen artean balizko irakurketa-desberdintasunetan oinarrituta horrelako bereizkuntzarik egitearen aldeko¹⁹⁶.

Elipsidunen eta elipsi gabeen artean gehienetan bederen egitura sintaktiko desberdinak justifikatzeko moduko irakurketa-desberdintasunik ez dagoela mantentzen badugu, zehazki zer tratamendu sintaktiko eman erabakitzeko daturik gabe geratzen dira. Hizkuntzalariek, gogora dezagun, hiru aukera nagusi erabili dituzte : 1) ezabaketa dago, 2) oinarritik elementu isil batzuk daude (kasu honetan kasu-markei dagozkienak), 3) oinarriko juntadura besterik ez dira, ez dago ez ezabaketarik ez elementu isilik. Adibideen onargarritasuna erabakitzen zuen printzipio nagusia, ordea, morfonologikoa dela proposatu dugu, eta ondorioz, egitura sintaktiko bat ala bestea izan ez da ikusten zer desberdintasun egon daitekeen: ezabaketaren hipotesia hautatuz gero, ezabaketa hori Forma Fonetikorako bidean gauzatu beharko litzateke, eta zenbait baldintza morfonologiko betetzen ez dituzten adibideetan debekaturik egongo litzateke ezabaketa; oinarritiko juntadura edo kategoría isilaren bidea hautatuz gero, berriz, sintaxiak inolako eragozpenik gabe sortuko litzuzke era honetako egiturak, baina gero baldintza morfonologikoez zenbait adibide oztopatu egingo litzuzkete.

3.1.2.9. Laburpena

Atal honetan kasu-marka bakarraren azpian juntaturik agertzen ziren DetS-ak dituzten adibideez arduratu gara. Proposatutako egoera konplexu horren berri emateko

¹⁹⁶ Hala ere, Bonet & Solà-k (1986, 372-373) diote katalanez preposizioetatik bat isilean uzteak «*produeix o afavoreix la sensació que les noms coordinats formen una unitat més íntima*». Honela jarraitzen dute:

«La interpretació "conjunta" de noms amb article [sic] suprimit, diu, és precisament allò que fa més xocant IVa que IVb (car un rellotge de polsera és un objecte de destí individual):

- iv a. ??Hem regalat un rellotge de polsera a en Joan i ø la Francina.
- b. Hem regalat un rellotge de polsera a en Joan i a la Francina.»

Badira, bestalde, ez ezabaketaren bidez ez kategoría isilaren bidez inolaz esplika ezin litezkeen adibideak, kasu-marka bakarraren azpian juntatutako DetS-tzat hartu behar ditugunak:

«Indio oiek *Panama eta Colombiako* muga mugan bizi dira» (Irazusta, *Bizia garratza da*, 13)

«*Oiloa eta arraultzarekiko* hauzi hura bezalatsu da, ez baita idazlerik irakurlerik gabe, ezta irakurlerik ere inork irakurgairik eskaintzen ez badio.» (L. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 138)

«*Erakuslea eta zenbatzaile orokor hurbilduaren* hurrenkera XVI. mendeko Lizarragagandik datorkigula esan daiteke.» (Josu Pikabea, 252)

Adibide hauetan lehenengo juntagaiari kasua erantsiko begenio esanahi desberdina izango genuke edo zentzurik gabeko perpausak lortuko genituzke.

debeku sintaktiko orokor batetik abiatzea ez dela egokiena. Onargarritasunean eragina zuten faktoreak beste era batekoak zirela aldarrikatu dugu: garrantzitsuenari *Juntaduretako Kasu-markaren Elipsirako Baldintza Morfonologikoa* deitu diogu, eta horren alboan hiztunen aukeren berri emateko beste bi joera ere aipatu ditugu, *Ondarkia ez Banatzeko Joera* eta *Atzizki Arinak Errepikatzeko Joera*. Era horretan aurretik egin diren lanetako zenbait aldarrikapen oker zuzentzeko aukera izan dugu eta fenomenoa orotara hobeki ulertzeko bidean sartu gara.

3.1.3. Determinatzailearen elipsia

3.1.3.0. Sarrera

Determinatzaile bakarrarekin bi IS juntatzeko aukera aztertuko dugu atal honetan. Bi alderditan jarriko dugu bereziki arreta:

- Determinatzaile motaren araberako desberdintasunak.
- Izen eta IS motaren araberako desberdintasunak.

Atala lehenengo puntuaren arabera banatuko dugu.

3.1.3.1. Mugatzailetzat artikulua dutenak

Mugatzailea artikulua denean, eta artikulua hori -kasu-markarekin batera- isilean utzi nahi dugunean, edo nahiago bada, mugatzaile eta kasu-marka bakarren azpian bi IS elkartu nahi ditugunean, bi kasu bereizi behar dira: singularreko sintagmak eta pluraleko sintagmak. Bigarrenek ez dute isilean geratzeko inolako arazorik, edozein atzizkirekin doazela ere:

(45)

- a. Nork sinis lezake *ganadu ta abereai* ere barkatuko ez diola? (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 117)
- b. Bai: an bizi diran zorionekoak mesederik asko egiten digue ere *orazio ta eskeakin*. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 150)

c. *Eremu eta basoetan*, bere gorputza lazki nekatzen zuala. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 75)

d. *Gibel-jale eta errankizundunak* ongi obratuz mespreza zatzu. (Etxeberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 199)

Horrek erakusten digu sintaxiak ez duela determinatzaile eta kasu-marka bakarraren azpian bi IS juntatzearen aurkako debeku berezirik. Beraz, orokorrean ondorengo bezalakoak zilegi izango dira:

(46)

$$[[[IS] \emptyset]_{\text{DetS}} \emptyset]_{\text{KS}} \text{ eta } [[[IS] \text{Det}]_{\text{DetS}} \text{K}]_{\text{KS}} // [[IS] \text{ eta } [IS] \text{Det}]_{\text{DetS}} \text{K}]_{\text{KS}}$$

Singularreko mugatzailea dutenek, ordea, buruhauste gehiago sortzen dute. Goenagak oro har zalantzazkotzat hartzen zituen, eta kasu konkretu batean izartxoia ere ematen zien; Salaberrik oro har ontzat ematen zituen, baina leku-denborazkoak txarrak iruditzen zitzaizkion; *Egunkariaren Estilo Liburuak* ontzat ematen zituen.

Niri horrelako egiturak, adibidez, Salaberriri inkestetan eman zizkiotenak bezalakoak (*lehengusu eta lehengusinarekin*) ez zaizkit oso zuzenak iruditzen; era horretako egiturak ditugunean, juntaturik agertzen diren bi izen horiek izenondo modura ulertzeko joera dut, isilean dagoen izen bakar bati dagozkion izenondo modura. Adibidez, ondorengo hau esatean:

(47) Nire irakasle eta adiskidearekin joan naiz afaltzera

Ohiko interpretazioa da pertsona bakarrarekin joan naizela afaltzera, eta pertsona hori aldi berean irakasle eta adiskide dudala. Horrexegatik, hain zuzen, egiten zait hain zail Salaberriri eman zizkioten erantzunak onartzea: ezohiko adieraren batean ez bada behintzat nekez izan daitekeelako pertsona bera lehengusu eta lehengusin. Tradizioan ere erraz aurkitzen dira juntagaiak izenondo modura ulertzen ditugun adibideak:

(48)

Edozein unean edo momentuan ere munduak bere *egille ta sortzallearen* marka ta seiñalea adierazten digu. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. I Jainkoa*, 37)

Baina auzia ez da hor amaitzen, izan ere, tradizioa aztertzean, ugari ez bada ere, izenondo-interpretaziorik ez duten adibideak aurkitzen dira. Jarraian era honetako adibideek sarrien izan ohi dituzten baldintzak azalduko ditugu. Horretarako gure corpusaz baliatu gara¹⁹⁷.

Lehenengo juntatzen diren izenen alboan biei dagokien izenlagun edo izenondo bat duten adibideak daude. Ikus, esaterako, Pikabearen testu-bildumatik ekarri ditugun ondorengo adibide hauek (1994, 166, 67):

(49)

a. - ...bere gaztetarzunian, *bere indar eta osagarri handienian* atrapatzen ditu hanitz orduz, hiltzen eta masakratzen, (...). (Tartas, *Olsa hilceco bidia*)

b. - ... eta beragatik seguruen-seguruen da, bakoitzak, iñor inkomoratu gabe, eta ixill-ixillik, alduena artzea *pake ta amorio santuan*. (P.M. Urrunzuno, 1899, *Ipuinak*)

Hona gure corpusean aurkitutakoak (corpuseko gainerako adibideak 1 eranskinean):

(50)

a. - Ene *bihotz eta arima* zurekila dirade, bihotz eta arima gabe ehor ezin lizate, zu eta ni elgarreki unsa ahal ginete (B. Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 221)

b. - Eztago bera baño itxusi ta ezañagorik bere *arpegi ta korputzian*. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 178)

¹⁹⁷ Gure asmoa euskarazko literatura-lanen ikuspegi orokorra lortzea zen, eta idazlan-sail handia erabili dugu esku artean. Horiek aztertzeko baliabide informatikoetara jo behar izan dugu, bestela ezinezko izango baitzitzaigun hainbeste idazlan arakatzea. Guri interesatzen zitzaizkigun adibideak lortzeko, honela jokatu dugu: lehenengo *eta* juntagailua zuten adibide guztiak hautatzen genituen; hala ere, corpus oso zabala geneukan, eta nolabait murriztu beharra zegoen. Ondorengo hauek utzi ditugu alde batera:

- Juntagailuaren aurreko hitza *-k-z* amaitua zutenak.
- Juntagailuaren aurreko hitza *-n-z* amaitua zutenak.
- Juntagailuaren aurreko hitza *-u-z* amaitua zutenak.
- Juntagailuaren aurretik puntua, koma, bi puntu edo puntua eta koma zuten adibideak.

Horrela guk aztertu nahi genituen adibideetatik gertuago geratzen ginen. Baina, prozedura horrek, helburuak lortzeko bidea laburtu nahi izaten den gehienetan bezala, badu bere morrontza: alde batetik, *egun eta gaua* edo *katu eta zakurra* bezalako adibideak baztertzeko genituen; bestetik, gerta zitekeen alde batera utzi nahi genituen testuinguru horietan guri interesatzen zitzaigun adibideren bat izatea, eta horrelakoak ere galdu egin ditugu. Dena den, ez dut uste ikuspegi orokorra asko aldatuko zenik.

- c. - Korreo kalean QQ izeneko denda eder baten aurrean biboliña jotzen egoan guzur-gizontxo bati barrez barrez begia, billatu zituan Mañasik gure *emakume ta gizona*. (D. Agirre, *Kresala*, 190)
- d. - Ezteiak beren hatzerat ekarri nahiz, notaria hasi zen *aho eta eskuara ederraren* omena zuen gizon gazte bati, othoi goxorik eras zezan arbasoen mintzai zaharrean. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 134)

Beraz, bi izenei dagokien izenondo bat edo bereziki izenlagun bat agertzeak horrelako egiturak dexente errazten ditu. Gainera, Pikabearen testu-bildumatik hartutako bi adibideak eta Mogelen adibidea inesiboan doaz, nahiz Salaberrik leku-denborazko kasuekin era honetakoak debekaturik zeudela aldarrikatu.

Bada ordea nire ustez egiturazko baldintza horrek baino eragin handiagoa duen alderdi bat: juntaduran parte hartzen duten izenen zer-nolakoa. Adibidez, juntatzen diren izenak elkarren sinonimo badira adibideak askoz onargarriagoak suertatzen dira, alboan biei dagokien izenondoa edo izenlaguna izan ala ez izan¹⁹⁸. Corpusean aurkitu ditugunetatik zati handi bat horrelakoak dira (corpuseko gainerako adibideak 2 eranskinean):

(51)

- a. - Mariak serbitzu onen eta besteen ezagueraz bere *baliamentu eta laguntza* agindu, eta jaungoikoaren eta gizonen begietan andi egiñ zuen. (Arrue, *Maietzeko illa*, 193)
- b. - Besteren ondasunaren *nai ta kutizia*? (Ubillos, *Berri ekarlea*, 182)
- c. - Ez dazaue, zein kaltegarria dan euren *alperkeri ta nagitasuna*, ikasten ondo, amaren bularreti dakargun berbeeta ederra. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 218)
- d. - Eta bere errukitasunian emon deuskulako *epe ta denporia*, izango gara nagijak egiteko penitenzija? (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 216)

Beste askotan, esanahiaren aldetik elkarrengandik oso gertu dauden kontzeptuak agertzen zaizkigu juntaturik (corpuseko beste adibideak 3 eranskinean):

(52)

¹⁹⁸ Lafittek ere (1962, 70) honen antzeko zerbait aipatzen du artikulua isilean utzi ahal izateko baldintzatzat:

«Les termes d'une énumération sont explicatifs l'un de l'autre: chacun peut prendre sa désinence, mais si les termes sont singuliers, et que l'on réserve la désinence pour le dernier terme, celui-ci se mettra au singulier.

Ex.: **nausiaren samurgoa eta hasarrea** ou bien **samurgo eta hasarrea**, la fâcherie et la colère du patron.»

- a. - nolakoa izango litzake Kristoren *naigabe ta larritasuna* lurrean bizi balitz len bezela padezitzeko estaduan, Kristauak egunean egiten dituzten komunio gaiztoekin? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 250)
- b. - Ta bukatutakoan, arkitu ditzatzula garbiago izateko *gogo eta indarra* (M Atxaga, *Gaztetxo*, 9)
- c. - Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko *mintzabide eta adierazpidea* besterik (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 213)

Hauetan ere sinonimo zirenetako ideia bertsua mantentzen da: *larritasun* eta *nahigabe* Kristoren barne-egoera nolakoa izango litzatekeen agertzeko hitzak besterik ez genituzke izango; antzera gertatuko litzateke garbiago izateko *gogoarekin* eta *indarrarekin*; eta *mintzabide* eta *adierazpide* ere oso hurbileko terminoak dira, eta adibide honetan giza-komunikaziorako tresna edo antzerako zerbait adierazteko erabili direla ematen du. Baina garrantzitsuena da guztietan ere esanahiaren aldetik oso antzeko izenak juntatzen direla, eta horrela erreferentzia edo kontzeptu bakar bat adierazteko aukera ematen zaigula.

Ildo beretik jarraitzen dugu ondorengo adibide hauetan ere: beharbada esanahiaren aldetik ez dira hain hurbilekoak izango, baina badirudi juntatutako bi izenen bidez gauza, edo kontzeptu, edo egoera bakar bati buruz ari dela:

(53)

- Eta beingo baten esango bazendu gezurtxo bat, nolako *naigabe ta damua*? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 233)

Nahigabea eta damua berez bi gauza desberdin dira, baina badirudi hemen hobendunaren barne-egoera deskribatzeko erabiltzen direla. Hona jarraian horrelako zenbait (corpuseko gainerako adibideak 4 eranskinean):

(54)

- a. - Bedeinkatua, ta alabdua izan dedila Yesu Kristoren *pasiño ta eriotzea*; eta bere ama maiteak ni gaiti ikusi zituzan neke ta penaak. (Añibarro, *Eskuliburua*, 190)
- b. - Begitanduten jakee kristinau askori malko batzuk begijetati emon baditube, galpe batzuk bularrari buru makurraz emon ezkeru damu dot jauna, guztija daguala egiña *barru ta bijotza* aldatu baga. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 62)
- c. - ... nik zure aitari hill arterañoko *amore eta leialtasuna* gorde diodan bezela. (Arrue, *Santa Genobeba*, 74)

d. - Amets eta ilusiñoak soilki sortu oi diran adiña dute agintari ta ezin igarri diote pozaldi bakoitzak berekin dakarrela *oñaze ta nekea*. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 35)

Adibide bat sail batean edo bestean sartu eztabaida daitekeen gauza da¹⁹⁹, baina horrek ez du hainbesteko garrantzirik, benetan axola duena da adibiderik onenetan, izen desberdinak juntatzen baditugu ere, izen desberdin horien bidez zera bera adierazten dugula, edo zera bera adierazteko aukera dugula; izenaren zernolakoak du, beraz, garrantzi handiena²⁰⁰. Horrela, ohartzen gara orain arteko gehienak [-zenbakarri] motakoak direla²⁰¹, eta asko eta asko abstraktuak gainera, erreferentzia zehatzik ez dutenak, horrelako izenen bidez errazagoa baita gauza, edo kontzeptu, edo egoera bakar bati buruz ihardutea.

Egoera honek Euskaltzaindiak (1994, 49-57) aditzarekiko numero-komunztaduraz esandakoak gogorarazten dizkigu: juntadura-egituretan aditzarekiko komunztadura zenbaitetan pluralekoa ez baina singularrekoa da, eta singularreko komunztadura horrek behar dituen baldintzak, eta hemengo adibide hauetan agertzen direnak pare-parekoak dira. Beraz, badirudi numeroak baduela nolabaiteko zerikusia.

Hau izan liteke, bada, artikulurik gabeko singularreko juntagaiak elkartu ahal izateko bete beharreko baldintzetako bat: juntatzen diren bi atalen batuketa singularizat hartzeko aukera. Bada, gainera, hipotesi horrekin nahikoa txukun etorriko litzatekeen beste datu bat: horrelako egiturak askoz errazago gertatzen dira *edo* juntagailuarekin, eta *edo* juntagailuak, berriro ere, aditzean singularreko komunztadura eragiten du, eta askotan elkarren sinonimo edo oso antzeko diren izenak juntatzen ditu. Aurrerantzean *Numeroaren Baldintza* deituko diogu honi.

¹⁹⁹ Bi izenei dagokien izenlagun edo izenondo bat dutenen saileko zenbait azken honetan ere sar zitezkeen.

²⁰⁰ Beste zenbaitetan badirudi gauza bakar baten deituran bi izen juntatu agertzen direla:

« ... Juan de Austriaren estadu ta gudako sekretarioa;» (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 498)

« ... eta azkenean jaungoikoak beregana deitu zeban, erregeren etxe ta gorteko alkate arkitzen zala.» (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 487)

²⁰¹ *Egunkariaren estilo liburuan* emandako zerrenda hartan ere, konturatuko gara leku bat hutsik utzi zutela:

«Abortatzailea eta bere biktimaren artean.	(Gaizki)
Abortatzailearen eta bere biktimaren artean.	(Ondo)
Askatasuna eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Gaizki)
Askatasun eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Ondo)
Askatasunaren eta bakearen aldeko ibilaldia.	(Ondo)»

Falta dena, jakina, *abortatzaile eta biktimaren artean* da. Izen zenbakarriak izateak izan lezake horretan zerikusirik.

Corpusean aurkitu ditugu, ordea, aginpide horietara makurtzen ez diren adibideak ere (corpuseko gainerako adibideak 5 eranskinean):

(55)

- a. - Laster *buru ta osasuna* galduko jatzuz. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 280)
- b. - Erran duzun bezala, Grazien maitia, eritasun bat badut, nik, hainitz handia: *Mafrundi ta sukarra*, bat eta bertzea, deus handirik ez dire, bainan gosetea! (JM Hiribarren, *Euskaldunak*, 208)
- c. - Berehala ematen dute gero iakin lekhuana, burdin gathea duela *zango eta eskuan*. (Etxeberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa*, 94)
- d. - Baña bere jangoikotasuna egon zan beti, ala animarekin linboan, nola korputzarekin *gurutze ta sepulturana*. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 201)
- e. - Emoten dituban eskandalubak *etxe ta errijan*? (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 59)

Pikabearen testu-bilduman aurkituak (1994, 139, 164):

(56)

- a. - Elexako kanpaiak zoli ots egiten badau, erri atan laster norbait ilgo dala, *martitzen, eta Barikuba*, zori deungako egunak diriala, egun oneetan egiten dan gauza andi, edo nagusiak ezin ondo urten leikiala. (Astarloa, 1818, *Urteco Domeca Gustijetarako Verbaldi Icasbidecuac II*)
- b. - Galopaz ere zen sarthü elizan ta erakusteko bere andere maitiari pikaderia zakiala, han erauntsi zen zaldiari jaüzi guziak eragiten, gogo eman gaberik *althare ta sacramentian* aitzinian zela. (J. Eguiateguy, 1785, *Lehen liburua*)

Era honetakoan artean ere gehienak [-zenbakarri] dira²⁰², baina hautatutako adibideetan argi ikus dezakegunez, guztiak ez. Horrelatsukoan berri emateko Euskaltzaindiak (1994, 40) zera esaten du: «juntatu diren ardatzak elkarketa moduko bikoteak dira, edo hitz biko esakuntzak». Asko ziurrenera hala izango dira, eta geu ere saiatu gara sarri samar agertzen direnak edo elkarren jarraian askotan esaten direnak 5 eranskineko zerrendaren hasieran ematen (*zeru eta lurra, damu eta propositoa, ogi eta ardoa...*). Ohartuko gara, ordea, ezer gehiago esaten ez bada, ez dela erraz delako esakuntza horiek zein izan litezkeen aurretiaz zehazten: hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, *ogi eta ardoa* bezain bikote izan zitekeen *ur eta taloa*, edo beste edozein; eguneroko erabilera

²⁰² Berrero ere leku-denborazko kasuak dituzten adibideak agertzen dira.

izango genuke, bada, izaera hori irabazi dutenak zein diren erabakitzeke oinarri bakarra.

Auziaren berri emateko beste aukera bat alderantzizko bidea hartzea izan liteke: 'esakuntza berezien' ideia gabe, era honetako egitura bat agertzen denean hiztunak bi izenei nolabaiteko batasuna eman nahi diela aldarrikatzea. Ikus, esaterako, Bonet & Solà-k (1986, 372) ematen duten pasarte hau:

«En ambients preocupats per aspectes normatius sovint es discuteix si és millor la versió *a* o la *b* de (181):

- (181) a. Les preocupacions i les molèsties que em dónes
b. Les preocupacions i \emptyset molèsties que em dónes

Des d'un punt de vista descriptiu sembla que es tracta simplement de dues possibilitats amb límits poc clars (gustos estilístics i prejudicis a part). Però els autors convienien que en alguns casos la manca de repetició d'article (sobretot si és el definit) produeix o afavoreix la sensació que els noms coordinats formen una unitat més íntima.»²⁰³

Jakina, zenbat eta lotura handiagoa somatu hiztunak bi juntagaien artean, orduan eta errazago artikulurik gabe ematea. Denbora adierazten dutenak izan litezke horren erakusgarri, bi izenen bidez denbora-tarte bakarraz ari baitaitezke:

- (57) a. Larunbat eta igandean izaten dira istripurik larrienak.
b. Urtarril eta otsailean egiten du elurra errazen.

Baina hala ere corpusean aurkitutako adibide guztiak interpretazio horretara makurraraztea gauzak gehiegi behartzea dela iruditzen zait.

²⁰³ Hizkuntza idatzian usuago agertzen omen dira horrelakoak, bereziki administrazio-hizkeran. Euskarari dagokionez, arlo horretan daramagun ibili laburrean ez dut uste inolako joera berezirik ageri denik. Iruditzen zait, alorak, garai historikokoak, edo euskalkiak baino areago autore bakoitzaren joera estilistikoak eragiten dituela desberdintasunak. Horretarako, ikus eranskina.

Ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasunak ikertzea ez da erraza. Barandiaranen lanean (1919) agertzen diren ipuinen artean ondorengo adibide hauek bakarrik aurkitu ditut:

- «Aitak ordun aitortu zion bere bildur eta asmoa» (105 Zegama, su temor y proyecto)
«Gixon bat bizi zan baserri baten, beren emazte ta pameliegaz» (133 Kortezubi, 'con su mujer y prole')
«Neska orrek bere sombrero ta kapeagaz etxera eskapau eutzen» (Dima 138, 'con su sombrero y capa')
«Etsoinberri esaten diuen Berasteiko baserri baten, neskame ta morroya zên» (14, Berastegi)
«Andik denbota, lixu jotzen joan da, Iturran'go Iturrin billatu ementzittuen neskorren belarritako ta erraztune.» (14, Berastegi, 'los pendientes y la sortija')

Bestalde, ohartzen gara singularreko determinatzailearen azpian biltzen diren adibideetako batzuk aditzarekin pluraleko komunztadura egiten dutela (corpuseko gainerako adibideak 6 eranskinean):

(58)

- a. - Galdetu zien Gibel-andik bere *emazte eta alabari*. (P.M. Urrunzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 25)
- b. - Esango deutsee, nor dan iragarri baga, ezin jarraituko deutseela artu dituban *bide ta bizitza* onari. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 281)
- c. - Aita familikoari doako etxean egoitea, bere lanetik ez dadien aldara, bere *bizipide eta irabazia* begira ditzan osorik. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 171)

Asko izen zenbakarriak izango ditugu, baina denak ez, eta are erreferentzia zehatzekoak ere ez. Bestalde, erreferentzia zehatzekoen artean singularreko komunztadura duenik ere aurkitu dugu:

(59)

- *Ogi ta ardoa* eman diot zure anexe Jacoberi, au da eman al dezodan guzia, zer eman dezakezut zuri? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 204)

Beraz, datuak guk nahi baino bihurriagoak dira, eta lehenago luzatu dugun hipotesi hura neurri batean ahuldu egiten dute: *Numeroaren Baldintzarekin* esan dugu egitura-mota hauek agertu ahal izateko bete beharreko baldintzak eta juntatutako izenek aditzean singularreko komunztadura eragiten zutenekoak nahikoa parekoak zirela, baina hemen parekotasun hori hautsi egiten da. Dena den, orain artean aipatu ditugun baldintza horietatik bakar bat ere betetzen ez dutenak dira enetako -eta Euskaltzaindiarentzat (1994, 41)- onargarritasun mailarik apalena dutenak, eta ikuspegi orokorra mantentzen jarraituko dut.

Singularreko determinatzaile bakarraren azpian juntatutako egiturak onartzen dituztenen artean azken saila nolabaiteko zerrendaren bat osatuko balute bezala elkarren jarraian elementu asko pilatzen dituzten adibideena da. Hona horrelako zenbait (tankera honetakoak izan litezkeen adibide gehiago 7 eranskinean):

(60)

- a. - Salbazalia adoratü onduan oferitü zakoten *ürhe, inzentsü eta mirra*. (*Amikuzeko katexima*, 38)

b. - Jaungoikoari eskerrak elizan eman ziozkaten bezañ laster *Wolfio prestu, obispo beneragarri eta gañearko guziakkin* Jenobebaren etxerakoari eman zitzaiozkan. (Arrue, *Santa Genobeba*, 132)

c. - ...bai-eguan Prakerre begijak zabal-zabalik, geldi-geldi, gauza guztijekaz aztuta, burutik oldozpen guztijak iges egin ba'leutsoe lez, *itxaso ta erreka ta eurijaren* aurrian askori jazoten yaken antzera. (Kirikiño, *Abarrak*, 47)

Badirudi adibide hauetan zeregin nagusia elementuak aditzera ematea edo horrelako zerbait dela, eta ondorioz sintaxiaren legeak zertxobait ahuldu bezala egiten direla²⁰⁴.

Bestalde ohartzen gara zerrendatze kutsukoetan sarritan numeroaren aldetik desberdinak diren elementuak pilatzen ditugula determinatzaile-buru beraren azpian:

(61)

a. - Etxeko bizikera mingotsa bere *ele, kanta ta alaitasunarekin* jasangarri egiten ziona! (J. Etxaide, *Joanak joan*, 154)

b. - Oso-osorik eskeintzen natzaizu ta nere maitetasuna zuri obeki agertzeko, gaur nere *begi, belarri, mingain eta nere biotza* ematen dizkizut; itz batean, nere izate guzia. (M Atxaga, *Gaztetxo*, 99)

c. - Belutu jaku bidian, baña oraindiño etzirian nire *emazte, ume ta otseiñak* oera juango (...) (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 91)

d. - Hunen hotsera guziak *mutill, zakur eta ardiak* betan iratzarri ziren. (L. Goyhetche, *Fableak*, 115)

Lafittek ere (1962, 69) aipatzen zituen horrelakoak, baina baldintza estuxeago bat jartzen zuen: azken juntagaiak, determinatzailea daramanak, pluralekoa behar zuen izan.

«Énumération multiplicative de mots ayant la même fonction grammaticale: chaque membre peut prendre sa désinence, mais on peut aussi réserver la désinence pour le dernier terme, s'il est au pluriel.

Ex.: **Jainkoak eginak dira iguzkia, ilhargia eta izarrak**, ou bien **iguzki, ilhargi eta izarrak**, Dieu a créé le soleil, la lune et les étoiles.»

²⁰⁴ Nabarmenen ondorengo hau bezalakoetan gertatzen da hori:

- Nondik datorkio *nobelari, ipui, teatro eta zineari* bere arrakasta izugarria? (Villasante, *Kristau fedearen oinarriak*, 131)

Adibide honetan azkenak ezezik lehenak ere kasu marka darama, eta ziurrenera elementu horren ondoren geldialditxo bat egingo da. Horrelakoetan badirudi aditzarekiko komunztadurarako lehenengo juntagaia bakarrik hartzen dela kontuan, eta besteak eranskin edo gehigarri modura aurkezten direla, sintaxiaren legeetatik aske bezala. Hizkuntza gehiagotan ere gertatzen dira antzekoak: era desberdinetako komunztaduretarako gertuen dagoen juntagaia bakarrik hartzen da kontuan.

Ziurrenik usuenala hala gertatuko da, baina M. Atxagaren adibideak erakusten digu ez dela nahitaezko²⁰⁵.

Numeroaren aldetik desberdinak diren enumerazio-kutsuko hauei buruzko ohartxo honek beste gai batera garamatza: orain arte determinatzailearen elipsia aztertu dugu, baina juntatzen ziren elementuak numeroaren aldetik berdinak ziren kasuetan bakar bakarrik; beraz, Salaberrik aipatzen zituen haietako zenbait ukitu gabe utzi ditugu. Ikusi beharko dugu juntatzen diren elementuak numeroaren aldetik desberdinak direnean determinatzaile bakarraren azpian biltzea zenbateraino den zilegi; zerrendatze-kutsukoetan ez dirudi hainbestearainoko arazorik zegoenik, baina bestelakoetarako iritzi desberdinak aurkitu ditugu: *EITB-ren Albistegietarako Eskuliburuak* dio numeroaren aldetik guztiek berdinak izan behar dutela; Salaberri inkestetan numero desberdina dutenak ere eman dizkiote.

Corpusari begiratu konturatzen gara horrelakoak badirela. Adibidez, lehenak singularreko zentzua duelarik, eta bigarreanean pluraleko marka dugula (gainerako adibideak 8 eranskinean):

(62)

- a. - Gomuterazoten deuskuz, berak egin zituzan bakeak *jangoiko aserratu; ta gizonen artean*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 117)
- b. - Nihoizere ez deskantsurik: *emazte eta haurrak* nonbaitik hazteko, zergak ere pagatzeko: eta guzien gaiñera hartzeduna eta malobra. (L. Goyhetche, *Fableak*, 5)
- c. - Triskillik zaldia zein begititik itsua zan igarten baeban, bereak izango ebazan *zaldi eta bost milla pezetok*. (Arrue, *Santa Genobeba*, 223)

Baita lehenak pluraleko zentzua duelarik bigarreanean singularreko mugatzailea dagoela ere:

(63)

- a. - Grazijaz ostian emon eutseen jangoikuak Adan, ta Ebari jakiturija andi bat, ta librau zituban *oraiñ daukaguzan gatx, ta eriotzatik*. (J.J. Moguel, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, 30)
- b. - Esango dozu alango mutillak gorroto deutseela *karta ta jokuari?* (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 50)

²⁰⁵ Dena den, azken juntagaia pluralekoa izate hori, ziurrenera, enumerazio kutsukoetan artikulua isilean uzteko baldintza orokortzat eman zuen Lafittek, ez numero desberdinekoentzako baldintza berezizat.

c. - *Galtza ta alkandora zuria*, gerriko gorria eta kasaka urdiña batzuk, gorria besteak. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 204)

Barandiaranek bildutako ipuinetan ere aurkitu dut horrelako bat:

(64)

Andik denbota, lixu jotzen joan da, Iturran'go iturrin billatu ementzittuen neskorren *belarritako ta erraztune*. [los pendientes y la sortija] (*Obras Completas de J.M. Barandiaran II*, 14)

Lehenengo elementua izen berezia izateak, perpausean bertan numeroa interpretatzen laguntzen duten elementuak azaltzeak, edo besterik gabe informazio hori pragmatikak garbi uzteak asko errazten dituzte era honetako egiturak²⁰⁶:

- (65) a. Pello eta bere bi alabak oporretara joan dira
b. Ahuntz-ama eta bere bi kumetxoak larrera irten ziren

Dena den ohikoenak inolako elipsirik gabeak dira, bi determinatzaileak agerian dituztenak²⁰⁷.

Bada azken aukera bat ere: juntatzen diren bi izenak singularrekoak direnean eta egoeraren edo munduaren ezagutzagatik hala izan behar dutela garbi dagoenean, eta gainera zenbakarriak eta erreferentzia zehatzekoak, biak pluraleko determinatzailearen azpian biltzearen zilegitasunarena. Orokorrean okerrak direla dirudi:

- (66) a. *Zakur eta katuak soro-barrenera abiatu dira
b. *Eguzki eta ilargiak elkarrekin ezkutuka aritzen dira

²⁰⁶ Euskaraz hizkera gehienetan singularrekoek eta pluralekoek azentukera desberdina dutenez, horrek ere lagun zezakeen numeroari buruzko informazioa lortzen, baina ene ustez era honetako egituretan ohiko azentukera alde batera uzten da.

²⁰⁷ Beste zenbait hizkuntzatan numeroaz gain generoarekin ere gertatzen dira antzeko egoerak (Bonet & Solà 1986, 374):

- (i). La gosadia i malhumor d'aquest home

Gailen gertuenekoaren generoa irten ohi da, eta autoreen ustez, kasu-markaren elipsia testu landuetakoa bada ere, honako hau erregistro guztietan gertatzen da katalunieraz. Familia berekoak ditugu ondorengo hauek ere:

- (ii) No es pot pujar ni baixar del tramvia en marxe.
(iii). [...] suposará [...] una millora substancial per al tràfic amb origen o destinació vers les zones de la Seu d'Urgell

Euskaraz ez dirudi azken era honetakoak zilegi direnik:

- (iv). *?Oporretatik datorren edo doan jendez bete dira errepideak

Horrelakoak hobetzeko irtenbide bat, biei dagokien izenondo bat jartzea:

(67) Katu eta zakur gaiztoak soro-barrenera abiatu dira.

Corpusean ere aurkitu ditugu horrelako batzuk, nahiz ohikoenak, zalantzarik gabe, singularreko adibideak diren:

(68)

a. Aphezak *ogi eta arno konsakratuen* akzidenteak berexzten dituelarik, hausten da Jesu-Kristoren gorputza edo odola. (*Guiristino doctrina, Luzaide, 36*)

b. Erakusteko: hala nola bere *aita eta ama natüralek* korpitza eman baiterie (...) (Belapeyre, *Katechima laburra, 62*)

c. Gogora egizuz gure asko-gureak erakutsi eutsuzan *bitza eta eriotza garratzak*, gorde gaizuz ondamendi ta galbideetarik; eta gorputz arimako gatx ta gertaera txarretarik. (Añibarro, *Esku-liburua, 125*)²⁰⁸

Aldiz, biei dagokiena izenondoa ez baina izenlaguna bada, ez da hobekuntza handirik somatzen:

(69) *Nire txakur eta katuak soro-barrenera joan ziren.

Desberdintasun horren berri ematen ez dakit. Dena den, era honetakoak izan litezkeen bi aurkitu dut, biak ere elkarren oso antzekoak:

(70)

a. Bere *aita eta amen* maniak onsa begirutzen zütiala (Belapeyre, *Katechima laburra, 35*)

b. Gure Iaun Apezkupiaren poterez eskümukatü berhezi dira: (...) *Bere aita edo amen* popazaliak. (Arnauld-François Maytie, 1676, *Les prieres du prône en basque, 24*)²⁰⁹

Euskaltzaindiak (1985, 250) bai batak bai besteak txartzat ematen zituen:

«Zenbait izen sintagmatan izenondo bakarra aurki daiteke baina izen bat baino gehiago, **eta** juntagailuaren bidez lotuak, adibidez. Horrelakoetan badirudi izen sintagmaren egiturari berari begiratu behar zaiola. Izan ere "Haren samurgo eta haserrea" esaten bada eta ez horren ordez *"Haren samurgo eta haserreak", eta

²⁰⁸ Zalantzako kasu bat: ez dakigu *ondamendi eta galbideetarik* horretako izenak numeroaren aldetik nolakoak diren. Dena den, niri oso zail egiten zait sg+sg erara interpretatzea.

²⁰⁹ Pikabearenetik (1994, 167) bildua.

"haren gogo bihotzak", eta ez *"haren gogo bihotza", bidezko dela ematen du izenondoa agertzen denean ere lege honi jarraitzea. Horrenbestez:

(532) Haren samurgo eta haserre **handia**

eta

(533) Haren gogo bihotz **handiak**»

Baina ene ustez oker dabilta, eta singularreko adibidea ez da nahitaezko izenondodunei dagokien bezainbatean bederen: adibideak emateko hautatu dituzten izenak hautatu izanak badu zerikusia horretan guztian.

Nolanahi ere, azkena aipatu ditugun bi aukera hauek, hots, determinatzaile beraren azpian numeroaren aldetik desberdinak diren izenak juntatu ahal izatea, eta singularreko bi izen pluraleko determinatzaile bakarraren azpian bildu ahal izatea²¹⁰, Numeroaren Baldintzan aldarrikatutakora ez dira biltzen. Dena den, esku artean darabiltzagun auzietan numero-komuntadurak parte duenean ez dugu harritu behar salbuespenak agertzen badira. Euskaltzaindiak (1994, 52), adibidez, esaten zuen adibide berberak aditzean singularreko nahiz pluraleko komuntadura eragin zezakeela:

(71) Kreaturekiko hizketa eta tratabidea bilatzen dut/ditut.

Bien artean desberdintasuna somatzen zuten: singularrekoan agian ez omen gaude bi "zer"-en aurrean, nolabait sinonimo edo liratekeen aurrean baizik; pluralekoan berriz, *hizketa* eta *tratabidea* bi gauza lirateke, eta hortik pluraltzat hartzeko aukera. Bereizkuntza hori, ordea, ez dakit zenbaterainoko zorrotasunez hartu behar dugun. Begira diezaiegun Mogelen adibide hauei:

(72)

a. -Bada nik ere esaten dizut, ain bearrak dirala, konfesioa ona izaiteko, *damu ta proposito* egiazkoa, nola ur egiazkoa bateoa ona izateko. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 176)

b. -Uste ere nuan baneramala *damu eta propositoa*. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 175)

c. - Konfesatzen ere dira, bai: baña aurrera esan diran paltak; *damu ta propositoa* ondo arina, edo utsak. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 162)

²¹⁰ Aukera honek guk orain arte erabili dugun hipotesia zalantzan jartzen du: singularreko bi izen bilduz pluraleko marka zilegi bada, orain arte esandakoak ez du zentzu handirik; zilegi ez bada, eta auzia numero-komuntadura bada, ez da ulertzen zergatik dagoen aukera hori eragotzita; bestalde, izenondorik gabe zuzena ez dena izenondoarekin zergatik hobetzen den esplikatu beharrean gaude.

Guztiak ere autore berarenak, idazlan berekoak, eta orri gutxiren barruan idatziak²¹¹. Azken adibidean, gainera, damuaren eta propositoaren nolakoa adierazten duten izenondoak bata singularrean eta bestea pluralean doaz, elkarren jarraian. Badirudi, beraz, euskal hiztunak numeroaren aldetik askatasun handia duela.

3.1.3.2. Mugatzailea erakuslea denean

Mugatzailetzat artikulua zutenetan bezalaxe erakusledunetan ere ez da inolako arazorik bi juntagaiak pluraleko determinatzailearen azpian biltzeko:

(73) Liburu eta agiri horiek Monzonen liburutegitik ebatsi zituzten.

Juntatzen diren bi elementuak singularrekoak direnean, ordea, artikuludunetan bezalaxe, arazo gehiago sortzen da. Dena den tradizioaren azterketan batzuk aurkitu ditugu (gainerako adibideak 9 eranskinean):

(74)

a. - Eta arrezkero autore jakintsu andi bitan *dotrina, ta konseju au* arkitu det. (Kardaberaz, *Ejertzioak*, 371)

b. - Eta *lanze triste, ta desdixta ikaragarri au* zertan geratu dan, nik ezdakit. (Kardaberaz, *Ejertzioak*, 168)

c. - Erakustearen *jarraio ta ondare oni* latinez deritza... (Ubillos, *Berri ekarlea*, 108)

Bi izenei dagokien izenlaguna eta izenondoa agertzea, juntatzen diren elementuak sinonimoak, elkarrengandik gertukoak, abstraktuak edo, besterik ezean, izen ez-zenbakarriak izatea... lehenagoko baldintza guztiak betetzen dira hemen. Niri, gainera, artikuludunak baino hobeak iruditzen zaizkit erakusledunak²¹²: desberdintasunik nabariena, ene ustez, zenbakarriak eta erreferentzia zehatzekoak diren izenekin dator (biak singularrekotzat hartuz):

²¹¹ Pluraleko komuntadurarik eza, bereziki bizkaierazko testuetan, sarriago gertatzen da objektuarekin subjektuarekin baino. Dena den, lehenengo bien arteko desberdintasuna ez dut uste horren ondorio denik:

«Baña konfesio gaizto geiago egiten dira egiazko *damu ta propositoaren* paltaz esaminarenaz baño; zerren *damu ta proposito* egiazkoak berez dakar konzienzia aztertzeke ta bekatuak ezagutzeko gogo ona.» (JA Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 168)

²¹² *Eta* juntagailuari buruz ari delarik ez du horrelako ezer esaten, baina gauza bera aipatzen du Euskaltzaindiak (1994, 129, 162, 174) *edo, ala* eta *nahiz* juntagailuentzat. Berebat *bat* zenbatzaileari dagokionez.

- (75) a. *?Txakur eta katuak soro-barrenera joan dira.
 b. Txakur eta katu hauek soro-barrenera joan dira.

Ikus, esaterako, Pikabearen testu-bilduman aurkitutako ondorengo hau (1994, 128):

- (76)
 - Etxe bateko eskondu batzuk bizi ziran, euren artian guztiz ikaragarritzkoak ziran aserre eta burruka geratu bagakoetan. (...) *senar eta emazte areek* iñoz baño aserretuago ebilzanean, (...) (A. Iturzaeta, 1899, *Azalduera laburrac*)

Eta bi izenei dagokien izenondo bat tartean badago, inolako arazorik gabeko adibideak lortzen dira:

- (77) Katu eta zakur handi hauek soro-barrenera joan dira.

Kontuan izan, gainera, adibide honetan interpretazioaren aldetik aukera guztiak ditugula: katu bat eta zakur bat, katu bat eta zakur asko, katu asko eta zakur bat, katu asko eta zakur asko.

3.1.3.3. Mugagabekoak

Mugagabeko esapideetan orokorrean ez da determinatzailea isilean uzteko arazorik izaten:

- (78)
 a. Gizon eta emakume asko norabidea galduta dabilta
 b. Zenbait denda eta almazenetan merkealdietarako produktu bereziak dituzte

Esango nuke, gainera, ohikoena horixe bera dela, gure jarduna arinago egitearren elementu horiek isilean uztea. Zalantzarik handiena *bat* zenbatzailea duten adibideek sortzen dute:

- (79) ?Doscaballos eta seiscientos batean irten ginen Europarantz.

Nik eginiko inkestetan hiztunak zatiturik agertzen zitzaizkidan (Hiruk ontzat, bik txartzat, eta hiru zalantzan). Corpusaren azterketan azaldu dira horrelako batzuk. Hona hemen zenbait (gainerako adibideak 10 eranskinean):

(80)

a. - ... ontsa daude gure herri girixtinoetan *ur benedikatu untzi eta kurutzefika bat*, eskuaren menean. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 188)

b. - ... Eta ala ere, gizarteak ba-darama bere bidea, alde zurratik ezarritako asmo baten araura, eta *jo-muga ta xede bat* ardietsi naiean. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. I Jainkoa*, 171)

c. - Dakustanaz, *kaputxino ta kartujo batek* baño bizitza gogorragua dakusee oneek. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 130)

Artikuludunetan eta erakusledunetan bezalaxe, sinonimoak, izen abstraktuak eta zenbakarriak dira adiberik gehienetan. Ez beti, ordea: ontzia eta kurutzefika, adibidez, erreferentzia zehatzeko izen zenbakarriak dira, eta nekez bil daitezke izate edo kontzeptu bakar batean; aditzarekiko komunztaduran ere nabarmentzen da hori. Barandiaranek bildutako ipuinetan ere bada era honetako adibide polit bat, bakarra:

(81)

Jo zuten atia kax-kaxk eta *mutilkoxkor eta neskakoxkor bat* etorri zitzaizkaten (*Obras Completas de J.M. Barandiaran II*, 77)

Eta berriro ere, aurrekoan bezala, pluraleko komunztadurarekin.

Interesgarria gerta litekeen beste elementua *batzuk* da. Plural adiera duten guztiekin bezala ez da arazorik *batzuk*-en azpian pluraleko bi izen juntatzeko:

(82) Gizon eta emakume batzuentzat heriotza askabidea da.

Baina hemen ez dugu posible erakusleetan bezala pluraleko forma horren azpian singularreko adiera duten bi izen juntatzea: goiko adibide horretan ezinezkoa iruditzen zait dela emakumeetatik, dela gizonezkoetatik, dela bietatik, norbanako bakar bat dagoela interpretatzea. Pragmatikak horretara biziki bultzatzen gaituenean ere berdin jarraitzen du debekuak:

(83)

a. *Iñakik, ezkondu denean, etxe eta garaje batzuk erosi ditu.

b. *Iñakik, etxe berrirako, telebista eta mikrouhinezko labe batzuk erosi ditu.

Aurreko adibide horiek berak izenondo batek lagundurik doazenean dexentez onargarriago dira:

(84)

- a. Iñakik, ezkondu denean, etxe eta garaje eder batzuk erosi ditu.
- b. Iñakik, etxe berrirako, telebista eta mikrouhinezko labe berri batzuk erosi ditu.

Hona hemen Pikabearenetik (1994, 45) bildutako adibide bat:

(85)

Simeon Pillarrekoa sortu zan aita eta ama guiristino batzuetarik. (B. Joannateguy, *Sainduen bizitza, lehen zatia*, 1890)

Ohartzen gara, beraz, azken hauek, artikuludunak eta erakusledunak ez datozela guztiz bat beren jokabidean; arrazoi zehatza zein izan litekeen ez dut garbi ikusten.

3.1.3.4. Nominalizatutako perpausak

Nominalizatutako bi perpaus juntatzen ditugunean ez dirudi lehenengoa artikulurik gabe ematea zilegi denik:

(86)

- a. *Mendira *joate* eta hondartzan etzanda *egote-a* dira udako asteburuetan gogokoen ditudan gauzak.
- b. *Gehiegi *lan egite* eta neurritz kanpo *edate-a-k* ez dakarte gauza onik
- c. *Hegazkinez *bidaiatze* eta igogailuetan *sartze-a-ri* izugarrizko beldurra diet
- d. *Gehiegi *jate* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-ren* ondorioak ez dira gozoak izaten
- e. *Gehiegi *lan egite* eta neurritz kanpo *edate-a-n* geure buruari kalte egiten diogu
- f. *Gehiegi *jate* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze-a-rekin* ez diogu gure osasunari mesederik egiten
- g. *Berandu sarriegi *iriste* eta zuzendaria *iraintze-a-gatik* bota dute Pello lanetik

Nik aztertu ditudan lanetan ez dut horrelakorik aurkitu. Lehenago ikusi dugu era honetako adibideak hobetzeko era bat bi juntagaiei dagokien izenlagun edo izenondo bat eranstea zela, baina hobekuntza ez da handia:

(87)

- a. ??Gaur egungo gehiegi *lan egite* eta itxuraz ez *jateak* osasunari kalte egiten dio
- b. ??Asko *irabazte* eta erosteko aukera handiagoa *izate* hutsarekin ez gara zoriontsuago izango.

Artikuluaren ordeaz erakuslea erabiltzean ere bada nolabaiteko hobekuntza:

(88)

??Hainbesteko afariak *egite* eta gauetan berandu arte ez *etxeratze* horrekin ez diogu geure buruari mesede handirik egiten.

Eta izenekin bezalaxe adibiderik onenak erakuslea eta biei dagozkien izenlagun edo izenondoa²¹³ dituztenak dira, bereziki juntatzen diren bi perpausek oso antzeko zerbait adierazten badute, edo bietan adierazten denak egoera bakar bati buruzkoa izateko aukera badu:

(89)

Gaur egungo gehiegi lan egite eta presaka bizitze horrek eramango gaitu hilobira.

Azken baldintza hau, berriro ere, biei dagokien izenlagunaren edo izenondoaren baldintza formala baino garrantzitsuagoa iruditzen zait niri. Aditzarekiko komuntadurak ere horrelakoetan ez du pluralekoa izaterik.

Ikusten da, bada, oro har aurreko baldintza eta joera berberak azaltzen direla hemen ere, nahiz nominalizatutako perpausak egoskorraoak diren elipsirako: pluralean agertzerik ez izateak, izenlagunekin eta izenondoekin oso gutxitan agertzeak, nolabait

²¹³Izenondoek aukera murriztua dutela gogorarazten digu Artiagoitiak (1995, 54, 11 oharra): dio nominalizatutakoek orokorrean ez dutela izenondorik onartzen. Agertzen diren bakarrak *huts/soil* omen dira, azaleko egituran hutsa den izena modifikatzen dutenak eta izenaren ahizpa direnak. Niri zenbait izenondo esplikatzailerekin ez zaizkit hain txarrak iruditzen:

(i). ?Arazoak egunetik egunera atzeratze inozo horrek ondorio txarrak dakartza

paradigma defektiboagoa izateak, konposizionaltasun-maila apalagoa izateak, izan lezake horretan zerikusia²¹⁴.

3.1.3.5. Ondorioak

Azterketa honen lehen ondorioa zera da: euskaraz oro har zilegi dela determinatzaile bakarrarekin bi IS biltzea. Beraz, ondorengo egitura hauek ez dago debeku sintaktikorik:

$$\left[\left[\left[\text{IS} \right] \emptyset \right]_{\text{DetS}} \emptyset \right]_{\text{KS}} \text{ eta } \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}} // \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{ eta } \left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}}$$

Hala erakusten dute orain arte ikusi ditugun pluraleko adibide guztiek. Baina zenbait debeku ere badira. Ikusi dugu singularreko adiera dutenetan arazoak sortzen direla. Kasu-markak isilean uzteari buruz ihardun dugunean debeku morfonologikoak aipatu ditugu nagusiki, baina hemen ez dirudi horrelakorik denik. Zuzenen eta ez hain zuzenen banaketari begiratu, ohartu gara juntadura-egiturek aditzarekiko komunztaduran duten jokaerarekin parekotasun nabaria dagoela: juntatutako bi izenek aditzean singularreko komunztadura izan dezaketen kasuetan da onargarriena lehenengo juntagaiko artikuluaren elipsia. Horrela, juntatutako izenak sinonimoak direnean, abstraktuak

²¹⁴ Izaera berezi horrek beste zenbait alorretan ere badu eragina. *-enean* erako denborazkoen inguruan eztabaida izan da, bururik gabeko erlatiboak diren ala ez: de Rijk-ek (1972) eta Goenagak (1984) garai hartan beste edozein erlatibori ematen zitzaion analisi bera eman zieten, menpeko perpauseko ezabaketa eta guzti; Oihartzabalek (1987, 362-368) erlatiboetako analisi hori *-enean* denborazkoetara mekanikoki hedatzea ez zuen egoki ikusten; Ortiz de Urbinak (1989, 135) zioen beharbada denborazko horiek diakronikoki erlatibozkoak izango direla, baina sinkronikoki horrela analizatzeko arrazoi argirik ez dagoela. Bururik gabeko erlatibozkotzat hartu behar bagenitu, juntadura-egituretan determinatzailea isilean geratzen den begiratu beharko genuke:

(i). *Ama alboan ez duen eta trumoiak jotzen duenean Aitor txikia negarrez hasi ohi da.

Niri guztiz txarrak iruditzen zaizkit. Baina gero ikusiko dugun bezala, bururik gabeko erlatibozkoetan ere gauza bertsua gertatzen da, eta froga honek ez digu argi handirik egiten aurreko eztabaida horretan. *-enean* erlatiboetan determinatzailea badela defendatzeko datu bat *harako*-ren jokaeratik etor liteke: partikula hau normalki izen sintagma mugatuekin joan ohi da, eta horien artean erlatibozkoekin eta denborazkoekin ere bai (Mujika 1991, 1034-1039):

(ii). Gogoratzen zaizu zer esan ziñidan arako zergatik basauntzari illea erortzen zitzayon galdetu nizunean?

Egungo ahozko erabileran ere ezagunak dira horrelakoak:

(iii). Ia akordetan dan *ako* soldadu egon zanean zelan da zetan ibili zan! (J.M. Etxebarria, 1995, 148)

direnean, eta oro har zenbakarriak ez direnean edo zera bakarra adierazteko aukera dutenean azaltzen zaizkigu maizena. Ondorioz, *Numeroaren Baldintza* deitutako bat proposatu dugu:

Numeroaren baldintza

Singularreko artikularen azpian bi IS juntatu ahal izateko, bi izenek juntaturik daudenean aditzarekiko numero-komunztaduran singularra eskatzen duten motakoak izan behar dute.

Beraz, adibideen desegokitasun-iturri nagusia numeroarekiko auziei egotzi diegu²¹⁵: aditzarekiko komunztaduraren alorra eta juntaduretako determinatzailearen elipsiarena horrela lotzen ez baditugu askoz zailago gertatzen da jokabide-parekotasun hori esplikatzea²¹⁶. Kasu-markek inolako eraginik ez izatea ere espero izateko ondorioa

²¹⁵ Moltmann-ek (1992, 115) antzeko auzi batez hitz egiten du, eta ingeleserako berak ematen dituen datuak eta euskarakoak parekoak dira. Guk Numeroaren Baldintzaren bidez agertu nahi izan dugunerako berak beste bide batera jotzen du: bere ustez bada baldintza orokor bat juntatutako IS zenbakarriak intersekzio modura interpretatzera behartzen gaituena, multzo-osaketaren (group formation) interpretazioa eragotziz. Honela aurkezten du:

«This can be traced to a general condition on the interpretation of N'-coordination. This condition says that conjoined singular count NPs have to be interpreted by intersection, not by group formation. Consider (232)

- (232) a. the autor and lecturer
 b. the bread and wine
 c. the men and women

(232a), for most speakers, cannot refer to a group of two people consisting of an author and a lecturer; it can only refer to one person who is both an author and a lecturer. This contrasts with coordinations of mass NPs as in (232b) and with plural NPs as in (232c). (232b) has a reasonable interpretation referring to an entity consisting in part of bread and in part of wine. Similarly, (232c) can refer to a group of people consisting in part of men and part of women. The condition on N'-conjunction can be accounted for in the three dimensional theory of coordination by requirements on the assignment of syntactic features. The category node of *author and lecturer* must have the feature [+singular]; hence it must allow for an interpretation of the NP as a singular NP. But this is possible only when the conjunction of the N's is evaluated by intersection, not by group formation (by the rule for the conjunction of predicates given earlier). In contrast, the category node of *bread and wine* and of *men and women* can still be [+mass] and [+plural], when the N'-conjunction is interpreted by group formation, not by intersection.»

Moltmann-ek proposatzen duen baldintza hori ordea zeharo isolaturik geratzen da eta arrazoia zein izan litekeen ez da ikusten. Bestalde, guk gorago aipatu dugun baldintzak hutsegiten duen kasu guztietan honek ere berdin hutsegiten du, eta aditzarekiko komunztadurarekiko jokaera ez du esplikatzen, izen zenbakarri singularren juntadura intesekziorik gabe uler baitaiteke.

²¹⁶ Miller-ek (1992, 382-396) era honetako auziak aztertzen ditu, eta bai datuak bai ondorioak desberdinak dira. Berak aztertzen dituen hizkuntzetan bai singularrean bai pluralean artikulua nahitaez errepikatu behar da:

izango genuke horrela: Salaberrik besterik bazioen ere, ikusi dugu leku-denborazko kasuek ez dutela jokaera berezirik²¹⁷.

Bestalde, esan dugu numeroari buruzko debeku hori ahula dela, *Numeroaren Baldintza* ez betetzeak ez duela ez-gramatikaltasun larririk eragiten. Adibidez, singularreko bi izen zenbakarri juntatzen ziren singularreko determinatzailearen azpian, eta aditzarekiko komunztadura pluralekoa zuten. Edo singularreko determinatzailearen azpian bi izen juntatzen genituen, lehena pluraleko adiera zuena eta bigarrena singularrekoa zuena; eta hauen oso antzekoak baina ugariagoak, alderantzizkoak: pluraleko determinatzailearen azpian bi izen, lehena singularreko adiera duena, bigarrena pluralekoa duena. Horrelakoek baldintza jakin samarrak zituztela zirudien: batetik, gramatikaren legeak lasaitzen dituztela esan dugun zerrendatze-kutsuko segidak; bestetik, egoera pragmatiko argiak, zalantzarako biderik ematen ez dutenak.

a) Frantsesa:	*le père et fils
b) Errumaniera:	*prietenuł si coleg lagun-art(sg) eta lankide *prieteniı si colegi lagun-art(pl) eta lankide
c) Egungo grekera:	*Eferē to vivlio ke periodiko erosi zuen art(sg) liburu eta egunkari *Eferā ta vivlia ke periodika erosi zuen art(pl) liburu eta egunkari

Frantseseko pluraleko adibiderik ez du ematen, baina ondorengo oharra kuntuari izanik pentsa liteke orokorrean txartzat dauzkala:

«with appropriate lexical choices for the nouns, wide scope can be more acceptable in the plural:
les officiers, sous-officiers et soldats»

Bereziki goi mailako erregistroetan gertatzen omen da hori. Gainera, esplizitoki aipatzen digu *le-ren* ordeaz *les* agertuta adibideak lehen bezain txarra izaten jarraitzen duela, beraz, arazoa ez dela numero-komunztadurarena. Hortik ondorioztatzen du numeroak ez duela zerikusirik.

Ohartzen da zenbait faktorek artikulu bakarreko egiturak zilegiago egiten laguntzen dutela, baina berak ez die esangura berezirik ematen. Honako hauek aipatzen ditu:

a) Frantsesez, bi juntagaiak erreferentziakideak badira zilegi da determinatzaile bakarra izatea (*mon collègue et ami, l'onagre au âne sauvage*).

b) Grekeraz ere bigarren juntagaiko artikulua isilean gera liteke bi izenak erreferentziakide badira, edo abstraktuak badira. Gainera, juntagailua *eta-ren* ordeaz *edo* denean, zenbait determinatzailearekin zilegi dira horrelako egiturak:

*Xriazome to stilo i molivi (arkatz edo boligrafoa behar dut)
Xriazome ena stilo i molivi (arkatz edo boligrafo bat behar dut)

Hizkuntza hauetan guztietan beste determinatzaileek, nahiz adieraz singularrekoak izan, juntagaietatik batean isilean geratzeko debekurik ez dutenez, hemen aipatuko ez ditugun arrazoiengatik artikulua atzizki izaerari egozten dio jokaera hau. Egia da azken puntu honetan euskarako datuekin nolabaiteko parekotasuna badagoela, baina bere analisisa ezin da euskarara osoki hedatu.

²¹⁷ Leku-denborazkoekin aproba egitekoan erabilitako izenen zernolakoari egotzi diogu ikuspegi oker hori.

Garbi ikusten da, bada, numeroari buruzko baldintza hori ez dela zorrotzegia, eta munduaren ezagutzak numero hori zuzen interpretatzeko aukera eskaintzen duenean nahikoa erraz egiten zaiola iskin²¹⁸.

Zenbait adibide esplikatzen gainera *Numeroaren Baldintzaz* kanpoko beste zerbaiten beharra somatzen da. Adibidez, artikulua duten singularreko adibideak numero-arazoengatik badaude gaizki, ez da ongi ulertzen adibide horiek beroriek bie dagokien izenlagunekin edo izenondoekin zergatik diren hobeak. Horrelakoentzako lehenagoko Atzizki Arinak Errepikatzen Joera haren ildo bereko beste joera bat proposatuko dut: *Elementu Aske Pisua ez Errepikatzen Joera*. Horren arabera, izenondo bat dugunean, eta izenondo hori bi izenei buruzkoa izatea nahi dugunean, ez errepikatzen joera izango dugu. Horrek aukera bakarra uzten digu: bi izenak zuzen zuzenean juntatzea, izenen zernolakoak determinatzailearen numeroan zerikusia duelarik (gizon eta neska handiak; neke eta pena handia). Horrela esplikatuko lirateke bestela *Numeroaren Baldintzarako* salbuespen izango liratekeen adibide horiek. Ziurrenera, erakusleekin eta *bat* zenbatzailearekin era honetako adibideek onargarritasun handia izatea honi lot dakiok, eta baita zenbaitek horrelako egiturak atzizki pisuekin arinekin baino errazago onartzea ere.

Azkeneko, era honetako adibideei eman beharreko tratamendu sintaktikoaren auzia geratzen zaigu. Kasu-marken elipsiak ez zigun gauza handirik argitzen, onargarritasuna baldintza morfonologikoen baitan ikusten genuelako. Baina hemen tartean sintaxiarekin lotura handiagoa duen baldintza bat dagoela aldarrikatu dugu, *Numeroaren Baldintza*. Desegokitasunen iturri nagusia numeroan badago, badirudi ezabaketaren hipotesia alde batera utzi beharko litzatekeela; izan ere, juntadura-egitura batean berdinak diren atalen ezabaketa besterik ez bada, ez da erraz ulertzen zer dela eta gertatzen den singularrekoen eta pluralekoen arteko desberdintasuna, baldin bigarrenko juntaiko determinatzailea, bai kasu batean bai bestean, lehenengo juntaiko bezalakoa bada²¹⁹.

Kategoria isil bat proposatzeak ere baditu arazoak: batetik, orain arte proposatu diren kategoria isiletatik oso desberdina izango litzateke, eta bere ezaugarriak, zilegiztatze-baldintzak eta berreskuratze-baldintzak zein diren zehaztea ez litzateke batere erraza izango; bestetik, kontuan izan behar dugu determinatzailea agerian dagoenean eta isilean dagoenean irakurketa-aukera desberdinak ditugula:

²¹⁸ Agian galde liteke determinatzaile bakarrarekin agertzen diren juntadura-egitura hauek numeroaren aldetik zeharo irekiak ote diren, baina nik orokorrean ezetz uste dut.

²¹⁹ Bestalde, proposatu izan da ezabaketa bigarren elementuan bakarrik gerta daitekeela, lehenengokoan ezabaketa ez dela zilegi.

- (90) a. Larritasuna eta beldur handia
 b. Larritasun eta beldur handia

Lehenengo adibidean izenondoa bi juntagaietatik bakarrari dagokio, ez biei. Beraz, bigarren adibidean determinatzaileari dagokion kategoria isil bat balego izenondoa lehenengo osagaien interpretatzea zergatik galerazten duen esplikatu beharko genuke. Eta ezabaketaren hipotesiak arazo bertsua izango luke: esanahia aldatzen duen ezabaketa baten aurrean egongo ginateke. Gainera oso zail egingo litzateke adibide zuzenen eta okerren arteko desberdintasuna esplikatzeko, determinatzaile-motaren arabera baino areago elementu horien singula/plural adieraren arabera baita. Badirudi, beraz, arazorik gutxienerako bidea oinarriko juntadurarena dela²²⁰.

²²⁰ Sintaktikoki horren berri emateko bide bat izan liteke perpausean bezala hemen here IS eta determinatzailearen artean nolabaiteko komunztadura-mekanismoren bat dagoela proposatzea. Horrela, pluraleko determinatzailearen azpian edozein eratako IS-k juntatzeko aukera izango genuke, alegia, pl+pl, sg+pl, pl+sg nahiz sg+sg; determinatzailea singularrekoa denean berriz izenak singularrekoa izan beharko luke, eta juntadura egonez gero lehen aipatu diren baldintza berezi horiek bete beharko lirateke. Proposamen honen alderdirik ahulena sg+sg motakoak pluraleko determinatzailearen azpian biltzeari dagokiona da. Hitzunen artean desberdintasunak dauden arren, erakusleekin ez dirudi hainbesteko arazorik dagoenik:

?Txakur eta katu horiek nire arrebairenak dira (katu bat eta txakur bat)

Biei dagokien izenondo bat dutelarik pluraleko determinatzailea da aukerarik arruntena horrelako izenekin:

Txakur eta katu beltzak galdu zaizkit (katu bat eta txakur bat)

Izenondoa eta erakuslea biek dituztenekin oraindik zalantza gutxiago dago:

Txakur eta katu beltz horiek nireak dira (katu bat eta txakur bat)

Baina bi izen horiek zuzenean juntatu nahi ditugunean, nire ustez debekatuta dago pluraleko artikularen azpian singularreko adiera ematea:

*Txakur eta katuak nireak dira (katu bat eta txakur bat)

Horrek arazoak sortzen ditu egitura sintaktikoan perpausean bezalako komunztadura bat proposatzeko.

3.2. IZENAREN ELIPSIA

3.2.0. Sarrera

Juntadura-egituretan lehenengo juntagaiko determinatzaileaz eta kasu-markaz gain bigarren juntagaiko izena ere gera liteke isilean:

- (91) Sariaren ideia eta lege moralarena elkaturik daude, bada. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. I Jainkoa*, 102)

Bigarren juntagaian ulertzen duguna da *lege moralarena* den hori ideia dela, alegia, *lege moralaren (ideia)*. Beraz, bigarren juntagaia interpretatu ahal izateko lehenengora jo behar izan dugu, handik hartu du isilik geratzen den horrek bere esanahia. Eta esanahia diogu, goiko adibide horretan erreferentzia desberdina dutelako: aipatzen diren bi ideiak ideia desberdinak dira. Horrela izan ohi da, gainera, hemen aztertzen ari garen elipsi-mota honetan.

Bestalde, izenaren elipsia ez da juntadura-egituretara mugatzen: aski ezaguna den bezala, ia edozein izen sintagma ager daiteke bere ardatza den izena gabe, baldin izen horren esanahia berreskuratzeko aukera badago:

- (92) a. *Hau* ez da horrela geldituko
 b. *Nirea* da guztietan onena
 c. *Handia* erostea erabaki dut

Horrelako egiturei eman beharreko tratamendu sintaktikoaz eztabaida ugari izan da hizkuntzalaritzaren historian. Nagusiki hiru aukera erabili dira:

- Sintagma hauen burua determinatzailea da beti²²¹, eta ez dago kategoria isilik.
- Horrelako sintagmetan, izena falta denean, izen horretatik 'gertuen' dagoena bihurtzen da buru, nolabait mailaz igoz. Honela agertzen dute prozesu hau Halliday & Hasan-ek (1976, 148):

²²¹ DetS proposatu baino lehenagoko analisisien arabera ari gara orain.

«Nominal ellipsis therefore involves the upgrading of a word functioning as Deictic, Numerative, Epithet or Classifier from the status of Modifier to the status of Head. For example,

[4:6] Four other Oysters followed them,
and yet another four.

In the second line *four*, which is a Numerative and therefore normally acts as Modifier, is upgraded to function as Head. Similarly in

[4:7] Which last longer, the curved roads or the straight roads? - The straight
are less likely to break.

straight is an Epithet, functioning as Modifier in the question but as Head in the response. Both *another four* and *the straight* are elliptical nominal groups.»²²²

Beraz, egitura sintaktikoan izenarengandik gertuen dagoenak beteko du izenaren lekua, eta hori izango da izen sintagmaren ardatz.

- Sintagma hauen ardatza kategoria isil bat da.

Ni Gramatika Sortzailearen tradizioan (eta beste askotan) eman den irtenbideari lotuko natzaio, eta azken aukerari jarraituko diot, hau da, elementu isil bat -edo isildu bat, azterketaren une honetan ez ditut desberdinduko- proposatuko dut, esanahia beste nonbaitetik hartzen duena²²³.

Isilean dagoen elementu horrek esanahia bi eratara har lezake: pragmatikoki, edo aurretik doan elementu linguistikoko baten bidez. Adibidez, okindegira joan eta ondorengo hau eskatzen bada:

(93) Bi txiki eta gatzik gabeko bat!

Dendariak ez du inolako oztoporik izango hor ogiez ari garela ulertzeko, egoeraren ezagutzak interpretazio horretara bultzatzen baitu. Aurreko edo antezedente linguistikoaren adibideak izango lirateke, ostera, ondorengo hauek guztiak:

(94)

- a. Artelan onak txarretatik bereiztea zail gertatzen zaigu askori.
- b. Macbeth-en barne-gogoetak Stallone-renak baino interesgarriagoak dira.
- c. Woody Allen-en zinemagintzak eta Tarantino-renak ez dute zerikusirik handirik.
- d. Perretxiku txarrak ugari direnean, onak ere hala izaten dira.

²²² Ez da inon esaten, ordea, horrelakoetan kategoria isila dagoenik.

²²³ Aukera hau besteen artean hobesteko argudioetarako, ikus Brucart (1987, 222-228).

Zenbait autore esanahia hartzeko bi bide hauek -linguistikoa eta pragmatikoa- elkarrengandik bereizten saiatu da (Franchini 1986, 330-342), biak prozesu desberdinak balira bezala hartuz. Izenaren elipsiari dagokionez guk banaketa horri ez diogu zentzu handirik ikusten: egia da egitura sintaktikoan hutsune edo dena delako bat proposatu behar dela, baina elementu horren interpretazioa, esanahia nondik hartzen duen, ez dagokio hizkuntzalaritzari, pragmatikari baizik. Esanahi-biltze hori operazio bakar bat da, eta gramatikaren legeek ez dute horretan zerikusirik: agerian ez dagoen izen horri, une horretan dugun informazioaren arabera, egokien iruditzen zaigun esanahia ematen diogu; zenbaitetan gertatuko da -askotan- aurretik solasean eman dugun izen batekoa irudituko zaigula egokiena, eta beste zenbaitetan inork aurretik aipatu gabeko zerbait izango da, baina orotara egoeraren edo munduaren ezagutzak iradokiko digu esanahi egokia zein den, eta ez gramatikak.

Atal honetan lehenik juntaduretako izenaren elipsia izenaren elipsi orokorrago horiekin batera bildu behar den aztertuko dugu. Ondoren isilean zer eta zer baldintzatan geratzen den aztertzen saiatuko gara: gure ustez literaturan egin diren lanetako alor hau ez dute behar hainbateko xehetasunez aztertu, eta ikusiko dugu horren ondorioz egin diren analisi sintaktikoei arazoak sortzen zaizkiela. Azkenik, orain arteko datu guztiak kontuan izanik, juntadura erabiliz tradizionalki izen sintagma deitu izan denaren egituraz euskal hizkuntzalaritzan esandakoen gainbegirada bat egingo dugu.

3.2.1. Izenaren elipsia juntaduran

Ikusi dugu orokorren izenaren elipsia dagoenean esanahia pragmatikoki biltzen dela, gramatikak ez duela inolako agindurik ematen. Ez dago argi, ordea, juntaduretako izen-elipsiek baldintza berberak dituzten ala ez, eta azken batean bestearekin batera tratatu behar diren ala sail berezia osatzen duten. Auzi hori argitzen saiatuko gara hemen.

Orain artean ikusi ditugun adibideetan lehenengo juntagaian agertzen zen izen bera ulertu dugu bigarren juntagaian, eta badirudi hala gertatzen dela ia beti:

- (95) a. Behi nabarra eta pinttoa
- b. Zakur handia eta txikia
- c. Ideia zaharrak eta berriak

Nahitaezko ote da, ordea, hori horrela izatea? Isolaturik ematen diren adibideetan hala gertatzen da; informazio aberatsagoa ematen duen testu batean txertatuta egin beharko dugu aproba:

(96)

Gure baserriko ikuiluan behiak eta oiloak ditugu. Behiak, batzuk esnetarako, pinttoak, eta besteak okelatarako, nabarrak. Oiloak ere bi motatakoak ditugu: gandordunak eta gandorgabeak. Behi pinttoek eta oilo gandorgabeek eguna ikuilutik irten gabe pasatzen dute. **Behi nabarrek eta gandordunek** berriz ezin izaten dute barruan etsi.

Adibide honek eztabaida gehiago sortu du erakutsi diedanen artean, baina gehienek ez dute ontzat eman, zioten hor *behi gandordunak* ulertzen zela.

Guk eragin nahi izan dugun interpretazio horren zailtasuna esplikatzeko bi bide desberdin hauta ditzakegu:

- Juntaduretako izenaren elipsia beste izen-elipsietatik desberdina da, juntaduretakoak esanahia pragmatikoki hartzea debekatua duelako.
- Biak fenomeno bera dira, baina juntadura-egiturak ingurune sintaktiko bereziak dira, paralelismo handia eskatzen dutenak eta zail egiten da bigarren juntagaiko hutsarteari lehenari ez bezalako esanahia ematea.

Niri bigarren aukera bidezkoagoa iruditzen zait. Gainera, egoera pragmatikoak horretarako bide ematen duenean, ez dago hainbesterainoko arazorik lehenengo juntagaiarena ez den interpretazioa hartzeko. Adibide hau ematen du Franchini-k (1986):

(97) Deme una jarra de cerveza y una de berberechos!

Norbaitek esan lezake gazteleraz *una de berberechos* bezalakoak dagoeneko lexikalizaturik daudela, baina ez zait iruditzen auzia hori denik: gehiago da zenbait egoeratan ez dugula izena agerian emateko inolako beharrik somatzen, interpretazioa argia delako. Adibidez, okindegi batean ondorengo hau esateko ez dago oztoporik:

(98) Esne gaingabetua eta txiki bat!

Izan ere, dendariak badaki, edo normalean pentsatuko du, *txiki bat* esatean *ogi txiki bat* ari garela eskatzen. Beraz, badirudi pragmatikak beste interpretazioen bat agintzen duenean ez dagoela arazorik isilean geratu den bigarren juntagaiko izen horri lehenarengandik desberdina den esanahia emateko.

Bestalde, juntaduretan isilean geratzen den izenaren interpretazioa gramatikako esparruaren barnean egingo balitz, lehenengo juntagaian izen elkartuak dituzten adibide hauek arazoak sortuko lizkigukete:

- (99) a. Etxe-usoa eta pasekoa elkarren oso antzekoak dira
 b. Gero eta antz gutxiago dute esne-behiek eta haragitarakoek
 c. Basa-behien eta granjakoek okela oso desberdina da

Eskuineko juntagaian normalean *paseko usoa*, *haragitarako behiak* eta *granjako behien okela* ulertuko dugu, *paseko etxeusoa*, *haragitarako esne-behia* edo *granjako basa-behia* ezinezko edo oso ezohiko kontzeptuak baitira; beraz, lehenengo juntagaiko izen elkartu horren zati batez -mugatzailleaz- nolabait 'ahaztu' egiten gara²²⁴. Eta horren berri sintaxi-egitura hutsaren bidez ematea ezinezkoa da: juntadura-egitura hauetako esanahibiltzea gramatikaren arauetara jarraiki egin beharrekoa balitz, bi izenek gauza bera beharko lukete izan, alegia:

[...I1...] eta [...ø1...]

kontuan izanik indizekidetasun horrek 'hitz bera' izatea adierazi nahi duela, ez erreferentzia bera izatea. Gramatika sortzailearen barnean, ordea, horrelako kasuetan hitz elkartu osoa hartu izan da gutxienean atal sintaktikotzat, eta prozesu sintaktikoek izen elkartu horren barne-egitura ez dute 'ikusten'. Irtenbide modura, ondorengo bi hauek bakarrik ikusten ditut nik:

- Zenbaitetan prozesu sintaktikoek hitz elkartu horren barne-egitura ikus dezakete.
- Mota honetako juntadura-egituretan ere esanahibiltzea gramatikaz landa gertatzen da.

²²⁴ Erabiltzen dugun izen elkartuaren lexikalizazio-mailak horrelakoen onargarritasunean garrantzi handia du: zenbat eta lexikalizatuagoa izan, orduan eta nekezago onartuko da adibidea. Adibidez, ondorengo honek arazo gehiago sortzen du:

- (i). Basakatua eta etxekoa elkarren oso antzekoak dira

Adibide hauetan ikusten dugu, halaber, izenlagundun egiturek eta hitz elkartuek nolabaiteko erlazioa badutela. Horretaz hitz-eraketari buruzko atalean aipamen gehiago egingo dugu.

Oraingoz behintzat bigarrena hautatzea egokiago iruditzen zait: lehenak 'ad hoc' samarra dirudi, eta gainera ez dut garbi ikusten zer ondoriotara eraman gaitzakeen; bigarrena, gainera, orain arteko ikuspegiarekin ondo etorriko litzateke. Azken batean, juntadura-egituretan, errepikapenak ekiditeko asmoz, hizkuntzak ematen duen aukera orokor batez -izenaren elipsiaz- baliatu besterik ez genuke egingo. Beraz, laburtuz: isileko izen horrek errepresentazio sintaktikoan agertu behar du; baina esanahibilketarako, bai orokorrean bai juntadura-egituretan, gramatikaz at begiratu behar dugu; interpretazioa pragmatikak ematen duenez zenbait kasutan ezabaketa egon dela esateak ez du zentzu handirik, eta egokiago dirudi kategoria isilaz hitz egitea.

3.2.2. Nolako isilunea?

Literaturan ahaleginak egin dira isilean zer eta noiz geratzen den aztertzen. Ohartu dira, adibidez, izenaz gain beste elementu batzuk ere gera daitezkeela isilean (Jackendoff 1972, 28):

(100)


- a. I like Bill's yellow shirt, but not Max's.
- b. Bill's story about Sue may be amazing, but Max's is virtually incredible.

Bigarren juntagaian agerian azaldu ez arren agerian baleude bezalaxe ulertzen omen ditugu *yellow shirt* eta *story about Sue*. Horregatik, izena ez diren beste elementu horiek ere errepresentazio sintaktikoan adierazi beharra aldarrikatzen da. Are gehiago, isilean geratzen den horri buruzko baldintzak ere proposatu dira: agerian egon ez arren ulertzen dugun horrek osagai izan behar omen du; alegia, izenaren eta izenarekin batera isilean geratzen den beste elementu horren artean atal bat osatu behar dute²²⁵. Adibidez, Jackendoff-ek berak honako egitura hau ematen zien bere bi adibideei:

(101a)

(101b)

²²⁵ Begiratu, esate baterako, Goenaga (1991, 852) eta han azaltzen diren aipamenak.



Beraz, bai *about Sue* bai *yellow* izenaren ahizpa genituzke, izenarekin batera N' osagaia egingo lukete, eta bere modeluan gero ezabatu egingo lirateke²²⁶. Ondorengo askok ezabaketaren hipotesiaren ordeaz oinarritiko kategoria isilarena erabili dute, eta bere ezaugarriak eta zilegiztatze-baldintzak aztertu dituzte, beti ere isilekoa osagai delako ideia mantenduz.

Hurrengo orrietan euskaraz isileko hori zer eta nolakoa izan litekeen aztertuko dugu, eta bereziki izen soila baino handiagoko zerbait denean sortzen diren arazoez egingo dugu gogoeta. Ondorengo puntuok erabiliko ditugu:

- IS-ren osaketarako hautazkoak diren elementuei (izenlagun, izenondo) elipsoidun adibideetan eman beharreko tratamendua.
- Egitura sintaktikoa eskuarki adarreztatze bitarraren arabera taxutu da, eta izenondoentzako eta izenlagun-mota desberdinentzako hierarkian kokagune finkoak proposatu dira. Isilekoak osagai izan behar duela ere aldarrikatu da. Euskarazko adibideak aztertuz, ordea, ikusiko dugu aurrebaldintza hauei guztiei batera eustea zaila dela.

3.2.2.1. I+izenondoa isilean: hautazko elementuak

Jackendoff-en adibideetan bezalaxe, euskaraz ere oro har ez dago arazorik izenarekin batera beste zenbait elementu isilean uzteko. Adibidez, ondorengo honetan ez dago oztoporik bigarren juntagaian I+izenondo segida interpretatzeko:

(102) [Nire jertse gorria] eta [Pellorena] denda berean erosiak dira

²²⁶ Gerora bere iritzia aldatuko du, bai egiturari dagokionez, bai egitura erabakitzeko irizpideei buruz.

Bestela ere izan litekeen arren ohikoena *Pelloren jertse gorria* ulertzea da. Nolanahi ere, izena ulertzea nahitaezkoa da, baina *gorria* izenondoa ulertu ala ez ulertu hautazkoa izango da. Gauza bera gertatzen zen Jackendoff-en adibideetako *about Sue* eta *yellow*-rekin ere. Horrek bi elementuen artean (ardatza eta ardatza ez dena) desberdintasuna sortzen du. Ezabaketaren hipotesiarekin lan eginez gero ez du hainbesteko arazorik: nahikoa da batzuetan izenondoa ezabaketaren aurretik bazegoela eta beste batzuetan ez zegoela aldarrikatzea. Baina izenondo desberdinen jokaerari begiratu ikusiko dugu gauza gehiago ere badirela argitu beharrekoak. Eta kategoria isilarekin lan eginez zehaztu beharreko alderdiak ugaritu egiten dira. Horrela, (102) adibidean ohikoena I+izond osorik ulertzea bazen, ondorengo honetan zalantza gehiago sortzen da:

(103) [Nire auto gorria] eta [zurea] elkarren ondoan daude

Eta (104)-n berriz oso nekez lortzen dugu era horretako interpretaziorik:

(104) [Nire auto ederra] eta [zurea] elkarren ondoan daude

Ene iduriz, bigarren juntagaian *zure autoa* ulertzen dugu, eta ez *zure auto ederra*; beraz, Jackendoff-enetan ez bezala jokatzen dela dirudi. Era honetako beste adibide batzuk:

(105) a. Olof Palme-ren hilketa bidegabea eta Trotsky-rena
b. Hitler-en hilketa bidegabeak eta Stalin-enak

Bietan ere ez dut uste bigarren juntagaian *bidegabeak* izenondoa ulertuko dugunik. Beraz, badirudi honetan guztian izenondoen zer-nolakoak garrantzi handia duela: izenondo horrek izenak adieraz ditzakeen gauzen edo kontzeptuen artean sailkapen bat egiteko ahalmena badu, multzo zabalago baten barnean elementu bat edo azpimultzo bat aukeratzen badu, edo, beste era batera esateko, erreferentzia murrizteko gaitasuna badu, bigarren juntagaian ere izenarekin batera ulertzeko aukera izango dugu. Aldiz, izenondo hori murriztailea ez baino esplikatzailea bada (104 eta 105-eko adibideak) bigarren juntagaian izena bakarrik interpretatzen dugu, ez I+izond osorik²²⁷.

²²⁷Dena den, izenondoak ez dira berez esplikatzaile edo murriztaile izaten, izenondoen ezaugarri semantikoez gain beste faktore batzuk ere badute garrantzia I+izond segida batean murriztailetzat edo esplikatzailetzat hartzen dugun jakiteko. Esate baterako, ikusi dugu *gorri* izenondoa murriztaileagoa dela jertseei buruz ari garenean autoei buruz ari garenean baino; eta ziurrenera gaur egun murriztaileagoa izango da autoei buruz ari garenean etxeei buruz ari garenean baino. Beraz, izen jakin batekiko eta egoera konkretu batean dira izenondoak murriztaile edo ez murriztaile.

Ildo horretan, konturatzen gara zenbait izenondorekin ia nahitaezko gertatzen dela I+adj segida osoa bigarren juntagaian ere ulertzea:

- (106) a. Nire inprimagailu laserra eta zurea egun berean erosiak dira
 b. Nire kitarra elektronikoa eta zurea egun berean erosiak dira
 c. Nire telefono mugikorra eta zurea egun berean erosiak dira

Egia da kontestuagatik oso garbi badago hor *zure inprimagailua*, *zure kitarra* eta *zure telefonoa* ulertu behar direla horrela ere uler daitezkeela, baina oso ezohikoa izango litzateke: ia ia lehenengo juntagaikoa ez den izen bat interpretatzea bezain ezohikoa, eta aukera horri lotua. Badirudi, beraz, gu aztertzen ari garen fenomeno honetarako (106)-ko adibideetako izenondoen zeregina ez dela, ohi bezala, «izenaren zernolakoa adieraztea edo izenaren kalitate bat aditzera ematea» (Euskaltzaindia 1985, 241), baizik eta izenarekin nolabaiteko 'esanahi-unitate' bat osatzen dutela. Horrela, gauza bat da kitarra eta bestea kitarra elektronikoa, gauza bat da telefonoa eta bestea telefono mugikorra, eta gero bai batak bai besteak izan litezke gorriak, berriak, garestiak edo dena delakoak; beraz, I+izond segidaren bidez, adibide horietan, gauza edo kontzeptu bakar bat ematen dugu aditzera, eta hutsunea interpretatzeko unean ere I+izond oso osorik ulertuko dugu²²⁸.

Bestalde, [-murriztaile] deitu ditugun izenondo horien artean ere badira desberdintasunak. Zenbaitetan izenak orokorrean beti izan ohi duen ezaugarriren bat adierazten da:

- (i). Gau iluneko mamuek ikaratzen zuten Iñakitxo

Beste batzuetan izenaren ezaugarri berezi bat nabarmendu arren, izenondo hori eranstea izenaren erreferentziak lehenengo berbera izaten jarraitzen du:

- (ii). Haur jostalariaren etengabeko joanetorriak alaitzen zuen parkea

Semantikaren ikuspuntutik honela bereizi zituen Rojo-k (1975, 200): lehenetan, «puesto que la nota agregada por el adjetivo ya está contenida en la intención del sustantivo, la extensión de éste no se ve reducida»; bigarrenetan, «se incorpora un adjetivo para describir algún aspecto del sustantivo, para destacarlo, pero sin que ello tenga como resultado una restricción en la extensión del sustantivo». Juntadura-egituretako elipsian ez du desberdintasunik era batekoak izan ala bestekoak izan: bigarren juntagaian ulertu ahal izateko murriztailetzat hartu beharko ditugu.

²²⁸ Dagoeneko esanahi-unitatearen kontzeptu horren aldekoa izan daitekeen beste adibide bat ere erabili dugu esku artean: gramatikaren aginduak alde batera utziz interpretaziorako hitz elkartuaren zati bat ahazten genueneko hura.

- (i). Etxe-usoa eta pasekoa oso antzekoak dira

Adibide horretan hitz elkartua esanahi-unitate banaezintzat ez hartzeko aukera geneukan, eta horregatik, bigarren juntagaian *paseko usoa* ulertzen genuen, ez *paseko etxe-usoa*.

Gaia, beraz, Jackendoff-ek azaltzen duena baino korapilotsuagoa da. Egoera honen berri emateko bide bat literaturan behin eta berriz aipatu den ideia batera jotzea genuke: arestian esan bezala, hutsune horri gehienek izaera sintaktikoa aitortu diote, eta isilik geratzen direnek osagai izan behar dutela aldarrikatu da. Horren ondorioz, erregela asko (*N' gapping*, *N' deletion*, *NP deletion*) proposatu dira. Guztiek amankomunean zera dute: esparru sintaktiko jakin bat definitzen da, eta esparru horren barrukoak isilik gera daitezke, eta kanpokoak ezin dira isilean geratu. Gurerako, zenbait izenondo esparru horren barnean egongo lirateke, eta beste zenbait kanpoan: kanpoan geratzen direnak ez lirateke elipsoidun juntagaian interpretatuko, eta barnean geratzen direnak bai. Ildo horretan, gogoan izan behar da erlatibo murriztaileentzat eta esplikatzaileentzat bezalaxe (Jackendoff 1977, 169-185)²²⁹, izenondoentzat ere sarritan proposatu direla kokaleku desberdinak²³⁰.

Dena den nire ustez hurbilketa honek ere ez du behar bezala azaltzen izenondoaren aukerazkotasunaren auzia. Izena ulertzea derrigorrezkoa zen eta errepresentazio sintaktikoan kategoria isilaren bidez adierazten dugu. Baina izenondoa ulertu ala ez ulertu beti hautazkoa da eta hizkuntzaz kanpoko auziek erabakitzen dute nola jokatu, baita izenondo murriztaileekin ere. Begira, esaterako, ondorengo adibide honi:

(107) Zure kamiseta gorri berria eta nirea denda berean erositakoak dira

Nire kamiseta ere gorria eta berria dela interpretatzen ote dugu? Ziurrenera ez: egoeraz ezer ez badakigu ere, munduaren ezagutzak esaten digu kasualitate handia izango litzatekeela bi pertsona desberdinek kamiseta gorri berri bana izatea; ondorioz, lehenengo juntagaiko izenondo murriztaileak, beste askotan bigarren juntagaian ere

²²⁹ Proposamen horrek euskararako baditu arazoak. Oihartzabalek (1987, 214) agertu zuen bezala, badirudi euskal erlatiboak ezein ordenatan kateatu daitezkeela, ez dela murriztaileen eta esplikatzaileen artean nahitaezko ordenarik; ondorioz, zail izango litzaziguke bientzat egitura sintaktikoan kokaleku desberdina proposatzea.

²³⁰ Bestela hainbeste xehetasun ematen dituen Jackendoff-ek (1977) oso gutxi dakar izenondoei buruz. Izenondo murriztaileen eta esplikatzaileen arteko desberdintasunei buruzko azterketa sakonagoak lehen aipatu ditugun Rojo (1975) eta Franchini-ren (1986) lanetan aurki daitezke, baina beren proposamenak egungo modeluetara egokitzea ez da erraza. Nolanahi ere, badirudi izenondo esplikatzaileak hierarkian gorago daudela proposatzen dutela, eta erlatibo esplikatzaileei eman zaien analisi bera eman behar zaiela. Dena den, erlatibo desberdinen artean horretara bultzatzen gaituzten ezaugarri formalak badira, baina izenondoetan ez dut horrelakorik somatzen. Auziaren muina, azken batean, zera genuke: desberdintasun semantikoak zenbateraino eta nola adierazi behar diren egitura sintaktikoan.

Euskal hitzkuntzalaritzan ez da honi buruzko proposamen zehatzik egin: Goenagak (1991) oro har izenondoak non kokatu zalantzak ditu, eta Eguzkitzak izenondoak N'-en adjuntutat ematen ditu, xehetasun gehiago gabe; biek ala biek izenondo murriztaileak bakarrik darabiltzate. Artiagoitiak (1995, 12-13) izenaren ezkerretara sortutako I'-en ahizpatzat hartzen ditu, eta bere proposamenaren arabera gero izenari adjuntatuko litzazikioke.

interpretaturik agertuko zaizkigunak, oraingo honetan ez ditugu berreskuratzen. Gauza bera gertatzen da, adibidez, bigarren juntagaian erakusle bat erabiltzen badugu ere:

(108) Zure kamiseta gorri berria eta nire hau denda berean erositakoak dira

Izenondoen interpretaziorako aukerazkotasuna nabarmenago ikusten da juntaduraz kanpoko egituretan:

- (109) a. Nire kotxe gorria zurea baino askoz hobea da
 b. Nire kotxe ederra ez duzu zurearekin konparatuko!
 c. Nire jertse gorria zurea baino askoz merkeago erosi dut
 d. Nire jertse gorri berria zurea baino askoz merkeago erosi dut

Azken batean, egoeraren ezagutzak bestetarako bidea ematen badu, izenondoaz ahaztu egingo gara. Gogoan izan behar dugu gainera hasieran esan dugun hura, alegia, isilekoak esanahia pragmatikaren aginduen bidez hartzen duela, eta horretarako gramatikaren joko-esparrutik irten beharrean gaudela. Horrek guztiak egitura sintaktikoan aukerazkoak diren elementuek nola tratatu zalantzak sortzen ditu, eta Jackendoff-ena bezalako ikuspegi baten zailtasunak erakusten ditu. Ondoren ikusiko dugun bezala tartean elementu gehiago direnean zailtasun horiek ugaritu egiten dira.

3.2.2.2. izlag eta izond isilean: isilunearen osagaitasunaz

Izenondoaz gain izenlaguna ere gera liteke isilean, eta biak agertzen zaizkigun adibideetan, biek dute isilean geratzeko aukera. Horrelakoetan, isiluneak osagai izan behar badu, egitura erabakitzeke orduan buruhaustek sortzen zaizkigu. Goenaga (1991) ohartzen da horretaz, ondorengo adibide hauek aztertzean:

- (110)
 a. Nik Joxeren andregai euskaldunak aipatu nituen eta zuk, erdaldunak.
 b. Nik Joxeren andregai erdaldunak ezagutu nituen, eta Pellok Andonirenak.

Nola eman bien berri batera? Izan ere, badirudi lehenengoan izenlaguna eta izena (*Joxeren andregai*) biltzen direla osagai berean; bigarrenean, oster, izena eta izenondoa (*Andregai erdaldunak*) bildu beharko lituzke osagai berberak²³¹. Goenagak

²³¹ Iruditzen zait, dena den, izenlagunaren kasua eta izenondoarena ez direla guztiz parekoak. Pentsa dezagun, adibidez, Joxek andregai errusiar bat duela, gure artean gauza ezohikoa, eta Anderren andregai berriz euskal herrikoa dela:

(1991, 856) zera esaten du: batetik, juntadurarik gabeko izen sintagmetan ere gertatzen direla horrelakoak, alegia, segida berari interpretazio desberdinak eman dakizkiokeela; bestetik, guk hemen izenlagun eta izenondo deitu ditugunak kategoria beraren azpisail direla, eta ordena kontuez abstrakzio egingo bagenu, I'-ren, edo agian I"-ren errekurtsioa besterik ez genukeela izango. Adarreztatze bitarra gordez hierarkian honelako zerbait izango genuke²³²:

- (111) a. [[Joxeren andregai] erdaldunak]
 b. [Andoniren [andregai erdaldunak]]

Analisi horrek, ordea, eztabaidatu beharreko alderdiak baditu. Lehena izenlagunak eta izenondoak egitura sintaktikoan kokatzeko azken urteetan egin diren ahaleginen ildotik dator. Orokorrean izenlagunei eta izenondoari egitura sintaktikoan kokagune finko bat eman zaie, eta ez dirudi era honetako irakurketa-desberdintasunen ondorioz segida berari bi analisi desberdin ematea hurbilketa horrekin bat etorriko litzatekeenik. Gainera, analisisetako askotan izenlagun-motaren arabera (edutezkoak, egile errol tematikoa dutenak, gai errol tematikoa dutenak, adjuntuak) egitura sintaktikoan kokagune desberdinak proposatu dira. Adibidez, euskararen kasurako Eguzkitzak (1993) nagusiki lau kokagune proposatzen zituen izenlagunentzat: edutezkoak DetS-ren espezifikatzaile lekuan; egileari dagozkionak IS-ren espezifikatzaile lekuan; *-ko* atzizkia dutenak N'-ri adjuntaturik; objektuari dagozkionak izenaren ahizpa modura. Lau izenlagunak batera gertatzen direnean ere ordena horretan agertu ohi dira:

- (112) Rotschild-en Rembrandt-en Amsterdam-go bere buruaren irudia.

Bada, (110)-eko izenlagunak edutezkoak ziren, baina ohartzen gara bestelako izenlagunekin ere berdin gertatzen direla interpretazio desberdin horiek:

- (113) a. Marilyn Monroe-ren [argazki erotikoak]
 b. [Marilyn Monroe-ren argazki] erotikoak

- (i). Joxeren andregai errusiarra eta Anderrena kafetegian ikusi ditut.

Adibide honetan errusiarra esplikatzailea da, ez murriztailea, ez du Joxeren andregaien multzotik bat aurkeratzen, informazio hori ematen da nolabait nabarmena dela somatzen delako, eta bigarren juntagaian ulertu gabe uzteko ez dago inolako eragozpenik. Izenlagunekin ordea aukera hori zailagoa da:

- (ii). Joxeren andregai errusiarra eta euskalduna elkarrekin ondo konpontzen dira

Izenlagundun egiturek sortzen dituzten arazoez geroxeago hitz egingo dugu.

²³² Hesiketa laburtuak ematen ditut, interpretazioari dagozkionak.

- (114) a. Picasso-ren [kuadro kubistak]
 b. [Picasso-ren kuadro] kubistak

Izenlagun desberdinak egitura sintaktikoan kokagune finko desberdinetan zintzilikatu behar badira, eta izenondoak ere bere leku propioa badu, era honetako interpretazio-desberdintasunen arabera egitura desberdinak proposatzean elementu bakoitzak besteekiko hierarkian duen lekua ez litzateke errespetatuko. Gauza bera gertatzen da juntadura-egituretako elipsietan:

(115)

- a. Marilyn-en argazki erotikoak erraz lortzen dira, baina pornografikoak ez.
 b. Marilyn-en argazki erotikoak oraindik ondo saltzen dira, baina B. Bardott-enak ez

(116)

- a. Miró-en kuadro kubistak eta dadaistak ditut nik gustukoen
 b. Picasso-ren kuadro kubistek gorespen handiak izan dituzte, baina Miró-renek ez

(117)

- a. Frantziako eliza gotikoak dotoreak dira, baina barrokoak dotoreagoak
 b. Frantziako eliza gotikoak ederrak dira, baina alemaniakoak ederragoak

(a) adibideetan izlg+I segida geratu zaigu isilean, (b) adibideetan berriz I+izond segida, eta ez batean ez bestean ez dago arazorik. Ez dirudi, gainera, delako izenlagun horiek gai errol tematikoa hartu, egile errol tematikoa hartu edo *-ko* daramaten adjuntuak izan inolako desberdintasunik dagoenik. Baina adibide hauek eta Goenagarena kontuan harturik, eta isilunearen osagaitasuna mantenduz, elipsiaren datuak ez dira ondo ezkontzen Eguzkitzak (1993) proposatzen duen egiturarekin: edutezko izenlagunak eta egile paper tematikoa dutenak egituran izenondoa baino gorago geratuko liriateke, eta izlg+I+izond segida batean isilune hori ez genuke osagai izango; aldiz, segida horretako izenlagunak gai paper tematikoa balu eta I+izond segida geratuko balitz isilean berriro ere isilunearen osagaitasuna mantentzerik ez genuke izango. Argi ikusten da, beraz, isilunearen osagaitasuna, adarreztatze bitarra eta izenlagunek eta izenondoek egitura sintaktikoan beren leku propio finkoa dutelako ideia ezin direla batera mantendu.

Egoera horren aurrean aukera desberdinak egin ditzakegu: a) Goenagarenaren moduko proposamen batekin izenlagunen eta izenondoen kokagune finkoen ideia utzi beharko genuke alde batera; b) Izen sintagmentzat (eta Determinatzaile Sintagmentzat) egitura lauago bat proposa liteke, ziurrenera adarreztatze bitarraren ideia alde batera

utziz; c) isilekoa osagai delako ideia bazter dezakegu. Franchini (1986, 368) badirudi azken aukeraren aldeko izango genukeela. Ondorengo adibide hauek eskaintzen dizkigu²³³:

- (118) a. El vino blanco de la Rioja y el ø tinto de la Mancha
 b. El vino blanco de la Rioja y el ø ø de la Mancha
 c. El vino blanco de la Rioja y el ø tinto ø

Bere ustez, adibide hauen guztien egitura sintaktikoa ondorengoa da:

- (119) [DET [nuc & MOD1] MOD2]

Bere modeluak orokorrean ez du adarreztatze bitarra gordetzen, baina guretzat orain interesgarri den datua zera da, lehenengo modifikatzaileari ardatzarekiko lotura handiagoa aitortzen diola, eta bigarrenak bi horiek ([nuc & MOD1]) osatzen duten atala, berriro ere ardatza -NUC deitzen dio-, modifikatzen duela. Elipsia egiteko orduan berriz, MOD horietatik edozein utzi omen liteke isilean, eta hala ere informazioa berreskuratu egiten omen dugu ((118b) eta (118c) adibideak). Ordea, (118c) adibidea horrela interpretatu beharrekoa balitz, edo besterik gabe, honela interpretatzeko aukera bagenu, isilunearen osagaitasunari buruz esandakoak arazo larriak izango lituzke. Dena den, gramatikaltasun-iritziekin desadostasunak daude, eta euskaraz honen pareko adibide argirik ez dut aurkitu.

Beste aukera bat, lehenago esan dugun bezala, adarreztatze bitarra alde batera utzi eta egitura sintaktiko lauagoak proposatzea izango litzateke. Jackendoff-ek (1977, 185-190), esaterako, erlatiboek buruz hitz egitean, norabide horretako gogoeta egiten du, eta bide batez Goenagaren (111)-koa bezalako analisisien aurkako iritzia agertzen du.

Jackendoff-ek ere badarabiltza Franchinirenen antzeko adibideak, baina beste bide batetik jotzen du. Bere aldarrikapenaren muina zera da: elkarren jarraian doazen bi erlatibo murriztailek ez dutela hierarkian maila desberdinean egon beharrik; are gehiago, mota berekoak badira maila berean egongo dira, bata bestearen segidan. Hizkuntzalari askok maila desberdina ematearen arrazoia, edo beste era batera esanda, hiztun askok modifikatzaileetatik lehenak izenarekin lotura handiagoa duela eta bigarrenak ardatza+lmod osagai osoa modifikatzen duela somatzearen arrazoia zera da Jackendoff-en ustez: kasurik arruntena hori izatea, eta azentua ere azken elementu

²³³ Bigarren juntagaian agerian geratzen diren elementu horietan eta lehenengo juntagaiko kidean, autorearen ustez, «colocación de foco» egiten da (Franchini 1986, 365).

horrek eramatea. Baina lehenengoari azentu bortitz bat emango bagenio, eta azken zatia azenturik gabe utziko bagenu, alderantzizko pilaketa (*stacking*) lortuko genuke. Ondorengo adibide hauek ematen ditu (Jackendoff 1977, 186-187)²³⁴:

(120)

- a. The men _{mod1}who came to dinner _{mod2}who hated lox left early, but that wasn't true of the men _{mod1}who arrived after eight o'clock _{mod2}who hated lox.
- b. The man _{mod1}with a scar _{mod2}who came to dinner was fond of the man _{mod1}with green eyes _{mod2}who came to dinner.
- c. The weather _{mod1}in Kansas _{mod2}in 1875 was better than the weather _{mod1}in Australia _{mod2}in 1875.

Azentudun zatiari *focus* deitzen dio, eta gainerakoari *presupposition*. Beraz, autore honen ustez, zenbaitek egitura sintaktikoko hierarkia-desberdintasunen bidez adierazi nahi izan duena pragmatikari dagokion auzia da, ez sintaxiari dagokiona²³⁵.

Beste aukera izenlagunek eta izenondoek egiturari kokaleku propio finkoa dutelako idea alde batera uztea izango genuke. Ildo horretan, Eguzkitzak (1993) euskararako proposatutako egiturari zenbait puntu ahul badira. Bere datuak oro har zuzenak iruditzen zaizkit eta ordena arruntena (112)-koa dela uste dut, baina egiturari buruzko aldarrikapenetan zenbait arazo somatzen ditut, bereziki ohiko den ordena horretatik urruntzen garenean, edo zehazkiago, urruntzeko aukerez.

Lehenengo zalantza *-ko* dutenekin sortzen da: egia da kokalekurik arruntena (121)-ekoa dutela, baina ez dut uste besteak debekaturik dituztenik. Adibidez:

- (122) a. Peruren Le Corbusier-en Madrilgo aulkia
 b. Peruren Madrilgo Le Corbusier-en aulkia
 c. Madrilgo Peruren Le Corbusier-en aulkia

Eguzkitzari (1993, 180) ez bezala, iruditzen zait guztiak ere egoki izan litezkeela gauza bera adierazteko; are gehiago, ez dut uste *stacking* aldetik edo fokalizazio aldetik ere desberdintasunak nahitaezkoak direnik.

²³⁴ Letra lodiek 'strong stress' edo 'prominent stress' adierazten dute. Lehenengo adibidean bakarrik jartzen ditu berak, baina artikulua haren pentsa liteke besteek ere beharko luketela.

²³⁵ Baina Jackendoff-en proposamenak ere baditu arazoak: batetik, adarreztatze bitarraren alde eman diren argudio guztiak daude; bestetik, Oihartzabalek (1987, 215-220) erakutsi zuen euskaraz bi erlatibo murriztaile elkarren jarraian doazenean, interpretazio-kontuetara jo gabe ere, egokiena biak egitura sintaktikoan maila desberdinean zintzilikatzea zela.

Bigarren zalantza izen 'erregularrak' deitzen dituenekin sortzen da. Horrelakoek ez dute objektuari dagokion izenlagunik izaten, beraz, (122a)-ko adibideetan *Peruren* DetS-ren espezifikatzailean egongo da, eta *Le Corbusier-en* berriz IS-ren espezifikatzaile lekuan. Zer, ordea, ordena alderantzizkoa bagenu?

(123) *Le Corbusier-en Peruren aulkia*

Nik ez diot eragozpen berezirik ikusten; jakina, egoera edo inplikazio jakin bat eskatzen du: *Le Corbusier-en aulkia* duten beste pertsona batzuk ere badirela, baina gu Peruk duenak arduratzen gaituela. Beharbada beste adibide batekin errazago ikusiko da hori. Pentsa dezagun *Leizarragaren bibliaz* ari garela, eta zalantzaren bat argitzeko lehenengo edizioko ale batean begiratu nahi dugula:

(124) *Leizarragaren Monzonen biblia Allirena baino errazago lortuko dugu*

Ordena ohikotik aldentzen garen neurrian indar handiagoz ahoskatu beharko ditugu bi jabe edo erosle horiek, baina bestela ez dut uste txartzat ematerik dagoenik. Orain, Eguzkitzak beste adibide baterako dioen bezala horrelakoetan mugimendua gertatzen bada eta adjuntziorik ez badago, bere egituran idazlearentzat lekurik gabe geratzen gara.

Horrelako adibideetan, ziurrenera, aurreratutako elementu horren ondoren nolabaiteko geraldiren bat ere egingo da. Gerald hori egiten delarik, ondorengo hau ere ez nintzateke txartzat ematen ausartuko:

(125) *Bibliaren(,) Leizarragaren(,) **Monzonen** itzulpena*

Horrelakoak oso nekez idoroko ditugu, oro har bi genitibodunak ere nekez aurkituko ditugun bezala, baina hori esateko egoera pragmatiko egoki bat aurkituko bagenu, adibidez, euskarazko XVI. edo XVII. mendeko itzulpen baten lehen edizioa esku artean izateko apetak eman dion norbait etorri bazaigu aholku eske, ez dut uste ondorengo hau ere baztertzea litzatekeenik:

(126)

*Bibliaren(,) Leizarragaren(,) **Monzonen** itzulpena* duzu egokiena, edonori uzten diote eta sartzen.

Kontuan izan orain elementu bat ez baina bi izango genituzkeela eserlekurik gabe. Beraz, Eguzkitzaren proposamena (1993) berriro ere hankamotz samar geratzen da horrelakoen berri emateko, eta izenlagun-mota desberdinek eta izenondoek bakoitzak bere kokaleku propio finkoa dutelako ideia orokorki baliogabetzen ez badu ere, konpontzen zailak izango diren zenbait arazo planteatzen ditu.

3.2.2.3. Ondorioak

Horrenbestez, izen sintagmaren barnean isilik uzten dugunari buruz esandakoa honela bil liteke: izenik gabe, ardatzik gabe agertzen diren izen sintagma guztiek -bai juntaturako bai juntaturaz kanpoko- derrigorrezko dute izenen bat ulertzea, beraz, hutsune horri izaera sintaktikoa aitortu behar zaio, eta izaera sintaktiko hori kategoria isilaren bidez adierazten dugu; kategoria isil horrek esanahi-bilketa gramatikaren joko-esparrutik at egingo du, egoeraren ezagutzaren baitan. Arazoa izenaz gain beste zerbait ere falta denean sortzen da: beste zerbait hori zenbaitetan ia nahitaez ulertu behar da (*nire telefono mugikorra eta zurea*), beste batzuetan guztiz hautazkoa da (*nire jertse horia eta zurea*), edo gerta liteke oso nekez ulertzea ere (*nire etxe ederra eta zurea*). Horren berri emateko bide bat esparru zehatz bateko kategoria isil bat proposatzea genuke, baina izenlagunak ere tartean sartzean direlarik, isilunearen osagaitasuna ezin izango litzateke mantendu adarreztatze bitarra eta izenlagunentzako eta izenondoentzako proposatu diren kokaleku finkoak mantenduz. Azken batean izen sintagmaren osaketarako hautazkoak diren elementuei elipsidun adibideetan eman beharreko tratamenduarekin egiten dugu aurre.

3.2.3. Elipsirako baldintzak

Orain artekoan isilean zer gera liteken eta isilunearen ezaugarriak zein diren aztertzen ihardun dugu. Jarraian izenaren elipsirako baldintzak zein diren agertzen saiatuko gara, alegia, isilekoaren zilegiztatze-baldintzak zein diren azaltzen. Lehenik determinatzaileei buruz mintzatuko gara: era honetako egituretan beste hizkuntzetan duten jokaerarekin alderatuz aurkeztuko ditugu. Ondoren izenondoen eta bereziki izenen zer-nolakoari buruz hitz egingo dugu: zenbait hizkuntzalarik aldarrikatu dituzten debekuen arrastorik ez dugu somatuko euskaraz. Azkenik izenaren elipsiaren tratamendu sintaktikorako egin dituzten proposamen nagusiak bilduko ditugu, eta atalean zehar euskararako ikusi ditugun datuak horren baitan kokatuko ditugu.

Izena isilean duten egiturak azaldu ahal izateko baldintza nagusia zera da, determinatzaile-lana egiten duen elementu bat behar dela nahitaez agerian:

- (127) a. *Zure autoa eta nire \emptyset - \emptyset oso azkarrak dira
 b. *Etxe gorri hau eta \emptyset urdin- \emptyset garestiak dira guztiz
 c. *Auto berria eta zahar- \emptyset etxe berean erosiak dira²³⁶

Determinatzailea agerian bada, edozein eratako adibideak ere zuzenak dira:

- (128) a. Auto hau eta hori garestiak dira
 b. Auto zuri hau eta gorri hori dira garestienak
 c. Nire autoa eta zurea dira garestienak
 d. Zenbaitek nahiago luke aukeratzeko askatasunik ez izan
 e. Sei auto saldu ditut eta bat erosi

Salbuespen bakarra, artikulua ez duela bakarrik agertzerik, artikulua morfologikoki euskarriren bati itsatsirik agertzen baita (Hualde 1991, 16-20)²³⁷ :

- (129) *Nire autoa eta \emptyset - \emptyset -a politak dira

Alor honetan hizkuntzatik hizkuntzara desberdintasunak badira²³⁸. Ingeleseztan, esaterako, artikulua eta beste elementuren bat geratzen badira agerian adibide okerrak lortzen dira, baina gaztelerak euskarak bezala jokutzen du:

²³⁶ Gazteleraz ere antzeko baldintza dago artikuluari dagokionez. Martin-ek (1995, 273) ondorengo arrazoi hau aipatzen du: «My claim is that, in cases of deletion of the NP, the article is necessary to license partitive predicates that bind their theta-role on the determiner». Brucart-ek (1987) aldiz kasua hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza modura ikusten zuen.

²³⁷ Gaztelerazko zenbatzaile/artikulu indefinituaren eta artikularen arteko desberdintasun semantikoez eta sintaktikoez autore desberdinek eman dituzten iritziak biltzen ditu Brucart-ek (1987, 244-246): artikulua semantikoki hutsagoa izatea da gehienek nabarmentzen duten ezaugarria, eta hori jartzen du jokaera desberdinaren iturrian. Ingeleseztan ere **a/one* elementuen artean aurkakotasun bera ematen da (Lobeck 1993, 807):

- (i). The candidates came in and each/one/*a sat down

Lobeck-ek [+partitive] ezaugarria ezartzeko gaitasunean jartzen du desberdintasun horren arrazoa:

- (ii). each/one/*a of the men

²³⁸ Determinatzaile kategoriaren barnean bildu ohi diren elementuekin nolako egitura sintaktikoak sortzen diren xeheki aztertu gabe dago euskaraz, eta gainera, ordena-aniztasuna dela eta, ez da oso erraz ikusten gauzak nola konpon litezkeen. Auzi horri buruzko zenbait ohar interesgarri Ortiz de Urbinak (1989, 68-74) eta Goenagak (1991, 857-861) egiten dituzte.

Horrekin oso lotutako gai bat kuantifikazioa adierazten duten elementuena dugu. Hizkuntza askotan kuantifikatzaileetako zenbait determinatzaileak baino gorago daude egitura sintaktikoan, eta

- (130) a. *The big car and the small cost the same
 b. El coche grande y el pequeño

Erakusleen jokaeran ere badira desberdintasunak: ingelesez pluraleko erakusleekin ager daitezke elipsidunak:

- (131) These students of physics and those of linguistics

Baina singularrekoekin arazoak dira; Lobeck-ek (1993, 790) txartzat ematen ditu:

- (132) *A candidate from Seattle came to the party, and only that e talked to Mary

Contreras-ek auzia ez du hain garbi ikusten. Zenbait testuingurutan txarrak iruditzen zaizkio (Contreras 1989, 87):

- (133) *This student of chemistry and that [e] of physics

Beste zenbaitetan ez du arazorik somatzen:

- (134) Of all the books, I prefer that [e] which you recommended

Baina adibide berbera *this*-ekin ez omen da zuzena:

- (135) *Of all the books, I prefer this [e] which you recommended

Ez du desberdintasun horren berri emateko irtenbide argirik: aukera bat izango omen litzateke orotara erakusleek bi izaera desberdin -determinatzaile eta izenordain- dituzten bitartean *this*-ek lehen aukera besterik ez duela proposatzea.

Valmalak (1995, 23) ere hitz egiten du honi buruz, eta esaten du erakusle horiek [+azentudun] (edo [+foku]) ezaugarria dutenean zilegi direla elipsidun adibideak:

- (136) a. I like THIS picture, but I don't like THAT
 b. *I like this picture, but I don't like that

ondorioz, proposatu izan da zenbait kuantifikatzaileekin DetS osoa geratzen dela isilik. Euskararako, ordea, ez dut uste horrelakoen beharrik dagoenik.

Nolanahi ere euskaraz aukera guztiak dira zuzenak²³⁹:

- (137) a. Kimikako ikasle hau eta fisikako hori ongi konpontzen dira
b. Nik liburu hau gustuko dut, baina hori ez

Bestalde, kuantifikatzaileen artean ere izan ohi dira batzuetatik besteetarako desberdintasunak; begira ingelesezko eta gaztelerazko adibide hauei (Contreras 1989, 88):

- (138)
- a. Si bien algunos estudiantes quieren reformas, muchos [e] no las quieren.
b. Although some students want reforms, many [e] don't want them.
c. A propósito de estudiantes, varios [e] quieren verte.
d. Speaking about students, several [e] want to see you.
e. *Aunque no todo político miente, todo [e] es vanidoso.
f. *Although not every politician lies, every [e] is vain.
g. *Si [e] cada tiene una solución diferente, nunca resolveré todos estos problemas.

Euskaraz, ordea, berriro ere guztiak zuzenak dira:

- (139)
- a. Atzo gaztainak erosi nituen, eta guztiak harjoak irten zaizkit.
b. Atzo gaztainak erosi nituen, eta batzuk harjoak irten zaizkit.
c. Atzo gaztainak erosi nituen, eta zenbait harjoak irten zaizkit.
d. Atzo gaztainak erosi nituen, eta asko harjoak irten zaizkit.
e. Atzo bi legatz erosi nituen, eta bakoitzak bi mila pezeta balio zuen.

Hizkuntza desberdinetako adibideak guztiz parekatzerik ez dagoen arren, ohartzen gara euskaraz askoz arazo gutxiago dagoela.

Determinatzaileak ezezik egitura hauetan agertzen den izenondoak ere badu garrantzia: Odriozola eta Canterok (1992, 1042-1044) aipatu zuten nominalizatzeko orduan izenondo batzuetatik besteetara desberdintasuna dagoela; alegia, batzuk erraz

²³⁹ Contreras-en (134) adibidearen ezgramatikaltasunean erakusle hurbila eta erlatibo murriztailea batera joateak izan lezake zerikusia.

nominalizatzen direla oso eta beste batzuek «erresistentzia handia» dutela. Beren adibideetatik ondorengo hauek hautatu ditut:

(140)

- a. Aurreko sailean prozesu endoergonikoak ikusiak baditugu ere, sail honetan exoergonikoak aztertu ditugu
- b. Animalia homeotermoez ez bezala, poikilotermoez ez dute konstante mantentzen beraien gorputz tenperatura
- c. (gizon/emakume) Idazleak, beharbada errealitatekanpo bizi daitezke
- d. (gizon/emakume) Ikerleak, ez du errealitatekanpo bizi behar
- e. (enzima) Hidrosilatzailea, inaktibatutik dago
- f. ? (gauza) Ezaugarria da animalia hauen eskeletoa externa dela
- g. Ezaugarri nagusia, eskeleto externa da
- h. *(ikuspuntu) interesgarria, termodinamikoa da.
- i. *Interesgarri nagusia
- j. (elementu) Osagaia, bigarrena da.

Adibide horien artean nik hemen ukitu nahi ez nukeen auzi bat ere agertzen da: izenondoa, bere izenondo-izaera utziz, zuzen guztiak dituen izen bilakatzen denekoa, eta prozesu horretako baldintza eta maila desberdinak. Horrez gain, guruerako interesgarri gerta litezkeen zenbait datu erakusten dituzte. Adibidez, konturatzen gara zenbat eta urrutia egon izenondoa murriztaile izatetik (140h-i), zenbat eta aukera gutxiago izan izenak sailka banatzeko, orduan eta zailago izango dela izenaren elipsia. Konturatzen gara, halaber, juntadura-egituretan bestela baino errazago dela isilean geratu den izen hori berreskuratzea, eta baita izenondoek murriztaile- edo sailkatzaile-kutsua hartzea ere:

(141) Lan aspergarriak asko izaten dira, eta interesgarriak gutxi.

Determinatzaileei eta izenondoei buruzko debekuez gain, egitura hauetan parte hartzen duten izenei buruzko debekuak ere proposatu dira. Abney-k (1987, 244-247) zioen aditzetiko izenkiek zenbaitetan arazoak dituztela isilean geratzeko. Izenki horrek

"gertaera-irakurketa" (*Fact reading*) duenean gertatzen da hori. Aldiz, "ekintza-irakurketa" (*Act reading*) duenean²⁴⁰, era horretako egiturak zilegi dira:

(142)

a. *Caesar's destruction of his fleet was quite unexpected, but Antony's \emptyset was even more so.

b. Caesar's destruction of his fleet was thorough, but Antony's \emptyset was more so.

Lehenean desegin izanari buruz ari omen gara, gertaera bati buruz; bigarreanean desegiteko erari buruz, ekintza bati buruz. Euskaraz, zail egiten zait era horretako desberdintasunik somatzea²⁴¹:

(143)

a. Berriki egin diren azterketek erakutsi dutenez, Hitler-en judutarren hilketa krudela izan zen, baina Stalin-ena are krudelagoa.

b. Hitler-en judutarren hilketa desegokia izan zen bere erregimeraren iraupenerako, baina Stalin-ena are desegokiagoa.

Baliteke zenbait adibide hauek bortxatu samarrak iruditzea, baina ezohikotasuna era horretako bi izenlagun kateatzeari zor zaio²⁴², ez izenaren beraren ezaugarriei; eta zalantzarik gabe, bi irakurketen artean ez dago desberdintasun nabarmenik.

Neijt-ek (1979, 20) beste iradokizun bat aurkeztu zuen izenei buruz: bere ustez, aditzetiko izenkiak errazago geratzen dira isilik izen arruntak baino:

(144) a. *The doll with blue eyes of John's and with curling hair of Peter's ...

b. The review of John's book by Max, and of John's article by Susan ...

Honako hau ere gaineratzen zuen: «Further study might reveal that Gapping of "nominal" nouns is different from Gapping of "verbal" nouns». Euskaraz nik ez dut horrelako ezer somatu:

(145)

²⁴⁰ Artiagoitiak (1995, 47) ingeleserako ere beizketa hori zalantzan jartzen duten zenbait datu eta aipamen eskaintzen dizkigu.

²⁴¹ Desberdintasun hori esplikatzeke ematen dituen arrazoiak alde batera utziko ditugu.

²⁴² Edo agian beste auzi bati ere bai: zenbaitek uler dezake bigarren juntagaian Hitler-ek Stalin hil izanaz ari gara. Horretaz beranduxeago hitz egingo dugu.

- a. Jonen panpin beltza eta Mirenen zuria elkarren oso antzekoak dira
- b. Jonen *Pulp-fiction* filmearen laburpena eta Mirenen *Reservoir dogs*-ena irakurri ondoren, Tarantino-ren lan guztiak ikustea erabaki dut.

Lehenengo adibideari nik ez diot inolako aitzakiarik ikusten, eta euskaraz ez da somatzen bi izen mota horien arteko desberdintasunik.

Parte hartzen duten izenen ezaugarriei buruzko beste debeku bat Lujan-ek aipatzen du. Lujan-ek esaten du izen [- zenbakarriak] ezin litezkeela juntaduretan isilean geratu (1980, 147):

- (146) a. *Conseguí la sal fina, pero no conseguí la gruesa
- b. *No le gusta tomar la leche desnatada, prefiere la entera

Nik euskararako ez dut horrelako ezer somatzen:

- (147) a. Janari batzuei gatz xehea ematen diet, eta beste batzuei larria
- b. Esne osoa gaingabetua baino askoz gustukuago dut

Ohartzen gara, bada, beste zenbait hizkuntza aztertu dituztenek aipatutako debeku hauek euskaraz ez dutela arazorik sortu. Egia esan debeku horietarako arrazoirik ez da aipatu, eta momentuz ez dut ikusten esplikazioak nondik etor litezkeen.

Elipsirako baldintza hauetan oinarrituz eraiki dira, bestalde, egitura hauei eman beharreko analisi sintaktikoari buruzko proposamenak. LBG (Chomsky 1981) arte ezabaketaren hipotesia zen zabalduena gramatika sortzailean, baina adibide hauek juntadura-egiturez kanpora ere gertatzen dira eta bi alorren arteko erlazio posibleak ez zituzten gehiegi aztertu. LGB-ren ondoren, berriz, proposatu izan da horrelakoetan badela kategoria isil bat, beste kategoria isil guztiak bezala zilegiztaturik egon behar duena. Deskripzioaren aldetik aurrekoek hauek baino ahalegin handiagoa egin zuten: oraingoak bereziki hutsunea agertu ahal izateko beharrezko diren baldintzez arduratzen dira. Era honetako hiru analisiren berri emango dugu hemen: Brucart-ena (1987), Contreras-ena (1989) eta Lobeck-ena (1991a, 1991b, 1993)

Brucart-ek (1987) proposatzen du izen sintagma bateko buru behar lukeen izena falta denean, izen horren lekuan dagoen kategoria hutsa PRO dela; izan ere, Chomsky-ri (1981) jarraituz, izen sintagmaren islapen nagusia gobernurako muga bada, buru isil

horrek gobernatu gabe egon behar du, eta PRO beste aukerarik ez zaigu geratzen²⁴³. Horrela, gainera, bestela esplikatzeko zail samarrak liratekeen zenbait jokaeraren berri eman omen dezake: determinatzailea nahitaezkoa izatea²⁴⁴, interpretazio arbitrarioaren aukera, leku horretan izenordain lexikorik ezin agertu izana.

Auzi hau teoria orokorraren barnean hobeki txertatzeko aukera lehenago IS zirenak DetS modura berrinterpretatzearen aldeko proposamenetik etorri zen. Horretaz baliatuz, proposa liteke gobernatzaile egokiak buruak direla beti. Contreras-ek (1989) ildo horretatik jotzen du, eta gaztelera eta ingelesa aztertzen ditu: determinatzaileek gobernatzaile egoki izateko bete behar dituzten zenbait baldintza aipatzen ditu; kuantifikatzailetzat hartu ohi direnak bi sail desberdinetan banatzen ditu, batzuk KuantS-ren buru direnak -beraz, kategoria isilak goberna ditzaketenak-, eta besteak IS-ren espezifikatzaile lekuan daudenak -gobernatzaile propio izan ez litezkeenak-. Isilunearen (I nahiz I'²⁴⁵) ezaugarriez ere arduratzen da, eta esaten du uztarduraren C baldintza bete behar duela; alegia, [-pronominal] [-anaforiko] dela, NZ hitzen aztarnak bezala.

Lobeck-ek ere baditu ildo honetako zenbait lan (1989, 1991a, 1991b, 1993)²⁴⁶. Ingelesean esanahi-berdintasunean oinarritutako elipsi guztiak (izenaren elipsia, aditz sintagmaren ezabaketa eta sluicing²⁴⁷) era bateratu batean esplikatu nahi ditu: proposatzen du kategoria funtzional baten buruak (DetS, InflS, KonpS) bere osagarria (IS, AS, InflS) ezaugarri jakin batzuen arabera gobernatzeko duen ahalmenagatik gertatzen dela elipsia. Izenaren elipsia deitu dugun honetan ingelesean honelako egitura baten aurrean egongo ginateke:

(148)


²⁴³ Atalaren hondarrean aipatzen du *Barriers*-i (1986) jarraituz buru hori gobernatu egongo litzatekeela. Konpontzeko, Chomsky-ren beraren iradokizun batera jotzen du Brucartek: burua hutsik dagoenean, determinatzailea eta buruaren arteko indizekidetze bat dago, eta horri esker bai kasua bai gobernu determinatzaile pasatzen dira.

²⁴⁴ X-barra teoriaren arabera espezifikatzaileak eta osagarriak hautazkoak dira, beraz, kontuan izanik DetS-rekin ez duela lan egiten, determinatzailearen derrigorrezkotasuna nolabait esplikatu beharra dago. Kasu teoriara eta *Ezabaketen Berreskurapen Printzipio* deitzen duen batera jotzen du horretarako

²⁴⁵ Fukui eta Speas-i (1986) jarraituz I' islapen nagusizat hartzen du. Horrela islapen nagusiak eta buruak bakarrik izan litezke isilak.

²⁴⁶ Valmalak (1995) Lobeck-en 1989ko lanak ingeleseko aditz sintagmaren elipsiaren arloan dituen desegokitasunak agertzen ditu, eta ikuspegi orokor modura ere kritikak egiten dizkio. Beranduagoko lan hauetan 1989koan arrazoitu gabe uzten dituen zenbait puntu arrazoitzen saiatzen da Lobeck, baina orotara bere ikuspegia mantendu egiten du.

²⁴⁷ Hustuketa eta stripping beste era bateko fenomenotzat ditu. Bestalde, garaisukoa izan arren Martin-ek (1995) izenaren elipsia duten egiturak ezabaketa balego bezala tratatzen ditu: islapen nagusien eta buruen ezabaketa bakarrik onartzen du, eta horren arabera egiturak ematen saiatzen da.



Determinatzaile horrek, ordea, ezaugarri jakin batzuk behar ditu: morfologikoki pluraltasuna adieraztea eragin behar du, edo [+Poss] kasua ezarri behar du. Elipsirako bidea ematen duten beste kategoria funtzionalen buruek (Infl, Konp) ere badituzte era honetako ezaugarriak, eta guztiak komunztaduraren definizio zabal baten barnean biltzen ditu (*strong agreement*). Horrela, komunztadura-ezaugarri jakin batzuk dituzten buru funtzionalek gobernuaren bidez beren osagarria isila izateko aukera emango lukete. Osagarri isil horiei *Non-DP pronominal* deitzen die, eta gaztelerazkoa bezalako pro subjektuekin batera biltzen saiatzen da, ardaztat kategoria isila identifikatzeko komunztaduraren zeregina hartuz²⁴⁸.

Isilekoaren interpretazioa gramatikaz kanpo erabakitzen dela ikusi ondoren ezabaketa bidezko hurbilketa alde batera utzi dugularik, analisi sintaktikorako orduan azken lan hauen ildotik jo beharko genuke. Zilegiztatze-baldintzei dagokienez ingelesa eta gaztelerarekiko desberdintasunak aurkitu ditugu: euskaraz ez dirudi inolako determinatzailearen aurkako debekurik dagoenik. Artikulua bakar bakarrik agertu ezin izana euskaraz forma lotua izateari egotzi diogu; gainerako determinatzaileekin zilegi da izenaren elipsia. Contreras-en edo Lobeck-en arabera ingeleseko determinatzaileetako zenbaitekin bakarrik gertatzen zen izenaren elipsia, eta ondorioz gobernatzaile egoki ziren elementuek komunean zer ezaugarri zituzten aurkitzeko arazoa zuten, askotan 'ad hoc' diruditen proposamenetara jotzen dutelarik; euskaraz aurkitu dugun egoerak ez digu horrelako arazorik eragiten, determinatzaile guztiek ematen baitute elipsirako aukera. Izen-motaren arabera ere ez dugu euskaraz inolako debekurik aurkitu, eta berriro ere sinpletasunaren alde dator hori, literaturan zehar aipatu diren eragozpenak, eztabaidatuak izateaz gain, arrazoitzen oso zailak direlako. Bestalde, agertu dugu orain arte arreta handirik erakarri ez duten zenbait puntu ere

²⁴⁸ Lobeck-en ustez era honetako pronominaletan erreferentzia ez baino esanahia berreskuratzen da, eta horretarako berregituraketara jo beharra dago (Lobeck 1993):

«Empty pronominals that are identical in sense, rather than reference, to their antecedents, and are thus interpreted through reconstruction, need only be made "visible" to this process through features of the governing head. For this reason, the governing head of an ellipsis must be specified for strong agreement features that supply a minimal amount of grammatical content of the ellipsis. The content of an empty referential pronominal, on the other hand, which is not recovered through reconstruction, must be associated with strong agreement features if interpretation is to proceed.»

badirela: batetik, elipsiaren interpretazioa gramatikaz kanpoko delarik, egitura sintaktikoan irudikatzeko garaian, elipsidun egituretan izen bat nahitaez interpretatu beharrean gaude, baina kontuan hartu behar dugu beste zenbait elementuren interpretazioa hautazkoa dela; bestetik, gogoan izan behar dugu isilunearen osagaitasuna, adarreztatze bitarra eta izenlagunek eta izenondoek egitura sintaktikoan beren leku propioa finkoa dutelako ideia ezin direla batera mantendu. Gai hauek lan honen esparrua gainditu egiten dute, baina izenaren elipsiaren tratamendu sintaktikoa egiteko unean kontuan izan beharreko puntuak dira²⁴⁹.

²⁴⁹ Determinatzaile Sintagmen egituraz ere datu eta lan berriak izan dira (Valois 1991, Giorgi & Longobardi 1991, Cinque 1993, Bernstein 1993, Martin 1995) eta INFL-ekin gertatu den bezalaxe, izenaren gainean ere proiektzio funtzional ugari proposatu dira. Bestalde, minimalismoaren baitan gobernuaren nozioa alde batera uzteko borondatea dago, eta guk aipatu ditugun lan guztietan nozio hori da ardatza.

3.3. JUNTADURA IZEN SINTAGMAREN ANALISIETAN

3.3.1. Sarrera

Sintagma-juntaduretako elipsiaren alorrean euskaraz gauzak nola gertatzen diren deskribatzen ahalegindu gara orain artean. Juntadura, ordea, izen sintagmen (determinatzailea barne) egitura sintaktikoa nolakoa den erabakitzeke argudio modura ere erabili izan da euskal hizkuntzalaritzan. Atal honetan lehenik bi hurbilketarik nagusienak ikusiko ditugu (Trask 1983; Goenaga 1991). Ondoren izenlagunaren jokoerak sortzen dizkigun gogoetak plazaratuko ditugu, eta hurbilketa biekin sortzen diren arazoen berri emango dugu. Azkenik determinatzailearen elipsia duten adibideei eman beharreko egituraz ihardungo dugu: lehengo ikuspegia berresten duten zenbait datu agertuko ditugu. Ez dugu izen sintagmaren -DetS-ren- egiturari buruzko benetako azterketarik egingo: auzi horrek hemen emango dioguna baino askoz tarte zabalagoa behar du; juntadura erabiliz egin diren aldarrikapenak bakarrik izango ditugu hizpide. Ohartuko gara ohiko hurbilketekin (oinarriko juntadura, kategoria isila, ezabaketa) oso zail dela juntadura duten adibideen analisi bateratu bat proposatzen; hitz eratuak juntatzean sortzen diren elipsietako datuak eman ondoren argiago geratuko da hori.


3.3.2. Bi hurbilketa: Trask (1983) eta Goenaga (1991)

Euskaraz izen sintagmaren egituraz egin diren lanek sarritan jo dute juntadurara: onartu izan dute juntatzen diren elementuak maila eta izaera bereko unitateak direla. Trask (1983, 601), esate baterako, honelako adibide batekin hasten zaigu:

(149) Balio zahar eta asmo berrien bila

Juntatutakoek mota bereko unitate izan behar badute, izenaren eta izenondoaren artean izen sintagma baino txikiagoko atal bat osatu beharko dute. Alegia, ondorengo honen antzeko zerbait:

(150)




Aldarrikatzen da, beraz, izenak eta izenondoak nolabaiteko atal bat osatzen dutela, eta determinatzailea atal horretatik kanpora geratzen dela. Irizpide hori bera erabiliz adibide zailxeagoen berri ematen ere saiatzen da Trask:


(151) Gizonaren etxeak eta abereak

Adibide honek, Trask-en aburuz, bi irakurketa desberdin izan ditzake: batean *abereak eta gizonaren etxeak* esatean ulertzen dugun berdina ulertuko genuke; bestean, arruntenean, «gizonaren etxeak eta gizon berberaren abereak». Bigarren irakurketa honen berri eman ahal izateko izenlaguna izen sintagmaren goreneko adabegitik zintzilik dagoela proposatuko du; goreneko adabegitik, eta adjuntzioaren antzeko eraren batera, IS-ren erregela errekursiboa ematen baitu: $IS \rightarrow izlg + IS$. Horrela bi interpretazioen berri eman dezake:

(152)



Eta...



Honela mintzo zaigu Trask (1983, 603): «Ondorio honetarako gakoa hau da, izenlaguna ez dela izen multzoaren edo determinatzailearen ahizpa, izen sintagmarena baizik». Gainera errekursibotasun horren bidez izenlagun bat baino gehiago dituztenen berri emateko ere arazorik ez dela aldarrikatzen du:

(154) [hizkuntzen [egiazko [ugaritasuna] eta [bestelakotasuna]]]

Goenaga ere (1991) antzeko egiturez eta arazoez ari zaigu. Ohartarazten gaitu Trask-ek ireki duen bide horrek bere arriskuak badituela. Adibidez, ondorengo hau bezalako batean:

(155) balio zaharrak eta berriak

Trask-en azterketa-moldeari jarraiki, izenondoak loturarik estuena izenarekin ez baino determinatzailearekin duela aldarrikatzera iritsi gaitezke, eta hori (149) adibidean esandakoaren aurka joango litzateke, eta orain arte hizkuntzalaritzan proposatu denaren aurka ere bai. Irtenbide modura zera proposatzen du Goenagak: nolabaiteko kategoria isilen bat dagoela hor tartean:

(156) [[balio zahar] ak] eta [[∅ berri] ak]

Geuk ere horixe bera erabili dugu lehenago, nahiz zenbait arazo aipatu ditugun. Izena hutsik duten egitura hauek Trask-enaren moduko analisiak ezinezko diren juntaduretan ere maiz agertzen dira. Hona Goenagaren adibidea:

(157) Peruri sagar gaziak gustatzen zaizkio, neri, berriz, GEZAK²⁵⁰

²⁵⁰ Ez du esaten letra larrien bidez zer adierazi nahi duen, baina pentsa liteke azentu kontrastiboa edo horrelako zerbait dela.

Gauza berbera gertatzen da Trask-ek izenlagunentzat proposatutako egitura sintaktikoarekin ere: izenlagun horrek, zenbait kontestutan, «ardatz elementua ez izan arren, isilpean egon daitekeela ematen du». Adibidez, ondorengo honetan *aitaren bezeroak* uler dezakegula esaten digu Goenagak:

(158) Aitaren adiskideak nik sarrerazi ditut, baina bezeroak, idazkariak.

Horrelakoen berri emateko kategoria isil bat behar bada analisi hori bera *gure liburuak eta diskoak* bezalakoetara hedatzeko aukera ere izango genuke.

Goenagak agertzen du, ordea, Trask-en analisisa zalantzan jartzeko beste arrazoirik. Begira hurrengo honi:

(159) Kristauen balio zahar eta marxisten bide berri guztiak

Juntatzen diren elementuek osagai izan behar badute, *kristauen balio zahar* osagai izango da, eta gainera hierarkian determinatzailea baino beherago egongo da; hori, jakina, gaizki ezkontzen da izenlaguna IS-ri adjuntaturik jartzen duen analisiarekin²⁵¹.

Beraz, izen sintagmaren egitura aztertzeke, edo zehazkiago esateko, izenlagunek izen sintagmetan zer leku duten erabakitzeke juntadura erabili denean, euskarari dagokionez bi proposamen-mota egin direla ikusi dugu: batari *besarkadurarena* deituko diogu, besteari *kategoria isilarena*. Bai analisi batarekin bai bestearekin sortzen diren arazoek berri emango dugu.


3.3.3. Juntadura eta izenlagunak

3.3.3.1. Izenlagun besarkatzailea

Trask-ek bere proposamena egin zuen garaian hizkuntzalari gehienek izenlagunak IS baino beherago kokatzen zituzten. Baina determinatzaile sintagma badela onartuz bere analisisa egokitzeko zenbait bide egon litezke. Lobeck-ek, esaterako, ingeleseko edutezko izenlagunak DetS-ren espezifikatzaile lekuan ezartzen zituen:

²⁵¹ Agian aukera posible bat izango litzateke izenlaguna kokagune desberdinetan egon litekeela onartzea, alegia, batzuetan IS-ri adjuntaturik eta besteetan determinatzailea baino beheragoko lekuren batean (gogoan izan determinatzailea IS-ren azpitik jartzen zuen hipotesiarekin lan egiten zutela). Juntadurako iraurketa desberdinegatik horrelakorik egitea ez zait ordea egokia iruditzen; gainera, juntadurarik gabeko adibide arrunt bat daukagunean ez genuke nondik zintzilikatu jakingo.


(160) John's car




Trask-en egiturak ere era honetara egokitu litezke, eta berriro ere bi irakurketen arteko ambiguitasunaren berri eman ahal izango genuke

(161) Gizonaren etxeak eta abereak

(a)



(b)



Era honetan hizkuntzalariek orokorrean egin dituzten analisisietatik gutxiago aldenduko ginateke. Baina irtenbide honek ere baditu arazoak. Batetik literaturan proposatu izan den izenlagunen arteko egiturazko bereizketa alde batera utzi beharko genuke, guztiek ere jokaera berbera erakusten baitute:

(161)

- a. *Joxeren* autoa eta motorra salgai daudela esan didate (edutezkoa)
- b. *Iparragirre*ren abestiak eta bertsoak aztertu nahi nituzke (subjektua)
- c. *Euskal Herriko* mendiak eta ibaiak nabarmen ari dira txukuntzen (adjuntua)
- d. *Emigranteen* ezagutza eta onarpena elkarri loturik doaz (objektua)

Bestalde kasu edo posposizio desberdinak hierarkian DetS baino gorago daudela proposatzen da; halere izenlagunek jokaera berbera erakusten dute guztietan:

(162)

- a. Herriko gazteak eta zaharrak bildu nahi ditu hautagai horrek
- b. Herriko gazteen eta zaharren botuak nahi ditu hautagai horrek
- c. Herriko gazteei eta zaharrei denetik eskaini die hautagai horrek
- d. Herriko gazteekin eta zaharrekin ditu harremanik onenak hautagai horrek
- e. Herriko gazteengan eta zaharrengan jarri du itzaropena hautagai horrek

Besarkaduraren bideari jarraituko bagenio proposatu beharko genuke hauetan guztietan izenlagunak kasu-sintagma biak hartzen dituela bere azpian, berriro ere lehen Trask-ek proposatu duen adjuntzioren bidez edo. Gainera, iruditzen zait besarkaduraren bideari itsuki jarraituz ondorio bitxiegiatara ailegatzeko arriskua dagoela²⁵². Ikus ondorengo hau:

(163) Obabako mutilen desioak eta nesken ametsak nekez betetzen ziren

Obabako izenlaguna mutilei dagokie, ez desioei; beraz, edozein analisi egiten delarik ere, *mutilen* izenlagunaren menpean joango da, genitiboaren marka baino beherago iherarkian.

(164) [Obabako mutil-det] gen] desioak

²⁵² Bide honen desegokitasunaz Jackendoff-ek ere (1977, 190-194) hitz egiten du.

Alabaina, *gure liburuak eta diskak* adibidean bezalaxe, irakurketetako batean ulertu behar da hor *Obabako nesken ametsak* dagoela; alegia, Trask-en bidea hartuz *Obabako* izenlagunak beste elementu guztiak besarkatu beharko lituzke:

(165) *Obabako* [mutilen desioak eta nesken ametsak]

Baina analisi hori hiztunen intuizioaren aurkakoa da²⁵³. Adibide bitxiagoak ere sor litezke:

(166)

Entzun dut *erregearen alaba Parisen eta semea Estatu Batuetan* ari direla ikasten.

Era honetako adibideei zer analisi eman ez dago argi, baina *erregearen* izenlaguna juntagailuaz eskuinetara ere uler daitezkeenez (*erregearen semea*), besarkaduraren bideari jarraituz *alaba Parisen eta semea Estatu Batuetan* segida guztiaren gainetik dagoela proposatzera irits gaitezke.

Beraz, badirudi besarkaduraren bideari jarraituz lortutako ondorioak askotan badaezpadako samarrak direla, eta ezin gaitezkeela horretan fida egitura sintaktikoa erabakitzeko: literaturan eskuarki proposatu denaren aurka doa; egitura sintaktikoa erabakitzeko beste froga guztiek ez bezalako emaitzak lortzen ditu; juntadura erabiliz aurkako datuak ere lortzen dira; eta hurbilketa-modu hau hedatuz zentzurik gabeko analisisietara ailega gaitezke.

3.3.3.2. Izenlagun isila

Izenlagunari dagokion kategoria isilaren aurkako argudiorik garrantzitsuenetakoa (167) bezalako adibideek dakarte; ezinezkoa da kategoria isilaren bidez horrelakoen berri ematea:

(167)

- a. Herri bereko neskak eta mutilak nekez ezkontzen dira elkarrekin
- b. Elkarri irainka aritu ziren futbolariari eta epaileari gaur ezarriko zaie zigorra

²⁵³ Beste aukera bat Rebuschi-k (1989) atzeranzko hustuketa deitutako adibideentzako proposatu bezala egituran zeharreko mugimendua eta ondorengo adjuntzioa izango litzateke.

Trask-ek eta Goenagak eztabaidatzen zituzten adibideetan, irakurketa batean behinik behin, ondoko hauek baliokideak ziren:

Gure liburuak eta diskak = Gure liburuak eta gure diskak²⁵⁴

Goiko horietan berriz ezinezkoa da horrelako irakurketa bat; (167a) adibidea eta ondorengo hau ez dira baliokide:

(168)

Herri bereko neskak eta herri bereko mutilak nekez ezkontzen dira elkarrekin.

Beraz, badirudi horrelakoentzat bederen ezinezko izango genukeela Goenagak aipatu dituen erako kategoria isilak proposatzea.

Kategoria isilik onartzen ez duten besteak aditz jokatua duten erlatibozko perpausak dira:

(169) a. Nire zakurra eta katua jolasean ari dira.

b. *Nik baserrian daukadan zakurra eta katua jolasean ari dira.

Alegia, lehenean zilegi izan liteke [izlg + I + det] eta [ø + I + det], baina erlatibozko perpausarekin irakurketa hori ezinezkoa da.

Bestalde, ardatz ez diren hautazko elementuentzat sintaxi-egituran kategoria isilak proposatzean sortzen diren arazoak aurkitzen ditugu. Izenlaguna interpretatu edo ez interpretatu hautazkoa da, eta gainera iruditzen zait horretan pertzepzioari edo hurrenkera linealari dagozkion auziek zeresan handia dutela. Lehenago esan dugu ondorengo hau bezalakoak anbiguoak direla:

(170) Gure kotxea eta motorra

²⁵⁴ Horrelakoetan, jakina, beste bide bat lehenengo juntagaia determinanterik gabe ematea da:

(i). Gure liburu eta diskak

(ii). Herri bereko neska eta mutilak

Baina gu aztertzen ari garena hau bezain ohikoa da, baita irakurketa honetan ere. Eta singularrean, arestian aipatu bezala, ohikoagoa.

Irakurketa batean, ulertu beharra dago kotxea eta motorra biak gureak direla; badirudi egitura sintaktikoak behartzen gaituela horretara. Izenlagunari legokiokeen kategoria isilaz hitz egitean era honetako irakurketez dihardugu. Beste irakurketan ordea motorraren jabea nor den ez zaigu axola: gerta liteke motorra ere gurea izatea, ala beste norbaitena izatea, baina hiztunak ez du horri buruz ezer jakinarazi nahi²⁵⁵; horrelakoetan ezin da inolako kategoria isil sintaktikorik proposatu. Anbigutasunaren berri lehen interpretazioa kategoria isilaren bidez azalduz eta bigarrena gabe utziz emango litzateke. Ikuspegi honen alde eta analisi besarkatzailearen aurka egiteko, lehen esan bezala, Goenagak honako adibide hau erabili zuen, esanez *aitaren bezeroak* uler litekeela, eta besarkaduraren bidez ezin dela horren berri eman:

(171) Aitaren adiskideak nik sarrerazi ditut, baina bezeroak, idazkariak.

Dena den, adibide hau (170)-ekin alderatzen badugu, ohartuko gara kategoria hutsa duen interpretazioa askoz errazago lortzen dela lehenean bigarrenean baino:

(170) Gure kotxea eta motorra

(171) Aitaren adiskideak nik sarrerazi ditut, baina ø bezeroak, idazkariak.

Egia da azken honetan ere normalean bezeroak aitarenak direla pentsatuko dugula, baina ez dakit zenbateraino den zilegi kategoria isil sintaktikoa proposatzea. Adibidez perpausaren ordena aldatzen badugu agian ulertuko dugu bezeroak ere aitarenak direla, baina munduaren ezagutzak eraman beharko gaitu interpretazio horretara:

(172) Nik aitaren adiskideak sarrerazi ditut, eta idazkariak, berriz, bezeroak.

Alegia, ondorengo adibide honen pareko izango litzateke:

(173) Bezeroek udan ere ez naute pakean uzten.

Ziurrenera ulertuko dugu bezeroak nireak direla, baina bestela ere izan liteke (*aitaren bezeroak*, *gure bezeroak*), direnarenak direla hiztunari ez baitzaio axola norenak diren. *Gure liburuak eta diskoak* adibidez ari ginela esan dugu horrelako irakurketetan ez

²⁵⁵Adibidez, pentsa dezagun lur azpiko garaje batean bost kotxe eta moto bat daudela. Bost kotxeetatik bat gurea da. Sute bat izan da garaje barnean, eta adierazi nahi dugu motoa -ez axola norena- eta kotxeetatik gurea harrapatu dituela suteak. Orduan, zera esaten dugu:

(i). Gure kotxea eta motoa erre ditu suak.

Beraz, egitura sintaktikoaren aldetik, hau *motoa erre du suak* bezalako baten pareko izango genuke, eta moto hori gurea izatea gertatuko balitz ere ez litzateke ezer aldatuko.

dela kategoria isilik eman behar. Bestalde, bai (171)-n bai (172)-n idazkaria ere izan liteke aitarena, bigarrenean ziurrago lehenengoan baino. Arriskutsua dirudi, beraz, horrelako adibideetarako kategoria isilak proposatzea, eta ez dut uste besarkaduraren aurka eta kategoria isilaren alde egiteko argudio modura oso sendoa denik²⁵⁶.

3.3.3.3. Ondorioak

Ikusi dugu bai besarkaduraren bideak bai kategoria isilarenak arazoak sortzen dituela eta zaila dela datu guztiak batera bilduko dituen esplikaziorik ematen. Hitz-elkarketa aztertzen dugunean ere antzerako arazoak sortuko dira. Azken batean datu hauek guztiak juntaduraren alorrean ditugun bi eztabaida orokorragoren barnean txertatu behar dira: juntagaien osagaitasunari buruzko eztabaidan, eta juntagaien batasunari eta askatasunari buruzko eztabaidan. 5. atalean auzi horiei buruzko ikuspegi osoagoa eskainiko dugu.

3.3.4. Determinatzaileak eta juntadura

(3.1.3.) atalean determinatzailea isilean noiz gera daitekeen aztertzen saiatu gara. Hemen ere gai berera itzuliko gara, baina orain egituraren auziei arreta handiagoa jarritz. Euskal hizkuntzalaritzan ez da eztabaida handirik izan, baina autore gehienek determinatzaile bakarraren azpian elkartzen diren atalen juntaduratzat hartu izan dituzte. Euskaltzaindiak (1994, 38), esaterako, *ardatz anitzetako izen sintagmak* deitzen ditu, nahiz ziurrenera deitura hori eztabaida hau kontuan izan gabe emana den. Trask-ek (1983) izena baino handiagoko atalak erabili ditu (*balio zahar eta asmo berrien bila*), baina hala ere atal horien zuzeneko juntadura proposatu du; berdin egin du Goenagak (1991) *kristauen balio zahar eta marxisten bide berri guztiak* adibidearekin. Alegia, hauetarako ez dute proposatzen ez ezabaketarik ez kategoria hutsik. Guk geuk ere horrelako zerbait aipatu dugu (3.1.3.1.) puntuan, lehenengo juntagaien determinatzaileak ez zuten singularreko adibideetan somatzen genituen zenbait debeku esplikatzeko erarik egokiena izan zitekeelakoan. Ikuspegi horretara eramán gaituzten datu nagusiak berriro gogoratuko ditut²⁵⁷:

²⁵⁶ Auziaren muina ardatza ez den zerbaiti kategoria isil izaera aitortzean datza. Izenlagunentzako horrelakoak proposatu dira literaturan zehar (Williams 1985, 1987), bereziki uztardurari dagozkion zenbait fenomeno esplikatzeko, baina proposamen horiek jarraitzaile gutxi izan dute. Gainera, bazuten hauekiko desberdintasun bat: izenlagun horiek nolabait izenen ezaugarri semantikoek eskatuak izaten ziren.

²⁵⁷ Miller-en lanean (1992) ere ikuspegi hori hobesten dela dirudi.

- Singularreko determinatzailearen azpian junta daitezkeen izenen zer-nolakoa.
- *Edo* juntagailuarekin horrelakoak inolako eragozpenik gabe egiteko aukera.
- Oro har, juntaduretan aditzarekiko singularreko komunztadura bideratzen zuten baldintza berak izatea.
- Determinatzaile biak agerian dituzten adibideek eta bakarra dutenek zenbaitetan esanahi desberdina dute (*larritasuna eta beldur handia/larritasun eta beldur handia*), eta hori errazago ulertzen da oinarriko izenen juntaduraren hipotesiarekin.

Azken honen hariko zerbait gertatzen da izenlagunekin ere:

- (174) a. Gure liburuak eta diskoak
b. Gure liburu eta diskoak

Bigarren adibidean, lehenengoan ez bezala, nahitaez ulertu behar da liburuak eta diskoak, biak, gureak direla. Desberdintasun horren berri emateko era bat biek egitura sintaktiko desberdina dutela proposatzea izango litzateke: hau da, bigarren adibidean izenak juntatzen direla, determinatzaileari dagokion kategoria hutsik edo antzekorik ez dagoela, eta horrela esplikatzen dela izenlaguna derrigorrez bi izenei buruzkoa izatea²⁵⁸.

Zuzeneko juntadura horren aldekotzat har daitezkeen beste datu batzuk ere baditugu, berriro ere singularraren eta pluralaren arteko desberdintasunei lotuak. Begira ondorengo adibide hauei:

- (175) a. Erropa hori eta gorriek bihotzaren taupadak bizkortzen dituzte.
b. *Jertse hori eta gorria oso gustuko ditut.

Lehenengo adibidea bi eratarira irakur daiteke: erropak aldi berean gorriak eta horiak dira, edo erropa desberdinak dira, batzuk gorriak eta besteak horiak. Bigarren interpretazio honetarako ohikoena determinatzailea bi aldiz agertzea da, baina honela ere zilegi dugu²⁵⁹. Bigarren adibidea berriz, jertse bata horia dela eta bestea gorria dela

²⁵⁸ Esplikazio hau ere ez da arazorik gabea. Pentsa dezagun izenlagunak eta izenak, edo izenak eta izenondoak, X izeneko atal bat osatzen dutela, izena baino handiagoa, eta determinatzailea bere baitan hartzen ez duena. Izenlagunik edo izenondorik ez dagoenean ere pentsa liteke izenak maila horretako islapena izango duela. Beraz, teoriarik bederen ez genuke behar [[X] eta [X] ak] bezalako bat agertzeko oztoporik; hots, [[gure liburu] eta [disko] ak], diskoak norenak diren axola ez zaigularik. Praktikan, ordea, esan dugu irakurketa hori ez dela zilegi.

²⁵⁹ Hona tradizioko adibide bat:

- Jakin eragin biarko jako, zelan bere soldau **zar ta barriak** ez dirian aspertu, ez aseten, ez dirubak artubaz, ez etxeetara juateko aukeria emonaz. (JA Mogel, *Peru Abarca*, 209)

Adibide gehiagorako, begira Euskaltzaindia (1994, 60-61). Bestalde, lan horretan bertan esaten da bi izenondoak izen berari buruzkoak direnean, erreferente multzo berari dagozkionean, joera nagusia bi izenondo horiek zuzenean juntatzea dela, esan nahi baita, lehenengoari inolako mugatzaile-markarik eransten ez diogularik. Adibide hauek ematen dituzte, lehena ohikoagoa dela esanez:

- (i). Bulego argi eta lasaiak nahi dituzte guztiek
- (ii). Bulego argiak eta lasaiak nahi dituzte guztiek

Adibide honetan, eta bereziki guk Mogelenetik bildu duguna bezalako adibideetan ziurrenera hala izango da, baina orotara nik ez dut ikusten aukera hain garbirik. Begira diezaiegun ondorengo hauei:

- (iii). Soldadu zaharrak eta nekatuak zituen Erromak
- (iv). Jokalari trebeak eta bizkorak ditu errealak
- (v). Mutil indartsuak eta gogorak izaten dira arraunlariak

Badirudi bi izenondoak elkarren oso gertukoak direnean, edo izenaren eta izenondoaren zer-nolakoarengatik edo munduaren ezagutzagatik biak erreferente-multzo berari egotziak izateko aukera handia dagoenean mugatzaile-markarekin agertzea bestea bezain arrunta edo arruntagoa dela. Aldiz, goiko adibideetan bezala (*erropa hori eta gorriak*), izenondoek bateratzen zailagoak diren kualitateak adierazten dituztenean, edo gutxienik bi erreferente-multzo eragiteko aukera handiagoa dutenean, irakurketa hori garbiago ekiditeko edo, inolako mugatzaile-markarik gabe azaldu ohi dira. Ziurrenera ildo honetan interpretatu behar da atributo modura doazen izenondoentzat aukerarik arruntena (vi) eta (viii)-koa izatea:

- (vi). Anibal-en soldaduak zaharrak eta nekatuak ziren
- (vii). Anibal-en soldaduak zahar eta nekatuak ziren
- (viii). Gure bulegoak argiak eta lasaiak dira
- (ix). Gure bulegoak argi eta lasaiak dira

Bestalde, izenondoak konparatibo edo superlatibo graduaren marka daramanean ere, nahiz graduatutakoak murriztaile modura jokatzeko joera izan (Luján, 1980) nire ustez ohikoagoa da mugatzaile eta guzti agertzea:

- (x). Bulegorik argien eta lasaienak hautatu ditugu
- (xi). Bulegorik argienak eta lasaienak hautatu ditugu
- (xii). Etxe merkeago eta argiagoak nahi ditu gazte jendeak
- (xiii). Etxe merkeagoak eta argiagoak nahi ditu gazte jendeak

Nahiz lehena bezalakoak ere badiren tradizioan:

- Eta lotsatzen ez aiz hi eta hire lagun oraitzar horiek, lan txarra deitzea lanik *gaitzen eta latzenari?* (Larramendi, *Corografía*, 299)
- Ezta naikoa, alperreri ta nagitasunagaitik izkuntzarik *zarren da maitegarriena* ez ikastea (...). (Txomin Agirre, *Kresala*, 96)

Baina badirudi hauetan hitzuna ohartzen dela izenondoari nolabaiteko eranskinen bat gehitu diogula, eta kasuarekin gertatzen zen bezala, 'ondarkia' bitan zatitzea ez duela oso gustuko. Beraz, arruntenak forma osoak, edo bestela lehenengo izenondoa inolako gradu-markarik gabe dutenak:

- (xiv). Bulegorik argi eta lasaienak
- (xv). Bulegorik argienak eta lasaienak
- (xvi). Eztago bera baño *itxusi ta ezañagorik* bere arpegi ta korputzian. (JA Mogel, *Peru abarca*, 178)

adierazi nahi duena, niri ez zait zuzena iruditzen. Zuzena izango litzateke ondorengo era honetara:

(176) Jertse hori eta gorria oso gustuko dut.

Baina hor jertse bakarraz ari gara; bi jertse direla adierazteko nahitaez determinatzailea errepikaturik eman beharra dago:

(177) Jertse horia eta gorria oso gustuko ditut.

Esplikatzeko irtenbiderik erosoena singularreko determinatzaile bakarraren azpian bi izen juntatzeko eragozpenarekin lotzea izango litzateke. Beraz, badirudi numeroa dagoela berriro ere tartean. Dena den, bestelako adibideak ere aurkitu ditugu tradizioan:

(178)

- Itxasoa goi goian egoan, eguzki beroa ur bizi kizkurtuaren gañean diz-dizka, ibai zabalaren ertz bietan gizate soka lodi trinkoa, *zubi zar da barria* gizon da emakumez beterik, txalopetan mutill koskorrak eundaka, (...) (D. Agirre, *Kresala*, 54)

Agirrereren adibide hau guk desegokitzen eman ditugunen erakoa da: hor ulertu behar da bi zubi direla, bata zaharra eta bestea berria. Beraz, behin gehiago arlo honetan gramatikalariek esandakoaren aurkako adibideak agertzen zaizkigu, guk lehen proposatu dugun numeroaren baldintza hori bortxatzea oso larria ere ez dela erakutsiz.

Auzi bertsua daukagu juntagailuaren bi aldeetara bi izenondo, inolako izenik gabeak, dauzkagunean ere. Horrelakoetan, lehenago ikusi bezala, ardatza den izena testuinguruaren edo munduaren ezagutzaren bidez jakiten dugu. Bada, hauetan ere singularreko determinatzailearen azpian erreferentzia desberdineko bi atal biltzea niri ez zait oso egokia iruditzen:

(179) * Jertse asko dauzkat armairuan, baina nik gorri eta horia ditut gustukoen

Baina berriro ere aurkitu ditut era horretako adibideak:

(180)

a. - Iangoikua, zu zirade egiazko iujia; zure gortean bardin dira *handi eta xipia*; norkbait ere egin deraut malizia handia; haier hura, othoi, barkha; niri balia egia. (Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 235)

b. - *Pranzas ta kiputza*, zer dinozu zubek? (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 174)

Pluralerako, lehenago bezalaxe, bi interpretazioak izango dira ziurrenera zilegi; bai erreferentzia bakarrekoak:

(181)

- Udazkeneko aize zakarrak zugaitz-ostoak, *ori ta igarrak*, lurreratzen dituenean, naigabe baten arantz zorrotza, beazunezko tanto mingotza nabaitzen det biotzean. (*Euskal jokoak bertsotan, I*)

bai erreferentzia desberdinekoak:

(182)

a. - Eskarnioz hari dire esker eta eskuin, *hori eta gorriak, beltxaran eta nabarrak* (JM Hiribarren, *Eskaraz egia*, 148)

b. - Arik etorriko da *bizi ta illai* epaija emotera. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 162)

c. - Alan, askotan guzti guztiak, *zar ta gaztiak* betete dira pekatuz. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 131)

Hauetan ere ohikoena bi ondarkiak agerian izatea izango litzatekeen arren singularrekoak baino dexentez hobeak iruditzen zaizkit niri. Horrelako datuak kontuan izanik proposatu dugu, hain zuzen ere, egitura sintaktikoan determinatzaile bakarra dagoela, ez dagoela determinatzailearen kategoria hutsik edo ezabaketarik, bestela singularrekoen eta pluralekoen arteko desberdintasuna esplikatzea ezinezko gertatuko litzaiguke eta²⁶⁰. Beraz:

$$\left[\left[\text{[IS]} \text{ eta } \text{[IS]} \text{ Det} \right]_{\text{DetS}} \right]$$

²⁶⁰ Izenlagunekin ere badugu aukera bera: bi izenlagun, erreferente desberdinei edo erreferente berari dagozkienak, determinatzailea bigarrenak bakarrik daramalarik. Baina ene iduriz euskal hiztunak ez ditu gogoko era honetako adibideak, ez singularrekoak ez pluralekoak:

- (i). Ikasgelako haurren artean, zure eta gurea dira onenak kirolan
- (ii). Gizakion bizia zakurren eta katuena baino luzeagoa da
- (iii). Munduan herri polit asko dira, baina nire eta zuena bezain politik ez
- (iv). Auzoko haurren artean, zuen eta gureak dira euskaraz gehien mintzatzen direnak
- (v). Gizakion begiak arranoen eta beleenak baino txarragoak dira
- (vi). Ohitura eta usadio asko iker daitezke, baina nire eta zuenak ikertzeko eman didate diru-laguntza

Horrela, ondorengo hauek bezalakoak bitxi samarrak egiten zaizkit niri:

Ba naski, eskuararen bizia, osasuna, iraupena, *frantsesaren eta bertze askorena* bezala, Jainkoaren eskuetan dire, ba eta gure eskuetan ere; ez geroko bakarrik; orai beretik (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 220)

Eta giltzarria, bi buruek determinatzailearekiko nolabaiteko komuntadura dutela.

3.4. ONDORIOAK

Perpaus-juntaduretan bezalaxe sintagma-juntaduretan ere sarritan berdinak izango liratekeen elementuak ez ditugu errepikatzen. Euskal hizkuntzalaritzan gai honi buruzko zenbait lan eta aipamen baziren, baina askotan iritzi kontrajarriak agertzen zituzten eta gaiaren osoko ikuspegirik edo jokaeren arrazoirik ez zuten ematen. Gure azterketa aurrera eraman ahal izateko euskal tradizioko corpus zabal baten laguntza izan dugu; halere, bai hitzunen eta bai autoreen artean onargarritasun-iritzi desberdinak aurkitu ditugu. 3.1.2. atalean (bereziki 3.1.2.8.), kasu marka beraren azpian bi DtsS jartzeari dagokionez, egoera konplexua aurkitu dugu, eta aldarrikatu dugu egoera hori hobeto ulertzen dela kasu-marka bakarraren azpian bi DetS juntatzeko arazo orokorrik ez dagoela proposatuz. Beraz, ondorengo hau zilegi litzateke:

$$\left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \emptyset \right]_{\text{KS}} \text{ eta } \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}} // \left[\left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{ eta } \left[\left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}} \text{K} \right]_{\text{KS}}$$

Bete beharreko zenbait baldintza badira: nagusia, *Juntaduretako Elipsirako Baldintza* Morfonologikoa deitu duguna; horren alboan hitzun desberdinengan indar desberdina duten bi joera aipatu ditugu, *Ondarkia ez Banatzeko Joera* eta *Atzizki Arinak Errepikatzekeko Joera*. Sintaktikoki oinarriko juntaduraren bidez, ezabaketaren bidez edo kategoria isilaren bidez esplikatu behar ditugun erabakitzeko argudiorik ez dugu aurkitu. Determinatzaile bakarraren azpian bi IS biltzeari dagokionez ere erakutsi dugu gramatikak ez duela orokorrean aukera horren aurkako eragozpenik:

$$\left[\left[\text{IS} \right] \text{ eta } \left[\text{IS} \right] \text{Det} \right]_{\text{DetS}}$$

Juntagailuaren bidez DetS baino txikiagoko islapenak elkartzeko ere aukera osoa dugu. Zenbait adibide okerrak suertatzen dira, eta horien berri emateko *Numeroaren Baldintza* deitu dugunera jo dugu. Baldintza horri salbuespenak erraz aurkitzen zaizkio, baina horrelako bat gabe egoeraren berri ematea zailagoa da. Baldintza horri laguntzeko *Elementu Aske Pisuak ez Errepikatzekeko Joera* deitu dugunaren beharra aldarrikatu dugu, bestela ulertzen zailak ziren zenbait datu esplikatzeko. Tratamendu sintaktikoari dagokionez egokiena oinarritiko juntadura izango litzatekeela aipatu dugu; alor honetan

hala delarik, pentsa liteke kasu-markarenerako ere hipotesirik errazena berau izan litekeela, biak batera bildu ahal izateko.

Auzi desberdina izenaren (eta inguruko beste zenbait elementuren) elipsiarena da. Baliabide hau juntaduratik kanpora ere agertzen da, eta gure ustez egokiena juntadurakoa baliabide orokor horren barnean biltzea da: azken batean, juntaduran elementuak ez errepikatzeagatik hizkuntzak gure esku jartzen duen baliabide orokor batera jo besterik ez genuke egingo. Isilune horren interpretaziorako zenbaitetan gramatikatik kanpora joan behar izaten denez, tratamendu sintaktikoaren aldetik egokiena oinarritiko kategoria isila proposatzea dela esan dugu. Elementu isil hori zilegi izan dadin zer baldintza bete behar dituen agertu dugu, eta isilekoaren osagaitasuna eta beste zenbait printzipio mantentzen saiatzen garenean sortzen diren arazoak azaleratu ditugu.

Azken puntua euskal hizkuntzalaritzan izen sintagma deitu izan denaren egitura erabakitzekeo juntadura nola erabili den eta nola erabil litekeen aztertzeari eskaini diogu. Bi analisi-ildo desberdin somatu ditugu: besarkadurarena eta kategoria isilarena, eta bakoitzaren alde onak eta arazoak aurkezten saiatu gara. (5.) atalean ihardungo dugu gai honi buruz.

4. HITZ ERATUEN JUNTADURA ETA ELIPSIA

4.0. SARRERA

Lan honen hasieran esan dugu juntaduraren bidez perpausak, perpaus-atalak nahiz hitzak elkar daitezkeela. Orain artekoan lehenengo biez ihardun dugu: perpaus-mailako eta sintagma-mailako juntaduretako elipsiak izan ditugu hizpide. Hemendik aurrera azken sailari ekingo diogu: hitz-juntaduretan gerta daitezkeen elipsien azterketari. Edo zehatzago esan, *hitz eratuak*²⁶¹ juntatzean gertatzen diren elipsiei.

Hitz-eraketarako bi baliabide nagusi dira: elkarketa eta eratorpena. Mota horretako hitzak juntatzeko ez dugu inolako oztoporik:

- (1) a. Erroskila saltzaileak eta barazki saltzaileak
b. Barne Saila eta Justizia Saila
- (2) a. Seigarren eta zazpigarren
b. Saltoka eta oihuka

Horrelako hitzek, goraxeago esan dugun bezala, osagai desberdinak dituzte: lehenengo bikotean bi hitzek hartzen dute parte beste hitz bat sortzeko; bigarrenean, hitz batek eta atzizki batek. Zenbaitetan gerta liteke, ordea, hitzaren osagai nagusi bakarrarekin menpeko bi osagai agertzea, edo eratorpen-atzizki bakarrarekin bi hitz juntatzea:

- (3) a. Erroskila eta barazki saltzaileak
b. Barne eta Justizia Sailak

²⁶¹ *Hitz eratu* terminoa Azkaraterenetik (1990, 117) hartu dut, deitura hori erabiltzen baitu berak hitz elkartuak eta eratorriak biltzeko.

- (4) a. Sei eta zazpigarren
b. Salto eta oihuka

Hitz eraketari buruzko atal hau lau azpiataletan banatuko dugu. Lehenengoan, labur baino laburrago, gramatika sortzailearen barruan gai honi buruz izandako zenbait eztabaida ekarriko ditugu gogora; ez gaia osoki harturik, gurerako garrantzia izan lezaketenak bakarrik²⁶². Bigarrenean deskripzio-lanari helduko diogu, eta juntatutako hitz elkartuetan ager litezkeen elipsiei buruz ihardungo dugu: noiz eta nola gertatzen diren, zer baldintza eta debeku dituzten. Hirugarrenean hitz eratorriekin gauza bera egiten saiatuko gara. Laugarrenean, datu horiek guztiak kontuan izanik, fenomenoari buruzko zenbait gogoeta plazaratuko ditugu, bai juntaturako elipsiei buruzkoak bai osagai morfologikoari eta honek fonologiarekin eta sintaxiarekin izan ditzakeen harremanei buruzkoak; izan ere Hipotesi Lexikalistak dio hitz-eraketa lexikoian egiten dela, sintaxiko erregelen irispidetik landa²⁶³, baina kasu hauek lehen begiradan behintzat ez datoz bat aldarrikapen horrekin.

²⁶² Hitz-eraketaren barnean, ingurune sintaktiko berezi batean (juntadura), zenbait elementu ez dira fonologikoki gauzitzen. Hortaz, hitz-eraketa gramatikaren barnean nola tratatu den, gramatikako beste osagaien artean (sintaxia, fonologia, forma logikoa) zer leku eman zaion, beste horiekiko harremanei buruz zer esan den, etab. aipatuko dugu bereziki. Horrenbestez, gain-begirada honetatik kanpoan geratuko dira berez interesgarriak diren hainbat eta hainbat gai: hitzaren definizioari buruzkoak; hitz-eratuaren barne-egiturari buruzkoak; aditzetikako izenen argumentu-egiturari buruzko hainbat xehetasun, etab. Eta morfologia sortzailea deitu izan zaionak gutxiago ukitu dituenen artean, alde batera utzi ditugu, halaber, alomorfiari buruzkoak, morfemen eta morfema-mota bakoitzak adierazi ohi dituen esanahiei buruzkoak, emankortasunari eta lexikoiko indar paradigmaticoei buruzkoak, hizkuntzaren alderdi desberdinetako 'naturaltasun-eskakizunen' ondorioei begiraturaz aztertu diren auziei buruzkoak, etab.

²⁶³ Chomsky-ren lanaren ondoren (1970) ideia hori autore askok eta era askotara azaldu dute. Adibidez, Lapointe-k (1979, 22) *Generalized Lexical Hypothesis* proposatu zuen: «syntactic rules are not allowed to refer to, and hence cannot directly modify, the internal morphological structure of words». Ildo bertsuan, Selkirk-ek (1982, 70) *Word Structure Autonomy Condition* deitutakoa era honetara formulatu zuen: "No deletion or movement transformation may involve categories of both W[ord]-structure and S[yntactic]-structure».

4.1. HITZ-ERAKETA GRAMATIKA SORTZAILEAN

4.1.1. Transformazioak

Gramatika sortzailearen lehen urteetan ez da morfologiari buruzko gogoeta handiegirik somatzen. *Syntactic Structures*-eko (Chomsky, 1957) modeluan ez zen lexikoi beregain batentzako lekurik egiten, eta elementu lexikoak zuzenean sartzen ziren deribazioan; lexiko beregainik ez bazegoen, are gutxiago osagai morfologikorik: hitz-elkarketa eta eratorpena transformazioen bidez esplikatzeko ziren.

Azterketa-bide horren abiaburuan Lees-en lana (1960) jarri ohi da. Goraxeago esan bezala, transformazioen bidez sortzen dira hitz elkartuak eta eratorriak. Hurbilketa horren bitartez, ondorengo puntu hauei guztiei esplikazio egokia eman uste zioten:

- Hitzunak hitz berriak sortzeko duen ahalmen mugagabearen berri eman zitekeen.
- Hitz eratu baten barneko osagaien arteko erlazioek eta perpausetan sintagma desberdinek dituzten erlazioek duten parekotasun nabarmenaren berri ematen zen.
- Gerta liteke osagai berdinak dituzten hitzek esanahi desberdina izatea, eta transformazioetara joz erraz ematen da anbiguotasun horren berri: perpaus desberdinen transformazio izatetik letorke esanahi-desberdintasun hori. Gainera, sintaxiko beste egitura anbiguoekin ere gauza bera egiten zen.

Lees-en lanari gerora kritika eta aldaketa asko egin zitzaizkion, bereziki Chomsky-k *Aspects*-en (1965)²⁶⁴ transformazioen boterea murriztu beharraz hitz egin zuenetik. Horiek guztiak eta beste zenbait irtenbide posible egoki biltzen ditu Azkaratek (1990, 87-112).

²⁶⁴ Lexikoia agertzen da, baina oraindik transformazioen bidez jokatzeko da.

4.1.2. Osagai morfologikoa

Lehen urte horien ondoren hitz-eraketaren berri eman nahi zuten lanak apurka apurka transformazioetatik eta sintaxitik urrunduz joan ziren: gero eta huts nabarmenagoak aurkitzen zitzaizkion Lees-en ikuspegiari, eta gero eta arazo handiagoak zeuden transformazioen boterearen inguruan. Eragin erabakiorra izan zuen berriro ere Chomsky-k (1970), ingelesez aditz-izenak sortzen zituen transformazio-erregela aztertzean, ondorengo hauek esan baitzituen ordurarteko hurbilketaren aurka:

- Transformazio hori ez zen guztiz produktiboa.
- Eratorritako aditz-izen askok eta beraien "iturriak" ez zuten esanahi guztiz berdina.
- Sintaxiaren aldetiko desberdintasunak ere baziren: barne-egitura desberdinak zituzten zenbaitetan iturriak eta transformazio bidez eratutako hitz berriak.

Chomsky-ren lanak hitz-eraketari lexikoiaren barnean heldu ahal izateko aukera zabaltzen du, eta bide horretatik jotzen dute gehienek²⁶⁵. Saio asko egin ziren hitz-eraketari buruzkoak lexikoiaren barnean moldatu nahian (Halle 1973; Jackendoff 1975; Aronoff 1976, Roeper eta Siegel 1978; Williams 1981; Selkirk 1982; Lieber 1983)²⁶⁶. Hitz-eraketaren (elkarketaren eta eratorpenaren) berri emateko lexikoaren barnean errenditu behar dugula aldarrikatzen duen hipotesi honi Hipotesi Lexikalista deitu izan zaio²⁶⁷. Garai honetako eztabaidak eta proposamenak erakustea tesi honen lan-eremutik kanpo geratzen da, eta guri gertuenetik dagozkigun gaiak aipatzera mugatuko gara.

Urte hauetan, beraz, osagai morfologikoa zer zen, zer printzipio zituen eta hitz-eraketari buruzkoak nola moldatzen ziren erabakitzen saiatu ziren. Argitu beharreko auzi bat zera zen, morfologiak sintaxiarekin eta fonologiarekin zer harreman zituen:

²⁶⁵ Salbuespenik aipagarriena *Semantika Sortzailea* (Generative Semantics) deitutako korrontekoak dira. Hauek oraindik transformazioei eusten diete, baina era desberdinean: predikatu abstraktuak (semantikoak) proposatzen dituzte, hizkuntza guztietarako balio izango luketenak, eta horiek erabiliz lortu ahal izango da munduko hizkuntza guztien hiztegia. Adibidez, *kill* aditza *cause[become[not[alive]]]* bezalako predikatuetatik eratorriko dute.

²⁶⁶ Garai honetako eztabaidei eta proposamei buruzko liburu argi-atsegin bat, Scalise-rena (1987). Baita Spencer-ena (1991), eta, maila apalago batean, Varela-rena ere (1990).

²⁶⁷ Bada honen birako beste ikuspegi bat ere, *Hipotesi Lexikalista Azkarra* (Strong Lexicalist Hypothesis) deitua: honen arabera, elkarketa eta eratorpena ezezik, morfologia flexiboa ere lexikoiaren barnekoa da. Azken ikuspegi honen aldekoetan bi jarrera desberdin nabarmentzen dira: batzuek eratorpena eta morfologia flexiboa batera bil daitezkeela uste dute; beste batzuk bereiz ematearen aldeko dira.

- Hitz-elkarketan eta eratorpenean aldaketa fonologikoak gertatu ohi dira; badirudi, beraz, fonologiak baduela morfologiaren barnera nolabaiteko sarpidea. Horrelako auziak daude fonologia lexikoaren oinarrian (Kiparsky 1982; Mohanan 1986): lehen erregela fonologikoak morfologiaren ondoren, morfologiatik bereiz aplikatzen zirela aldarrikatzen zen; orain morfologiako eta fonologiako erregelek txandaka egin ahal izango dute lana lexikoaren barnean, batak sortutako emaitzei besteak ezar dakizkiekeelarik. Horrela, morfologiaren barnean mailakatze bat egingo da, proposatuko da hitz eraketan parte hartzen duen unitate bakoitzak muga-mota desberdinak jartzen dituela fonologiarako, eta erregela fonologiko bakoitza berari dagozkion ingurune morfologikoetan bakarrik aplikatzen dela.

- Transformazioak alde batera utzi eta hitz-eraketa sintaxitik bereizi arren, hitz eratuetan idoro ditugun hainbat eta hainbat ezaugarri antz handia dute sintaxiko ezaugarriekin, eta era batera edo bestera horren berri eman beharra dago: hitz-eratuaren egitura hierarkikoa, subkategorizazioari buruzko auziak, etab.

Hitz-eraketa osagai asketzat hartze hori gramatika modulo desberdinez osatua dagoela aldarrikatzen duen ikuspegiarekin oso txukun ezkontzen da, eta urte horietan dextenteko arrakasta izan zuen. Baina, goraxeago aipatu ditugun auzi horien berri egokiago eman ahal izateko, hitzak sortzeko prozesu horretan beste zenbait osagaien eragina azpimarratzearen aldeko ahots ugari agertu dira azken hamarkada honetan. Horietako zenbait aipatuko ditugu hurrengo atalean.

4.1.3. Hitz-eraketa sintaxian, FF-n eta FL-n

Hipotesi lexikalistak osagai morfologikoa kutxa itxi baten antzera begiesten du, eta hitz-eraketako operazio guztiak ondo itxitako kutxa horren barnean gertatzen direla aldarrikatzen, kanpoko beste guztiarekiko inolako harremanik gabe. Laster agertu ziren, ordea, ikuspegi horren aurkako ahotsak: sintaxiarekiko eta fonologiarekiko guztizko isolamendu hori desegokitzat jotzen zutenetik hasi eta inolako mugarik ez dagoela diotenetara. Sintaxiaren eta fonologiaren esku-hartze horren ondorioak jarraian datozen puntu hauetan somatu izan dira: aditz-izena buru duten hitz elkartuak, guztiz produktiboak izanik sintaxiaren eta morfologiaren arteko muga daudenak (erlazio tematikoak, e.a.); batzuetan hitzek bezala eta beste batzuetan hizkiek bezala jokatzen duten klitikoak; egitura morfologikoaren eta fonologikoaren aldetik desberdinak diren zenbait hitz (*bracketing paradoxes* deiturapean aztertuak); mugagabeki produktiboak diren zenbait hitz (*law degree language requirement change decision*), lexikoian inolaz

ere gorderik egon ezin daitezkeenak eta hitzaren goeneneko mugaz itaunarazten digutenak²⁶⁸ ; etab.

Lehendik zetozen arazo horiei Baker-en lana (1988) gehitu behar zaie: alde batetik proposatu zuen bazela buruz-buruko mugimendu bat, syntaxian gertatzen zena, eta zenbait hizkuntzatan mugimendu horren bidez hitzak sor zitezkeela; bestetik morfologia eta sintaxiaren arteko lotura erakusten duten zenbait printzipio proposatu zituen²⁶⁹ (Ispiluaren Printzipioa, Errol Thematikoen Ezarketaren Uniformitatea²⁷⁰). Baliabide horietaz profitatuz lan ugari egin da, baita euskal hizkuntzalaritzaren arloan ere: aditzaren inguruko auzietan ikuspegi eta aukera berriak ekarri zituen buruz-buruko mugimenduak (Ortiz de Urbina 1989, eta bereziki Laka 1988)²⁷¹; aditz erazleak horrela sortzeko proposamenak ere egin dira (Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia 1989); eta azkenik, Ormazabalek (1992) burutzat aditz-izena duten izen elkartuak buruz buruko mugimenduaren bidez sor daitezkeela esan du.

Beraz, Baker-ek proposatutako buruz-buruko mugimendu horren bidez, syntaxian, SE-tik AE-rako bidean hitzak eratzeko aukerari bidea ematen zitzaion. Baina, zenbaiten ustez, hitz-eratuaren alor horretan garrantzia izan dezaketen beste zenbait maila ere badira: Pesetsky-k (1985) dio hitz eratuaren zenbait baldintza AE-n begiratzen direla, eta beste batzuk FL-n; Sproat-ek (1988) eta Marantz-ek (1988) AE eta FF-n errepresentazio desberdinak izan ditzaketen hitz eratuez hitz egiten dute²⁷², eta gerta liteke AE-ko errepresentazio batek FF-ko azaleratze bat baino gehiago izatea, eta alderantziz²⁷³. Laburtzeko, esan daiteke, lan hauetako asko eta askotan hitzak eta perpausak urratsik urrats osatuz joaten zen deribazio haren ideia baztertuz joan direla, eta horren orde errepresentazio-maila desberdinen ikuspegia zabaldu dela.

²⁶⁸ Horrelakoek hitz modura analizatuko bagenitu, eta lexikoiko zerrendetan sartzen hasiko bagina, hitzen zerrenda horiek mugagabeak izango lirakeke. Kontuan izan behar da, dena den, euskara ez dela hitz elkartu luzeen zale, eta behin baino gehiagotan aipatu izan da bi osagai baino gehiago dituztenak oso nekez azaltzen direla.

²⁶⁹ Nahiz beste bide batetik abiatuta, Borer-ek ere erlazio estu horren berri ematen digu, eta hitz-eraketa maila batean baino gehiagotan egin daitekeela proposatzen du. Sintaxiarekiko erlazio estu hori azpimarratu dute, nahiz era desberdinez, Fabb-ek (1984), Sproat-ek (1985) eta Roeper-ek (1988), burutzat aditzetik eratorritako izenak dituzten hitz elkartuek beren argumentu-egitura asetzeko orduan erakusten duten jokabidea aztertu ondoren.

²⁷⁰ Ingeleseaz *Uniformity of Theta-role Assignment Hypothesis* (UTAH) izena eman zaio. Euskarazko izena Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiari (1989, 91) mailegatu diot.

²⁷¹ Aditzeko marken eta syntaxiko hitzordenaren arteko erlazioa lehenago ere aipatu izan da euskal hizkuntzalaritzaren eremuan (Trask, 1977), nahiz arrazoia emateko baliabide teorikorik ez zegoen.

²⁷² Proposamen horiek erraz zitzakeen ikuspegi berri batez: «But a radical innovation in recent years has been the idea that, at syntactic levels of representation (D- and S- structure), constituents (including terminal elements) are not linearly ordered. (...). Marantz (1988a) and Sproat (1988) argue that the mapping to PF indeed has a word-forming role on these lines.» (Castairs-McCarthy 1992, 136)

²⁷³ Bientzat ere, A-egituran osagaien erlazio hierarkikoa begiratzen da; adjazentzia eta ordena berriz FF-ko kontua dira, ez sintaxiarena.

Auzi horiek argitzeak, bistakoa da, lan honen esparrua gaintitu egiten du, baina gure gaiari heltzean hitz-eraketari buruzko ikuspegi hauek guztiak oso kontuan izan beharko ditugu: begiratu beharko dugu guk biltzen ditugun datuek hitz-eraketari buruz egin diren gogoeta hauekin guztiekin inolako harremanik ba ote duten, eta baldin badute, ikuspegi hauetakoren baten alde egiteko erabil litezkeen.

4.2. HITZ ELKARTUAK

4.2.0. Sarrera

Sarreran esan dugunez, bi hitz elkartu koordinatzen ditugunean, perpausekin eta sintagmekin gertatzen zen bezalaxe, biek osagaien bat berdina badute, gerta liteke berdina duten elementu hori isilean geratzea:

- (3) a. Erroskila eta barazki saltzaileak
- b. Barne eta Justizia Sailak

Euskal hizkuntzalaritzaren barnean Azkaraterenean (1990) bestetan ez dut aurkitu auzi honi buruzko aipamenik. Horrelakoak 'bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuak' sailean, 'osagaietako bat berdina dutelako eta/edo juntagailuaz elkartuak' izenburuaren azpian biltzen ditu. Hona han dakartzan adibideetarik zenbait (Azkarate 1990, 342):

- (5) a. Emacume dantzaarija eta cantaaarija
- b. Biguira, edo saraulecubac
- c. Donu, dohain eta abantail suertez

Adibideen zerrenda amaitu ondoren honako hau dio (Azkarate 1990, 345):

«Adibide guztietan bi edo hiru hitz elkartu ditugu klase berekoak, osagai nagusia errepikatzen dela. Horregatik, oro har egitura kopulatiboetan gertatzen den legez, hitz elkartuetako batean isilpean uzten da errepikatzen den osagai nagusi hori. *Emacume dantzarija eta emacume cantarija; biguira lecubac edo saraulecubac; donu suerte, dohain suerte, eta abantail suerte ...* genituzke, beraz, goiko adibideen azpian.»

Orain arte eman ditugun adibide horietan guztietan, Azkaratek dioen bezala, osagai nagusia errepikatzen da. Gerta liteke, dena den, osagai nagusia desberdina izatea eta errepikatzen dena nagusia ez den osagaia izatea:

- (6) a. Erne lecuba ta toquiija
- b. Az-osto ta quirtenac
- c. Urun zacu, edo zorro

Azkarateren terminologia erabiliz, osagai nagusiari, hitz elkartuaren esanahia eta kategoria erabakitzen dituenari, edo erabakitzeko unean garrantzi handiena duenari, *mugakizuna* deituko diogu, eta haren menean bezala dagoenari *mugatzailea*. Beraz, lehenengo sailean mugakizuna agertzen zitzaigun errepikaturik, eta ondorioz, isilean geratu da; bigarren gootan berriz mugatzaile bera agertzen da bi mugakizunekin. Bi sail hauei buruz ari delarik honako hau dio Azkaratek (1990, 346):

«...askoz ugariagoak dira, ordea, mugakizun errepikatua (edota 'Atributiboak' badira lehen osagai nagusia) ezabatuz eta azken hitz elkartuan bakarrik gordeaz, osatzen direnak.»

Itxura hau duten adibideez bada egin beharreko ohar txiki bat. Azkaratek esan digu (1990, 345) berak bildutako adibide horiek, gehienak $X1$ eta $X2+Y$ erakoak, $[X1+Y]$ eta $[X2+Y]$ bezala ulertzen direla. Guk, aldarrikapen hori osatze aldera, zera erantsiko genioke: hala ulertzen dela askotan, ez ordea beti. Izan ere, gerta liteke $[X1$ eta $X2] + Y$ bezala ulertzea ere. Adibidez, *barazki eta erroskila saltzaileak* hitzaren aurrean, gehienetan ulertuko dugu *[barazki saltzaile] eta [erroskila saltzaile]* dagoela, badakigulako barazkiak eta erroskilak nekez saltzen direla saltoki berean, baina *kotxe eta furgoneta saltzaileak, ekonomia eta finantza arduradunak* aurkitzean, askotan *[kotxe eta furgoneta] saltzaileak, [ekonomia eta finantza] arduradunak* erara ulertu ohi dugu, oso litekeena baita saltzaile batek kotxeak eta furgonetak saltzen diren saltoki bat izatea, edo gizon edo emakume batek erakunde bateko ekonomiaren eta finantzen ardura izatea. Horrelako adibideetan, beraz, ez dago ezer isilean, ez dago elipsirik, eta guk aztertu nahi dugunetik kanpo geratzen dira²⁷⁴.

Bestalde, ohartzen gara itxura batean (3)-koak bezalakoxeak behar luketen zenbait adibidetan elipsia eragotzita dagoela: **behi- eta artalde, *olo- eta galsoro, *suge- eta arkume-jana, *matematika- eta merkatu-azterketa*²⁷⁵ bezalakoak, esate baterako, ez dira zuzenak. Nabarmena da, beraz, elipsoidun hitz elkartuak zenbait kasutan bakarrik direla zilegi. Hurrengo orriotan egitura horien zuzentasun edo okertasunean gramatikaren zein printzipiok duten zerikusia aztertu nahi genuke. Ildo horretan, erantzun beharrekoak dira ondorengo galdera hauek guztiak:

²⁷⁴ Horrelako adibideek hitz izaera aitortu behar zaien elementuen mugetara garamatzate eta lehenagoko ingeleseko *law degree language requirement change decision* harekin sortzen zen auzi bera plazaratzen digute. Adibidez, goiko horretan mugatzailean bi izen ditugu eta ez dirudi hain txarra denik, baina zer hiru edo gehiago bagenitu? *Barazki- eta fruta- eta ezti-saltzailea* bezalako bat, saltzaile bakar bati buruz ari garelarik, hitzat hartu behar den izango litzateke auzia. Hitzak izendatzeko erabiltzen ditugu, eta alde horretatik ez dirudi oso egokia denik; intonazioa ere desberdina dela uste dut.

²⁷⁵ Pentsatuz *matematika-azterketa* urte amaierako ekintza akademikoa dela, eta *merkatu-azterketa* berriz, segurtasun-apur batekin jokatu nahi duenak produktu berri bat merkaturatu aurretik nahitaez egin beharreko ekintza.

- Zer hitz elkartu motarekin egin daitezke horrelakoak?
- Zein faktorek dute eragina horrelakoen onargarritasunean?
- Zer erakusten digu horrek osagai morfologikoaz eta juntadurako elipsiaz?

Ahalegin horretan nagusiki Azkarateren sailkapenari jarraituz (1990) abiatzea erabaki dugu; ez diogu, ordea, bete-betean jarraituko: zenbaitetan Euskaltzaindiaren LEF batzordeak egindako lanetara (1987; 1991) joko dugu. Gure azterketak izen elkartuei eskainiko die arretarik handiena. Hitz elkartu guztien artean beraiek dira ugariak euskal tradizioan -alde handiz gainera-, eta beraiek dute gaur egun ere emankortasunik handiena. Horrela, izen elkartuak aztertuko ditugu gertuenetik, eta haiek aztertu ondoren beste guztiak batera emango ditugu. Izen elkartuok bi sail nagusitan banatzen ditu Azkaratek: izen elkartu kopulatiboak eta menpekotasunezko izen elkartuak. Guk ere banaketa bera erabiliko dugu.

4.2.1. Izen elkartuak

4.2.1.1. Izen elkartu kopulatiboak

Maila bereko osagaiz eratutakoei deitu ohi zaie izen elkartu kopulatibo²⁷⁶, eta hauen artean sei mota desberdin bereizten ditu Azkaratek: *dvandvak* (*aitamak, joanetorriak*), *gehiketa* motakoak (*barre algara*), *tautologiak* (*eguraldi-giro*), *atributiboak* (*emakume kantaria*), *apozizioak* (*Latasa aizkolaria*) eta *subsumptive* motakoak (*eperkume*). Gaineratzen du, hala ere, autore guztiak ez datozela bat sailkapen horrekin, eta beste zenbait erataria ere bana daitezkeela.

Mota guzti horietakoekin aproba eginez, ikusten dugu lehen hiruretan ezin dugula X1 eta X2+Y (edo X+Y1 eta Y2) erako egiturarik sortu:

- (a) Dvandvak: **Ama eta aitalabak* (=amalabak eta aitalabak).
- (b) 'Gehiketa' motakoak: **Arroz eta kafesnea* (=arroz-esnea eta kafesnea).
- (c) Tautologiak: **Denbora eta eguraldi-giro* (=denbora-giro eta eguraldi-giro).

Azken hiruretan berriz errazago onartzen dira era horretako egiturak:

²⁷⁶ Izen elkartu kopulatiboei buruz hitz egitean, honela hasten zaigu Azkarate (1990, 162): «... maila bereko osagaiez, eta juntagailuaz lotuta baleude bezalako osagaiez eratutako hitz elkartuak sartzen dira. Hitz elkartuak horrenbestez, bi osagaien esanahia jasotzen du.»

- (d) Atributiboak: *Emakume eta gizakume kantariak*.
 (e) Aposizioak: *Latasa eta Keixeta aizkolariak*.
 (f) 'Subsumptive' motakoak: *Iaspe eta sardoin arria*

Izan ere hasieran esan dugu hitz elkartu kopulatiboetan parte hartzen duten osagaiak maila berekoak direla, eta hori hala da lehenengo hiruretan, hitz elkartuaren bi osagaiak maila berean daude eta biek emari bera egiten diote elkartuaren esanahiari, baina dextenteko zalantzak ditut azken hiru motatakoek maila bereko osagaiak elkartzen ote dituzten: (d), (e) eta (f) bezalakoetan badirudi bi osagaietakoren batek nolabaiteko nagusitasuna duela. Adibidez, subsumptive erakoetan (*iaspe eta sardoin arria*) Azkaratek berak ere dio (1990, 196) «menpekotasunezkoak ere erraz izan zitezkeen» eta «bigarren osagaia da nagusia, ardatza»; atributiboetan, bi izan elkartzen dira, baina batek adjektibo adiera hartu ohi du, eta «bietako bat da nagusi eta bestea, izena izanik ere, izenondo antzeko bilakatzen da, osagai nagusiaren propietateren bat ematen du»²⁷⁷ (Azkarate 1990, 186); oso antzeko zerbait gertatzen da, ene iduriz, aposizioak deitu ditugun horietan, eta hala aitortzen du Azkaratek ere (1990, 193), «sintaxiaren eta hitz-elkarketaren artekoak» direla esatean. Beraz, azken hiru mota hauen maila-bereketasuna oso eztabaidagarria da, eta ziurrenera hori izango da desberdintasunaren gakoa: hitz elkartuko osagai biak guztiz maila berekoak direnean ezin da gu aztertzen ari garen motako egiturarik sortu, isilean dagoena berreskuratzerik ez baitago; bietatik bat era batera edo bestera nagusiago denean berriz X1 eta X2+Y erako adibideak²⁷⁸ egin daitezke (beste zerbaitek oztopatzen ez badu behintzat).

4.2.1.2. Menpekotasunezko izen elkartuak

Bigarren saila menpekotasunezko izen elkartuena da. Horrelakoetan osagai bat bestearen menpean dago, eta nagusi den osagaiak, mugakizunak, erabakitzen du nagusiki hitz elkartuaren kategoria eta esanahia²⁷⁹; menpeko osagaiak, beraz, ez du zeresanik kategoria erabakitzeke unean, eta besteak adierazten duen esanahi nagusi hori

²⁷⁷ Eta askotan ez da erraza gertatzen hitz elkartu ala I+izond hurrenkera soil diren erabakitzen. Euskarazko hitz-elkarketaren jokaera orokorrari bizkar emanez era honetako hitz elkartuetan normalean nagusitasuna lehenengo elementuak hartzen du.

²⁷⁸ Halere, gehienek [X1 ETA X2] + Y interpretazioa izan ohi dute, alegia, guri hemen interesatzen ez zaigun interpretazioa.

Badira, bestalde, ziurrenera sail honetan sartu beharko genituzkeen adibideak, baina lan honetan aztertuko ez ditugunak: *Jerusalem eta Tel-aviv hiriak*, *Uztapide eta Basarri Bertsolariak*, *Pello eta Migel Antzorrei* (baina **Ezkio- eta Lazkaotxiki*), *hirurogeita sei eta zazpi*, *pake eta elkartasun hitzak*, etab.

²⁷⁹ Hitz elkartu exozentrikoetan izan ezik.

osatu edo mugatu egiten du. Euskaraz, aski ezaguna da, mugatzailea ezkerreko osagaia izan ohi da eta mugakizuna eskuinekoa.

Izen elkartu kopulatiboak aztertzen aritu garenean esan dugunaren arabera, pentsa zitekeen menpekotasunezkoetan ez genuela inolako oztoporik izan behar. Eta egia da asko eta asko inolako arazorik gabe sor daitezkeela: hor ditugu, esate baterako, *ekonomia eta gizarte arazoak, argazki eta eskultura erakusketa, txerri eta txekor hiltzaile...* eta antzekoak. Baina okerrak edo oso zalantzazko adibideak ere ugari dira: **behi eta artalde, *suge- eta indaba-jana, *arbi eta artasoro, *mendi eta konponbide*, etab. Beraz, osagai bien arteko berdintasun- edo menpekotasun-erlazioaz kanpoko baldintzaren batzuk ere badira hor jokoan.

Bada aurrera jarraitu aurretik egin beharreko ohar bat: adibide zuzenak eta okerrak zein diren erabakitzeko unean zailtasun handiak izango ditugu. Badirudi hiztun bakoitzaren aukera estilistikoek garrantzi handia dutela. Orotara esango nuke hizkuntzalaritzatik hurbil dabiltzanek errazago jotzen dutela era honetako egituretara. Ikus, bestela, ondorengo adibide hauek:

(7)

- a. «Pergamu zuri baten aurrean eman zituen *jan eta lo orduak*, bere gelako bakartasunean, (...)» (Juan Garzia Garmendia, 1993, *Itzalen Itzal*, 107)
- b. «Neuk behintzat deus gutxi ikusi dut zineman Zampano *buru eta bihotz-gogorraren* itsas ertzeko negarra bezain erdiragarririk.» (Mixelena, EIG I, 173)
- c. «Aldamenean *argindar eta beroetxe bat* dago, lurretik datorren berotik probetxua ateratzen duena.»²⁸⁰ (Endrike Knörr, *Egunkaria*, 1994-I-7)

Idazle hauek horrelako adibideak erabiltzen dituztenean, hizkuntzaren erabilera arruntetik urrundu egiten direla iruditzen zait. Baina nire belarriari bitxiago egiten zaizkion adibideak ere bildu ditut, eta hauek ere ez badaezpadako autoreen lumetatik sortuak:

(8)

- a. «Euskaldun guztiontzat, hitz batean, zein ere den bere *pentsa eta jokabidea*.» (L. Mixelena, *Mixelenaren idazlan hautatuak*, 124)
- b. «Hoberik ere egin genezakeen apika, guk geurok edo bestek, baldin EGAN-ek berriki Mixelenari eskaini dion omenaldi zenbakiko *iker- nahiz idazlanak*

²⁸⁰ Badirudi [X1 eta X2] + Y erara ulertu behar dela.

lehenago argitarara balira, (...).» (Blanka Urgell, Patxi Altuna, Joseba Lakarra, Ibon Sarasola, EIG I, 12 or.)

c. *Mintza- eta aztergaiak.* (L.Oñederra, 1991, doktorego-ikastaro bateko egitarauan)

d. «Parisen *ikus eta entzungai* izango direnak.» (Euskadi Irratia, Kostaldeko Trena, 1993-I-25)

Oso zail gertatuko da, bada, adibide baten aurrean jarri eta besterik gabe zuzena edo okerra dela esatea.

Azkaratek menpekotasunezko izen elkartuei atal luzea eskaintzen die bere liburuan. Bi sail nagusitan banatzen ditu: alde batetik mugakizuntzat izena dutenak, eta bestetik mugakizuntzat izenkia dutenak, eta sail horietako bakoitzaren barnean azpisail ugari egiten ditu, osagaien arteko erlazio sintaktiko-semantikoei begiratuz. Guk beste bide batetik joko dugu hemen: horrelako egituren onargarritasunean eragina izan dezaketen zenbait faktore aipatuko ditugu, eta faktore posible horiei buruzko gogoeta egiten saiatuko gara. Horrela, hurrengo orriotan elipsoidun hitz elkartuak agertzea erraz dezaketen baldintza zenbait eta onargarritasun eza eragin dezaketen zenbait debeku azalduko ditugu.

4.2.1. 2.1. Elkarketa eta hots-aldaketak

Aspalditxotik ezaguna da hitz elkartuetan hots-aldaketak gertatu ohi direla (Mitxelena 1961). Hots-aldaketa horiek zerikusi handia dute gu aztertzen ari garen egituren onargarritasunean edo onargarritasun-ezean: hots-aldaketarik baldin badago nekez onartzen dira era honetako adibideak. Aukeretako bat da hots-aldaketa bigarren juntagaian agertzea. Adibidez, *artasoro* hitza harturik,

- (9) a. arbisoroak eta artasoroak
b. *arbi eta artasoroak

egin nahi izatea. *Artasoro* hitz elkartu modura nahikoa gardena da eta guztiok konturatzen gara hor bi osagai daudela, *arto* eta *soro*, baina hala ere ezin da era honetako egituretarako erabili. Beste aukera alderantzizko ordenan agertzea izango litzateke:

- (10) a. artasoro eta arbi-soroak
b. *arta eta arbi-soroak

baina horrelakoak aurrekoak baino ere okerragoak dira. Badirudi, beraz, ageriko zatiek bere gisara ager daitezkeen hitz behar dutela izan: hitz-eraketan ez bada, *arta* ez da ezer, eta era honetako egiturak debekaturik geratzen dira. Baina ordena honetan beste aukera bat ere badugu:

- (11) a. arto eta arbi-soroak

Eta adibide hau zuzena da; izan ere, hitz-elkarketako hots-aldaketak ez dira beti nahitaez gertatzen: elkarketa berri askotan ez dira inondik inora somatzen, eta zaharxeago askotan ere aukerazko besterik ez dira. Nahikoa garbi ikusten du hori Azkaratek (1990, 145-157) bere corpusean egin duen azterketan²⁸¹:

«Amaierako bokalei dagokienez, bada, Michelenak (1961) euskararen historian zehar, hitz elkarketaren arloan, jaso dituen aldaketak zenbaitetan atzeman baditugu ere, askotan betetzen ez direlako ondoriora iritsi behar dugu» (Azkarate 1990, 157)²⁸².

²⁸¹ Azkaratek aztertu duen corpusari begiratu, badirudi aipaturiko aldaketa horiek bereziki hitz elkartu batzuk hartu dituztela, haietan finkatu direla, eta gureganaino hala heldu direla. Beste zenbait hitz elkartutan, ordea, arrazoi garbirik gabe, aldaketa horiek ez dira sendotu, eta are osagai bera dutenen artean ere (*arto, mendi, begi, argi...*) bi eratako adibideak aurkitzen ditugu, aldaketadunak eta aldaketarik gabeak. Azkenik, beste zenbaitetan ez da aldaketadun adibiderik agertzen.

²⁸² Gauza bera dio Oñederrak (1990): «We must take into account, anyway, that words with no modification need not be newer compounds. We know that most of these changes have never been exceptionless, and that other kinds of factors such as degree of cohesion between the members can be important».

Bikoiztasun hori badela onartu ondoren, hurrengo urratsa ezinbestekoa da: hots-aldaketarako aukera dutenetan, zer hitz-motatan garatu eta mantendu da hots aldaketa hori, eta zeinetan ez? Joera desberdinen berri emango duen irizpiderik ba ote da? Honi buruz aurkitu dudana aipamen bakarra Oñederrarena da: «In general, we can deduce that newer forms tend to show less reduction and also that the more transparent, the closer the relationship between singnans and signatum (content), the fewer changes we see. Cf., for instance, the opaque **galeper** 'quail', **galbahe** 'siewe, scream (in gal.)' which show no alternation and **galsoro** or **galale** which in newer or more popular texts tend to alternate with or be substituted by **garisoro** 'wheat-threshing floor', **gariale** 'wheat-grain'. The context of the latter is more closely related to the farming activity and they mean no more what the two elements mean».

Ez dut uste gainera bere begirada zorrotza oso desbideraturik dabilenik: ezaguna da gardentasun semantikoa eta morfologikoa elkarren eskutik joan ohi direla. Ideia horren ondoan ordea beste bat plazaratu nahi nuke nik: indar paradigmaticoen garrantzia. Izan ere, zenbat eta ugariagoa izan hitz-talde bat, zenbat eta klase zabalagoa izan, orduan eta aukera handiagoa hots-aldaketarik gabe agertzeko; alderantziz, saila oso mugatua bada, hitz bakan batzuetakoa, edo hitz bakarrekoa, errazago mantenduko da hotsa-aldaketa, eta errazago erasango dio higadura semantikoak.

Adibidez, Oñederraren beraren adibideak hartuz, konturatzen gara soro-mota asko ditugula: arbi-soroak, babarrun-soroak, patata-soroak, etab. Beste horrenbeste aleekin ere. Sekula ikusi ez dugun L landareari buruz ari garela ere, L-soro eta L-ale esango genuke, talde zabal bateko beste elementuak gogora ekarriz. Hitz elkartuen emankortasunaz eta finkapen lexikoaren mailaz ihardutean itzuliko gara berriro auzi honetara.

Ondorioz, elkarketan aldaketa fonologikoak jasan ohi dituzten guztiek izango dute (11) bezala agertzeko aukera, hitz elkartua gardena eta higadura semantiko nabarmenik gabea den heinean behinik behin²⁸³.

Amaitzeko, mugatzailea errepikaturik dutenen kasua daukagu, eta gauzak antzera gertatzen dira:

(12) *artaburu eta ale

beharbada intonazioa bortxatuz *-arta-*ren ondoren eten nabarmena eginez-, eta hitz-joko modura edo *-alegia*, hizkuntza behartuz-, onargarrixeago egin liteke, baina ez zait iruditzen baliabide emankorra denik.

Dena den honetan guztian hitz batzuetatik besteetara aldea egon liteke. Adibidez, aurrekoaren baldintza ia guztiak betetzen dituen *giza-besoz eta iztarrez* adibideari (Azkarate 1990, 345) ez diot nik aparteko arazorik ikusten²⁸⁴; izan ere *gizon-*en konposatuak gaur egun oraindik *-nik uste-* *giza-*ren gainean eraikitzen dira, eta askotan sortzen eta erabiltzen ditugu; *arto-*ren konposatuak, ordea, ez dut uste egun *arta-*ren gainean sortzen direnik (**arta-paketea*). Beraz, elkarketan aldaketa fonologikoak jasatea oztopo da hitz elkartuen juntaduretako elipsirako, baina badira debeku horri iskin egiten dioten adibideak ere.

4.2.1.2.2. Lexikalizatutako hitz elkartuak

Aurreko baldintza horrez gain, juntatutako hitz elkartuetan elipsia gertatu ahal izateko gaur egungo hiztunak hitz elkartuko bi osagaiak garbi bereizi behar ditu, garbi ikusi behar ditu. Adibidez, *harkaitz*, *galbahe*, *aldarte*, *galeper*, *indaba*, *ilargi*, *lehengusu*, *bekain* ... hitz elkartuak dira, baina lexikalizaturik ageri dira gaur egun, zein osagai dituzten edo are osagaidunak diren ere ez dakigu, eta horrelakoetan ezin da elipsidun egiturarik onartu.

²⁸³ *Arto eta arbi-soroak* bezalakoak ontzat hartzeko beste bide bat [X1 eta X2] Y interpretazioa da, guri interesatzen ez zaiguna. Halere zenbait ohar egin behar da horri buruz. Lehena, interpretazio horrekin *arbi* eta *soro* osagaien artean bestela baino eten nabarmenxeagoa egiten dela. Gauza bera gertatzen da ordea elipsidun guztiekin: hitz elkartuko osagai bakoitzak bere azentua izan behar izaten du. Eta bigarren, ene iduriz interpretazio honetakoek aldaketa fonologikoak eragozten dituztela: **indaba eta artasoro*. Honek guztiak, behin gehiago, interpretazio hau dutenen hiztasunaz zalantzak sortzen ditu.

²⁸⁴ Beste auzi bat, horrelakoen interpretazioari buruzkoa da: *giza-besoz eta izterrez* adibidean ohikoena zera da, besoak eta izterrek biak gizakienak izatea, baina gerta liteke, era berean, izter horiek gizakienak ez izatea. Gauza bera gertatzen zitzaigun izenlagunen kasuan ere. Horrelakoetan sortzen diren arazoez geroago ihardungo dugu.

Bestalde, lexikalizatuen eta lexikalizatu gabeen arteko muga ez da batere argia, ez da batere erraza lexikalizatutako hitzak zein diren zehaztea, edo zenbateraino lexikalizaturik dauden jakitea; are gehiago, euskalki batetik bestera eta, batik bat, hitzun batetik bestera diferentziak agertuko litzaizkigukeela iruditzen zait. Eta orain aipatzen ari garen maila-desberdintasun horrek elipsoidun hitz elkartuen zilegitasunean ere aho-bateko epaiak emateko ezintasuna eragiten du²⁸⁵.

4.2.1.2.3. Osagaien arteko erlazioa

Hitz elkartuak sailkatzeko orduan askotan osagaiak elkarren artean dituzten erlazio sintaktikoetara eta semantikoetara jo izan da (Azkarate 1990). Erlazio horiek kontuan izateak asko laguntzen digu gu aztertzen ari garen egiturak noiz ager daitezkeen jakiteko: elipsia gertatu ahal izateko juntadura bidez lotzen ditugun bi hitz elkartu horietan osagaien arteko erlazioetan guztizko parekotasuna egon behar du, ez da onartzen desberdintasun txikienik ere. Baldintza hau oso zorrotza da, hustuketa-egituretan ardatza eta ingurukoaren artean idoro duguna baino askoz zorrotzagoa.

Pentsa dezagun, adibidez, osagai nagusitzat *gizon* duten hitz elkartuak juntatu nahi ditugula, eta gero horietan elipsia egin nahi dugula. Horrelakoen artean izan ditzakegu, oztopo handirik gabe, *arma-gizon* eta *plaza-gizon*. Biak ere gizonak dira, baina osagaien arteko erlazio sintaktiko-semantikoak nahikoa desberdinak dira: lehenak soldadua esan nahi du, edo agian gatazkak konpontzeko armetara erraz jotzen duena; bigarrenak berriz jendaurrean patxada mantentzen dakiena, horrelako egoeretan berea baino gutxiago ematen ez duena. Osagaien arteko erlazioak desberdinak dira hitz elkartu bietan, eta ez dago **arma eta plaza-gizon*, edo **mando- eta mendi-bide* bezalakoak onartzerik.

Beste zenbait alderdik ere badute garrantzia. Adibidez, *mendi-bide* eta *sesio-bide* hitzak hartzen baditugu, bi bide-mota desberdin dauzkagu: bata bide fisikoa, leku batetik bestera joateko balio duena; beste bidea, norantz daraman adierazten diguna, baina bide fisikoarekin zerikusi gutxi duena. Horrela, **mendi- eta sesio-bide* bezalakoak ez dira zilegi, ezta **aza eta sailburu* bezalakoak, edo *-are nabarmenagoa- *suge eta perretxiku-jana* bezalakoak ere: juntatu nahi ditugun bi hitz elkartuetako

²⁸⁵ Lexikalizazioaren inguruko auziek osagai morfologikoari buruzko lanetan alor askotan (Hitz Eraketa Erregelen edo ordezeko zernahiren aplikazioa-lekuan, etab.) eragiten dituzte antzerako arazoak eta salbuespenak.

ardatzek esanahi bera izan behar dute²⁸⁶. Horren ondorioz, hitz elkartu exozentrikoak ez zaizkigu sekula agertuko: **lore- eta hitz-ontzi*, **aza- eta txori-buru*, etab.

4.2.1.2.4. Emankortasuna eta finkapen lexikoa

Hitz elkartuen artean sail guztiek ez dute bizitasun edo emankortasun bera: sail batzuetako hitzak etengabe ari dira sortzen; beste elkarketa-molde zenbait berriz badirudi agorturik dagoela, edo oso nekez erabiltzen dela. Dagoeneko aipatu ditugu horrelako kasuak.

Bestalde, lehenago aipatu dugu zenbait hitz zeharo lexikalizaturik dagoela eta egungo hiztun askok dagoeneko ez dutela elkarketarik ikusten. Eta gardenagoak direnen artean ere badirudi guztiek ez dutela hiztasun bera: aukera handiagoa du zalantzarik gabe *ardi-esne* hitzak hiztegi batean *ardi*-ren edo *esne*-ren azpi-sarrera modura agertzeko *fruta-saltzaile* hitzak bere bi osagaietakoren baten azpi-sarrera modura azaltzeko baino. Biak ere gardenak izan arren lehenak finkapen lexiko handiagoa izango luke.

Bi faktore hauek, hitz-elkartu sail batean bizitasun edo emankortasuna eta hitzen finkapen-lexikoaren maila, garrantzizkoak gertatzen dira juntaduretan elipsia onartzeko unean. Emankortasun handiko eta finkapen lexiko urriko hitzekin onartzen dira errazenez juntaduretako elipsiak. Jarraian bi baldintza horiek betetzen dituzten zenbait hitz-sail aipatuko ditugu.

4.2.1.2.4.1. *Hitz elkartu sintetikoak:*

Ingeleseko hitz-elkarketa aztertu duten hizkuntzalari askok bi sail nagusitan banatu dituzte hitz elkartuak: *hitz elkartu sintetikoak* (synthetic compounds) eta *hitz elkartu primarioak* (root compounds)²⁸⁷. Lehenetan elkarketako osagairik nagusia, hitz elkartuaren ardatza, aditzetik eratorritakoa izan ohi da (*fruta-saltzaile*), eta bere argumentu egitura hitz elkartuaren barnean islatzen da era batera edo bestera; besteetan, izen elkartu primarioetan -izen elkartuei buruz ari gara hemen-, ardatz modura izen arrunta (*esne-behi*) ageri ohi da.

²⁸⁶ Baldintza hori dela eta, berez anbiguo izan daitezkeen hitz elkartuek anbiguotasun hori galdu egiten dute juntaduran. Adibidez, *uso-jana* izan daiteke usoek elikatze behar duten jana, edo lagun talde batek mahai baten inguruan burutzen duen ekintza atsegina; baina *suge- eta uso-jana* esaten badugu, sugeak jateko inolako amorrurik ez duen gure kultura honetan behintzat, anbiguotasun hori galdu egiten du.

Era berean, juntadurak eragindako baldintza bezala, *ardi-jana eta txekor-jana* bakoitza anbiguo dira, baina biak juntatuz ez ditugu lau interpretazio lortuko, bi baizik.

²⁸⁷ Euskarazko izenak Azkaraterenetik (1990) hartu ditut.

Ez dakit banaketa hori zenbaterainoko ekarria izan den hitz elkartuak hobeki ezagutzeko, baina gure gairako behinik behin nahikoa egokia suertatzen da: hemen aztertzen ari garen elipsoidun egitura hauek elkartu sintetikoekin nahikoa erraz egiten dira, beste mota askotako hitz elkartuekin baino errazago. Adibidez, *barazki- eta erroskila- saltzaileak*, *odol- eta organu- emaileak*; *txistu- eta flauta-jotzaileak*, *bertso- eta ipuin biltzaileak*, etab. bezalakoak sortzeko oso oztopo gutxi dago, ia nahi adina sor daitezke. Orain arte aipatu ditugun baldintza edo debekuekin ere ez dute inolako arazorik: ez hots-aldaketekin, ez gardentasunarekin, ez parekotasunarekin. Elkarketarako emankortasun handiena erakutsi dutenak ere hauek dira.

Gainera, konturatzen gara tradizionalki hots-aldaketa izan duten hitzek, horrelako egituretan agertzen direnean, arazo gutxiago izaten dutela aldaketa gabe agertzeko: *gizon-saltzaile*, *begi-margotzaile*, *ardi-moztaile*, *harri-jasotzaile*... guztiz arruntak ditugu, eta arazoak aldaketadunek sortzen dituzte: *giza-saltzaile*, *bet-margotzaile(?)*, *ar-moztaile (?)*, *har-jasotzaile*... bezalakorik ez dugu erabiltzen.

Beste bi baldintzekin ere, goraxeago esan bezala, ez dago inolako arazorik: hiztunak erraz ikusten ditu hitz elkartuaren bi osagaiak, eta parekotasuna ere guztizkoa da. Izan ere, aditzak perpausean duen argumentu-egitura hitz elkartu hauetan ispilaturik geratzen da, eta gehienetan, adibidez, goiko horietan guztietan, aditzaren tema edo gai paper tematikoa izan ohi du²⁸⁸; beraz, osagaien artean erlazio-parekotasuna, eta juntatzen diren bi hitz elkartuek esanahi-parekotasua. Honegatik guztiagatik zenbait hizkuntzalarik (ikus Ormazabal, 1992) proposatu du horrelakoak syntaxian sortuak direla, lexikoia baino arbitrariotasun eta salbuespen gutxiagoko osagai batean.

4.2.1.2.4.2. *Mugakizun irekiak semantikoki*

Hitz elkartu sintetikoetan ditugu, bada, elipsoidun egiturak agertzeko baldintzarik egokienak. Badira, dena den, oso antzeko baldintzak dituzten beste hitz elkartu batzuk ere. Hor ditugu, esate baterako, *behi- eta zaldi-taldeak*, *uso- eta kurrilo-sailak*, *mahai- eta aulki-pilak*, *naranja- eta limoi-zatiak*, *ekonomia- eta industria-arduradunak*, *ekonomia- eta hizkuntza-arazoak*, *abere- eta landare-motak*, etab. Hauetan guztietan hots-aldaketak oso nekez gertatzen dira, gardentasun handia dute, osagaien arteko erlazio-parekotasuna guztizkoa da eta oso emankorrak dira.

²⁸⁸ Elkartu primarioetan osagaiek zer erlazio semantiko izango duten jakitea askoz zailagoa da: instrumentala, lekua, etab.

Honetan guztian, ene iritziz, garrantzirik handieneko puntua hitz elkartuko osagaien arteko erlazioa da: zenbat eta ohikoagoa, erregularragoa, espero izatekoagoa izan mugakizunaren eta mugatzailearen arteko erlazioa, orduan eta emankorragoa izango da prozesua, orduan eta hots-aldaketa eta lexikalizazio gutxiago, orduan eta parekotasun handiagoa. Hori lortzeko bide bat, lehenago ere esan dugu, hitz elkartuaren ardatza aditzetikoa izatea; beste bat, ardatz hori semantikoki ireki samarra izatea, ia edozer mugatzaile onar dezakeena. Azken baldintza hau betetzen duten zenbait agertzen saiatuko gara orain:

(A) MULTZO - ELKARTEAK: *sail, pila, multzo, talde, mordo, aldra...* eta antzekoak, *Hitz-Elkarketa/1* liburari (1987, 66-67) *multzo-elkarte* deituak, inolako oztoporik gabe agertzen dira era honetako egituretan: *behi- eta zaldi-taldeak, uso- eta kurrilo-sailak, mahai- eta aulki-pilak*, etab. Hauetan guztietan eskuineko osagaiak oso esanahi irekikoak dira, osatzeko beste zerbaiten beharra dutenak. Horregatik, oso nekez agertuko zaizkigu bakar bakarrik *pila, talde, sail* eta horrelakoak, *pila, talde* edo *sail* horiek zerez osatuak dauden zehaztu gabe.

Ildo horretan Azkaratek (1994) zioen horrelakoen irekitasun edo ahultasun semantikoaren arrazoietakoa bat eskuineko osagai horiek tasun jakin baterako markatu gabe egotea izan daitekeela, hau da, [+/- bizidun] tasunari buruzko informaziorik ez izatea, eta ondorioz, informazio hori beste osagaiak, ezkerrekoak, eman behar izatea. Baina Azkaratek berak esaten du tartean zerbait gehiago ere badela, ezkerreko osagai horrek ohi baino garrantzi handiagoa duela, adibidez, **liburu-mordoa egosi* esaterik ez dagoelako. Dena den, ikusten dugu hitz elkartu berezi samarrak direla²⁸⁹.

Osatzeko beste zerbaiten behar hori hitz elkartu sintetikoetarako ere aipatu du zenbaitek; honela irakurtzen da *Hitz Elkarketa/3* (1991, 27-28) lanean:

«Marchand-en azalpenarekin jarraituz, aurreraxeago honako hau dio: elkarte hauetako bigarren osagaia ez dela askotan izen beregain gisa existitzen. Ez dira inongo hiztegitan agertuko, ez bait dira esanahi-unitateak. *Jasotzaile*-ren balio lexikoa, esaterako, hutsa litzateke, *jaso* aditzaren egile-aspektua besterik ez omen du aditzera ematen; *harri-jasotzaile*,

²⁸⁹ Buru-parametroaren aldetik ez genituzke guztiz ohikoak izango, baina elipsoidun egiturak sortzeko aukera ez datorkie horretatik, beren berezitasun semantikoengatik baizik: badira beste zenbait ere, euskarak agertzen duen buru-parametroaren aldetik (burua eskuinetara) guztiz erregularrak ez direnak, baina hala ere juntadura dagoenean elipsia debekaturik dutenak (*katagorri, abelgorri* ...).

ostera, unitate lexikoa da. Elkarte sintetikoetan, bigarren osagaiak, lehenarekin elkartzen den heinean bakarrik lortuko du unitate lexiko izatea, hots, esanahidun unitate izatea»²⁹⁰.

(B) ZATI-ELKARTEAK: *Hitz-Elkarketa/1* liburuak *zati-elkarte* deitzen dituenetan ere badirudi oso antzeko baldintzak ditugula: *naranja- eta limoi-zatiak, beira- eta teila-puskak...* bezalako adibideetan eskuineko osagai hori oso nekez joango da osatuko duen, zehaztu edo mugatuko duen lagungarririk gabe, baldin eta testuinguruagatik edo egoeraren ezagutzagatik zati edo puska hori zerena den oso garbi ez badago behintzat. Eta multzo berean sar daitezke, halaber, ardatz modura *mota, molde, modu, suerte, tailu, klase*, dutenak, eta baita, ziurrenera, *usain (erre-usain), fama (liberal-fama), kutsu (modernismo-kutsu)* dutenak ere. Azken hiru hauetan ardatza ez da semantikoki hain ahula, eta hitz beregain modura ager daitezke, baina gehienetan esanahia mugatuko dion beste hitzen bati elkarturik agertu ohi dira²⁹¹.

(C) POSPOSIZIOEN TANKERAKOAK: Posposizioen antz handia duten *aurre, ondo, gain, azpi, albo, oste, barne...* bezalakoek ere ia edozein eratako osagaiak onartzen dituzte. Lehen begiradan posposizioen antz handia izan arren egiatan hitz elkartuen aurrean gaude. Azkaratek (1990, 392-401) lau argudio ematen ditu:

- Benetako posposizioek kasu marka jakin batzuk bakarrik (-tik, -ra, -n) hartzen dituzte, eta sail honetakoek ez dute horrelako debekurik.
- Posposizioak balira **hainbat ohe azpian* bezalakoak zuzenak izango lirarteke, *hainbat oheri buruz* bezalaxe.
- Mugatu/mugagabe eta singular/plural bereizketak egiten dira hauen artean (*ohe azpian, ohe azpietan*), eta posposizioek ez dute horrelakorik onartzen.

²⁹⁰ Nik gai hau lanaren hasieran aipatu dugun beste auzi batekin lotua ikusten dut: esan dugu zenbait aditz iragankorrek irakurketa iragangaitza ere izan dezaketela. Euskaraz iragangaitzen interpretazioa zein aditzi eman zekioken erabakitzen oso zail ikusten genuen, baina aukera horretan semantikak eta pragmatikak ziurrenik zeresana izango dutela aldarrikatu dugu. Hangoa hona hedatuz, *jasotzaile* seguruenik ez da izen beregain bezala agertuko, baina zer esan *ikertzaile*-ri buruz, *hurperatzaile*-ri buruz, edo lexikoak beste bide batzuk hobetsiko ez balitu *serbitzaile*-ri edo *lapurtzaile*-ri buruz? Ikusten da aditzen artean badirela desberdintasunak, eta desberdintasun horiek ezin ditu gramatika soilak argitu.

²⁹¹ Beharbada ardatz-modura *nahi* eta *behar* izenak dituztenak ere sail honetan sartu beharko lirarteke:

- i. *Pake- eta duintasun-nahiak* zituen borrokan bere barnean.
- ii. *Diru- eta atsedeen-beharrak* zeuden borrokan bere egoeran.

Baina [X1 ETA X2] + Y interpretazioa da lehenengo ateratzen dena, eta besterik lortzea dexente kostatzen da. Hauen pareko izan daitezke, halaber, *uste* ardatzat dutenak:

- iii. *Eder- eta itsusi-ustekoek* desberdin jokutzen dute jendaurrean.

Baina honek, aurrekoaz gain, badu beste arazo bat ere: *-ko* atzizki adjetibatzailek gabe gutxitan agertzen dela.

- Posposizioek ez bezala, gerta liteke aurretik izenlagun bat hartzea, edo ondoren izenondo bat eramatea: *Baserriaren aurre zabalean hurrek gustura jolas egiten dute.*

Hitz elkartuak dira, bada, sail honetakoak, eta hitz elkartuen artean, osatzeko, esanahia mugatzeko, beste zerbaiten laguntza behar izaten duten horietakoak. Horregatik agertzen dira, hain zuzen ere, elipsoidun egiturak oztopo handirik gabe²⁹²:

(13) Euskaldunen *etxe- eta bihotz-barruetan* itxaropena piztu da.

4.2.1.2.4.3. Finkapen lexikoa

Ikusten dugu beraz mugakizunaren argumentu-egitura hustu beharrak eta semantikoki ahul samarra den mugakizuna izateak elkarketa-molde horiek bizi-bizikiak izatea eragiten duela, eta ondorioz baita juntaduretako elipsiak errazago gertatzea ere. Horrekin loturik elkartu horien finkapen lexiko urriaren auzia dago: badirudi hitz elkartu batzuk 'hitzago' direla beste batzuk baino; lexikalizatu gabeak izan arren ere, batzuk urteetan zehar bere horretan dirauten hitz elkartuak dira, aldatzen ez direnak, eta guztiok hitz elkartutzat ezagutzen ditugunak (*behi-esnea*); beste batzuekin berriz badirudi sortu ahala desagertzen eta ahazten direla (*ekonomia-arazoak*). Lehenengoak, nolabait esateko, lexikoian barneragoko maila batean daudela dirudi. Eta, era berean, egoskorragoak dira gu aztertzen ari garen egituretan azaltzeko: nekezago esango genuke *?ardi- eta behi-esneak* edo *?behi- eta ardi-gaztak, hizkuntza- eta ekonomia-arazoak* edo *langilego- eta finantza-arduradunak* baino.

Nolanahi ere, finkapen lexiko hori zer hitzek lortuko duten eta zeinek ez, ez dut uste hizkuntzalaritzak aztertu beharreko auzia denik: hizkuntzalaritzaz haratagoko alderdiek eskuhartzen dute hor, eta auzia mailaketa-kontua dela iruditzen zait. Ez dut

²⁹²Izen hauei lotzen zaien elementua genitiboan ere joan liteke (*etxearen aurrean*), baina zeharo aukerakoa ote da esapide hauetan genitiboan erabiltzea edo elkarketara jotzea? Ni ezezkoan nago. Adibidez, *etxe ondoan* eta *etxearen ondoan* biak dira zuzenak, nahiz beharbada gauza desberdinak izendatzeko erabili. Horren parean, *herriaren ondoan* bada, baina *herri ondoan* aurkitzea zailago gertatuko zaigu: *etxe-ondoa*, edo *etxe-buelta*, izena merezi duten zer izan litezke; baina badirudi herri-ondoa edo herri-buelta izendatzeko beharrik ez dugula somatzen. Dena den gramatikaren alorretik kanporako auzia dugu.

auzi horretan sakondu nahi, baina axaletik bederen ukituko dut, gauzak nondik nora joan daitezkeen apur bat argitu nahian.

Finkapen lexiko apala duten hitz elkartuak zein diren, edo zer ezaugarri izan ohi dituzten aztertzeko unean, P. Downing-enetik Azkaratek (1990, 125) ederki biltzen duen ideia batek izan dezake zerikusia. Downing-ek hitz elkartuen artean nolabaiteko bereizketaren bat ikusi uste zuen. Bere ustez, hitz elkartu batzuk,

«... "are often used in much the same way as descriptive phrases or demonstrative markers".
Hau da, lehen osagaiaz erlazio iraunkorrik ezartzen ez denez, hitz elkartu horrek, sailkatu orde, deskribatu egingo luke bigarren osagaiak aditzera ematen duena».

Idea hori garatzeko adibide hau ematen du:

«Behin bere lagun bati the *apple-juice seat*-ean esertzeko esan omen zioten, erabat hitz elkartu 'deiktikoa' sortuaz. Une horretan naranja[sic]-ur ontzia aurrean zuen eserlekua zen, noski. Eta 'naranja-ur aulkia' esan zuenak ez zuen inola ere, aulkien artean, naranja-ura ezaugarritzat zuen multzo berezia sortu nahi».

Beraz, hitz elkartuak hitz modura iraungo badu, osagaien artean erlazio iraunkorra, ohikoa behar da. Horrelakoa ez bada, finkapen-maila handirik ez du izango, eta, ondorioz, *sagar-zuku eta kafe-kikara aulkiak* ez da hain aldrebesa izango: edo bitxia bada, juntaduretako elipsiaz kanpoko auziegatik izango da bitxia.

Dena den, izendatze//deskribatze bikote horrek zenbait adibide argitzen ditu, baina beste asko eta askoren berri ematera ez da ailegatzen. Adibidez, Azkaratek orri horretan bertan hain egoki erabiltzen duen *hizketa-inguramendu* hitzeko osagaiak erlazio iraunkorra dute; halere, baliteke *hizketa-inguramendu* erabiltzen lehena Azkarate bera izatea, eta geroztik beste inork erabili gabea izatea. *Hizketa- eta komunikazio-inguramenduak* esateko ere ez dut uste oztopo handirik dagoenik, nahiz ziurrenera hizkuntzalaritzako hitz zehatza izateari utziko liokeen.

Beraz, errealitateko zenbait gauza eta kontzeptu hitzen bidez adierazten ditugu, eta horiek osatzen dute hizkuntza bateko hiztegia. Beste zenbait gauza eta kontzeptu adierazteko berriz sintaxira jotzen dugu, eta sintagmen bidez edo perpausen bidez ematen ditugu. Hizkuntzatik hizkuntzara, kulturatik kulturara eta are egoeratik egoerara hautu desberdinak egiten dira. Gramatikaren aldetik, ordea, aukera osoa dugu ondorengo bi bikote hauen artean:

- (14) a. Behiaren esnea merkatu egin da azken urte hauetan.
- b. Behi-esnea merkatu egin da azken urte hauetan.

- (15) a. Ekonomiaren arazoak ez dira pixka batean konponduko.
 b. Ekonomia-arazoak ez dira pixka batean konponduko.

Baina nire ustez lehenean elkarketaren bidea da ohikoena; bigarrenean, aldiz, iruditzen zait euskal hiztunak izenlagundun itzulia sarriago emango lukeela. Izan ere, *ekonomia-arazo* eta *hizketa-inguramendu*, egia da, hitzak dira, hitz elkartuak, baina urrun daude hiztegian zerrendaturik agertzeko ohorea izatetik²⁹³. Horregatik, badirudi zenbait hitz elkartutako osagaiek elkarren artean lotura estuagoa dutela, banatzen zailagoak direla, arrazoi bategatik edo bestegatik hiztegian zerrendatutako hitzetatik hurbilago daudelako. Besteek, genitiboaren bidez ematen errazago direnek, hiztasun ahulagoa dutenek, askoz ere hobeto onartzen dituzte elipsoidun egiturak. Hau guztia, jakina, maila-kontua da, ez dago erabateko mugarik jartzerik, eta ziurrenik hiztun batetik bestera ere aldatuko da.

²⁹³ Ez dut auzi horretan sartu nahi, egoeraren edo ingurunearen garrantziaz ohartarazi besterik ez dut egin nahi. Adibidez, duda egiten dut gaur egungo euskaldunek *artajorra* edo *artazuriketa* hitz zehatzen bidez adierazteko beharra somatuko luketenik; aldiz, erregistro jaso samarrea bereziki, *ekonomia-arazoak*, *hizketa-inguramendua* eta *egoera-desberdintasuna* hitz izateko bidean jartzen ditugu. Badirudi, beraz, arlo honetan bederen beharrak sortzen duela organua, eta ez litzateke harriztekoa izango hizkuntzalarion artean, erabilera teknikoan, *hizketa-inguramendu* askorentzat *behi-esne* baino finkapen lexiko handiagoko hitz bilakatzea.

Oro har, gainera, iruditzen zait, nozio bera elkarketaren edo beste bideren batez -bereziki izenlaguna+izena egituraren bidez- adierazteko unean, testuaren (hitzeko nahiz idatzizko) erregistroak garrantzia handia duela: zenbat eta erregistro jasoagokoa izan, orduan eta sarriago baliatuko da elkarketaz. Adibidez, Iñaki Irazabalbeitiaren bost orrialdeko artiku batean (Jakín, 1994, 89-94) ondorengo hauek guztiak agertzen dira: *detergente-iragarki*, *detergente-sorta*, *manganeso-konplexu*, *energi- eta hondakin-balantzea*, *ikuzketa-ziklo*, *manganeso-katalizatzaile*, *detergente-fabrikatzaile*, *eutrofikazio-arazoak*, *argitalpen-uholdea*, *biologi-ikaslea*, *ikerlari-bokazio*, *unibertsitate-irakasle*, *irakasle-bokazio*, *argitalpen-ugaritasuna*, *departamentu-burua*, *argitalpen-kopurua*, *aipamen-kopurua*, *argitalpen- edo aipamen-kopuruak*, *arrantza-kontuak*, *deriba-sareak*, *gizarte-egoera*, *esperantza-zirrikitia*, *gizarte-azterketa*, *arrantza-arazoak*, *arrain-stocka*, *itsas-biomasa*, *itsas-bizia*, *arrain-eskasia*, *arraste-sareak*, *arraste-teknika*, *arrain-sarda*, *sare-begi*, *legatz-kume*. Sortu berriak diren hitz horietatik gehienak oraindik urrun daude hiztegian zerrendaturik egotetik, eta erraz onar ditzakete gu aztertzen ari garena bezalako egiturak.

Nozio bera era desberdinetara adierazteko aukera desberdinez hitz egiten duenetako bat Oñederra (1990, 80-81) da: «Some speakers tend to have no compounds at all following exactly the Spanish model of construction (**aste kulturala** 'cultural week' (cf. Sp. **semana cultural**) instead of **kultur astea**) and thus fulfilling one of the characteristics of a decaying language. Others construct compounds for almost everything. This is the case of sociolinguistically conscious speakers, who sometimes are overproductive: cf. **lan-gabezia** 'unemployment' (lit. 'work lack' (which has become almost general for not exclusively linguistic reasons) in front of the previously usual syntactic construction **lanik eza** (**lan-ik ez-a**: 'work-partitive no-det)». Beraz, bi faktore horiek, hau da, hizkuntzaren ahuleziak eta jarrera soziolinguistikoak, era bateko edo besteko aukerak bultzatzen dituzte: lehenak elkarketarik eza, bigarrenak gehiegizko elkarketazalatasuna. Muturreko bi aukera horien artean, ordea, iruditzen zait lehen aipatu dudana erregistro jaso horrek baduela zeresana, ziurrenera zehaztasunerako eskakizunaren baitan. Ildo honetan, Azkaratek (1990, 430) aipatzen zuen azken mende honetako autoreak sarriago baliatzen direla elkarketaz.

4.2.2. Bestelako hitz elkartuak

Euskal hitz elkartuei buruz ari garenean eskuarki izen elkartuak izaten ditugu buruan: horiek dira ugarienak eta horiek aztertuenak. Horien alboan baditugu, ordea, izenondo elkartuak, aditz elkartuak, etab. Eta hauetan ere, funtsean, izen elkartuetako faktore berek erabakitzen dute, osagaietako bat berdina duten bi hitz elkartu juntatzen direnean, bietatik bat elipsoiduna izango den ala ez. Horrela, ardatza aditzetikoa dutenak dira, lehenago bezalaxe, elipsoidun egiturak errazen onartzen dituztenak: *neke- eta penararingarri, gogo- eta arima-pizgarri, harri- eta irain-jaurtika*, etab. Aditz elkartuetan baino errazxeago aurkitzen dira horrelakoak aditzondo eta izenondo elkartuetan, baina hauen artean ere arazo ugari somaten da: hori erakutsiko luke, ziurrenera, Azkaratek bere liburuan izen elkartua ez den elipsoidun adibiderik aurkitu ez izanak.

4.2.2.1. Aditzondo elkartuak

Aditzondo elkartuen saila oso murrizta da. Azkaratek dio aditzondo elkartuak osatzeko biderik emankorrena *-ka* atzizkiaz eratorritako mugakizunaz baliatzea dela, eta eratorketa-oinarria ia beti aditza izan ohi dela. Ondorioz mugatzaileak gehienez objektu erlazioa izan ohi du mugakizunarekiko eta gu aztertzen ari garenak bezalako egiturei sarpidea nahikoa erraz ematen zaie:

- (16) a. harri eta irain jaurtika
b. haize eta animo emaka

Asko, ordea, dagoneko iharturiko formak dira (*gaizki esaka, aho zabalka...*) eta ezin da elipsirik egin horrelakoekin.

Elipsirako bidea ematen duen beste atal nagusia Euskaltzaindiak (1991) *jardun-elkarteak* deitzen dituenena da:

- (17) a. diru eta babes bila
b. maitasun eta diru eske
c. behi eta zaldi zain

Baina hauetan ere mugakizunaren aditz-izaera kontuan izan behar da. Eta orotara konturatzen gara interpretaziorik ohikoena [X1 ETA X2] + Y dela, hots, guri interesatzen ez zaiguna.

4.2.2.2. Izenondo elkartuak

Euskarazko izenondo elkartuetan ere antzeko egoera aurkitzen dugu: gehienetan mugakizuna aditzetik eratorria da (*lotsa-galdu, basazi, buru-jaso...*) eta mugatzailea mugakizunaren argumentu denean elipsoidun adibide koordinatuak aurkitzen ditugu:

- (18) a. Neke eta pena aringarri
b. gogo eta arima pizgarri

Nahiz interpretaziorik ohikoena guri interesatzen ez zaiguna izan. Eta aurreko atalean bezalaxe badira nolabait iharturik dauden hitzak juntatutakoan elipsirako biderik ematen ez dutenak:

- (19) *Egos eta sinesgogorrak

Horiez gain Euskaltzaindiak (1991) *izaera-elkarte* deitzen dituen motakoen artean ere zilegi dira elipsoidun juntaturak: *neska- eta parranda-zaleak, handi- eta jakintsu-gurakoak, jan- eta edan-erraz, ikusi- eta ikasi-nahia*²⁹⁴, *kupida- eta erruki-gabe, ikusi edo dastatu gabeak...* Gogoan izan behar da, dena den, askotan ez dela erraz izen elkartuen eta izenondo elkartuen arteko muga zehazten. Gainera, horrelako hitz elkartuak sortzeko bidea ematen duten ardatzek, loturik duten mugatzailearen arabera eta ingurune sintaktikoaren arabera, adiera eta mota desberdinetako hitz elkartuak sor ditzakete. Beraz, sail honetakoen artean ere ez dugu adibide garbirik aurkituko: ez dago garbi guztiak elkarketa diren, ez dago garbi izenondoak diren, eta gainera, badirudi [X1 ETA X2] + Y erakoa ez den interpretazioa ematea zaila dela.

4.2.2.3. Aditz elkartuak

Aditz elkartuak, lehenago esan dugun bezala, oso urriak dira euskaraz -baita beste hizkuntzetan ere-. Azkaratek esaten digunez asko azken mende honetako autoreen lumetatik jalgiak dira, erdal hitzen euskal ordainak sortzeko proposamen modura asmatuak: *jaunartu, donetsi, esku-etendu, gurutz-iltzatu...* Muga horien barnean jokutzen dugularik ez da harritzekoa era honetako adibide elipsoidunik ez aurkitzea:

- (20) a. *Indar eta gogoberritu
b. *Leku eta itxuraldatu

²⁹⁴ Era honetakoak izenondo diren bi adibide ematen ditu Euskaltzaindiak (1991, 106):
«erle joan nahia, ez ezti, ez bresca»
«haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia»

Badira, dena den, hauen nahiko hurbilekoak edo diren zenbait egitura, *Hitz-Elakarketa/3-k aditz-esapideak* deitzen dituenak²⁹⁵, eta gu aztertzen ari garen bezalako egiturak errazago onartzen dituztenak. Horien artean 'ardatzat' *arazi* dutenak ditugu. Baliabide hau guztiz produktiboa da, eta autore askok eta askok ez dituzte horrelakoak hitz elkartuen barnean sartu nahi²⁹⁶, *arazi* ezin baita hitz beregain modura azaldu. Kontuan izan behar da, bestalde, zenbaitek horrelakoak syntaxian sortuak direla aldarrikatu dutela, buruz buruko mugimenduaren bitartez.

Kontua da, syntaxira hurbiltzen garen gehientsuetan bezala, gu aztertzen ari garen elipsoidun egiturak arazo handirik gabe aurkitzen ditugula; are errazago egungo hegoaldeko euskaretan, aditzoinaren gainean ez baino partizipioaren gainean eraikitzen baitira kausatiboak:

(21) Horma hori zikindu dutenek, *garbitu- eta margotu-eraztea* merezi dute.

Aditz-esapideen sailaren barnean ematen dituzte Euskaltzaindikoek, baita ere, *izena+ egin, eman, hartu...* erakoak. Baina badirudi hauek ere hitz-elkartuetatik beriezteko arrazoi sendoak ditugula (Euskaltzaindia 1991, 8-12). Liburu horretan aztertutako corpusean badira zenbait adibide (Euskaltzaindia 1991, 197, 201, 203, 217, 223):

(22)

a. «Euskalerrria gizon baten bearrean zen erri-sentipen oni, *arnas, bizi eta berotasun emateko.*» (Y. Etxaide, *Amasei Seme Euskalerriko*, Kuliska Sorta, Zarautz 1958, 79. or.)

b. «*Bizi ta su eman* oi zion "Marsellesa"ri.» (Y. Etxaide, *Amasei Seme Euskalerriko*, Kuliska Sorta, Zarautz 1958, 78. or.)

c. «Guztiarekin ere *arnegu ta iuramentu egiten* hari zara.» (Axular, *Gero*, Oñati, 1977, 103. or.)

²⁹⁵ Aditz-esapideen sailean sartu dituzten hauek hitz-elkarketarekin erlazio handia dute, baina Euskaltzaindiaren LEF batzordeak nahiago du horrelakoak hitz-elkartuetatik bereizirik mantendu.

²⁹⁶ Horrela pentsatzen duten hizkuntzalarien erreferentziak, Euskaltzaindiarenean (1991, 5). Ortiz de Urbina (1986) ere, auzia korapilatsuagoa dela onartu arren, atzizkien artean sartzearen aldeko da. Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegikoek (1989), aditz erazleei buruz ari direlarik, ez dute hitz-elkarketa inoiz aipatzen: "aditz erroari erantsitako morfema", "lexikoko afixu", "afixu edo hizki", "morfema lotua"... erabiltzen dituzte. Behin *aditz* deitzen diote, baina pixka bat aurrerago *aditz-atzizki*.

d. «*Emoçu fauore ta gracia... edoceyni, baytu cargu, eta cuydado arimen sauacioas.*»²⁹⁷ (I. Beriayn, *Tratado de como se ha de oyr missa, escrito en Pomance, y Bascuence, Lenguages de este Obispado de Pamplona*, Hordagolur, Donostia, 1980, 76. or.)

e. «Berze kreaturak ere ditut gonbidaturen, *ohore eta errespeto eman diezazuten.*» (J. Etxeberri, *Manual Devotioezkoa*, Euskaltzaindia, Bilbo 1981, 147. or.)

Horrelakoek, dena den, hasieran aipatu ditugun [X1eta X2] + Y egitura haren antz handia dute gehienetan. Eta gauza bera esan daiteke aditz-esapideen saileko besteez (*aditza + behar, nahi, gogo, uste (izan)...*) ere.

Laburtuz, beraz, ohartzen gara horrelako adibideak urri ditugula, eta izan litezkeenetan ere ez dela batere argi ikusten guk aztertu nahi dugun fenomenoaren erakusgarri direnik.

4.2.3. Ondorioak

Ikusi dugu hitz elkartuak juntatzen direnean zilegi izan litekeela hitzaren osagaietako baten elipsia, baina horretarako zenbait baldintza bete behar dira: menpekotasunezko hitz elkartuak ez izateak, hots-aldaketek eta lexikalizazio maila altuak, emankortasun urriko elkarketa-moldea izateak eta osagaien arteko erlazioak bi hitz elkartuetan desberdinak izateak oztopatu egiten ditu elipsoidun egiturak; aldiz, emankortasun handiko eta finkapen ahuleko hitz elkartuak juntatzean, edo sintaxiarekiko lotura nabarmena denean errazagoa da elipsia. Datu hauek, hasiera batean bederen, Hipotesi Lexikalistaren aurka doazela dirudi. Bestalde, adibide zuzenak eta okerrak bereizteko unean hitz elkartuen eremua zenbait ezaugarrirekiko guztiz homogeneoa ez dela ikusi dugu.

²⁹⁷ Adibide honetan agertzen zaigu, hain zuzen ere, horrelakoak hitz elkartutzat ez hartzeko argudioetako bat: osagai izan behar luketenak ez dira ordena finkoan agertzen, eta elkarrengandik bana daitezke.

4.3. ERATORPENA

4.3.0. Sarrera

Bi hitz eratorri elkartzean ere bada lehena eratorpen-atzizkirik gabe agertzeko aukera:

- (23) a. sei eta zazpigarren (=seigarren eta zazpigarren)
 b. azkar eta burutsuena (=azkarrena eta burutsuena)
 c. oihu eta txilioka (=oihuka eta txilioka)

Dena den horrelako egiturak ez dira zilegi atzizki guztiekin; ez dut uste ondorengo hauek ontzat emateko modukoak direnik:

- (24) a. *handi eta edertasun (=handitasun eta edertasun)
 b. *zikoitz eta zekenkeria (=zikoizkeria eta zekenkeria)
 c. *lapur eta harrapatu (=lapurtu eta harrapatu²⁹⁸)

Beraz, hitz-elkarketaren alorrean bezalaxe egoera deskribatzen eta jokaera desberdinen arrazoiak aurkitzen saiatuko gara atal honetan.

Aurrera jo aurretik, ordea, orain artekoan ez-ikusiarrena egin diogun auzi bat plazaratu nahi nuke: elkarketaren, eratorpenaren eta morfologia flexiboaren arteko mugena. Muga horiek, aski ezaguna da, ez dira guk nahi nahi genituzkeen bezain argiak. Adibidez, ikuspegi diakronikotik begiratuta gaur egun eratorpenean edo deklinabidean erabiltzen ditugun hainbat eta hainbat hizki garai batean morfema aske izanak dira; eta alderantzizko kasuak ere ez dira falta: hizki izatetik hitz beregain modura agertzeko eskubidea irabazi duten elementuak ere badira²⁹⁹. Guri une honetan ikuspegi diakronikoa ez baino sinkronikoa interesatzen zaigu, baina hor ere eztabaidak

²⁹⁸ Ortiz de Urbinak (1986) aditzak sortzeko *-tu* atzizkia morfologia flexiboaren barnean biltzeko zenbait argudio ematen ditu, baina momentuz ez ditugu kontuan izango.

²⁹⁹ Honela dio Oñederrak (1990,66): «It is often difficult to establish the limit between compounding and derivation historically. There have been numerous transitions from one area to the other. It is very often the case that an autonomous form becomes a suffix or that a suffix begins to be used as an autonomous word». Jarraian, horrelako zenbait adibide ematen ditu (*-koi*, *aizun*). Eta eratorpenarekiko loturaz ere hitz egiten du. Azkueren eta Mitxelenaren lanetan horrelako kasu ugari aurkezten dira.

daude: garbi bereizitako sailez hitz egitea baino egokiago da ziurrenik gradazioaz hitz egitea.

Eratorpenaren eta elkarketaren arteko mugaz ari delarik, honako hau galdegiten dio bere buruari Euskaltzaindiaren LEF Batzordeak (1987, 23): «Bukaeran *dun, gin/gile, zain/zale, bide, aldi, ola, tegi...* duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak?». Arazoak aipatu ondoren, honako hau esaten du (1987, 24):

«Bidegurutzera iritsitakoan, bide bat ala beste aukeratu beharra izaten da, eta bietako bat aukeratu du, hoberena delakoan, talde eragileak: dudazko kasuak, normalean, hitz-elkarketaren alorrean lantzekoa. Horren ondorioz, *-dun, -zain, -bide edo -aldi* modukoak hemen aztertzea pentsatua dago, (...). Momentuko komenentziaz gainera, arrazoi sendorik badagoela uste da, nolana ere, hainbat kasutan bederen egin den aukera babesteko.»

Geronek ere hauen arteko zenbait dagoeneko hitz elkartuen sailean emanak ditugu. Beste zenbait atal honetan emango ditugu. Ez genuke, dena den, eztabaida horretan gehiegi sartu nahi. Eratorpenari buruzkoetan gidatzeko Azkue (1923-25), Lafitte(1962), P. Mujika (1981), L.M. Mujika (1982) eta Villasanteren (1974) lanak ibili ditugu, eta autore hauek eratorpen-usaina izan zezakeen oro zaku honetan sartu zuten. Uste dugu, gainera, horrela jokatzuz garbiago ikusiko dela guk atera dugun ondorioa, alegia, eratorpenetik gertu dauden hitzak juntatzen direnean elipsia egon ahal izateko, eratorpenak bere bereak dituen eremuetatik urundu beharra dagoela, hitz eratorrietan oso nekez gertatzen direla $[X1 \text{ ETA } X2]+Y$ erako adibideak, eta agertzen diren apurretan sintaxiatik edo hitz-elkarketatik oso hurbil kokatzen garela.

4.3.1. Elipsoidunak zein?

Gorago esan dugun bezala eratorpen-atzizki zenbaitek onartzen ditu elipsoidun egitura hauek baina beste zenbaitek ez. Egia esan gehiago dira, askogatik, onartzen ez dituztenak onartzen dituztenak baino: eratorpen-atzizkien bildumetan agertzen direnetatik gutxi batzuk besterik ez dira juntatzean elipsia onartzen dutenak. Ondorengo hauetan guztietan, adibidez, ezinezko da bi hitzak eratorpen-atzizki bakarrarekin ematea:

- (25) a. *zabal eta luzera
 b. *goilare eta burduntzalikadak
 c. *aste eta urtekariak
 d. *alfer eta nagikeria

- e. *ardi eta txerriki
- f. *elur eta euriteak
- g. *morroi eta esklabutza
- h. *?jan eta edaleak
- i. *handi eta edertasun
- j. *gizon eta gizendu

Zerrenda nahi adina luza daiteke. Eta badira hauek baino adibide aldrebesagoak ere: (25)-eko guztietan juntaturako lehenengo zatia, hondakina, hitz beregain modura ager zitekeen, baina ez da hori gertatzen *hezkuntza*, *hizkuntza*, *prestatzaile*, *moldatazailer*, *ulergarri*, *sinesgarri* eta antzeko beste hainbatekin, eta ondorioz, zeharo eragotzia dute era honetako egituretan agertzea³⁰⁰. Orotara, beraz, zera esan dezakegu: hitz elkartuak juntatzean elipsirako aukera nahikoa zabala bazen ere eratorpenaren alorrean aukera hori oso murrizta dela.

Jarraian elipsia zilegi duten kasuak eta zalantzazko zenbait aurkeztuko ditugu, kontuan izanik alor honetan guztian bezala hiztunen arteko desadostasunak ugariak direla. Esate baterako, nik (25g)-n txartzat eman dudanaren pareko adibidea dakar Iztuetak:

- (26)
«... gordetzen zebala beretzat, eta bere ondorengoentzat konbentu onen *nagusi ta jabetza*». (Iztueta, *Gipuzkoako Kondaira*, 506)

Tradizioan era horretako adibideetan agertzen diren atzizkiak ere aipatu egingo ditut nahiz niri askotan hizkuntzaren erabilera arrunterako egokiak iruditu ez.

a) *TASUN*

(25e)-n *-tasun*-ekin sortutako eratorriak juntatzean elipsiaren bidea txartzat eman dudan arren testuetan horrelako zenbait aurkitu ditut:

- (27)
- a. «Zeñak argitara eman zituen bi liburu, bata, Sargazoren indarrak nolakoak diran eskorbutoren kontra, eta bestea, itsasoan dabillen jendeak izan oi dituen *gaixo ta eritasunean* gañean.» (Iztueta, *Gipuzkoako Kondaira*, 469)
 - b. «*Arrotz eta urrutitasuna* dugu hemen gailen.» (Mixelena, *EIG I*, 143)

³⁰⁰ Euskarazko artizkiekin zorrozki eragotzita daude horrelakoak.

c. «Aipatu aurreritzi eta teoria oker guzti hauek, aditzari buruzko atalaren *fidagarri eta sinesgarritasunaren* kaltetan doaz.» (Alberdi, X., 786 or., *ASJU XXIII-3*)

Nolanahi ere, nahiago dut adibide hauek salbuespen modura hartu, erregela modura hartu baino: aurreko atalean agertu den bezala, hizkuntza langai edo lanbide dugunok hiztun arruntek baino sarriagotan jo ohi dugu horrelako hitz-jokoetara, eta joera horrek esplikatuko lituzke, ene ustez, goiko adibide horiek³⁰¹.

b) *AR/TAR*

Elementu honen izaera oso argia ez bada ere, testuetan atzizki hau dutenen bi adibide elipsoidun aurkitu ditut:

(28)

a. «An dakuskitzun aiek *Sodoma ta Gomorratarrak* dira». (Gregorio Arrue, Mayetzeko illa, 54)

b. «Bere bitartez Iaungoikoak (...) *prantzia ta beljikatarrak* ezagutu eben antxiñetik (...). (Agirre, T., *Auñamendiko Lorea*, 168)

Baina berriro ere nahiago dut adibide hauek salbuespentzat hartu: ez dut uste, gaur egun bederen, ??*Azkoiti eta Azpeitiarrak*, ??*Bilbo eta Gasteiztarrak* bezalakorik esan dezakegunik, hizkuntza era oso markatuan erabili nahi ez badugu behintzat.

c) *TI/TSU*

Hiztun batzuek diote ugaritasuna edo adierazten duten atzizki hauekin era honetako elipsoidun adibideak (25)-ekoak baino zuzenxeagoak iruditzen zaizkiela:

(29) a. ?Koipe eta grasatsua zen Moxolo Potolo.

b. *?Negar eta kakatia izan genuen Joxe haurtzaroan.

Nik ez dut uste alde handirik dagoenik.

d) *AGO/EGI/EN*

³⁰¹ "Lizentzia" horren adibide polit bat Azkuek (1923-1925, 217) damaigu, *-egi* atzizkiari buruz ari dela: «Oihenart (...) tuvo la ocurrencia de valerse de este sufijo como si fuera un vocablo independiente: "Oy zerik du sudurra! ez egia ez apurra!" (... ni excesiva ni insignificante)»

Inolako arazorik ez dutenak izenondoan eta aditzondoan gradazioa adierazteko erabiltzen diren *-ago*, *-egi* eta *-en* atzizkiak dituztenak dira:

(30)

- a. Zere menpekorik *txiki eta azkenekoena* ere enzun gabe(Arrue, *Santa Genobeba*, 91)
- b. Miren baino bizkor eta argiagoa zen Peru.
- c. Herriko mutilik polit eta txintxoena zen Mikel.

Are gehiago, esango nuke aukera dagoen gehienetan elipsiarekin agertzen direla, ugariagoak direla elipsidunak elipsirik gabeak baino³⁰². Baina horrelakoak morfologiaren edo sintaxiaren barnean agertu behar diren ez dago argi.

e) *GARREN/NA*

Sintaxiaren eta morfologiaren artekoak dira ondorengo beste hauek ere:

(31)

- a. «Zer pribatan da *bedratzu eta amargarren* mandamentuetan? (*Erronk katetxima*, 47)».³⁰³
- b. «*Iru, lau, bost eta seigarrenez* be ekin yuen topeka ekiñalean, amorru biziz.» (Felix Bilbao, *Ipuin Barreka*, 271)
- c. Hamabi edo hamairuna azterketa zuzendu beharko ditugu.

Horrelako adibideak ere nahi adina aurkitzen dira testuetan, eta hiztunak erabateko aukera du iruditzen zaion bidea hautatzeko, baina ez dago argi horrelakoek hitz eratorpenaren barrutian bazkatzen diren.

³⁰² *-ago*, *-egi* eta *-en* atzizkiak deklinaturik agertzen dira askotan. Orduan, esango nuke joera dela edo gutzia isilik uztea, edo oso osorik ematea; gutxitan aurkituko ditugu elementu bata agerian eta bestea isilean duten adibideak, nahiz horrelakorik ere agertzen den: «Hemen duzu, irakurle, gure artean eta gure hizkuntzaz inork inoiz mundura duen bere baitariko idazlan sorta **handien eta mardulenetako** bat, "tupikia baino oraitarri iraukorragoa" zuzen onez dei dezakeguna, (...)» (Blanka Urgell, Patxi Altuna, Joseba Lakarra, Ibon Sarasola, EIG I, 11)

³⁰³ Gauza bera agertzen da *katetxima* horren zaraitzerako eta erronkarierako itzulpenetan ere: zaraitzeraz, «Zer pribatzen da *bedratzi eta amargarren* mandamentuan?; aezkeraz, «Zer debekatzen da *bedratzi eta amargarren* mandamentuetan?». Kontuan izan, baita ere, numeroaren aldetiko desberdintasuna: erronkarieraz eta aezkeraz pluralekoa (*mandamentuetan*) eta zaraitzeraz singularrekoa (*mandamentuan*). Lehen esan dugun bezala, bata ala bestea hautatu aukeran du hiztunak.

f) *KA*

Atzizki berezixeagoen artean aditzondoak sortzen dituen *-ka* atzizkia daukagu:

(32)

a. «Ez da harritzeko beraz Ulysssek Poseidon'en estatua itsasora amiltzea film honetan, eta *oihu eta garraxika* aditzera ematea bere izena Tartalo begi-bakarrari.» (Mitzelena, EIG I, 147)

b. «Goizion, okotzetik burdiña bat sartute, eroan dabe kanpora Potxolo *txilio ta orruka*.» (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 67)

Adibide hauek guztiz arruntak dira eta ez dute inolako oztoporik eragiten. Gogoan izan behar dugu, halere, *-ka* atzizkia hitzei ezezik sintagmei eta sintagmak baino handiagoko beste zenbait osagairi ere lot dakiekeela:

«Alguno que otro sufijo se aplica, no sólo a un vocablo aislado, sino a todo un grupo articulado o miembro de frase; por ejemplo, en "uts ala beteka" (B) jugar a esconder un objeto pequeño en una mano, cerrando las dos; (...); "urde, deabru eta sathorka" llamándose cerdo, diablo, topo;» (Azkue, 1923-25, 23 or)

Beraz, berriro ere ez da batere ziurra hitz-eratorpenaren barnean ari garen.

g) *DUN*


Gauza bertsua gertatzen da *-dun* atzizkia erabiliz sortutakoekin ere:

(33)


An aurrean su-iltzaille sailla dago beren *jantzi berezi ta kaskodunak*. (Labayen, *Su-emailleak*, 165)

Era honetakoak sortzeko ez dago arazorik (*txaketa eta korbatadunak*, ...), baina *-dun* hitzei ezezik sintagmei ere erants dakieke: *inor baino bizar handiagoduna* (Azkue 1923-25, 23), *azkazal garbi gorritzadun* (Euskaltzaindia 1991, 241). Bere jatorria eta erlatiboekiko lotura garbiak dira guztiz, beraz, behin gehiago, sintaxiarekiko mugan gabiltza. Eta sintaxiarekiko, edo zehazkiago esan, aditzekiko lotura dagoen guztian bezala, zalantzak sortzen dira ondorengo bi interpretazio hauen artean: 1) X1 ETA [X2+Y]; 2) [X1 ETA X2] + Y. Gure adibideei begira, badirudi (2) erakoak direla, eta ez (1) bezalakoak; alegia, (34) egituraren antzeko zerbait ez,

(34)



baizik eta (35)-eko egiturari dagozkiola:



Analisi hau onartuz egitura hauek hitz elkartuetako *kotxe eta furgoneta saltzaile* haien pareko izango genituzke. Dena den, hitz elkartuetan goiko bi egitura horietatik edozein hautatzeko aukera bagenuen. Ikusi beharko litzateke, beraz, eratorpenean ere aukera bera daukagun. Eta nik esango nuke interpretazio hori gehiago kostatzen zaigula:

(36)

- a. ??Txima eta korbata dunak nekez ikusten dira taberna berean.
- b. ?Pena da seiscientos eta merdedesdunek erregaia prezio berean ordaindu behar izatea.

h) *ERO/ORO*

-ero/-oro atzizkiaz osatutakoak ere eragozpenik gabe ager litezke juntaduran elipsiarekin, eta goiko (1) interpretazioa zilegi da:

(37) Minutu eta segunduoro zugan pentsatzen dut.

Jakina, elementu hori hitz nahiz atzizki izan daiteke -lehena zein zen gutxi axola gure gairako-, eta horrek damaio, ziurrenera, elipsoidun egitura hauetarako hain sarpide eroso.

i) *GABE*

Arazo bertsuak plazaratzen dizkigute elementu hau erabiliz sortutakoek ere:

(38) Lotsa eta kupidagabeak

Hauek dagoeneko hitz elkartuen sailean eman ditugu; sintaxiarekin duten harreman estua aipatzeke geratu zaigu, ordea. Izan ere, *lotsa eta kupidarik gabeak* adibidez aurrekoaren pare-pareko da, eta bistakoa denez, nekez sar daiteke elkarketaren edo eratorpenaren eremuan. *Kupidagabeak* bezalako bat hitz den edo sintaxi-eraikuntza den azentuak argituko digu nagusiki. Eta hitz elkarketaren atalean finkapen lexikoaz esan duguna argitzeko ere adibide egokiak dira: *lotsagabe* finkatuago dago *begirunegabe* baino; horregatik, errazago esando dugu *?lotsa eta begirunegabeak*, **?begirune eta lotsagabeak* baino; bigarren hau onargarri egiteko *lotsagabe* hitzari intonazioa aldatu beharko genioke.

j) *GIN/GILE/GINTZA*

Eratopenaren barrutiaren oso ertzean aurkitzen dira, halaber, *-gin*, *-gile*, *-gintza*, eta hauen familiakoak. Ziurrenera esan daiteke:

(39) Abarka, soka eta lapikogile asko bildu ziren atzoko azokan.

Baina hitz elkartuekin lotura estua du: beregaintasuna galdua du, baina hitz zeneko ezaugarriak oraindik gordetzen ditu. Era honetako adibide bat:

(40)

«Ez da kasualitatea *olerki eta ipuingintzan* izen batzuk errepikatzea, bide hori -eta norabide horrexetan- egin baitute gure idazle askok.» (X. Mendiguren Elizegi, 1993, "Gure literatura garaikidea", *Jakin* 76, 100)

k) *ZALE*

Antzeko arazoak ditugu *zale*-rekin ere. Goian esan bezala, Euskaltzaindiaren LEF batzordeak nahiago du hitz elkartuen artean sartu, eta beregaintasun lexikoaren aldetik behintzat ez zaio arrazoirik falta: *zale*-k ez du arazorik bakar bakarrik agertzeko. Adibidez, beste batzuen ondoan, ondorengo hauek ere zilegi dira:

(41) a. Jakintsu handiak ez dira ozenegi hitz egiteko zale.

b. Lehenago ere zalea da San Andresetan elurra egiten.

Gainera, hitzak baino handiagoko osagaiei ere erants dakieke: *txokolate bero zale*, *arraultza frijitu zale*, *teoria handi eta solemne zale*, etab. Horrela esplika liteke Euskaltzaindiareneko (1991, 387) *bertso ta bertsolarizale* edo Mogelen ondorengo hau bezalakoak sortzeko arazo gutxi izatea:

(42)

«Ona ejenplutxu bat konfessore on batek dakus, konfesetara etorri jakon gazte bat, dala *danza eta piesta zalia*; » (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 213)

Baina berriro ere badirudi [X1 ETA X2]+Y interpretazioa dugula errazena, ez guri interesatzen zaigun X1 ETA [X2+Y].

-*zale* erantsiz eratutako beste zenbait hitzetan, ordea, ezinezkoa iruditzen zait elipsia: *esnezale* esnea ekartzen edo saltzen duenari deitzen zaio, eta *ardozale* ere, besteak beste, ardoa etxera ekartzen edo saltzen duenari; biak pare pareko hitzak dira, beraz. Hala ere, ondorengo adibide hau ez zait zuzena iruditzen:

(43) *Esne eta ardozaleak desagertzen ari dira Euskal Herriko kaleetatik.

Berdin (44) adibidearekin ere:

(44) *kamioi eta kotxezaleak gaizki konpondu ohi dira errepidean.

kamioizaleak kamioi-gidariak izan ohi dira, eta *kotxezaleak* kotxe-gidariak, baina hala ere juntatzen direnean -*zale* ez dago isilean uzterik. Alde horretatik eratorpen-atzizki arruntek bezalako jokabidea dute, eta -*zale* erabiliz eratutako aurreko adibideetatik alden du egiten dira, bai jokaeraren aldetik (izenei bakarrik erants dakieke, eta izenak sortzen ditu) bai esanahiaren aldetik.

1) *Handigarri eta txikigarriak*

Handigarri eta txikigarrien saila eratorpen atzizkien artean sail berezitzat hartu izan dute gai hau aztertu duten autore gehienek: badirudi beste eratorpen-atzizkietatik desberdin jokatzen dutela aldaketa fonologikoekiko, syntaxira lerratuago daudela. Ondorioz badirudi atzizki bereko bi hitz juntatzen direnean bietatik bat elipsiarekin agertzeko ere atzizki arruntek baino arazo gutxixeago beharko luketela:

(45) a. ?Zakur eta katutxo haiek babesak behar zuten, bezperan jaiok baitziren.

b. ?Saski eta poltxaska haietan ezin perretxiku gehiegirik eraman.

c. ??Izugarrizko kotxe eta etxetzarrak zeuzkan Duvalierrek.

Baina guztiak ere badaezpadako samarrak dira, eta gogoan izan behar dugu azken honek adjektiboekin lotura izan dezakeela.

m) *Aurrizkiak*

Eratorpenaren barneko beste sail bat aurrizkiena da; sail urria, euskarari dagokionez, juntatu ondoren elipsirik onartzen ez duena:

(46) *?birraitona eta amona ugari bildu ziren Maulen.

4.3.2. Ondorioak

Laburtuz, beraz, hitz eratorriak juntatzen direnean, oso nekez uzten da elementuren bat isilean, eta uzten denean sintaxiarekiko edo elkarketarekiko lotura nabaria izaten dute.

4.4. HITZ-ERAKETAKO ELIPSIAK

4.4.0. Sarrera

Atal honen hasieran esan dugun bezala, gai honek oso hizkuntzalari gutxiren arreta erakarri du: juntaduretako elipsiak aztertu dituztenek oroz gain perpaus-mailako auziak izan dituzte hizpide, eta bai guk sintagmaren maila deitu dioguna bai hitz-eraketarena baztertuxeak geratu dira.

Baina hitz-eraketaren inguruko azterketen bilakabideari buruz esanak gogoratzen baditugu ohartuko gara hango eztabaidagai nagusienetako batean zeresana izan dezakeela: Hipotesi Lexikalistaren egokitasunean hain zuzen ere. Izan ere, Hipotesi lexikalistak zioen osagai sintaktikoko operazioak osagai morfologikoko elementuei ezin dietela erasan; hemen, ordea, ingurune sintaktiko batean, juntaduran, osagai morfologiko baten elipsia gertatu da.

Auzi honi heltzen dioten zenbait lan izan dira. Booij-ek (1984), esate baterako, nederlanderako hitz elkartuak nahiz hitz eratorriak juntatzen direnean gerta daitekeen elipsiaren berri ematen digu (Booij 1984, 143):

(47)

- a. [minimum]_N [bedragen]_N [en]_C [[maximum]_N [bedragen]_N]_N
 [minimum]_N [∅]_N [en]_C [[maximum]_N [bedragen]_N]_N
 'minimum amounts and maximum amounts'
- b. [[onderzoeks]_N [doelstelling]_N]_N [of]_C [[onderzoeks]_N [belangstelling]_N]_N
 [[onderzoeks]_N [doelstelling]_N]_N [of]_C [[∅]_N [belangstelling]_N]_N
 'research goal or research interest'
- c. freundschaft oder feindschaft
 freunds- oder feindschaft
 'Friendship or animosity'

Eta jarraitzen du:

«This type of coordination reduction is peculiar in that internal parts of words are affected by a deletion rule that looks like a syntactic rule, since it is conditioned by

the presence of coordination. Thus, this phenomenon seems to violate the principle of Lexical Integrity, which states that the internal structure of words is opaque to syntax, a principle that is also known as the Generalized Lexical Hypothesis (Lapointe 1979:22) or the Word Structure Autonomy Condition (Selkirk 1982:70).»

Booij-ek esaten duenez (47)-ko adibideen jatorrian ezabaketa dago. Eta ezabaketa badago Hipotesi Lexikalista zalantzan jartzeko arrazoiak izango genituzke. Baina ez da hori horrelako adibideen aurrean egin den analisi bakarra; gure lanean zehar beste ataletan gertatzen zen bezalaxe orotara ondorengo hiru bide hauek erabili izan dituzte hizkuntzalari desberdinek:

- Oinarritiko juntadura: Quirk eta bestek (1985, 632) *The patient was carefully observed in the [pre and post-operative] phase of treatment* bezalako batean *pre* eta *post* elkarrekin oinarritik juntatuta daudela defendatzen dute: *[[pre and post]-operative]*.

- Kategoria hutsa: Bosque-k (1987) dio *coaliciones pre y poselectorales* bezalako adibideetan oinarritiko kategoria isil bat dagoela: *[pre-ø y poselectorales]* .

- Ezabaketa: Dagoeneko Booij-en lanean (1984) aipatua, eta alemanierako adibideak aztertzen dituzten Höehle-k (1985) eta Toman-ek (1985) ere ontzat ematen dutena.

Guztiek hizkuntza desberdinetako adibideak darabiltzate, baina pentsa liteke era honetako fenomeno batek hizkuntza guztietarako analisi bakarra beharko lukeela. Geroago hitz egingo dugu auzi horretaz. Orain jarraian analisi desberdinak xehetasun handiagoz aurkezten saiatuko gara. Lehenik kategoria hutsaren analisia oinarritzat hartuz Bosque-k (1987) egindako lanaren berri emango dugu. Ondoren ezabaketa dagoela proposatzen duten lanak aurkeztuko ditugu. Gai honi buruz aurkitu dudana analizirik xehenean Booij-ek (1984) ezabaketa egitura prosodikoko elementuei aplikatzen zaiela aldarrikatzen du. Höehle-k eta Toman-ek ere oso antzeko analisiak egiten dituzte. Ondoren proposamen horiek euskarako datuekin alderatuko ditugu, eta ikusiko dugu analisi horiekin ez datozela bat. Egoera horrek eragiten dizkigun zenbait arazoren berri emango dugu ondoren.

4.4.1. Kategoria isila: Bosque (1987)

Artikuluaren zatirik handiena gazteleraizko izenordain-klitikoei buruzkoa da, baina gureen parekoago diren zenbait adibide ere aztertzen ditu: *coaliciones pre y poselectorales, la situación política en centro y suramérica, reacciones de filo y antiamericanismo...* Gazteleraizko adibiderik gehienak era honetako aurrizkiak dituztenak dira. Baina badu beste era bateko bat ere: *pura y simplemente, radical y totalmente*; alegia, *-mente* dutenak. Aurrizkidunak hitz-elkarketako adibidetzat hartzen ditu, eta gauza bera egiten du *-mente* erantsiz osatutakoekin: diakronikoki hitz aske izana da, eta oraindik ere gordetzen du bere azentua.

Analisiari dagokionez, oinarritiko juntaduraren hipotesia alde batera uzten du, bestela zenbaitetan osagai ez direnak juntatu beharko baikenituzke:

(48) *coaliciones pre e incluso poselectorales*

Aldiz, ezabaketa dagoela onartuko bagenu Hipotesi Lexikalistaren aurka joango ginatke, eta Bosque-k ez du horrelakorik nahi. Orduan, irtenbide bakarra adibide horietan kategoria isil bat dagoela aldarrikatzea da.

Kategoria isil hori Bosque-ren ustez hitz elkartuetako ardatza da, aurrizkidunetan aurrizkiak berak gobernatua eta *-mente-z* osatutakoetan bere aurretik doan izenondo izaerako erroak gobernatua. Uztardura berriz kataforikoki gertatuko litzateke. Era horretara sintaxiko operazioek ez lukete osagai morfologikoan sarpiderik izango, baina morfologiak sintaxiaren oso pareko ezaugarriak izango lituzke (Bosque 1987, 98):

«En resumen, el fenómeno gramatical (...) no debe ser interpretado como una prueba de una inexistente coordinación de dos fragmentos de una palabra, sino, por el contrario, como muestra de que pueden postularse en la morfología principios análogos a los que regula la distribución de las categorías vacías en la sintaxis.»

Bai kategoria isila gobernatzeko proposatzen duen bidea bai uztardurarakoa ezohikoak dira, eta lan honek jarraipenik izan ez duenez aurrerantzean ez dugu kontuan izango.

4.4.2. Ezabaketa, hitz fonologikoak eta egitura prosodikoa

Beste askok osagai-juntadurarako proposatu duen moduan, bi eratako egiturak ikusten ditu Booij-ek; batzuetan ez dago ezabaketarik, ez isilean gordetzen den elementurik:

(49) Kat-en-muis- spelletje
(‘Cat-and-mouse-game’)

(50) Gooi-en-smijt-films
(‘Throw-and-throw-films’)

baina gehienetan, esaterako (47)-n, elementu bat falta zaigula esaten du, eta horrelakoetan ezabaketa egon dela aldarrikatzen du (Booij 1984, 145-146). Adibidez, ondorengo honetan ezin omen da oinarriko juntadura proposatu, *derde* eta *een zesde* juntatu beharko genituzkeelako eta *een zesde* osagai ez delako (eta horrez gain, *tussen-*ek pluraleko adiera duen osagarri bat eskatzen duelako, eta *derde-en-een-zesde-klusser* oinarrian sortua balitz singularra izango litzatekeelako):

- (51) a. Het verschil tussen een derdeklusser en een zesdeklusser
b. Het verschil tussen een derde- \emptyset en een zesdeklusser
(‘The difference between a third-former and a sixth-former’³⁰⁴)

Geuk ere bereizi ditugu euskararako bi egitura-mota horiek, lanean zehar ‘interpretazio’ deitu badiegu ere.

Bere lanerako alemanierako eta nederlanderako hitz-eraketa aztertzen du Booij-ek. Hitz-elkarketaren alorrari dagokionez ez du inolako debekurik edo onargarritasun-mailaketarik aipatzen, juntatutako hitz elkartu guztiek elipsirako aukera osoa balute bezala hitz egiten du. Eratorritako hitzak juntatzean, ordea, zenbait atzizkirekin bakarrik dago elipsirako aukera:

- (52) a. zwangerschap en moederschap
b. zwanger- \emptyset en moederschap
(‘pregnancy and motherhood’)

- (53) a. blauwig en rodig
b. *blauw- \emptyset en rodig
(‘bluish and reddish’)

Booij-entzat arazoa, beraz, ezabaketa onartzen duten elementuek komunean zer ezaugarri duten definitzea da, jokaera desberdin hori zerk eragiten duen aurkitzea. Eta aldarrikatzen du ezabaten direnek hitz fonologiko behar dutela izan. Hitz fonologiko horiek egitura prosodikoko osagai dira. Definizio zehatzik ez du ematen baina

³⁰⁴ Beste bi argudio ere ematen ditu: nederlanderako elkarketan agertzen diren loturazko fonemen jokaera eta elkarketetako zenbait osagairen esanahi idiosinkratikoa eta kategoria-desberdintasunak.

ondorengo hauek aipatzen dira: 1) Zenbait hizkuntzatako artikulua, klitikoak eta antzekoak ez dira hitz fonologiko, aurreko edo ondorengo hitzarekin bat eginik baitoaz (adibidez, latinezko *-que* eta *-ve* juntagailuak); 2) Hitz sintaktikoa baino txikiagoko hitz fonologikoak badira, adibidez, neerlandeko hitz elkartuetako osagaiak, eta zenbait eratorpen-atzizki.

Hitz elkartuetako osagaiak hitz fonologiko direla defendatzeko ondorengo argudio hauek ematen ditu:

- Hitz elkartuetako mugak silaben mugekin bat datoz, nahiz horrek askotan Maximal Onset Principle delakoa bortxatu (Booij 1984, 149).
- Ondorengo adibideek erakusten duten bezala, ezabaketa egiteko unean hitz arruntan pare-pareko agertzen dute beren burua (Booij 1984, 143):

(54) [[[ijs]_N [beren]_N]_{NP} en [[bruine]_A [beren]_N]_{NP}
 [[[ijs]_N [∅]_N]_{NP} en [[bruine]_A [beren]_N]_{NP}
 polar bears and brown bears

(55) [[Amerikaanse]_A [talen]_N]_{NP} en [[[Papoea]_N [talen]_N]_{NP}
 [[Amerikaanse]_A [∅]_N]_{NP} en [[[Papoea]_N [talen]_N]_{NP}
 American languages and Papua languages

Lehenengo adibidean ezabatzen den *beren* hitz elkartu bateko parte da, baina berarekin koordinaturik doana ez da hitz elkartua, izen sintagma bat baizik, adjektiboa+izena segida bat. Antzera gertatzen da bigarren adibidean ere: *talen* ezabatzen da, izen sintagmaren barnean adjektibo batekin doan izen bat, osagai hori *talen* buru duen hitz elkartu batekin juntatzen denean. Honek erakutsiko luke, autorearen ustez, ezabaketa kontuetarako hitz sintaktiko askeak eta hitz elkartuetako osagaiak maila berekoak direla: alegia, biak hitz fonologiko direla.

Horrelako egituretan parte har dezaketen eratorpen-atzizkiei buruz berriz honako hauek esaten ditu³⁰⁵:

- Hitz elkartuen azentukera bera dute.
- Atzizkiaren mugak eta silabarenak beti bat etorri ohi dira, nahiz horrek Maximal Onset Principle delakoa bortxatu (Booij 1984, 152).

³⁰⁵ Ezaugarri bertsuak dituzten beste hitz-sail bat ere aipatzen du: «words with morphemes which are neither affixes nor lexical morphemes, but roots borrowed from Greek and Latin». Horrelakoez ez dugu hitz egingo, baina ez zait iruditzen euskaraz horrelako egiturak artikulua horretan erakusten den bezain erraz sortzen direnik: beharbada hizkuntzatik hizkuntzara aukera estilistiko desberdinak egongo dira.

- Neerlanderako zenbait arau fonologikoren salbuespen dira, beste eratorpen hizkietatik urrunduz (Booij 1984, 153).
- Jokaera hau duten atzizkiak antzinako hitz sintaktikoetatik sortuak dira.

Datu guzti hauek kontuan izanik, Booij-en ondorioa da ezabaketa erregela hau erregela fonologikoa dela, eta ez erregela sintaktikoa: ingurune sintaktiko jakin bat beharrezko badugu ere -juntadura-, osagai fonologikoei ezartzen zaie, ez osagai sintaktikoei edo morfologikoei. Zehazkiago, Selkirk-en (1980) modeluari jarraiki, modelu horretako egitura prosodikoak izango luke garrantzia³⁰⁶, eta isilean utzi behar diren elementuek -osagai prosodiko deitzen die- maila prosodikoko berdintasuna beharko lukete, ez sintaxi-egiturakoa edo morfologiakoa. Era horretan adibide hauegatik bederen hasieran aipatu dugun Hipotesi Lexikalista bere horretan mantentzeko arazorik ez litzateke izango.

4.4.3. Juntadura eta muga morfologikoak

Höhle-k (1985) eta Toman-ek (1985) ere ezabaketa jartzen dute era honetako adibideen iturrian: (56) bezalako adibideak ezin esplika omen litezke oinarriko juntaduraren bidez, bide hori hautatuz izaera oso desberdineko juntagaiak izango baikenituzke.

(56)
 ...weil sie die Wiederaufnahme der Inlands- und des größten Teils der
 because they the resuming of internal- and of-the larger part of-the

Auslandsflüge angekündigt haben
 foreign-flights announced have
 'because they have announced re-opening of internal flights and of the larger part of foreign flights'

Alegia, juntagailuaz ezkerretara hitz konposatu baten zatia daukagu (*inlands-*), baina eskuinetara agertzen den segida konplexuagoa da eta ez dago osoki hitz elkartuaren barnean biltzerik; beraz, oinarritiko zuzeneko juntadura ezinezkoa izango genuke.

Elipsia onartzen duten elementuez ere bat datoz: juntatutako hitz elkartuetan ez dute inolako debekurik aipatzen; hitz eratorrietan ezaugarri jakinak dituzten atzizkiekin bakarrik dira zilegi. Atzizki-multzo horren ezaugarriak eta lehenago Booij-enetik aipatu

³⁰⁶ Erregela fonologikoen artean bi mota desberdin bereizten ditu: *L(abeled) B(racketing)-domain rules* eta *prosodic domain rules*.

ditugunak pare-parekoak dira: silabifikazioan, ahoskabetzetan nahiz *glotal stop* direlakoekin hitz solteek eta elkarketetako osagaiek bezala jokatzeko dute; hitz eratuetakoko osagaiekiko berdintasunaz hitz askeak ezaba daitezke (Höhle, 335-341). Ondorengo baldintza hau jartzen du Toman-ek (1985, 429) juntatutako hitz eratuena elipsirako:

« Both targets and remnants of deletion must have word status.

(Together with Höhle we assume that the strong boundary (#) is an adequate marking for word status)

We see that under this formulation the internal structure of words such as compounds or words derived by strong affixes is interpreted as transparent, whereas material introduced by weak boundaries cannot be factorized by the deletion rule. Thus the idea that words are islands seems basically correct. The only point which has to be made explicit is that word-complexes consisting of material which has word status of its own are transparent.»

Alegia, autore hauen ustez, hitz-izaera duten elementuak bakarrik utzi ahal izango genituzke isilean; baina inon ez da maila prosodikoaren edo hitz fonologikoen aipamenik egiten; aldiz, Hipotesi Lexikalistaren zehar-aipamena badago («...*the idea that words are islands...*»), eta arau fonologikoei jarritako muga morfologikoei buruz ari direnez, egokiena hitz morfologikotzat hartzea izango dela ematen du.

4.4.4. Euskara, hitz fonologikoak, eta muga morfologikoak

Booij-en eta Toman eta Höhle-ren analisisiek desberdintasunak badituzte, baina parekotasunak ere nabariak dira, eta euskararen datuekin alderatzerakoan biak batera bilduko ditugu. Alderaketa horretan ohartuko gara euskararen datuetatik abiatuz nekez eraik daitekeela era horretako hipotesirik: Booij-en hitz fonologikoak behinik behin arazo larriak ditu.

Booij-en hitz fonologikoen hipotesia euskarara hedatzeko arazorik larrienetako bat deklinabidean parte hartzen duten elementuek sortzen digute. Booij-ek hitz fonologikoaren definizio zehatzik ematen ez badu ere, aipatzen dituen puntuen arabera pentsa liteke gure deklinabideko elementuak (artikulua, kasu-markak) ez lituzkeela hitz fonologikoen barnean sartuko: are gehiago, badirudi horrelakoak multzo horretatik bereiztea dela bere xedea. Baina, sintagma mailako elipsiei eskaini diegun atalean ikusi dugu juntaduretan isilik geratzeko aukera badutela. Beraz, hitz fonologiko ez direnekin ere agertzen dira euskaraz elipsidun egiturak.

Bestalde, beren hipotesiak sostengatzeko Booij-ek neerlandararako eta Toman-ek eta Höhle-ek alemaniararako ematen duten datu garrantzitsuenetako bat euskararako ez da zuzena: esaten dute hizkuntza horietan gerta daitekeela ezabatutakoa hitz elkartu edo hitz eratorri bateko osagai izatea, eta agerian geratzen dena izen sintagma bateko elementu izatea -edo alderantziz-, baina euskaraz horrelakoak egiten saiatzen bagara, ene ustez bederen, adibide okerrak lortzen ditugu:

- (57) a. *Ardiaren eta behi-esneak
 b. *Hegoaldeko eta ifar-haizeak
 c. *Azukrearen eta gatz-ontzia

Horrelako bi adibide aurkitu ditut, baina niri ez zaizkit zuzenak iruditzen:

(58)

- a. «Euskal Autonomi Elkarteko Oinarrizko Curriculum Diseinuak Euskal Herriarekin zerikusia duten gaiak ukitzen ditu, *Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan*.» (Eusko Ikaskuntzaren XII Kongresua, Lehen Agiria, 6. orria)
- b. «*Eskenatokiko eta ikuslego-jendea txaloka behin eta berriz hasi*.» (Martin, E & Zorroza, X., 1985, *Andre Zuria*. Euskaltzaindia & Bizkaiko Aurrezki Kutxa)

Azkenik, eratorpen-atzizkiei buruzko aldarrikapena dago. Booij-en eta Toman eta Höhle-ren arabera horrelako egituretan parte hartzen duten eratorpen-atzizkiek multzo berezi bat osatzen dute, eta azentukeraren eta zenbait arau fonologikorekiko jokaeraren aldetik beste eratorpen-atzizkietatik aldendu egiten dira. Euskaraz, ordea, Txillardegik (1984) eta Hualdek (1991) ematen duten informazioari jarraituz ez dirudi proposamen horri eusterik dagoenik³⁰⁷.

Txillardegiren lanean (1984) zenbait atzizkiren jokaera aztertzen da³⁰⁸, azentuarekikoa bereziki, baina baita beste zenbait arlotakoa ere: bokal luzeak, asimilazio desberdinak, sinkopak, hasperena, etab. Horren arabera bi atzizki-mota desberdinez hitz egiten du: batzuek beren azentu propioa dute eta zenbait erregela fonologikotara ez dira makurtzen, eta ondorioz, muga gogorra edo dutela esaten du (-*garren*, -*dun*, -*tar*, -*ka*, -*ago*, -*ena*, -*tasun*, -*garri*, -*ki* ...); beste zenbait atzizki, eta

³⁰⁷ Antzerako auziak darabiltzan arren Ortiz de Urbinaren lana (1986) ez da gaia bere osotasunean biltzeko asmoz egina, eta alde batera utziko dugu. Dena den, han esaten direnek ez dute juntatutako hitz eratorrietako elipsiei buruz dugun ikuspegia aldatzen.

³⁰⁸ Bereziki bigarren atalean (Txillardegi 1984, 213-235), baina hizkera desberdinak aztertzen dituenean ere bai.

atzizki ez diren elementu batzuk ere bai, azentugabeak dira eta erregela fonologiko horiei ez diete oztoporik jartzen. Hualderen gogoetak ere (1991) bide bertsua hartzen du: bokal asimilazioei, palatalizazioari eta glide-en gehiketari begiratu eratorpen-atzizkien artean bi multzo bereiztea proposatzen du: batzuk inflexioarekin batera lerratuko lirake, besteek elkarketarekin egingo lukete bat. Atzizkien sailkapen xeherik egiten ez badu ere nahikoa garbi geratzen da Txillardegiren ildo bera dabilela.

Banaketa hauek, bistan dago, Booij-ek eta Toman eta Höehle-k egindakoen antz handia dute, oso antzeko irizpideak darabiltzate, eta pentsa liteke emaitzak parekatzeko modukoak direla. Hala balitz, eta Booij, Höehle edo Toman-en proposamena euskarara hedatuko bagenu, muga gogorragoa duten elementu horiek juntadura dagoenean isilean uzteko ez genuke arazorik behar; alabaina, ikusi dugu *-tasun*, *-garri*, *-ki*, *-ko* (*zezenko*), *-tar*... bezalakoekin horrelako egiturak sortzeko arazo larriak ditugula, eta orotara zalantza artean mugitu beharko dugu. Ez dirudi, bada, hitz fonologikoaren edo muga morfologiko gogorraren kontzeptuekin euskaraz urrunegi ailegatzen garenik: egia da isilean utz daitezkeenetako askok ezaugarri horiek betetzen dituztela; ez da segurua, ordea, ezaugarri horiek dituzten guztiak isilean utz daitezkeenik; ezta ez dituztenek horrelako egituretan agertzea zeharo debekaturik dutenik ere.

Euskaraz zail da, beraz, hitz eratuak juntatzen direnean elipsirako aukera dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa hitz fonologikoen bidetik esplikatzen: hitz elkartuek baldintza jakin batzuk bete behar zituzten; eratorrietan, berriz, oso gutxi dira horrelakoak onartzen dituztenak, elkarketara edo syntaxira hurbiltzen direnak hain zuzen ere. Ohartzen gara juntatutakoan elipsia onartzen duten eratorpen-atzizki askok azentukeraren aldetik, eta agian zenbait arau fonologikoren aurrean ere bai, beste atzizkietatik bereizten dituzten zenbait ezaugarri badituztela, baina beren jatorri bereziaren isla besterik ez dela iruditzen zait; jatorri bereziaren isla, eta agian oraindik duten izaera bereziaren isla.

Ondorioz, datu hauek kontuan izanik ez genuke Hipotesi Lexikalista Booij-ek gordetzen duen eran gordetzerik izango: ezabaketa-arauak maila morfologikoko elementuei ez baina maila prosodikokoei erasaten diela aldarrikatuz Hipotesi Lexikalistak ez du arazorik Booij-en aburuz, baina euskaraz ez dirudi hitz fonologikoetatik abiatuz datuak esplikatzeko aukerarik dagoenik. Ohartzen gara fenomeno berari bi hizkuntzatan analisi desberdina ematea ez dela inolaz ere irteerarik desiragarriena, baina ikuspegi orokorrigo bat izateko hizkuntza gehiagotako datuak beharko genituzke. Nolanahi ere, ez dut uste hitz elkartuek eta eratorriek juntaturako elipsietan duten jokaerak nahitaez Hipotesi Lexikalistaren aurka egitera bultzatu behar

gaituenik: ene iduriz hemen erabili ditugun adibideek juntagaien osagaitasunari buruzko eztabaidaren barnean txertatu behar dira (5.4. atala), eta ez Hipotesi Lexikalistaren egokitasun edo desegokitasunari buruzko eztabaidan.

4.5. ONDORIOAK

Juntaturari buruzko lanetan hitz-eraketa gutxitan hartu izan da kontuan, baina guk atal honetan ikusi dugu syntaxiko elementuak ezezik hitz eratu osagaiak ere koordina litezkeela, edo nahiago bada, hitz eratuak juntatzean ere badirela elipsoidun kasuak. Hitz elkartuen artean era honetako adibideak nahiko ugariak ziren, baina zenbait baldintza bete behar zituzten: hitz elkartu kopulatiboetan horrelakoak debekaturik zeuden, eta menpekotasunezkoetan ere zaila zen izen elkartuetatik kanpora horrelakorik aurkitzea; bestalde, lexikalizazio-maila handiak, aldaketa fonologikoak jasan izanak eta bi hitzetako osagaien artean erlazio-parekotasunik ez izateak oztopatu egiten dituzte era honetako juntaturak; aldiz, hitz elkartu sintetikoetan edo semantikoki mugakizun irekia dutenetan, osagaien arteko erlazioa oso erregularra dutenetan, eta emankortasun handia eta finkapen-maila apala dutenetan askoz errazago aurkituko ditugu. Eratorpenaren alorrean aukera hori askoz murriztagoa: elkarketarekin edo sintaxiarekin erlazioa duten elementuekin bakarrik ziren zilegi era horretako egiturak. Era honetan, beraz, euskarako datuak beste zenbait hizkuntzatarako egindako lanetatik aldendu egiten dira.

Egitura hauen berri emateko proposatu diren hurbilketa desberdinak ere (oinarritiko juntadura, kategoria isila, ezabaketa) aipatu ditugu. Funtsean izen sintagmetan sortzen zitzaizkigun gogoeta berberak izango ditugu. Pentsa dezagun izen elkartu bat daukagula, adibidez, *ekonomia-arazo*. Maila morfologikoan honelako egitura eman beharko genioke, osagai bakoitzaren ezaugarriak alde batera utziz:

$$[[I]+[I]]_I$$


Pentsa dezagun orain bi hitz elkartu juntatzen direla, *ekonomia-arazo*, eta *hizkuntza-arazo*, eta *arazo* bietatik bat isilean geratzen dela. Teorian bi aukera ditugu: edo *ekonomia* eta *hizkuntza* elkarrekin zuzenean koordinaturik daude, edo kategoria hutsen edo ezabaketaren bidez esplikatzeko dugu; alegia, izen sintagmetan agertzen zitzaigun argazki bera:

- (59) a. [[ekonomia eta hizkuntza]+[arazo]]
 b. [[ekonomia]+[∅]] eta [[hizkuntza]+[arazo]]

Determinatzailea hartzeko unean bi aukera ditugu teorian, singularrekoa eta pluralekoa; adibideak apur bat aldatuz, eta bi sail desberdin bakarrik direla pentsatuz:

- (60) a. Ekonomia eta hezkuntza saila ados jarri dira.
b. Ekonomia eta hezkuntza sailak ados jarri dira.

Numeroaren aldetik alor honetan euskal hiztunak duen askatasuna berriro ere nabarmenduz, komunikabideetan bietatik entzuten da, baina niri bigarrena arruntagoa iruditzen zait. Dena den, lehena hobetsi behar balitz, *sail* eta *-a* isilean geratu direla esan beharko genuke, nahiz ezabaketaren ondorioz, nahiz kategoria hutsen bat dagoelako. Baina orduan egituraren aldetik bitxi samarra izango litzateke: Hipotesi Lexikalistaren arabera *sail* eta *-a* maila desberdinetako elementuak dira (morfologia eta sintaxia), eta hitz eraketa sintaxian gertatuko balitz ere (Ormazabal 1992en tankerako bideren batetik), ezin izango genituzke biak osagai bakar baten azpian bildu:



Bigarren adibidea hartuz, hau da, pluraleko determinantea duena hartuz, determinantearentzat kategoria hutsik edo ezabaketarik proposatzerik ez genuke izango, arlo bakoitzerako sail bakarra daukagulako. IS-ri buruz jardun dugunean ere ondorio berera ailegatu gara.

Egituraz pixka bat aldatuz, isilean mugakizuna ez baina mugatzailea dutenen kasua daukagu: horrelakoak dira, esate baterako, Azkaratek bildu dituen *gorpuz-neke ta gastuarekin, giza-besoz ta istarrez, auntz-musturra ta aginak*, etab. Azkaratek besteetatik baino gutxiago bildu ditu sail honetatik, baina ez dut uste horretatik inolako ondoriorik atera daitekeenik: onargarritasun-maila bera dute multzo bietakoek. Multzo honetan ere arazoa, lehengoan bezala, egitura sintaktikoa erabakitzen hastean sortzen da. Har dezagun, adibidez, *ahuntz-mutur eta hagin* hitza. Nagusiki bi aukera ditugu: 1) *ahuntz*-ek egitura sintaktikoan jarraian datorkion guztia besarkatzen du; 2) bigarren juntagaiko mugakizunaren lekuan oinarrian sortutako kategoria hutsen bat dago, edo ezabaketa gertatu da. Juntadura erabiliz IS-ren egitura zehazteko lanetan ere (Trask

1983, Goenaga 1991) aukera berberak genituen izenlagunekin³⁰⁹, eta lehenari besarkaduraren hurbilketa deitu diogu eta bigarrenari kategoria isilarena. Baina proposamen horiek hitz elkartuetara hedatzen saiatzean IS-ren atalean agertu ditugun arazoak gehiago nabarmentzen dira. Besarkaduraren bidea hitz elkartuetara ekarriz, esan beharko genuke, adibidez, *ahuntz-muturra eta haginak* bezalako batean *ahuntz* hori IS (edo DetS) baino gorago dagoela, edo marka desberdinak erants dakizkiokeela kontuan izanik (*giza-besoz eta istarrez*), marka horiek erantsi ondoren sortuko litzatekeen kategoria baino gorago ere bai. Hori, ordea, hizkuntzalariek hitz-eraketaz eta gramatikaren antolaketaz esan duten guztiaren aurka dago, eta nik behinik behin ez dut egokitzeko inolako biderik ikusten. Kategoria isilaren bideak ere antzerako arazoak sortuko lizkiguke: osagai morfologikoko elementu batentzat sintaxikoak bezalako kategoria isil bat proposatzen ariko ginateke, eta orain artean ez da horrelako proposamenik egin; gainera, elementu hori interpretatu ala ez interpretatu hautazkoa izango litzateke, izenlagunetan bezala. Izan ere, azken batean ene ustez hemen egitura bata ala bestea baino arazo zabalago batekin egiten dugu topo: juntagaien osagaitasunaren buruzko eztabaidarekin, eta oro har juntadurari eman behar zaion errepresentazio sintaktikoarekin. Hurrengo atalean gai horiei buruzko ikuspegi orokorrago bat eskaintzen saiatuko gara.

³⁰⁹ Hango auzi eta arazo guztiak errepikaturik agertzen zaizkigu alor honetan ere. Adibidez, lehenengo juntagaien determinantea agertzearen edo ez agertzearen garrantzia (*ahuntz-mutur(a) eta haginak*), bigarren juntagaiari eman dakizkiokeen interpretazio desberdinak (*haginak, ahuntzarenak ala ez axola norenak*), numeroarekin eta singularreko determinantea isilean uztearekin sortzen diren arazoak (*?ahuntz-buztan eta bizarra; ?ahuntz-buztan eta bizarrak, ?ahuntz-buztan eta haginak*), aukeratzen diren izenen garrantzia (*giza-maitasun eta adiskidetasuna*), etab.

5. JUNTADURA


5.0. Sarrera

Lan honetan zehar juntadura-egituretan elipsia noiz eta nola gertatzen den agertzen saiatu gara. Egitura horiei eman beharreko analisiak gutxi hitz egin dugu ordea: nagusiki deskribapen-lana izanik, esan ditugunetako gehienek balio bera zuten hurbilketa bat hartu ala bestea hartu. Arazo handiak daude gainera juntadura nola tratatu erabakitzeke orduan. Atal honetan eztabaida eragin duten auzi eta datu bihurriak zein diren azalduko dugu: batetik juntaduraren analisiak X-barra teoriara nola molda litezkeen ikusiko dugu; ondoren juntagaien arteko asimetrikotasunaz eta hierarkia-maila desberdinez hitz egingo dugu; jarraian ohartuko gara juntagai bakoitzak batzuetan zeharo aske jokatzeko duela, eta beste batzuetan batasun banaezina erakusten dutela; azkenik juntagaien osagaitasunaren eztabaidari helduko diogu. Gai horiei nondik heldu zaien erreferentziak egingo ditugu, beti ere euskaraz erakusten duen jokaerari begira.

5.1. Juntadura eta X-barra teoria


Azken hogeita inguru honetan Gramatika Sortzailearen barnean X-barra deitu eskemari jarraitu diote hizkuntzalari gehienek egitura sintaktikoa errepresentatzeko unean:

(1)




Bi eratako erlazioak ditugu hor: osagarria (ZP) eta buruaren (X) artekoak, eta espezifikatzailea (YP) eta buruaren (X) artekoak. Osagarria eta espezifikatzailea islapen nagusiak dira, sintagmak, eta burua berriz maila lexikoko elementua. Horrez gain adjuntzioa ere bada, baina ez dugu kontuan izango. Sintagma guztiak eskema horren arabera moldatuta daudela proposatu izan da, baina juntadurak eskema horri ihes egiten zion. Bi proposamen nagusi izan dira:

(2a)




(2b)



Lehenak adarreztatze bitarraren eskakizuna ez du betetzen, eta juntagailuak hor duen erlazioa bera ere arrotza zaio X-barra teoriari. Bigarren eskemak burua ezkerretara duten hizkuntzetako juntaduren bi ezaugarriren berri eman nahi du: batetik, juntagailua bigarren juntagaiarekin lotuago dagoela lehenengo juntagaiarekin baino, nolabaiteko osagaia sortuz; bestetik juntagaiak eta adabegi osoa berdinak direla (hein batean bederen) adierazten du. Baina bai eskema bata bai bestea erabiliz gramatikako beste egituretatik aldendu egiten da juntadura, juntagailuak ez bailuke bere islapenik izango.

Egitura-mota guztiak eskema bakar baten azpian biltzea komenigarri ikusirik zenbait autorek juntadura X-barraren eskakizun orokorretara egokitzeko proposamenak egin dituzte, guztiak ere Juntadura Sintagma bat badela proposatuz, eta juntagailua sintagma horren buru modura hartuz. Lehen analisia Larson-ek (1990) eta bereziki Kayne-k (1993) egindako oharren ondorioz erabili izan da:

(3)




Juntagailua egituraren burua izango litzateke; lehenengo juntaia espezifikatzaile lekuan egongo litzateke, eta bigarrena osagarriarenean³¹⁰. Jakina, era honetako proposamen batek bi juntaiak hierarkian maila desberdinean egotea dakar. Analisi honen alde aipatu izan da zenbait hizkuntzatan lehenengo juntaiak duela aditzarekiko komuntadura (van Oirsouw 1987, 232) edo berak hartzen duela kasua (Schwartz 1985, 167):

- (4) Gatalen [ʔel-banat we-l-wlad] ʔel-bisee
 killed-3FemPL the girls and-the-boy the-cat
 'The girls and the boy killed the cat'

- (5) She and him will drive to the movies³¹¹

Horrelako errepresentazioekin lan egin duenetako bat Johannessen (1996) da. (4)-ko adibidearen berri emateko esaten du lehenengo juntaiak JuntS islapen nagusiari bere ezaugarriak espezifikatzaile-buru erlazioaren bidez ematen dizkiola. Burua eskuinetara duten hizkuntzetan alderantziz gertatuko litzateke: bigarren juntaiarekin izango genuke komuntadura eta kasu-ezarketa, eta orduan eskema desberdina erabili beharko genuke:

- (6) Populi (mask) provinciaque(fem) liberatae(fem) sunt
 (7)




³¹⁰ Hiru elementu juntatzen direnean, adibidez, *I saw John, Bill and Sam* bezalako batean, *John* beste biek (*Bill, Sam*) eta juntagailuak osatzen duten Juntadura Sintagmari adjuntatzen zaio eta batzuetan isila izan daitekeen buru batek zilegiztatzen du. **I saw John and Bill, Sam* bezalako juntadurak zilegi ez izatea adjuntzioa nahitaez ezkerretara egin behar izanaren ondorio izango genuke, Kayne-ren (1993) ustez.

Kayne-ren lanaren oinarrian dagoen aldarrikapena zera da, bi sintagmak ordena lineal desberdina badute egiturako hierarkiaren aldetik ere desberdinak izango direla. Konkretuki, berak proposatzen du osagarriak beti bere buruaren ondoren agertzen direla eta espezifikatzaileak eta adjuntatutako elementuak beren ahizparen aurretik izaten direla. Tradizionalki burua eskuinetara dutela onartu izan den hizkuntzetan ildo honi jarraitzen dion lan gutxi egin da (salbuespenen artean, Zwart 1994) eta euskarari buruzkorik ez daukagu.

³¹¹ Ingeles-hiztunek era honetako adibideen aurrean dituzten iritzi desberdinen azterketa baterako, ikus Shorrocks-en lana (1992).


Beste analisi-bide bat Rothstein-ek (1991) proposatutakoari jarraitzea da. Berak ez du errepresentazio zehatzik eskaintzen, baina Borsley-k (1994) berak esaten dituenak interpretatuz ematen duena ekarriko dugu:

(8)



Analisi honetan burua juntagailua da, eta juntagai biak osagarriak dira. Espezifikatzaile lekua ingeleseko *both* edo *either* bezalako elementuentzat gordetzen da. Juntagailuak bere eskuinetako juntagaiarekin ez du inolako erlazio estuagorik. Hirugarren analisia Munn-ena (1992) da:

(9)



Analisi honetan eskuineko juntagaia (Y) juntagailuaren osagarria da, eta Juntagailu Sintagma lehenengo juntagaiari (X) adjuntaturik dago. Juntagailuaren espezifikatzaile lekua operatzaile isilaren geraleku (*landing site*) da. Analisi honen aldeko argudio modura juntaduraren eta hutsune bizkarroien (*parasitic gaps*) pareko jokabidea ditu. Bere ustez bietan izen sintagmak bakarrik izan litezke isilean:

- (10)
- a. *How tired can one be e without feeling e
 - b. *To whom did you leave the letter e after turning e
 - c. *How tired can one be e but not feel e
 - d. * To whom did you leave the letter e and turn e

Lehenengo biek AdjS-ren eta PrepS-ren hutsune bizkarroiak dituzte. Bigarrenek bigarren juntagaian AdsS bat eta PrepS bat dituzte isilean. Munn-en iritzi guztiak okerrak dira. Horrek adjuntuek eta bigarren juntagaiak berdin jokatzen dutela adieraziko luke, eta bere errepresentazioak parekotasun hori agertzen du³¹².

Baina juntagailua burutzat hartuz juntagailu sintagmak badirela aldarrikatzen dituzten analisi hauek ere badituzte argitu beharreko puntuak. Esaterako, lan honen hasieran agertu dugun bezala, zentzu zabalean bada ere juntagaiek mota berekoak izan behar dute. Analisi hauetan berdintasun hori nola ziurtatu eta bereziki nola arrazoitu ez da garbi ikusten; zenbait proposamen egin dira, baina horretarako syntaxiko beste egituretatik ezaugarri guztiz desberdinak aitortu behar zaizkie, eta era horretan beren helburutik urrundu egiten dira (Borsley 1994, 228-241). Beste arazo bat bi juntagai baino gehiagoko adibideek sortzen dute. Guztietan ere, formulatu diren eran, juntagaiak binaka baino ez dira biltzen eta bi juntagai baino gehiago ditugunean beraien arteko mailaketak egitera behartuta gaude, baina adibide askotan hiztunek ez dute horrelakorik somatzen.

Gainera, proposamenetako zenbaitek bi juntagaiak egitura sintaktikoan maila desberdinean jartzen ditu. Baina adibiderik ohikoenetan bai komuntadurarako bai kasu-ezarketarako juntagai biak izan behar dira kontuan³¹³. Euskarazko adibideak erabiliz:

- (11) a. Ni eta zu mendira joango gara
- b. Zu eta ni mendira joango gara

Uztarduran ere jokabide bera somatzen da:

- (12) Zuk eta nik geure burua zainduko dugu

(4) eta (5)-eko adibideak azaltzekoan esan den bezala buruak (juntagailuak) komuntadura espezifikatzailearekin bakarrik egiten badu, juntagai biak kontuan hartzen diren kasuen berri nola eman behar den agertu beharko genuke. Johannessen-ek

³¹² Borsley-k (1994, 125) esaten duenez hizkuntzalari asko Munn-en gramatikaltasun iritziakin ez datoz bat.

³¹³ Borsley juntagai biak maila desberdinean ezartzearen aurkako da, eta komuntadura juntagai bietatik bakararekin egiten duten adibide askotan hurrenkera linealak garrantzi handia duela adierazten du. Errusieraz, esaterako, burua ezkerretara duen hizkuntza izan arren, badirudi juntadura-egitura aditzaren ondoren doanean lehenengo juntagiarekin egiten dela komuntadura, baina aditzaren aurretik doanean azkenekoarekin egiten dela (Borsley 1994, 224). Euskaraz ere zerrendatze kutsuko zenbait adibidetan aditzarekiko hurbiltasunak eragina izaten du. Johannessen-ek (1996) agertzen ditu ordea hurrenkerak eta hurbiltasunak eraginik ez duten zenbait kasu.

(1996, 669) osagarriak espezifikatzaileak dituen ezaugarri berak izateko mekanismo bat proposatzen du: juntagailuak ezaugarri desberdineko sarrera lexikoa izango du komunztadurarako bi juntagaiak kontuan izan behar direnean eta bietatik bakarra aintzat hartzen duenean. Hortaz, hizkuntza bakoitzak duen jokaeraren arabera juntagailuaren sarrera desberdina izango da; are gehiago, hizkuntza berean bi eratako kasuak ditugunean juntagailuaren bi sarrera lexiko desberdin erabiliko genituzke; eta berdin hitzun bakarrak aukera pertsonalen arabera era batera edo bestera jokatzeko duenean ere³¹⁴. Era honetan, nire ustez bederen, sinpletasunaren aldetik galdu egiten da.

5.2. Juntagaien asimetrikitasuna

Dagoeneko ikusten hasi gara juntaduraren berri emateko zenbait proposamenek bi juntagaiak egituraren maila desberdinean daudela aldarrikatzen dutela. Horren aldeko datu nagusia ondorengo zen: hizkuntza batzuetan komunztadurarako eta kasuzarketarako bi juntagietatik bakarra hartzen zen kontuan³¹⁵, eta gainera bazirudien

³¹⁴ Johannessen-en analisisian agertu beharreko beste adibide batzuk ondorengoak bezalakoak dira:

- (i) *John and his children is happy.
- (ii) John and his children are happy.

Alegia, numeroaren aldetik desberdinak diren juntagaiak dauzkagu, eta Johannessen-en proposamenaren arabera badirudi zuzena lehenak izan beharko lukeela, ez bigarrenak. Ondorengo irtenbidea proposatzen du (Johannessen, 1996:669):

»The answer is that subject-verb agreement (an "assigning type" of UC [=unbalanced coordination]) is not subject to syntactic considerations in standard English. Generally, when a CoP should determine agreement and the conjuncts have conflicting grammatical features, there are three ways the conflict can be resolved. (a) Avoid the construction. In Norwegian, NPs with different gender cannot be coordinated and share a determiner. (b) Employ resolution rules (Corbett 1991: 265). These involve syntactic or semantic "computation". In the first case, the conjuncts may have different gender value, and one "wins", as in French (masculine and feminine conjuncts take masculine agreement). In the second case, the meaning denoted by the conjuncts wins over their grammatical features, so that singular conjuncts take plural agreement (as in English). (c) Use PA [=partial agreement]. There, the syntactic position of the conjuncts is decisive for determining agreement.»

³¹⁵ Era honetako auziak bereziki hizkuntza semitikoetan (Benmamoun, 1992; Aoun & Benmamoun & Sportiche 1994) eta gaelikoz (McCloskey 1986) aztertu dira. Hasiere batean asimetrikitasunaren berri juntatutako elementuak juntadura-egituraren barnean maila desberdinean jarri eman nahi izan bazitzaiezen ere azken arteetan bestelako irtenbideak ari dira proposatzen. Hizkuntza arabiarretan, adibidez, zenbait kasutan aditzaren ondoren juntatutako subjektuetan lehenak bakarrik hartzen da kontuan aditzarekiko komunztadurarako. Kayne-ren (1993) iradokizunekin bat Benmamoun-ek (1992) ondorengo egitura hau proposatzen du:

- (i).

buru-parametroak bazuela zeresanik. Aspalditik proposatu izan da gainera juntagailua juntagai bietako bati lotuagoa egon ohi dela³¹⁶. Gai honi buruzko eztabaidetan tradizionalki bi aukera hauek erabili izan dira:


A) [[X1 Junt] X2]

B) [X1 [junt X2]]

Proposatu da A aukera burua eskuinetara izan ohi duten hizkuntzei dagokiela, eta B aukera burua ezkerretara dutenei. Honetan, bada, Johannessen-ena bezalako analisi batek intuizio tradizional hauek ongi bilduko lituzke. Euskarari dagokionez, aldarrikapen hau zuzena balitz A aukera aurkitu beharko genuke. Argudio modura intonazio-etenak erabili izan dira sarrien. Morenok (1991, 629), gaztelera B motako hizkuntza dela aldarrikatze dio *y*-rekin hasten diren perpausak badirela, baina *y*-rekin amaitzen denik ez:

- (13) a. Y encima todo le salió bien! ==> *Encima todo le salió bien y!
 b. Y Pedro! ==> * Pedro y!

Intonazio-etenek ere jokaera bera erakutsiko lukete:



Bere ustez komunztadura gobernuaren arabera egiten da; aditzak bere konplementuko espezifikatzailea goberna dezakeenez komunztadurarako bi juntagaietatik lehenak bakarrik kontuan hartzea esplikatu ahal izango luke. (Rouveret-ek 1995-ean bide bera hartzen du, eta gaineratzen du ziurrerara juntadura-buruak eta bere osagarriak (Y) nolabaiteko hurbiltasun eremua eratuko dutela). Baina Aoun, Benmamoun eta Sportiche-ren lanean (1994) zenbait arazo aurkitzen zaizkio, eta hauek nahiago dute komunztadura buru-espezifikatzaile erlazioaren arabera definitu. Horrela, beren proposamena da Aditza- Sub eta sub - X bezalako segida batean, aditzarekiko komunztadura subjektuetatik lehenak bakarrik duenean, egiatan bi perpausen aurrean gaudela, bigarren perpausoko aditza isila dela, eta bi perpauseri dagokien X elementua egituraren zeharreko mugimenduaren bidez atera dela perpaus horietatik. Zenbait xehetasun alde batera utzita, honelako egitura bati buruz ari dira:

- (ii). [Aditza; [_{IP} subj₁...t_k...]] eta [e; [subj₂...t_k...]] [X_k]

Horrela, hizkuntza horretan bederen, aditzarekiko komunztaduran juntagaien artean somatzen diren desberdintasunen berri emateko juntaduraren egitura asimetrico beharrik ez genuke izango. Baina Johannessen-ek (1996) agertzen dituen txekierako eta alemanierako zenbait adibide ezin dira perpaus-juntadura modura tratatu. Hortaz, bi egitura-moten berri eman ahal izateko proposatzen du juntagaiak maila desberdinetan zintzilikaturik daudela, eta JuntS transformazio orokortu baten bidez sartzen duenez, batzuetan perpausen juntadura izango dugu, eta beste batzuetan sintagmen juntadura.

³¹⁶ Dik-ek (1968) eztabaidan parte hartu zutenen erreferentziak eta argudioak biltzen ditu, eta bera juntagai biak maila berean jartzearen aldeko da.

- (14) a. Juan llegó tarde // y María también llegó tarde
 b. *Juan llegó tarde y // María llegó tarde
- (15) *Juan y // Pedro ---> Juan // y Pedro

Euskara A motakoa dela defendatzeko bide bera hartzen du, Letamendiaren adibideak (1988, 146) ekarriz:

- (16) a. Eguraldi ona dago eta kanpora aterako gara
 b. Kanpora aterako gara, eguraldi ona dago eta
- (17) a. Haserre dago eta ez du hitz egin nahi
 b. Ez du hitz egin nahi, haserre dago eta

Euskarako juntadurak A eskemaren araberakoak ez balira horrelakorik ez omen genuke izango.

Nik ordea ez dut auzia Morenok bezain garbi ikusten. (16) eta (17)-ko adibideei dagokienez, ohartzen gara juntadura asimetrikoa erabiltzen dela, eta ezaguna da *eta*-k zenbaitetan menperagailuen balioa har dezakeela. Juntagai guztiz simetrikoekin horrelakoak ez dira posible:

- (18)
 a. Indurainek bosgarren garaipena lortu du Frantziako itzulian eta Iñurrategitarrak Everest gailurrera ailegatu dira
 b. *Iñurrategitarrak Everest gailurrera ailegatu dira, Indurainek bosgarren garaipena lortu du Frantziako itzulian eta

Gainera, nolabaiteko menperakuntza-zentzuarekin *eta* zenbaitetan bere aurreko perpausari loturik agertzeak ez du esan nahi nahitaez erabilera hori egitura sintaktikoan kokagune horretan egotearen ondorio denik: erabilera horren oinarrian bi perpaus juntatzen direnean lehenak askotan bigarrenarekiko izaten duen denborazko edo kausazko erlazioa *eta*-ren bidez adierazten dela berrinterpretatzea ere egon liteke. Bestalde, intonazio-etenei dagokienez ere iruditzen zait gazteleraren moldeari jarraitzen diola³¹⁷:

³¹⁷ Baina badira A eskemaren alde egin dezaketen datuak ere:

Pello eta... mendira joan dira.

(19) Jon berandu ailegatu zen // eta Miren ere berandu ailegatu zen

Intonazioaren alorra alde batera utzirik, uztarduraren alorrean ere agertzen dira asimetriak. Horrela, ingelesez lehenengo juntagaiko kuantifikatzaile batek bigarren juntagaiko osagai bat uztar dezake, baina alderantziz ez (Moltmann 1992):

- (20) a. every man and his wife
 b. every man and two of his children
 c. every man and a picture of himself
- (21) a. *his wife and every man
 b. *two of his children and every man
 c. *a picture of himself and every man

Bigarren, lehenengo juntagaiko erreferentziadun espresio bat bigarren juntagaiko izenordain batekin erreferentziakide izan liteke, baina alderantzizkoa ezinezkoa da:

- (22) a. John's dog and he/him went for a walk
 b. *He and John's dog went for a walk
- (23) a. Jone_i arreba eta bera_i ongi konpontzen dira
 b. *Bera_i eta Jone_i arreba ongi konpontzen dira

Munn-ek ematen duen azken adibide bat ere bada:

- (24) a. They_i liked stories about them_i and each other_i
 b. *They_i liked stories about each other_i and them_i

Gramatika Sortzailearen barnean defendatu izan den legez erreferentziakidetasuna eta uztardura egitura-nagusitasunaren baitan badaude³¹⁸, ezinezko da adibide hauen berri bi juntagaiak maila berean daudela onartuz ematea. Baina intonazio-etenen alorrean euskarak burua eskuinetara duten hizkuntzek bezala jokutzen ote zuen zalantzak

³¹⁸ Aurkako ikuspegi baterako, ikus Kuno & Takami (1993). Dik-ek (1968, 56) egituran maila berean daudela defendatzen du, eta horrelako kasuen berri emateko ondorego hau dio:

«It is only to be expected that in coordinative constructions with their preeminently serial character, the linear sequence of the members will have some special relevance. This is indeed the case, both semantically and syntactically.»

bagenituen, uztarduraren alorrean zailtasunak oraindik handiagoak dira. Burua eskuinetan duten hizkuntzek A eskemari jarraitzen badiote, eskuineko juntagaiak egituraren ezkerreko juntagaia eta juntagailua biltzen dituen osagaiak baino gorago egon beharko luke -Johannessen-en analisisian espezifikatzaile lekuan- eta ondorioz ezkerreko juntagaiak ezin izango luke eskuinekoa uztartu. Aitzitik, euskaraz egiatan ezkerrekoak uztartzen du eskuinekoa³¹⁹. Honek guztiak Johannessen-enaren moduko proposamenak euskararako dituzten abantailez zalantzak sortzen ditu. Aukera bat izango litzateke JuntS euskaraz burua ezkerretara duen islapena dela aldarrikatzea; horrela ezkerreko juntagaiak eskuinekoa uztartu ahal izango luke eta intonazioaren aldetik ere ziurrenera hobeto egokituko litzateke. Egia da komunztadurarako euskarak bi juntagaiak hartzen dituela kontuan, baina Johannessen-ek horrelakoen berri emateko proposatutakori jarrai dakioke³²⁰, nahiz proposamen horren arazoak ere aipatu ditugun.

5.3. Juntagaien askatasuna eta batasuna

Juntaduraren tratamenduari dagokion eztabaidarik zaharrenetakoa da hau. Izan ere, juntagaiak batzuetan elkarren arteko guztizko lotura agertzen dute, baina beste batzuetan badirudi juntagaietako bakoitzak era askean jokatzen duela; ondorioz, oso zail gertatzen da juntadura-egitura guztien berri analisi sintaktiko bakarraren bidez ematen. Adibidez, hasieran aipatu dugu juntaduraren berri emateko bideetako bat Chomsky-k proposatutako Konjuntzio Laburketa deitutako arauarena dela. Arau hark *Jon eta Pello etorri dira* bezalako bat bi perpausen juntaduratik eratortzen zuen, *Jon etorri da eta Pello etorri da*. Era horretan juntagai bakoitzaren askatasuna azpimarratzen zuen. Horren aldeko argudioak badira. Esaterako, ondorengo perpaus honetan Errealak Bartzelona taldea garaituko zuen, eta Athletic-ek Real Madrid taldea:

(25)

Errealak eta Athletic-ek Bartzelona eta Real Madrid garaitu dituzte azken jardunaldian.

³¹⁹Johannessen-ek asimetrikitasun honen aldeko froga modura erabiltzen ditu hustuketarako Ross-ek emandako datuak ere: ingelesak aurreranzko hustuketa egiten du, japonierak atzeranzkoa. Aipemana besterik ez du egiten eta dagoeneko ikusi dugu gaia oso konplexua dela (ikus 2. atala), baino horren arabera JuntS-ri dagokionez euskararen jokaera berriro ere burua eskuinetara duten hizkuntzekin batera bildu beharrik ez genuke izango.

³²⁰Juntagaietako bat egituraren bestea baino gorago jartzearen aurka Dik-ek (1968, 53) aipatzen du maila desberdineko analisiaren bidez ezin izango litzatekeela alborakuntzarekiko parekotasunaren berri eman. Ez dut uste, ordea, hori oztopo handia izango litzatekeenik.

Horrelako adibideetan juntagai bakoitzak era askean jokatzen du. Ingelesez era horretako adibideak *respectively* erabiliz egiten dira:

(26) English and Dutch are used in Guyana and Suriname, respectively.³²¹

Oinarriko juntaduraren bidez argitu ezin litekeen beste adibide ezagun bat -lehenago ere aipatu dugu- Rögnavlsson-ek (1982) islandierako subjektuen eta zenbait aditzen jokaeraz ematen duena da. Literaturan zehar bai Konjuntzio Laburketa erregela³²² bai oinarritiko kategoria isilak erabili dituzten analisi guztiek juntagaien askatasun horren berri eman nahi dute. Hiru dimentsioetako analisisiek ere, juntaduraren linearizazioak sortzen dituen auziei irtenbide bat emateko asmoaz gain, juntagaien askatasuna nabarmentzen den adibideen berri ematen dute bereziki, juntaduraren planu semantiko desberdinak adierazten baitituzte³²³.

Beste zenbait adibidetan, ordea, juntagai biek nahitaezko batasuna adierazten dute. Adibidez, zenbait predikaturentzako erreferentzia-multzo izan daitezke:

³²¹ Era honetako perpausai buruz Van Oirsouw-k (1987, 29-30) dio hizkuntza idatzikoak direla, hizkuntza mintzatuan ia inoiz ez dela horrelakorik agertzen. Dena dela, interpretazio hori duten perpausetan juntagaiak sintaktikoki bikoteka bildu behar direlako oso zalalantzakoa da. Begira diezaiogun Dalrymple eta Kehler-ek (1995) ematen duten adibide honi:

(i). Eleven isotopes of copper are known, two of which are not radioactive and occur with a natural abundance of 69.09% and 30.91%, respectively.

Zentzuaren aldetik goian eman dugun adibidea bezalakoa da, baina honetan juntatutako bi elementuren ordezkari pluraleko subjektu bat dugu, subjektu horretako elementuak zein diren ez dakigu zehazki, eta elkarren artean zer ordena duten ere ez. Horrelako adibideak kontuan izanik Dalrymple eta Kehler (1995, 536) *respectively* interpretazioen azpian juntadura sintaktikoa jartzearen aurka agertzen dira:

«In conclusion, all analyses agree on one point: respectively establishes a pairing between elements of two sets having the same cardinality. However, the data presented here suggests that these elements are semantic entities in the discourse, not syntactic conjuncts of a coordinated constituent.»

Hiru dementsiotako analisisien oinarrian, bereziki Moltmann-enean (1992), horrelako egituren berri emateko juntatutako elementuen arteko perpaus-barneko erlazio sintaktikora jo behar delako aldarrikapena egiten da, eta horrek hurbilketa osoa zalantzan jartzen du.

³²² Konjuntzio Laburketaren garaitik oinarriko juntaduraren aurka erabili izan den argudioetako bat zera da: zenbaitetan azalean juntaturik agertzen direnak oinarrian ezin dira juntatu; horrek eskatzen du juntadura perpausena izatea eta ondoren ezabaketa egotea. Begira esaterako ondorengo adibide honi:

(i). Mary was fun to tease, easy to please, and known to have fleas.

Bigarren juntagaian *Tough Movement* deiturakoaren ondorioz izango litzateke *Mary* azaleko subjektu, eta hirugarrenean *Subjektuaren Igoeraren* (Subject Raising) eta pasiboko transformazioaren ondorioz. Hortaz, perpausen juntadurarik gabe esplikatze biderik ez zen ikusten. Aditz Sintagmaren Ezabaketa deituaz hitz egitean ere antzeko auzi bat erabili dugu.

³²³ Arazo handiagoak dituzte batasuna adierazten dutenekin, Goodall-ek (1987) bereziki. Moltmann-ek (1992) era egokiagoan eman lezake horien berri.

- (27) a. Zuk eta nik kalean topo egin genuen
 b. Joxek eta Mirenek oso bikote atsegina egiten dute
 c. Jon eta Miren oso antzekoak dira

Bi perpausen juntaduratik abiatuta ezin da horrelakoen berri eman³²⁴, eta zenbait autorek juntadura guztiak oinarriko juntaduraren bidez esplikatzen nahi izan dituzte³²⁵. Bestalde, komuntaduran bi juntagaiek parte hartzeak KL bezalako proposamenei emaitza egokiak ziurtatzeko operazio korapilatsuak eskatzen dizkie. Eta horrez gain, uztarduran ere pluraleko antezedenteak behar dituzten elementuen antezedente izan litezke juntadura-egiturak, berriro ere batasuna erakutsiz:

- (28) a. Bakoitzaren zein argazki bota zituzten Jonek eta Peruk?
 b. Jonek eta Peruk elkar maite dute.

Baina oinarriko juntaduraren bidez esplika litezkeen adibide hauen alboan badira beste zenbait hizkuntzalaritzak era bereko fenomenotzat hartu dituenak eta osagaien oinarriko juntadura soilaz esplikatzen zail direnak:

- (29) a. Ni mendira joan naiz, eta zu hondartzara
 b. Goizean Parisen eta arratsaldean Berlingen izan zen Clinton³²⁶

Horrela, oso zail gertatzen da adibide guztiak era bateratu batera ager litzakeen analisi bakar bat garatzea: gehienetan iturri eta deribazio desberdinetara jo behar izaten da. Euskarari dagokionez, *respectively* interpretazioan egiatan osagai sintaktikoekin ez

³²⁴ Horrelakoak bereziki Lakoff eta Peters-en lanean (1969) aztertzen ziren. Hauen oso antzekoak ondorengo perpaus hau bezalakoak dira:

- (i). Mirenek eta Pellok etxe berria erosi dute

Adibide honek bi interpretazio izan litzake: bien artean etxe bakar bat erosi dutela, edo etxe bana erosi dutela. Zenbait autoreren ustez interpretazio biak egitura desberdinen ondorio genituzke: lehenean oinarriko juntadura izango genuke; bigarrenean bi perpaus juntatuko litzaizkiguke. Baina Gleitmann-en ustez (1965) pluraleko izen sintagma orekin gertatzen dira antzerakoak:

- (ii). The girls bought the new Steinbeck novel


Alegia, bakoitzak nobela bana, edo guztien artean nobela bakar bat.

³²⁵ Guztiak perpaus-juntaduratik abiatuz esplikatzen nahi dituztenen eta guztiak oinarriko juntaduraren bidez agertu nahi dituztenen artean erdibideko irtenbideak ere badira. Ikuspegi orokor baterako ikus van Oirsouw (1987).

³²⁶ Van Oirsouw-k (1987) era honetako egiturak aztertzeko ezabaketaren bidea hautatzen du, eta proposatzen du berak aztertzen dituen hizkuntzetako egitura sintaktikoa tradizionalki aldarrikatu izan dena baino lauagoa dela. Hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, osagaiak eta egitura sintaktikoa erabakitzeke irizpide modura juntadura hautatzeak horrelako ondorioetara eramanez ohi gaitu; badira, halere, hurbilketa horren bidez esplika ezin litezkeen datuak.

badugu jokatzen (Dalrymple & Kehler 1995), hustuketa-egituren modukoak albora utziz oso gutxi izango lirateke oinarririk perpaus osoak juntatzea eskatzen duten adibideak. Nolanahi ere, transformazio orokortuetara (*generalized transformations*) joz minimalismoaren (Chomsky 1995) ildotik Johannessen-en proposamenak (1996) bai juntagaien batasunaren bai askatasunaren berri egoki ematen du. Bere proposamena da JuntS transformazio orokortu baten ondorio dela, *Juntatu α* , eta operazio hori deribazioko edozein unetan eta edozein mailatan egin liteke. Juntadurarentzat ingelesak bezalako egitura duen hizkuntza batean, lehenengo juntagaiko edozein adabegi JuntS-ren espezifikatzaile lekuan zintzilikatuko litzateke, eta bigarren juntagaikoak berriz JuntS-ren osagarriaren lekuan³²⁷. Horrela, juntagaien askatasuna azpimarratu nahi denean JuntS perpausaren goreneko adabegiei erantsiko genieke, adibidez, KonpS-ren mailan, eta bien batasuna azpimarratu nahi denean, esaterako, bi subjektura, osagai horien mailan zintzilikatuko litzateke. Hona mota bakoitzetik berak ematen dituen adibideak (Johannessen 1996, 672):


Perpausen juntadura:



Sintagmen juntadura:

³²⁷ Mekanismo honen bitartez ia edozer junta liteke, adibidez, subjektu bat eta objektu bat ere junta litezke, eta horrelakoak ekiditeko berdintasun-baldintza bat aipatzen du, berak kategoria-berdintasunaren bidez definitu nahi duena. Guk (1.) atalean ikusi dugu beste zenbait alderdi ere izan behar direla kontuan.

(31)



Alegia, perpaus-juntaduran honelako egitura baten aurrean egongo ginatke:

(32) [$_{CoP[CP]}$ Mary and Max saw Paula]

Aldiz, sintagmen juntadura dugunean egitura beste hau izango litzateke:

(33) [$_{CP}$ [$_{CoP[NP]}$ Mary and Max] saw Paula]

Era honetan, mekanismo berberaren bidez bi aukeren berri eman ahal izango litzateke.

5.4. Juntadura eta osagaitasuna

Hizkuntzalaritzak orokorrean juntagaiak osagai direlako hipotesiarekin lan egin du: X-barra teoriaren arabera maila batekoak edo bestekoak, elkarren arteko desberdintasun handixeagoekin edo txikixeagoekin, baina juntatzen genituen zatiak adabegi bakarraren azpian bil genitzakeen, osagai ziren. Horrela, juntadura sarritan erabili izan da hizkuntza bateko osagaiak eta egitura zein den erabakitzeko argudio modura: lan honetan zehar hori erakusten duten makina bat adibide ikusi dugu. Baina arazoak sortzen dituzten adibideak ere badira. Gleitman-ek (1965, 264-265) ondorengo hauek aurkeztu zituen:

(34)

- a. The soviets rely on military and on political indications of our intentions
- b. He took John home and Mary to the station

- c. The conjunction of an interrogative and an imperative sentence is excluded
- d. The man was haggard and the girl sick with exhaustion

Dik-ek (1968, 135-136) dio, berriz, ondorengo hauetan osagaitasuna mantenduz elkarren aurkako datuak lortzen direla:

- (35) a. An old or a young man
- b. The old men and old women are here

Gure lanean ere *izaera* bateko nahiz besteko adibideak azaldu dira (DetS-ren egitura aztertzean, hustuketan...). Horrelakoen berri emateko proposatu izan diren bide desberdinak ere agertu ditugu: ezabaketa, oinarritiko elementu isilak, kategorien definizio berri zabalagoak, hiru dimentsiotako analisisien bidea. Gure ustez goiko adibide hauen multzo berean sartu behar dira bi juntagaien dagozkien izenlagunenak ere:

- (36) a. Herriko gazteentzat eta zaharrentzat

Kategoria isilaren eta besarkaduraren hurbilketekin sortzen diren arazoen berri eman dugu. Brucart-ek ere (1987b) gaztelerazko era honetako adibideetan arazo bera somatzen du, eta berak bi irtenbide posible aipatzen ditu. Lehena izango litzateke, egitura sintaktikoan izenlagunak bi juntagaiak besarkatzen dituelako ideia alde batera utziz, irakurketarik ohikoena (izenlaguna biei dagokie) inplikazio semantikoa edo pragmatikoa duen arau baten ondorio dela proposatzea. Honela mintzo zaigu (Brucart 1987b, 115):

«en aquellos casos en que se coordina un SN sin complemento con otro dotado de él y situado a la derecha, tómesese como favorita la lectura en la que el complemento se interpreta como de ámbito general, siempre que no haya razones pragmáticas, semánticas o gramaticales que lo impidan».

Grafikoki adierazteko:

$[_{SN} [_{SN} \text{Det-N}] \text{ y } [_{SN} \text{Det-N-Compl}]] \implies [_{SN} [_{SN} \text{Det-N-Compl}] \text{ y } [_{SN} \text{Det-N-Compl}]]$

Los niños y las niñas de Barcelona \implies Los niños de Barcelona y las niñas de Barcelona

Arau hori sintaxiaren ondoren aplikatuko litzateke, beraz, izenlagunak syntaxian ez luke gainerako guztia besarkatuko. Hurbilketa honek ere baditu ordea arazoak: *Herri bereko neskekin eta mutilekin* bezalako baterako hiztunak duen intuizioaren aurka joango litzateke.

Bigarren irtenbidea juntadura-egituretan osagaiak ez baizik osagai-segidak juntatzen direla proposatzea izango litzateke. Horrez gain, egitura sintaktikoan eskuarki adierazi ohi diren linealtasun eta hierarkia erlazioez gain, juntaduran berak aldiberekotasun sintaktikoa deitzen duen erlazio bat ere kontuan izan behar dela aldarrikatzen du. Horretarako Williams-ek (1978) bezala juntadurako elementuak paraleloan irudikatuko ditu, elementu paraleloen bikote bakoitzari zenbaki bat ezarriz. Eta Williams-en lanetik aitzinera urrats bat emanez, ohiko errepresentazioekin arazoa sortzen diguten adibide hauentzat ere bide bera proposatuko du (Brucart 1987b, 121):

$$(38) \quad \left[\begin{array}{c|c|c|c} & & & \\ \hline & & & \\ \hline y & [_{SN} [_{Det} los]] & [_{N'} [_{N} niños]] & \\ \hline & & & \\ \hline & [_{SN} [_{Det} las]] & [_{N'} [_{N} niñas]] & \\ \hline & & & \\ \hline \underline{SN} & 1 & 2 & \\ \hline & & & \\ \hline & & & [_{SP} de Barcelona]] \\ \hline \end{array} \right]$$

Sintaxiaren ondorengo linealizazio erregela batek azpian zenbakia duten segidak juntagailuaren bi aldeetara banatuko lituzke (Brucart 1987b, 123):

$$(39) \quad Y - \begin{bmatrix} X_1 \\ \vdots \\ X_n \end{bmatrix} - Z \quad \Longrightarrow \quad Y - [X_1 \dots X_n] - Z$$

Beti ere gogoan izanik erregela horretako X zeinuaren bidez juntagaiak ez baizik juntagai-segidak adierazi nahi direla. Brucart-i azken irtenbide hau lehena baino egokiagoa iruditzen zaio. Bere analisisia ez du adibide gehiagotara hedatzen, baina pentsa liteke izenlagunaren kokagune berean dauden gainerako elementuek pareko jokabidea erakutsi beharko luketela. Euskaraz zenbait determinatzaile eta zenbatzaile izaNngo genituzke egoera horretan, eta ohikoena izenak zuzenean juntatzea den arren ez dirudi horrelakoak ere txatztat hartu behar direnik:

(40)

a. *Zenbait* idazlek eta musikaririk izenpetu dute dagoeneko agiria

- b. *Makina bat* gizonekin eta emakumerekin mintzatu naiz bizitzan zehar gai horretaz

Zenbait eta *makina bat* egitura sintaktikoan kasu-marka baino beherago daude, baina izenlagunen kasuan bezalaxe bi juntagaiei dagozkiela interpretatzen da. Lehenago azaldu ditugun hiru dimentsiotako analisisiek ere Brucart-enaren ildo bertsua zuten. Badira, ordea, izenlagunaren pareko jokabidea izan arren analisi honen bidez esplikatzeke arazo handiagoa sortzen duten adibideak. Gogora dezagun Azkaratek biltzen zuen ondorengo adibide hau:

- (41) giza-besoz eta iztarrez

Izenlagunarekin bezalakoxe irakurketak lortzen dira:

- (42) a. gizakien besoz eta iztarrez betetako lapiko handi bat ikusi nuen
b. giza-besoz eta iztarrez betetako lapiko handi bat ikusi nuen

Auzia da, ordea, (42b)-n hitz elkartuen zatiak dabiltzala jokoan, elementu sintaktikoekin ezezik morfologikoekin ere aukera berak ditugula, eta ondorioz Brucart-ek aipatzen zuen aldiberekotasun sintaktikoaren nozioa egokia den zalantza sortzen dela. Sintaxiak osagai morfologikoan era honetako operaziorik ezin badu egin, aukera bat izango litzateke *giza-besoz* bezalakoak erregela hori aplikatzen den garaian sintaxiak ikusteko moduko elementuak direla aldarrikatzea; beste aukera, Brucart-ek aipatzen duen erregela hori ez dela sintaxiaren barnekoa, eta osagai morfologikoen (edo agian prosodikoen) arabera funtzionatzen duela.

Osagai-segiden juntaduraren nozioaren bidez azal litezkeen besteak guk ezohiko juntadura deiturapean eman ditugun adibideen tankerakoak dira:

- (43) Astegunetan Maulen eta asteburuetan Bilbon aurkituko nauzu

Eta horien barnean, Gastañagak (1977) atzeranzko hustuketatzat ematen zituen adibideak bezalakoak:

- (44) Lindak ardaia eta Peruk esnea edaten dabe³²⁸

³²⁸ Nire ustez ingelesez *Eskuin Adabegiaren Altxakuntza* (Right Node Raising) deitu izan zaiona ere egitura hauekin batera bildu behar da:

(i). Smith loaned, and his widow later donated, a valuable collection of manuscripts to the library.

Era honetako adibideek intonazio berezia izan ohi dute, eta paralelismo oso estua eskatzen da. Euskaltzaindiak (1994, 67) egitura banakariak direla aipatzen du. Analisi sintaktikoari dagokionez Rebuschi-k (1989) bi perpausen juntaduratik abiatuz adjuntzio-mugimendu bat proposatzen zuen, baina (2.3.2.) puntuan ikusi dugu analisi horrek zer arazo zituen: horrelako adibideek hitzordenarekiko perpaus bakarra balira bezala jokatzeko zuten, eta zenbait adibidetan ezin da proposatu bi perpausen aurrean gaudenik (*Goizean pilotalekuan eta eguerdian jatetxean pertsona berak ikusi nituen*); hortaz, ezabaketatik abiatzea ere ezinezko izango zaigu, eta Brucart-enaren moduko analisisiren bat proposatu beharko da. Dena den, hauek baino adibide bihurriagoak ere aurkitzen dira, eta egitura hauen mugak hobeki aztertu beharrean gaude. Gogora dezagun, esaterako, Euskaltzaindiaren gramatikatik (1994, 177) hartutako esaldi hura:

(45)

«Bi juntagailuen kideztaren lekuko, txandaturik ere ager daitezke bata juntagai baten eta bestea bigarren juntagaiaren aurrean.»

Hemen aurkitzen dugun 'osagai-segida' aurrekoetatik desberdina da: *bata* osagaia *juntagai baten*-ekin batera bildurik agertzen zaigu juntaduran, baina azken hau bere ardatzagandik (*aurrean*) banaturik agertzen da. Badirudi, beraz, osagai bat eta osagai

Egitura hauen analisi tradizionalan onartu izan da eskuineko elementu hori mugitu egin dela eta egituran beste elementuak baino gorago geratzen dela. Proposamen desberdinen (Hudson 1976, McClawley 1982, Levine 1985, Gazdar eta beste 1985, McCloskey 1986, Dowty 1988) balorazio kritikoa bat Chae-k (1991) egiten du, eta ondorengo ezaugarri hauek aipatzen ditu:

- Juntagaiak guztiz paraleloak dira.
- Juntagaiak aurrerago dagoen beste zerbaitekin lotu behar dira, eta beste zerbaitekin ez du osagai izan beharrik.
- Prosodikoki bereziak dira.
- Irla-debekuei ez diete jaramonik egiten.
- Ordena lineala mantendu egiten da.

Erakusten du eskuineko 'altxatako' elementuak egituran ez daudela besteak baino gorago, eta GPSG modeluaren barnean ildo honetako analisi bat proposatzen du: juntagailuaren alde bietako segidak prosodiaren aldetik bilduta badaude ere, bere ustez egitura sintaktikoan 'altxatako' elementua bigarren juntagaiaren barnean dago, eta lehenengo juntagaian elementu horri dagokion hutsune bat izango genuke, altxatako elementu horren ezaugarri bereziei esker (LICENSOR ezaugarria) zilegizatzen dena.

Ingelesean eskuin adabegiaren altxakuntza deitu izan zaionaren inguruan bada ordea oraindik interpretazio egokirik jaso ez duen datu bat. Hudson-ek (1976, 550) esaten zuen horrelako egiturak juntaduraz kanpo ere ager zitezkeela ingelesez:

- (ii). Of the people questioned, those who liked outnumbered by two to one those who disliked the way in which the devaluation of the pound had been handled.
- (iii). It's interesting to compare the people who like with the people who dislike the power of the big unions.

Euskaraz horrelako adibiderik ez dut aurkitu.

baten zati bat biltzen direla elkarrekin. Era horretako gehiago ere asma litezke, bereziki posposizio kutsukoekin:

(46)

- a. Hurrengo egunean bata zorionaren eta bestea jakintzaren *bila* abiatu ziren
- b. Batzuek mozorroari eta besteek nire laguntzari *esker* lortu zuten ihes egitea

Beste hizkuntzetan ere badira antzerakoak (Pickering & Barry 1993):

(47) John went *to* Chicago on Monday and New York on Tuesday

Guztietan ere osagai baten barneko menpeko elementu bat osagai horrez kanpoko beste elementu batekin biltzen da bere osagaiko buruaz ahaztuz, eta lan honetan zehar aipatu diren bideetatik ezin da horrelako adibideen berri eman: oinarriko juntadura ezinezkoa da, ezabaketarako proposatu diren araei ez die jarraitzen, gramatika kategorialean proposatu diren kategorien definizioek ezin dituzte elementu horiek bildu, eta hiru dimentsiotako analisietan proposatu dituzten egitura eta linealizazio desberdinetan ere ezinezko da osagai baten barneko elementu bat bere buruari jaramonik egin gabe beste elementu batekin erlazionatzea. Juntaturari buruzko lanetan era honetako adibideak oso gutxitan aztertu dira, eta deskribapenaren aldetik ere gutxi dakigu. Jarraian egin den ahalegin bakanteko bat aurkezten saiatuko gara, eta fenomeno hobeki ezagutze aldera adibide hauen onargarritasun-mugak non egon litezkeen begiratuko dugu.

Horrelakoen berri emateko ahalegin landuenak dependentzien gramatika deitu izan direnetatik datozkigu (Hudson 1986, Pickering & Barry 1993): batzuek gramatika sortzailearen ildotik, besteek gramatika kategorialen bidetik, guztiek ere hitzen arteko erlazioetan jartzen dute egitura sintaktikoaren oinarria, eta muga batzuen barnean bada ere osagaitasun malguaren alde agertzen dira. Adibidez, *John spoke to Mary* bezalako batean ondorengo osagai hauek guztiak izango genituzke: *John spoke*, *spoke to*, *to Mary*, *John spoke to*, *spoke to Mary*, perpaus guztia eta hitzetako bakoitza. Baina juntagaiak osagai direlako ideia mantendu behar bada, osagaitasun malgu hori erabiliz ere ezin omen da juntaturako adibide guztien berri eman. Ondorengo hipotesi honi jarraitzen diote Pickering & Barry-k (1993):

«The hypothesis we shall advance is that coordination is possible if each conjunct can be divided into a series of constituents of matching types, that is, if there are types X_1, \dots, X_n such that each conjunct consists of a sequence of constituents of types X_1, \dots, X_n . We shall refer to this principle as *parallel type matching*, and that obey it as *parallel*.»

Beraz, ez dira osagaiak juntatzen, osagaien segidak baizik. Eta ez edozein eratako osagai-segidak gainera, dependentzien gramatika kategorialeko osagaitasun malgua kontuan izanik osagai direnen segida paraleloak bakarrik. Horrela, ingeleserako lehen eman dugun (47) adibideari ondorengo analisisia ematen diote:

(48) John went to [(Chicago)_{NP} (on Monday)_{pp}] and [(New York)_{NP} (on Tuesday)_{pp}]

Alegia, *Chicago on Monday* eta *New York on Tuesday* osagaitzat hartzen dituzte. Gainera, juntadura-egituretan ezin daiteke edozein segida elkartu, segida batzuek eragotzita daude, eta beren analisisia adibide oker horiek debekatzen saiatzen da. Ikus esaterako ondorengo hauek (Pickering & Barry 1993, 895):

(49)

- a. *[(John)_{NP}] and [(Harry thinks that)_{S/S} (Mary)_{NP}] climbed the mountain
- b. [(I believe that)_{S/S} (John)_{NP}] and [(Harry thinks that)_{S/S} Mary_{NP}] climbed the mountain

(50)

- a. *I ate [(two)_{NP/N} (small)_{PtN}] and [(three)_{NP/N}] oranges
- b. I ate [(two)_{NP/N} (small)_{PtN}] and [(three)_{NP/N} (large)_{PtN}] oranges

Horko analisiaren nondik norakoak ez ditugu azalduko hemen. Dena den, eta hizkuntzalaritzan hedatuen dauden aldarrikapenetatik nahikoa urrun egoteaz gain, hurbilketa honek ere baditu arazoak. Batetik ez du esplikatzen hiztunari osagai-segiden juntaturak osagaien juntaturak baino behartuagoak zergatik egiten zaizkion. Bestetik, deskribapenaren alorrera pasaz, literaturan analisi horren bidez argitu ezin litezkeen adibideak aurkitu ditugu. Esate baterako, Booij-ek (1984) alemanierako eta nederlanderako hitz eratueta elipsiak aztertzean Pickering eta Barry-k darabilten hurbilketarekin esplika ezin daitezkeen adibideak ematen ditu:

(51)

- a. ... dat Jan [eerst appelsap dronk]_{vp} en [daarna druivesap dronk]_{vp}
- b. ... dat Jan [eerst appel ø ø]_{vp} en [daarna druivesap dronk]_{vp}
'that John first apple juice drank and then grape juice drank'

(52)

- a. ... dat [Jan appelsap dronk]_s en [Piet druivesap dronk]_s
- b. ... dat [Jan appel ø ø]_s en [Piet druivesap dronk]_s
'that John apple juice drank and Peter grape juice drank'

- (53)
- a. ... Jan vroeg [wie er appelsap dronk]_{S'} en [wie er druivesap dronk]_{S'}
 b. ... Jan vroeg [wie er appel ø ø]_{S'} en [wie er druivesap dronk]_{S'}
 'John asked who there apple juice drank and who there grape juice drank'

Hitz eratorriekin ere badu antzeko adibide bat, nahiz beste bide batzuetatik ere esplika litekeen:

- (54) a. [de landvouw]_{NP} en [de tuinbouw]_{NP}
 b. [de land ø]_{NP} en [de tuinbouw]_{NP}
 'the agriculture and the horticulture'

Euskaltzaindiarenetik hartu dugun (45) adibidean edo (47)-koan osagai baten zatia biltzen bagenuen beste osagai batekin, oraingo hauetan hitz baten zatia biltzen dugu. Pickering eta Barry-k beren hurbilketaren oinarrian hitzen arteko erlazioak jartzen dituzte, eta 'hitz' esatean zehazki zeri buruz ari diren agertzen ez badute ere ez dirudi hitz eratuen osagaiak barnean sartu nahi dituztenik; hortaz, kasu hauetan juntadurarako ezartzen duten baldintza ez litzateke beteko. Nolanahi ere, Booij-ek (1984) ematen dizkigun adibide hauek oso bihurriak dira edozein hurbilketarentzako ere. Berak, gogora dezagun, ezabaketaren bidez esplikatzen nahi zituen: jakina, ezabaketa hori maila prosodikoko elementuen gainean egiten zen eta ez elementu sintaktikoen gainean, osagai sintaktikoari aitortu izan zaizkion ezaugarrien arabera prozesu sintaktikoek ezin baitute ere horretako inguruneetan eragin. Jarraian era honetako juntadurek euskaraz izan ditzaketan mugak aztertuko ditugu, orain arte beste hizkuntzetan aurkitu ditugun adibideei jarraituz.

Azkenekoetatik hasita, era honetako egituren bidez hitz elkartuak banatu nahi ditugunean nire ustez adibide okerrak lortzen dira, baita elkarketan parte hartzen dutenak sintaxitiki hurbilen dauden hitz elkartuak direnean ere:

- (55)
- a. ??Udaberrian opor- baina udan lan-kontuak izaten ditugu hizpide.
 b. ??Neguan berogailu- eta udan bainujantzi-saltzaileek egiten dute dirua

Zuzenean juntatutako hitz elkartuekin askoz arazo gutxiago genuen:

- (56)

- a. Opor- eta lan-kontuak izaten ditugu hizpide lagun artean
- b. Berogailu- eta bainujantzi-saltzaileek urten bi hilabetez bakarrik egiten dute lan

Pickering eta Barry-k PrepS banatzen zen adibide bat ere ekartzen zuten (47 adibidea). Euskaltzaindiaren (45) adibidean ikusi dugu posposizioekin horrelakoak egin zitezkeela, baina euskaraz kasu-markarekin edo determinatzailearekin ez dirudi zilegi direnik³²⁹:

- (57) a. *Batuetan Bilbo eta besteetan Donostian egiten dut lo
- b. *Batuetan langile eta besteetan enpresarioekin izaten ditugu liskarrak

Adibide hauen parekoak ontzat eman ditugu zuzenki juntaturik zeudenean:

- (58) a. Bilbo eta Donostian aurkeztu dute liburua
- b. Langile eta enpresarioekin liskarrak ditugu

Dependentzien gramatikek bereziki ingelesari buruz egin dute lan eta morfologikoki eransleagoak diren hizkuntzen berri nola emango luketen ez dakigu, baina edonola ere ezin izango lukete (57) eta (58)-ren arteko gramatikaltasun-maila desberdinaren berri eman: beren sisteman biek berdinak beharko lukete. Gauza bera gertatzen da beste zenbait elementurekin ere. Oso zaila dirudi, adibidez, izenondoa eta determinatzailea izenetik banatzea:

- (59) *?Batzuek auto eta besteek etxe *garestiak* edukitzea dute amets

Zuzeneko juntadurarekin ordea inolako arazorik ez zegoen:

- (60) Auto eta etxe ederrak gero eta gehiago dira gure gizartean

Berdin gertatzen da erakuslearekin ere:

³²⁹ Bai McCawley-k (1988) bai Chae-k (1991) hauen antzeko ingeleseko adibideez hitz egiten digute, baina adibide berei buruzko gramatikaltasun iritzietan ez datoz bat. McCawley-ri ondorengo bi adibideak txarrak iruditzen zaizkio, baina Chae-rentzat lehenengoa ona da:

- (i). ??/OK John wants just any, but I want the very best, portrait of Elvis.
- (ii). */*Ted has always wanted a, so I've given him my, coffee grinder.

Chae-ren ustez (1991, 47) desberdintasuna baldintza fonologikoen baitan dago, ez baldintza sintaktikoen baitan: «The indefinite article a is a bound word and hence may not be separated from his host.»

- (61) a. *Indian auto eta Txinan kamioi *horiek* saltzen dira gehien
 b. Auto eta kamioi horiek saltzen dira gehien Txinan eta Indian

Izenlagunekin ordea adibide zuzenagoak lortzen dira:

- (62)
 a. *Bere semearen* negarrek urduri eta irrifarrek pozik jartzen zuten ama gaztea
 b. Bihar Joxeren eta etzi Pelloren *etxean* egingo dut lo


Euskarari dagokionez, beraz, era honetara bana litezkeen elementuen zerrenda oso mugatua da: posposizioetara eta izenlagunera mugatzen da, eta intonazio berezia izan ohi dute. Auzi honetarako elementu horiek gainerakoetatik zer ezaugarrik bereiz litzakeen ez dugu ikusten, baina ohartzen gara Pickering eta Barry-ren hurbilketak ez duela desberdintasun horien berri ematen. Orain arte erabili ditugun hizkuntza desberdinetako adibideei begiratzuz, egitura hauetan osagai soilak juntatzen ditugulako ideia ezin da mantendu; Booij-ek ematen dituenak bezalako adibideak syntaxiko osagaitateak juntatzen direlako proposamenaren aurka agertzen dira, baita osagaitasunerako Gramatika Sortzaileak baino definizio malguagoak dituzten korronteentzat ere; azkenik, euskararen datuei begiratzuz, ohartzen gara Booij-ek proposatzen duen bezala egitura prosodikotik abiatuz ere ezin dela egoeraren berri eman, egitura prosodiko horretan izaera berekoak izan beharko luketen elementuek desberdin jokatzen baitute. Nolanahi ere, era honetako egiturei buruzko azterketarik ez dago eta oso datu gutxi eta hizkuntza oso gutxitakoak ditugu, eta ez dut uste ondorio gehiagorik ateratzeko moduko egoeran gaudenik.

5.5. Laburpena

Atal honetan juntadura-egiturei zer tratamendu eman dakiekeen eta orokorrean zer ezaugarri eta arazo dituzten agertzen ahalegindu gara. Gure lanean zehar juntaduraz eta elipsiaz esan ditugunetako gehienengan ez du eraginik errepresentazio bat hautatzeak edo bestea hautatzeak; beste zenbait datu eta arazo egokiago kokatzeko, ordea, juntaduraren ikuspegi orokorra nahitaezko zaigu. Lehenik juntadura X-barra teoriara egokitzeke egin diren ahaleginak azaldu ditugu, eta baita horri oso loturik doan beste gai bat ere, juntagaien artean izan litekeen asimetrikotasunaren auzia.

Proposamenik interesgarriena Johannessen-ena (1996) iruditu zaigu, baina datuen aldetik euskararen kasuan juntagai biak maila berean jartzen zituen analisi tradizionala Johannessen-ena bezain ondo moldatzen da: zenbait hizkuntzatan komunztadurarako eta kasu-markaketarako kontuan juntagai bakarra hartzen bada ere, euskaraz juntagai biek batera jokatzen dute; gainera, juntagai bien artean beharrezko den berdintasunaren berri errazago ematen da eskema tradizionalaren bidez. Dena den, X-barrara egokitzeko eskakizunak albo batera utzita ere badira arrazoiak juntagaietatik bat egituran bestea baino gorago jartzeko: intonazioaren datuak guztiz argiak ez badira ere, badirudi juntagaien arteko uztarduraren datuak egokiago ematen direla era horretan. Baina juntagaien arteko asimetrikotasun horiek egitura sintaktikoan azaldu behar badira, euskarak islapen honetan burua eskuinetara duten hizkuntzekin ez baino burua ezkerretara dutenekin egingo luke bat. Beraz, Johannessen-en proposamena erabiliz, honelako zerbait izango litzateke:

(63)



Hurrengo eztabaida nagusia juntagaien askatasuna eta batasunarena da. Autore asko era batera edo bestera (konjuntzio laburketa, hiru dimentsiotako analisiak) juntadura guztietan hasiera batean bi perpaus juntatzen direlako analisitik abiatu badira ere, gu ahal den guztian elementu txikiaren juntadura erabiltzearen aldeko gara; salbuespena hustuketa-egiturak izango lirateke. Dena den, badirudi zenbait hizkuntzatako datuek (Rognvaldsson 1982) batzuetan oinarritik bi perpaus juntatzea eskatzen dutela. Johannessen-en analisiak, transformazio orokortuak erabiltzen dituenek, mekanismo berarekin era bateko nahiz besteko adibideen berri emateko gaitasuna du.

Orain arte esandakoarekin eta (63)-ko zuhaitzeko X eta Y-k maila bereko osagaiak izan behar dutela aldarrikatuz hizkuntzan aurkituko ditugun adibide gehienen berri emateko gai izango gara; batzuetan ezabaketetara edo kategoria isiletara jo beharko dugu (hustuketa, izenaren elipsia), baina adibideen berri emateko bitartekoak izango ditugu. Beste batzuetan, ordea, -eta gramatikalariai aspaldi ohartu ziren horretaz- X eta Y-k nahitaez osagai izan behar balute bezala jokatuz ondorio bitxiak eta zenbaitetan kontrajarriak lortuko ditugu. Ezabaketen, kategoria isilen edo era desberdinetako mugimenduen bidez agertu ezin direnez, horrelakoen berri emateko

bide bat orokorrean hiru dimentsiotako analisisiek urratu dutena izan liteke: juntaduran linealtasun- eta hierarkia-erlazioez gain nolabaiteko aldiberekotasuna ere badagoela onartzea, osagaiak ezezik osagai-segidak ere junta ditzakegula proposatuz. Edo nahiago bada, azalean osagai-segida bezala ikusten ditugunak juntadura-egituretako erlazio bereziak hizkuntzan fonetikoki gauzatzeko dituen baldintzen ondorio besterik ez lirateke izango. Horrelako adibideek paralelotasun estua eskatzen dute eta intonazio arruntetik urrundu egiten dira. Baina juntaduraren erregela era horretara askatuta ere adibide batzuen berri emateko ez da gai: juntaturik agertzen diren segidek zenbait hizkuntzatan osagaien zatiak eta hitz elkartuen eta eratorrien zatiak ere bil ditzakete. Era honetako adibideek hizkuntza desberdinetan dituzten mugak eta baldintzak oraindik aztertu gabe daudenez, aurkitu ditugun kasu bakanak ematera mugatu gara.

6. ONDORIOAK

Lan honetan zehar juntadura-egiturak aztertu ditugu. Bi elementu juntatzen direnean, errepikapenak ekiditearren, hiztunak sarritan elipsiaren bidea hautatzen du. Euskarazko juntadura-egituretako elipsiak noiz eta nola gertatzen diren azaltzen ahalegindu gara. Deskribapena izan da, beraz, lan honen helburu nagusia.

Perpaus-juntaduren alorrean lekurik handiena hustuketaren azterketari eman diogu. Ikusi dugu euskara burua eskuinetara duen hizkuntza izan arren ez dagoela inolako eragozpenik aurreranzko hustuketarako; berau da gainera ohikoena, eta Gastañagagandik (1977) hasita atzeranzko hustuketa deitu izan zaionak hustuketak ez bezalako ezaugarriak ditu. Baina ikusi dugu halaber literaturan proposatu diren debeku eta baldintzekin abiatuz hustuketaren ikuspegi zurrunegia lortzen dela. Juntadura-egituren ezaugarri pragmatikoei behar adinako arretarik jarri ez izanari egotzi diogu desegokitasun hori. Hustuketa-egituretan bi mintzagairi buruz pareko iruzkinak egiten dira, beti ere galdegaiak desberdinak direlarik. Hori da hustuketa-egituren zuzentasuna gidatzen duen baldintza. Eta baldintza hori betetzeko juntadura ez da nahitaezkoa. Horregatik, berbaldiko beste perpaus aske batekiko berdintasunak ere egin lezake zilegi hustuketa. Bestalde, egitura pragmatikoko paralelotasun horrek egitura sintaktikoko paralelotasuna ekarri ohi du eskuarki. Baina berriro ere paralelotasuna ezin da hertsiki egitura sintaktikoaren arabera definitu: hori izan da gure ustez literaturako proposamen askoren akatsa. Antzerako zerbait gertatzen zen ezeztapenari zegokionean ere: literaturan ezeztapendunen hustuketarako debeku orokorra eman da, baino arazoak benetan sortzen zituen erabili diren adibide gehienak egitura-pragmatikoaren aldetik okerrak izatea genuen; egokitasun pragmatikoa zainduz gero ezeztapena duten hustuketa-egiturak zilegi dira. Ohartzen gara, bada, behin eta berriz auzi berarekin gabiltzala: literaturako lanik gehienek berez hustuketaren baldintza pragmatiko direnak baldintza sintaktiko balira bezala interpretatu dituzte, eta horrek arrazoi sintaktikorik gabeko debekuak eta datuekiko desegokitasunak eragiten ditu. Guk gure lanean beste

era batera jokatu dugu: hustuketaren baldintza pragmatikoak azaldu ditugu, eta alderdi pragmatiko horiek euskaraz sintaktikoki nola gauzatzen diren kontuan izanik esplikatzen nahi izan ditugu hustuketa-egituren ezaugarriak. Horrela, hondakinetako bat galdegai modura interpretatzen dugunez, euskaraz fokalizazioak izan duen tratamendu sintaktikoa gogoan izanik, nolabaiteko mugimendua eta ondoreneko ezabaketa dagoelako hipotesia erabili dugu: hondakinen arteko egiturazko distantziak onargarritasunean duen eraginari begiratzuz (2.2.3.6./7.) ikuspegi hori indarturik geratzen da.

Sintagma-juntaduren alorrean, berriz, ikusi dugu euskaraz orokorrean kasu-marka bakarraren azpian bi DetS sintagma juntatzeko debeku orokorrik ez dagoela, eta ezta determinatzaile bakarraren azpian bi IS juntatzeko ere. Baina zenbait adibide ez dira zuzenak, eta beren onargarritasun-eza esplikatzen beharra dago. Kasu-marken elipsiari dagokionez, adibide zuzenak eta okerrak banatzen dituen baldintza morfonologiko bat dela aldarrikatu dugu. Determinatzaileari dagokionez barriz numeroari lotutako baldintza bat aipatu dugu, nahiz salbuespenak badiren. Tratamendu sintaktikoaren alorrean, azken honetan badirudi zuzeneko juntadura hobetsi behar dela; kasu-marken elipsirako baldintzek sintaxiarekin zerikusirik ez dute eta tratamendu sintaktikorako aukera guztiak irekirik uzten dituzte, baina iruditzen zait ahal delarik biak bide beretik esplikatzen beharko genituzkeela.

Auzi desberdina izenaren (eta inguruko beste zenbait elementuren) elipsiarena da. Baliabide hau juntaduratik kanpora ere aurkitzen da, eta gure ustez egokiena juntadurakoa baliabide orokor horren barnean biltzea da: errepikapena ekiditearren hitztuna juntadura-egituretan gramatikak ematen dio aukera orokor batez baliatzen da. Interpretaziorako zenbaitetan gramatikatik kanpora joan behar izaten denez, tratamendu sintaktikoaren aldetik egokiena oinarritiko kategoria isila proposatzea dela esan dugu, ezabaketaren bidea alde batera utziz.

Literaturan zehar egin diren lanek oso gutxitan ukitu duten gaia eta guk hemen sakontasunez landu duguna hitz eratuak juntatzean sor litezkeen elipsiena da. Hitz elkartuetan era honetako adibideak aurkitzea ez da zaila, baina zenbait baldintza bete behar dituzte: lexikalizazio-maila handiak, aldaketa fonologikoek eta bi hitzetako osagaien arteko erlazio-parekotasunik ezak zaildu egiten dituzte; aldiz, sintaxiarekiko loturak edo semantikoki mugakizun irekiak izateak, emankortasun handiak eta finkapen maila txikiak erraztu. Ikusten dugu, beraz, alor honi dagokionez hitz elkartuen sailean desberdintasunak badirela. Eratorpenaren alorrean berriz aukera askoz murriztagoa da: elkarretarekin edo sintaxiarekin erlazioa duten elementuekin bakarrik ziren zilegi era

honetako adibideak. Horrela, euskarazko datuak beste zenbait hizkuntzatarako egindako lanetan aurkeztutakoetatik aldendu egiten dira.

Azken atalean juntadura-egiturei zer tratamendu eman dakiekeen eta orokorrean zer ezaugarri eta arazo dituzten agertzen ahalegindu gara. Proposamenik interesgarriena Johannesen-ena (1996) iruditu zaigu, nahiz juntaduretako elipsien gairako proposamen klasikoagoekiko desberdintasunik ez duen. Dena den, bere bidetik abiatuz gero, JuntS burua ezkerretara duen islapena dela proposatu beharko genuke. Bestalde, juntaduraren auzia bere konplexutasun osoan agertzen saiatu gara (juntagaien batasuna eta askatasuna, asimetrikotasuna, osagaitasuna). Euskal hizkuntzalaritzan juntadura erabiliz egin diren aldarrikapen eta proposamen asko konplexutasun hori kontuan izan gabe egin dira (bereziki juntagaien osagaitasunari dagokionez) gu egitura desberdinei buruz izan diren eztabaidak (IS-ren egitura, atzeranzko hustuketa deitua, hitz eratuen juntadura) marko orokor horretan kokatzen saiatu gara, osagai ez direnen juntadurak euskaraz dituen mugak aztertuz.

ERANSKINAK

1 Eranskina

- Eta artuten dau bigarren urtzalliak beste agoe ta egikizunen *arazo, ta arduria*. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 128)
- O kristauak non da gure *fede ta arrazoia*? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 147)
- Euskaldunik gehienok beldur ginake, noski, horrenbestetara ausartzeko: ez ote da beharrezko horrelako nahaste batean hizkuntza biziaren *kemen eta jatortasuna* urtzea eta desegitea argizagia surtan bezala? (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 348)
- Ez dot damu artu neban *asmo ta nekia*. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 903)
- Ta bukatutakoan, arkitu ditzatzula garbiago izateko *gogo eta indarra*. (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 9)
- Oen artean ezagugarriena izan da Kapitan Matxin de Aia bere *balore andi eta ondradutasunaren* bidez. (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 455)
- Berez, jaungoikoak eman ziolako, buruan zuen argitasun orretatik dator Pernandoren oroipena gaur ere, gure artzai ta nekazari langillien artean daukan *indar eta sustraia*. (G. Mujika, *Pernando Amezketarra*, 19)
- ... zeñaren *leialtade ta balorea* izanik gaiñ gañekoak (...) (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 479)
- Nora ditu berorren anziñako *zillar ta urrea* zeriozkien apaindurak? (V. Mogel, *Ipui onak*, 47)
- Gipuzkoan biltzen dan *arto ta garia*, ez dala bertan bear danaren erdia eta nork daki zenbat onelako astakeria? (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 32)
- Lazkanok: Bertsolaritzai oso gazterik eskeñi zion morrontza Euskalerrian erakutsi du bere *buru ta abotsa* erria maitatzen ere au ez da izan otza, bera maitatzen ari dalarik nekatu zaio biotza. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 335)
- Hau da ere, jainkoa, eskatzen zaizuna: espos hauetan beira sendo maitasuna, elkarren *errespetu ta leialtasuna*, deusek ez dezan markits hauen batasuna. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 325)
- Pikoak ontsa eman balitu oraino, erranguratzekorik etzitaken; bainan etzuen deus oni ala ederrik agertzen bere *ponet gorri eta larru zuria* baizik. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 146)

- Igukiaren, lilien *argi eta usaina*, garbiagorik deus beraz ez baititeke eskain jainkoari! (J. Etxepare, *Buruxkak*, 134)
- Jainkoaren eskuia aditzera ematen digu Jesu Kristoren *diñatasun ta anditasun* ezin goragokoa. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 134)
- Eta beingo baten esango bazendu gezurtxo bat, nolako *naigabe ta damua*? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 233)
- Itzelezko *esbear eta burruka* sortu iatak gorputzean. (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 208)
- Irugarren *arrasto, eta kutsu gaiztoa* da, bekatuak (...) (Agirre Asteasukoa, *Erakusaldiak I*, 540)
- Musde Tirazen jinkua thipiñan handi zozkina; haren ama birjina aldiz, ollaki salda gizena, horien ororen pusatzeko *ardu eta likur huna*. (Etxahun, *Bertsoak*, 497)
- *Ogi eta garagar egosia* on dute, artho orhea ere bai. (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 290)
- Nahi bezen *barne eta inguru handia* izanik ere, ez da dudarik haren gogoak ukan duela denbora batez zer jasan. (Hiriart Urruti, *Zenbait aurpegi*, 149)
- Kaillatietako *lepo ta zelaiak* seireun metro ingurutsu dituzte eta zelaigune ontako arboladi xotil baten alboan zuten Etxahundarrak Otsoats-borda esaten zioten artzai txabola ta saletxea. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 8)³³⁰
- Galdetu zien Gibel-andik bere *emazte eta alabari*. (P.M. Urrunzuno, *Urzale baten ipuiak*, 25)
- Begira bada, aita errukiorra, zeure biotzeko seme maite oneri; eta gugaiti ikusi eban *bizitza nekatu ta eriotza itzal gogorrari*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 121)
- Ene gurasoa daneti kontu zorrotza eskatuko deust, eni eustan *lastantasun ta askogurearena*; (Añibarro, *Esku-liburua*, 48)
- Au izango da zuben *damu ta leijaltasunaren* bai ta ezagugarririk ederrena. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 210)
- Gomute-zaite, guri asko-gureak igaroerazo eutsun *bizitza, ta eriotza garratzaren*: gorde-gagizuz ondamendi, ta galbidetatik; eta gorputz, ta arimeko gatx, ta gertaera txarretarik: baketu, ta bildu-gagizuz zeure aita aserratuaz. (Añibarro, *Esku-liburua*, 118)
- Gaztelako errege ta erregiñan jauregixan zan, euren izenak ixilian gordeko ditturaz. (T. Etxeberria, *Ibiltarixanak*, 458)³³¹

³³⁰ Lepo bat eta zelai bat dira.

³³¹ Ez dakigu singularrean ala pluralean doan.

- Gau hartako nire *istu-larri eta trebetasunaren* orde, ez ete geunkan gero ondo mereziduta alako bazkaritxua? (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 108)
- Geienez be sokaren bat jaurti eikien da jaurtiteutsien ai zelango *gurari ta biotz onagaz*. (D. Agirre, *Kresala*, 198)
- Zetarako da edadeak ere atzetik dakarzan *eritasun, gaixo ta eriotzeagaz* gogoratuten egotea? (D. Agirre, *Kresala*, 121)
- Geroago etorriko niaitzu *arto eta ore bero-beroagaz*... (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 257)
- Nola agertuko litzake egia bera, agerian daraman *espa eta ezin-ikusiarekin*, herri haserretuaren aurrean? (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 315)³³²
- *Aize eta eguraldi onarekin* atera zen Bungotik ontzia, baña bidean izandu zituen eguraldi ta aize agitz gaistoak. (Mendiburu, *Bederatziurrena*, 280)
- Nolako *amorio ta pozarekin* artuko ez gaitu Jesusek iru bider asteoro bagoaz ere. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 234)
- Zu nire *ao ta bular loian* sartuteko?(Añibarro, *Esku-liburua*, 170)
- Sartu zan bere *korputz eta animan* Satanas edo deabrua, ernega erazi zion onek, ta azkenean jo zuen infernuan, lehenago kondenatu ta zeudenak sartu etziran tokira. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 121)
- Komulgatuta laster sartu bear zuen Satanasek Judasen *biotz ta korputzean*; (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 250)
- ... eta azkenean jaungoikoak beregana deitu zeban, erregeren *etxe ta gorteko* alkate arkitzen zala. (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 487)
- Eta laugarrenaren asiera da, erri onen *ifarralde eta sortegiko* mendietan. (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 101)
- Bialdu egizuz neure *erri ta etxera* zeure semeren bategaz deritxun baten, ta nik beragaz biurtuko deusudaz zeuriak. (Mogel, *Peru Abarca*, 193)
- ... eta lokarri orrek ekarten zituan noz edo bein euren *erri ta etxera* (Kirikiño, *Abarrak*, 163)
- Hire repostaren araez, iaunaren zena sailduak haren *herio eta pasionera* bidaltzen gaitik, hartako berthutean partizipa eta komunika dezagunzat. (Leizarraga, *Othoitzza*, 88)

³³² -a itsatsia duen hitza denez, ez dakigu determinatzailearen elipsia dagoen ala kasu-markarena bakarrik.

- Beren poz onekin arkitzen ziran denboran etorri zen aitzina joateko behar zuten aizea ta behar bezala beren mast-oialak zabaldu ta eraman zuten nai zuten *toki ta errira* beren ontzia. (Mendiburu, *Bederatziurrena*, 279)
- Jesusekiko zoria, pakea ta alaitasuna banan banan ta argiro erakutsi zizkigunean, ezin kendu nuen nik nere *buru ta biotzetik* gogamen au: (R.M. Azkue, *Ardi galdua*, 120)
- Deabruak bere *asmo, ta labankeriaz* diraust, infernurako egin daidela etxe au; eta baieskoa emonik deusat. (Añibarro, *Esku-liburua*, 67)
- Eta orretara mobitu bear gaitu, jaungoikoari zor diogunaren konsiderazioak, ala beradanagatik, au da, bere *ontasun, eta anditasun kabubageagatik*, nola egin dizkigun eta egunoro, guk merezi bage, egiten dizkigun mesede guztiz andiakgatik (Guerrico, *Saiakera*, 88)

2 eranskina

- Egin bere *nai ta borondatea*, berari atsegin eman al dezun guzian? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 273)
- Atzo agertu yuen *adore ta kemena* galtzen ezpaiuek beintzat.. (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 268)
- Iñoiz ez añakoa zan egun atako *ondamendi ta galdumena*. (D. Agirre, *Kresala*, 199)
- Nere *gogo eta nahia* ahotan hartu dutenez gero, zilegi izan bekit neronen mingainez adieraztea. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 208)
- Erri"-lan" eta Bai'- egunkari etorkizunaren *zabalkunde ta ots-edatzea*, ingurti, orri, ormagiri ta itzaldi-bidez, Bidasoa'z eskui-ezker eta Ameriketa'n. (Lizardi, *Itz-Lauz*, 119)
- Bizitza gaiztoak animan uzten dituan arrasto ta kutsuak dira asko: Lenengoa: gaitzerako *makurtasun, eta zalea*. (Agirre Asteasukoa, *Erakusaldiak I*, 539)
- Nolako *aldatze ta trukada* animakoa bear ez da Jaungoikoaren amorio egiazkora? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 214)
- Mez-emolleak altaran mun egitea da adietan emoteko Yudasek Kristori emon eutsan *mosu ta apa* guzurrezkoa. (Añibarro, *Esku-liburua*, 103)
- Erantzuten zien: gogora ekartzute zer *naigabe samiñ eta pena latza* gure etxeoandarearen gurasoai kentzera goazen. (Arrue, *Santa Genobeba*, 126)
- Markiñan barriz guztizko *kerizpe ta illuntasun* andia idoro ebien, (...) (D. Agirre, *Kresala*, 206)
- Lenbiziko gizonaren bekatuagandik zetorren, gaitzerako *griña, ta makurrerak* zikindu, ta itsusitu zuan ezkon-lana. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 221)³³³
- Nere *ezbear eta desdixari* iñork begiratzen eztio; (Arrue, *Santa Genobeba*, 19)
- Lege gabeko jendeen eleiz berria judatarren eleiz zarraren *sustrai ta zimenduaren* gañean ipintzeagatik. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 113)

³³³ -a itsatsia duen hitza denez, ez dakigu determinatzailearen elipsia dagoen ala kasu-markarena bakarrik.

- Eta nok atera bere *lelo ta temati*? (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 218)
- Oraindik ere azkeneko egun oek baño obeetan agertu izan ziñidan *amore eta naitasunagatik* ematen dizkitzut esker milla. (Arrue, *Santa Genobeba*, 30)
- Ezta naikoa, *alperreri ta nagitasunagaitik* izkuntzarik zarren da maitegarriena ez ikastea (...) (D. Agirre, *Kresala*, 96)
- Zeure arpegi sotilean Yudas dollorraren aotik bake andian artu zenduan guzurrezko *mosu ta laztan* lotsagarriagaiti eskatuten deutsut, arren gura eztakizula nik nire bekatuz zu lotsatutea; (Añibarro, *Esku-liburua*, 104)

3 eranskina:

- Nik esango deusudaz gauzaak *sustrai ta ondo ondoti*. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 138)
- Aita familikoari doako etxean egoitea, bere lanetik ez dadien aldara, bere *bizipide eta irabazia* begira ditzan osorik. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 171)
- Iesus Krist gure iaunak irakasten drauku zein *paubrezia eta miseria* handian guziak sortzen garen, dioskunean ezen berriz sorthu behar garela. (Leizarraga, *Othoitz*, 15)
- Ezin ahantzi zitzaion bere alaba besarkatzerik izan zun abagune bakarrak bere animari erantxi zion *gozotasun eta ezialdia* eta orain gorputz osoa dardarpean jartzen zitzaion bere ogenaren erruz Mainer gaixoari eldu zitzaion azken ikaragarria ausnarka. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 260)
- Eta zelango *ernegazino ta amorruba* ikustian argiro erijotzako kandelan pekatu ondo konfesu bagaak. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 208)
- Uste neban neroiala *propositu ta borondate* ona. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 92)
- Ez Maisu Juan: au da miaren *errauts ta loikerija*. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 132)
- *Kontu ta arrazoia* emon biarko dau zerura juango bada gure arima au, eskubata bularrarian baxotxak imiñi konsiderazinuagaz jaungoikuagaitik. (*Durangoko plateruak*, 132)
- Diabruak lagunduten deutsee konzienzija nastetan; kendu daruake *gozo ta poz* guztija jangoikuaren gauzeetarako; (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 234)
- Lengo egun bijetan larunbat-igande, *usubillo ta zarraparra* andija ibilli da Bilbo onetan; (Kirikiño, *Abarrak*, 124)
- Onegatixe, *indar eta eragite* aundiagoa du lillurak arrakastak baño, ta ibiltzeak iristeak baño. (Txillardeggi, *Leturiaren egunakari ezkutua*, 102)
- Jangoikuaren bilddurrik ez balego bere, nun da gizonezkuen *errespeto ta itzala?* (J.J. Moguel, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, 110)
- Au bear det, neke asko artu det, besteak ere egiten duen au da beren betiko *lelo ta soñua*. (J.A. Mogel, *Konfesiño ta Komunioko Erakasteak*, 170)
- Bere *naigabe eta miñak* askotan zentzua galtzen zion. (Arrue, *Santa Genobeba*, 99)

- Zauden lekua distaranta zen, ni nindagona itzala; hortan ote zen estakurua heier oldartu nintzala, *adimendu ta zuhurtziaren* mandatari bat bezala, mandatari bat bezala? (Xalbador, *Odolaren Mintzoa*, 321)
- ... ene lehen atsia izan da (...) lan hoien *zenu eta zuhurtze* handiaren her honkierazitea;" (Archu, *Alegiak*, 11)
- Osasun egunetan atsegin eman bear dioela, *estura ordu ta gaixotasunean* adiskide ongilletzat iduki nai dituenak. (Vicenta Mogel, *Ipui onak*, 24)
- Ori bai jauna, *gogo eta animako* deseoa ez det galdu; (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 237)
- Sem zeritzan, Noeren seme baten *odol ta arrazatik* zetozenak, ziran olakoa; ta guzien artean ongien zebillena, Abran zan. (Ubillos, *Berri ekarlea*, 17)
- Baña gauza guzti oneetan ez urten zeure arimeko aitak dirautsun *muga, ta neurritik*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 79)³³⁴
- Bere *zabalgune eta eremutik* ateratzen ezbaldin badira beintzat. (Villasante, *Kristau fedearen oinarriak*, 67)

³³⁴ -a itsatsia duen hitza denez, ez dakigu determinatzailearen elipsia dagoen ala kasu-markarena bakarrik.

4 eranskina

- Bedeinkatua, ta alabadua izan dedilla jesu kristoren *pasiño, ta eriotzea*; eta bere ama maiteak nigatik egaro-zituzan neke ta penak. (Añibarro, *Eskuliburua*, 182)
- Goiz guztian lan kontuko solasak eta beste jardunaldi laburtxo batzuk egin zituzten doi-doi, Yan Pier'ek ikusten baitzun Piarresen *goibeltasun eta muxinkeria* eta etzizaion zirrikarik egiten ausartu, barrenean ito-bearrez ari zitzaion korapilloa askatzen laguntzeko. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 56)
- Ezeben janaririk aurkitu: *galdumendi, azkenordu ta ikaragarritzko eriotzea* idoro euen gizagaixoak. (D. Agirre, *Kresala*, 197)
- Berez, jaungoikoak eman ziolako, buruan zuen argitasun orretatik dator Pernandoren oroipena gaur ere, gure artzai ta nekazari langillien artean daukan *indar eta sustraia*. (G. Mujika, *Pernando Amezketarra*, 19)
- Oillar haukien partetik, oste emekoi hunen ganik, ziduritzon epher hari, behar zuela iguriki *kariño eta tratu ona*, eme eta arrotzeri beti zor zaiena. (L. Goyhetche, *Fableak*, 278)
- Nai ta ez andia, bada agitz andia izandu zen S. Francisco Xaviergandik artu zuen *ontart eta milagro* berria. (Mendiburu, *Bederatziurrena*, 321)
- Zuben *ondo izate ta izen ederra* balego neure emazte ta ume gaixuak galdutian, ipiniko nituke edozein arriskutan. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 207)
- Igarri deust, eranzun eutsan andrakume gaixuak *zizpuru ta zotin* andi bat emonda. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 152)
- Zure *mantenu ta soldata*, egiten degun gastua (Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, 238)
- ... ta abenderri edo nazioak katuak berberak baño *arnas eta bizitza* zallagoa dutela. (Lizardi, *Itz lauz*, 163)
- Hortakotz daukagu gorestekoko eta eskertzeko Xalbadorren *begi ta bihotz* kezkatua. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 14)
- Bere *naigabe eta miñak* askotan zentzua galtzen zion. (Arrue, *Santa Genobeba*, 99)
- Ara or oean azur besterik ez dala, *gose ta egarriak* illobira eron zorian. (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 209)

- Nire miñak kantaiko dau neure jaun, jabeari; nigaitik sakramentuan, niretzat dagoanari: nik jan neien *gorputz; ta odol*, ni erosteko, emonari. (Añibarro, *Esku-liburua*, 171)
- ...umien zorionari baño euren, gurasoen, *uste ta gogoari* geiago ta obeto begiratu oi deustielako. (D. Agirre, *Kresala*, 107)
- Historiari baino nazio arteko *lege eta politikari* dagokion bat bazterrera utzirik (...) (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 236)
- Esango deutsee, nor dan iragarri baga, ezin jarraituko deutseela artu dituban *bide ta bizitza* onari. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 281)
- Ene gurasoa daneti kontu zorrotza eskatuko deust, eni eustan *lastantasun ta askogurearena*; (Añibarro, *Esku-liburua*, 48)
- *Biotz-min; eta damu* benetakoaren ganean. (Añibarro, *Esku-liburua*, 142)
- Jesusek artuten dau bere *pasinoe ta eriotza* odoltsubaren seme barrizat. (J.J. Moguel, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, 23)
- Oro bat zenbat gauza miragarri zeatuko ez lirakez Jesu kristoren *bizitza, pasio ta eriotzaren* gañean, artuko bagendu asti puska bat egunoro? (J.A. Mogel, *Konfesiõe ta Komunioko Erakasteak*, 189)
- ... bere *pasiño ta kurutzearen* bitartez bere biztuerako gloriara eroanak izan gaitzezan. (Añibarro, *Esku-liburua*, 243)
- Yauna bekatu egin dot, errukia nizaz zeure *pasiño ta eriotzea-gaiti*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 190)

5 eranskina

- Sarien azkenak dire *zeru eta lezea*, hetarik batera egin behar duzue bidea. (Etxeberri Ziburukoa, *Manual Devotionezkoa*, 85)
- Zu, anderia, ama zira birjinarik ieinkoaren eta geroz erregina *zeru eta lurraren*. (Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 105)
- *Zeru ta lurreko* erregiña, jangoikoaren ama maitea, eta bekatarien bitartekorik laztanena; zeure bearra dot egun onetan; (Añibarro, *Esku-liburua*, 9)
- Asi zan esaten Mañasi, bere artean, urrezko giltzak erakusten zakuztaz, *zeru ta lurrean* jaunak emondako eskubidea daukazula esan gura bazeunzta legez. (D. Agirre, *Kresala*, 25)
- Bada nik ere esaten dizut, ain bearrak dirala, konfesioa ona izaiteko, *damu ta proposito* egiazkoa, nola ur egiazkoa bateoa ona izateko. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 176)
- Uste ere nuan baneramala *damu eta propositoa*. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 175)
- Konfesatzen ere dira, bai: baña aurrera esan diran paltak; *damu ta propositoa* ondo arina, edo utsak. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 162)
- Zelan prestetan da esaminia egiñaz, *damu ta proposituba* eruanaz denpora zoro aetan, zerbait jakin arren buruz doktrina santuba? (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 239)
- Baña konfesio gaizto geiago egiten dira egiazko *damu ta propositoaren* paltaz esaminarenaz baino; zerren *damu ta proposito* egiazkoak berez dakar konzienzia aztertzeke ta bekatuak ezagutzeko gogo ona. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 168)
- Eman guri Jesusek *ogi ta ardoaren* irudien azpian bera dan guzia, zer eman dezakegu geiago? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 204)
- ... edo *damu ta propositu* senduaren paltaz, (...) (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 243)
- Nola adi genzake zerbait, zer diran *ogi ta ardoaren* itxurapen edo irudi utsak? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 197)

- Erre, erre, esaeban agintariak, erre jatekoak diran gauzok, Galsuaran baserritik *ardao ta ogia* dakarrezten bitartean. (D. Agirre, *Kresala*, 143)
- *Orio ta ardauagaz* nastean? (D. Agirre, *Kresala*, 103)
- *Arto ta garija* jan ala ganbaretan. (J. A. Mogel, *Peru Abarca*, 97)
- Jo *txistu ta danboliña*; egin dantzan be gura badozue. (Felix Bilbao, *Ipuin barreka*, 109)
- *Aragi ta arraina* guk emendik bidali bear. (Azkue, *Ardi galdua*, 97)
- Bada gure etxean toki bat ederra, eta kameluentzat *lasto ta belarra*. (Iturriaga, *Ipuiak*, 237)
- *Lisiba ta iruntzak* dabee garbituten, eta ariltokijan dira arilduten. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 146)
- Abere oek *urre eta zillarra* jaten dute! (Arrue, *Santa Genobeba*, 114)
- *Aingeru eta deabruaren* gudua. (Etxeberri Ziburukoa, *Manual devotioezkoa*, 54)
- ...gogoangarri dezu gaurko illuntzia *ur ta suakiñ* egiñ dizute jantzia. (P.M. Urrunzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 30)
- Gomute-zaitte, guri asko-gureak igaroerazo eutsun bizitza, ta eriotza garratzaren: gorde-gagizuz ondamendi, ta galbidetatik; eta *gorputz, ta arimeko gatx*, ta gertaera txarretaraik: baketu, ta bildu-gagizuz zeure aita aserratuaz. (Añibarro, *Esku-liburua*, 118)
- Ikusi xugu kristio xrela *nonbre eta señaleaz*; bada erran daztaxu orai, zomat gauz xakitra obligatrik dago kristioa arrazioala ellegatzen denean? (*Zaraitzerazko katetxima*, 19)
- Alkandoria dago guztija eginik, *ari eta orraatzaz* lotu ta josirik. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 147)
- Bai jauna, zio David errege penitenteak *konfesio ta edertasuna* alkarrekin janzi edo batu dituzu. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 139)
- Bazen horduan an zenbait eri agitz izugarriren artean *materi ta usteltasuna* zerion bat. (Mendiburu, *Bederatziurrena*, 344)
- Jesu Kristoren tribunalera, egitera konfesioe jeneral ta bizitza guztikua *diabru ta konzienzija* akusadore ditubezala. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 82)
- Babette sar bedi *abrigo ta ginballa* gañean dituala. (A. Labayen, *Su-emailleak*, 191)

- Apez kartsu baten eskuz moldaturik herrestan bizia emanik, ongi handia eginik gisa guzietara traba handien artean, obra on ederrenek ohi duten bezala hil behar zen, *gezur eta herrak* lehertua. (*Gure Herria*, 33)
- Bost oriek eta buru onezko beste bostek argi egin bear zioten ezkondu zen arratsean itxeko ataritik eztei-mairano *nagusi ezkondu berri ta onen emazteari*. (Mendiburu, *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak*, 373)
- Ez zen motzagua izan *aragille eta onen emaztiari* sartu jakuen bildurra, (...) (T. Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 462)
- Ontzi galduko mariñela ziruruyan gizajoak, edo, obeki esateko, *kartoi eta briakiñ* egintako ekanza (=irudia) (P.M. Urrunzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 30)
- *Etxatzeko pozuko ur eta len esaneko sagardoagaz ozta-oztaz amatau eben sua*. (Felix Bilbao, *Ipuin Barreka*, 166)
- Guztia dago gogoan, guztia dago *borondate eta amorioan*. (Baiona 1814, *Uskara libria*, 314)
- Dagoeneko gau illundu zun arras eta Xalbaten aburuz bederatziko sailla erdibitu egin zen *launako ta bosnakoan*. (J. Etxaide, *Joanak joan*, 258)
- ... eta Segurako erri ta Zegamakoan igarotzen da bere prozesioarekin Idiazabalko alkatea zigor altxatua eskuan dabela (...) (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 502)
- *Goi ta beko* maizterrak, oso aberatsak izan ezta ere, (...) (D. Agirre, *Garoa*, 220)
- Nere aberri ta neregana zeren eske eldu zeraten zu ta zure neskatz jagolea. (Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 122)
- Don Franzisko de Berrotaran, zeña izan zan errege onek biraldua milla seieun, laurogei ta amabigarren urtean *Karakasko uri eta probinzia Venezuelakora* kapitan jeneral, eta (...) (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 503)
- Kalte oneek egitia asko ezpalitz legez, urteten dozu *apari ta gosarija gaitik* ezer emon baga. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 79)
- *Eleiza ta sakristiko* alkarren egin-bearrak, jakiña. (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 137)
- Biedermann irtetzera doa ta atean geldituaz buruaz egiten du agurra kopetillunez *bidoi ta metxari* begiraturik. (A. Labayen, *Su-emailleak*, 198)
- Edonun ta edonoiz ikusi litezke euskaluri danetako gizaseme ta andrazkoak, banaka, biñaka edo samaldaka, oni ta besteari, *aurreko ta*

albokoari bultza egiñaz, gallurrean ta egalean, elizan ta zelaian bear aña leku idoro eziñik; (T. Agirre, *Garoa*, 180)

- Babettek leioak zabaldu bitza eta sirena-ots ta txistua gero ta bertago entzuten dira; gero urrutiratzen doazelarik. (A. Labayen, *Su-emailleak*, 211)

6 eranskina:

- Sarien azkenak dire *zeru eta lezea*, hetarik batera egin behar duzue bidea. (Etxeberri Ziburukoa, *Manual devotioezkoa*, 85)
- Bai jauna, zion David errege penitenteak *konfesio ta edertasuna* alkarrekin janzi edo batu dituzu. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 139)
- Ene *bihotz eta arima* zurekila dirade, bihotz eta arima gabe ehor ezin lizate, zu eta ni elgarreki unsa ahal ginete (B. Detchepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 221)
- Korreo kalean QQ izeneko denda eder baten aurrean biboliña joten egoan guzur-gizontxo bati barrez barrez begira egozala, billatu zituan Mañasik gure *emakume ta gizona*. (D. Agirre, *Kresala*, 190)
- Bai jauna, zio David errege penitenteak *konfesio ta edertasuna* alkarrekin janzi edo batu dituzu. (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 139)
- Laster *buru ta osasuna* galduko jatzuz. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 280)
- Erran duzun bezala, Grazien maitia, eritasun bat badut, nik, hainitz handia: *Mafrundi ta sukarra*, bat eta bertzea, deus handirik ez dire, bainan gosetea! (J.M. Hiribarren, *Euskaldunak*, 208)
- Ta bukatutakoan, arkitu ditzatzula garbiago izateko *gogo eta indarra*. (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 9)
- ... zeñaren *leialtade ta balorea* izanik gaiñ gañekoak... (Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*, 479)
- Nora ditu berorren anziñako *zillar ta urrea* zeriozkien apaindurak? (V. Mogel, *Ipui onak*, 47)
- Kaillatietako *lepo ta zelaiak* seireun metro ingurutsu dituzte eta zelaigune ontako arboladi xotil baten alboan zuten Etxahundarrak Otsoats-borda esaten zioten artzai txabola ta saletxea.(J. Etxaide, *Joanak joan*, 8)
- Jesu Kristoren tribunalera, egitera konfesioe jeneral ta bizitza guztikua *diabru ta konzienzija* akusadore ditubezala. (J.A. Mogel, *Konfesiño ona*, 82)
- *Lisiba ta iruntzak* dabee garbituten, eta ariltokijan dira arilduten.(J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 146)

7 eranskina

Hona zenbait Pikabearen testu-bildumatik (1994, 128, 128, 138) jalgiak:

Infernuan dago isioturik sua, betiko aserre, burruka eta gorrotan bizi diran eskonduentzat. (A. Iturzaeta, 1899, *Azalduera laburrac*)

Eskondu areek, berehala itxirik alde batera, erabillen atrakalada, aserre ta burrukeari, irteten dabe euren bizilekutik, nun zan suba jakiteko gogo ta asmuagaz. (A. Iturzaeta, 1899, *Azalduera laburrac*)

Eurakaz balijoten dirianak joko, saldu-erosi, edo tratuban irabasteko, fortuna on bat eukiteko; (Astarloa, 1818, *Urteco Domeca Gustijetarako Verbaldi Icasbidecuac II*)

Gure corpusean ere dexente dira horrelakoak:

- Kontsekratu geroz, Jesu-Kristo den guzia dago ala ostia sainduan ala kalizan, bere *gorphutz, odol, arima eta jainkotasunarekin*. (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 92)

- Zugan dago bekhatoren remedio guzia, *esperanza, osagarri eta salbamenduia*. (Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 75)

- Zu nire moldea izanik, jarraitu negiantzat zeure *bizitza, birtute, egite eta santutasuna*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 10)

- Zeure izen miragarria emon eusten bateoan, zu ene moldea izanik, yarraitu negioentzat zeure *bizitza, birtute, egite ta santutasunari*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 15)

- Nondik datorkio *nobelari, ipui, teatro eta zineari* bere arrakasta izugarria? (Villasante, *Kristau fedearen oinarriak*, 131)

- *Humildade, debozione eta errespetuarekin*. (*Baztango katetxima*, 72)

- Zetarako da edadeak ere atzetik dakarzan *eritasun, gaixo ta eriotzeagaz* gogoratuten egotea? (D. Agirre, *Kresala*, 121)

- Berean barriztadu dira zeure seme biotzekoaren *bizitza, pasiño ta eriotzea*. (Añibarro, *Esku-liburua*, 128)

- Erriko nausijak banakatu dautsiezan *okela, ogi ta ardauaz* bazkarija atondu dabe, baita irunsi be egundoko ariñen. (Kirikiño, *Abarrak*, 97)

- Besteetan, iuramentu, birau, ta maldizio, ezin ikusi, aserre, gorroto, ta etsiai ezin barkatu naiaren gañean, edo gaitz iriztez, edo deseozko pekatuen gañean (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*, 53)

8 eranskina

- Barriz, arpegi eta bijotztan agiri dozunok egiñaren atsakabia, gura badeutsazubez biurtu batzaarrari bere bialkiñal, agintari nagusiari zor deutsazuben mendetasuna, niri, neure *emazte ta umiak*, aldegizube doba atrakalari, bakegatzalle orreetati, ta etorri zaiteze beure aldera. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 210)
- Baita nire *emazte ta umiak* bere. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 158)
- Zuben ondo izate ta izen ederra balego neure *emazte ta ume* gaixuak galdutian, ipiniko nituke edozein arriskutan. (J.A. Mogel, *Peru Abarca*, 207)
- Irri ta barre gauzarik *yaungoiko ta santuak-gaiti* esan edo euren kontrako biraorik edo burorik egin izan badozu. (Añibarro, *Esku-liburua*)
- Hura zalu, goait zagozkon *senar eta haurretarat*. (Hiriart Urruti, *Zezenak Errepublikan*, 185)

9 eranskina

- ... partizipant egiten gaituela *redenzione eta salbamendu hunetan*. (Leizarraga, *Othoizta*, 44)
- Nondik ote datorkio *bere itzal eta lillura arrigarri ori?* (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 128)
- ... saiatu gaitzen alegiñean *gure uste eta esperantza orren* iturburuak aurkitu naiez. (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 127)
- Lagundu eioela norbaitzuk *estualdi ta ill-zori arrizgarrizko atan*, baña alperrik. (D. Agirre, *Kresala*, 198)
- Zeren hartzen *dugun gogo eta borondate hura*, ezpaita fina, ezpaita zinezkoa eta ez deliberatuki deliberatua; nahikundea baita eta ez nahia. (Axular, *Gero*, 30)
- Bada iauna, zuk zure suiet gaixoak baithara usatzeko prometatzen duzun ontasunaren araura, zure maiestateari suplikamenduz giaizkio *miserikordia eta grazia haur* egin nahi draukuzun (...) (Leizarraga, *Othoizta*, 94)
- Zer deritxazue, zuek, altara aurrean auspez belauniko zagozen angeru santuak, *gure astokeria eta lotsa galdu oneri* ? (Añibarro, *Esku-liburua*, 96)
- Ez, ezen anhitzek bere gaixtatasunez ezeztatzen dute, baina halakotz *proprietate eta natura hartako* izatea sakramenduak eztu galtzen, haren berthutea eta indarra fidelek baizen ez zenditzenagatik. (Leizarraga, *Othoizta*, 84)

Pikabearen testu-bilduman aurkitua (1994, 178):

- Heldu denian *leze eta xillo haren* tinira eta mugala, so bat eginik leze hari ikusi ditu (...) (Tartas, 1666, *Olsa hilceco bidia*)

10 eranskina

- Larre-larrean bizi dezu erretore, ta aren ginballak, kapelak, ere badio *alako basaika-uxai ta igazkotu-kutxu bat*; (Lizardi, *Itz-lauz*, 40)
- Ez, han egon behar da *atenzione ta debozione handi batekin*. (Arbelbide, *Igandea edo jaunaren eguna*, 162)
- *Arraza eta klima batetik* bestera nolako aldakuntzak eta goraberek izan diren adierazten digun aldetik. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. I Jainkoa*, 78)
- *Toki eta denpora batekin* zeuzkan lokarri denak joan zaizkio: tokitasuna eta denporatasuna galdu du. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. I Jainkoa*, 66)
- Hura ezta othoitz egite, baina hipokrisia eta *iainkoaren desohoratze eta trufatze bat* da. (Leizarraga, *Othoitz*, 69)
- Mezaren ungi entzutekotzat, segi ezatzue astelegunetako eman dauzkitzuegun praktikak; heieri junta diozue *khar eta atenzione handiagoko bat*, bestaren handitasuna eta egunaren obligazionea dela kausa. (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 180)

11 eranskina

Jantokia eta terrazaren arteko ate jiratzailea ere zalaparta batean jiratuz (B. Atxaga, *Gizona bere bakardadean*, 102)

Egoera horretan dagoenak janariaren beharra gainditzen du, baita *poza eta atseginaren* beharra ere (J.M. Irigoien, *Consummatum est*, 74)

Hilotzaren aurrean, Konradek hitz haiek oroitu zituen, aitak bere harrokerian supergizona goratu zuenean, *Jainkoa eta beste munduaren* existentzia ukatuz. (J.M. Irigoien, *Consummatum est*, 103)

Violetaren iruzkina, *poza eta tristuraren arteko* erdibidean (J.M. Irigoien, *Consummatum est*, 145)

Testu baten ulermena ziurtaturik, hots, eskema, laburpena eta izenburua finkaturik, eta kokapena egin ondoren, *testuaren edukina eta formaren* azterketari ekingo zaio. (J. Butron & J. de Pedro, 1993, *Euskal Hizkuntza eta Literatura-UBI*, Erein, 101)

Mendia eta izadiaren zaintza Gipuzkoan. (*Argia*, 1996-II-18, 1.565 zkoa, 67)

Elurra eta ekaitzaren ondorioz errepideak egoera txarrean daude. (Euskadi Irratia, 1996-II-20)

(...) ingeniaria eta Taunus eseri egin ziren erretzera eta solas egitera *nekazaria eta soldaduekin*. (J. Cortazar, *Hegoaldeko autopista*, (itzultzaile G. Markuleta), in I. Aldekoa (ed) *Ipuin Gogoangarriak*, 169)

Taunusen laguna isilean heldu zen, ingeniaria, soldadua eta 203ko gizonaren bila. (J. Cortazar, *Hegoaldeko autopista*, (itzultzaile G. Markuleta), in I. Aldekoa (ed) *Ipuin Gogoangarriak*, 171)

Litro erdi ur geratzen zen, eta emakumezkoek erabaki zuten apurtxo hark atsoa eta Beaulieuuko andrearentzat izan behar zuela. (J. Cortazar, *Hegoaldeko autopista*, (itzultzaile G. Markuleta), in I. Aldekoa (ed) *Ipuin Gogoangarriak*, 175)

BIBLIOGRAFIA

Corpusa osatzeko erabilitako bibliografia

- Agirre, J.B. (Asteasukoa), *Erakusaldiak I*. Tolosa 1950.
- Agirre, D., Auñamendiko Lorea. Bilbo, 1898.
- Agirre, D., *Kresala*. Durango, 1906.
- Agirre, D., *Garoa*. Durango, 1912.
- Agirre, J.M. "Lizardi", *Itz-lauz*. Donostia, 1934.
- Alvarez Enparantza, J.L. "Txillardegi", *Leturiaren Egunkari Ezkutua*. Bilbo, 1957.
- Alzaga, T., *Santo Tomas Feriya*. Donostia, 1962.
- Añibarro, P.A., *Esku-liburua 1, 2*. Tolosa 1802.
- Añibarro/Astete, *Cristau Dotriña*. Iruñea, 1802.
- Arbelbide, J.P., *Igandea edo Jaunaren Eguna*. Lille, 1895.
- Archu, J.B., *La Fontaineren Alhegia-berheziak, Neurtitez Franzesetik Uskarara Itzuliak*. La Reole, 1848.
- Arrue, G., *Santa Genobeba*. Tolosa 1885.
- Arrue, G., *Maietzeko Illa*. Tolosa, 1888.
- Astarloa, P., *Urteco Domeca Gustijetarako Verbaldi Icasbidecuac*. Bilbo, 1916-18.
- Atxaga, M., *Gaztetxo*. Donostia, 1963.
- Axular, P., *Gero*. Burdeos, 1643.
- Azkue, R.M., *Patxi Guzur*. Bilbo, 1897.
- Azkue, R.M., *Ardi Galdua*. Bilbo, 1918.
- Belapeyre, A., *Katechima Laburra*. Pau, 1696.
- Berrondo, P., *Don Kixote Mantxako*. Zarautz, 1977.
- Bilbao, F., *Ipuin Barreka*. Bilbo, 1959.
- Bustintza, E., "Kirikiño", *Abarrak*. Abando, 1918.
- Bustintza, E., "Kirikiño", *Bigarrenko Abarrak*. Zornotza, 1930.
- Chourio, M., *Jesu-Kristoren Imitazionea*. Bordel, 1720.
- Dassançã, M., *Laborarien Abisua*. RIEV 1908, 585-600.
- Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*. (P. Altuna) Bilbo, 1980.

- Duvoisin, J., *Laborantzako Liburua*. Baiona, 1858.
- Echeverri/Astete, *Guiristino-Doctrina* (Luzaide). ASJU, 1985.
- Eguiateguy, J., *Lehen Liburua edo Filosofo Huskaldunaren Ekheia*. (T. Peillen) Bilbo, 1983.
- Elissalde, J., "Azkaine. Gure Sorterria". *Gure Herria*. Baiona, 1952-1957.
- Elissamburu, J.B., *Piarres Adame*. Baiona, 1946.
- Erkiaga, E., *Batetik Bestera*. Zarautz, 1962.
- Etxaide, J., *Joanak Joan*. Zarautz, 1955.
- Etxaniz, N., *Nola Idatzi Euskaraz*. Donostia, 1917.
- Etxaniz, N., *Euskal Antzerkiak*. Zarautz, 1958.
- Etxebarria, J.M. *Gorbeia Inguruko Etno-ipuina eta Esaundak*. Bilbo, 1995.
- Etxeberri, J. (Ziburukoa), *Manual Devotionezcoa*. Burdeos, 1669.
- Etxeberri, J. (Sarakoa), *Euskararen Hatsapenak*. (J. Urquijo) Paris, 1907.
- Etxeberri, J. (Sarakoa), *Gutuna*. (J. Urquijo) Paris, 1907.
- Etxeberria, T., *Ibilarixanak*. Zarautz, 1967.
- Etxepare, J., *Buruxkak*. Lekorne-Aldude, 1910.
- Goyhetche, L., *Fableak*. Baiona, 1852.
- Guerrico, J.L., *Saiakera*. Tolosa, 1858.
- Gure Herria* aldizkaria. Baiona, 1921-1926.
- Hiriart-Urruty, J., "Zenbait Aurpegi" *Aurpegia, Mintzaira, Gizon!*. Donostia, 1971.
- Hiriart-Urruty, J., *Zezenak Errepublikan*. Donostia, 1972.
- Hiribarren, J.M., *Eskaraz Egia*. Baiona, 1858.
- Irazusta, J.A., *Bizia Garratza da*. Buenos Aires, 1950.
- Iturriaga, A.P., *Ipuiak*. Donostia, 1842.
- Iztueta, J.I., *Gipuzkoako Kondaira*. Donostia, 1847.
- Joannateguy, B., *Sainduen Bizitza*. Baiona, 1890.
- Kardaberaz, A., *Ejertzioak II*. Iruñea, 1958. III ere bai
- Kardaberaz, A., *Euskeraren Berri Onak*. Iruñea, 1761.
- Kateximak:
- Le petit Catéchisme Espagnol du P. Astete. Traduit en Trois dialectes basques: 1. Aezcoan, par Don Pedro José Minondo, Intituteur à Garralda, avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Arabe.*
Ed. del Principe Bonaparte. Londres, 1869.

Le petit Catéchisme Espagnol du P. Astete. Traduit en Trois dialectes basques: 2. Salazarais, par Don Pedro José Samper, Curé de Jaurrieta. Ed. del Príncipe Bonaparte. Londres, 1869.

Le petit Catéchisme Espagnol du P. Astete. Traduit en Trois dialectes basques: 3. Roncalais, par Don Prudencio Hualde, Curé de Vidangoz. Ed. del Príncipe Bonaparte. Londres, 1869.

Cristau-Dotrina Aita Gaspar Astete erderaz esribitua eta orai escuaraz publicatzen duena [...] Baztango Valleco Parroco batec. Iruñea?, 1826?.

Catichima [...] Charles Auguste Le Quien Laneufville, Aquiceco Jaun Apezpicu ossoqui Illustre eta Ohoregarriaren manuz araimprimatia. Akitze, 1780.

Labayen, A.M., "Su-emaileak", *Egan*. 1966.

Laphitz, F., *Bi Saindu Euskaldunen Bizia*. Baiona, 1867.

Lardizabal, F.I., *Testamentu Zarreko eta Berriko kondaira*. Tolosa, 1855.

Larramendi, M., *Panegirico al Gran Doctor de la Iglesia San Agustin*. Azpeitia, 1955.

Larramendi, M., *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Donostia, 1745.

Larramendi, M., *Corografía o Descripción General de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. (J.I. Tellechea), Donostia 1969.

Larregi, B., *Testament Zaharreko eta Berriko Historia*. Donostia, 1978.

Leizarraga, J., *Othoitza*. Donostia, 1979.

Madariaga B. "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 1*. Iruñea, 1816.

Madariaga B. "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 2*. Iruñea, 1817.

Madariaga B. "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 3*. Iruñea, 1819.

Mattin Treku, *Ahal Dena*. Donostia, 1971.

Mendiburu, S., *Bederatziurrena*. Tolosa, 1916.

Mendiburu, S., *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak*. Bilbo, 1982.

Mendigacha, M., "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue". (A. Irigoyen) *Euskera* 1957.

Mitxelena, K., *Idazlan Hautatuak*. (P. Altunak paratua), Bilbo, 1982.

Mitxelena, S., *Arantzazu. Euskal-sinismenaren Poema*. Oñati, 1949.

Mogel, J.A., *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*. Iruñea, 1800.

Mogel, J.A., *Konfesiño Ona*. Gasteiz, 1803.

Mogel, J.A., *Peru Abarca*. Durango, 1881.

Mogel, V., *Damuba Garaiz*. Tolosa, 1897.

Moguel, J.J., *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*. Bilbo, 1816.

Mujika, G., *Pernando Amezetarra*. Donostia, 1925.

Oihenart, A., "Oihenarten Gaztaroa Neurtitzetan" *Les Proverbes Basques, ASJU* 1955.

- Ormaechea, N., "Orixe", *Quito-n Arrebarekin*. Guatemala. *Euzko Gogo*, 1950-1954.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Santa Kruz Apaiza*. Donostia, 1929.
- Pello Errota (P. Elizegi) *Pello Errotak Jarritako Bertsoak*. (A. Zabala) Donostia, 1963.
- Pouvreau, S., *Imitazionea*. Donostia, 1979.
- Pouvreau, S., *Philotea*. Paris, 1664.
- Salaverria, S., *Neronek Tirako Nizkiñ*. Tolosa, 1964.
- San Martin, J., *Zirikadak*. Zarautz, 1960.
- Soroa, M., *Gabon, au Ostatuba!*. Donostia, 1962.
- Topet, P. "Etchahun", "Bertsoak" in Haritschelhar, J., "L'oeuvre Poétique de Pierre Topet-Etchaun", *Euskera* 1969-70, Bilbo.
- Ubillos, J.A., *Kristau Doktriñ Berri-ekarlea*. Tolosa, 1785.
- Urrunzuno, P.M., *Ur-zale Baten Ipuiak*. Donostia, 1965.
- Uztapide, M., *Noizbait*. Tolosa, 1964.
- Uztapide, M., *Lengo Egunak Gogoan, I eta II*. Tolosa, 1975.
- Uztapide, M., *Sasoia Joan da Gero*. Donostia, 1976.
- Villasante, L., *Kristau Fedearen Sustraiak I*. Jainkoa. Oñati, 1962.
- Xalbador (F. Aire), *Odolaren Mintzoa*. Zarautz, 1976.
- Xenpelar (J.F. Petrirena), *Xenpelar Bertsolaria*. (A. Zabala) Donostia, 1969.
- X.X., *Uskara Libria*. Baiona, 1814.
- X.X., *Durangoko Plateruak*.
- X.X., *Euskal Jokoak Bertsoan, I*. (ed., A. Zavala) Estella, 1984.
- Zaitegi, J., *Sopokelen Antzerkiak*. Mexiko, 1946 - Baiona, 1958.

Bibliografia:

- Abbot, B., 1978. "Right Node Raising as a Test for Constituenthood". *LI* 7: 30-42.
- Abney, S., 1987. *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*. Doktorego tesia, MIT.
- Allan, K., 1981. "Interpreting form Context". *Lingua* 53: 151-173.
- Allerton, D.J., 1975. "Deletion and Proform Reduction". *Journal of Linguistics* 11: 213-238.
- Altuna, P., 1986, "Juntagailu Kopulatiboak". *FLV* 47, 47-99.
- Anderson, C.B., 1983. "Generating Coordinate Structures with Asymmetric Gaps". *CLS* 19: 3-14.
- Benmamoun, E., 1992. *Functional and inflectional morphology: Problems of projection, representation and derivation*. Doktorego tesia, USC, Los Angeles, California;
- Aronoff, M., 1976. *Word Formation in Generative Grammar*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Artiagoitia, X., 1992. "Why Basque doesn't Relativize Everything". In J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (eds.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, ASJUren gehigarriak 27: 11-35. Donostia.
- Artiagoitia, X., 1995. *Verbal projections in Basque and minimal structure*. ASJUren gehigarriak 36. Donostia.
- Authier, J.M., 1990. "Affective or and Gapped Coordinate Structures". *Cahiers Linguistiques d'Ottawa* 18: 1-11.
- Azkarate, M., 1990. *Hitz Elkartuak Euskaraz*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- Azkarate, M., 1994. *Hitz Eraketa Euskaraz (hitzaldia)*. Donostia: EHU-ko Udako Ikastaroak.
- Azkue, R. M., (1923-1925) *Morfología Vasca*. (1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca).
- Baker, M., 1988. *Incorporation: a Theory of Grammatical Function Changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Bach, E. & J. Bresnan, & T. Wasow 1974. "'Sloppy Identity': an Unnecessary and Insufficient Criterion for Deletion Rules". *LI* 5: 609-614.
- Baldi, P., 1971. "Conjunction of Reflexives: Syntax or Semantics". *Linguistics* 2: 76-82.
- Banfield, A., 1981. "Stylistic Deletion in Coordinate Structures". *Linguistic Analysis* 7: 1-32.
- Bartra, A., 1985. *Questions de la sintaxi d'ordre en Calatà*. Tesia. Universidad Autònoma de Barcelona.
- Bechhofer, R., 1976. "Reduction in Conjoined WH-questions". *Harvard Studies in Syntax and Semantics* 2: 68-120.
- Aoun & Benmamoun & Sportiche 1994. "Agreement, Word Order and Conjunction in Some Varieties of Arabic". *LI* 25, 195-220.
- Bernstein, J.B., 1993. *Topics in the Syntax of Nominal Structure Across Romance*. Doktorego tesia, CUNY.

- Blom, A., 1975. "Against Conjunction Reduction". In A. Kraak (ed.), *Linguistics in the Netherlands 1972-1973*: 128-140.
- Bonet, S. & Solà, J., 1986. *Sintaxi Generativa Catalana*. Barcelona: Enciclopèdia Catalana.
- Booij, G., 1984. "Coördination Reduction in Complex Words: A Case for Prosodic Phonology". In Harry van der Hulst & Norval Smith (eds.), *Advances in Non-linear Phonology*, 143-160. Dordrecht: Foris.
- Borsley, R.D., 1989. "A Note on Ellipsis and Case". *LI* 20: 125-130.
- Borsley, R.D., 1994. "In Defense of Coordinate Structures". *Linguistic Analysis* 24: 218-246.
- Borsley, R.D. & Stephens, D., 1989. "Agreement and the Position of Subjects in Breton". *NLLT* 7: 407-427.
- Bosque, I., 1984. "Negación y Elipsis". *Estudios de Lingüística* 2, 171-199. Universidad de Alicante.
- Bosque, I., 1987 "Construcciones Morfológicas sobre la Coordinación". *Lingüística Española Actual* 9: 83-98.
- Bossong, 1984. "Ergativity in Basque". *Linguistics* 22.
- Bouton, L., 1970. "Antecedent-contained Pro-forms". *CLS* 6, 154-167.
- Bresnan, J., 1982, "Polyadicity". in Bresnan, J. (ed.), *The Mental Representation of Grammatical Relations*, Cambridge, Mass.: MIT Press
- Bresnan, J., 1982, "The Passive in Lexical Theory". in Bresnan, J. (ed.), *The Mental Representation of Grammatical Relations*, Cambridge, Mass.: MIT Press
- Bresnan, J., 1982 (biltzaile) *The Mental Representation of Grammatical Relations*, Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Browne, E.W., 1972. "Conjoined Question Words and a Limitation of English Surface Structure". *LI* 3.
- Brucart, J. M., 1984. "Sobre el Carácter Anafórico del Fenómeno de Vaciado". *Estudis Gramaticals* 1, 27-76.
- Brucart, J. M., 1987a. *La Elisión Sintáctica en Español*. Universidad Autónoma de Barcelona.
- Brucart, J.M., 1987b. "Sobre la Representación Sintáctica de las Estructuras Coordinadas". *Revista Española de Lingüística* 17: 105-129.
- Brucart, J. M., 1987c. "La Elipsis Parcial". In V. Demonte & M. Fernandez (ed), *Sintaxis de las Lenguas Románicas*. Madrid: Ediciones El Arquero.
- Burton, S. & J. Grimshaw, 1992. "Coordination and VP-internal Subjects". *LI* 23: 305-313.
- Baker, M., 1988 *Incorporation: a Theory of Grammatical Function Changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Carston, R., 1993. "Conjunction, Explanation and Relevance". *Lingua* 90: 27-48.
- Castairs-McCarthy, A., 1992. *Current Morphology*. Routledge: London.
- Chae, H., 1991. "Right Node Raising and a LICENSOR Feature". *CLS* 27:46-59.

- Channon, R., 1975. "Acceptable Ambiguity". In C. Cogen, H. Thompson, G. Thurgood, K. Whistler & J. Wright (eds.) *Proceedings of the First Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*. Berkeley: University of California.
- Chao, W., 1987. *On Ellipsis*. Doktorego tesia, University of Massachusetts.
- Chomsky, N., 1957. *Syntactic Structures*. The Hague: Mouton.
- Chomsky, N., 1965, *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N., 1970, "Remarks on nominalization". In Jacobs & Rosenbaum (eds.), *English Transformational Grammar*, 184-221.
- Chomsky, N., 1981, *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.
- Chomsky, N., 1982. *Some Concepts and Consequences of the Theory of Binding*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N., 1986. *Barriers*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N., 1991. "Algunas Notas sobre la Economía de la Derivación y la Representación". ASJU 25.
- Chomsky, N., 1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory". In K. Hale & S. Kayser (ed.) *The view from Building 20: Essays in Honor of Sylvain Bromberger*, 1-52. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N., 1994. "Bare Phrase Structure". *MIT Occasional Papers in Linguistics* 5.
- Chung, S., 1990. "VP's and Verb Movement in Chamorro". *NLLT* 8, 559-619.
- Cinque, G., 1993. *On the Evidence for Partial N Movement in the Romance DP*. Lan argitaragabea, Università di Venezia.
- Contreras, H., 1978. *El Orden de las Palabras en Español*. Madrid: Cátedra.
- Contreras, H., 1989. "On Spanish empty N' and N". In C. Kirschner & J. De Cesaris (ed.), *Studies in Romance Linguistics*, 83-95. Amsterdam: Benjamins.
- Corbett, G. 1983. "Resolution Rules: Agreement in Person, Number and Gender". In G. Gazdar, E. Klein & G. Pullum (eds.) *Order, Concord and Constituency*. Dordrecht: Foris.
- Crockett, D. B., 1972. "More on Coordination Reduction". *CLS* 8: 52-61.
- Cuenca, M.J. 1988. *L'oració Composta (I): La Coordinació*. Universitat de València.
- Culicover, P.W., 1972. "OM-sentences". *Foundations of Language* 8: 199-236.
- Culicover, P.W. & Jackendoff, R., 1997. "Semantic Subordination Despite Syntactic Coordination". *LI* 28, 195-219.
- Dalrymple, M & S.M. Sheber & F.N.C. Pereira 1991. "Ellipsis and Higher-Order Unification". *Linguistics and Philosophy* 14: 399-452.
- Dalrymple, M. & A. Kehler, 1995. "On the Constraints Imposed by *Respectively*". *LI* 26: 531-536.
- Davis, L.J., 1986. "Remarks on the θ -criterion and Case". *LI* 17: 546-568.
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. (1989) "Inkorporazioa perpaus kausatiboetan". *Sintaxi teoria eta euskara* (ed., P. Salaburu). EHU.

- Dik, S., 1968. *Coordination. Its implications for the general linguistics*. Amsterdam: North-Holland Publishing Company.
- Dougherty, R., 1969. "An Interpretative Theory of Pronominal Reference", *Foundations of Language* 5.
- Dougherty, R., 1969. "Coordination. Its Implications for the Theory of General Linguistics". *Language* 45-3.
- Dougherty, R., 1970. "A Grammar of Coordinate Conjoined Structures: I". *Language*, 46-4.
- Dougherty, R., 1971. "A Grammar of Coordinate Conjoined Structures: II". *Language*, 47-2.
- Dowty, D., 1988. "Type Rising, Functional Composition, and Non-Constituent Conjunction". In R.T. Oehrle, Emmon Bach, and Deirdre Wheeler (eds.) *Categorial Grammars and Natural Language Structures*. Dordrecht: Reidel.
- Eguzkitza, A., 1986. *Topics in the Syntax of Basque and Romance*. Doktorego tesia, UCLA .
- Eguzkitza, A., 1992. "The grammar of adnominals in Basque". In J. Ortiz de Urbina & J.I. Hualde (eds), *Generative studies in Basque Linguistics*, 163-187. Amsterdam: John Benjamins.
- Eisenberg, P., 1973. "A Note on 'Identity of Constituents'", LI 4: 417-420.
- Ensunza, M., 1989. "Erdal Adjektibo Erreferentzialetarako Euskal Ordainak". *Euskera* 34: 577-596.
- Esnal, P., 1987-1989. *HABE Aldizkaria*.
- Espinal, M.T., 1991. "The Representations of Disjunct Constituents". *Language* 67:726-762.
- Euskaltzaindia, 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruñea.
- Euskaltzaindia, 1987. *Hitz-Elkarketa/1. LEF Batzordearen Lanak*. Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1990. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*. Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1991. *Hitz-Elkarketa/3. LEF Batzordearen Lanak*. Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1994. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV*. Bilbo.
- Fabb, N., 1988. "Doing affixation in the GB Syntax". In Everaert, M. & A. Evers & R. Huybregts & M. Trommelen (eds.), *Morphology and Modularity: in Honour of Henk Schultink*. Dordrecht: Foris.
- Farrell, P., 1992. "Null Noun Complements in English". LI 23, 147-156.
- Faskas, D.F. & A. Ojeda., 1983. "Agreement and Coordinate NPs". *Linguistics* 21: 659-673.
- Fedorowicz-Bacz. B., 1973. "Gapping in Polish and the Non-ambiguity Condition". *University of Michigan Papers in Linguistics 1.2.: Language in the context of space, time and society*. 43-53.
- Fiengo, R. & R. May 1994. *Indices and Identity*. Cambridge, MA: MIT press.
- Franchini, E., 1986. *Las Condiciones Gramaticales de la Coordinación Copulativa en Español*. Berna: Francke Verlag.
- Fukuchi, H., 1975. "Remarks on the Adverbials in Coordinate Structure", *Papers in Linguistics* 8: 177-197.

- Fukui, N. & M. Speas 1986. "Specifiers and Projections". *MIT Working Papers in Linguistics* 8: 128-172.
- Furbee, N., 1974. "Identity on Gapping and the Lexical Insertation of Verbs". *LI* 5: 298-304.
- Gastañaga, L. G., 1977. "Gapping Basque Constituents", *Anglo American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*. 169-175.
- Gazdar, G., 1981. "Unbounded Dependencies and Coordinate Structure". *LI* 12: 155-184.
- Gazdar, G., G. Pullum & I. Sag, 1981. "Auxiliaries and Related Phenomena in a Restrictive Theory of Grammar". *Language* 58: 591-638.
- Gazdar, G., G.K. Pullum, I. Sag & T. Wasow, 1982. "Coordination and Transformational Grammar". *LI* 13: 663-676.
- Gazdar, G., E. Klain, G.K. Pullum & I.Sag., 1985. *Generalized Phrase Structure Grammar*. Oxford: Basil Blackwell.
- Giorgi, A. & Longobardi, G., 1991. *The Syntax of Noun Phrases: Configuration, Parameters, and Empty Categories*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Godard, D., 1989. "Empty Categories as Subjects of Tensed Ss in English or French?". *LI* 20: 497-506.
- Goenaga, P., 1980. *Gramatika Bideetan* (3. arg). Donostia: Erein.
- Goenaga, P., 1991. "Izen Sintagmaren Egituraz". In J.A. Lakarra (ed.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 847-865. Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJUren gehigarria).
- Goodall, G., 1987. *Parallel Structures in Syntax*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Grice, H.P., 1975. "Logic and Conversation". In P. Cole & J.L. Morgan (eds.) *Syntax and Semantics*, (vol. 3) *Speech Acts*, 41-58. New York: Academic Press.
- Grinder, J. & P.M. Postal 1971. "Missing Antecedents". *LI* 2: 269-312.
- Grosu, A., 1973. "On the Nonunitary Nature of the Coordinate Structure Constraint". *LI* 4: 88-91.
- Grosu, A., 1985. "Subcategorization and Parallelism". *Theoretical Linguistics* 12:231-239.
- Grosu, A., 1987. "On acceptable Violations of Parallelism Constraints". In René Dirven & Vilém Fried (eds.), *Functionalism in Linguistics*. John Benjamins.
- Haegeman, L., 1991. *Introduction to Government and Binding Theory*. Cambridge University Press.
- Hajime, F., 1973. "Directionality in Reduction". *Studies in English Linguistics* 2: 18-27.
- Haik, I., 1987. "Bound VP's that Need to be". *Linguistics and Philosophy* 10:503-530.
- Haiman, J., 1985. *Natural Syntax*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Halle, M., 1973. "Prolegomena to a Theory of Word-formation". *LI* 4: 3-16.
- Halliday, M.A.K. & Hasan, R., 1976. *Cohesion in English*. Longman Paperback.
- Hankamer, J., 1973. "Unacceptable Ambiguity". *LI* 4: 17-68.
- Hankamer, J., 1978. "On the Nontransformational Derivation of Some Null VP Anaphors". *LI* 9: 66-74.
- Hankamer, J., 1979. *Deletion in Coordinate Structures*. New York & London: Garland Publishing.

- Hankamer, J., 1984. "Toward a Theory of Anaphoric Processing". *Linguistics and Philosophy* 7: 325-345.
- Hankamer, J. & I.A. Sag 1976. "Deep and Surface Anaphora". *LI* 7:391-426.
- Hardt, D., 1992. "VP Ellipsis and Semantic Identity". In S. Berman & A. Hestvik (eds.) *Proceedings of the Stuttgart Ellipsis Workshop*. University of Stuttgart.
- Harries, H., 1973. "Coordination Reduction". In *Working Papers on Language Universals* 11. Stanford: Stanford University.
- Hee-Rahk Chae, 1991. "Right Node Raising and a LICENSOR Feature". *CLS* 27: 46-59.
- Hestvik, A., 1992. "The Effect of Subordination on Strict Identity Interpretation of Reflexives". In S. Berman & A. Hestvik (eds.), *Proceedings of the Stuttgart Ellipsis Workshop*. University of Stuttgart.
- Höhele, T., 1985. "On Composition and Derivation". In J. Toman (ed.) *Studies in German Syntax*. Dordrecht: Foris.
- Höhele, T., 1990. "Assumptions About Asymmetric Coordination in German". In J. Mascaró & M. Nespor (eds.) *Grammar in Progress*. Dordrecht: Foris.
- Hoeksema, J., 1983. "Plurality and Conjunction". In Alice ter Meulen (ed.) *Studies in Model-Theoretic Semantics*. Dordrecht: Foris.
- Hualde, J.I., 1988. "Case Assignment in Basque". *ASJU* 22.
- Hualde, J.I., 1991. *Basque Phonology*. London & New York: Routledge.
- Hualde, J.I. & Elordieta, G. & Elordieta, A., 1993. "Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno". *ASJU* 27: 731-750.
- Hudson, R., 1976. "Conjunction-reduction, Gapping and Right-node Raising". *Language* 52: 535-562.
- Hudson, R., 1982. "Incomplete Conjuncts". *LI* 13: 547-553.
- Hudson, R., 1984. *Word grammar*. Oxford: Basil Blackwell.
- Hudson, R., 1986. "Sociolinguistics and the Theory Grammar". *Linguistics* 24: 1053-1078.
- Hudson, R., 1988. "Coordination and Grammatical Relations". *Journal of Linguistics* 24: 303-342.
- Hudson, R., 1989. "Gapping and Grammatical Relations". *Journal of Linguistics* 25: 57-94.
- Hudson, R., 1990. *English Word Grammar*. Oxford: Blackwell.
- Hutchinson, L.G., 1982. "Sentential and Subsentential Coordination in Linguistics and Logic". *CLS* 18: 209-217.
- Huybregts, R. & H. van Riemsdijk 1985. "Parasitic Gaps and ATB". *Tilburg Papers in Language and Literature* 76.
- Jackendoff, R., 1971. "Gapping and Related Rules". *LI* 2: 21-36.
- Jackendoff, R., 1975. "Morphological and semantic regularities in the lexicon". *Language* 51: 639-671.
- Jackendoff, R., 1977. *X-Bar Syntax: a Study of Phrase Structure*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Jackendoff, R., 1990a. "On Larson's Analysis of the Double Object Construction," *LI* 21: 427-456.

- Jackendoff, R., 1990b. *Semantic Structures*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Jacobsen, W.H., 1977. "The Basque Locative Suffix". *Anglo American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*. 163-168.
- Jaeggli, O., 1981. *Topics in Romance Syntax*. Dordrecht: Foris.
- Jake, J., 1977. "Gapping, Pragmatics and Factivity". *CLS* 13: 165-172.
- Jayaseelan, 1991, Incomplete VP Deletion and Gapping. *Linguistic Analysis* 20: 64-82.
- Johannessen, J.B., 1996. "Partial Agreement and Coordination". *LI* 27.
- Kac, M. B., 1987. "Surface Transitivity, Respectively Coordination and Context-freeness". *NLLT* 5: 441-452.
- Kaplan, J., 1984. "Obligatory *too* in English". *Language* 60: 510-519.
- Kaplan, J., 1985. "VP Anaphor Choice in Discourse". In Wirth, J. (ed.), *Discourse and Sentential Form*. Ann Arbor, Mi.: Karoma Publishers.
- Kathol, A., 1992. "On Coordination and Constituency in German". *CLS* 28: 267-281.
- Kayne, R.S., 1981. "ECP Extensions". *LI* 12: 93-133.
- Kayne, R.S., 1993. "The Antisymmetry of Syntax". Lan argitaragabea, CUNY.
- Kiparsky, P., 1982. *Explanation in Morphology*. Dordrecht: Foris.
- Kitagawa, Y., 1991. "Copying Identity". *NLLT* 9: 497-536.
- Klein, E. & K. Stainton-Ellis, 1989. "A Note on Multiple VP Ellipsis". *Linguistics* 27: 1119-1124.
- Kondo, M., 1991. "Across-the-Board Extraction and a Theory of Chain Composition". *English Linguistics* 8: 68-85.
- Kooij, J. G., 1983. "Gapping: a Contribution to a Sentence Grammar." *Language* 59-1.
- Koster, J., 1978. *Locality Principles in Syntax*. Dordrecht: Foris.
- Koutsoudas, A., 1971. "Gapping, Conjunction Reduction and Co-ordinate Deletion". *Foundations of Language* 7: 337-386.
- Kuno, S., 1975. "Conditions for Verb Phrase Deletion". *Foundations of Language* 13: 161-175.
- Kuno, S., 1976. "Gapping: a Functional Analysis" *LI* 7: 300-318.
- Kuno, S., & K. Takami, 1993. *Grammar and Discourse Principles*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Kupin, J., 1978. "A Motivated Alternative to Phrase Markers". *LI* 9: 303-308.
- Lafitte, P., 1962. *Grammaire Basque*. [1979. Baiona: Elkar].
- Laka, I., 1985, "Azpikotasunaren baldintzaz: muga adabegiak euskaraz". In P. Goenaga (ed.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*. EHU: Bilbo. 97-143.
- Laka, I., 1988. "Configurational Heads in Inflectional Morphology: the Structure of the Inflected Forms in Basque". *ASJU* 22: 343-366.
- Laka, I., 1990. *On the Nature of Functional Categories and Projections*. Doktorego tesia, MIT.

- Lakoff, R., 1971. "If's, And's and But's about conjunction", in D. Reibel and S. Schane (eds.), *Modern Studies in English*. Englewood Cliffs: Prentice Hall.
- Lakoff, G. & S. Peters 1969. "Phrasal Conjunction and Symetric Predicates". in D. Reibel and S. Schane (eds.) *Modern studies English: readings in transformational grammar*. Englewood Cliffs NJ: Prentice-Hall.
- Lakoff, G. & J.R. Ross 1976 (1966). "Why you can't do so into the sink". In McCawley, J. D. (ed.) 1976. *Syntax and Semantics 7: Notes from the Linguistic Underground*. New York: Academic Press, 101-111.
- Lakoff, G. & J.R. Ross 1972. "A Note on Anaphoric Islands and Causatives". *LI* 3: 121-125.
- Lang, E., 1984. *The Semantics of Coordination*. Amsterdam: John Benjamins.
- Langendoen, D.T., 1975, "Acceptable Conclusions from Unacceptable Ambiguity", in D. Cohen & J. Wirth (eds.), *Testing Linguistic Hypotheses*. Washington: Hemisphere.
- Lapointe, S., 1979 "A Lexical Analysis of the English Auxiliary Verb System", *GLOT* 2, 215-254.
- Lappin, S., 1992. "The Syntactic basis of VP Ellipsis Resolution". *Proceedings of the Stuttgart Ellipsis Workshop*. University of Stuttgart.
- Larson, R., 1988. "On the Double Object Construction". *LI* 19: 335-391.
- Larson, R., 1990. "Double Objects Revisited: Reply to Jackendoff". *LI* 21: 589-632.
- Lasnik, H. & J. Kupin 1977. "A Restrictive Theory of Transformational Grammar". *Theoretical Linguistics* 4.
- Lazaraton, A., 1992. "Linking Ideas with AND in Spoken and Written Discourse". *IRAL* 30: 190-206
- Lee, C., 1990. "The Feature-based Analysis of Constraints on Coordination in English: A GPSG Account". *Language Research* 26: 147-158.
- Lees, R. B., 1960. *The Grammar of English Nominalizations*. Bloomington: Indiana University Press.
- Levin, L., 1982. "Sluicing: A Lexical Interpretation Procedure". In J. Bresnan (ed.), *The Mental Representation of Grammatical Relations*. MIT Press.
- Levin, N.S., 1986 (1979). *Main Verb Ellipsis in Spoken English*. New York: Garland.
- Levine, R.D., 1984. "A Note on Right Node Raising, *tough* Constructions and Reanalysis Rules". *Linguistic Analysis* 13: 159-172.
- Levine, R., 1985. "Right Node (non-)Raising". *LI* 16: 492-497.
- Lieber, R., 1983. "Argument Linking and Compounds in English". *LI* 14: 251-285.
- Lobeck, A., 1987. "VP Ellipsis in Infinitives: INFL as Proper Governor". *NELS 17, Proceedings of the Seventeenth Annual Meeting of the North-eastern Linguistics Society*, GLSA, Dept. of Linguistics, University of Massachusetts, Amherst.
- Lobeck, A., 1987. *Syntactic Constraints on VP Ellipsis*. Bloomington: Indiana University Linguistics Club.
- Lobeck, A., 1990. "Functional Heads as Proper Governors". *Proceedings of NELS 17*. University of Massachusetts, Amherst: Graduate Students Linguistics Association.

- Lobeck, A., 1991a. "The Phrase Structure of Ellipsis". In S. Rothstein (ed.), *Syntax and Semantics*, vol. 25. New York: Academic Press.
- Lobeck, A., 1991b. "Spec-head Agreement in DP". In D. Bates (ed.), *Proceedings of the West Coast Conference on Formal Linguistics 10*. Stanford: CSLI.
- Lobeck, A., 1993. "Strong Agreement and Identification: Evidence from Ellipsis in English". *Linguistics* 31: 777-811.
- Luján, M., 1980. *Sintaxis y Semántica del Adjetivo*. Madrid: Cátedra.
- Lyons, J., 1968. *Introduction to Theoretical Linguistics*. Cambridge University Press: Cambridge.
- Maling, J.M., 1972. "On Gapping and the Order of Constituents". *LI* 3: 101-108.
- Marantz, A., 1988. "Clitics, Morphological Merger, and the Mapping to Phonological Structure". In Hammond & Noonan (eds.), *Theoretical Morphology: Approaches to Modern Linguistics*, 253-270. San Diego: Academic Press.
- Martín, J., 1995. *The Syntactic Structure of Spanish Noun Phrases*. Doktorego tesia, USC.
- McCawley, J., 1982. "Parentheticals and Discontinuous Constituent Structure". *LI* 13: 91-106.
- McCawley, J., 1988. *The Syntactic Phenomena of English*. Chicago: University of Chicago Press.
- McCloskey, J., 1986a. "Right Node Raising and Preposition Stranding". *LI* 17:183-186.
- McCloskey, J., 1986b. "Inflection and Conjunction in Modern Irish". *NLLT* 4 : 245-281.
- McCloskey, J., 1991. "Clause Structure, Ellipsis and Proper Government in Irish", *Lingua* 85: 259-302.
- McNally, L., 1992. "VP-coordination and the VP-internal Subject Hypothesis". *LI* 23: 336-341.
- Miller, P., 1990. "Pseudogapping and *do so* Substitution". *CLS* 26: 293-305.
- Miller, P., 1992. "Postlexical Cliticization vs. Affixation: Coordination Criteria". *CLS* 28: 382-396.
- Mitxelena, K., 1961. *Fonética Histórica Vasca* (1985, Gipuzkoako Foru Aldundia).
- Mohanan, K.P., 1986. *The Theory of Lexical Phonology*. Dordrecht: Reidel.
- Moltmann, F., 1992. *Coordination and Comparatives*. Doktorego tesia, MIT.
- Moortgat, M., 1988. "Mixed Composition and Discontinuous Dependencies". In R.T. Oehrle & Emmon Bach & Deirdre Wheeler (eds.) *Categorial Grammars and Natural Language Structures*. Dordrecht: Reidel.
- Moreno, J. C. 1986. "Tipología de la Catáfora Paratáctica: entre la Sintaxis del Discurso y la Sintaxis de la Oración", *Estudios de Linguística* 3: 65-192. Universidad de Alicante.
- Moreno, J.C., 1991. *Curso Universitario de Lingüística General*. Madrid: Síntesis.
- Muadz, H., 1991. *Coordinate Structures: A planar Representation*. Doktorego tesia, University of Arizona.
- Mujika, J.A., 1991. "Gramatika Egitura Jakingarri Batzuk". In J.A. Lakarra (ed.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 1029-1051. Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJUren gehigarria).
- Mujika, L.M., 1982. *Hitz Konposatu eta Eratorrien Morfo-fonetika*. Bilbo: Ediciones Vascas.
- Mujika, P., 1981. *Diccionario Vasco-castellano* (II vol.). Bilbo: Mensajero.

- Munn, A., 1992. "A Null Operator Analysis of ATB Gaps". *The Linguistic Review* 9: 1-26
- Muraki, M., 1970. "Does Japanese Violate Ross' Metarules of Gapping?". *Papers in Linguistics* 3: 419-430.
- Napoli, D.J., 1983. "Missing Complement Sentences in English: a Base Analysis of Null Complement Anaphora". *Linguistic Analysis* 12: 1-28.
- Napoli, D.J., 1985. "Verb Phrase Deletion in English: a Base-Generated Analysis". *Journal of Linguistics* 21: 281-319.
- Nash Webber, B., 1978. "Inference in an Approach to Discourse Anaphora", in M.J. Stein (ed.), *Proceedings of the Seventh Annual Meeting of the North Eastern Linguistic Society*, University of Massachusetts, Amherst, Massachusetts.
- Nash-Webber, B.L. & I.A. Sag, 1978. "Under whose control?". *LI* 9: 138-141.
- Neijt, A., 1979. *Gapping. A contribution to sentence grammar*. Dordrecht: Foris.
- Neijt, A., 1981. "Gaps and Remnants: Sentence Grammar Aspects of Gapping". *Linguistic Analysis* 8: 69-93.
- Nishioka, N., 1992. "On Gapping: an Analysis in Terms of Conceptual Structure". *English Linguistics* 9: 176-195.
- Noriko, T., 1975. "Coordinate Deletion, Gapping, and Right Node Raising". *Studies in English Linguistics* 3: 19-65.
- Odriozola, J.C. & Cantero, A., 1992. "Euskal Izenondoaren Kokapenari Buruzko Zenbait Ohar". *Euskera* 37, 1035-1048.
- Oehrle, R., 1987. "Boolean Properties in the Analysis of Gapping". In *Syntax and Semantics 20: Discontinuous Constituency*, 201-240.
- Oehrle, R., 1990. "Categorial Frameworks, Coordination, and Extraction". In A.L. Halpern (ed.), *Proceedings of the Ninth West Coast Conference on Formal Linguistics*, 411-425. Stanford, CA: Stanford Linguistics Association.
- Oehrle, R. & E. Bach & D. Wheeler, (ed.), 1988. *Categorial Grammars and Natural Language Structures*. Dordrecht: Reidel.
- Oihartzabal, B., 1984. "BA- Baiezkoa aurritzia". *Euskera* 29: 351-371.
- Oihartzabal, B., 1985. "Behako bat ezezko esaldieri". *Euskera* 30: 103-115.
- Oihartzabal, B., 1987. *Étude Descriptive de Constructions Complexes en Basque: Propositions Relatives, Temporelles, Conditionnelles et Concesives*. Doktorego tesia, Université de Paris 7.
- van Oirsouw, R., 1982. "Gazdar on Coordination and Constituents". *LI* 13: 553-561.
- van Oirsouw, R., 1983. "Coordinated Sentences". *Lingua* 60: 135-145.
- van Oirsouw, R., 1983. "Coordinate Deletion and n-ary Branching Node". *Journal of Linguistics* 19: 305-319.
- van Oirsouw, R., 1984. "Accessibility of Deletion in Dutch". *Journal of Semantics* 3: 201-227.
- van Oirsouw, R., 1985. "A Linear Approach to Coordinate Deletion". *Linguistics* 23: 363-390.
- van Oirsouw, R., 1987. *The Syntax of Coordination*. London: Croom Helm.

- Oñederra, M.L., 1990. "Morphological aspects of word compounding in Basque". In *Speilarten der Natürlichkeit - Spielarten der Ökonomie: Beiträge zum 5. Essener Kolloquium über "Grammatikalisierung: Natürlichkeit un Systemökonomie" vom 6.10-8.10.1988 an der Universität Essem* (ed., Norbert Boretzky & W. Enninger & T. Stolz). Bochum: Brockmeyer.
- Ormazabal, J., 1992. "On the Structure of Complex Words: The Morphology-Syntax Interplay". *ASJU* 26: 725-767.
- Ortiz de Urbina, J., 1986. "Aspects of Basque Lexical Morphology". *FLV* 48: 205-223.
- Ortiz de Urbina, J., 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, J., 1989b. "Konfigurazionaltasunaz". *ASJU* 23, 327-351.
- Osa, E., 1990. *Euskararen Hitzordena*. Bilbo: EHU.
- Osa, E., 1993. "Esapidearen Gramatika Funtzionala (Egokitasunaren Teoriarako)". *ASJU* 27: 395-448.
- Partee, B & M. Rooth 1983. "Generalized Conjunction and Type Ambiguity". In R. Bäuerle & C. Schwarze & A. Stechow (eds.), *Meaning, Use and Interpretation of Language*. Berlin: Walter de Gruyter.
- Pesetsky, D., 1985. "Morphology and Logical Form". *LI* 16: 193-246.
- Peterson, P. G., 1981. "Problems with Constraints on Coordination". *Linguistic Analysis* 8: 449-460.
- Piera, C., 1979. "Generative and Interpretative Quantification: a Case Study". Lan argitaragabea.
- Pickering, M. & Barry, G., 1993. "Dependency Categorical Grammar and Coordination". *Linguistics* 31, 855-902.
- Pollock, J.Y., 1989. "Verb Movement, UG and the Structure of IP". *LI* 20: 365-424.
- Pullum, G. K., 1974. "A Note on Coordination Reduction and Word Order in Hindi". *Stanford Papers on Language Universals* 14.
- Pulte, W., 1971. "Gapping and Word Order in Quechua". *CLS* 7: 193-197.
- Pulte, W., 1973. "A note on Gapping". *LI* 4: 100-101.
- Quirk, R., et al., 1985. *A Comprehensive Grammar of the English Language*. London: Longman.
- Rebuschi, G., 1986. "Pour une Représentation Syntaxique Duale: Structure Syntagmatique eta Structure Lexical en Basque". *ASJU* 20: 683-704.
- Rebuschi, G., 1989. "Is There a VP in Basque?". In L. Maracz & P. Muysken (eds), *Configurationality. The typology of asymmetries*, 85-116. Dordrecht: Foris.
- de Rijk, R., 1972. *Studies in Basque Syntax*. Doktorego tesia.
- de Rijk, R., 1979. "Euskal Morfologiaren Zenbait Gorabehera". *Euskal Literatura eta Linguistika: Bide Berriak*, 83-101. Deustuko Unibertsitatea.
- Rizzi, L., 1982. "Negation, WH-movement and the Null Subject Parameter". In L. Rizzi, *Issues in Italian Syntax*. Dordrecht: Foris.
- Roeper, T., 1988. "Compound Syntax and Head Movement". In G. Booij & J. van Marle (eds), *Yearbook of Morphology 1988*. Dordrecht: Foris.
- Roeper, T. & Siegel, M. 1978. "A Lexical Transformation for Verbal Compounds". *LI* 9: 197-260.

- Rognvaldsson, E., 1982. "We Need (Some Kind of) a Rule of Conjunction Reduction". *LI* 13: 557-561.
- Royo, G., 1975. "Sobre la Coordinación de Adjetivos en la Frase Nominal y Cuestiones Conexas". *Verba* 2: 193-224.
- Rooryck, J., 1985. "Gapping-zeugma in French and English: a non Deletion Analysis". *Linguistic Analysis* 15: 187-229.
- Rosenbaum, H., 1977. "Zapotec Gapping as a Counterevidence to Some Universal Proposals". *LI* 8: 379-396.
- Ross, J.R., 1967. Constraints on variables in Syntax. Doktorego tesia, MIT.
- Ross, J.R., 1970. "Gapping and the Order of Constituents". In Bierwisch, H. & Heidolph, K.E. (ed.), *Progress in Linguistics*. Mouton: The Hague.
- Rotaetxe, K., 1978. *Estudio Estructural de Euskera de Ondarroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.
- Rothstein, S., 1991. "Heads, projections and category-determination", in *Views on phrase structure*, (ed K. Leffel & D. Bouchard). Dordrecht: Kluwer.
- Ruppli, M., 1991. "Thématisation et Coordination". *Langages* 104: 46-61.
- Sag, I., 1976. "A Note on Verb Phrase Deletion". *LI* 7: 664-670.
- Sag, I., 1976. "A Logical Theory of Verb Phrase Deletion". *CLS* 12: 533-547.
- Sag, I., 1979. "The Nonunity of Anaphora". *LI* 10: 152-164.
- Sag, I., 1980 (1976) *Deletion and Logical Form*. New York & London: Garland Publishing.
- Sag, I., 1982. "Coordination, Extraction and Generalized Phase Structure Grammar". *LI* 13-2.
- Sag, I. & J. Hankamer 1984. "Toward a Theory of Anaphoric Processing". *Linguistics and Philosophy* 7, 325-345.
- Sag, I. & Gazdar, G. & Wasow, T. & Weisler, S., 1985. "Coordination and How to Distinguish Categories". *NLLT* 3: 117-171.
- Saiki, M., 1985. "On Coordination of Gapped Constituents in Japanese". *CLS* 21: 371-387.
- Salaberri, P., 1985. *Koordinazioa Euskaraz: Zenbait Ezabaketaren Berri*. Lizentziatura tesina, EHU.
- Sanders, G.A., 1971. "Identity Deletion and Regrouping in Coordinate Structure". *CLS* 7: 264-274.
- Sanders, G.A., 1976. "A functional Typology of Elliptical Coordinations". *Indiana University Linguistics Club*.
- Sanders, G.A. & J.H.-Y. Tai 1972. "Immediate Dominance and Identity Deletion". *Foundations of Language* 8: 161-198.
- Sarasola, I., 1977. "Sobre la Bipartición Inicial en el Análisis de Constituyentes". *ASJU* 11.
- Scalise, S., 1987. *Morfología generativa*. Madrid: Alianza Editorial. (*Generative Morphology* 1984. Dordrecht: Foris.)
- Schachter, P., 1973. "Conjunction". in Stockwell, R., Schachter, P. & Partee, B., (eds.) *The Major Syntactic Structures of English*. New York: Holt, Rinehart & Wilson.
- Schachter, P., 1977a. "Constraints on Coordination". *Language* 53, 86-103.

- Schachter, P., 1977b. "Does She or Doesn't She?". *LI* 8: 763-767.
- Schachter, P. 1984. "A Note on Syntactic Categories and Coordination in GPSG". *NLLT* 2: 269-281.
- Schachter, P. & S. Mordechai 1983. "A Phrase Structure Account of 'non-constituent' conjunctions", in M. Barlow & D. Flickinger & M. Wescoat (eds.), *Proceedings of the Second West Coast Conference on Formal Linguistics*, Department of Linguistics, Stanford.
- Schmerling, S., 1975. "Asymmetric Conjunction and Rules of Conversation", in Peter Cole & Jerry Morgan (eds.), *Syntax and Semantics 9: Speech Acts*. New York: Academic Press.
- Schwartz, L., 1984. "Asymmetric feature distribution in Pronominal Coordinations", *Workshop on Agreement* biltzarrean aurkeztutako lana. Stanford, 1984 ko urria.
- Selkirk, E. O., 1982. *The Syntax of Words*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Sells, P., 1989. *Teorías Sintácticas Actuales*. Teide: Barcelona. (*Lectures on Contemporary Syntactic Theories*. Leland Stanford Junior University. 1985)
- Serra, E.N., 1981 "La Coordinación Copulativa en el Marco de las Gramáticas Generativas: Revisión Crítica (I)". *Millars VI*.
- Serra, E. N., 1984. "Requisitos para la Coordinación Copulativa con Y". *Miscel.lània Sanchis Guarner. II: Estudis en memòria del professor Manuel Sanchis Guarner: estudis de llengua i literatura. Quaderns de Filologia*, 301-305. València: Universidad de Valencia.
- Serra, E.N. & E.A. Briz Gómez, 1985. "Artículo y Coordinación: dos Manifestaciones Superficiales de la Coordinación Textual". *Millars 7: 149-160*.
- Shorrocks, G., 1992. "Case Assignment in Simple and Coordinate Constructions in Present-day English". *American Speech* 67: 432-444.
- Siegel, M.E.A., 1984. "Gapping and Interpretation". *LI* 15: 523-530.
- Sobin, N., 1982. "On Gapping and Discontinuous Constituent Structure", *Linguistics*, 20.
- Solías, M.T., (1994) *Gramáticas Catoriales, Coordinación Generalizada y Elisión*. Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.
- Spencer, A., 1991. *Morphological Theory: an Introduction to Morphology in Generative Grammar*. Oxford:Blacwell.
- Sproat, R., 1985. *On Deriving the Lexicon*. Doktorego tesia, MIT.
- Sproat, R., 1988. "Bracketing Paradoxes, Cliticization and Other Topics: the Mapping Between Syntactic and Phonological Structure", in Everaert, M. & Evers,A. & Huybregts, R. & Trommelen, M. (eds.) *Morphology and Modularity: in Honour of Henk Schultink*, 339-360. Dordrecht: Foris.
- Steedman, M., 1987. "Combinatory Grammars and Parasitic Gaps". *NLLT* 5: 403-439.
- Steedman, M., 1993. "Categorial Grammar". *Lingua* 90: 221-258.
- Steedman, M.J., 1985. "Dependency and Coördination in the Grammar of Dutch and English". *Language* 61:523-568.
- Steedman, M.J., 1989. "Constituency Coordination in a Combinatory Grammar". In M. Baltin & T. Kroch (eds.), *New Conceptions of Phrase Structure*, 201-306. Chicago: University Press.
- Steedman, M.J., 1990. "Gapping as Constituent Coordination". *Linguistics and Philosophy* 13:207-263.

- Stillings, J. T., 1975. "The Formulation of Gapping in English as Evidence for Variable Types in Syntactic Transformations". *Linguistic Analysis* 1: 247-274 .
- Stump, G., 1982. "Interpretative Gapping in Montague Grammar", *CLS* 18: 472-481.
- Schwartz, D. B., 1985. "Case and conjunction. *Southern California Occasional Paper in Linguistics*, 10.
- Tai, J.H.-Y., 1971. "Identity Deletion and Reagrouping in Coordinate Structures". *CLS* 7: 264-275.
- Tato, L., 1976. "Sobre la Coordinación". In Sanchez Zavala (Ed.), *Estudios de Gramática Generativa*. Labor.
- Thrainsson, H., 1975. "Gapping in Icelandic: Functional Explanations and the No-ambiguity Condition". *CLS* 11: 604-614.
- Toman, J., 1985. "A Discussion of Coordination and Word-Syntax", in J. Toman (ed.) *Studies in German Syntax*. Dordrecht: Foris.
- Trask, R. L., 1977. "Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses". *Anglo American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*.
- Trask, R.L., 1983. "Euskal Izen Sintagmaren Egituraz". in *Iker* 2 (Euskaltzaindia), *Piarres Lafitteri Omenaldia*, Bilbo, 599-611.
- Txillardegi, 1984. *Euskal Azentuaz*. Donostia: Elkar.
- Valmala, V., 1995. *La Elipsis de SV sin Rección*. Doktorego tesia, EHU.
- Valois, D., 1991. *The Internal Syntax of DP*. Doktorego tesia, UCLA.
- Van Valin, R. D., 1986. "An Empty Category as the Subject of a Tensed S in English", *LI* 17: 581-586.
- Varela, S., 1990. *Fundamentos de Morfología*. Madrid: Síntesis.
- Vergnaud, J.R., 1974. *French Relative Clauses*. Doktorego tesia, MIT.
- Villasante, L., 1974. *Palabras Compuestas y Derivadas*. Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu.
- Ward, G. & Sproat, R. & McKoon, G., 1991. "A Pragmatic Analysis of so-called Anaphoric Islands". *Language* 67-3.
- Warner, A.R., 1988. "Feature Percolation, Unary Features, and the Coordination of English NPs". *NLLT* 6: 39-54.
- Wasow, T., 1979. *Anaphoric Relations in English*. Ghent: Story-Scientia.
- Webber, B.L., 1979. *A Formal Approach to Discourse Anaphora*. New York: Garland.
- Weisler, S., 1982. "Coordination and the Syntax of That-clauses", in Alan Prince and Steven Weisler (ed.) *U. Mass. Amharst Occasional Working Papers in Cognitive Science*. University of Massachusetts, Amherst, 113-134.
- Wierzbicka, 1980. *Lingua Mentalis. The Semantics of Natural Language*. Sidney/New York: Academic Press.
- Williams, E., 1977a. "Discourse and Logical Form". *LI* 8: 101-139.
- Williams, E., 1977b. "Across-the-board Application of Rules". *LI* 8: 219-223.
- Williams, E., 1977 c. "On Deep and Surface Anaphora". *LI* 8: 692-696.

- Williams, E., 1978. "Across the Board Rule Application". *LI* 9:31-43.
- Williams, E., 1981. "On the notions 'Lexically Related' and 'Head of a Word' ". *LI* 12: 245-274.
- Williams, E., 1985. "PRO and Subject of NP". *NLLT* 3: 297-315.
- Williams, E., 1987. "Implicit Arguments, the Binding Theory, and Control". *NLLT* 5: 151-180.
- Williams, E., 1990. "The ATB Theory of Parasitic Gaps". *The Linguistic Review* 6: 265-279.
- Woolford, E., 1987. "An ECP Account of Constraints on Across-the-Board Extraction". *LI* 19: 166-171.
- Woolford, E., 1991. "VP-internal Subjects in VSO and Nonconfigurational Languages". *LI* 20: 503-540.
- Yokoyama, O., 1981. "On Sentence-coordination in Russian: a Functional Approach". *CLS* 17: 431-438.
- Zagona, K., 1988, *Verb Phrase Syntax. A Parametric Study of English and Spanish*. Dordrecht: Kluwer.
- Zagona, K. 1988. "Proper Government of Antecedentless VP in English and Spanish". *NLLT* 6: 95-128.
- Zwart, C., 1994. "Dutch is head-initial". *The Linguistic Review* 11, 377-406.
- Zwicky, A., 1978. "Arguing for Constituents". *CLS* 14, 503-512.
- Zwicky, A., 1983. "Deleting Named Morphemes". *Lingua* 58:155-175.

